

*Olatu bat kuartelen gainetik* deritzona Joan ziren zikloko aurreko bien, *Dinosauroak horizontean* eta *Orain ezin naiz hil* izenekoan, jarraipena da. Hirugarren liburuki hau ere lehenengoan abiatutako fenomeno esplikaekin baten garapena da. Ez nola ez zergatik munduan bakarrik gelditu zen edo abandonatu zuten ez jakiteak ez du protagonista biziraun beharretik libratzen. Premia horrek Oiz mendiaren hego aldetik (Durangaldetik) ipar aldeko (Lea-Artibaiko) itsasertzera darama. Lekeitio. Hemen, bere biziraupen fisikoa antolatzeagaz batera, 1960ko hamarkada aurkitzen du, diktaduraren errailetan. Euskal Herriari dagokionez, hamarkada hori eta hurrengoaren lehen zatia protagonistak gogoratzen duen arorik esplosiboena izan zen. Eleberri honetako pasarte eta pertsonaia ugariak, garai haren islapenaz gainera, eraikuntza literario bat osatzeko gai agortezina dakarte. Adimen eta oroimen hutsean gelditu den biziraule bakarrak (beste guztiak 'joan ziren'), gertaera egiazkoen eta asmatuen gainean, pizkunde edo 'olatu' politiko eta moral handi baten sorrera eta hazkundera berritzen ditu.

ISBN: 978-84-937340-4-6



9 788493 734046

 Lanku

tel. 943 260 755  
www.lanku.com


Lanku

OLATU BAT KUARTELEN GAINETIK

Xabier Amuriza

# OLATU BAT KUARTELEN GAINETIK

Xabier Amuriza



 Lanku

*Neure bizitzako arorik ederrenetakoa euren izenei lotuta sentitzen dodan eta euren abade izan nintzen Gizaburuaga eta Amorotori.*

*Aro horretan, hain hartu-emon intentsoa izan neban Lekeitio, Aulesti eta Mendexari.*

*Neure ilusino gaztea euretan zabaltzeko aukera onartu eustien Markina eta Ondarroari.*

*Neure urterik gomutatuenak bertan jardun gogotsuan emoteko subertea izan neban Lea-Artibairi.*



## OLATU BAT KUARTELEN GAINETIK

Horizontearen boa-forma batek eguzki loguratua irentsi dueneko, itsaso zangarra belaunikatu nahian agertu zait. Bere olatu inponenteak, apropos bidaliak, nire oinetan erreberentzia eginik, limurkoi erretiratzeko dira, "zatoz-zatoz-zatoz" esanez. Sen-kolpe bat izan da, olatu gazte bat haitzaren kontra bezalakoa, bortitza, kresal-usain bizikoa, baldin kresala bera ez bazen zartadaren eragile, araldi usainak bisonte bakartia senetik ateratzen duen antzera. Ez ahal naiz, bera bezala, oihana buruaren kontra apurtzen hasiko, ekologiak alderantziz agintzen zuelako. Maiz izan naiz horrela barne-kolpatua, aipatu olatuek nire haitz-barrunbea betetzen zutenean. Sarritan, hain betealdi dohatsuzko sentipena zen ezen, gerorantz zein iraganerantz gertatzen zitzaidan translazio mental hain supituan, fisikoki ere toki pentsatu hartantxe sentitzen nintzen, exaltazioaren arraulari. Tamalez, oharmena guztiz osatzerako, instant amaituak berriro itzultzen ninduen abiapuntu errealera, ez gutxitan izorratura. Oraingoan ezin du engainua izan. Itsasoak behar nau.

Sen-kolpea baino gehiago, aldikada pasional bat esango nuke, antsietate sexualaren antzekoa, bisonte aztoratuagana itzultzeko. Oso grina xedatua,

non itsasoa ez den ozeano orokor bat, txit arku zehatza baizik: Lekeitioko farotik Mendexako Kurlutxura bitartea. Herrigunea, portua, hondartzak. Eta uharte bat aurrean, badiatik ihesi dirudiena, edo badiari eskapatzen utzi nahi ez diona, segun nolako aldartez begiratzen zaion. Uharte hori beti iruditu zait monumentu bat, itsasoaren immensitatea giza neurrira bihurtzeko ezarria. Lekeitio bera gabe imaginatzen saiatzen nintzanean, hutsunezko larritasunak ematen zidan. Halako suposamenik ezin nuen jasan ariketa mental gisan ere. Nire oroimenak, berrogei urtera, ezintasun berdinean darrai, berdin darraien bezala Lekeitio ezin irudikatuz, olatu orokorrera era lekeitiarrean dzangatu zen bertako gazteria gabe. Oraintxe ez nekike nire bat-bateko itsas-grina ez ote den itzul-min bat besterik izan, neu ere olatu harexen osagai izatearen sentipen energikora. Zer dira berrogei urte, iragana gertagai bihurtzeko gai den oroimenarentzat, abantailagaz ezen badakiela gertatzekoa nola gertatuko den, hots, nola gerta dadin komeni den?

Adin ezberdinetako zenbait neska-mutil taldek osaturiko gazteria baten partaide naiz. Helduenen taldean, potenteagotzat jotzen diren ekimen puntualetan, eskualde osoko ordezkariak batzen dira, lekeitiar taldekide baten familiaren lokal leihogabe batean. Ez naiz zaharrena, baina banintz bainoago, apaiza naizen aldetik. Lekeitiarrentzat 'Gizaburuagako abadea' edo 'Amorotoko abadea' naiz, segun bakoitzak zein herrigaz duen lotura gehiago. Lekeitioko estamentu dominanteentzat, 'intruso nahasle bat'. Lokal dohatsuki itsu honetan, argia joatean, edo mozten digutenean, aurpegiak askoz deigarriago egiten zaizkit, neskenak batez ere, bi kaxa tentetan kokaturiko kandelaren argitasun asimetrikoa. Gaur horrelaxe tokatu da, nire pozerako. Bizkor ibili behar da, kandelak urtu aurretik. Zerbitzu sekretuek isil-grabaketak egiteko gogo adina baliabide balute, batzarraren radiografia honela jaso ahalko lukete:

- Inoiz sobra ez dagozen, baina beti be atzeragarri diren gogoeta orokorrak utzita, gatozen gai nagusiaren konkrezinora. 'Bienvenidos a Lequeitio' turista-eguna. Zelan heldu leitekio? Alegia, zelan heltzea komeni da? -galdetzen dut.
- Eguna lehertu ahal balitz, horixe onena -batek.
- Lehertu, zegaz? Gerra-ontzia ekarriko dok? -ondokoak.
- Ez litzatekek okasino txarra, egun batetik bestera ailegatuko zirelakoan, gerrari eusten jardun genuen hegazkin inexistente hareek ateratzeko.
- Lagunok! Utz ironiak, eta gakora, kandelak badoaz eta. Eguna lehertzeko gauza bagina, zer lehertu beharko geunke? Turisten etorrera? Herriarren bizibidea? Elkarbizitza? Herriarren eta erbestetarren arteko harmonia?
- Nik uste dot gauza bi izan behar doguzela argi: helburua eta ahala. Kasu honetan, helburua eta gure ahala batu leikezela uste dot. Ahalik jenterik gehienen gogoia irabaztea komeni da. Herria noraezean edo elkarren kontra ipintzeagaz ez dogu ezer

*aurreratzen. Jai itxuran, egun falangista bat, gehienentzat higuigarria, ezarri nahi deuskue. Guk, batez be, eguerdiko ekitaldi nagusia salatu behar dogu, non, erregimenaren aurpegi ofizialen ondoan (Informazio eta Turismo ordezkaritza probintziala, Gobernu Militarreko, Zibileko eta Aldundiko ordezkariak, Mogimenduaren arduradun komarkala, Kuarteleko kapitaina, Itsas Komandantziako burua...), herriko jantxakur politiko guztiak eta negoziadun batzuek nabarmendu nahiko daben. Ekitaldi arranditsu horrek adierazten dauen guztiaren salaketa eta, ahal balitz, porrota: horixe da interesatzen dena. Ekimen honen bitartez, herriarren kontzientziak astintzera eta ahalik zeresanik aldekoena sortzera jo behar dogu.*

- Horrela esanda hain polita dirudiena zelan lortzen da?
- Lorpenik ezin da aurreikusitako baina saiakera erraza da: orri batzuk zabaldu geinkez herrian, muntaia salatuz eta hutsunea eskatuz. Zelako erantzuna izan den, gero aztertuko dogu.
- Ondo begitantzen jatzue denoi?
- Hoberik ez bada...
- Aurrera, orduan! Izeko Gutene-gaz nor egongo da? ('Izeco Gutene' kopiagailua da).
- Neu moldatuko naz armagintzako eskolan. Zenbat jaurtiko doguz?
- Toki ondo pentsatueta ehun bat zabaltea nahikoa izango da, gero ahoz ahoko kanpainan fintzen bagara.
- Hurrengo batzarrerako, orriak prest egon leitekez?
- Armagintzan ez bada kofradian, aurkituko dogu pirata-moduren bat.
- Ederto! Datorren astean egingo dogu orrien geure arteko banaketa eta zabaltze plana.

Panfletoa esku etsaietara iristea ez zen zaila izan, taldean beti izaten den balienteago batek guardia zibilaren kuartel aurrean jaurti baitzituen pare bat, irakurtzen ez zekienak bata jasotzea gertatzen bazen, bestea bazekienari pasa ziezaion. Orriak zabaldu zireneko, gazte batzuk kuarteletik pasarazi zituzten, Gernikako kuartel zentraletik bereziki etorritako Ventoso kapitain beldurgarriro entzutetsuak egoera esplora zezan, era probisionalki zibikoan.

- Hik idatzi duk panfleto hau?
- Ez, jauna.
- Ezagutu ere ez?
- Nik ez dut horrelako zerrikeriarik irakurtzen.
- Zerri artean dabilena zer duk? Untxia?
- Lekeitio bada familia bat, 'Untxianekuak' esaten zaiona.
- Gure familia zer duk Lekeitio?
- Nik beti 'kuartela' entzun dut.



- 'Txakur' konturik ez duk entzun?
- Hori ez entzuteko, zerria izan behar da.
- Oraindik ez didak argitu gure familiarena nola litzatekeen.
- Ba... uste dot...
- Esak beldur gabe!
- Inoiz entzun izan dot... 'Txakurranekuak'.
- Heuk ez duk sekula esan?
- Oraintxe, lehenengoz.
- Iritsiko zaizkiala uste diat maizago esateko motiboak. Oraingoz, irakur ezak orria arretaz, eta idatz ezak itzulpena atzeko aldean. Itzulpen zehatza, eh!, bakarra ere ez haiz izango eta. Hire eta pasatuko diren guztien artean, kontradikziorik aurki baneza, denok batera pasaraziko zaituztet mahaitik, era... txakurragoan!
- Nik erdaraz gutxi dakit, jauna, eta besteek ere askorik ez.
- Dakizuen idazteko ez duk behar jakintzarik.
- Bai erdara diferenteak egingo ez bagenduz.
- Alua! Horixe bai ezin dudana barkatu! Geure batasun territorial sakratua bermatzearren, gerra bat irabaztea deklaraztea baino gehiago kostatu zitzaigularik, orain hizkuntza nazionala ere puskatu behar al diguzue?
- Euskaraz horrelaxe ohituta gagoz, jauna.
- Euskara eta kazaharra, gure instituzio garbi hau aparte! Gaztelania bat eta bakarrean idatziko didazue, aitzakiak uzkitik sartuta. Entzun? Hasi!

Adi, Lekeitio!

*Atención, Lequicho!* (Kazaharra! Hau zelan idazten dok? Lek... Leq... Lekeitio... Leputio!) *Atención, Lekeitio!* (Orain zelan ezabatu behar joat lehenen idatzi do-dana? Lequicho... Lichoque!).

Erregimenak eta bere laguntzaileek egun apalgarri eta txakurgarri batera deitzen digute...

*El régimen y sus colaboradores nos convocan a un día humillante y...* (dios! hau horrela ipintzeko...).

- Itzulpen literala esan diat, eh!

(¡bai, ene sarjento! literal como un entierro) ... *humillante y... perrífico* (hor konpon!)... 'Bienvenidos a ...'

- Barka, jauna, baina utzi beit, lehenik, orria astiz irakurtzen (ea moldatzen dodan hiri zer esan, txarriburu horri!), gauzarik erdiak ezin dodaz ulertu eta. Hortik atera kontua nik zer zerikusi izan neikeen nahaste honetan.
- Hori neuk erabakiko diat! Bi minutu dauzkat irakurtzeko, eta bat, ulertzeko. Ez nauk Bermeotik etorri, zomorro inkompetenteekin kategoria galtzeko.
- Gernikako kapitaina ez al da, ba, berori?
- Ni kapitaina nauk... potroak kulunkatzen zaizkidan edonongoa, entzun?
- (Eskerrak horixe itzuli beharrik ez daukadan!).
- Hamar minutu barru natorrenean, dena ondo ulertua eta hobeto itzulia ez badaukak, metodo ortodoxora pasatuko gaituk.
- (Kasik hobe bera, gero bardin izatekotan!).
- Zer izan dok ezpainketa sibilino hori?
- Mater amabilis, ora pro nobis, jauna.
- Ekin, orduan, orria uzkitzea nahi ez baduk!

Adi, Lekeitio!

Erregimenak eta bere laguntzaileek egun apalgarri eta txakurgarri batera deitu digute, 'Bienvenidos a Lekeitio' aldarri lebantinoaren azpian. Lekeitiarrok ez daukagu gure itsasoa gozatzerazatoztenok eskertu beharra besterik, herri honekiko errespetuz zatozteno. Lekeitio kosta-herri euskaldun bat da, bere izatea berreskuratu eta balia-razi nahian dabilena, Euskal Herri osoa bezala. Zuek eta gu, elkarrekin askatzen saia gaitezen nahi dugu, etorkizun burujaberantz.

Badakigu udal agintariak eta beste erakunde eta elkarte batzuetako ordezkariak (batzuek gogoz, ez gutxik derrigorrez), eta aktuatzaileak (musika-banda, dantzari eta abar) zail duzuela asistentziatik libratzen. Izazue, gutxienez, parte-hartze lotsatuaren duintasuna.

Badakigu eliz agintariak ere zail duzuela eskatu zaizuen meza nagusi solemneari uko egiten. Zer zentzu luke, ordea, zuen presentziak plazako ekitaldi viva-españarrean, eta gainerako jai osagarrietan, bazkaria barne, Elizaren mentasun indignoa eta antikristaua errepikatzeke ez bada?

Eta zuek, herritarrok, berdin lekeitiar zein aisian etorriok! Ez dago esan beharrik menpeko dohakabeon beldurra, baita izua ere, ez dela arbitrarioa, oso motibo lazgarrietan oinarritua baizik. Ez dugu konpromiso heroikorik eskatu nahi. Bakar-

**bakarrik, ez-partehartze kolektibo bat. Inasistentzia soil bat. Inor ezin dute jazarri, ikusle agertu ez delako. Egizue lo, gaixo zaitzte, zoazte edonora, desager mapatik, baina ez ezazue zeuen presentziagaz dignifikatu diktaduraren zutoinek eta herriko kolaboratzaile altiboek irentsarazi nahi diguten infamia. Gera bitez eurak bakarrik, euren prepotentzia kirten eta kabernarioan.**

### **Santiago eguneko ospakizunetan, DENOK AUSENTE!**

Kuarteletik eragin zuten lehen iragaitea pulsu-hartze prebentibo bat, kasik madrildar sainete bat izan zen, ospakizunen porrotik otu ere ez zitzaielako edo. Bigarren sarealdia erregimenaren esentziarik berezkoenekin iritsiko zen, ikusi zutenean, egiazko egunean, nolako ridikulua irentsi behar izan zuen euren erakustaldi inperialak. Biharamun goizaldean, dozena erdi gazte atxilotu zituzten, dozena baten bila joanik, erdiek lortua baitzuten garaiz ezabatzea. Beldurrak euren burua atxilogai ikusarazi zien beste batzuk ere desagertuz joan ziren. Zaila zen neurtzea zer zen handiagooa, operazioak herrian zabaldu zuen izua ala pilatu zuen amorrua.

- *Nora goaz?*
- *Ezkutatzea ez al dozue eskatu?*
- *Eskatu bai, baina...*
- *Orduan ez galde ez nora ez zelan! Uzten zaitueen tokian, egon hantxe geldi eta isil, maleta galduak legez.*
- *Eta kakalarrria datorrenean?*
- *Eutsiezina bada, egin ahalik isilen, eta itxi maleta.*
- *Usainetik aurkitu gaiezen?*
- *Arrisku bat dok, 'usnatzaileen' kontra.*
- *Animo ederra damoskuzu!*
- *Kakalarririk libratzeko modurik efektiboena baraua dok.*
- *Gosea kantaria dela jakinda?*
- *Hilabeteko goseagaitik inor ez dok hiltzen.*
- *Apur bat erosoago egoteko lekuan ezin gara ezkutatu?*
- *Zagoze, trankil, oilook, behar denik ez jatzue faltako eta!*

Egun batzuen buruan, atxilotu batzuk kartzelatuak izan ziren, besteak askatuak. Denak ere ondo apurtuak, miragarriro, 'existitzen ez ziren' torturen bidez. Barruratuak izan zirenak ere, batzuk denbora batera askatuko zituzten, bistara agertzeko moduan zeudela iruditu zitzaientean, nahiz eta ondorioak luzerako etorri aldean. Beste batzuk oso denbora diferentean sartu ziren. Izugarrikeriok gertatetik berehal, berriz ere lokal leihogabe hartatik, deialdi bat zabaldu zen abuztuaren lehen iganderako, herrian banatu ziren honako orrien bitartez:

**Adi eta sendo berriz ere, Lekeitio!**

**Lekeitioko bizilagun guztiok! Berdin herri hau zeuen atsegin-lekutzat hautatua duzuen erbestetar guztiok!**

**Lehenik eta behin, zorionik kolektiboan, Santiago eguneko erakustaldi inperialari merezi bezalako ausentzia impresionanteagaz erantzun zenietelako. Irentsi behar izan zuten hutsune gloriosoaren ordainez, dakiten eta daukaten ordain bakarria aportatu dute: errepresio gordina eta itsua.**

**Herritar askok ezkutatu behar izan du guardia zibilaren jazarpenetik. Euren eskuetan jausteko patua izan dutenak, berriz, basaki torturatuak izan dira. Batzuek oraindik euren atzaparretan darraite, herritar guztiok ondo eta saminez dakizuen moduan.**

**Armen basakeriari eta erregimen diktatorial honi, jarki diezaiogun, berriz ere, herri baten duintasuna, izuaren aurrean ez makurtzea, eta geure giza eskubideei eta politikoei bretxa bat irekitzeko erabakia.**

**Datorren igande eguerdian, abuztuaren 4an, hamabietatik hiruretara, kaleak hutsik, hondartzak hutsik, elizak hutsik, herri osoa hutsik.**

### **EZABAPEN OROKORRA**

**OHAR GARRANTZITSUA:** Ez zaizue eskatzen dendak, tabernak, es-tablezimendu guztiak, elizak barne, ixteko konpromiso larririk. Ez dago zertan agerian arriskatu eurak hainitsuak diren errepresalia jakinetara. Horrela, herri-tarren ezabatze boluntarioa nabariago eta mingarriago geldituko zaie. Eta erregimenaren leial agertu nahi dutenak argiago ezagutu eta kontaktuko ditugu.

**Jarki duintasuna errepresioari! Jarki herri baten kontzientzia diktadurari!**

Abuztuaren lehen igandeko Lekeitio hura antzekoena izan zen orain, handik berrogei urtera, munduan neu bakarrik aurkitzen naizen ikuspegi tipil honena, ausartu ziren ofizialista balienteak ere, alde batetik agertu ahala, bestetik desagertzen baitziren, hainbesteko desolazioa ezin jasanik, edo, agian, hustasunaz ikaraturik. Antzekoena diot, ezen ez berdina, zeren orduan kosterririk txukunenak ere, gizaki gabe, ruinategi totala bazirudien, orain, bizilagun bakar neu, herririk



biziena irudituko zait. Horrexen bila noa kontzientzia osoz, eta ziurtasun osoagoz, osoa baino osoago zer izan daitekeen jakiteko irrika biziz.

Ekintza edo desekintza hasi zenetik ordu eta erdira, guardia zibilaren pare bat jeep berde, garbitu berritan ere zikin ematetik libratu ezin zirenak, gudu-zelaia zeharkatzera atera ziren. Herriaren erdigunean, Eskolapean, errusiarrak zapal berri zuten ilargiko mortuan bezain mamu ingrabido zoruratu zirenean, ezin zuten asmatu zein kaletatik jarraitu, ez hainbeste, senak eskatu ohi zien ehizarik inorantz usnatzan ez zutelako, baizik desorientaturik bezala euren kuartelaren posizioaz.

- *Nor jazartzera bidali gaituzte?* –galdetzen du aurreko ibilgailuak.
- *Gure eginkizuna topatzea da!* –darantzu atzekoak.
- *Sar zaitezte taberna horretara, ea zer panorama dagoen* –agintzen du sarjentoak.
- *Hau itxita dago, ene sarjento!* –hots egin dute beste ezpaloitik.
- *Itxita nola? Jo atea, edo bota!*
- *Banatooor!!* –entzuten da barrutik ahots amorratu bat, guardia zibila dela ikustean, bat-bateko makur-tonuan darraiena: –*Ene jaunak! Atea bihar be behar dogu gero!*
- *Nola daukak taberna itxita?* –sumintzen da sarjentoa, dagoeneko bera ere oinezko-. *Kontsigna ez al zen zabalik edukitzea?*
- *Parka, jauna, baina inor ez bazetorren, eta etortzeko itxurarik ez bazegoen, zertarako egon behar genduen alperreko gastua egiten?*
- *Txori txiki batzuen gastu ziztrinari begira al hago, herrian subertsioa deklaratu denean?*
- *Herrian balitz! Ba al daki berorrek zerk izorratzen nauen gehien? Gu hemen eulibikoteei begira gagozen bitartean, Mendexa, Ispaster, Oleta, Ondarroa, Markina, Gernika... inguru guztia aberasten ari da Lekeitiotik ezabatutako jenteagaz.*
- *Eskurtsioan, gainera? Jendea ez al dago etxeetan gordeta?*
- *Ez dot uste, jauna. Joan zen astean izan zen eskarmentuagaz, jentea bildur da etxean egoten.*
- *Hik itxi duk, ba, taberna, beldur handi gabe!*
- *Itxi dot, jauna, baina ez bildur handi barik.*
- *Ez al duk zergarik ordaintzen, establezimendu publiko bati ordutegi bat dagokiola jakiteko?*
- *Nik ez dot taberna orduentzat zabaltzen, jauna, publikoarentzat baino. Eurok nahi badabe, atseginez aterako deutset atoan erronda bat.*
- *Errondetarako gaudek oraintxe! Goazen alboko kafetegira.*
- *Hau ere itxita dago, ene sarjento!* –hots egin du numero aurreratua.
- *Denok al gaude zoratuta?* –sumintzen da areago sarjentoa, bera ere fenomeno-

noaren barruko sentitzearen higuinez-. *Hi ere bai?* –oihu egiten dio ate-zartetara ikaraturik agertu den gizonari.

- *Ni ere bai, zer, jauna?* –galdetzen du noraezean kafetegiko ugazaba azal-zuriak.
- *Kontsigna ez al zen tabernak zabalik edukitzea?*
- *Ni ez nago nahastaille endekatu batzuen kontsignak obeditzeko!* –nasaitu da, bebingoz, eta zangartu da gizona.
- *Gure aldekoa al haiz?*
- *Espainia bat eta betikoa naz ni, jauna, bere Kaudilloa eta denon Jainkoa legez.*
- *Joño!* –hots egiten du apatzago sarjentoak-. *Uste diat oraintxe badugula zeregin argi bat.*

Sarjentoaren argitasun estimulantea tabernak eta establezimendu guztiak ixtea izan zen, erreskan. Herritar ageri bakanen artean zabaldu zen harrimena (*egia ete dok jente honen printzipio eragilea extralogikoa dena?*) kasik durdimen eskatologiko bilakatu zen apaiz, fraile eta mojen gogoetan, aurkitu zutenean herriko bost elizak ere, parrokiak eta lau konbentualak, operazioan sartzen zirela. Hilerria ere bai. Honenak, nahitaez, dohain extralogikoz izan behar zuen, zeren, egun hartan hainbeste aldiz entzun zitzairen moduan, 'denak akabatu behar baziren', zaila da igartzea hilerria ixtetik zer abantaila itxaron zezaketen.

Arratsaldean, Lekeitioko kaleak eta hondartzak berriro jendeztatu ziren, inoiz baino mukuago agian, gizakiaren sen horregatik, non, balentria ustez eder baina estuen ondoren, masa baten konfuentzia sentitu behar den. Baita halako garaietan handitu ohi den inpresio geroz garaileagoen premiagatik ere, etorkizun hurbileko kinka saihestezin bezain kezkarrien aurrean.

.....

Uste gabeko itsas grinari esplikazio bat aurkitu diot, baina oraindik parte nagusia falta dela uste dut, pentsatuago eta bizikiago menperatzen bainau berak. Neurez lehortarra izanik, harritzen naiz nola, bat-batean eta distantziara, kresalak atzitu nauen, iraganeko jende maitatuagaz edo ibilera pozgarriekin lotzen zaidalako ez bada. Dagoeneko ikasia behar nuke gogoaz gizakideen presentzia gabeko sentazioekin taxutzen, baina, beharbada, ezinezko dateke, hala izatera, seguruenik, piztia bihurtu beharko bainuke. Hori ere ez dut nahi, mundu osoaren jabego intelektuala soineratu zaidanean.

Badira hiru hilabete, kiratsetik ihesi joana nintzen Oiz mendiko konfinaziotik etxeratu nintzena, eta urduritzen hasita nengoela igartzen nuen. Hortik

larritzera jauzi txikia dagoela jakinik, eta neure burua ezaguturik, uste dut larritana, egoera honetan, biziraupenaren hondabide litzatekeela.

- *Esku arterako be beharko neuke diru apur bat* –kexatu zen laurogei urteko apaiz bat, zaharretxe diozesanoan.
- *Ez al daukazu ezer aurrezturik, bizi guztian zeure buruaz beste ardurarik izan ez eta gero?*
- *Berrogei mila euro daukadaz, urtean bost mila gastatzeko. Zortzigarrenean suizidatu egingo naz.*
- *Egintza hori prestatzeko hasi al zara mezatara huts egiten?*
- *Orduantxe egoten baita egunkaria libre.*
- *Bai elizgizona! Bakarrik falta jatzu hiltzea "ez sakramentu santurik, ez bedeinkapen apostolikorik barik".*
- *Segun suizidatzea aurretik ala atzetik datorren.*

Nire antzinako parroko maiteak (maiterik gehienek zergatik izan behar dute antzinako?) ez zuen mehatxua betetzeko aukerarik izan, erabakia urrunegi jarri zuelako. Neu ere ez naiz, seguruenik, suizidatuko, baina bai, beharbada, zorian ibiliko, gizatasunaren gorena ei den pentsamen honek, bertara iristea hainbeste milioi urte kosta eta gero, berak desespera bainazake, zerbaitegaz distrahitzen ez badut.

Egoera argia da. Badut pilaturik bizpahiru urterako janari iraungarria, baina egun bat iritsiko da –hala bedi!–, dena neurez atondu beharko dudana, daukadan hornigaiak lehenago hondatzea ere balitekeela jo gabe. Izango ote naiz lehen gizakien eran moldatzeko gai, hau ez denez gero biziraupen-programa bat Patagonian? Zer eta nola ehizatu behar dut? Ondoez bat hel dadinerako, zer eduki dezaket gordेरik, eskura-erraz? Nola ikas dezaket jakiak kontserbatzen, ez argindarrik ez argibiderik itxaron ezin dudan lekuan? Ez dut erantzunik eza galderak ka-teatuz disimulatu gura, nahiz eta ideia beronek ere galdera gisan aberatsago eman zezakeen, esaterako: *Zertarako jarraitu behar joat galderak kateatzen, erantzunik eza luzeago eta ezago dela nabarmentzeko ez bada?*

Badakit nire larri-puntua zerena izan zitekeen: ez neukan zereginik, egurra pilatzeaz besterik. Zenbat eta zertarako pilatu behar dut, ordea, inguru guztia lurra eta zura bada? Zikintzen ez dudana garbitzen edo narrasten ez dudana txukuntzen ezingo naiz egun guztian ari, lehen alderantziz ozta egiten nuenean. Hain gogoko nuen ibiltzeak ere ez dit pentsaketarik eragozten, areagotzen baizik. Eta, gainera, ez naiz ausartzen etxetik urrunegitzen. Marka da gero, noranahitasun totala egokitu zaidanean, zilak honen erradio motzera atxiki nazan, sokak

asto lotua laiara bezala! Lanak bakarrik difuminatzen dit burua, baina, horretarako bakarrik, lan ez-beharrezkoei ekitea absurdoago egiten zait, bizi guztia, haurtzaro inbentiboa batez ere, lanetik nola libratu pentsatzen eman ondoren. Nahasten ere ari naiz. Hain maite nuen pentsaketak orain, nahi adina asti dudanean, berak jan behar nau, aurkitu baitut, erlazio objektibo guztiak ezabatu direnean, lehen-go kateadura berberekin pentsatzen eta sentitzen dudala. Burua gilotinan moztu dioten jeneralak pentsatzen jarraitzea bezala eman dezakeen onena uzkia dela. Azkenean, arestian usnatu bezala, ea egitan gertatzen zaidan dilema suizidagarria: edo pentsaketak akabatu nau, edo pentsamena akabatu zait. Horretarako ez zuen merezi munduan bakarrik utz nindezaten. Piztia soil bat izatekotan, aski nuen giza-tasuna.

Susmatzen dut zer izan daitekeen, oraingoan irudimen orotatik at. Ebo-luzio denbora kasik infinituaren zentzu kulminatzailea azken une infinitesimaleko gizakia zelakoan bizi nintzen, ez fanatikoki, noski, baizik, beti zerbait aportatzetik ezin libratzeko gaixodunek ziotenez, eboluzioaren interpretazio minimoki baiko-rrerrez. Delako zentzugarri oro desagertu denean, nire garun ustez integratuari hasie-ragazko konexio-hari biluzia bakarrik gelditu zaio, hondeaketa munstros horietan galtzada paleolitiko bat azaltzen zenean bezala. Itsasoaren grinak jo nau, bizia bertan abiatu zelako baino ez gutxiago, zama handiegia zaidalako geroztiko bilakaera guztiaren erpin bakar gelditzea. Zazpi mila milioi indibiduoren artean konpartit-zeak gehiago argitzen ez zuena, bestalde. Bitarteko ama-sabel guztiez gabeturik, ezin dut pausalekurik aurkitu, batzuetan nahitaez menderatzen nauen itzuleran, itsasoaren altzoraino jausi arte; hots, bizi-maila guztiak kateatzen dituen (omen) sen basikora. Sen hori zer den ezin dut azaldu. Bakarrik dakit, bat-batean, itsas grina soil baten sentipen bortitza naizela. Sentipenak horrelakoxe esplikazioen bat izatea besterik ezin dut deduzitu, nahiz eta, horrela, izaki nabarmenki absurdo-tzat gelditzen naizen, sare pentsalaria ezabaturik, sare beraren arabera pentsatzen jarraitzen baitut. Egitura elektriko guztia funditurik, martxan gera ledin transfor-madorea bezala. Zeren martxan, ordea, seminario atzeko erreka kontrari, eraistetik ere ahaztua izateraino, denetik mozturik tentetzen zen dorretxo kutun haren mal-lenkonian ez bada, non giza zelula txit hauta eta sekretua hain era ziraunkoian eza-batzen ginen, unibertso ihestezin haren barruan zoko askatu bat moldatzeko, zeina-ren konpliera, bestalde, zigarrotxo debekatu batzuen erretzea besterik ez zen? Edo neure izate fisiologikoan barneraturik, aparatu guztia desegin eta digestioak berdin balerri bezala eduki zaharrari eragiten. Alegia, garbi esanda, mokordo guztiagaz gelditu naizela.

Bat-bateko itsas grinaren esplikaziotzat, bere eutsiezinaz harago, eman dezakedan arrazoi bakarra bihozkada bat da ezen arrainetik ez ote nukeen bizibide



errazagoa izango. Zergatia itsasertzean bertan ikusteko utziko dut, fidaturik behingoz zientzian, dioenean kontzientziaren analisi astitsua ez dela iristen, sarritan, inkontzientearen erabaki azkar baten zulentasunera. Eta hori ez bihotzak buruak ulertzen ez dituen arrazoiak dituelako, baizik burua delako ilargi bat, zeinaren alde ezkutua askoz handiagoa den alde ageria baino, hainbestearaino ezen beldur gabe baieza dezakegu Jainkoa bezain infinituak garela, hura jakindurian bezala gu ignorantzian. Hori Jainkoaren existentziaren suposizioan, zeren, bestela, gure ignorantzia abantaila infinituan legoke harekiko.

*Agur, ene etxe, geratu zaidan bakar maite. Oraingoan ez nauzu itzuliko. Zeure egilearen laztan gabe iraun beharko duzu. Egizu, nahi baduzu, Aresti suharak defenda zaitzan, abandonatu zaitudalako ni kondenatuz. Horretarako bada, ziur entzungo zaitu, lantza bihurturiko bere arimagaz eternitateari eginiko zulotik. Irauzu, nahi baduzu zutik, etzanda, ruinan. Hiruretako edozein duzu posibilitate dohatsu, Oizek sehaskatzen eta Anbotok jagoten zaituen malda honetan. Joan beharra nauzu, ni eta zu baino gehiago den grinak eramana. Inor ager baledi, ez esan joan naizenik. Ez esan bizi naizenik ere. Honezkero, nahiago dut fenomenoari bere jitean jarraitu, ezen ez, lehenera itzulirik, etorkizun moztu baten erreminean alatu.*

*Ez dizut agintzen gogoan eroango zaitudanik. Horrek niretzat balio lezake, balioko du, baina zuri ez dizu ezertan eragingo. Badakit zuri bihotz-minak itaizurean joaten zaizkizula. Zure kantoi-harriek nahi zuten, bai, nire bizkarren hatz-egitea, egunsentiari, gaupasatik bueltan, oles negion bitartean, edo ilunabarri agur, etxe-egunetan; edo Anboto eta Udalatx mendien arteko erdigune exaktoaren bertikala markatzen nuenean, bertan araberako hazkaldiak egiteko, ornoak erreparatuz; edo ilargiaren hodei arteko behin lasterketa, behin ihesa animatzen nuenean. Zure balkoiak nahi nau, oraintxe ere, bere eskudel gastatuaren gainean, ikusteko nola ditudan txoriak euren kantuen imitazioz nahasten; edo ataritik antsietate bekaiztiz begiratzen duen txakurrari nola dizkiodan muturrera listutantik jaurtitzen; edo, beste gabe, loak pilaturiko nagiak nola dizkiodan izadi axolagabeari oparitzen, txiza zarrastadaren soinuan. Zure gorputz monumentalak berari inguruka sentitu nahi ninduen, giltza galdurik, etxera nondik sartu asmatu ezin nuenean, inor ez zegoen edo egoterik komeni ez zen goizaldeetan. Orduan, kanpoan disimuluz utzia nuen eskailera kankailuagaz igotzera arriskatzen nintzenez, majo arduratzen zinen normalean erdi-zabal egon ohi zen goiko komuneko leihoa ondo itxita aurki nezan. Edozein astiunetan, gauez, egunez, malenkonian zein adorean, behin zure aurpegiei laztanki begira, behin zure begiraden gainean izadia xurgatuz, etxe-bira hunkituan nahi ninduzun, eta nauzu, halako eran nola Ederne bat ia despotikoki gozatzen den, beragaz zoratua dela badakien amoros gautarra inguruan erabiltzeaz. Edozein aitzakia dela bide, edo gabe, zeure teilatuan nahi nauzu, ez*

*katu sentsazioarren, zeinarentzat teilatua ez den eguzki-panel bat besterik, baizik emozioa sentitzeko ezen ondo egin nuela etxea oinarritik hasteaz, teilatuan buka zedin, bertatik, neure egintza zaren idulki nirekiko inponente horretatik, izadiari ia gaintasunez begira niezaion, bera iraindu gabe. Laburtuz, zeuganako dependentzia osoan nahi nauzu, halaxe oker ohitu zaitudan neure erruz, duda gabe. Hala ere, horiek guztiak egiak izanik, badakit, ni joandakoan, zuri ez zaizula bat ere kostako txoriei zein piztiarik lapurrenei uztea hurreratzen, barruratzen, zutaz abusatzen.*

*Eskertzen dizut Oiztik itzuli ondoko hiru hilabeteon... 'zoriona' esatera nindoan, baina diodan dohatasuna. "Zergaitik abandonatzen nozu?" galdetzen badidazu, ez daukat arrazoizko erantzun argirik, baina neuk ere kardatu ezin dudan sen nahasi batek joan behar dudala diost, mehatxu-aire iruditzen zaidan indarrez, obeditu ezik, oker handiren bat pairatu behar banu bezala. Izate zaharretik desatxikirik eta fenomeno berrira nolabait egokiturik, ez nuke erreparorik bizitzako hiruhilik intentsioena eman didazula aitortzeko, aldi berean, beldurtzen hasia ez baintz. Ez naiz ausartzen zugandik urruntzen, baina mugitu beharra dut. Zertarako gelditu naiz munduaren jabe, bertan ibiltzeko gauza ez izatekotan? Galderak ez dit, noski, ezer konpontzen, baizik muturreratzen, geroz indartsuago, egia kontradiktorio bat: mundu bat behar dut, ez ni bertan ibiltzekoa, baizik bera mugitzekoa, neu geldidagoela. Itsasoa izan daiteke. Aurrean jartzen, esertzen, etzaten nintzaion, eta baziharduen, mugimendu eternoan, neuk hautaturiko edozein distantzian. Orduan eromen nuen hura orain salbamen izan nezake. Baita gozamen ere, orduko emozioen izaerak jarraitzen badit, zorionez hala dirudien bezala.*

*Beste kontu bat izango da sen anizkun horren hari batek hartara bultzatzen nauenik sinetsi nahiezta nabilena eta, azkenean, amore eman beharko dudana. Neure adimenean isolaturik gelditu naizenez, are ezinago izango da (ezinean ere graduak orain!) senaren aurka jokatzea. Bat-bateko itsas grinaren funtsean, arraina dagoela susmatzen dut, zeina, garbi ez dakusdan zerbaitegatik, lehenbaitzen elikagai bakar izan beharrekoztat aurkezten zaidan. Horraino, sen dohatsua litzateke, arraina baino jaki maiteagorik ez baitut bizitzan izan, hain bariatua eta edozein erataria gozatsua bera, begetarianoen barkamenez, hori ere orain ozenki pentsa baitezaket. Gakoa da, ordea, arrain gordina izan behar duela, ohrr!!, eta itsasokoa. Nire senak esplizitatu nahi ez duen komenentziaren, agian derrigorren batengatik, arraina gordinik, bizirik jaten ikasi behar dut, hartzak bezala. Hartzerantz lerratzea exzitagarri zait, noski, baina zenbat denbora beharko dut hartz bilakatzen? Ez nuke nahi transformazioa halako indibiduo zahar baten adinean gerta ledin, zeinaren hortz lokatuen artetik aho-soinu gisan pasatuko litzatekeen izokina, honek hartzen duen kili-kilia haren goseak musikatzat interpreta dezan, bataren inpotentziak, bestearen antsietateak, eta bien heriotza hurbilak garunean eraginiko*

*disfuntzio dohatsuaren ondorioz. Naturari, batzuetan, heriotza jaiotza baino gehiago mimatzea interesatzen zaio, azkenaren gogorrek hasieraren disuasioa eragin ez dezan, gizakien jokaerak sobera berresten zuenez. Bat hiltzen zen, eta hor zihoan herri guztia atzetik, kanpaki dilin-dalan. "Hale! Hoa eta ez etorri gehiago!". Bat jaiotzen zen, eta, bisitaren bat edo beste salbu, albistea jakiten ere tardatu egingo zen. "Ah, bai? Jaiotzekoa zenik be ez nekien!". Bakarrean, denek esango zizuten jaiotza desiatu bat baino gauza handiagorik ez zegoela munduan, baina gero, denak batera, hilei bultz egiteko bakarrik antolatzen ziren.*

*Zuri, ene etxe, zer ardura dizute kontu hauek guztiak? Abiatzea izango dut onen. Kamioia, karran-karran, irrikaz dago garajetik irteteko, ia bakarrik alde egiteko gertu. Banoa neu ere. Lagundu egin behar diot. Agur, azkenengoz. Beste behin, nahi baduzu. Agur! Bistan izan zaitzakedan bi kilometroetan, zin dagizut ez dudala atzera begiratuko. Jakinean zaude eta ez, beraz, damurik itxaron. Ez zaitut hilda ikusi nahi. Edo negarrez, seminariorantz nindoanean bezala, etengabe atzera begiratzuz, edo atzez zuri begira, jausteko arriskuan, eta maiz jausiz maleta astunaren azpira. Zure begi-leihoetan behera globo inbertituak bezalako malkoak nekutsen, urrunago eta handiago, benetako negarraren seinale, benetan negar egiten baitzenuen. Horrek nire nahigabea arabera handitzen zuen, baina ez ninduen akabatzen, bai bainekien, hots, etsiki itxaroten bainuen, itzuliko nintzela, eta zure aurpegi samina bueltan distiratsu aurkituko nuela.*

*Oraingoan ez nauzu itzuliko, eta ez dut nahi, atzera begiratzuz, zeure azken irudi tristea estanpa diezadazun, bizi guztirako. Badakit garunak irudiak birkonposatzen eta deskonposatzen dakiena, ahantzura osotik oroitzapen indiferenteraino. Hilek ez naute beldurtzen, geldi dautzango. Bizien espresioa imitatzen hasten direnean larritzen naute. Esaterako, ustekabeen hil zitzaizun bat mahaian eseri zaizunean, egun onik esan gabe. Edo altxatu eta mutu alde egin dizunean. "Nora joak hori?" Edo aluminiozko aulkian zeure zain, zer ordu den galdetu dizunean. "Zertarako jakin gura ete jok ordua?". Itzarrrik nagoela, moldatzen naiz garunaren operazioak erriatzen, edo distrahitzen behintzat, baina aluak badaki hil bizidunak ametsean aurkeztu behar dizkidala, gero, itzarrrik, euren ikuspenetik ezin libra nadin. Ametsaren aurka, ez daukat defentsarik. Horrexegatik ez nuen nahi izaten inor maiterik edo maitagarririk hilda ikusi, bizi zeneko irudiaz bakarrik oroitzuz, amets tiranikoak ezin zezan hilaren irudia bere nahikara birmolda nire gogoan; hain egoera indefentsoan berau, ezen, ametsetan ari zela oharturik, itzartzen saiatzen zenean, ahaleginak, arbitrariedade neuronal bat bide, alderantzizko efektua eragiten zuen, bere burua hilda ikusi arte. Orduan itzartu beharra zegoen, bertan gelditzea errazena izan arren, eta itzartzen nintzen. Heriotza jarraituaren aurrez, badirudi nire garunak ametsetan ere ezin zuela arbitrariedadetik jasan. Baina bai*

*itzarrondo tristea, "honetarako itzartu nok?" pentsatzeraino!*

*Ez dut, ez, ene etxe, atzera begiratuko. Euren lanbrozko kapeluetan lo dauden mendiei, Anbotori, Udalatxi, Mugarrari, Aramotzi, itzar daitezenean, esaiezu joan nintzela. Gehiago inork ez dituela inkordiatuko euforiekin edo malenkoniekin. Beharbada, ez itzartzea erabakiko dute. Zertarako? Izan bitez lasai, direna: haitz ohil eta soil. Banoa, eta badakit hauxe dela ikus zaitzakedan azken bihurtzuea. Ez dago begiradarik. Ezkutatu naiz. Irabazi dut! Salbatu naiz zure irudi triste-tik. Orain, etor zaitezke nigaz. Iritsi gara auzobideak errepe nagusia jotzen duen unera. Stop? Ez dator inor. Ez datorke. Dios! Banuen, ba, aldartea tragedia batean sartzeko! Ezin bada, ezin da. Goazen Trabakua mendatean gora, itsasoa tiraka ari den alderantz.*

*Zengotiko tunelean sarrerak lasaitasun ustegabea eman dit, bertanbeheratasun ingrabido bat, mundu espantatua neure ontzi gisan orekatu bailitzan. Astiro-astiro noa, kamioiaren burrundada ehun-bidertua entzun bitartean, dardara kilikorra odoletik pasatzen saiatuz, eta lortuz, jada burura iritsia baita; hortik berak jakingo du gorputzera nola banatu, komeni bada. Ez nago erabaki handirik martxan hartzeko moduan. Kamoiaren argirik ere ez dut piztu, baina, aurrea guztiz iluntzerako, hondoko argitasuna abiatu da gure bila, geroz ausartago. Honen gozo nindoana, tunela ere ezin da libratu irteera bat izan beharretik. Atzerantz joko banu? Total, ez dirudi inorako presarik dudarik. Itsasoak itxarongo du mende bat gorabehera, labar bat edo beste apurtuz. Tonto jartzen bada, ez natzaio hurreratu, baretasun hilean ikusi arte.*

*Azkenean, irteerak berak harrapatu nau, bizitzan gehienetan gertatu izan zaidan moduan. Zulotik urten egin behar da!, mehatxu egiten zidaten alde guztietatik. Zuloratzen trebe bainintzen; bertan desesperatzen ere bai. Irteeraz, ordea, ez nintzen konturatzen. Denean trebe izaterik ez dago. Bat-batean, zulotik kanpora aurkitzen nintzen. *Joño! Zelan izan dok hau?* Badaezpada, ez nuen egoeraren birkonposiziorik egiten, ez zedin gerta ezen, irtenbide ikasia neure esku gelditurik, hurrengoan ahantz zekidan. Oteizaren artefisikaren eraginez-edo, nahiago nuen zuloaren izate irmoan fidatu neure buru sarritan gaseosoan baino, zulotik kanporatze ohartuak ez zezan niregan eragin oraintxe, bat-batean, pairatu dudakomozioa. Ikarazko bertigoa, tunelak atari bertikalera okatu nuela sentitzean. *Zorua bertikalean? Ez jagok arriskurik*—pentsatu izango nukeen, Mallabia eta Ermua gaineko mendiak aurrean ez baleude, ni euren kontra talkatzeko zain—. *Dedio! Hor ez jagok bitarterik!* Honela jausita, mundurik inozenteenak ere ez dauka beldurgarri bihurtzeaz beste aukerarik.*

– *Tunel puta hori! Lehen be zeozergaitik pasatzen nintzen ahal neban guztian gainetik, edo barrutik bazen, begiak itxita.*

– *Alua! Kabroia! Zelan hator ezkerreko karriletik, tunelean?*

– *Zeu nondik zatoz? (Ez nago, antza, munduan bakarrik).*

– *Beharko, madarikatua!*

– *Bai konpenetrazioa, inork eskatu barik! Karnet doblea merezi dozu. Eutsiz beste hamabi puntu.*

– *Sartuizak heure hamabi zuloetatik!*

– *Orduan, zure hamabiak kenduko deusudaz, autoritateaganako irreberentziagaitik, txapatxo hau ezagutzeko gauza bazara.*

– *Sartu hori hamahirugarrenetik.*

– *Ez dok hamahiru!*

– *Neuk egingo deuat. Danba! Danba!*

– *Traidorea! Bi izan dira!*

– *Hirugarrenik entzun ezin doalako.*

Kamioia gelditu egin da. Bizirik nago, ezta? Begiak ireki ditut eta, zorionez, aurrean ez dago mendirik, Mallabiarako bidegurutzak baizik. Zergatik alteratu naiz honenbeste, tunelaz atzeko mundua aurrekoa bezain ezaguna eta neurea bazen? Ez nago galdera zailetarako. Ez naiz erantzunik gabeko galderak maite zituztenak bezain umorista. Kamioiak errepide nagusiari derraio Markinarantz, inork agindu gabe. *Ondo egin dok! Zortzi abiadura eta atzera-martxa bi baino ez dituenari ez jagok abiango malgutusunik eskatzerik.*

Trabakuko bi jatetxeak, errepideko murrua bitarte, erdiz gora ikusten ditut. Beti ikusi ditut horrelaxe, baina gaur erdi ezkutua ebatzura desplazatua iruditu zait, gainekoa irristatu zaiolako. Gerritik edo lepotik ebakitako gorputz bat berriro parean azartzatea zaila den bezala. Gorputzetan, desdoitasun hori aise toleratzen dut, ia atseginez ere bai, disekzio-laguntzaile nabilela, irrikaz itzaroten bainuen benetan txikitzea merezi zuen andrearen bat, edo jaunaren bat irits zedin, femeninoaren lehentasuna horrelako kasuetara ere luzatzea kortesiaren aplikazio dogmatikoegia ez bada. Etxeen pinturan edo graffitian ere maite ditut geometria disekzionatuak, baina oraingo hauek etxe errealak dira, non nire garunak ezin duen bortxarik jasan, genetismo kabernarioren bategatik. Bizilagunak ezabatu arren, bizilekuek ez daukate zertan frakturatu. Ezin dut aurrera jarraitu, Trabakuko jatetxeek osorik eta euren orubean darraitela egiaztatu gabe. Hemen daude. Osorik dirudite, baina elkarren ondorago. Lehenago, jende gehiegiagatik urrundu izango ziren. Arraroa, hala ere, zeren etxeak izan daitezke, bai, elkarren gainean; sufri dezakete. Baina ez dira mugitzen hasten. Etxe bat berean jendea pilatu baduzu, etxea gaixotu egiten da, txikitu, bere buruagan biltzen den armiarma bezala. Hemen ez dakit zer gertatu izango zen.

Zabu hauek negargura damaidate. Haur bat, hutsean, izate alaia da; alaiegia ere bai sarritan, ez baitio zerbait bilatzeari edo asmatzeari uzten. Zabu bat, otsera, hutsik dilindan, haize apur baten zain, ezin dut ikusi neu gainean eseri gabe. Eta etxe alboaren kontrara bazterturik dagoen haur-kotxe estali hori? *Ene ama! Barruan haurtxo bat lo egotea besterik ez joat behar!* Kostata, ikaran hurbilduz nindoala, ia disparoan saltatu den txerrikume batek kontzientziaren zalantzune larritik libratu nau. Barrura oraindik beldurrez begiratzean, haur-oihal zuriek eta burkotxo potoloak ez ninduten atzeraka jaurtiko, harrigarriro garbi eta txukun ez baleude. *Txerrikume hori haurtxoaren aingeru jagolea izan ete dok?* Litekeena da, aingerurik ez baitut inoiz pertsonan ikusi. Haurra txerrikume bihurtu ez bada, jasoko ote nuen beldurrez. Noan aurrera txerrama agertu aurretik, lehen ere basurdearen aurretik lasterraldi larriak eginda bainago, haren ume pare harrapatuari besoetatik jaregitea ahazturik. Ehun metro behe-rago, iritsi naiz, zorionez, gogoak bertan gelditzeko samurtasun osoa eskaintzen didan tontortxora, nondik, duela berrogei urte, lehenengoz begiratu genuen hala zeritzonik ere ez genekien Artibai ibarrera.

Lagun bat eta biok bere vespa berdearen gainean gentozen Derioko seminariotik, ez dut esango iheska, baina bai honen urrun aldentzeko askatasun guztiz debekatuan. Lagunak, arrazoi guztiz salbuzkoengatik, bere anaia batek Ameriketara joatean utzitako motorra seminarioan edukitzeko baimen ia pentsaezina zeukan. Igande batez, eguerdi ostean, Loiuo Lauroetako San Migelera abiatu ginen, geure karrera-amaierako praktika gisan, hango umei dotrina ematera. Baita berez nagusientzat zen, baina izatez emakumeak bakarrik ohi zetozen elizkizun txiki bat ofiziatzera.

Geure Lauroeta maitea! Maitagarria zelako, eta geure gaztetasun kartsuan, mundu maitagarri bat behar genueneko. Nire kasuan, neure Etxano jaioteritrik aparte, nire lehen munduratze arduraduna dohatsu egin zuen auzo edenikoa. Kalifikazioa ez dut irradan ehizatu, egitasun materialean baizik, nire literatura espiritualean maiz agertzen zen 'Eden' amesgarria auzo hartantxe kokatzen bainuen hutsik gabe, Lauroeta ezagutu nuenetik. Mendate gozo eta ez luze baten goienean, ibar txiki eguzkitsu batek abegitzen zintuen, itsasoraino luze-zabaltzen zen iparretik xaloki gordea bera, zeinaren azalera suabeki inklinatuan etxaldeek (ortu, soro, landa, mahasti) eta buelta guztiko basoek asmo poetikoz banaturik ziruditen. Baliteke erreallitate hunkigarri hura neuk neraman premia poetikoaren errepresentazio bat izatea, baina arrazoi osoz ordukoan, artean abadegai soilak izan arren, abade jaunduen errespetuz hartzen baikintuzten. Eta batez ere, hain gazte gineno hartzen bide ziguten errukiz eta, neuk uste, karinoz. Oinarri horiekin, poesiarik behar ere ez zen kasik.

Elizkizuna ez zen arrosarioa eta semoitxo bat besterik. Guretzat fasziazio bat, emakumeak eta neskak entzule edukitzea, geuri begira. Lehenengotan hainbeste kezkatzen, baita apaltzen ere gintuen gizonezkoen ausentzia laster bilakatu zitzaigun kasik begirune bat gehiago, gero edozein enkontrutan hainbat txeratsuago tratatzen baikintuzten, euren huts egitea konpentsatuz bezala. *Goizeko mezara bai, baina arrastiko arrosarioa ez daukagu ohiturarik – Ez deutso lebarik. Gu andrakaz be ederto konpontzen gara. 'Andrena' gezurra ez izan arren, neskak genituen batez ere gogoan, baina hori denek suposatzen zuten ezin genuela zuzen aitortu. Zereginak amaiturik, emakumeekin berriketan, umeekin jolasean, edo tabernan (dirurik bagenuen, askaritxo bat eginez, edo, inguratuz gero, emango zigutela itxaroten genuguna eskertuz), afalordura arteko denbora Lauroetan joaten zitzaigun, azkarregi, tamalez. Egun hartan arin alde egin genuen, 'joan beharra' genuela eta. Bidean sotanak ezkutatu eta bagentozen, mutil gazte txairo, haizeari bitsa ateraz, nire lagunak Sondikako aireportuan ezagutu ei zuen Markinaldeko familia bat bisitatzera. Gabon oporretan, Venezuelan bizi zen arrebari laguntzera joanik, honek Ameriketara lehen aldiz zihuan beste euskaldun baten familiagaz argazki batzuk atera zituen agur gisan. Argazkiok gero seminariora iritsi zitzaizkion nire lagunari, eta haiexek beste familiari entregatzea zen bisitaren aitzaki adeikorra, hemengo euskaldunen artean, oroitzapenen gordetzaille hori oraindik exotismo 'indiano' samarra zenean. Trabakua mendatea itsaso alderantz jaisten hastean, ezin izan genuen geldialdi bat egin gabe jarraitu. Udaberria aurrera zihuan, eta hurrengo udan apaiz ordenatuak izango ginen. Emozio-kolpe batek jo ninduen, esan nuenean:*

- *Beharbada, herri horretaraxe destinatuko gajoezak.*
- *Hori Markina dok.*
- *Ondarroa be hortixek ez dok nonon?*
- *Mendi bitarte harexen ostein, azpira. Itsas herria dok.*
- *Uste najoan itsasoa bera zela ondarrutarra.*
- *Markina eta Ondarroa herri handiegia dozak lehenengo destinorako.*
- *Txikiak be izango dozak hemendik.*
- *Ondo-ondo ez jakiat, baina Bolibar eta Elkano inguru honetantxe dozak. Etxebarria eta Arantzubia be hortixek dagozela uste joat.*
- *Portatu gozak! Geografia unibertsala ikasten hiru urte, eta misino-lurrak barneratzen beste hamar egin eta gero, geu destinatua izan gaitekezen herriak badirenik be ez jakia.*
- *Horrela emozino gehiago jatorkuk, nora goazen ez dakigula.*
- *Beharbada, Bolibarrera. Hori ez dok herri handia izango.*
- *Bisitatzera gatozen etxea Bolibar dela uste joat. Auzoa Iruzubietan, behintzat, ze gizonak esaten joan aireportuan: "Sekula Iruzubietatik urten barik, Ameriketara-*

*no saltatzeko atrebentzia behar da gero!"*

- *Geurea be ez dok makala. Hemen gagozek, nondik gabilzen balekie, etxera bialduak izateko arriskuan. Eta hile bi barru, herri baten jabe izango gozak, geure kontzientziak beste araudi barik.*
- *Txarrena dok ez dakigula kontzientziagaz bakarrik ibiltzen.*
- *Hori errazago ikasiko joagu neguan ur hotzagaz dutxatzen baino.*
- *Kasualitate handia litzatekek, Bizkaia guztian, geuk pentsatutako herri batera bialduak izatea.*
- *Den lakoa dela, Bolibarren antzekoren bat izango beharko jok, Bilbora eta herri handietara bialdu behar ez bagaitue.*
- *Karrantzako beste puntara, agian, nork jakin.*
- *Karrantza maitagarria dok, baina neuk, behintzat, herri euskaldunera ez bada, zigortzat edo mendekutzat ulertuko joat. Seminarioan nahiko frankismo jasanak gozak, abadetza be espiritu beragaz estreinatzeko.*
- *Ez joat ikusten zer egin leitekeen.*
- *Oraintxe ez al dok esan kontzientziagaz bakarrik ibiltzen ez dakigula? Okasino polita litzatekek ikasten hasteko.*
- *Abadetuz batera, desobedientzian deklaratu?*
- *San Inaziok jinok kontzientzia lehenago dela obedientzia baino, eta ha badakik gai horretan autoritatea dela, militar be ibili zoan eta.*
- *Ez deiegun fantasiei ekin. Egin gaitezen abade, eta ondorengoa berak esango jok. (Isilune luzea, edo luze egiten dena). Berba barik gelditu haz ala?*
- *Buf! Hau arimaren zazpigarren egoitziatik harago jagok. Hamar urtegeaz hasi-ta, sekula amaitzerik itxaroten ez genduen karrera azkenetan dok! Beharbada, hi Bolibarrera etorriko haz, eta ni hor goratxoago markatzen eban Gereara. Mikel Zarate ez jagok bertan?*
- *Mallabian entzun najoan.*
- *Gerea Mallabia izan leitekek.*
- *Aurrera egin behar joagu, gaua egin behar jakuk eta.*
- *Hago apur batean. Minutu batzuk gorabehera, gure itzulera ez dok arauzkoago izango. Ez najoan usteko paisaia material batek honen ikuspen supernaturalik sor zeikeenik.*
- *Hire espiritua arautik kanpora berotzen dela uste joat.*
- *Bai, ziur be, baina ez horrela bakarrik. Egia ez al dok honelakoxe zoru batean lurreratzeaz garel, gehiago inora itzultzeko obligazio barik?*
- *Igon hadi motorrera eta goazen, etxea non dagoen be ez najagok ziur eta. Ingu-ruak martxan begiztatu ahalko dozak.*

Berrogei urte geroago, banoa mendatean behera, astiro-astiro, kamioia lehenengoan eta gogoia vespa berdean, oraingo lurrzalaren azpian argi-argi haute-

manez orduko geruza, non etxeak zaharrago eta bakanago ageri diren. Oraingoak, berri edo berriturik, baina hutsik. Mamurik ere ez da sumatzen. Badirudi hauek gizakien inguruan bakarrik ugal daitezkeela, espezie garaileak hartan oinarritzen diren interdependentzian bezala. Banago alderantziz ere izan daitekeela, zeren, kasu berbera ez den arren, nire jaioterrian, gorabehera misteriosoren batean geriza galtzen zuena, hiru egunen buruan (emakumea bazen, hiru gau), bera ere hutsik gabe ezabatzen zen. Begiak ibarrean beheratu ahala, goiek ortzia erruki gabe es-tutzen dute. Oizko dorre eolikoek airean lo darraite. Edertasuna ez da joan.

Bat-batean, ezuste osoan, Iruzubietara iritsi aurreko azken zuzengunean, bizitzako neure lehen intzidente poliziala aurkitzen dut. Goitik behera motor bat doa, 'Montesa' gurpil-handia, gainean bi mutil daramatzana. Behetik gora vespa berde bat dator, bere gurpil txairoen gainean, beste bi mutil dakartzana. Ba ote diren, ez ote diren, azkenean, eurak direla.

- *Alto! Nondik zatoze?* - hasten da vesparen gidaria erdaraz.
- *Lanetik.*
- *Lanetik etortzeko ordua ez da hau!*
- *Txikito batzuk jotzeko ohitura izaten dogu.*
- *Ez, lanean nekatu izan bazinete! Espainia horrela jaso nahi duzue?*
- *Lan be gogor egin behar izaten dogu.*
- *Non?*
- *Eibarren.*
- *Errepublikaren alde?*
- *Guk agintzen deuskuenen alde egiten dogu.*
- *Hemendik nora zoazte?*
- *Etxera. Hortxe bizi gara.*
- *Hortxe non?*
- *Iruzubietara ondoko Barrenengo baserrian. Anaiak gara.*
- *Baserri horretan oraintxe izan gara, eta ez digute esan inor falta zenik.*
- *Gu bertakoak gara.*
- *Atera dokumentuak!*

Mutilak larri dabilta sakelak azartatu ezinik, eta azartatutakoan, ezer atera ezinik. Lantzean motor bat pasatzen da tarratada bizian, gaineko mutila edo mutil pareta eupada batean, bide bazterreko 'montesadunak' ezagutu dituztenean. Noizbait agertu dira paperak, eta gida-baimena izan daitekeen kartila moduko bat, ilunkeran horia ala morea den igartzen ez zaiona.

- *Paper ofizialak honela baino kuriosoago gordetzen ez al duzue ikasi?*

- *Ahalegintzen gara, baina laneko arropak ezin izaten dira beti garbi erabili.*
- *Motor zahar hau be ez da aproposena garbi ibiltzeko* -eransten du bigarren anaiak, zeozertan lagundu edo libratu guran.
- *Hemen beste zikinkeria batzuk dabiltzalako daukat nik. Nortasun-agiri honek ez du balio.*
- *Igaz ateratakoa da, lanean hasteko behartu ginduezenean.*
- *Hara! Behartuta daramazue, beraz, Espainia maiteko dokumenturik estimagarriena. Atera motorraren dokumentazioa!* -Noizbait badator beste plastiko moduko bat, pesiglasezko kapazo batetik-. *Motor hau ordainduta dago?*
- *Bai, jauna. Erdia geuk eta beste erdia aitak ordaindu eban.*
- *Aitak? Motor bat ordaintzeko ere ez zarete bion artean, zuen sasoiari?*
- *Bihurtuko deusagu, baina bera tematu zen ordaintzen.*
- *Hmm! Non?*
- *Ondarroako tailer batean.*
- *Hurrago ez al zegoen non erosirik?*
- *Markinan be badagoz tailerrak, baina...*
- *Baina zuek Ondarroa putaraino joan behar! Norbere herria kakazaharra balitz bezala.*
- *Gu Bolibarkoak gara.*
- *Bolibar Markina da! Hor ere hasi al zarete separatismoan?*
- *Elizara beti Bolibarrera joaten gara.*
- *Hilerririk ba al da bertan?*
- *Herri txiki baterako, galanta, jauna.*
- *Galanta zertarako? Hilak mugitu egiten dira ala?*
- *Ez dogu uste, baina, badaezpada.*
- *Badaezpada, badaezpada! Aparka motorra kunetan!*

Oraintxe ezin dut gehiago luzatu. Oroimenean ere, mutil haien estuasuna jasanezin egiten zait. Haiena, eta neurea, kasu honetan geu baikinen poliziak, vespa berdearen gainean, behetik gora, bueltan gentozen apaizgai ihestunak. Nire lagunak itaunketan ziharduen bitartean, ezin nien mutilei aurpegira begiratu, barne biolentzia bortitza sentitu gabe. Geroztik, nire gogoarentzat, polizia-papera gogorragoa zen, euren eskuan jaustea baino. Nire apaizgai lagunak ez bide zuen horrela sentitzen, motorraren jabetasunak hanpaturik edo. Bisitatzen joan ginen etxean, askari gozoa eman ziguten. Askorik behar ere ez genuen, zernahi gozoa izan zedin. Apaizgai erdi penitenteontzat ez zegoen halako mahaia bezalako esperientzia mistikorik. Karrera amaitzear ginela, *laster honelakoak egunero izango ete joguzak?*, pentsatzen nuen neure pozean, meza berria hurbil zuen mutilari eskaini ohi zitzaion ongura eta txerari nola erantzun ezin asmatuz. Denbora aurrera zihoan, eta etxeko mutilak, gu baino gazteagoak, lanetik itzultzeko zirenak, ez ziren iristen.



- *Itxaron apurtxo bat gehiago* –ahalegintzen zen etxekoandrea–. *Honezkeru, aile-gatzen egon behar dabe.*
- *Sentitzen dogu, baina gehiago ezin dogu itxaron* –erabaki genuen pena handiz, bai mutilak ikusi gabe joan behar genuelako, bai, batez ere, bizi-atal zoragarri hura amaizera zihoalako–. *Derioko seminarioa hemendik urrun dago. Afaritarra huts egitea estaltzen ikasita gagoz, baina oherakoa oso arriskutsua da. Ordu horreetan inor falta izateko motibo inozenterik ezin dabe suposatu.*
- *Laster ordu guztiak zeuenak izango dozuez.*
- *Geuk be horixe esaten deutsegu, baina falta denagaitik, men egin beharko. Datorren udan, beharbada, inguru honetakoxe elizaren batera bialduko gaitue, eta orduantxe izango dogu astitsu egoteko modua.*

Iruzubietan gora abiatu eta pare bat bihurtune ondorengo zuzengunean, han dator goitik behera motor bat, bi mutil gazte gainean.

- *Eurak dozak!* –hots egiten du nire lagun eta motor-gidariak.
- *Geratzeko seinalea egin beharko joagu.*
- *Alto emongo jeutsegu.*
- *Alto, zelan?*
- *Poliziak bagina legez.*
- *Luken! Hori zelan egingo dok, ba? Nik ezagutu be ez joazat egiten!*
- *Hainbat hobeto. Ni kaskoagaz eta hi ezezagun, euli-parea legez jausiko dozak.*
- *Eta gero txartzat hartuko balebe?*
- *Bai zera! Mutil on-onak dozak.*
- *Eta mutil on-on batzuei horrelako sustoa emon gura deutsek, euren etxean hain ondo hartuak izan garenean?*
- *Hi isilik!*

Ez dago gehiagorako astirik. Mutilen motorra hogeit metrora dator. Geratu gara, eta nire lagunak alto agintzen die. Ez dakit norantz ezkutatu, eta batez ere, hain mutil biziak iruditurik, beldur naiz, simulazioa argitutakoan, berton jipoituko ez gaituzten. Ea gero seminarioan nola azaldu behar dugun Bizkaiko beste puntan aurkitu gintuztela, txakur makilatua bezala. Aipatu estuasun guztiak pasarazi eta gero, Lukenek, noizbait, oraingoan euskaraz eta kaskoa erantziz, hots egin du:

- *Zer, mutilak? Ez nozue ezagutzen?*
- *Mekaben laputia!!!* –orro dagite biek batera, dotrinan ikasitako oles santua bailitzan.
- *Zintzoegiak zarie.*
- *Zer egingo genduan, ba? Bai egiten jakuan arraro samar, baina orain dabilen txakurteria sekretuagaz, nor fidatu?*

- *Sasoiz etorri bazinie, ez jatzuen honelakorik gertatuko.*
- *Gure lantokia greban jabilk, eta kontzentrazino batetik gentozean.*
- *Hara! Pare-parean jo joagu, beraz.*
- *Guk parean hartu joagu, behintzat.*
- *Ez zinozuen, ba, txikito batzuk jotzen ibili zariela?*
- *Txikitoa zeuek behar zeunkie zuek, uranio apur bategaz! Orain, egin eurt, eta goazen Barrenengora, sustoa afari on bategaz mendekatzerara.*
- *Eskerrik asko. Bertatik gatozek. Hemen 'txakurkeriak' ondo urten jeuskuk, baina seminarioan komisariorak jagozek.*
- *Onak zagoze zuek abade egiteko!*
- *Oraintxe ez gaituk urrun, Jainkoa berbetan hasten ez bada.*

Mutil haien sustoaz osoki jabetzen zail neukan, ez hainbeste, gertaera oroituak ia materialki berritzen dakidan bezala, gertatzeko direnen sentipena (etorkizuneko polizia-enkontru ugariena, adibidez) aurreratzeke gauza ez nintzelako, baizik banuelako aski lan erraiek eratu zidaten korapilo larria askatzen. Geroztik, hala ere, zuhaitz gerrian aizkorakada bertikala bezala oroimenean gelditu zaidan esperientzia haren barnetasuna hainbeste ez dagokiola esango nuke nire larrialdiari, lotsaz, bortxaz, beldurrez osaturiko kinka hari, nola nire lagunaren jokaera deskontzertanteari. Inor izatekotan, hain mazala, suabea, samurra zen hura amesgaitzean ere ez nukeen imaginatuko hain bulkada supituki ankerrean, aireportu bateko harreman azkar bat besterik (nahi denik sentimentalena baina kasual hutsa) eurekin izan ez zuen mutil noble batzuen bidean. Suposa dezakedan aringarri bakarra da oraindik ez zuela, zaila bazen ere, poliziaren aiurririk eza gutzen, laster larrutik probatu beharko zuenez. Bestela, garunaren konplexutasun infinitua argitzen hasiak ziren aurrerapen zientifikoetan ere ezin nion esplikazio ulergarriak aurkitu haren promptus gaiztoari. Pozten naiz alde batetik. Argituz gero, seguruenik beldurgarri agertuko lirakeen jokaera batzuk hobeto daude misterioaren soineko bistosoan.

.....

Iruzubietatik pasaeran, ez naiz ausartzen Armola eta Zubiondo jatetxeak zabalik dauden probatzen, hala baleude, sartu beharra sentituko bainuke, seguruenik mostradorea arratoiz beterik aurkitzeko, zeintzuok infamia fratrizidan disputatzen ariko diren jentil-gorpu baten azken hondakin hatsituak. 'Atxurra' bertan ehorztea hobetsi zuena berau, joankinei jarraitzeko, tabernatik irten behar bazen. Bi aparkalekuak kotxez beterik daude, eta errepede bazterrean kamioi ilara luzea ageri da. Badirudi hemen fenomenoak bazkal orduan abiatu zela. Goiz esplikaezin

hartan, Berriztik zuzen bertora etorri izan banintz, beharbada, jendea ohiko moduan aurkitu izango nukeen. Orain ez dago bueltarik, eta, badaezpada, ez naiz saiatuko. Aldakuntza radikala bat ere nahikoa da bizitza mendre honetan. Hala ere, kamioia Armolako atearen parean geldu, motorraren tartar mantsoa hondoko musika dudala, ezin dut martxarrik abiatu, solasa eztabaida berora pasatzen zen taberna-pasarte haietako bat birrentzun gabe, non, azkenean, neu ere nahasi ninduten, epaile.

- Iruzubieta. Hiru zubi.
- Hiru zubi non jagozak hemen?
- Hemen, hor eta han.
- Garbi berba egin dok, baina hiru zubitatik pasatzeko beste ur ez jatork hor.
- Ur berak ezin jok hiruretatik pasatu?
- Heuk edan al dok, jakiteko?
- Iruzubieta. Hiru-zubi!
- Hiru-zubi-eta... Zeozer falta dok hor. Hiru zubi eta zer?
- Zer, zer... zer?
- Ba, esaterako, hiru zubi eta errekarik ez.
- Eta zergaitik ez hiru zubi eta sokarik ez?
- Sokak zertarako? Hire moduko azaburuak eskegitzeko?
- Gero hire moduko astaburuak jateko?
- Mutilak! Etimologiatik etiologiara pasatu garela uste joat.
- Etologia esan gurako heuen.
- Bardin dok bokal bat gorabehera. Hiru zubi eta... (ez daki zer esan)... kakazaharra!
- Kakazarreta, orduan.
- Zirinello Kakazarreta Mokordoff.
- Hirurak batera?
- Ez al dakusk zubi berak hiru norabide damozela, Markina, Bolibar eta Mallabia?
- Hori, Hiruzubieta barik, Hirubideta litzatekek.
- Honexek jakingo jok -dioste neuri-. Iruzubieta-k zer esan nahi jok?
- Esan nahi leike 'hiru zubi eta arku bat', Jainkoa legez. Esan nahi leike 'hiru zubi eta erreka bi', Erroma zaharra legez. Esan nahi leike 'hiru zubi eta hiru soka', urkamendia nahi bada. Esan nahiko dau, seguruenik, 'hiru zubi eta niri zer?'.
- Jakintsuei itauntzea beti dok argigarri. Orain bajakiagu nori zer emon.

.....

Markinatik Berriatuarantz irteeran, Astondo gasolindegia parean, geratu beharra dago. *Zer arraio gertatzen dok hemen?* Gasolindegia autoz ok, eta errepidearen bi norabideetan ilada amaigabeak, sartzeko zain. Pasatzeko bitarterik izango dudana ez da segurua, honazko norabidean, ezkerrean pasatu nahian, errepidearen erdia ere autoek inbaditurik ageri baita. Oinez abiatuko naiz, destino zirtzila baillizateke, gauden unera iritsita, berton ez aurrera ez atzera geratu beharra. Ba, bai. Alegia, ez. *Hortik ez jagok pasatzerik.* Auto bat ez ezik, mordia dago errepidean trabes, nork nori aurrea kenduko, pinu 'beldarrek' inoiz sortzen duten korapilo 'baldarreak' bezala, hitz-jokoa saihesteko inspiraziorik ezaren ernegu eta guzti. Santa Eufemiatik, Lea ibarrean zehar saia ninteke, lehen baztertzea erabaki dudana ibilbidea ez balitz, sentimenduzko arrazoi bortitzegiei ez jarkitzearren. Orain ez naiz erabakia birpentsatzen hasiko, handik bi 'biribilgune' beherago, 'beribil' ipurtarin batzuei (berriz ere hitz-joko ergela) bidea mozteko jarreraren eternizatzea otu zaielako. Elgoibarko San Migel mendatetik Mendaron zehar, Deba-Mutrikuko Ondarroa-Lekeitio egitea temeritate handiegia iruditu zait. Ez dakit zergatik, baina hor ere ez dut neure irudipenak ebaluatzen hasi nahi, jakinik lehen ere ez naizela, itsasertz horretan, haizearen kresalean zorabildu gabea; kresalean edo kostakumeei zer irregular oro bere ondorioztat jotzeko balio zien elementu horretan. Auto mordo batek, batez ere, erdiko trabagileek, txoferraren aldeko leihoak jaitsita dauzkate, elkarri putakumeka ariak bailiran, edo beste aldera nondik pasa zitekeen galdezka. Haien motiboek ardura izateko aldarrean ez nago, txakurrak akabaturik, amorruari ekitea dibertsio polita izan daiteke baina. Nik nahi dudana da itsasoa lehenbailehen laztandu. Gero berak inspiratuko du nondik jo, edo inspiratzen zaidana garantizatuko. Oraintxe egin duen bezala: trabako autoei, kontuz-kontuz, euren ez igartzeko moduan, soroetan behera sakatuz libratzen dut bidea, era txit errazean. Kamioiak langintzaz loriatzen dirudi aluak, zerria lur bigunean induska bezala, bere ohiko 'tartarreak' sumatzen baitut 'karkararen' tonua. *Dios! Ez ete nok libratuko hitz-jokoan malariatik?* Lubetan behera doazen autoek emozionatzen nautena baino gehiago penatzen nau ilara luzeak euren ordena txukunean utzi beharrik. Saia ninteke denak izorratzen, baina norentzat? Azken batez, autoei zer axola die eskaparetea ala txatarregia okupatu? Istripu dohatsuetan esan ohienez, zorionez, ezer ez jaken gertatu, autoa txikitzeaz besterik. Horretarako bakarrik ez du merezi bazterrik jotzen hasterik.

Nire burua beste pentsakizun batek darabil orain. Iruzubietako jatetxeetan, ibilgailuek eguerdiko menura bilduak ziruditen bezala, hemen alarma handiren batek pilatu bide ditu, gasolina-zerbitzuen greba mugagabeak, edo, nork jakin, petrolioaren amaiera imminentearen iragarpenak. Hortik munduaren akaberako bidaiara jauzi hurbila dirudi, zantziek edo seinaleek dedukzio-bide izaten badarraitte. Zantzen legeak unibertetsala (beraz, gizakiengandik independentea) izan behar

duenez, beharbada, hartara jarriko banintz, gehiegi kostatzen gabe aterako nuke gizateriaren desagertze fenomenoaren eboluzioa. Interesatzen al zait? Baiezko kasuan, nahi gabe eta nahiaren kontra zirikatzen nauen pentsakizun bat eliminatuko nuke. Ez dakit interesatzen zaidan, lortua baitut hasieran pentsakizun larria zena orain areago entretenigarri izan dadin. Baina itsasorantz eta haren ahalbide infiniturantz noala, interesatzen al zait horrelako entretenigarri muskil bat? Dudan, aurrera! Orain ez daukat inori jarki beharrik. Ikertu dut, eta argitua da fenomenoak. Badakit zergatik joan ziren: petrolioak amaitzera zihoan. Edo planeta erregeneratu behar zen, mila milioi urte barru, beste gizateria intentu bat abia dadin. Edo... Joan ziren, behintzat, zorionez. Baina, orduan, ni zergatik gelditu nintzen? Labirinto txarre-rantz noala uste dut.

Fenomenoaren azterketa interesatzeko kasuari ezezkoa emanez gero, lehenean naiz. Orainean, alegia. Behin edo behin, iraganaren menpetasunetik eta etorkizunaren obsesiotik aske, ez ote dut bizitzerik lortuko orainaren turbo inpenetrable horretan, baldin bere existentzia gu hartaz jabetzekoa bada, eta ez iragan-etorkizunaren intersekzio usteko bat? Iragan hurbilak eta etorkizun imminenteak bat egitean, marra leun bat suposa liteke. Ostera, zenbat eta jaiotzatik hurrugoko oroitzapenak eta heriotzatik hurrugoko aurreikuspenak elkartzen diren, hainbat marra erpintsuagoa aterako behar luke, bihotz arritmikoen kardiogramen antzera. Orduan, badirudi gogoak hain ibilbide ziztatzailea korritu baino nahiago duela saihestu. Alegia, orainaz prezinditu. Nik orain ez daukat beste zereginik, eta orainagaz lasai elkarbizi behar nuke. Edo, orain puruagaz ez bada, gutxienez lortu behar nuke goizetik gauera bitarteko iragan-etorkizunaren artean mugari nadin. Kasu honetan, auto amilduak laster agurturik, eta ordenango ilarak txukunki arbuaturik, itsasora lehenbailehen iristen saiatu behar nuke. Proba dezadan adimenaren aro hartan kokatzea, non egun bakoitzak aski zituen, mugatzat, egunsentia eta ilunabarra, gaua lotarako eta beste ebasioetarako utzirik.

Urberoagako erreka luze eta bihurria hain estu aurkitu dut, ezen beldur naiz kamioiak ezingo duen zeharkatu, aldez baidirikoan. Antzinako bainuetxe monumentalak ez nau gelditzera batera tiratzen, ruina egoera baino itxura penagarriagoan. Inork ez ezerk bera eraisteko borondaterik izan ez zuelako, berez jausteko ganorarik ere ez zaio ageri, teilatu puskek bi solairu beheragoko leihotetan trabaturik, eta miradore erdi-zirkularrak errektangularrak bihurtzeko zorian. Ibaia eskutik bezala daroan albodiak itzalpe zarratuari itxura naturala lemaioke, zoruko orbeltza lodiak estugunearen dimentsioei ustel kutsua erantsiko ez balie. Irteerako bidegurutzean, Azpiltzan, kamioia geratu egin da, frenazo eta guzti.

– Zertan habil? – galdetzen dut ikaraturik. – *Hik be epilepsiari gustu hartzen hasi*

*behar al dok?*

– *Ez goaz ondo. Hortik ez dago itsasorik.*

– *Itsasoa alde guztietatik jagok, jarraituz gero.*

– *Lekeitiora ez al goaz?*

– *Orduan, zelan hartu dok Larruskainerantz?*

– *Behinolako aproba batzuen sorginkeriagaitik izango da, non, nire aurreko modelo baten (Mander Furten) abiadura gorena neurtzeko, Larruskaingo ibar estu, luze eta bihurria hautatu eban, gaez badaezpada, konpromiso gitxiago izatearren. Azeleratzen-azeleratzen, une bat heltzen zen, aurrea guztiz iluntzen zena, eta desazeleratzean, barrero argitzen. Noizbait ohartu ziren iluntze aztoragarri ha abiadurak argia atzean uztearen ondorio zela. Azkenean, ibilgailuaren abiadura gorenik jakin barik gelditu ziren.*

– *Eta heure abiadura gorena?*

– *Hori be ezin izan zen neurtu, alderantzizko arrazoiagaitik. Argia atzean uztea ekiditearren, atzera-martxan aprobatu nindueen, baina, ustez topera azeleratzean, gidariak ezin eban, atzerantz begira, aurrean zeukan neurgailua ikusi.*

– *Ezin izan jeurean kopilotu bat ipini?*

– *Ez, antza, ze Etxeak... Man ala Scania naz?*

– *Ona hago ezer jakiteko, heure izenik be ez badakik!*

– *Etxeak zinoen aprobak, gero, benetako lana izango zen baldintzetan egin behar zirela. Abiaduraren datuagaitik bakarrik ez zela errentagarri kopilotu bat kontratatzea, eta bidaiak luzean araukaitik, kontratatuta beharra bazegoen, batak gidatu bitartean, besteak lo egin behar eba.*

– *Bidaiak ez zenduezen atzera-martxan egingo baina!*

– *Niri txofer geldo samarrak egokitu jatazen beti, eta ez ziren ausartu argia atzean uzteraino sakatzen.*

– *Egunez ezin izan zendueen aprobatzeko bitarteren bat aurkitu?*

– *Nik zer dakit, ba? Ugazabek zinoen neurtoki onargarri bakarra Larruskaingo ibarra zela, eta hor, egia esan, zenbait unadatan, egunez be gaua emoten dau. Sistema zehatz eta erraz bat asmatzen jarraitzekotan gelditu ziren, baina gero beste fenomeno arraro hori gertatu zen, eta hemen gagoz orain, argibide posiblerik ez daukan kalakan.*

– *Orduan, hire abiadurarik ezin joagu jakin?*

– *Gorenik ez, baina norantz jo behar dogun bai. Lekeitio, Lekatxo, Lekitxo! Horixe ez al dozu erabagi oraintxe hamar minutu?*

– *Segi orduan, inork agindu barik bertarantz hoanez gero.*

Desorientatuta nabil, lanbrotuta ez esatearren. Larruskaingo auzia amaitzerako, Plazakola bidegurutzea iragartzen dit seinale batek. Bertan, nire erdi-zorabioak, aurrerantz zuzen, Berriatua-Ondarroa-Mutriku hartuko zukeenari

albo eginik, kamioia Lekeitiorantz biratu da, oraingoan biok isilik, bidea bera dela norabide fidaturik ni, eta bera *hartuik popatik* pentsatuz. *Une honetan bardin jatak, ba!*, pentsatu dut neuk ere. Bihurguneak uste baino lehenago eta askoz bihurrago zergatik datozen argitzeko, inguruei begiratu behar niekeela konturatu orduko. Milloi mendatearen gaina agertu da. *Joño! Hau be hemen?*, izan da etorri zaidan pentsakizun inkontzientea. Zerbaiten antza hartu nahi diot, baina ezin dut aurkitu ezer ezagunaren konparaziorik. Gelditzea erabaki dudanerako, kamioia badoa beste alderanzko bihurgune berriz ere uste baino lehenago eta bihurrago datozenetan behera. Atzerantz egitike jada berandu denez, aurrerantz segi beharko, lehen ere oinarritzko nuen bizi-legeetako batean fidaturik. Baliteke natura hain jakintsua ez izatea, baina bai oso efikaza. Erabaki askeari segi liezaiokeen damua interesatzen ez zaionean, atzerabidea ixten dizu, eta berak nahi duen lekura zaramatza. Nahi hori zuk zeure buruari esleitzea ez zaio askorik axola, bazoazen bitartean. Zerbait gertatzen ari zait, zer zehazki ez dakidana, edozein unetan kamioiak obeditzeari utzi behar diola nabari baitut. Lehen ere, bolanteaz beste guztian, autonomia ia arrogantean ziharduen katxarro hau orain bolantean ere erabaki pertsonaletara leerra dadin besterik ez nukeela behar pentsatuz, erabat larritzen hasia nintzen, baina, zorionez, beste bidegurutze bat jo dugu. Ia fisikoki jo ere, kamioia zentimetroetara gelditu baita beragaz perpendikularki bat egitera gentozen beste errepide baten handiko hegaletik, jatetxe bateko etzei-jantokiaren pare-parean.

- *Zertan habil? Nora hoa?*—oihu egin dut, asalaturik.
- *Gelditu naiz!*—darantzu kamioi arbitrarioak.
- *Nork frenatuta, honen braustean?*
- *Jantokiraino sartzea nahi al zenuen, petrila janda?*
- *Joik atzera, txatargai txotxolo horrek, non gagozen jakin daigun be!*
- *Brun-brun-brun, bbbrrrrnnn!!*
- *Hoa orain Armiñako haitzuloraino!*
- *Dedio! Asmatuko ete dogu txofer gibelerre honexen guraria egiten?*
- *Erdibide bat ezin al dok aurkitu geratzeko, mundu guztia geurea izanda?*
- *Zubi gainean?*
- *Bai, mogitzen ez bada.*
- *Mm!! Mogitzen da, ba!*
- *Heure dardara izango dok.*
- *Ez dot uste. Azpitik gora dator.*
- *Ba, geldi bertan! Ikasi daiela barriro kargari eusten.*
- *Hor konpon! Ni ibaiak ez nau ikaritzen.*
- *Putian tutian! Hau Oleta dok barren!*
- *Zer zela uste zenuen? Milloi mendatearen manillarra?*

Ez dakit konturatzerik merezi zuen, hots, egoeraz jabetzearen sustoa ez ote den larriagoa izan, aurreko inguru-senaren galera-kezka baino. Zer deskonexio mental gertatu da nire garunean, enbragearen irristada bezalakoa, nentorren ibilbide hain ezagunaz ezin jabeturik ailegatzeko, Oletako bidegurutze niretzat kasik genetikoari ere antzik ez hartzeraino? Bihurguneak, etxeak, horizonteak, dimentsio banatan nekutsen, desloturik, elkarrekiko osotasun gabe. Orain, birseneraturik, ezin dut irudikatu nola zitekeen, baina baten. Horrexegatik nabari nuen halako zorabio zoria, lehenago ere inoiz, oso errepide ezagunean, zerbaitetan oso kontzentratuturik, hots, ingurutik guztiz abstrahiturik nindoala, bat-batean non nindoan oharren oro galtzen nuenean bezala. Gehienez, gauez gertatzen ziren suspentsio larri haiek (inguru hurbilaren ezagutzak huts egitean, alferrik zen urrunagoko erreferentziei heldu nahi izatea) hain inolako kokapen gabe uzten ninduten, ezen bazterra jotzea besterik ez bainekusen. Errepide arrotzean ez zitzaidan horrelakorik gertatzen, baina toki sobera ezagun batek airean uzten bazaitu, ezin duzu hura ezezagun gisan tratatu. Larritasunak ez dauka soluziorik. Eskerrak nire oinak balaztada automatikoa jotzen zuen, atzekoak baztererra jaurtiz. Bozina-hotsak, eta: *Kabroia! Alua! Inoren amaren umea!* Norberak ere ekin: *Izorrai! Neuk be susto edarra hartu joat.*

Gaurkoa egun argiz izan da. *Bai gauza arraroa! Deliratzen hastea behar joat oraintxe.* Ezin diot garunari onartu badituela endredatzen hasteko motiboak. Kontua da Markinako gasolindegitik Oletaraino etorri naizela (hamar kilometro), non nentorren ezin kokatuz, eta jakin behar nuelako larritasunez. Horrek esan nahi du era asko daudela norabait bizirik iristeko.

- *Kamioi alu hau gas zantarren batzuk isurtzen hasi ez badok.*
- *Et, et, et! Inor ez nahastu zeure paranoieta. Niri bardin deust errekarra salto eginda be.*
- *Horixe jinoat, ba! Zelan ibiliko nok lasai hire gainean?*
- *Ni ez naz itoko.*
- *Ezta neu be ugertuko, notejode!*
- *Arin mogitzen ez bagara, zubi hau zabaldu egin behar jaku.*
- *Ez, ez, ez! Orain ez nok engainatuko. Kinka horretatik pasatuta gagozek.*
- *Pasatzea ez da burutu, kinkaren zergaitia argitzen ez dozuno.*
- *Heuk badakik?*
- *Behar be ez. Ni ez naz zorabiatzen.*
- *Ikusiko dok sabel-huts gera haitenean.*
- *Zeuk bultz egingo deustazu, txukun-txukun.*
- *Egingo deuat, bai, aldasbehera gozoan, leizeraino truntrun-truntrun.*
- *Lehenik, beste erabagi bat hartu behar dozu. Hor, ibarrean gorantz, Gizaburuaga, Aulesti, Muntibar indikatzen dau. Atzerantz, Amoroto. Beherantz, Lekeitio. No-*

*rantz hartu behar dot?*

- *Hago apur batean. Oraintxe argitu jatala uste joat gertatuaren kaka.*
- *Hurrengo ilundu arte?*
- *Egongo haz isilik, trantrangailu hori?*
- *Man. Man Diesel dot izena.*
- *Mandios behar heunke.*
- *Ados.*
- *Popatik!*
- *Ados.*
- *Ez deuat emongo!*
- *Sentitzen dot.*

Hau ote da Markinako gasolindegian intuitu dudana presente purua? "Gutxienez, lortu behar nuke -desiratu dut- goizetik gauera bitarteko iragan-etorkizunaren artean mugitzea". Lortu dut, eta begira nolako anabasa mentala gaineratu zaidan. Egun-barru horretatik haragoko erreferentzietatik jareginik, ikuspen soilaren, eskegiaren, zorabiozkoaren esku gelditu naiz. Lehendik ere susmatua nuen nire ikuskeraren ote zere ikusia berrikustea baizik. Edo aurreikusia ikustea. Neuro-zientziaren entzuna nion horretantxe bereizten ginela animaliangandik, zeintzuek, iraganaren memoria bai, baina ezin duten egunaz haragoko aurreikuspenik garatu. Adimena etorkizunaren kalkulua definitzen ei du. Orduan nola esplikatzeko dira hainbeste mila kilometrotako migrazioak, hain helmuga jakineraino, espazio-ontziek estimatuko luketen prezisioz? Ez dakit. Behin honezkerok, zail izango dut jakiten, eta hobe garunari bere betiko erara jarduten utzi, bariazio zirtzil batek dena honda baile zake. Orain gutxien komeni zaidana zoratzea da. Nola igarri behar nioke? Oskua! Orduan, zoratuta egon ninteke. Zorotasuna kreatiboa ei zen. Orain zertarako behar dut artea?

- *Edarra jagok atsoa, kipulaz beterik altzoa. Hau begietako errea!*
- *Zer esan deusut "hurrengo ilundu arte" haretan?*
- *Ondo jagok. Hartuik Lekeitiorantz.*
- *Zure bihotzeko norabidea Gizaburuaga ez al da?*
- *Nire bihotzeko norabidea bakarra dok. Bertan dena dok bat.*
- *Amoroto be atzean utzi dogu.*
- *Orain itsasoa behar joagu. Horrexen bila ez al gentozean?*
- *Ni ez naz arraina.*
- *Laster izango haz, faroan behera bialdu haidanean.*

.....

Hor dago itsasoa, sekula baino geldiago, bakarrean zangartzen dela baina. Izan ere, jendez inguraturik dagoenean, inoiz ez dut haserre hauteman. Kamioia, Otoio Hoteleko parkin-terrazan, erakusketan bezala aparkatu dut, auto elegante batzuk arrastan baztertu ondoren. Entzuten ziren karraskadetatik, ez dirudi honela tratatuak izaten ohituta zeudenik. Hotelari Zita Enperatriza zeritzon berez, baina, historia barruan toki merezirik okupatu ez zutenei historiatik at irauten uztea lizentzia bistosoa izan litekeen arren, Otoio deituko diot, Lekeitio eta Ispaster banatuz, itsasora dzanga egiteko tentazioari milioika urtetan eusten ari den tontorraren omenez. Isuntza hondartzan, lehen-lehenik, Aitita Makurra agurtu dut, izenak dioten figurako haitz punta. Ez nago bakarrik. Mareen arabera ager-ostentzen delarik, izaki bizia ematen du. Niretzat gizakide aparta izango da, nahi dudanean har, nahi dudanean utz.

Independentzia plazatik (hori ere iritsi da azkenean, gutxien usteko nuen moduan), musika kioskoari bira osoa laztanki emanik, ukitze laszibo eta guzti, eliza gotiko monumentalaren azpitik eta ikurrin gogaitu baten kulunkak gaztelua irudizetik libratzen duen udaletxearen gainetik, Arranegi kalean sartu naiz. Kale luze, sakon, arinki ondulatua, nondik goiko kale paralelora aldats bizi eta perpendikularrean igotzen diren kalekka galtzadarrizkoak, estu-estuak, marinel argalen imitazioz eginak, edo lodiak alboetara ez jausteko moduan. Graziosoren batek albo horietan maila-firinda bana trazatzeko ere arkitu zuen tartea. Ezagun zaidan arren, ezin dut alde zahar hau errekonozitu. Oroimenak ez dit uzten kaleak, kalekka, jendez gabeturik ikusten. Toki oso ezagunak aurreikusitako moduan bakarrik berrikus ditzaket, eta nik kaleok jendeagaz gurutzatuz bakarrik irudika ditzaket, edo ia elkar jotzen dauden balkoiak elkarri hoska dihardutela. Aldi berean, ezin dut ekidin huts eta mutu senti ditzadan ere. Sentiera kontradiktorio horrek beldurtu egiten nau, antzeko kasuetan gertatu izan zaidanez. Lehen ere, inoiz, ezorduetan, edo kalekok bakar-bakarrik zeharkatzean, buru-makur, oinotsak isilduz joaten nintzen, ahalik oharikabeen. Zentzugabea zela jakin arren, ezin nion beldurraren mende jokatzeari utzi. Baina orduan, ezkutuan bazen ere, banekien gizakiak hantxe zeudena. Orain, osterak, ez daudela jakin, eta ezin euren presentziatik libratu. Orduan gauez bezala, orain egunez, ezin diot noiz behinka atzera begiratzeari utzi, kalea uhara bezala itxiz datorrela banekus, aurrerantz galdu-gordean oldartzeko. Baina atzea itxiz gero, aurrea ere itxiko dela pentsatu behar da. Orduan ez legoke zail etxe hauetako balkoietan gora igotzen. Baina kaleak luzetara ixten badira, pentsatzekoa da teilatua ere elkarrengana itxiko direla, ni aquarium lehor baten barruan harrapaturik. Mesede handia niretzat, igeri ez dakidanez gero. Kasu horretan, kresalak zigorturiko balkoietatik etxeren batera sartzea eta handik ("hurrengo kalera pasatzea" esatera nindoan, baina hor ere bidezko litzateke logika berak jarraitzea), etxe barrutik, teillatu gain bat harrapatzea ezin da zaila izan. Teillatu



guztiak elkarloturik aurkituta ere, nonbait azken ertza jo beharko nuke, ez baita suposatzekoa kale zaharrak eta berriak elkarri eransten has daitezen mugagabeki, ni izorratzarren bakarrik.

Zertan ari naiz supozizio hauek guztiak egiten, abiapuntu irreal batetik? Ez naiz neu, beldurra baizik, egoera gertaezinetatik irteteko burulan delirantean jartzen nauena. Egin dezakedan bakarra da berari palutik eman, ea horrela baretzen edo, behintzat, distrahitzen den, piztiari luma-hondarrak jaurtitzean bezala, kasu honetan ez dakit metodo efektiboa izango den baina. Probatzea da dena, ze beldurrak ere, piztia ikaragarria izanik, badu alderdi bat ezen, sarritan, nahiko infantila dela. Areago oraindik, beldurraren osagai zerbait gabe, benetako emoziorik ez dagoela esango nuke, sakon eta sarkorrik, behintzat. Ez dago halakotzat har daitekeen arterik, ohartuki edo oharkabea, beldurraren osagaia barne ez daramanik. Zerbait susmatua nuen, zientzilariei entzun aurretik beldurra zela kontzientziaren eta, oro har, biziraupen oren funtsetako bat. Ezagutu ezin dudana, edo aurreikusitako bezala aurkitu ez dudana, mamu bihurtzen zait, orain Lekeitioko kalezulook bezala. Mamua ez baita, hainbeste, zer ezezaguna, ezagutezina baizik. Kanpo-itxura irudika nezake nolabait, baina inork ez dit azaldu mamuaren barrua nolako den. Edo saiatu direnei ezin izan diet sinetsi. Beharbada, horrexegatik komeni izango zen mamutaria infinituen errepresentazio absolutu bat, ondoriozko ulertezintasun infinituagaz.

Mamuak sarritan ilunagaz bat egiten dira, baina ez da beti horrela. Haurtzaro menditarraren eraginez, seguruenik, inguru ezaguna bada, ohitua naiz iluntasun osoak beldur ez nazan, hots, mamurik forma ez dakidan. Aski da iluntasun horri foku bat jarkitzea, argi-muga guztietatik mamuak oldar daitezen, berezko sortze amaigabea. Ilunpetik argitara saltatzea gustatzen zaie. Lehenengotan beldurtzen ninduten, baina laster ohartu nintzen ez zutela lar erdira abantzatu nahiz mugazainak bailiran. Orain egun argia da Lekeition, nahiz kaleok argi baino ilunago egon. Neure oinotsa besterik ez entzutean, distantzia ezberdinetatik arpegioan errepikatua, ezin dut deboratua izateko beldurretik gabetu. Kaleen luze-gorak desatamaindurik dakutsat, handirantz, txikirantz. Beldurrak batzuetan infantil jokatzeko duela nioen, baina gehiegi xaxatzea arriskutsua izan daiteke. Kaira jaistea komeni zaidala uste dut. Hemen ere, euretako batean bizitzea hainbeste aldiz amets egin nuen etxeetara begiratzean, aurrealde kasik jarraitu guztia mamu inkrustatuen mural erraldoi bat iruditzen zait. Balkoietan oraindik ageri diren arropen bakailao azal konbaleszenteak gehiago dirudite, marinelen diafragma aireztatzen baina. Beheko taberna eta denda lerroak, berriz, bizitasun disekatua emititzen du, non ez litzatekeen harritzekoa mozkorren batzuk azken zurrutean gogorturik aurkitzea.

Portuak ez nau beldurtzen, garbi errekonozitzen baitut, beti ikusi izan dudana moduan. Ontziteria guztia atrakaturik dagoela dirudi. Handitasun horretan, gizakiak orduan ere osotasunaren detaile ezerezak zirenez gero, ikusmira zehazki aurreikusia berrikusten ari naiz. Hemen ez dago mamuentzat aukerarik. Zer esanik ere ez itsasora begira, non ontzi batzuen gorabeherak ez dion bere immensitateari fitsik eragiten. Itsasoak lasaitu egiten nau. Ez dut izan bere gainean ibiltzeko premiarik ez zorterik, ez berari epikoki aurre egiteko harrokerietan parterik, bere ikuspena gomuta larriekin loturik hel dakidan. Entzun izan ditut, noski, bere ahutzetan gertaturiko hondamen legendarioak, baina badirudi itsasoak ere ez daukala potentziarik, norberak zuzenean pairatu gabeko esperientzien beldurrik sartzeko.

.....

Iritsia naiz behar nuen eta desio nuen kosterrira. Itsasoa sudurretatik sartzen zait. Lehorra fikzio zoragarria iruditzen zait. Otoio hoteleko terrazan, itsasoa eta portua dominatuz, botila txiki bat ardo urdaiazpi eta solomorik onenekin amaitzen ari naizela, kontzientzia osoa dut nire poza bere ahalmen gorenean dela. Saia ninteke motiboak pilatzen, asmatzen, idealizatzen, baina ezin naiz pozago egon. Hauxe da Lekeitio, horixe da Kantauri. Non kokatuko naiz orain? Zein izango da nire base-etxea? Galdera mila erataria eginik, erantzuna beti berdin dator: *Otoio Hotela dok hire etxea. Nork pentsatu behar joan honelakorik?* Itsasora ematen duen suite fantastiko batean lo eginik (Zita enperatrizarentzat bereziki egina izan ei zen), biharamun goizean deskargak eta ordenakuntzak egiten dihardut, *Txanton Pipirri* lekeitiar eskalearen antzinako bertsoak kantatuz. Eguerdian, itsasoari *egon hortxe neu itzuli arte* agindurik, barka, erreguturik, Lea Ibarra zeharkatzen duen bidegorrian gora abiatu naiz, bazterrak begizatuz bainoago begiekin laztanduz, neure abadetzako lehen destinoa izan zen Gizaburuagarantz.

Hauxe da nire lehen gaua, beste ezin 'lehen gau' posiblek intentsitatean nekez gaindi lezakeena. Abadetze zahar bateko sukalde zaharrago bat. Ia sabaia jotzerainoko erloju handi bat horman gora, geldi. Eraginez gero, tik-tak marrantatua, baina danda sorpresiboki gozoak, beste sexu-ordena batekoak. Zoruan ohol irregularra, bitarte badaezpadako ugariz. Garbiketa erraza. Erratza pasatuz gero, zaskarak azpiko ukuilu ilun eta zakarrez betera zuzen jausten dira, bitarte batetik joanak haizeak bestetik goratzen ez dituenean. Sutzat, txapa uhartu bat, gaina alderik alde pitzaturik, eta zirrindola erdibitu bat. Harraska nabar kolorgetuak ere baditu pitzadurak eta ertz apurtuak. Formikazko armairua eta mahaia, ertzak guztiz janda, piorreaz bezala. Leihu bat Lea ibairantz. Lea. Bai izen polita, lehen gau baterako! Ibaiaz handik, mendi erripena, altua. Beno, pinua besterik ez da ageri, bai-

na pentsatzekoa da azpian mendia izango dela. Sukalde sarrerako atearen aurrez, bada beste ate bat, lehenengotan nire intriga xaxatzeari utzi ezin ziona. Komunā da bera. Sukaldea, komunari itsatsia. Jada bere izena aipatua didaten aurreko abade zapal baina ehun kilotik gorako bat, jatun handi baino ez edale txikiago, eroso imaginatzen dut hemen, ateaz hemendik jan, handik hustu. Hitz-joko merkeak higuin ez banitu, esango nuke sukalde hau, behin edo behin, 'suetea' barik 'suitea' izan zela. Niretzat horixe izan behar du gaur, lotarako itxurarik ez baitiot neure buruari hartzen. Logela eta bulegoa txukun daude, sabai aizunez eta zoruan parket antzekoz, baina gela horiek bistara ematen dute, taberna, eskola eta errepede. Ezin dut eragin esan dezaten:

- *Abade bitxia etorri jakula uste joat, gau guztian argia martxan.*
- *Seminarioan beti argipean hezia izango dok.*
- *Etorrerako sermoia prestatzen ibiliko dok. Lehenengoa beti dok lehenengoa.*

Hemen dena da lehenengoa. Lehenengo sermoiak arduratzen nau, bai, ez zitaten areago, baina, aurretik, lehenengo gaua dago. Hainbeste emozio ezberdin eta bortitz pilatzen zait, ezen ezin diet denei batera jaramon egin, eta banaka zoratu behar naute. Makalena ez da hamahiru urteko jauziak obsesiboki, ezin dohatsuago dakarkidana. Hamaika urtegaz, urte amaigabearen ondoren, komentutik etxera lehenengoz nindoan gaua. Lorik ezin harturik, komunera osteraka igaro nuena. Hobeto esanda, gau hura non, lotegi komunitariotik at (ehundik gora mutiko, ohe ilara amaigabeetan), komunaren bakartasun segurua behar nuen, pozari saltoka lehertzen uzteko. Ostera asko egitea susmagarri izan baitzitekeen, azkenean bertan gelditu nintzen, goizeko tirrinak jo arte. Ez zuen berehala jo aluak. Orain komuna esku-esku daukat eta ezin diot, bertan sartuta, umetako esperientzia haren egoera paraleloa berritzeari utzi. Orduko poza eta oraingoa bereizi guran hasten naizenean, guztiz alderantzizko efektua gertatzen da. Intentzioa sumatuz batera, biak elkargaintzen dira, eta intentsitateari eustea besterik ez zait gelditzen. Apartatu guran hasi nintzen bi txakur haiek elkarri itsukiago lotu zirenean bezala. *Jaizue elkar!*, hots egin nien, etsirik. Bi buztan bakarrik tente gelditu ziren arte. *Benoi!* -hots egin nien berriro-. *Behin honezkerok, segi!* Elkar jan bazuten, biak janda behar zuten, ezta?

Nire orduko poza etxera itzultzea zen. Oraingoa, seminariora gehiago itzuli beharrik eza. Hamahiru urtean errepikatu den itzultze altxeraren alde amesgaiztia, amaiezinen etsipenean abailtzen ninduenā, gehiago ez da gertatuko. *Sekulan, sekulan, sekulan santan!* Horrelaxe errepikatu behar da, behin ere nahikoa ez izateraino. *Sekulan, sekulan santan, tan tarrapatan tantan! Sekulan, sekulan santan, tan tarrapatan tantan...* Gau osorako zeregina badaukat. Bizi guztirako,

alegia, berrogei urte geroago, sentipenak ez baitu amore eman. Gehiago itzultzerik ez. Gehiago arautegirik ez. Gehiago tirrinik ez. Gehiago bigilantziarik ez. Gehiago ezkutatu beharrik ez. Gehiago eskapatu beharrik ez. Gehiago ez! Gehiago ez! Dena neure esku. Betiko neu. Dena neu. Neu, neu, neu! Buff! Beldurtzekoa ere bada hau. Sukalde txikian hara-hona, leihotik komunera, komunetik erlojura, erlojutik harraskara, saltatzen beldur naiz, zoru karraskariak ez ote dion eutsiko, baina gorputza bere kasa astintzen zait, ur hotzetik irtendako txakurrari bezala. Egia esan, inoiz ez dut obserbatu txakurrek zer diferentzia ateratzen duten ur hotzetik eta epeletik, muturren zimurkeran ez bada. Gorputza astindu esan dut, baina sotanagaz ez da erraza. Etxe barruan ere beronegaz ibili behar al dut? Oraindik ez du antzina ilundu. Norbaitek atea joko balu, ez litzateke lantegi eroso hainbeste botoi arrapatata lotu beharra.

Pozak aparte, ilusioak ez dira txikiagoak, "dena neu" horretan sartzen direnak. Neure meza berriko oroigarriari honako idazpurua jarri nion: *Herritarra naz eta Herriarentzat abade egin naz*. Hemen dago, ba, herri hura nire esku, ni bere mende, idealismo guztia aplikatzeko aukera mugagabeen. Abade konbentzionalen dependentzia moral eta dogmatiko askotatik ez bakarrik jada aske, baizik askarriateko erabaki osoz. Tentuan, noski, kontzientziak bat-batean zartarazi gabe. Loturak askatu egin behar dira, ez hautsi, eta askatzeak denbora behar du. Prozesu bat, ez aizkorakada bat. Kontu horien guztien ohartun naiz, baina ez dakit nola bilakatuko den dena.

Badakidana da nola hasi behar ez dudā. Ez naiz esaten hasiko ebangelioaren bahitzaile nagusia Eliza ofiziala dela. Seminarioan isil tesi bat idatzi nuen, antikristoa Eliza zela argudiatuz. Frogatuz ere baietz uste dut. Temeritate handiegia izan zen fulminanteki egotzia izatera arriskatzea. Lagun batzuen diskrezioko goikoen eskuetara hel zedin ekidin ez balu, gaur ez nengoke ataka zirraragarri honetan.

Ezingo dut agertu apaiz ordenatu nindutenetik ez naizela konfesatu, eta asmorik ere ez dudala. Konfesio indibiduala sakramentuaren degradazio bat dela predikatzen ezingo naiz menturatu, neu konfesalekuan eserita egon ondoren. Inkoherentzia bat? Psikologoak ere ez dauka entzuten dituen gaixotasun guztiak pairatu beharrik, kutsatzeko arrisku galantean badabil ere. Nik alderantziz gerta dadin egin behar dut, astiro baina seguru. Apaiz-lagun aurrelarierei ere adierazten ausartu ez naizena ezingo naiz herritarrei irradan jaurtitzen hasi.

Brebiariorik (otoitz-orduen libururik) ez dudala errezatzen ere ez dauka zertan jakin. Herritarrek apaizengatik, elizpean edo errepedean atzera-aurrera,

"euren liburu baltza irakurtzen" diotenenean, brebiarioa esan nahi dute, latinez bera, abiadura eta debozioaren arabera, egunean ordubetetik bira behar duena. Ezinen bat tarteko ez bada, ez da dena jarraian errezzatu behar, atalak egunean zehar banaturik baizik, bakoitza bere orduan, maitinak, laudeak, bezperak, konpletak... Opor batzuetatik etxeratzean, maletatik liburuak ateratzen ikusi ninduenean, aitak hots egin zuen:

- Horrenbeste liburu behar al dok, gero bizi guztian liburu bakarrari ekiteko?
- Ez da bat, bi baino. Zuek korupetik ez dozue ezer ikusten!
- Bigarrena, inpernuko santorala?
- Altarakoa meza-liburua da. Kanpokoa, brebiarioa.
- Bi, guztira be. Nire arrazoia ez jok askorik aldatzen horrek.
- Ba, urteotan pasatu doguzenetatik, banaka batzuk baino ez dodaz ekarri, maletan ez zen gehiago sartzen eta.
- Beste maleta baten eskea dok hori?
- Eskea ez, baina premina bai.
- Eutsi orduan preminari. Neu be hortxe najabilk zaku bakarragaz, hainbeste erre-minta kabitu ezinik.

Brebiarioaren obligazioa ordena nagusiekin hasten da, azken aurreko kurtso amaieran. Subdiakonotza hartzean, azken urteko ikasle edo teologoek eginkizun bistoso horixe bete behar zuten, seminarioan bertan. Pasillo, terraza edo pasealekuetan, aurreko urteetakoak eta, batez ere, komunitate gazteagoak geure talde marmartietan atzera-aurrera genbiltzala, brebiariodunen bat errezzuan gurutzatzen bazen, baztertu egingo ginen, pinguino artetik lehoia pasatzean bezala. Ez dakit honelako kasurik inoiz gertatu den, baina futbol-zelairantz doan gazte ilara bati Ma(ra)onna gurutzatzea bezala. Errezzatzaileak bazekien bere auraren beherri, batzuek ibilerari ematen saiatzen ziren solemnitateari erreparatuz gero. Nire txanda heldu zenean, libururik ez erostea lagunekin konpartitze itxuran disimulatu nuen. Errezzatzeko eginkizuna salmoak euskaraz irakurriz betetzen nuen. Orain ikusiko dut horixe ere zenbat eta nola egin.

.....

Ni konfesatzea zaila zen. Apaiztu nintzenetik, inoiz ez nintzen zailtasuna gainditzera iritsi, zenbat eta suposizio premiazkoagoetan aurkitu, hainbat zentzugabeago baineritzon. Halako zerbaite nola, desesperazio handietan, sokatik gehiago urruntzen nintzena, nahiz eta, sarritan, beragaz lepoa lotzen jolasteko bat ere

kezkarik ez izan, sokarik eskura ez bazen, sugeak erabiltzeak ez ardua izateraino; burua ondo kondoiturik, beti ere. Orduantxe lortu nuen jabetzea gezur piadosoen metaforan bazela existentzia literal bat, apaiz-lagun baten konfesio eskea nik adeitsu konplitu ondoren, berak, batzuen artean ohitura zen legez, aukera berdina eskaini zidanean, bizitzako *nik zuri, zuk niri* elkar-egintza ugarietan bezala. Neu hain berriki, eta bere aldetik intentziorik sanoenez, egintza berdinean beragaz partaide izana nintzenak ezin bainuen estokeatu esanez: *Nik ezin joat inor asalto intimora bortxatu*, edo: *Gizon txakil batek parkatzeko baino txarrikeria handiagoak jaukaazat*, konforme gelditu zen arrazoitu nioenan: *Beti beragaz konfesatzea kasik leialtasun matrimonialtzat hartzen deustan Don Zirilori ezin jeutsaat traizinarik egin*. Leialtasun hori nire aldetiko adeitasun samurtzat laudatu zuela oharturik, pentsatu nuen: *Ea hau, ondo-behar kokoloren batean, Don Zirilori zeozer esaten deskuidatzen den*. Badaezpada, gero Don Zirilok zerbaite aipatuko zidalako posibilitate zaila jorik, zuritze erraza prestatu nuen: *Ez! Don Zezilio esan neutsan*. Beste koartadarik prestatzen ez nintzen saiatu, pentsatuz horiek biek, Don Zirilok eta Don Zezilok, ezer elkarregaz argitzea ezinezko zela, zeren, elkarren arteko distantzia erdibide egiteko baino zaharragoak izanez gainera, bien artean, erdi gehi erdi, gorrieria osoa hornitzen baitzuten. Osoitasun hori, niri zegokidan auzian, konfesioan, garantia biologikoa zen. Horrelakoxe kontuetatik atera nuen delako gezur 'piadosoen' izaera literala, non gezur matrize batek beste gezur bat sortu zuen, sekula esan beharrean aurkitu ez nintzena, baina, badaezpada, beste hainbat gezur mental antolarazi zidana. Bekatuak eremu mentalari ere berdin erasaten ziola kontuan izanik, salbazio zaila neukan.

Kristauak salbatu nahi zuten, ordea, eta salba zitezen nahi nuen. Apaiz-lagunaren kasuan baino arrazoi gehiagoz, kristauak konfesatzera ezin nintzen ukatu, gutxi ere ez zirenak eurok, batez ere Amoroto hartu nuenean, non nire lehen harridura izan zen nolako ilarak osatzen ziren igandero, bakoitzean sail bati zegokion egunean: umeak, Mariaren alabak, luistarrak (mutilak), ezkonduak... Entzutea ez zait zail egiten, baina hainbeste kontu berdintsuk, gehienak huskeriak, azkenerako logura ematen zidan, nire arerriorik handiena berori konfesalekuan, apur bat drogatuta joan ezik. Hori ere zaila, dena barautan egin behar baitzen, lehen urteetan, behintzat. Norbaitek aitortzen bazuen: *senarra pozoitu dot, jauna*, edo: *aita kobazulora jaurti dot, jauna*, orduan boteretsu sentitzen nintzen, ordezkatzan nuen Jainko handiaren duin, neu ere tamaina handiko egintzetan aholkulari:

- Urteera ondo itxi deustak? -kobazulodunari-. Behar den beste sartu deustan? -pozoitzaileari.

- Kakazaharra! Horixe ez jat gogoratu, jauna -erantzun zezakeen semeak, edo:

– *Ez dakit, jauna, harek asko behar izaten dau eta* –emazteak. Orduan, nire bene-tako txanda zen:

– *Etorri hurrengo batean, egintzak ondo burututa, eta dena batera parkatuko dogu.*

Baldin badatoz, ostera, esanez:

– *Pentsakizun txarrak. Neure buruari igurtzi preminabakoak. Begirada desiodunak. Elizan, kanpoko buruerak. Txarto-esanak, kalterik bakoak baina* –eta abar, orduan ez neukan esatea baizik:

– *Horreek neuk be egiten dodaz, besterik ezin dodalako. Zoaz Jaunaren bakean, eta hurrengoan parkatzea merezi izateko moduko kontuak ekarri.*

Hauek, noski, hortzak esperientzian berdindu ondoko kontuak dira. Lehenengotan, ezin nuen ekidin beldur-emozio bat, kutxa magiko batean entzerratu zaituztenean bezalako, non, emozioari jarraitu ala beldurrari ihes egin ezin erabakiz, azkenean, praktikoena egin duzun: praketa kaka. Horregaz baduzu aurreragoko ardura bat, beldur-emozio dilematik hara indituko zaituena. Are sinpleagoa izan zen nire konfessore estreinaldia, infantilagoa alegia, ezin bainuen ekidin atseginez txizta egitea bezalako zirrara bat, pentsatuz:

– *Hemen hago, ba, hainbeste ipuin eta pikardia sortu dauen armairuaren barruan! Kanpotik hain zelebrea izateko, barrutik zelako bihurtune graziosoak izango zituen imaginatuz, umetan burua bertan gastatzen heuena.*

Ordua iritsi zenean, hainbeste eta gehiago ere bururatu zitzaidan, noski, baina pentsatua gozamen bihurtzen ez zidan uzten halako egonezin batek, indefentso sentitzen bainintzen kanpotiko extrabagantzia posibleetatik. Iluntasunak babesten ninduen, zeinari esker, inork igarri gabe, burua jarlekupean gorde nezakeen, nahiz eta, hain toki doian, maniobra zaila izan; ezinezko ere bai, gizentasun bate-tik gora. Zorionez, "argal klaseko" apaiztu nintzen, gure amaren esanean, nahiz eta apopillo hartu ninduen tabernako andreak nire gorpuzkera laster aldatu zuen, gure amaren aitorten ez kostagaberako. Aipatu maniobra lortuz gero, leihatilatik sartzen ziren bekatu-geziek eremu hutsa kalterik egin gabe zeharkatuko zuten/magoen armairu miragarri horietan bezala, non angelu guztietatik sarturiko ez-pata egiazkoek ez duten, ulertezinki, barruan dagoela badakizun neska zoragarria zulatu. Aipatu konfesalekuko jarrera azpiratua, ostera, ez zen batere erraza, zeren, gorputz osoa ezin zenez jarlekupean sartu, burua belaun artetik pasatu behar zen nahitaez. Horretarako, sotana ere jaso behar zen, eta hori makurtzea baino larriagoa zen, ez ematen ez zuelako, arnasa berotzen zelako baizik, eta suposatzen zen konfesalekua ez zela berotasunak kudeatzeko tokia. Teknikoki posiblea izan arren,

ezin zen egoera luzeegia izan, arimak ez ezik, hezurrek ere bizi behar baitzuten. Laster erabaki nuen posizio kanonikotik ez mugitzea, zeinak, fisikoki erosoena izan arren, insegurtasun kezkarria izan ninduen, laster azalduko denez.

Han nengoen, ba, konfesoaren aipurik inoiz jaso ez duenak, eliza kato-liko batean lehenengoz sartzean, urinarioak direla pentsatzea bidezko litzatekeen armairuetako batean; elizaren aldamenetan estrategikoki bananduak eurok, kris-tauek 'premiak' era orekatuan asetzeko. Norbaitek iraingarritzat joko duela bada-kidan (errebeldeak ofizio guztietan daude) urinarioen analogiarik ez nukeen sus-matuko, telebistan, apaiz bat sagarioa irekitzen ikusi zuen haur batek galdetu ez balit: *Zer ateratzen dau horrek mikrouhinetik?*

*Zelan izan daiteke* –pentsatzen nuen konfesalekuaren barru estreina-tu berrian– *honen espazio doian honen galdurik aurkitzea?* Ez bainekeen, ezker-eskuineko leihatiletatik, nor mintzo zen, emakumezkoa zela besterik. Gauza hain arraroak, batzuetan, eta, gehienetan, sinplearen sinplez hain inberosimilak esaten zizkidaten, ezen, inoiz, nitaz burlatzera zetozen martzianoak zirudizkidan. Leun-leun xuxurlatzen ziren belarrira, egintza ezerez baten xehetasun guztiak emanez, eta ezin nuen jakin zein izaki bitxigaz tratatzen ari nintzen. Laster asmatu nuen ne-rabazaroko irudimen ahalguztiduna berritzea, zeinari esker, behizain bakarti baso bakartietan, neskarik zoragarriekin arratsalde pasatzen nuen, behi oportunistek galtzeko aukera baliatzen zuten arte. Edo txakur minduak etxera ihes egiten zidan arte, ez aurretik pazientzia guztiak agortu gabe, gizajoak; hain neubaitatua ikus-ten bide ninduen, ezen ezin zuen ulertu zergatik ez nion berari ere uzten lantzean zirritxo bat gozatzen, aurretik erdibanatua genuen txokolatea baino merkeago zen zorionetik. Hain okupaturik bainenbilen sentimentalki, ezin nion adimenari tarterik eman, zoriona ere albokoentzat iraingarri izan daitekeela deduzitzeko, txakur je-loskorrak argiro usnatzen zuen moduan.

Konfesalekuan iritsi zitzaidan teknika haren hobekuntza totala. Ezker-eskuin pasatzen ziren ahotsetan (ahots xuxurlatuak, espresio apalean datozenak, denak dira idealizagarri, tinbrearen ezaugarri desatseginak ezabatuz gero), ez zitzaidan batere kostatzen emakumerik xarmagarrienen bertantasuna, ia kontak-tua irudikatzea, baldin, sarreran bertan, amamei zegokien hizkerak edo xehetasun gratuitoren batek nire muntaia dohatsua eraisten ez bazuen.

Kontua ez zen, ordea, hain presentzia hurbilak, jarraituak, berrituak hainbeste laboratzen zuen irudimenari urrunegi garatzen uztea, txitean pitean sakristiara osteraka hasi behar ez bazen, ilara belaunikatuaren artetik; edo abade-txera, neurri seguruagoak behar izateko trantzea sumatzen bazen. Ez inork susmo

txarrik egingo zuelako, edo eginda ere, barkatuko ez zuelako, bera ere barkatua izatera etorria zenez gero, baizik, horrela, konfesioak ez zirelako sekula amaituko. Sakristauak bere orduan joko zuen kanpaia, meza santua hasteko, edo kondesaren txondorra sutan zegoela iragartzeko.

Azkenean, bueltan-bueltan, konposizioaren korapilo zentralera jausten nintzen: zer ari naiz absolbitzen, leihatilaz handik gizaki bat ala gauzaki bat (robot bat?) mintzo zaidan ez badakit? Zer aholku damaioi ez nor ez nolakoa den ezagutzen ez dudanari? Pentsa nezakeen, arrazoiz, hala ikasia eta barneratua nuenez misterio handi baten ekoizle nintzela, baina horrek ez zuen kentzen kutxa haren barruan zegoena neu izatea. Eta ni nor bat nintzen, gizaki bat nintzen, hain harreman zentzugabera entzerratua, non, atetiko irteera erraza baliatzerik ez zegoenez gero, zirritu bat aurkitu nuen, betertz batek, behintzat, kanporabide pikaro bat ukan zezan. Eta, bide batez, gorago aipaturiko pikardiak barrutik kanporantz ere gertatu ahal zitezen. Zurezko saretxoak barrutik josia zuen oihaltxo gorri-ilunari angelu txiki bat kurioso-kurioso askatu nion, nondik begi baten begiradaren zerrendatxo bat nahikoa zen, leihatilaz handik belaunikatzen zen bekataria nor zen ezagutzeko. Edo, gutxienez, nolakoa zen antz bat hartzeko, inoiz deskuidatua bainintzen hogeitarkeo neska flamanteari atso bati zegozkion kontsolapenak ematen, aitortu zituen kontuetatik irudipen oker horixe atera nuelako.

Zirrituak ez zuen, noski, harremana askorik humanizatu, baina bai argiztatu zuen apur bat nire insegurantzaz iluna, harik eta, hurrengo igandean, oihaltxo nabarmenki birjosirik aurkitu nuen arte. Elizaren garbitasunaz arduratzen ziren 'Mariaren alabak' inbentzioaz ohartu bide ziren, moskeatu ere bai, antza, eta misterioaren hermetismora itzultzea erabaki zuten. Nire ridikulu sentsazioa, haien interpretaziorik okerrera suposatzearen lotsak areagotua, denborak dena bezala baretu izango zukeen, baldin, hilabetera, neure buruarekiko amorru bihurtu ez balitz, ohartu nintzenean alferreko pikardian prezipitatzeko zozokeria burutu nuelako laster ikasi bainuen aitortzaileak nahi gabe ere ezagutzen, ahoskeratik. Nola ez nuen halako herri txiki batean ia bistakoa zen aurreikuspen horri itxaroteko argitasunik izan? Edo, ezezagutza osoko kasuetan ere, egoera formula orokor batzuekin airoso bentilatzen ikasi? Berez ere nahiko era formularioan hitz egiteko ohitura zuen aitortzaileak seinale zehatzagoekin hitz egin behar bazuen, konfesioak xehetasun personalagoak eskatzea ez zen abusutzat hartzekoa, suposatzen baitzen konfesioa arima biluzteko zela.

.....

*Irailgo Andramaria, Arraten erromeria. Neu bere haraxe noia, eiten ez badau euria.* Txikitatik hainbeste bider kantatutako koplak horrexen eragina izango zen Gizaburuagako elizan gertatu zen konbultsio txikia, baten baten gogoan, beharbada, handia. Apaiz berri gisan burutzen nuen lehenengo langintza neska-mutilen entsegu batean parte hartzea zen, irailgo Andra Mari bezperan. Biharamuneko meza nagusirako kanta batzuk errepasatzen ari ginen korupean, harmonio baten inguruan. Eurak ere aztora samar, ahopeka, apaiz berria lehen aldiz tartean zutela. Harmonioagaz laguntzen nielarik, bitarte batean, erromeria-kopla horixe jotzen hasi nintzen. Ez nuen amaitu. Hain aurpegi harrituak, desorientatuak hauteman nituen, nesken artean batez ere, ezen hatzak teklen gainean zizare bihurtu ziren, ezabatzeko bitarterik aurkitzen ez zutela, pentsatzen nuen bitartean:

→ *Anfora immaterialen bat apurtu joat!* –Nolabait erreazionatu behar, eta jarraitu nuen: –*Ama Birjinak be lantzean gauza alegre bat eskertuko dau.* –Mutilek barre egin zuten, neska batzuek irribarretxoak, eta beste batzuek magia arraro baten amaiazen zain bezala zerraiten. –*Ez dozue uste?* –eraso nien, hizketaren distentsiogura inboluntarioan.

→ *Seguru!* –jaulki zuen mutil gorri batek. –*Alegrantziak ez dauka inpernuan bakkarik izan beharrik.*

→ *Parkatu irreberentzia eritzi badeutsazue* –gaineratu nuen–, *baina nik aita koplari, ama pandero-jole eta osaba soinularia daukadaz, eta atzamarrak igarrik barik joaten jataz erromeriara, neuk ezin izan dodanaren partez, seguruenik.*

→ *Geuri be hobeto etorriko jaku hori* –beste mutil batek–, *belarrondokoak emoten dakiena baino.*

→ *Ez uste Ama Birjina* –jarraitu nuen– *beti altaran bizi izan denik. Hori Elizaren akordua izan zen, handik mende askotara.*

→ *Ez litzateke harritzekoa* –lehenengo mutilak– *bera be ibilia izatea, orduan be izango ziren erromeriak eta.*

→ *San Josegaz nonbait zertu beharko eban* –hirugarren mutilak–, *ezkutuan moldatzen zirela pentsatu behar ez bada.*

→ *Zelako lelokeriak esaten zabilze?* –agiraka egin zien mutilei neska batek, haserre bainoago perplexutasun aurpegiz.

→ *Ba, hara! Erdi olgetan, erdi ezustean, auzi mardul samar batera heldu garenez gero*

→ *solemnetu nuen tonua, ofizioaren autoritatea baliatzeko oharmen osoz* –*badakizue ebangelioko miraririk esanguratsuenetako bat Kanaango ezteguetakoa izan zela, non Ama Birjinak, bazkariaren azken alderantz, edaria amaitu zela ikusirik, Jesusengana hurreratu eta disimuluan dinotson: Seme! Ardaorik ez jaukiek. Gainerakoa badakizue. Edariak amaitzeko, aurretik be motel egonak izango ez zirenak pentsa zelan jarriko ziren ondoren, ebangeliokoak berak zehazten dauen moduan. Etxekoen*



*estutasuna salbatzeko bakarrik ez eutsan amak mirari hori semeari eskatu izango, eta honek onartuko, bazkal osteko alegrantzia, garbi esanda, erromeria, gauza begiongarrria izan ez balitz.*

Intzidente hura dohatsutat jo izango nukeen, neska-mutil taldean azkenarako nagusitu zen jaregintasunaren barruan, bi neskaren aurpegi zurrunen kezka gelditu ez balitzait, ohartu gabe, oraindik, iragarpen bat izan zitekeela gero bizitzak izaerazko ezaugarritzat irakatsiko zidanarena, zeinaren arabera, muturreko baten minak gehiago eragingo zidan bederatzia musuren atseginak baino. Minberatasun horrek zorionerako ate meharra lirudike, min baten beldurrak galaraz lezakeen posibilitate on batek beste emaitza positibo baten, agian kasual baten intentsitatea proportzio handiagoan jasoko ez balu. Gertatzen dena beti ez zaiola beldurrari araberako zuhurtzia prezeditzen, minberatasuna espontaneitateagaz batzen denean. Nire burua kasu horretan sar zitekeen, nahiz eta ez den hain inprobablea tenturik handienez ibili dena ere hurrengo puntuan untxia bezala jaustea. Zuhurtzia beti beldurraren aurretik ez doan bezala, ernaitasunak sarritan atzetik derraio minberatasunari.

Entsegua amaiturik, beste guztiak hizketa suabeen kanporatu zirenean, bi neska biltasun osoan belaunikatu ziren, bakoitza banku banatan, expiaziozko iruditu zitzaidan egintzan. Seguruenik, erromeria-doinuaren pasadizoak baino gehiago muzindu zituen ondorengo tertulia-giroak, elizarako irreberente begitandu bide zitzaienak. Neu ere belaunikatu nintzen beste aldeko banku ilaran, obserbatzeko bezain atzean eta, eurekiko kideetasuna agertzeagaz batera, alegrantzia eta debozioa konpatibleak zirela erakusteko gogoz. Aitarenak eta erreberentziak debotoki eginik, kanporantz abiatu zirenean (ez nik neure biltasun osoko itxuraren zirritu batetik ondo jarraitu gabe), erdiko pasillotik irten zenak, paretik pasaeran, *agur!* esan zidan. Ezusteak aspaldian entzundako hitzik gozoen irudiarazi zidan, erdi-ilunak estali zuela suposatu nahi nuen irribarre-antz eta guzti, ilunaren beraren irristada bat izan ez bazen. Atsegin handi horrek, ordea, berriz ere ez zuen berdinduko bazterreko pasillotik burumakurtasun insubornablean aldendu zen besteak utzi zidan arrangura.

.....

Atea jo al dute? Baietz dirudi. Pasilloan aurrera noala, tan-tan-tan dihardu berrero, burrunba bat iruditzeko moduan. Bai akustika haserrea daukala etxe honetik, atea bera zerbaitegatik amorratuta ez badago. Nire lehen lanetako bat aldaba garbi bat agintzea dateke. Ate osoa aldatu behar bada, herriaren kaudimena haztatu beharko da lehenik. Ireki ere ez da gustura egiten berau, kisketetik kirrinka, zoruan karranka.

- *Kaixo! Gau on.*
- *Gau on berorri be. Parka, ordu okerrean banator.*
- *Abadearen atea jotzeko ez dago ordu okerrik.*
- *Bide batez nentorren eta pentsatu dot ze, kanpai-jolea nazenez...*
- *Sakristaua zara?*
- *Kanpaien arduraduna bakarrik.*
- *Goazen barrura, haizetan egon barik.*
- *Beste barik barrura?*
- *Zergaitik ez? Presa daukazu?*
- *Nire gaurko zereginak amaituta dagoz.*
- *Neuri be komeni jat jentea ezagutzen hastea.*

Sukaldera sarreran, gizon luze samarra iruditu zait, apur bat okertzeko jitez. Neure hogeita lau urtegaz, gizonezko zaharragoak oso zahar ikusteko joera daukat, baina berrogei urtetik behera ibili behar du. Esertzera gonbidatua izatean, ez du aitzakiarik ipini. Apaizekin edo karguekin tratatzen ohitua dirudi.

- *Ezin deusut ezer eskaini.*
- *Oh! Ez dot ezer behar.*
- *Lehenengo eguna dot, eta armarioak betetzen ez naz oraindino hasi.*
- *Berorrek bete behar al ditu armarioak?*
- *Jainkoak lagundu leike, baina ez armarioak betetzeraino.*
- *Beste norbaitek esan nahi neban, neskameak edo.*
- *Herria zapaldu baino ez dot egin, eta pentsatzen be ez naz hasi zer gobernu modu hartuko dodan. Neskamerik, behintzat, apenas. Izena zelan dozu, mesedez, zeozer ikasten hasi naiten?*
- *Migel Mari, baina denek 'Sastripo' esaten deuste. Familian aspalditik datorren izena da, oraingo belaunaldian neu naz Sastripo bakarra baina.*
- *Abadeek be izen horregaz deitzen deusue?*
- *Migel Mari zer den inork ez daki hemen, txakurren batek edo izan ezik.*
- *Sastripo kanpai-jolea, beraz.*
- *Kanpai-jole, lapiko-konpontzaille, narru-batzaille, ule-moztaile, txarri-irentzaille, inausle, eta sasoian sasoiko ofizio asko, pobrea izateko. Baserritarra be bai apur*

bat, baina niri aterik ate ibiltzea gustatzen jat. Etxe batzuk urri samarrak izan arren, batezbestea emonkorra izaten da.

– Kanpaiena abadetxean egin beharko dogu, orduan.

– Luistarren kofradiak egiten dau. Abadeak bai izan leike eragina ordainaren gozabeheran.

– Beheran barik goran, ahal dela?

– Bai, ahal dela, lehen be nahikoa behean gabilz eta. Urte batzuetan ez gara askorik mogitu. Ehortzaile be egiten dot, baina hori udalaren kontua da. Honen herri txikian, inor hiltzea ia miraria da.

– Ez dakit zer egin geinkeen, mirari hori sarriago gerta daiten, jaiotzak ugaritzea ez bada.

– Jaiotzatik heriotza urrun dago, izaten dira aurreratze zoritxarrekoak baina. Kanpaien ardura azken sakristaua hil zenean hartu neban. Sakristautza bera neskek daroe hemen, Mariaren alabek. Abadeentzat alegreago dela esango neuke hori, sakristau zahar bat inguruan ez tulka baino.

– Neuk be alegre hartu beharko dot, orduan.

– Zergaitik ez, berori be gaztea da eta?

– Igual berton zahartzeko.

– Gatxa horixe. Hemen abadeek denpora laburra egiten dabe. Mundua zabalagoa dela jakiteko beste, doi-doi. Berorren izena Don Xabier, ezta?

– Izena, Xabier. Don hori ofizioari utziko deutzagu. Zeure kasuan be ez litzateke itsusia Don Sastripo.

– Destripatzailea? Ofizio horixe ez daukat, egingo neuke baina.

– Kanpai-jolea eleganteago da.

– Hain zuzen, etzi Andra Mari eta bihar bezpera denez, elizkizunak ohiko moduan izango diren jakin nahi neban.

– Bai, bai, jakina. Zeuek dakizue gauzak zelan egiten diren.

– Abade bakotxak bere arau-modua izaten dauenez, badaezpada etorri naz, nobe daderik izango ete den.

– Ni ez naz nor, etorritz batera ezer aldatzen hasteko. Ikusi eta ikasi egin behar dot, lehenik herria ezagutu eta abar.

– Herri txikia inpernu handia da gero!

– Herri jatorra emoten dau.

– Ez fidatu lehenengo irribarreak, bigarrena ostikada izan leiteke eta. Herri txikia izan arren, bada denerik egoteko bestekoa.

– Denak euskaldunak, esan deustenez.

– Euskaldun izateak ez dau zerurik zabaltzen. Hemen, aspaldion, atrebentzia lartxo dabil gauza onerako. Marka da gero! Ondo bizitzen hasi garenean, orduantxe hasi behar eragiten.

– Geldi egon beharra luzea izan baita.

– Eta izango, apur batean. Hemen eritzia martxan hasi da barrero, baina ez dakit aurrerapena baino gehiago ez ete dauen endredua ekarriko. Abadeak be nahiko solte ikusten dira batzuk.

– Itsuegi, beharbada?

– Ez dakit, gazteak be badira eta. Gazteak ez dau arriskurik ikusten. Berorren burutik be jakingo dau hori, horren gaztea izanik.

– Nire burua oraindino barriegi dago munduan. Gogoia eta ilusinoia badodaz, baina ikusi egin behar, kemena be behar da eta. Zu etorri holantxe, lantzean eritzi zintzo baten babesa izan daidan.

Iritzi 'zintzoa' esan dut, baina hobe dut, badaezpada, Sastripo horren aholkua, lehenengo irribarreak ez fidatzekoa, beragaz aplikatsetik hasi. Ez dago argi zer zekarren buruan, agurtzea, informatzea, neu tentatzea, kanpai-ordaina ala beste asmoren bat.

.....

Gizonezkoen konfesioa, emakumeenaz beste muturrean, harreman naturalagoaren itxuran, ez dakit tentsoago ez zen bera, eurentzat batez ere, zeren, aurrez etorri behar izanik, hain toki doi eta ilunean, ezin zen gozoezia izan buruak belarrien parean akoplatu beharra, abadearen kolkoraino ez bazen. Ukondoan pausalekutatzen pentsatutako atearren gainalde eta guzti ere, iluntasunari eta uneango urduritasunari (batez ere, oso noiztenka zetozenengan) abiada gaizki kalkulatu eta azken pausoko estropozua erantsiz gero, penitentea, gortina artean, barrurantz buruz behera eta kanporantz popaz gora gelditzera arriskatzen zen, hegoa apurtutako saitzarra bordaren leiho apurtuan bezala.

– Agur, Maria, txit garbia!

– Pekatu barik sortua! Zenbat denpora azken konfesinotik?

– Urte batzuk, jauna.

– Urte batzuk!?

– Ameriketatik nator, jauna.

– Ezagun dok plantakeran be! Hau dzanga egiteko upela dela uste al dok? –Gizona atzeratzen da puzka, eta: –Orain hoa altara nagusiraino!

– Txabola eta guzti berton txikitu haidan nahi dok? –pentsatzen du gizonak.

– Koraza eta guzti jartzen hasi beharko joat! –marmartzen du abadeak.

Hain espazio doian, distantziak erarik arrazionalenean gorderik ere, arnasek elkar jotzea saihesteko modurik ez zegoen. Gizon gaizoak, batzuk, ahalegin

guztiak eginda etorriko ziren, garaiko hortzore eta lurringarririk arraroenak okasio rako xahuturik. Gehienak etxeko jenero eta kuxidade mailaren arabera hornituko ziren, ahaleginduta hauek ere, baina, asko bezala, edaleak eta erretzaileak baziren orduan edaten eta erretzen ziren txerrikeriekin, eta konfesoarea ere araberakoa bazen, konbinazioa esplosiboa izan zitekeen. Abadeak ere denerikoak baitziren koplak dioen bezala: *Apaiz eta odolki, gizen-flakoak, biak egiten diren bezalakoak*. Edale eta erretzaile gisan, nabarmendu ere bai sarritan, beste grina batzuetatik erreserba osasuntsuak nondibait askatu behar baitziren; arrisku erantsiagaz ezin noiztenka eta jarrerara menkorrean datorrenak kontu handiagoa dakarren bitartean ofizioaren gaintasunak eta maiztasunaren errutinak txukunerantz baino aiseago tiratzen dutela laxorantz.

– *Zelako konfessore modua dok?* – galdetzen du hurrengoak, konfesatetik bueltan datorrenagaz gurutzatzean.

– *Ilunetan ez dok ondo ikusten, baina uste joat ipurdiz gora dagoela.*

Nire kasuan, umeen konfesioak humanizatzen zuen apur bat errituaren gozakaitza, nahiz eta neu, umetan, ikara handiz hurreratzen nintzen konfesalekura sekula ez baitakizu, elizako iluntasun orokorraren barruan, burua gortina artetik sartu ondoko iluntasun totalean, Don Gergorio ala azkonarra, edo Txanogorritxoren otsoa aurkituko duzun, harik eta hitz egin dizun arte. Azkenean, amaitu eta gero ere ez zaude hain ziur ez ote zen otso Don Gergorior mozorrotoa, edo, gutxienez, azkonarren bat ez ote zegoen abadearen ondoan. Neureagaz gogoraturik, eta umeekin hartzen zaila ere ez zen konfiantzan bermaturik, haien konfesioak jolas serioago bat besterik ez ziren, Jainkoak ere eskertuko zuelakoan lantzean irribarre bat egiteko motibo bat. Aldareko santuen materiala ezagutzeko ere ez zen metodo txarra, iheltsuzkoak irribarrera biltzen ziren bitartean, zurezkoak ez baitziren mugitzen ausartzen, pipi xaxatuak bizkorrago jango zituen beldurrez. Zortzi urteko neskatxo bat sumatzen dut lehiatilan, zutik bertara okertua, belauniko ez baita iristen ukondoen pausalekura.

– *Agur, Maria, txit garbia.*

– *Pekatu barik sortua.*

– *Don Jabier! Txakurkume bat nahi dozu?*

– *Txakurkume bat zelan?*

– *Gure txakurrak lau ume egin ditu, eta aitak dino bat ez besteak hil egin behar direla, inork hartzen ez baditu. Abadetxean bi be sartu leitekez. Hirurak be bai igual. Gero denon artean zainduko doguz, jolasorduetan eta.*

– *Ez dago txarto pentsatua, baina merezi dau hobeto pentsatzea.*

– *Arin pentsatu behar da, ze gure aitak atxurrari behingoan heltzen deutso.*

– *Egun batzuetan ez dau hori egingo. Neuk esango deusat amari gordetzeko atxurra aitari.*

– *Orduan, abadetxera?*

– *Oraindino ama behar dabe baina!*

– *Hareek ama faltarik ez dabe igarriko, begirik zabaldu be ez dabe egiten eta.*

– *Baina amaren esnea behar dabe. Derrepentean ekarrita, hil egingo jakuz. Abadetxean ez dago esnerik.*

– *Neuk ekarriko dot etxetik.*

– *Baina, begiak zabaldu arte, guk emonik ez dabe edango.*

– *Orduan, gero bai?*

– *Zeozero asmatuko dogu. Kanpoan berba egingo dogu. Orain esan zeure pekatutxoak.*

– *Nik ez daukat pekatunik. Horixe esatera etorri naz.*

– *Hau bai hau neskatxo fina! Errezatu Jesukristo neure Jauna, eta nik parkamena barik, bedeinkapena emongo deusut.*

Txakurkumeak abadetxera ekartzea nola saihestu estudiatzen badut lana, baina gozoago eta konpongariago izango dela uste dut udalbatzari festaburuko meza nagusira bandera espainologaz sarrera mozteko baino. Oraingoan bederatzitako urteko mutiko bat dator, aurretik berau, gizontxo baten moduan.

– *Agur, Maria, txit garbia.*

– *..... –Ez diot erantzun.*

– *Agur, Maria, txit garbia!!*

– *Hemen ez jagok inor... inor... inor... –darantzut, oihartzuna imitatuz.*

– *Zeu zer zara, ba?*

– *Ni ez nok neu.*

– *Zu Don Jabier!*

– *Ez dok esaten, ba, 'Polentino perratzailea' guzurrezkoa dela? Neu be guzurrezkoa nok. –'Polentino perratzailea' ipuin bat da, deabruena, umei asko gustatzen zaiena.*

– *Orduan, guzurrezko bi! Polentino eta zeu.*

– *Ni bai, baina Polentino ez. Neu nok Polentino!*

– *Bai, kontixu! Eta ni deabrua, ezta?*

– *Zergaitik ez?*

– *Ni ez nator inpernutik.*

– *Baina joango haz, behar denik sinisten ez badok.*

– *Guzurra ez da sinisteko.*

– *Egia antza daukanean bai!*

– *Zer ardura deutso egia ala guzurra izan?*

- Hortxe izorratu nok! Benetako deabrua haz. Egia zein guzur, bardin?
- Bardin-bardin ez da izango, baina nik ez deusat igartzen.
- Zelan dakik, orduan, Polentino guzurrezkoa dela?
- Ipuin hori lehenengoz kontatu zeunskun aurreko domekan, zeuk esan zenuen sermoian inpernuaren bildurrik ez izateko, egotekokan be, hutsik zegoela eta. Gero zer da kontua eta, Polentino joan zenean, inpernu bete-beterik.
- Beterik, deabruz! Ez lagunez.
- Deabruak ez dira lagunak ala?
- Oh! Uste joat ipuinak mehaztu eta dotrinari gehitxoago ekin beharko deusagula Egingo joagu konfesinoa?
- Oraintxe, ahaztuta nago zertara etorri nazen.
- Neuk jakiat hori. Heure pekatuak esatera etorri haz, esateko modukoak badira.
- Handi-handiak ez dira.
- Jaulki daukaazanak, neuk bakarrik entzuteko moduan -altu hitz egiten baitzuen, teilatutik teilatura bezala.
- Elizan atzera begira egon, eskolan maistrari zinuak egin, amari lantzean guzur bat esan...
- Haor, ba! Lehentxoago ez dok esan egia ala guzurra izan zer ardura deusan?
- Gure amari be ez dot uste askorik ardura izaten deusanik.
- Txokatzen jatak horixe!
- Atzo esan neutsan amamak erre kara salto egin ebala. "Zein errekatara?", itaundu eban, eta nik: "Handira!". Eta berak: "Orduan, utzi bakean". Eta untxiari narrrua kentzen jarraitu eban.
- Amama agertu zoan?
- Agertuko ez zen, ba, guzurra zen eta?
- Ah! Kasu batzuetan egia dok, beraz, guzurra zein egia antzekoak direna. Beste rik?
- Inoiz berorri be egin izan deusadaz zinuak.
- Orain zergaitik dinostak 'berori'?
- Ez naz fidatzen, 'zu' izanda, pekatuak ganoraz parkatuak izango diren.
- Zu zein berori, bietan neu bera nok.
- Zeu bai, baina bera ez.
- Orduan, nor nok ni?
- Zu, geure laguna. Berori, Jainkoaren ordezkoa.
- Jainkoa be zuen laguna dok.
- Orduan, zertarako behar da haren ordezkorik?
- Sobra nagoela esan gura dok?
- Apur bat nahastuta bai.
- Neurea errua, zuketara jaisteko adeia eskaintzearren. Berorika hutsean jarraitu izan bagendu, ez zoan identitate arazo nahaspilatsu hau sortuko.

- Nik ez daukat arazorik. Nor nazen ez dakidanean, amari galdetu, eta eginda!
- Horixe izango dok: nik ama falta. Beste pekatuak?
- Ez jat gogoratzen.
- Ez eik orduan bururik nekatu, asmatuak parkatzen ez najoan ikasi eta. 'Jesukristo neure Jauna' badakik?
- Zati batzuk bai.
- Errezatu horreek ahalik batuen, eta gero, penitentziatza, hiru Agur Maria, gaurko partean.
- Eta ahazten bajat?
- Errezatu oraintxe jarraian, eta eginda.
- Bi ez dira nahikoa?
- Errezaik orduan bat, eta parra.
- Bat gitxitxo ez da?
- Bapez orduan! Ego te absolvo... Spiritu Sancti, hanka hemendik!

.....

Lekeitioko Bilbo Aurrezki Kutxako atetik sartu naizenean, bi ilara luzetako buruak neuganantz biratu dira. Seguruenik, mekanikoki egin izango dute, atearen hots nabarmenak eta itzarote tentelgarriak eraginik, baina oraingoan izan duten aurpegi-espresioaren piztetik ateratzen dut merezi zuela iruditu zaiela. Denak emakume, gizon bat edo beste salbu (gizonak sekula ezin ditut zehatz kontatu, bakarra denean ere), ilara luzea leihatila argitsu batera abantzatu guran dago.

- Egun on denoi! -Marmara enpastatu bat jaso dut, nondik erantzera ezberdinak bereiztu bainoago deduzitu ditudan:
- Baita berorri be. Halan ekarri berorrek. Bardin berorri be. Halan bedi berorren-tzat...
- Denetan 'berori'-dun zer bait.
- Kanpoan ez dago txarra, horrek ez dau barrukoa beti onduko baina.
- Beti laguntzen dau, kanpoan be ibili behar izaten da eta.
- Jente askotxo, ezta?
- Denok batera desdirutu gara, antza -gizon batek.
- Nik lapikoa martxan uztea nahikoa izaten da, baztar guztietan jentea pilatu daiten -andre batek.
- Pasa aurrera berori! -agintzen dit buru batek, lehiatila batetik kanpora luzaturik-. Bat gorabehera, honeei ez jake denporarik sobratuko.
- Nik horixe daukat sobra! Eskerririk asko. Hemen ederto nago. Horrela, bide batez, auzo-herrietako jentea be ezagutuko dot.

- *Horixe ez don Gizaburuagako abade barria?* – ahapekatu diola uste dut haratxoago emakume batek ondokoari.
- *Izan leiteken. Gazteak dagozen herrietan, barria errazago don zaharrak dagozenetan baino, honeek ez dozan sekula hiltzen eta.*
- *Segi aurrera berorrek! Nire lapikoa ikasita dago itxaroten.*
- *Erretzea zer den be jakingo jon harek, behin baino sarriago* –gizonak.
- *Senar tontotxoak igartzen ez deusano!* –beste andre batek.
- *Gure gizona erraz pozoindu leiteke, aurrean ipintzen jakona itsuan jaten dau eta*
- *Hori be pentsatu izan don noizbait, orduan.*
- *Ene ama! Pentsatzen dogun guztia egingo bagendu, honezkero Lekeitio akabaturik legoke.*
- *Ez hain arin. Pentsatzen dogun guztia egingo bagendu, jaio be egingo litzatekez batzuk.*
- *Leku txarrean hasi gara berbetan, abadea entzule dela.*
- *Pentsamendua pekatu bada, salbazinoa gatx dago hemen, jauna. Zera, zelan dau izena berorrek, atrebentzia lartxo ez bada?*
- *Xabier.*
- *Don Xabier, orduan.*
- *Bai, nahi badozue. Banoa apur bat ohituz horretara be.*
- *Zelan nahi leuke, ba, berorrek? Xabier, hutsean?*
- *Neuk be ez dakit, barriegia naz eta. Oraintxe arte inork ez deust Don Xabier esan. Entzutun dodan bakotxean, ezin dot susto txiki bat ekidin, atzean beste nono dagoelakoan.*
- *Oh! Horretara errazago ohituko da berori* –dio beste gizon batek– *andren pekatuak entzutera baino.*
- *Eta gizonen txarrikeriak zer?* –gizonaren atzeko emakumeak, eskua aurrerantz luzatuz.
- *Pasa bedi aurrera berori* –diost emakume batek–, *bestela, hementxe zorabiatuko dabe eta.*
- *Eskerrik asko, emakume! Aurrera pasatuta, ezingo neukez zer guztiok entzun. Ez eidazue zuen artean trankil egoteko atseginik kendu.*
- *Ez berorrek txartzat hartu, baina kontutxo bat aitatu barik, neu be ez nago trankil.*
- *Nik erantzutekoa bada, jakingo dozu.*
- *Orain abade barriek ez daroe koroirik?*
- *Egin eusten, abade ordenatzerakoan, baina barriztu ezik, hori be bardindu egiten da.*
- *Egia esan, lastima litzateke ule kiribil hori lorrintzea.*
- *Hemen, jauna, luzaro jarraitzen badau* –dio hizkera ironikoa ala maiestatikoak daukan igarri ezin diodan gizonak–, *praka-barrenak erakusteko eskatuko deusie*

- berorri*–. Emakume bati eskapatu zaion txilioan, besteek aitzakia polita aurkitu dute, bakoitzak bere barre motari jaregiteko.
- *Barrenak bakarrik?* –galdetzen dut tonu eskegian. Emakume txilioginari itome-nak eman behar dio.
- *Gehiago iradokitzen ez naz ausartu* –gizonak.
- *Baditudala segurutzat jotzen da, beraz.*
- *Halantxe gaukiez ohituta, ikusten ez dena sinisten.*
- *Beharbada, kapritxo hori egiteari ez neuskio hain txarto eritziko, gagozen lekuari zor jakon erreberentziagaitik ez balitz.*
- *Bankuari erreberentzia? Edarra komenentzia!*
- *Jainkoa ez al dago hementxe?* –galdetzen dut solemneki.
- *Hemen eta denean, hori be sinistu behar ei da eta.*
- *Baina hemen... Benetako Jainkoa esan nahi dot.*
- *Txintxina? Oh! Jarri belauniko, ea zenbat gehiago emoten daben.*

Ilara biak tropelduz doazela esango nuke, bat libratzen deneko, hiru-lau sartzen baitira atetik. Beharbada, ez litzateke txartoegi pentsatzea batzuk bankura sartzen ari direla, 'Gizaburuagako abade barria' hurretik ikustearren. Argi dagoena da barruan dagozen begi guztiak nire gainean direla, leihatilan atendituak izaten ari direnenak barne, operarioek kargu hartu behar izateraino. *Ez dozue sekula abaderik ikusi ala?* Ustez, gehienbat, aurpegira begiratzen didatenez gero, hantpatzen naiz neugatik dela pentsatuz, baina dudatzen dut ez ote den sotanagatik, aidizka begiradak oinetaraino jaisten baitira. 'Tomateren' bat ez joat edukiko, ez tok? Barreetatik eta Gizaburuagan nekez irudika nezakeen hizketa solte samarretik, Lekeitioko jendea ezberdina dela ateratzen dut. Koroiaren 'bardintzea' delako ebidentzia xoxoa ondo etorri zait gehiago egingo ez dudan beste gauzetako bat horixe dela deklaratzeko saihesteko. Gauzak gertatu ahala esplikatzeak ere nahiko zailtasun izan dezakeela pentsatu behar da, aurrerapen temerarioetan menturatu gabe. Ilara badoa aurrerantz, eta, erdi aldean, adinean gora samar dirudien aurreko emakumeari diotsat, ingurukoek entzuteko moduan:

- *Diru apurtxo bat atera behar, ezta?*
- *Apurtxoa beharko, askorik ezin izaten dogu sartu eta.*
- *Sartu be egiten dozu aka?*
- *Je! Hemen sartu barik ez dabe goraintzirik be emoten.*
- *Harritzen naz.*
- *Horixe izango da San Antolinen miraririk handiena* –dio atzekoak.
- *Handiena ala lehenengoa?* –beste batek.
- *Bildurto nozue, baina baietzean nentorren. Nik ez dot hemen txori txikirik sekula sartu, eta ikusiko dozue zelan emoten deusten.*

Leihatilara iritsi naizenerako, operarioak prest dauka sorta. Hala ere, bislleteak banan-banan kontatuz uzten doa. Bitarte horretan, apur bat alboratu eta beste bezeroei zeinuak dagizkiet, operazioa ikus dezaten. Sorta eskuratu didanean hots egiten dut:

- *Ikusten? Nik ez dot inoiz ezer sartu, eta begira zer datorren hemen.*
- *Piloa, gainera!* -hots egiten du, 'apurtxoa' aterata, zer ikusiko zain gelditua zen emakumeak-. *Nik horrenbeste aterako baneu, txakurrek kaxarrankan altzatuko nindukie.*
- *Beno, huts-hutsean be ez da!* -diot, operarioak luzatu didan luma harturik-. *Sinatu egin behar da.*
- *Batzuek horretantxe be ez genduen ikasi* -dio gizonak.
- *Ba, hemengo Jainkoak, lehen esan dogun horrek* -billeteak eskuan dantzatzen ditudala-, *apenas ulertzen dauen ezjakinen mezurik. Etorri domekan Gizaburuagako meza nagusira, ea beste Jainkoagaz zelan konpontzen garen.*
- *Hemen lako sermoiak egiten baditu, jente barria gehiago joango jakola uste dot* -lehengotik eskapatuko deusana baino.
- *Bestela, etorri bertora hurrengo hilaren lehenengoan, eta ikusiko dozue barriro be zelako piloa emongo deusten.*

Nire hileko soldata, 'nomina' esaten zitzaiona, ez zen iristen hilean hiru mila pezetara, ezta Gizaburuaga eta Amoroto batera atenditzen nituenean ere. Ez zen, berez, dirutza bat, baina bai sinadura bat konpentsatzeko beste, nominatik bakarrik ez baikin bizi. Zenbait jenderengan nahasmen handia zebilen zertatik zehazki bizi ote ginen. Zerbait entzuna zuten estatutik 'jaten' ote genuen, baina ez zekiten garbi nola bideratzen zen aska hori. Apaiz batzuk saiatzan ziren bakarrean joaten, bezero gabeko unean, eta beste batzuek ahalik disimulatuen burutuko zuten operazioa, leihatilara konfesatzeko bezala makurtuz, droga-paketetxo baten entregua bailitzan. Nire kasuan, ikusi zuten, ba, nola zen izatekoa, baina nahiago izan zuten euren nahasmenean jarraitu, nahasmenak hizketarako bide posible asko baitakar, eta argitasunak bat besterik ez.

.....

Uste dut badudala nola argitu. *Hauxe besterik ez najoan behar oraintxe!* Leihon, ibai aldetik, aurpegi zatar bat hauteman dut. Ukondoak barlasaia, paparreraino bakarrik ikusten zaion gorputza neure antzera jantzita ageri da, kolorez

behintzat, sotana ezin baitu izan. Leihoz kanpora dagoenez gero, gauaren berdinkuntza ere izan daiteke.

- *Nor zara zu?*
- *Badakik ondotox be.*
- *Zer behar dozu?*
- *Gaurkoa hiretzat gau inportantea dela eta, bisitatxo bat egitea pentsatu joat.*
- *Ez daukazu errespeturik. Jakin behar zeunke nik zuga ez dodala sinisten.*
- *Baina hemen najabilk. Heu be hortxe hago, lehenengo sermoian esango doazen gauza asko ez sinistu arren.*
- *Nire ahotik ez dau urtengo sinisten ez dodanik.*
- *Baina bai makina bat ez-siniste gorde.*
- *Predikatzen dodanaren erantzule naz, eta gordetzen dodanaren jabe.*
- *Eta bitartean zenbat zalantza?*
- *Horreen be jabe naz. Edo zu gehiago poztuko zaituena: jasaile.*
- *Autortu behar dok lehenengo sermoiaz artekatxo habilela. Ez dok zer esan edo zer gorde bakarrik. Azpi-hats nagusia banitatea dela esango neukek. Edo, zeuen jargo errefinean, distirasun ongile bat.*
- *Beste toki batean baliatu beharko dozu sarde hori, lehenengo sermoia itxita dago eta.*
- *Ez nok engainatuko. Balego be...*
- *Osatuko neuke zu barik.*
- *Hori ikusiko joagu.*

Mehatxua ez zait gustatu, datorrenagandik datorrelako bainoago, jo duen nerbioa jo duelako. Nire zalantzak segurantzei buruzkoak dira, hots, ez dakidala nire segurantzak nola hartuak izango diren. Oso-osoan ez bada ere, hartaz nahiko ondo informaturik eta esperientzia propioz ere, seminarioko errebeldiatik eta opretatik, nahiko biziro barneraturik natorren egoera orokorra badakit, bere ahalbide oparoetan, pozoitzen ere hasia dela, gazteriarekiko oro har, abade gazteekiko bereziki. Herriarentzat apaiz egin naizela badiot, diokedanez, badirake Jainkoa bigarrentzen ari naizela ulertuko dutenak. Herri hori Euskal Herria dela badiot, berriz, hori ere badiokedanez, laster zabalduko da separatismoa predikatzen ari naizela. Fedean, kontzientzia araua baino behinagoa dela badiot, norbaitzuek Elizaren bazterkuntza ulertuko dute, ohartu gabe erakusten ari direla Elizaren izate nagusia arauan sentitzen dutela. Ondoren dioket kontzientziak askatzen laguntzera natorrela, eta orduan bai. Orduan susmo guztiak baieztatuko zaizkie. *Ikusten? Haur erreboluzinoa aldarrikatzerat jatork.* Entzule artean, baliteke txibatoren bat egotea, meza ondoren, elizpean edo tabernan, eskuan muin ematera etorriko zaidana. Barruak ez dit ematen trantzea saihesterik, zeremonia hori elizan bertan eginaraziz,



nire ikaskide batek egin duela badakidan bezala.

– *Orain, kristau maiteok, Jaunaren bakean joan aurretik, lehenengo egunean propo-  
satu deutsuedan hartu-emon jainkozko eta begirunezkoaren zigilu moduan, zatoz  
zeuen artzain barriaren esku apalari mun emotera, Hirutasun deunaren, Maria Bi-  
jina txit donearen eta Eliza ama santuaren izenean.*

Karrera berdina eginik, ordena bera hartuak izan arren, ez gara denok  
berdinak irten, eta aldea ez da txikiagoa izango, gorringo biko arrautzatik, bata txi-  
ta eta bestea apokumea jaio zirena baino. Konparazioa ez uler oker, txitak apoku-  
mea jan baitzuen. Lehengo burua berriz ere leihoan da. Horrexek ez dit utzi behar  
lo egiten, egiteko moduan banengo.

– *Neu hasiko nok ala heuk ekingo deutsak?*

– *Nik ez daukat zugaz zeri ekinik.*

– *Hmm! Pentsakizun larri samarrak darabilzak.*

– *Oker zagoz oso, argia zarelakoan. Larritasun horreek nire pozaren osagai bat  
gehiago besterik ez dira.*

– *Pozten nok! Horrek esan gura jok neugaz jarduteko be aldarlean hagoela.*

– *Leiho horretan zagozela, ez. Ez jat gustatzen hontzagaz berbetan nabilela emon  
daien. Edo sar barrura, edo ezkuta azpiko kortan.*

– *Azpiko kortan hautsa, amarauna eta txarrikeria besterik ez jagok.*

– *Orduan, sar sukaldera. Hau be ez dago barriegi, baina ni nagoen lekuan ez dauka  
zu atondu ezinik.*

– *Abadetxe barruan ezin joat egon. Zorabiatu egiten nok, zuek estasiatu dinozue,  
eta hori deabrueztat hiltzea baino txarragoa dok. Hiltzetik laster errekuperatzen  
gozak, baina zorabioak hipokanpoa jotzen jeuskuk.*

– *Orain ez daukat berbetarako gogorik. Nahiago dot pentsaketari ekin.*

– *Nik ez haut pentsaketatik erauziko, horretantxe lagundu baino.*

– *Esaterako?*

– *Esaterako... Hor ibili haz, lehenengo sermoirako, herria, Euskal Herria, araua,  
kontzientziak, eta pitokeriak! Zergaitik ez dok, zale samarra hazela sumatzen do-  
dan moduan, lehenengotatik bonbazo bat jotzen, esaterako, seminarioan bildurke  
ezkutatu heuen antikristoarena?*

– *Antikristoa Eliza ofiziala zelako tesi ha?*

– *Hasiera deigarria litzatekek, 'distirasun ongile' hori gainezteko modukoa.*

– *Ni kontzientziak askatzera nator, ez kraskatzera.*

– *Kontzientziak askatzeko, demonioaren existentziarik eza aldarrika heinke, inben-  
tzino bat besterik ez garelata tematuta habilenez gero.*

– *Zelan edo halan, nahasmena gura dozu, ezta?*

– *Heure arrakasta besterik ez joat gura, gardentasun zintzoan oinarritua bera.*

– *Uste dot badakidala arrakasta handiagoa nondik lortu, kontzientziak hobeto as-  
katuz. Neuk ez sinistu arren, eurek, seguruenik, sinistuko dabenez, ez bildurtzeko  
esango deutsset, ze deabrua, arerioa barik, euren laguna dela.*

– *Hori ezin dok esan! Beno, esaik, gura badok. Heuretatz txarrago, inork ez deua  
sinistuko eta.*

– *Nik azalduko dodan moduan bai, beharbada.*

– *Deabrua kristauen lagun? Hori kontzeptualki be kontradiktorioa dok. Laguntzat,  
aingeru jagoleak jagozek.*

– *Horreek konfunditzeko ipinita dagoz. Benetako laguna, edo laguntzailea, deabrua  
da.*

– *Ez jakusaat zelan, neu milaka urtetan bestetara ibili eta gero.*

– *Erratuta zagoz. Deabrua kontzientziari pekatuaren erantzukizun guztia kentzeko  
dago. Zergaitik garelata uste dozu honen pekatari? Gustura, gainera, ze errua beti  
tentatzailearena da. Tentatzaileak, alde batetik, pista guztiak emoten deuskuz, eta  
bestetik, berak jausiarazten gaitu. Geuk ez dogu ezer egin, jaustearen plazerra go-  
zatu baino.*

– *Baina pekatu eginez!*

– *Baina barriro jausteko.*

– *Baina pekatari, zeuek!*

– *Oh! Pekataritza titulu noblea da. Ego te absolvo, eta garbi-garbi. Pekatuak ez  
deutso arimari txartasun esentzialik ezartzen. Zeuri jagotzu enkargu dibino hori:  
txartasun esentziala, izatezko immoralitasuna monopolizatzea. Funtzino laguntzaile  
bikaina. Benetako redentorea zeu zaitugu.*

– *Orduan zer esan behar deutsek? Ekin eta ekin jarduteko?*

– *Lehenengo moduan jarraitzeko esango deutsset, baina trankilago, bildur barik. Ho-  
rixe da kontzientziak askatzearen kako nagusia.*

– *Kosta behar jak milaka urtetako menpetasunak genetaraino barneratua deusena  
garbitzen.*

– *Astiro-astiro ekinez, uste baino lehenago gertatzen da miraria.*

– *Pekatuak egin ahala garbitu ahal izateak ez jok kentzen behin edo behin deskui-  
datzea hatarako asti barik harrapatua izaten, heriotzaren aldetik.*

– *Eta?*

– *Inpernura! Ja, ja, ja!!*

– *Oh! Inpernuaz, beste batean berba egingo dogu.*

– *Bialdu egin gura nok?*

– *Bada oraindino beste kontutxo bat, sarde hori geldi bazendu. Eta zintz egiteko,  
errekarantz begiratu, mesedez.*

– *Ona hago hi mundu errealetara inkarnatzeko, profeta milinga hori! Heu be majo  
hago, hanka hankaren gainean, sotanapeko eremu graziosoak erakutsiz.*

- Horra begira zengozen? Arrazoi bat gehiago, sardea geldu eduki daizun eskatzeko.
- Zer dok beste 'kontutxo' hori, diminutiboak kenduta, ahal bada?
- Arestian aitatu deutsudan funtzino esentzialaz gainera, badozu beste zeregin bat, gitxiago interesgarri ez dena, jolasgarri dirudiena, baina terapeutiko gertatzen dena.
- Hori dok kalifikatzaile piloak, deabrua bezain kontzeptu zehatz bat nahasteko, 'Zoriongarri' eranstea besterik ez heuen behar.
- Arnasa faltagaitik ez dot esan.
- Ni zoriongarri? Ez neuk dakidala!
- Kamuts samarra baitzara. Adarrak eta sarde-hortzak zorrotz, baina garuna kerdartuta. Ez al zara konturatzen, gure ipuinik politenetan, gizakiak bere zugazko superioritateaz gozatzeko zarabilzela? Polentino perratzaileak bere pipontziagaz engainatu eta bertan birrintu zituen zure deabru txiki guztiak. Gero, bera inpernura iritsiko ete zen bildurretan geratu zinen. Iritsi zen, eta ate guztiak hermetiko itxi eta deabru guztiei barrutik sakaka eusteko agindu zeuntsen, bera sartu ez zelten. Gizajoak hodeien erreinura salto egin behar izan eban, hurretik pasatu jakon lehenengo oinaztuan. Martin Larrinogaz gogoratzen zara?
- Munduko jakinbeharrak agorturik, gehiago jakin guran, ikasle bigaz inpernura etorri zen abade txotxolo ha?
- Txotxolo harek ederto engainatu zinduzen, ikasketen ordainez, hiruretatik bat inpernua gelditzeko tratua zarraturik, bere geriza emon eutsunean, heldu atzekoan esanez. Eta zuk heldu, ikasle bat zelakoan. Eta beste zenbat horrelako! Zelan gura dozu, zure kontura hainbeste dibertitu eta gero, zure inexistentiaren dezepzinoa predikatu daidan?
- Eta Txili lekeitiar seineruaren kasua zer, Lea-Artibai guztia urteetan izupean eduki ebana, Gizaburuagako Oibar ermita eraiki arte, niñanako bildurra apurka-apurka baretuz joan zeiten?
- Hori be egia da, baina bildurrezko kasuak beste guztiei emozino handiagoa emotearren gertatzen dira. Bildurragazko lotura zerbait barik, ez dago edertasunik. Gainera, zeuk be behar dozu bizipoz apur bat, hilezkortasunera kondenatuta zagozenez gero. Zure curriculumari begiratuta, oso inbentzino ona eta ongilea zara.
- Orduan, Jainkoaren kasua be neure antzekoa dok. Itzel! Horixe dok interesgarria. Esaik horixe lehenengo sermoian.
- Astiro, Mefisto! Eta utzi, mesedez, buztan-musturra disimuluan harriko xaboiak igurtzeari, bihar mosuak horrexegaz garbituta sartu behar dot konfesalekuan eta Jainkoarena beste historia bat da. Haren izenegaz, astakeria izugarriak eta zapalkuntza amaigabeak burutu dira. Gizateriari aurreratze asko falta jako oraindino, Jainkoa inbentzino ona eta ongilea izateko mailara ailegatzeko.
- Nire adoratzailleak erretzen be hamaika astakeria egin izan dok!
- Ez zeure merituz, Jainkoaren ordezkotzakoen deprabazinoz baino.

- Batetik, meritu guztiak kendu eta ezerezean utzi gura nok, eta bestetik, inbentzino ona eta ongilea nazela. Beste arloetan, horrelako kontradikzinoak garatzen badozak, zerbitzari efikaza jaukaat higaz. Agertuko nok barrero, eguna zabaldu aurretik. Orain hire herritxo barri honetako endredo hasibarriak formalizatzerara najoak.
- Kontuz bidekurutzeetan, bizirik eta osorik gura zaitut eta.

.....

Neskek, lehen jaunartze ondoren, emakumeen aldetik konfesatu behar zuten, bost edo sei urteko umea bazen ere. Sakramentuetan, adin nagusia azkar heltzen zen, fedearen errerealizazioan, heldutasunari umetasuna aski zaiola sentiarazteko edo. Nire lehen jaunartzea bost urtegeaz izan zen. Abade egin nintzenez, batezbestea zazpi urtetan aurkitu nuen. Handik berrogei urtera, askoz atzerago zebilen. Aurrera gindoazelakoan, dena ari zen atzeratzen. Nire umezaroan, jaiotza-egunean bertan edo, luzeenez, biharamunean behar zen bataioa. Geroago, ospakizun familiar bati lasai itxaron ahal zion, lehen jaunartzeak jatetxeko txandari bezala. Ezkontza ere, paraleloki, pubertarotik baino nabarmenki hurrago zebilen erretiratik. Zorionez, amodioa ausarki aurreratatu zen, baina naturak ez zuen ernalkortasuna arabera luzatu, eta horrela ez zen mirari heriotzak atzera egin behar izatea. Haurdunaldiak bakarrik zirauen lehenean, matrikulazioak fetoraino hurbildu baziren ere.

Lehen jaunartzerako konfesioa, entseguak barne, aurretik izan ohi zen, mutiko zein neskatok. Aurpegiz aurpegi hitz egin zenezakeen, erdi ilunetan bazen ere. Lehen jaunartzetik aurrera, ostera, ipso facto, neskek andrezkoen aldetik etorri behar zuten, sei urteko haurtxoa bazen ere. Bezperan aurretik, biharamunean albotik, saretxo ondo forratuak bereizirik.

- ✚ Agur, Maria, txit garbia!
- ✚ Pekatu barik sortua.
- ✚ Ez da ezer ikusten. Hor zagoz?
- ✚ Erantzun deusut. Ez dozu entzun?
- ✚ Ez dot ezer ikusten.
- ✚ Nire ahotsa ezagutzen dozu.
- ✚ Bildurte egiten naz.
- ✚ Badakizu neu nazena.
- ✚ Ez naz ailegutzen.
- ✚ Jarri zutunik. Zutundu zara?
- ✚ Bai, jauna.

- *Ukondoak pausalekuan ipini be bai?*
- *Bildurdu egiten naz.*
- *Malentxu! Neu naz. Don Jabier.*
- *Baina ni bildur naz.*
- *Ipuintxo bat kontatuko deusut, zeuri gustetan jatzuna.*
- *Orain ez dot ipuinik nahi.*
- *Nahi al dozu aurretik eta...*
- *Bai!! -Ealdia amaitzeko astirik ez dit eman.*
- *Malentxu, Malentxu! Negarrez zagoz?*
- *Ia-ia bai.*
- *Ia-ia ala negarrez? Malkoak darizuz.*
- *Negarra ozena izaten da.*
- *Isilak be badagoz, zure oraingoa lakoak.*
- *Berba eragiten zeunstan, eta ezin neban negar ozenik egin.*
- *Amaitu da! Zerk bildurdu zaitu?*
- *Hortik ez da iluna besterik ikusten.*
- *Ilunak ez dau haginkarik egiten. Begira! Sartu burua barruratxoago. Ez dago beste inor. Neu bakarrik nago. Ikusten?*
- *Holan, bai.*
- *Egingo dogu beste aprobatxo bat?*
- *Ez, ez, ez!! Ni albotik ez!*
- *Beno, beeno... lasai, laaasai... Berton egingo dogu.*

'Beste aprobatxo bat' egiten saiatzearen arrazoia distintzioak eragingo zuela banekien ondorioa ekiditea zen, besteek ere halaxe nahi izango baitzuten, *neu be aurretik!... neu be aurretik!* Azkenean, lehen jaunartze aurreko entseguen itxurara bildu zen dena, adinean aurrera samar zihoazen edo aurreratuago eman nahi zuten batzuen aldetik izan ezik, nahiz eta hauek ere apur bat biolento sumatzen nituen, hain gutxiengo nabarmenezaren kezka baino ez gutxiago, eurengandik niganako gutxiespentzat har nezakeela pentsatzen zutenagatik (suposatzen dut) haserretuko ote nintzen beldurrez. Oraindik berri samar nintzela, batetik bigundua bestetik urratzen zen egintza estridente hari laster aurkituko niola harmonia humanoago bat erabaki nuen, zer eratan aurreikusten ez banuen ere. Bitartean, 'neskatoak aurretik konfesatze' hark, herritar gehienek artean nobedade mailara ere iritsi ez zenak (gehienek ere, abade berriaren umeekiko pasadizo bitxi bat gehiago), eskandalu txiki bat bihurtzeko jitea hartu zuen, belarri makurrago batzuk ukitu zituen. Txikitik handiratzea bideak berak egingo zuen berez-berez, handitik txikira itzultzeko, balentria heroikoak behar ziren legez. Nahikoa zen, 'neskaren esanahi orokorrean, norbaitek, haurra barik, neska sasikoa ulertzea, interesgarriago zen moduan, ordenaren birtuosoen, eskandaluetan exzitatzeko zirenek, aral

mendetsuen defentsa-sistema guztia aktiba zezaten, mundua deskonposatzen ari zelako aldarrian arrazoi bat gehiago pilatuz.

- *Jakin al dozue abade gazteon azken inbentua?*
- *Gure Jauna fianbreran eroaten hasi direla?*
- *Handiagoa! Gizaburuaga eta Amortoko abadea neskak aurretik konfesatzen hasi dok.*
- *Denen aurrean?*
- *Eta banan-banan.*
- *Andrak be bai?*
- *Hori be laster entzungo joagu.*
- *Onak gagozek gizonok!*
- *Hemen kaosa jatork.*
- *Zer dok hori?*
- *Gertatzen denean igarriko deusak.*
- *Hainbesterako ez dok izango, geu be hemen gagozek eta.*
- *Abadeek ahalmen subtilak jaukiezak gero!*
- *Jainkoak ezin jok hainbesteko hankazgora permititzeko bezain absentista izan.*
- *Hobe joagu ahal dauela pentsatuta ibili.*

Bi herrietarik edozeinetako eliztarren lekukotza ugariei esker, funsgabea zela frogatzea hain erraza zen faltseria horrek baino gehiago aztoratzen ninduen gizonezkoen euren konfesioak, aurretik izatea hain praktika naturalizat jotzen zenak. Emakumeena albotik eta separazio ondo bermatuz izatearen arrazoia ageria eta konbintzentea zen: ezin zen biderik eman, barkamenaren sakramentua bera alde bateko zein besteko konkupizentzien gudu-zelai bilaka zedin. Nola ez zuten gaitzaren prebentzio bera antolatu gizonezkoen konfesioan? Hauen artean gayen portzentaia bat egotea nahitaezko bezala, litekeena zen konfesoera ere hurbileko izatea, berez edo asebide moztuen erreakzioz, neugan ere nabari nezakeen bezala, seminarioa saiatu baitzen, satanizazio guztien txingarpean, orientazio horretan grina gintzen. Elizaren doktrina inplakableak fenomenoak deprabaziotzat kondenatzeak ezin zuen ekidin sail hartakoa izan zedin, beharbada, bekatu huraxe aitortzera zetorrena, ukondoak ate gainean eta burua apaizaren golkoraino sartzera beharturik. Norantz lerratu behar zuen fenomenoak, konfesoera ere kide bazen eta, konfesiotik bertatik, ezin hobeto bazekien esku artean zeukanaren joeraren berri, beronek ere, alderantziz, sumatua izango zuen bezala? Auzia ez zen gutxiago nahasgarri bietako bat bakarra gaya izatearen suposizioan, neuz ere ondo esperimentatu nuen moduan, zeren, ustez norbera ez izan arren, aitortzaren iturri direktuak haren izaera gayaren berri zehatza emana zizun gizona edo mutila, ilunpean zure besoetara errenditzera beharturik zetorrena, nola hartu behar zenuen erreparatu mingarri bat gabe? Suposizio kezkarri eta konprometitu hori askoz bigunagoa

zen, hala ere, bigarren posible eta ez hain bakana baino, non denen jakineko (edo behintzat susmopeko) joeradun apaizaren esku artetik berdin pasatu behar zuten sail berekoak ez zirenek ere, ume eta nerabeak barne.

Hilean behin, artzapez-barrutiko abadeok (eskualdea, nolabait) 'erretiro-eguna' zeritzona izaten genuen. Gogoeta espiritualen ondoren, auzi pastoralak jorratzen ziren, teorikoki haiek askoz behinagoak, baina, izatez, hauek beti zehatzagoak, non gotzainaren eta bitarteko hierarkien aginduak eta ildoak transmititzen ziren, baita eztabaidatzen ere, obedituak izan beharreko baldintzan beti ere. Lekeitioko Ospitalean deitzen zen bilera hura lagunartetzat ere alazo etorri ohi zen, batez ere, bertako mojek prestatzen eta zerbitzatzen ziguten bazkari oparo, merke eta (pentsatzen nuen) lar benerakorrari esker. Ohiki, artzapez-barrutiko hogeitatu bat buru batzen ginen, baina, hizlari ospetsuren bat deitua zenean (teologo edo moralista handitzat zegoenen bat), inguruko artzapez-barruti eta komentuetara ere zabaltzen zen gonbita, halako eran, non, inoiz, ehunerainoko taldea elkartzen ginen, abadeak eta hainbat fraile mota batera, artean denok sotanadun edo habitudun; gehi ospitaleko mojen komunitatea bera, hain hitzaldi seinalatua entzuteko graziairik galdu nahi ez zuena, bazkari-lanak aurretik erdi burututa utzirik. Moja gajoak urti egiten ziren, hainbesteko sakralitatea hain zuzenki zerbitzatu ahal izateko dohasunean. Herrian, 'bele beltzen' ezohiko kontzentrazioa deigarri bezain dudagarri gertatzen zen, ez baitzekiten seinale ongarriritzat ala kezkgarriritzat ulertzekoa zen.

Egun hartan, teologia sakramentalean autoritate gorentzat zegoena etorri zen, ikasketak Salamankan hasi, Erroman amaitu eta Alemanian osaturik, bere liburuak misio-lurretan itzulia izan zirena, kasik mundu guztian, alegia. Gotzainak ere asistentzia iragarria zuen, non, gur eta men erakutsi inoiz ez nahikoaren bilaketaz harago, ordena-dei zorrotzen bat susmatzen genuen. Azken orduan, Bilbora ezustean etortzeko zen espainiar ministro baten harreran egon behar zuela-eta bigarren bikario diozesiarra bidali zuen ordezkari, lehenengoa bere ondoan behar baitzuen, ministroa ezker-eskuin hegaltzeko. Espektazio biziz itxarona zen hitzaldiaren gaiak zioen: *Penitentiaren bainoago Barkamenaren Sakramentua*. Hizlaria saiātu zen azaltzen, magistralki bezain bihozberaki, penitentiaren sakramentuan ordain-beharraren alde latza ahaztu gabe, noski, barkamenaren espiritu maitekorra zabaldu behar genuela. Konfesioa, betiko kondenatik libratze gisan baino gehiago, Aita eternoaren besoetara itzultze gisan ulertu behar zela. Entzuleriak emoziorako predisposizio osoz jarraitu zuen azalpenaren ondoren (txaloetatik esan zitekeen benetako errebelazio-une baten bizitzaile izan ginela), hizlariak galde-erantzunez txanda ireki zuen, dudak argitzeko asmoz adina (pentsatzen dut gaur), laudorio handiak etorriko zitzaizkion itxaropenez. Zenbait interbentzio eta euroi zegozkien erantzunen ondoren, neu ere zutitu nintzen, batzarreko gazteena, eta azaldu nuen:

Hitzaldiaren espirtu zabalkor, onberaren haritik, eta hizlariak transmititu nahi izan digun eta eskertzen diogun konfiantza-giroaz baliaturik, gaur egungo konfesio-praktikan sortu zaizkidan kezka delikatu batzuk azaldu nahi nituzke, ahalik apalkien, noski, neure ofizioango berritasun oraindik lumagabearen jakitun. Ez dago azaldu beharrik Elizak zer arrazoi ebidenteengatik ezarria duen andrezkoen konfesioa albotik eta belauniko izatea, saretxo ondo forratuzko leihatilak bereizkuntza zorrozki bermatzen duela, hemen dauden moja beneragarriek ondo jakingo dutenez. Hain argi ez dagoena da zergatik ezar zitekeen gizezkoena aurretik eta tente, konfesalekuaren espazio doi-doiak kontaktu fisikoa ia nahitaezko egiten duela. Fisikoa edo, zergatik ez, argiro hitz eginda, karnala, gauza jakina baita, proportzio kontu funtsean sekundarioak alde batera utzita, hain hitz polita bezain grina diabolikoa den 'libido' horrek (jainkosa bat dirudi) sexu ezberdinak zein berdinak kateatzen dituela, internatu zorrotzetatik pasatu garenok geure haragietan ere ondotox senti-tu ahal izan dugun moduan, gure bizitza komunitarioko sloganik inperatiboena izan zen *noli me tangere!* (ez ni uki!) hartan itsuturik genbiltzanean. Oraindik haurtzaro inozentean sartu gineno kostatu zitzaigun debekuaren zentzuaz jabetzea, baina hain karrera luze eta inoranzko ihespide gabea, zaila zen norbere izaera ere, ustez erabat kontrakoa izan arren, debekuak haiezatik erauzi nahi gintuen deribazioetan harrapatua izatetik libratzea. Aitortu behar dut niretzat konfesioa, nerabezaroan behintzat, nahiko atzerarazle izaten zela, batez ere, matrailak matrailen kontra, aholku zuzengarriak zela estutzailaz emateko samurtasuna zeukaten konfesoreekin, inoiz, neure urduritasun ez oso imaginatiboan, aurpegia kaka-usaindurik eramateraino. Metodoak lortu zuen, bai, konfesorearen burua urruntzea, baina, hilaren azkenean, urbanitatean jaso nuen zero lotsagarriak, komunitate osoaren aurrean esplikatuak, errotik kendu zidan esperimendu berrietan saiatzeko gogo. Goikoen-gana sentitzen genuen atzerakadak ez du esan nahi geu lagunon artean tankera horretako irritsak sortzen ez zirenik, 'adiskidetasun partikularrak' izenpean, sutsuki jazarrita zeudenak. Goikoen faboritotzat nabarmentzen ziren mutiko politen inguruan, halakoan kontsiderazio mailaren inbidiaz gainera, euren ederra irabazteko lehia inoiz obsesiboetan korapilatzen ginen. Gehienok apenas izan genuen parte aktiborako zorterik, naturaren jokaera txit selektiboaren arabera. Baina obserbatzaileon tropel nagusitik, aldatzea ez bazen ere, bai lortu genuen orientazioa bifurkatzea, neure kasuan zehazten zail nukeen proportzioan. Eta hona orain, konfesorearen aldean kokatzea egokitu zaidanean, bekatuen aitortzak berak non deskubriarazi didan zer zabaldurik dagoen gaitza penitenteen artean, denek neugana jotzea hautatu ez badute, kide-usaina harturik edo. Areago oraindik, bakanetakoa nintzelakoan, apaizak ere konfesatzen hasi naizenetik, geure saila ere dezente kutsatua dela ikusi dut, alde batera utzirik elizgizon apartatuak; baita komentuetan zehar kondenatuak ere, elizaren eta estatuaren arteko konkordatu santu horregatik ez izatera, kartzelan leudekeenak eta, kriterio zuhurrez, on handiagoen preserba-

zioz, ahalik ezkutuen pasa daitezen saiatzen garenak. Nire natura bekatari eta zoritxarrez ahulegiarentzat, 'Aita gurea' bera amaitzen dugunean bezala – "baina gaxtetik jagon gaizuz. Amen" –, gaitzetik defendatzeko erraztasun apur bat besterik ez dut eskatzen, trantze horretako intzitzazio etengabearen lekuan. Emakumeekiko grinan badut, gutxienez, kastitate-botoak inprimaturiko kemen erantsi bat, baina beste norabidean, ez daukat neure lotsa torturatzailiaz eta aitortzaileen aldetik ez-ikusi insolidarioaz beste heldulekurik. Berriz ere, Aita gurea-n diogun "ez-eguzu utzi tentazioan jausten" horren lagungarri efektibotzat irakatsi zigutenak (tentazioa 'aitaren' bategaz uxatu) kasu honetarako ez dit balio, ez baita itxura penitentea beso artean duzula, aitarenka hastea. Umeekin molda zenezake nola baiteko disimulu bat, baina mutil edo gizon baten muturretan nola aplika dezakezu baliabide hori, entzuten ari zarenaren horroreagatik dela pentsarazi gabe, motiboa garbi adieraztea askoz asaldagarriago bailitzateke? Azken aldirioan, turisten aldetik, batez ere, zeintzuen joerak herritarrek zer erraz imitatzen dituzten badakigun mangamotzez konfesatzera lasai-lasai etortzeko ohitura abiatzen hasia da, non haragizko kontaktua, espazio soilagatik ia nahitaezkoa, ezin duzun saihesten ahalegindu, penitente gaizoa beraganako higuina delako sentipenak gehiago apal dezan egin gabe. Ez dago mangamotzeraino jaitsi beharrik, ez baitakit oraingo alkandora tergalazko horien mangak ez ote diren ukitze zuzena bera baino kitzikagarriago. Ahaztu gabe emakumeekiko praktika separatazaila ez dela beste zenbait praktika-gaz bategi datorrena, zeren, konfessioaren gurentasunari ezer kendu gabe, bera baino sakramentu handiagoa den eukaristian, Jesusen beraren gorputza tarteko dela, apaizaren hatzak lasai kontaktatzen dira jaunartzaile femeninoen mihiekin, auzpegien eta gorputzen dekorazio guztiak lagundurik. Badakizue moralista handiak daudela defendatzen dutenak mihia dela organorik lasziboena, eta hatzak, eragile printzipalak. Gizonezkoetara itzulirik, badakizue konfessio indibidualaren praktika oso mende berankorretan nagusitu zela Elizan, garai haietan, hain zuzen, non, San Agustinen eraginez batez ere, pentsamendu platonikoa arrakastatsu zebilen. Batek baino gehiagok susmatua du, dagoeneko, konfessio katolikoaren kointzidentzia, kasuala izateko lar handia, Platonen eta, oro har, urrezko Greziaren homo-harremanean ederrespenagaz; gizonezkoen kasuan behintzat, zeren, lesbianismoa, baldin bazen, bistaratzeko baino duinagotzat jo bide zuten. Joera ederrestez gainera, bera eurrez praktikatzen bide zuten Platon konfesoreak esan izango zukeen: "Bihotzak emakume inofentsiboak albo ikustezinera, eta betoz gizon gordinak besoetara!". Espiritu horrexegaz diseinatua dirudi gure konfessioak, zeraz ez bainintzatekeen ohartu izango neure burua atakan ikusi arte. Izaera lar espontanoerik abertitu nahi nieke kontuz ibiltzeko delako grazia bitxi ustekoagaz ezen apaizoi ez zaigula mundu honetan permititzen maitasun platonikoa besterik. Neure interbentzioa proposamen tonuan amaitzeko, ez al dago, arimen arteko bereizkeria antidibinoak ezabaturik, edo denak albotik edo denak aurretik konfesatzerik? Edo espiritu horrek

ulertzeko denez, onartua eta praktikaratu izaten denbora sekularra beharko babiluke, eta lehen mende luzeetako konfessio komunitarioa birrezartzeko inspiraziorik nekezago itxaron baitaiteke Erromatik misil sendagarriak zerutik baino, ez al legoke, gutxienez, konfesaleku handiakoak diseinatzerik, bi gizaki, sexukide zein ez-kide, nasai eta arrisku gabe kabitzekoak, ahal dela tximini eta guzti? Ez baita kontua bizitzan ere hilkutxan bezain justuan enkajaturik ibiltzea, mundu hau bestearen prefigurazio kaskar bat besterik ez delako. Bere izate bekatariak mortifikaturik, hura purifikatzeko eginahalean diharduen arima gaizo honen aitorkizunak ulertuko eta diskrezioz baliatuko dituzuelakoan, eskerrik asko nire aldetik hainbestetik mezezi gabeko zuen arreta luzearen opariagatik".

Eseri nintzenean, buruak bakarrik mugitzen zirela ohartu nintzen, ez zuten mota nahiko uniforme lagundurik, norabide halaber nahiko berdinetan, aurretiko adostasun bat suposatzea zaila zenez gero, sen komun ondo garaturen bati zegokiola pentsatzeko moduan. Hizlariak bikarioari eta bikarioak hizlariari begiratzen zion, autoritatearen ala jakintzaren unea ote zen dudana bezala. Artzapezak atze eskuinean pilatua zen moja-talderantz begiratzen zuen, nola jarraitzen zuten han kontu hartuz bezala, bazkaria prestatzera joan beharrean. Buruen lehen mugiera flotantea bezalakoaren ondoren, hirunaka lerro berean edo, aurrekoek atzekoekin buru bat eginik, dozena erdinaka multzotzen hasi zirenean, zoruko askaren bate-rantz bezala, neuk ere, ukondoak izterretan eta matrailak ahurretan pausatuz, burua altzorantz gorde nuen, sotanaren botoiak kontatzeko zeregin lehen ere maiz praktikatuari ekiteko. Begiak okozperantz ahalik gehien okertuz ageri zen lehen botoitik belaunetan amiltzen zen azkeneraino, hamahiru. Zenbaki ona! Gonei gorantz tiratuz, egoerari buruzko zenbaki esanguratsua baten bila jo nuen. Hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi, hamazortzi, hemeretzi... horixe! Ez dakit zergatik, hemeretzia beti zenbaki inestabletzat jo dut, hurrengoan simetria grekoa dakusdalako edo. Kontua da, operazio hartan nenbilela, ahots bat entzun zela, esanez:

→ *Gure komentuan, bazkaria mahaian izateko ordua da laster, eta, beraz, gure komunitateak honetantxe agurtzen zaituzte. Bego Jainkoaren grazia zuekin.*

→ *Honeek ezin jaken fraile legalak izan –pentsatu nuen–, bazkari hobea probableago den lekutik alde egiteko.*

– *Besteok ere jaikitze ordua dugula iruditzen zait –esaten ari zela bikarioa ikusi nuen, 'besteok' hartan neu ere barruko nintzela ulertzeak burua botoietatik jasoarazi zidanean–. Gure teologo berri ausartak planteatu dizkigun auzi mortifikatuei buruz, hitz egingo dut artzapezagaz eta gero gotzainagaz, eta izango du behar den erantzuna, behar den lekuan.*

.....

- Ene! Abadeak be harategira? -hots egin zuten, sartu nintzenean.
- 'Haragitegira', baina 'okela' bila -zehaztu nuen.

Ez dut uste harrapatu zutenik. Horrexegatik ez ditut hitz-jokoak gehiegi maite. Subtilak badira, ez dira jabetzen, argiak badira, ebidentziak dira, eta bitartekorik ez dakit baden. Gizaburuaga txikian harategirik ez baitzen, Aulestira, jo nuen, eta hemen badirudi, ezagutza hurbilik ezagatik edo, gehiago txokatu zitzaizkela.

- Berorri ez al jako gehiago tokatzen hegazia? -jaulki du harakin-andreak, pareira iritsi natzaionean.
- (Joño! -zurto naiz naiz neurekiko-. Honek harrapatu jok, antza). Jakingo dozu hegazi handi samarrei -darantzut- okela gustatzen jakena. 'Beleei', esaterako.
- Ufi! Berak esan, gainera! Honeexek abade modernook mundu bitxia ipini behar deuskuela uste dot.
- Batzuetan -darrait-, bestearen pentsamenduari norberak aurea hartzea lakorik ez dago, efektua indartzeko.
- Haor, ba! Hor ibiltzen gaitun gu -sartzen da autuan beste emakume bat- geure pekatutxook zelan esan asmatu ezinda. Honen aurrean belaunikatzea nahikoa izango don, berak dena igartzeko.
- Ondo baderitzozue, etorri lasai Gizaburuagara, baina apenas ekarriko dozuen han entzunda ez nagoenik.
- Lan errazagoa berorrentzat.
- Entzun barik be parkatu neike. Kasik nahiago, gainera.
- Beti gauza bardintsuak entzuten direlako?
- Areago, inori kontatzen ibiltzekoak ez direlako. Nik zertarako jakin behar dot zuen isil-konturik?
- Orain arte, guztiz bestera hezi gaitue, ba!
- Beharbada, ordua izan leiteke zentzunari buelta-erdi emoteko.
- Jainko bat eta betikoari?
- Ni Jainkoagaz ederto konpontzen naz. Haren bildur bazarie, etorri eta neuk esango deutsuet zelan den kontua.
- Zenbat okela ipiniko deusat? -harakin-andreak.
- Ez dakit, ba. Egostekoa, behintzat.
- Berorrek esan behar dau hori.
- Kilo bat edo? Pare bat jatalditarako lain.
- Pare baterako, libra bat be nahikoa dau.

Aulestiko herrian laster zabaldu zen Gizaburuagako abade barria okelatan izan zela harategian, eta han joan zela, paketea sotanapean, pare bat txakur txikik atzetik zerraiola. 'Katua' ere (mozkorra) sotanapean ederto joaten ei zen. Edozein susmo ere bai. Ni, batetik, harrotu ez dakit, baina kilikatzen nintzen neure kautan, halako uhinak hedatzen zirelako nitaz, eta, bestetik, beldurtzen nintzen pentsatuz: *Hain gauza txikikiakaitik horrelako zeresana sortzen bada, zer izango ete dok, benetan handiak datozenean?* Herritarrik gehienek nobedade bitxitzat hartzen zuten, edo hartzen zutela uste nuena, batzuk laster arduratu ziren probokaziotik uler-tzen. *Gainera, albo-herrira etorri behar, gehiago nabarmentzearren!* Nabarmenago zatekeen Gizaburuagan (ez zegoen tokian) harategi bila hastea, baina onargarriago batzuk horientzat, zoro-puntuak erruki hartzeko bidea ematen baitu. Errukia oso bertute bistosoa da, aise fingitzekoa, batez ere. Diktadura militar-moral haren barruan, sakonagorako argitasunik ezagatik-edo, bizio ez zen zernahitan atentzioa ematea zorrotz bigilatzen zen, zeharbide posibleen etsenpluak imitazio subertsiboak iradoki zitzaekelakoan. Halako sen garatua eta arautua zeukaten nolakoa den piztia batzuen, zeintzuek, ase ondoko itzal epela hartzen daudela ere, inguruan mugitzen den edozeri heldu behar dioten.

.....

Ezkontzak jasotasunez, ia arrandiaz egiteraino aurreraturik zegoen bizi-modua. Etxe batzuetan, oraindik ruina txiki bat izan zitekeen, baina errito sozialaren eskari minimoak ez zuen onartzen ohore-ruina handiagora jaisterik. Beste batzuetan, nasaiaigo har zitekeen; hots, sarritan, oso era handiosean. Hirurogeiko hamarkadan, lana ugaltzen hasia zen, eta ni, 1965ean, Gizaburuagara abade joan nintzenerako, dirua ere maneiatzen hasia zen bazterretan. Ezkontzak oparoak ziren, ez gutxien, abadearentzat. Hain elizkizun distiratsua eta, itxuraz behintzat, denen aldetik zoriontsua ofiziatzeak samurtzen ninduen, bekaizten ere bai apur bat, hanpatzen ere ez gutxi, ikusiz nola, elizan bezala kanpoan, abadeari halako goitasuna esleitzen zitzaion, inoiz ezkonberrien protagonismoa lausotzeraino. Gutxien itxaroten nuena zen, ostera, eztei-bazkari jaukal hartan, jantokiko ohore-mahaiko jarlekuen banakuntza txit erritualizatuan, non eta ezkonberrien erdian eserrazikó nindutela.

- ✦ *Ez, ez, ez!* -atera zait barru-barrutik, lotsaz bainoago sumin-puntu unean inkontziente batez. Berehala pentsatu dut nire erreakzioak ez ote dituen iraindu ingurukoak, ezkonberrien gurasoak eta ahaide hurbilak, batez ere. Mespexutzat hartu ote duten kezka jo nau-. *Honela da ohitura?* -galdetu dut tonu apalean.
- ✦ *Ohitura honelaxe da, inguru honetan behintzat* -berretsi didate ezkonberriek.

- *Ondo begitantzen jatzue?*  
 – *Honelaxe ikusi dogu beti. Gure aldetik, intentzinorik onenez izan da.*  
 – *Ez daukat dudarik. Zelan pentsatuko neban zuen intentzino txarrik, guztiz alde rantziz baino?*  
 – *Bazkaria bizkor joaten da –animatu nahi nau neska ezkonberriak–. Gero jentea berehala hasten da mogitzen, eta berori be nahi dauen lekura alda leiteke.*  
 – *Ez da horregaitik, Maritxu. Ni zuen artean pozik eta harro nengoke. Gustura be bai, estutzen banozu–. Jende mordoia solasera adi dagoela baliatuz, tonu ozenago eta solemneagoan darrait: –Baina zelan jarriko naz zuen erdian, neuk banatzeko oraintsu neuk batua, altaran aldarrikatu dogun moduan? Neuk ezarritako 'buztarrria' zelan apurtuko dot neuk, lehenengo okasinoan?*

Kostatu zait, neure ezuste urdurian, arrazoi ustez konbintzente batzuk harilkatzea. Uztarriaren sinbolo ezagun eta txit popularrak berbaro distenditua eta joria eragin du, giroa egunari dagokion umorera itzularaziz.

- *Alde batera, arrazoa da, izan be –dio batek.*  
 – *Eta bestera ez ala? –ondokoak.*  
 – *Ez jakiat! –hots egin du pisuki mutil ezkonberriaren aititak, mahaiaren muturreko kokapenetik–. Makina bat urte jaroagu munduan, eta alde batetik eta bestetik arrazoa zena zelan ez joagu inork ikusi, oraintxe arte?*  
 – *Gauza bat egingo dogu –diotset ezkonberriei, eta bide batez, ilara guztiari–. Bada dakit ni urruntzea zeuek erabagitzeak erreparoa damotsuena, edo, argi esanda, gogor egingo jatzuena, baina erraz-erraz konpondu geinke. Ondoratu ezkonbarriok korritu aulki bat ilara guztian, eta ni aititaren ondoan jesarriko naz, mahai puntan berak onartzen banau. Horrela, ni lasaiago egongo naz, eta ezkonbarriok be izango dozue, nahi badozue, banatzeko denpora. Baina ez lehenengo egunean, eta gitxiago, abade bat bitarteko dela.*

Aititaren ondoan amama zegoen, noski, eta hauen aurrean ezin lasaiago nengoen, ez baitzuten hitz askorik egiten, neuk eragin ezik. Seguruenik, etxean plazan edo tabernan, berritsuak izango ziren, baina eztei-bazkari baten solemnitateak begiratzeko grina zorroztu izango zien, isil-senagaz batera. Ni ederto. Ideal ere bai, ez bailiteke penitentzia inutilagorik, hartarako aukerak oraindik bakan ziren garaian, oturuntza eder batean hitzun nekagaitz bat hurbil egokitzea baino. Lasai nengoen, eta aldi berean, losintxaturik, nire hitz guztiak adeitsuki hartuak zirelako; eta sentitzen nuelako jada jantoki guztiak konturatua behar zuela begi guztiak harantz zeuden mahaiburuan gertaturiko nobedadeaz, zer nola zehazki ez bazen ere. Banitateak tripa barrenetik zintzurreraino kilikatzen ninduen, pentsatuz ezkonberrien erditik erretiratzeko erabaki sorpresiboak ez zuela gaitzespenik

eragin. Garbi esanda, niganako sinpatia handitu zuela, nire banitateari interesatzen zitzaionez, beste herri batzuetako ezteiliar ezezagunek ere, bazkariko alegantziak aurrera egin ahala, esaten baitzuten, ezkonberriengana hurbiltzeko, nire ondotik pasatu behar izatean: *Honelakoxe abade bat behar geunke herri guztietan.* Hitz horiek norberaganako maitemin unibertsalaren deklarazioa bezain ezti lerratzen ziren nire zirkuito zerebralean. Osotasunarekiko bere txikian hain handi bilakatu zitzaidan mundu hartan, banekien, gero urteek egiaztatuko zutenez, eztei haietako konklusiorik oroituena izango zela "ezkonberrien uztarrria abadeak ezin apurtzea".

Ezin izan nuen, hala ere, baztertasun eroso hartatik, neure figura ezkonberrien artean imaginatzearen dardara pertsonalaz gainera, halako lotsa gremial bat sentitzerik ekidin. Ohitura horrek, apaizgaitan etxeko eztei batzuetan neuk ere ikusia nuenak, baina aparteko pentsakizunik eragin ez zidanak (pentsatzeko gaitasunera iristeke, seguruenik), ez ninduen estutu, neure burua trantze berdinean aurkitu arte. Sotana beltz bat dakust nobia zurizko eta nobio urdinezkoaren erdian, okozpeko lepagoran engantxaturiko ahozapi gorri bat paparrean behera, ronbo zabal-zabalean. Abade lodikote, tripontzi, masail-gorri, sudur-zapalaren topikoak ez du fenomenoaren adierazpena agortzen. Berdin da luze-ihar, zurikail-espirtual, lerdin-beltzaran zein jaiton-beilegia, eszenaren funtsa bestea baita: nobiak bazkari guztia darama kukukumea zerbitzatzan, eta nobioak hura entretenitzeko kontuak iragazten, badaezpadakoak apartatzeko, edo istorioak asmatzen, dekorosoak izan daitezzen. Edo, mutil hitzunezia ez bada, adei-lege sekularrak: *bai ba, bai ba!*; *bada-ki berorrek; batzuetan izaten da, bai; hartu lehenengo berorrek; neska ona da, bai; geu be zahartuko gara; berori gazte dago oraindino*, eta horrelako katalogo indoeuropar guztia. Tarteka, ezkonberrien ama eta aita ere pasatuko zaizkio, *ondo dago berori?* galdetuz, edo *zeozer behar baleu, esan nobiari, eh!* ekinez. Ezkonberriak agurtzera edo zoriontzera datozenek ere, lehen-lehenik, berari mintzatuko zaizkio:

- *Berori be ondo, ezta?*  
 – *Ederto! Ederto!*  
 – *Ederto bakarrik?* –pentsatu izango nukeen, neu bertan egotera.

Nola ez du sinetsiko bera dela pertsonaia zentrala, erdi-erdian badago? Irudia areago da (eta baldin badirudi, zergatik ez halaxe sentitu?) apaizaren beraren ezkontza banda-bikoitza, non orientazio debekatua eta ondoriozko deribazioa garaile uztartzen diren. Eszena hori estreinatua zuen ofiziantea irudikatzen maiz saiatzen naiz, norbait izango baitzen ezkonberrien erdian lehenengoz esertzeko... adeia?... abusua?... zango-eskubidearen aurrerapena?... atrebentzia, behintzat, izan zuena. Gustatu izango zitzaion, errepikatuko zuen, imitatuko zioten, eta lotsa-gabekeriak horrelaxe iristen dira ohituraren ideia positibora, ez behingo txarra



maiztasunak ontzen duelako, baizik, inoposatzailari bere kontzientzia humanizatzea bezala, jasaileari ere komeni zaiolako gauzak ahalik gutxien sufritzeko moduan ikustea.

.....

Kanpotik praktika hetxizero samarra zirudikeen konfesioa bizitzaren osagai bat gehiago bezala bizi genuen, umetatik bertatik. Trantze ez hain bai hain larria izan zitekeen, baina ez, esaterako, eskolan edo elizan, praktetara kaka egitea bezalakoa. Formularioak, gutxi-asko, eginak genituen, eta konfesorerik zirinenak esaten zitzaiona sinetsi beharra zeukan. Seminarioan ere, konfesioaren egintza bera baino gaitzigarriago zen zenbait konfesoreren jenio ukikorra, baina, hain luzea ere ez zenez, zeremonia berean kontu pendiente guztiak kitatzen zenituen, eta irabazle atera, han ez bazen, beste nonbait harrapatua izateko beldurretik libratzen baitzinen. Nagusitan, gizon bati (emakumea separazioak salbatzen zuen) nahiko lotsagarri gerta zekiokkeen, aldaretik urrun samar ibiltzen ohituta egonik, bat-batean, gerria atean okertu, burua abadearen golkoan edo belarri kontran egin, kitu, eta ipurdi borobila edo errea, nahitaez ondo markatua, denen bistan esportatu beharra. Eta zer? Samurrago zen horixe ere, bankuko leihatilara dirutan arrimatu eta zorrean zeundela entzutea baino. Denek egiten zutena ez zen zailago inork egingo zuenik pentsatu ere ezin zena baino, halako hura bezala, zeinak, ipurdia disimulatzeke, txalekoa kriskitin ilara bikoitzez barrendu zuen, ezpata-dantzariengan inspiraturik edo. Lehenengo ilarak kurbagunea apaintzen zuen, eta bigarrena dingiliz luzatzen zen. Mundu guztiak ulertu zuen, disimulatzeke barik, atentzioa ematearren egin zuela, harrituago egintzaren bitxitasunaz baino kriskitinen isiltasunaz, inork ez baitzuen susmatu bolatxo hori distiratsu haien barruko burdin-aleak sistema sorginen batez atereak edo anulatuak izan zirenik. Hotsari abiatzen ere ez lizterainoko mututasun hura ipurdiaren mugimenduen gozotasun subtilari esleitzen hain zen sugestiboa, ezen kristauek ezin izan zuten beste funtziorik irudikatu. Eta bai subjektuak, asmoa zein izan zen berak aitorturik jakin zuen konfesorea lekuko, nabarmenkeriatik onura atera ere: 'Txilinpopo' ezizena, hartatik betiko gelditu eta gehien berari gustatu zitzaiona.

– Ez neukek esango –zirikatu nuen behin– *apropos egin ez heuenik, ezizen horixe jasotzearren.*

– Ez pentsa, jauna! Bildurturik ibili nintzen, 'Txilinpopa' nagusituko ete zen. Hori lez jatan bape gustatu izango. Batzuetan, burlaizeak badaki konponketa inboluntarioak egiten.

– Nik ez joat 'popa'-tik 'popo'-ra hainbesteko alderik ikusten.

– Utzi bertan, jauna. Biak bardintzat jotzetik ez daukat abantailarik. Hemen gauza gutxiagaz pozten jakin behar da.

– Hurrengoan, idi-sapak dingiliz ekartzea daukak, ea zer pitxi ateratzen den, 'Idingiliz' edo.

– Idia ez da elizan sartzeko ganadua, jauna. Ba al daki berorrek zelako 'ebakuntza' gogoratu beharko geunkeen –parka, ene Jesus!–, literalki oraingoan?

– Zezena be apenas den elizak eskatzen dauen errespetuan maneiatzekoa.

– Zezenarenak erremedioa dauka. Idiarena da azkena, atzera bakoa.

– Aurrera, orduan?

– Geuk konfesioan egiten doguna, jauna: armairua libratu, berraro nasai-nasai betetzen joateko. Beti gustatu izan jat arima armairuagaz konparatzea, ez dakit zergaitik, jauna.

– Bistakoa dok hori, ze...

– Bistakoa bada, ez esan, jauna. Ikusiko dot egunen batean.

Konfesorik izan ez balitz, ez genukeen hainbeste ipuin (beti ingenios, batzuetan zorrotz, inoiz korrosibo) gozatzeko zortetik izango. Hori kanpotik, konfesioa motibotzat harturik. Zer esan barruan bertan sor zitezkeen bitxiez? Norbaitek konfesa zezakeen:

– Emakume txarretara osteratxo bat egin.

– Gozo egongo zoan! –erants zenezakeen.

– Egongo ez zen, ba!

Gizona jaso egiten zela zenekusen, paparra puzturik. Hura ez zen uea zapuztaile jartzeko, esanez, esaterako:

– Lastima ordaindu beharra!

– Ez da hain karua, jauna, onenen bila be ez dogu jotzen eta.

– Hori doan izango litzateke polita.

– Apur bat kostatzea ez dago txarto, jauna, gustua galtzen joateko arriskurik izan ez daiten.

– Horrelakoak be harrapatzen dozak, beraz.

– Ez, aukeran, baina kalkulatzan dot, doan daukienak be han ikusten dira eta.

– Hori bizioa dela esango neukek.

– Laguntzeko modu bat izan leiteke.

– Lagundu nori?

– Eurei, jauna. Behin, neska batek –gazte-gaztea be ez zen– esan eustan: "Egin daigun berraro". Pobre samarra nintzela ihardetsi neutsan. "Erdi prezioan emongo deusut". Amore emon neban, erruki harturik, eta ez motibo barik, ondoren autortu

*ebanez: "Hainbesteko kutxa bat egin ezik, narrua kenduko leuskigue".*

– *Horrelakoxe kasurik inon estudiatzeko nengoan, pekatua eta karitatea egintza berean.*

– *Txarra edonon egin leiteke, jauna, eta ona be bai.*

– *Hau mundu modua!*

– *Hoberik subertatuko jaku?*

Honelako solasak zailak ziren konfesalekuan bertan, apur bat luzatu gero, atzeko ilarak marmarrean hasten baitziren, baina hitz txokagarriren bat entzun zuenak bazitekeen handik kanpora aukera bilatzea gaiari luzeago ekiteko, 'ostera txo' haien zale 'pobre samarrak' egin zuen bezala. Ez dut uste bekatu gehiago egitera kinatu nuenik, baina bai, seguruenik, lagundu nion berdin barkatua izango zena hobetu gozaturik ekar zezan, behin azaldu zuen kezkatik argitu nuenez, jaulki nionean:

– *Oraingoan gozoago egongo zoon!*

– *Ez dakit, jauna, ze entzunda daukat atsegina handitzeak pekatua handitzen dauka.*

– *Hori penitentziagaz orekatzen dok. Hiru partenoster izan beharrean, errezaizak hiruko bi, eta parra.*

– *Ño! Nik orain doble baino gehiago gozaten dodala esango neuke, jauna.*

– *Gainerakoa utziok emakumeari, eskupeko.*

– *Uzten deusat!*

– *Orduan ezingo deuat penitentziarik agindu. Hori pekatu santifikantea dok!*

Hurtzarotan, aurreko hurtzarotetatik asmatu eta kasik ezarririk zetoarren bekatu bat, 'pentsakizun txarrak egin', betegarri segurua zen, beste esan garririk aurkitzen ez zenean. Seminarioan ere kalaka berdina jarraitu zuen, non pensakizunak, ez dakit txarrak, baina bai benetakoak ziren, besterik ezin baitzen. Apaiztu nintzenez, mundu librean eta zabalean, aukera efektiboen alde desageratuko zirelakoan, hara non nekusen, harriturik, baita apur bat dezepzionaturik ere, pensakizun txarren diskoak berdintsu zerraiela, harik eta aitortzaile bati, beti hutsik gabe 'pentsakizun txar batzuk' jaulkitzen zuenari, galdetzeko inozentzia izan nuen arte:

– *Pentsakizun txarrok... zenbatgarren aginduan?*

– *Seigarrenean, jauna! Non, bestela?*

– *Bosgarrenean be izan zaitekeek, eta hor kontuz ibiltzekoa dok, baina, beste horretan, pena dok beti pensakizun hutsean joatea.*

– *Zer egin behar neuke, jauna?*

– *Hemen egintzak be bardin parkatzen dozak. Errezaizak hiru paternoster, ekarri doanagaitik bakarra be nahikoa litzatekek baina.*

Mutila apur bat alboka urrundu zela obserbatu nuen, burua gontzetik jaurti guran bezala. Hiru paternoster errezatzeko baino denbora luzeagoa zeraman bankuan belauniko, aurpegia bi ahurren artean gorderik, edo pausatu beharrik. Lo ez, nolana ere, ze buruak erritmo txit leunean zerauntsen ahurrei, orpoek behatz puntetan elkarri bezala, kontrarritmo oso zailean, sinkronia osoan aritzen ohituta zeuden nire begientzat, behintzat. Beharbada, astakilo samar jokatu nuela pentsatu izango nukeen, elkarrekiko konfiantzatik hitz egin niola ez jakitera. Hurrengo penitentea, emakumea, belaunikatua zen ezker lehiatilan, eta mutilaren behaketa moztea erabaki nuen, beldur bainintzen nik bera ez, baina berak ni erdi-ikusten ninduela suposatzen nuen emakumeak, emeen intuizio edo malezia proberbialez, nire begiradan okerreko intenzioren bat uler zezan.

– *Agur, Maria, txit garbia!*

– *Bai!*

'Bai' ez-formular horretantxe igarri izango zuen penitente femeninoak konfesalekutik at nobilela, galdetu baitzuen:

– *Bai, zer?*

– *Pekatu barik sortua! –erantzun nuen, eta aurrera bolie. Zordun bidean ginen berriro.*

Kontua da arestiko mutilak, hurrengo neska-mutilentzako hitzaldian, eurek ere elizan hitz egiteko eman nien aukera kostata bezain pitinka baliatzen hasiak zirenean, atrebentzia bat izan zuela, neskei, batez ere, nabarmenegi iruditu zitzaiena:

– *Konfesinoko kontu bat aitatu neike, jauna?*

– *Bai, sekretua apurtzeko eskatzen ez badeustak.*

– *Esatekoa neuk esango dot.*

– *Hik ez daukak sekretu obligaziorik.*

– *Baina zeuri entzundako gauza bat da.*

– *Heuk esatekotan, hor konpon. Fidatzen nok ez noala gorroto izango nire ezer lotsagarriarik agertzeko beste.*

– *Demonio samarra bakarrik. Lehengoan, nik pensakizun txarrak autortzean, hasarre legez egin zeunstan, beti pensakizun hutsean gelditzen nintzelako, neure urdutasun konfesionalean –hau ondo esanda dago?– oker ulertu ez baneban.*

- Hori esan neuan?
- Horixe entzun neban.
- Esan nebala egia bada, ez jagok hain oker esana.
- Eskertuko neuke argitasun bat, beti bestera entzuten ohituta gagozenontzat.
- 'Bestera', zelan?
- Pentsakizuna be egintza bezain pekatu dela.
- Hori egintza bakarrari pekatu bi kargatzea litzatekek, zaila baita ezer egitea, aurretik pentsatua izan barik; alegia, gizakion bereizgarri den pentsamenaren ezaggarri funtsezko bat, antizipazio mentala, eliminaturik.
- Orduan, pekatu-egintza bat burutzen dogunean, pekatu bi egiten doguz?
- Hiru, intentzinoa be pekatu bada.
- Horretarako, lehengo abade garratzen eskuetan hobeto genbilzen kasik.

Baziren uneak, non ezin izaten nuen bereizi, kezka alagarria pairatzeraino, zerk agintzen zuen gehiago nire baitan, zintzotasun jaregileak ala banitate garraldeak, hain baitzen erraza elizarrak atseginki txunditzea, kontzientzia estuegiak ez mintzea zainduduz gero. Hori ere ez zen zaila, bide batez kontzientzia gaiztoen zirrituak apur bat erretxinduz, bai baitziren horrelakoak ere, 'denerik' egoteko lege unibertuala bete zedin. Gure argudioa teknikoki (kanonikoki, alegia) inpekablea zen. Pentsakizuna bekatu astuna bazen, hobe zen karga berdina egintza buruturik jasotzea. Intentzioak ere, kondenatua izateko, berdin balio bazuen, hobe zen konplizeraino eramana izan zedin. Alderantziz, pentsakizun, intentzio nahiz egintza, berdin barkatuak izango baziren, zertarako mailaka jardun? *Solomo gerri-gozoa, haren gorri bistoso, zatirik kentzen ibili barik, ekarri eizu osoa.* Barkamenak ere horrela, nahitaez beteago, biribilago izan behar du, zama zenbat astunagoak, jaurtitzean, hainbat atsedean handiagoa uzten duelako ebidentziaren arabera. Baliteke Elizak, hartutako dohain profetikoaren arabera, neurologia modernoa intuitu izana, non plazer baten osagai nagusiak aurre-atze mentaletan dautzala ageri den garunak, une errealean, egintza bera kasik arbuizatzeraino. Adardun piztia handi horietan bezala, zeintzuek, ribalak eliminatzen itsumen guztia hedatu ondoren, estalketan bertan, burua ergelki okertzen duten horizonterantz, egiten ari diren errutina obligatu bat balitz bezala, baldin gure ikaskide batena gertatzen ez bazaien, kimikako irakasle fosfenikoak kargu hartu zionean:

- Karentzio! Nora begira hago?
- Ni albora begira kontzentratzen naz, aita.
- Leihorantz, hain zuzen?
- Hutsunea behar dot, aita. Hormaren topeak eten egiten nau.
- Nola dela esan diat azido sulfurikoaren formula?
- Buff! Hori arriskutsua da.

- ba: Ba, arriskuak hobeto ezagutzen joateko, ehun bider kopiatuko duk  $H_2SO_4-H_2SO_4-H_2SO_4$ ...
- eh: Ehun bider  $H_2SO_4-H_2SO_4-H_2SO_4$  ala  $H_2SO_4$ ?
- eh: Ehun bider idatziko duk:  $H_2SO_4$  da azido sulfurikoaren formula.
- ba: Joe, aita!
- eh: Beste ehun bider: Gehiago ez dut joeh esango.
- eh: Hatxe eta guzti?
- eh: Eta partitiboarekin: Gehiago ez dut joeh-rik esango.
- eh: Marratxoa be bai orain?
- eh: Eta komatxoak: Gehiago ez dut "joeh"-rik esango.
- eh: Komatxo sinpleak ez dira nahikoa?
- eh: Hitz zakarrari sinpleak eta esaldiari dobleak: "Gehiago ez dut 'joeh'-rik esango".
- eh: Baina, azkenean, punturik ez, ezta?
- eh: Azkenean, berba egingo joagu!

Gure ikaskideak bidea zeraman seminarioak extralurtar bihur zezan. Oporretan etxeratzeke egunean, ordea, maletak aurrean hartu eta denok arrapaladan, fiuak sabanan bezala trenerantz gindoazenean, Karentzio inefablea bertan lgeratzen zela ikusi nuen, harritu baino beldurtuago neu, fenomeno gaiztoen bat gertatzeaz ote zen.

- eh: Ez hator ala?
- eh: Ez gaurko partean. Etxe hau inor barik ikusi gura joat, beharbada gehiago ez nok witzuliko eta.

Konfesiara itzulirik, egintza bat beraren barruan, faseak aurkitu zituzten (pentsatze, desiratze, gertatze, gogoratze), komenentziaren arabera, unitate bakarra edo atal independenteak osatzen zituztenak. Pentsatzea bekatu bazen, gogoratzea ezin zen gutxiago izan, larrigarriagaz ezen kasu honek egintza burutua suposatzen zuela. Pentsakizun hutsak, gutxienez, beragaz zeraman burutu ezinaren zigorra, eta, hala ere, izorrai!, bekatu astuna izaten zerraien, burutzeke modukoa gizez gero, egintzari atxikitzen baitzitzaion. Suposizioak eta zatiketak oparo iriteigo ziren, eta zati bakoitzak infernua merezi zezakeen, baina ez zion hainbeste tardura beste zenbat zati ziren, denen artean ere ezin baitzuten infernu bat baino gehiago eragin. Zer ardura dio kondenatu bati bi mila urteko zigor gehigarriak, lehenengo txikian kate eternoa ezarri badiote? Infernuarena asumitu beharra zuten kristauak, baina ohartzen nintzen gehienak literalki ez sinestera erraz errenditzen bezain erraz jausten zirela zehazki bereizten ez zekiten beldur alternatibo baten menpera. Bekatuen nahasmendutik askatzeko argitasun minimo bat nahikoa izanik, berau ere ezin aplikatze harrigarri hura, bakarrik esplikatu zitekeen autoritatearen

gaintasunetik, zeinaren, halaber, euskarri nagusia beldur orokor bat zen: beste munduko mamu zehazgabez eta mundu honetako aurpegi oso zehatzez osaturiko magma konposatu bat. Bekatua, jakina, beste gaitz guztiak estaltzeko komeni zen moduan, eremu sexualean garatuko zen gehienbat. Aginduz agindu konfesatzeko metodoa, pasadizorako hain praktikoa, oso indarrean zela, gerta zitekeen:

- ¡Ave, Maria, purisima!
- ¡Sin pecado concebida! Zenbat denpora?
- Urtebete, jauna.
- Bitartean ez jegoan Jainkorik?
- Nire ohitura arbi-loratik arbi-lorara da, jauna.
- Orain arbirik non jagok, ba?
- Lorak badagoz.
- Ekin orduan!
- Lehenengoan...
- Aurrera!
- Bigarrenean...
- Aurrera!
- Hirugarrenean... laugarrenean...
- Aurrera, aurrera!
- Bosgarrenean...
- Aurrera!
- Seigarrenean, zazpigar...
- Et, et, et! Nora hoa?
- Hor ez daukat ezer, jauna.
- Pentsamenturik be ez?
- Buruhausteak bakarrik.
- Emakumeekin zerik?
- Erraz balego!
- Heure gorputzagaz?
- Berorrek asko egiten dau ala?
- Aurrera, aurrera!

Azkenean, neska-mutilentzako hitzaldi hura, zailegia ere ez zenez, animatu gertatu zen, arestian aipatu mutilaren hasierako atrebentziari eta ondorengo deribazio geroz beldurgabeagoei esker. Nik ez nuen zentzuzko obserbazioak eta zentzuzko ondorioak berretsi besterik egiten, batzuetan kostatzen zitzaidalako plantak eginez. Izan ere, nork pentsatuko, zentzua baitzen subertsiboena. Neska-mutilak elkarren ondoan (ez nahastean!) naturalki egotea ia amestezina zenean (atzo bertan oraindik, esateko), susmatzen nuen hitzaldiaren erremate gisan plan-

teatzera nindoan, ezuste aztoragarriaz gainera, gogo-irabio handia eragingo zuela entzulegoan, eta burrundada ez txikiagoa herrian eta inguruetan.

*Amaitzeko, entzule maiteok (solemnitatearen euskarria behar zen), gure gaurko berbakizun interesgarri guztien eta, oso oker ez banago, lortu doguzela esango neukeen adostasunen emoitza gisan (honelakoetan, beti nesken aldera begiratzen nuen, ez dakit zergatik; edo badakit, bai; jakingo ez dut, ba!), ekimen xume bat proposatu gura neuskizue. Konturatu naz eliza honek ate bi dituela, biak zabalik. Seguruenik, ez nintzatekeen konturatuko, orain banku-ilara ezbardinetan zagozeen moduan, barrurantz be, neskak ate batetik eta mutilak bestetik sartzen ikusi ez bazinduet. Bereizketa hori baleiteke eliza eraiki zenetik honakoa izatea. Halan be, atrebentzia parkatzen badeustazue, lartxo eskatzea izango ete litzateke, kanporantz, denok ate beretik urtetea? Ondo baderitsozue, jakina! Eta zeuek gura badozue, beti be, ze baleiteke oneritzia eta guraria batera ez joatea. Beste barik, bihar arte denoi, ordu honetantxe. Gaurkoa 'Agur, Jesusen Ama' kantatuz amaituko dogu, zutunik.*

Es dakit zerk eman zidan kanta horregaz amaitzeko burutapen ridikulu samarra, ez gogo-jardun batzuetako hitzaldi bati ('sermoiari', zehazki) gaizki doakiolako, inondiko asmorik ez neukalako baizik. Garunaren oharren-sailari, astirikoei abiatuko zela bazekienari, aurea hartu nahi zion azpi-sail faktikoren baten bulkada izango zen. Oraintxe dakit zergatik izan zen. Neska-mutilei astia eman behar nien, bat-bateko durduzan, lehen mugida instintiboak inertziatik gida zitzaizuten; beharbada Ama Birjinaren laguntza eta guzti, hau ere bai baitzitekeen zerbait berria ikusteko gogoz aurkitzea. Eta, batez ere, neuk patxada argitsu bat bildu ahal nezan (garunak, lehen-lehenik, bere buruarentzat lan egiten du), arrakasta posiblearen xehetasunak jasotzeko, edo porrotari eleganzia jarkitzeko, kasu honetan, seguruenik, Ama Birjinaren laguntza gabe.

*Agur, Ama maitea! Agur, agur, agur!* Hasi dira bankuetatik mugitzen, begirada zeharrik, irribarre zimurrak, gezur-eztulak, ni ez-zu bai, zu ez-neu be ez, isilik (elizan berba egiterik ez dago), inork lehenengoa izan nahi ezta, kanpoan txakurren bat pasatzen ikusi duen artaldea bezalatsu. Une laburrak, trinkoak, pixka bat hilaranteak, morbosoa samarrak ere bai, urduriak nolana. *Zeri begira gagoz? Urten egin beharko dogu, ezta?* esanez, neska batek mutil batzuei aterantz saktu die, bere atzetik beste hiru-lau neska arrastatuz. Uholean, marmarrean, aterantz estututuz, atalasea haratuz batera zabalduz, inbutu inbertituan, elizpean gara denok, berbaro ozen eta nahasian. Batzuek beste atera, hutsera, begiratzen dute, euren burua handik irteten imajinatzearen lotsaz bezala. Ez dakigu zehazki ba-

lentria handi batez harrotu behar dugun, ala infrakzio sakrilego baten beldur izan. Hemendik urte batzuetara, huskeria bat eman balezake ere, mende batzuetako ohar tura gainditu edo hautsi dugu, ikuskeren arabera; eta nahi gabe frogatu dugugu, gogoa gogoan ia lege jakina dena: gauzen garrantzia denborak gehiago erabakitzen duela euren pisu espezifikoak baino.

- *Ederra egin joagu!* -hots egiten du, jada kanpoan, itsaskume dirudien mutirik kazto batek-. *Orain ate bat sobra dauela geratu jakuk eliza.*
- *Falta egingo jok, hilen sartu-urtenerako* -erantzuten diote.
- *Hilen sartu-urtenean, biziren batzuk be beharko dira* -argitzen du hots batek.
- *Egun batzuk barru, gogoratu be ez zarie egingo pasadizo honetaz* -leundusatu dut auzia.
- *Astiro hortxe! Ikusiko dogu andrek eta gizonek zelan hartzen daben, andra batzuk, batez be.*

Biharamunean, ezkonduentzako sermoian (adintsuak ere bertan, beraz), hasieran asmorik ez neukana proposatzen ausartarazi ninduen jardunean zehar, beraz, ko berotasun gehikorrak. Jardunaren berotasuneko deskuidoak, garbi esanda.

- *Amaitzeko, proposamentxo bat egin gura neuskizue, atzo gazteei egin neuzen bardina, zuek be ez daukazue gitxiago izan beharrik eta. Beharbada, zeozeren jar kitun egongo zarie, horrelako kanpakiak suarenak baino bizkorrago zabaldu ohi diren eta. Atzoko neska-mutilak legez, elizan sartzen ikusi zaituet, andrak ate batek, gizonak bestetik. Zeuen etxeetan, ate banatatik sartzen al zarie? Eliza fededunen familia handiago bat besterik ez dela esaten jardun badogu, ez al litzateke, kosta tauago denok ate beretik urtetea? Gazteek horixe egin eben atzo, apur bat kosta jaken baina.*
- *Kosta zergaitik?* -hots egiten du, hizketan hasteko tirakada txikia behar duela dirudien aurpegi irregularreko gizon batek-. *Lehen be ez gara elkarren inguruan ibili bakoak. Hemen gagozenotan, gitxi izango dira gurasoak, lau seme-alabata bati gora ez daukienak, eta horreek ez dira etortzen ate banatatik ibilita.*
- *Gazteei erreparoa emotea ulertzen joat* -dio beste gizon batek-, *baina gure odolak, behin honezkerok, elkarren hurren ipinita be, ez jok salto handirik eskatzen.*
- *Eskatu bai, beharbada, baina emon?*
- *Andrek ez dabe ezer esan behar?* -galdetzen dut.
- *Guk zer esango dogu, ba, gizon txakilik berbetan dagozenezan?*
- *Hemen ateaz gabiltzan, txakiltasunaz barik!* -beste gizon batek.
- *Atea! Hobe zeunkie galtzen dozeuzen botoiak josten ikasi.*
- *Non galdu diren jakin behar!*
- *Zeozergaitik esan joat gizon txakilena.*

Gazteekin baino delikatuago izango zelakoan, interbentzio horiek bidea alazotatu zuten, hain baitzen erraza, aukerarik txikiena emanaz gero, jendea hizketan hastea. Seriotasun estatuari hori zergatik interesatu ote da mendeetan zehar, komunitatearen oinarrietako bat den komunikazioa praktikatzea izanik? Horrelakoxe galderak egiten nizkion neure buruari, niretzat gozamen espiritual handia izan baita beti erantzunak badakizkidan galderak egitea. Maite nuen, baita, neuretzat jakinak izan ez arren, erantzunen bat bazutela sumatzen nuen galderak egitea. Kasu horretan, egia izan liteke erantzunaren aurkikuntza ez datzala gutxi galderaren formulakeran. Beste horiek dira gogaitzen, abailtzen nautenak: erantzunak ez duten galderak. Hots, eduki ere ezin dutela badakigunak. Pentsamenduaren historiarenean zati handi bat horrelakoxe galderei bueltaka xahutu zutela (eta darraiteki) ohartu nintzenean, bizi guztiko alkandora hertsagarria erantzutean bezalako liberazioa nabaritu nuen. Gero esperimentatu nahi izan dut alkandora hertsagarria behar izateko neurrian zora nendin (eguntxo baterako, *eguntxo batez nindaguelarik maitiareki leihuan*), konparatzaileagaz ere konparakizunaz adina gozatzeko. Horrela, konparazioz konparazio, gozamina klonatuz noa, neu bistatik desagertzea eraberrintsu izateraino. Erantzun gabeko galderekin denbora 'xahutzea' pentsalari kontraktaria lora eran imitatzeke alukeriagatik izan da, zeren, neurekiko, laster gaur nuen antzinateko burulangile haiek, bizitza materialeko premiarik eza nolabait kitzatzearen, entretenigarri mentalak asmatzen gozatzen zutela, pena baka bakiak ez ez zutela deskojonatzeko aukerarik izan, ikusiz nola, handik mendeetara, espazio-arotarrak ere txuringatzen ziren haien joko pentsagarriak (joko olimpikoen modalitate bat) dezifratu ezinik; edo, zelebreago zena, garatu guran, hauek ere dibertitzearren ez bazebiltzan. Baietz uste dut, zeren, bestela, zaila da esplikatzea nolagure Unamuno, esaterako, ez gutxiago argia urguilos baino, nerabazaroko katalamila intelektualetan hil zen. Alutik ere bazuenez ia temosotik adina, testamenduak ez zuen utzi, argiturik bere 'bizitzaren sentimendu tragikoa' delakoa dibertsio mental gisan ideiatu zuela. Honen eta haien plazer bakantea (deskojonatzekoa) neuretzat gelditu izana ez da iraganari gutxien estimatzen diodan ondarea.

*Beharbada, horrelakoxe hariren bati jarraituz irtengo ziren ate beretik andreak eta gizonak, eta ni bestetik, neu bakarrik, jendeari "gu ate batetik estu-estu eta berori bestetik nasai-nasai?" aurpegiartzeko motiboa emanaz, neuk ere aukera izan nezan erantzuteko:*

*Zuetariko batek arrazoi ebala erakutsi gura neban, esan dauenean abadeon beretzat garrria ez dela geuk sinisten ez doguna inori sinistu eragitea, sinisten dogunik batez egitea baino.*

*Uste dut, orrialde batzuk gorago, arinkiegi jaurti dudala iritzia ezen kon-*

fesioa umore handi samarrez hartu ohi zen erritua zela. Nahiz eta banaka batzuk halaxe espilizituki aitortzeko bezain ziniko positiboak izan ("ni pekatuak konfesaratzeko atseginagaitik nator konfesatzera"), gehienengan, errutinaren itxura inofensiboaren azpian, bazela sumatzen nuen errutasun generiko baten sentiera late bat, tormentatzeko adinakoa ez izan arren, gogoa orokorki askatzen laguntzeko helduleku egokia eskaintzen zuena. Larriena, hala ere, bestea zen, ez baitziren gaitxi kontzientziak, konfesioa zorroztasun moral osoz eta batzuek angustiaz hartzen zutenak. Hauekin tentu gorenez jokatu beharra zegoen, laxa zitezten intentziorik sumatzen bazizuten, areago itxiko baitziren euren baitan, irekitzen saiatu zaien bibalboak bezala. Edo, beste gabe, alde egingo zizuten, olagarroek bezain itzurti, euren itomenen arabera estutuko zituzten konfesooren bila, zeintzuk aurkitzea errazago zen zazpigarren egoitzaraino hegatzea baino. Arestian aipatu ziniko positiboan alderantziz, ohartzten zinen beste hauen kasuan, lizunkerien kontaketa obresiboki xehea (barkatua izango bazen) objektiboki ezinezkoa izanez gainera, hori egintza nahi bezain xeheki inoiz ezin kontaktua izatearen porrot-sentipenez gainera, kontaketa egintzaren bekatutasuna errepikatzen zelako angustian itotzen zirela. Orduantxe intuitu nuen (atzera-kolpe instintibo bat, garbiago esanda) kontaketa exhaustiboaren ezintasuna, geroak narrariorako ere ebidentziatzat agertuko zirena. Baldin egintza baten toki fisikoaren deskribapen hutsa langintza amaigabekoa bada (leihoan dakusun lore soil bat, bere deribazio guztiekin, ezin duzu kapitulu oso batean agortu), zer ote litzateke, pentsakizunen eta sentikizunen labirintu infinituan sartuz gero? Azkenean, susmatzen zenuen penitenteak bere errenta moralaren aitortpena bukatu zuela, gehiegi luzatzearen eskandalu-beldurrez (beste bekatu bat hori ere), erreskada luzea baitzegoen atzean zain. Kristau batzuek, osteraren zekiten atzeko guztiei aurrea onberaki ematen, eurak azken gelditurik, bakar batean harrapa zintzaten, nahi beste luzatzeko eragozpenik ez izateko moduan. Arimatza nazu bat beso artera sartzean, edo saretxoaz beste aldetik belarriratzean, noizean ere angustiak zanpatzen du, zer egin garbi ikusi ezik. *Orain arte biziraun badute, beste apurategaitik ez dozak akabatuko.* Horixe pentsatuz salbatzen nuen neurburua.

– *Ez daukazu xehetasunetan luzatu beharrik* –hasi nintzen gero, tokian bertan kontuz-kontuz iradokitzen.

– *Gauzak ondo zehaztu ezik, parkamenik ez dagoela irakatsi deuskue.*

– *Bedeinkatua zure zintzotasuna, baina parkatu behar dauena Jainkoa da, eta hark badaki sobra be xehetasun guztien barri.*

– *Baina berorrek ezin dau entzun bakarrik parkatu.*

– *Fidatzen naz Jainkoaz eta zure benetasunaz. Nire aldetik, pozik eta osoki parkatuko deusut, eta egon ziur Jainkoak be pozarren parkatuko deusula.*

– *Baina, jauna, orain arteko guztian...*

– *Hara, arimatxo! Orain neu nago hemen. Fida zaitetz nitaz, eta batez be, fida zaitetz Jainkoaz.*

– *Batzuk laster samar errenditzen ziren, konfortaturik, portaera berrira, baina beste batzuen aingira esku artean baino labainagoa zen. Egun batean amore eman behar zen, hurrengoan berriro ekiteko, baldin bolada batean bere hartan iztea komeni ez bazen, hari eta inpotentziak argudio nahiko efektibo bat inspiratu zidan arte, gezurra ere guztiz ez zena, bestalde.*

– *Ederto, Itxina, ederto!* –Artean, aitortzaileak, alditasun jakin samarrez zetozenak behintzat, ahotsetik eta hizkeratik ezagutzen ikasia nintzen, eta eurek ere ezagun moduan hitz egiten zuten. *Jainkoaren izenean dinotsut benetan saritzekoa dela zure zehaztasun ezin finagoa eta ondoriozko damu zintzoa. Halan be, aurrekoetan esana deusudanez, ez daukazu zeure senarragazko intimitateak horreen xeheki azaldu beharrik. Alde batetik, uste dot ez direla autortu beharrekoak be, ez direlako pekatuzkoak, ezkontza barruko zeregin naturalak baino.*

– *Jauna! Niri beti irakatsi deuste umegintzarako moduan burutzen ez diren jardunak pekatuzkoak direla. Eta jardun zuzenetan be, gehiegizko atsegina, edo atseginean bakarrik pentsatzea, lizunkeria dela.*

– *Hara, alabatxo, zure aita izateko gazteegia naz baina. Ez dakit zer irakatsi deusuten edo zelan ulertu dozun, baina neu be banaz zure pekatuak orain arte parkatu dituen edonor bezain Jainkoaren ordezeko, eta beronen izenean eta autoritate osoz dinotsut ez zendueela zuk senarra eta harek emaztea umegintzarako bakarrik hartu elkar-bizitzarako baino. Hots, bizitza elkarri ahalik gehien gozatzeko.*

– *Ene Ama Oibarko! Berori dela ez baneki, deabrua jabilดาลa esango neuke.*

– *Begira, Itxina. Ni ez naz nor zure pekatu-ustea bortxatzeko. Neure uste zintzoa erroten besterik ez nabiltzu, zeuk erabagi daizun nor egon daitekeen Jainkoaren jurgutik hurrago. Ziur dakidana da, pekatu izanda be, nik ez daukadala horrenbeste xehetasun ezkutu entzun beharrik, egintzaren gorputzaz jabetzeko.*

– *Jauna! Nik ez dot xehetasunak emon beharra neuk asmatu. Orain arte, inork ez dust laburtzerik aitatu, eta bai, ostera, argitasun zorrotzagoak eskatu.*

– *Zentzuna badaukazu, ezta?*

– *Baietz uste dot, hori inoiz ez da behar bestekoa izaten baina.*

– *Kasu honetan, apur bat nahikoa da. Zein da pekatua izentatzearen helburua?*

– *Oraintxe ez dakit zer esan, jauna.*

– *Neuk esango deusut. Pekatua izentatzen da, konfesoera jabetu daiten zer pekatu mota eta zenbatekoa den, gero aholkuak eta penitentzia araberakoak izan daitezkeen. Ez al da horrela?*

– *Izango da, berorrek badino. Baina berorrek be, zenbat eta azalpen zehatzagoak jasotx hobeto jakingo dau zer parkatzen dauen.*

– Ez dakit zure orain arteko konfesoreek zenbat azalpen behar izango eben, baina nik ez daukat, zer parkatzen dodan jakiteko –parkatu apur bat gordintxo berba egitea–, zure eta zure senarraren atzamarrak edo mihiak lehenik, eta gainerakoak ondoren, non-zelan-noiz-zertan ibili ziren ikusi beharrik, ze zirrituren bat beti gertatu dituko da ezkutuan. Nahikoa dozu 'senarragaz garagarraidi bat egin' esatea, us tezko pekatuaren konposizino osoaz jabetu naiten, zure aieneak eta senarraren putzak gorabehera, beti bardintsua izaten da eta.

– Virgo Dei genitrix, Oibarko Ama lastana! Parkatu, jauna, baina nik ezin dot nire arima garbiturik ikusi, pekatuak lau berbatan jaulkita.

– Orduan, gordinago berba egitera derrigortzen nozu. Ez dozu lauhun eta lau berbatan beste pekatu astun bat eragin nahi izango, ezta?

– Jesus, Ama txit errukior! Zelan dinost hori berorrek lehendik honen larri nagore nari?

– Autoritatez ezin bada, mesedez eskatzen deutsut, Itxina. Ez eidazu gehiago zure pekatuen deskribapen detailosorik egin, deabruaren tresna izan nahi ez baduzi.

– Jauna!!! Deabruaren tresna ni???

– Ez zeure erruz, bai nire makalez. Ez zara 'jaun' bategaz bakarrik berbatan nari. Sotana errukarri honen aspian, zeure senarrarena lako gorputz bat dago, zure kontaketa zirraragarriei eutsi ezin deusena, odol pekataria berotu barik. Ez dot nahi, baina ezin dot. Gehiago egiten deustazu. Laguntasun urgentea eskatzen deustadan Jainkoak be zeure menpean uzten nau. Ahalegintzen naz burua sagrarioan sartzen, baina gorputza joan egiten jat. Lortzen dot zer dinozun ez ulertzeko beste distrazio tzea, baina zure xuxurla labaina, zure arnasketa leunduagaz bat-bat datorrena, hain jat exzitantea ze, urten eta berton ekiteko gogoak emoten deust.

– Ene Amatxo lastan Oibarko! Ez eidazu kontuan hartu hau entzun behar izana!

– Parka, Itxina, honela berba egin behar izana. Ez deutsut eskatzen nik neure aldetik beteko dodala badakizun konfesino-sekretua gordetzerik. Konta zeinkio nahi dozunari, ze tentazino mortal batetik salbatu nahian egiten deustadan eskari larri honegatik kondenatu naiena ez dau zerurik mereziko.

– Ez, ez, ez! Zelan esango deustat inori? Jesus, ene Ama kurutzepeko! Honelakorik jazo zeitekidanik!

– Neuk be ez neban uste, baina jazo egin da, eta barrero... Amaitu egin behar dugu, Itxina! Atzeko erreskada horrek guztiak zertan gabilzela pentsatu behar dau? Barrero jazo ez daiten, egidazu mesede haragikerien autortzak laburtzeko berba bitara, 'betiko zera', edo hobe bakarrera, 'zera'. Edo aurkitu eizu lastozko konfesio bat, dinozunetik, liriozkoak baino ugariago dira eta. Penitentziatzat erreza eizun altara aurrean zazpi Agur Maria, oherakoan Oibarko Ama Birjinari hiru salbe, eta orain Jesukristo neure Jauna, gauza bazara. Ego te absolbo in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

Kezkaz eta zain gelditu nintzen, berriro noiz eta nola itzuliko zen. Hila bete igaro zenean, artean astero etortzen baitzen, itxaropena galdua nuen, kezka gaititua, eta bihozmina handitua, pentsatuz: *Aurkitu jok harek lasto-fardoren bat!* Nire kастitate-botoak bere zilean birkorapilatu behar izan zuen. Irteeran, elizpean, solas-korruan biltzen ziren andre-talde eta neska-taldearen erdian (gizonak eta mutilak, tabernara zuzen), noraezean gelditzen nintzen. Errespetuz ohi nuen andreen aldera lehenik jorik, Itxinaren aurpegiagaz aurrezaurre hurbilegia nola saihestu ez nekien, ez hainbeste bera ez biolentatzeko fintasunez, neure koloreak ezin kontrolatzeko beldurrez baizik. Aitortzarik gordinenaren egileak, emakumeak batez ere, sakramentu-sekretuango konfiantzagatik, edo ohitura soilagatik, konfesioaren eta handik kanpokoaren arteko bereizketa batere immutatu gabe eramaten ohituta zeuden bitartean, ni oraindik berriegia nintzen, barne prozesio batzuk inork igarri gabe ezkutatzeko; edo horren beldur nintzen, behintzat. Haiek ohituta zeuden konfesioarean Jainkoaren ordeko abstraktu bat aurkitzen, baina nik, sekretua gordetzeko segurtasun osoan sentitzen banintzen ere, ezin nuen edozer entzun neuronak alteratu gabe, auzia 'goialdean' erabakitzeke.

Aizue! 'Mariaren alaben' eguneko txokolate-jana non egitea pentsatu dozue? – galdetuz, solasa nesken korrurantz orientatzeko aitzakia ez oso originala, baina bai sufizientea aurkitu nuen. Baziharduten izenez txokolate-jana, baina, azkenean, askari jaukala izango zenaz, zein tabernatan, nolako menua, eta abar. 'Eta abar' berbarako, ni solas hartara baino adiago bainengoen, disimulu zailean, andreen korruan apur bat albokera nekusen Itxinaren aurpegira, ea zeinu argigarriren bat atzematzen nuen, aldi berean pentsatzen nuelarik zergatik solas-korruak, inork agindu gabe, beti zirkunferentzian osatzen ziren, eta ez, adibidez, triangeluan edo hexagonoan. Tarteka iruditzen zitzaidan Itxinari betertzak gure alderantz ihes egiten ziola, eta orduan lauburu forman adokinduriko zorurantz jausten zitzaidan burua, han neure arbitrariedade geometrikoekin topo egiteko. Denak neure pentsakizun gratuitoak seguruenik, harik eta berak mugiarazi zuen arte taldea, esanez:

Ea, andrak! Gizonak tabernan eta gu haizetan? Goazen geure saldatxo berora.

Apaizgoak sakramentu-marka inprimatu zigunean, gure izaera aldika rikikula apenas konpondu zuen, nirea behintzat, zeren 'saldatxo beroan', batez ere (horik esango!) diminitubo pirtzil horretan, intentzio misteriosoak irudikatu bainituen. Tabernan, Itxinaren senarragaz topo egitean, ezin nion, batetik, hotzikarari eutsi, pentsatuz: *Balekik honek zelako kontuak dakidazen!*, eta, bestetik, barreari, hain jaseko, hitz lasaiko eta jantzi kuriosoko gizona halako txerrikerietan imagitatzuz. Emakume biluzia, etzanik nahiz mugimenduan, eder eta dohaintsu iruditzen zalgü, jantzita baino kasik naturalago. Gizon biluzia ere, etzantasun edo tentetasun



geldian, hor nonbait. Mugitzen hasten denean, oster, zenbait arrapalada kartsutan bereziki, gizaki biluzia baino gehiago dirudi hartz larrutu bat. Horrexegatik ez dugu maiteegi eszena erotikoak, gizon edo agure kaikuren bat beti traban dabilelako. Gustura korritzen ere ez dizu uzten. Fenomenoa beste sexutik –edo bien konbinazioetik– nola ikusten den pozik galdetu izango niokeen Itxinari, baldin, nigana konfesarazera etortzeari utzi ziolako errezeroagatik edo, apur bat saiheska ote zebileen beldur izan ez banintz. Neuk ere saihesten nuen hurbilkuntza, batez ere bakarrean gurutzatzea egokitzen zitzaigunean, kale bakarreko herrixka batean noiznahi gerta zitekeenez.

- *Bazabilz, Itxina?*
- *Banabil, jauna, bai.*
- *Ondo joan, eta goraintziak etxean.*
- *Bardin berori be, eta berorren partez.*

Huskeria horixe nahikoa zen, nik haren aurpegi zeharkorrean barne-irribarre bat irudika nezan, azala garondorantz atezatu balitzaio bezala. Ez zen, berez, hiztunegia, konfesioko jarioetik alderantziz pentsa bazitekeen ere, eta, bost umeren ama oraindik hain gazteak merezi bezala, kontzientzia apur bat zabal zekion desioz, beste gabe joaten uzten nion, neu ere ez bainintzen gai, haren begi ustez neugatik iheskorrei tiratzeko, barne biolentzia bat sentitu gabe, edo, beldurrango nintzena, kanporantz transluzitu gabe. Uste erdiren bat igarora izango zen, berriz nire konfesalekuan belaunikatu zenean.

- *Agur, Maria txit garbia.*
- *Pekatu barik sortua.* –Ahotsetik berehala ezagutu nuelarik, gorputza kukulutu zitzaidan, hain ezustez bezain ikaraz, egoera posibleari nola aurre egin.
- *Banator barrero be, jauna.*
- *Ez daukazu ezelako konpromisorik nigaz.*
- *Konfesoera herrian edukita, elizarik eliza ibiltzea ez da itxura, berorren mespretxuan nabilela pentsarazteko moduan.*
- *Ez dago inongo mespretxurik. Zeure komenentziaz eta askatasunez erabagi badozu, badakizu ni zure onagaitik pozteko nagoela.*
- *Hasiko naz?*
- *Nahi dozunean.*
- *Astebete, azkenengoz konfesatu nintzenetik.*
- *Ederto. Zeuk esan zer dozun.*
- *'Zera'?*
- *Ulertu dot. Aurrera.*
- *Hasarrealdi bat be izan dot senarragaz, gero umeen gainera joan jatana. Txarto esan batzuetan parte hartu, gorrotorik eta horrelakorik ez baina. Atzo gauean, etxeko*

*arrosarioari errazegi paso egin neutsala uste dot, umei etsenplu txarra emonez. Besterik ez jat gogoratzen, jauna.*

– *Lehen bezain fin darraizula dakust, baina pozten naz, zeugaitik, kontaketa luzeak berba bakarrena laburtzen ikasi dozulako. Orain, lartxo eskatzea ez bada, beste pauso bat emon behar dogu: berbatxo horixe be laburtu.*

– *Berba bakarra laburtu, zelan?*

– *Esan barik utzita.*

– *Orduan zer egin behar dot? Hasperentxo bat, mm?*

– *Egin behar dozuna da 'zer' hori autor-zerrendatik ezabatu.*

– *Ene ama Oibarko! Hori lehengoa baino larriagoa da. Neu perbertitzea erabagi al dau berorrek?*

– *Nik ezin dot ezinezkorik erabagi. Zu perbertitzeko ahalmenik ez leuke inpernu osoak, Erroma guztiak lagunduta. Ez nabil zure kontzientzia bortxatu nahian, itzuli zarela baliatuz. Bakar-bakarrik, eta laburketa onartu dozula dakusdan zentzunak animaturik, neure izatearen apaltasunik handienez, baina karguaren autoritate osoz dinotsut autortzera behaturik aurkitzen zaren 'zer' horreek ez direla pekatu, Jainkoak bertan fulminatu naiena kontra-aukerarik biribilearen pean.*

– *Zelan ez deust horrelakorik orain arte inork iradoki?*

– *Hori beste misterio bat da. Bost ume ederren ama zaren aldetik, hemen Jainkorik inork ez dau ikusi, eta gitxiago beragaz barbarik egin. Haren borondatea ulertzeko, beste inor horreek guztiak beste dohain edo iluntasun badodala uste dot. Zeuk pentsa nori jaramon egin, baina: edo ez ekarri niri horrelako autorkizunik, edo segi elizarik eliza, zeure arima nahigabetuaren ezerezen bila.*

– *Aj, ene Jesus! Bost umeek baino burukomin handiagoak eragin behar deustaz berorrek.*

– *Umeak, zorionez, zoragarriak daukazuz. Badozu nahiko zeregin eurak orain arte bezain argi eta bizkor hazten, eta horixe da Jainkoa zegaz gehien atsegindu zeinkeena. Zertarako zulatu nahi dozu zeure burua, inork eskatu bako transfixino amaibakoz?*

– *Nik ez dodaz pekatuen izaerak neuk asmatu. Ez neinteke beste barik nasaitu, hainbesteren arteko batek laxoago hartu nauelako.*

– *Ez nabil laxotasuna banantzen, zeruko justizia ordezkatzan baino. Ziurrenik, ez dozu preminarik izango, baina izan bazenei, Jainkoaren aurrean neuk defendatuko zaitut. Beste 'hainbeste' horreana, euren aurrean ez jartzeagaz eginda dago. Sinistu eidazu Jainkoari irain bat dela bera hain txotxoloa izan leitekeela suposatzea.*

Itxinaren bost umeak han zebiltzan elizaldean, hiru urtetik hamahirurako eskaileran, radarra baino zoliago eta enarak baino eleganteago. Aita ere, bere sendoan, gizaseme egokia eta suabea zen. Ez zen ulertzekoa, eta, gutxiago, kontentatzekoa, nola bizitzak hain zama material handia ezarri zion bati (eta duintasun

osoz zeramanari) halako gainzama morala erantsi ahal zioten, baldin, euren esan despotikoa garatzearen, edo aberrazio espiritualak elikatzearen, gogo ahulegiaren mentasun moldagarriaz baliatzen zirelako ez bazen. Beharbada, egoerak ez zuten honen epai kategorikorik merezi. Soil-soilik, elizgizonak eurak ere, arraseko asko behintzat, kamustasun mental inguratzaitetik saneatzea oso zaila zen miseria moralaren menpeko ziren. Astebetera, Itxina zintzo belaunikatu zen berriro, konfesalekuaren bi alboetarik ilunenean, bestean ere ez zegoen argi sobrarik baina.

- Agur, Maria txit garbia.
- Pekatu barik sortua.
- Astebete, jauna, azkenengotik.
- Nik itauntzea ala zeuk esatea gura dozu?
- Neuk be esan neike.
- Ekin, orduan.
- Egia esan, 'zer' hori kendu behar bada, ez dakit zeri ekin.
- Pozten naz nasaitasun horretara benetan ailegatu bazara. Ez dago derrigor zerezer esan beharrik. Jainkoaren bedeinkapen osasungarria hartu, eta aurrera.
- Zer esanik barik etortzea be!
- Hori beste kontu bat da, sanoagoa, edozelan be, okerreko zer esanez kargaturik etortzea baino. Hori bai. Hau parkamen-lekua da. Nahiz eta berez pekatariak gurez erla eta beti gagozela garbigai irakatsi euskuen, komeni da norberetik be zozer aportatzea, ganoraz parkatua izateko.
- Zer iradoki guran jabilt berori? Pekatuginan hasteko?
- Neu be ez naz hain txotxoloa. Egin zeinkeena da etorrerak mehaztu. Nik uste dot nahikoa litzatekeela hilean behin, andren egunean.
- Eta orduan be ezer aitatzekorik ez baneu?
- Dohatsua zu orduan! Halan be, hutsik etortzen lotsa bazina, hilabetean badozu astia, eta ahalegindu zaitez ganorazko pekatu bat ekartzen, benetan parkaturik joan zaitez. Ni horretarakoxe sartzen naz lapiko santu honetan.
- Pekatuginan beren beregi hasteko aholkatzen jabilt berori?
- Benetako absoluzinoa nahi badozu, bai. Ez dagoenik ezin da parkatu.
- Ez dot ulertzen pekatu bat zelan izan daitekeen 'ganorazkoa'.
- Pekatu 'ganorazkoa' litzateke, inori kalterik egin barik, norberari on egin leikioa.
- Norberari on. Eta arimari?
- Biei.
- Esaterako?
- Urten domeka goiz batean senarrak eta biok, pasa mugaz beste aldera, emon mun nonahi libre aurkituko dozu en ikurrinari, Biarritzen orain pil-pil dabilzan film gori horreetariko bat ikusi -sesino jarraitua ei dago-, eta gero, senarra ate batetik eta zu bestetik, galdu egun guztirako. Mugaz hemendik zinema horreetara doa

zenak, denak be inentzino bardintsukoak izanik, ez da izango gatxa galtze-lagun ganorazkoak aurkitzea. Bueltan, senar-emazteok eguneko barri elkarririk kontatzean, esperientzia ez dela izan hain biribila bazenkuse, etxean errematzen ahalegindu. Astebetean, eduki azioa beratzen, eta kontzientziak lar estutzen bazaitu, etorri hurrengo domekan konfesatzera.

- ☞ Hobe geunke guk, egun bat horrela libre hartzeko moduan bagengoz!
- ☞ Umeak bialdu abadetxera, Lourdesera joan zariela esanda. Badakizu hemen oso gustura ibiltzen direna, eta, bide batez, Lourdesko mirari batzuk kontatuko deustez, zelan andra-gizon batzuk bistarik onenagaz joan eta elkarrentzat itsututa itzuli ziren, eta abar.
- ☞ Zerak proposatuko deustso gure gizonari horrelako plan bat!
- ☞ Ez daukazu ezer aitzen emon beharrik. Zinematik urteeran, zeu galtzea nahikoa da, bera be galdurik aurkitu daiten. Ikasi daiela harek be mundua ez dela ganaduak gobernatzea eta emazte santa bat adoratzea bakarrik.
- ☞ Ez jat txokatzen gure umeak berorren ipuinekin txotxoloturik ibiltzea.

Umeekiko harreman guztia orduan dotrina eta geroago katekesia zeharritzonaren inguruan sartzea oso praktikoa zen. Gaurko abade gazteok beti dabilz umeekin dotrinan -entzuten zen tarteka, errebelde famako apaizek hain gauza tradizionala hainbestean garatzeaz harriturik bezala. Artean, dotrina astean ordu jakin bateko kontua zen, bera ere gehienbat buruz ikasitako otoitz, agindu eta fedeartikuluz josia. Konturatzen nintzen denbora labur eta nolabait arautu hari paso egitearren, inork ez zuela alfer famarik zabaltzen. Susmagarria denbora labur hura lizatzea zen. Apaiz gazteoi gehienetan esleitzen zitzaizkigun herri txikietan, zaila zen interpretazio okerririk sortzea, baina distantziara musika klase askogaz iristen ziren zurrumurruek argitzea edo zorroztea lan emankorretako bat izaten zen. Eskualdeko apaizen hileroko erretiro-egunean, banekien beti zerbaiten kontu-hartzea izango zela artzapezaren edo zonako bikarioaren aldetik, zeinak behin, beste guztien aurrean, interpelatu ninduen:

- ☞ Entzutea jaukaat oraingo abadeek lehengook ez besteko garrantzia damotsazuela dotrinari, denok itxaroten genduenean jarduera modernoagoen aitzindari zentozzeela. Txalogarria dok hain jarrera ebangeliko bat -"utz umei nigana hurreratzten"- horren jorantsu imitatu nahi izatea, baina ez jakusaat argi umeen buruan zer dotrina klase sartzeko behar izan leitekeen hainbeste denbora, jolasetik aparte.
- ☞ Kontu-hartzea dirudien arreta hori argitasun-esketzat ulerturik, atsegin handia dot zuri eta batzarkide guztiei azaltzea zelan ni, eliza biren arduradun baino gehiagorik, misiolari etorri nazen inguru honetara, Angolara joateko ia-ian egon ondoren, Ekuadorko Los Ríosera be joan neintekeen baina. Apur bat arrazista be banazenez, baltzei laguntzea hobetsi neban. Azkenean, intelektualki baino ez gitxiago artis-

tikoki, karrerak kontradikzinoen zale egin ninduenez, azkenean, dinot, Gizaburua gara eta Amorotora misiolari etortzea onartu neban.

– Sarrera luzeegia eta kiribilegia ez al dok egin, ezelako argitasunik ez aporteratzeko? Munduan berau baino kristauagorik nekez izan leitekeen eremua misinok lurtzat kalifikatzea ideia bitxiagia ez al dok?

– Eskertzen dot, itxaroten ez neban zehaztasunera jorik, behingoz itaun argi baten egin deustazunean. Badakizue, atzerri koitadu hareetan, misiolarien lana, eban gelizazioaren oinarri legez, alfabetatzea, eskolatzea, oinarrizko aurrerapena eta horrelakoak izaten direna, umeakandik hasita. Herri honeetara etorri naz, eta ikusi dot eskolan inork ez deutseela euren hizkuntzan berba egiten. Areago, Amorotoko maisuagaz liskarrean nabil, euskaraz egiten deskuidatzen diren umeak zigortzen dituelako, gerraoste hurbilean legez. Otoitzak irakasten ahalegintzen naz, baina ezin dot zigorrik ipini (estaerako, kopiatu hamar bider 'Jesuskristo neure Jauna'), euskaraz idazten ez dakielako. Orduan, idatzi 'Cara al sol' ehun bider! – aginduen neutsen ernegaturik, eta denak pozik, eskolan hainbat bider eginarazotako zigor beraren orri zaharrak etxean zeukiez elako. Et, et, et! Hemen kopia barriak egin behar dira! Ez eben obeditu, baina Lekeitioko guardia zibilen kuartelean, denak desorientatzea lortu neban. Ikusten dozuenez, nahiko politika inperantean nabil, gai zentraletik apur bat alden du banaz be. Amorotoko maisua esan dot, baina, honezkerok, bikario jauna jakitun egongo da artzapezagaz be badodala liskar txiki bat, eliz liburuak sinatu nahi ez dituelako, euskaraz idatzita dagozela eta.

– Hori tratatuko joagu behar denean, behar den lekuan. Orain dotrina kontuan gabilenez, hemen euskara denok maite joagu, baina ez joat uste abadeon eginkizuna hizkuntzak irakastea denik.

– Ez leuke izan behar, baina badakizu Elizak, misino-lurretan, lan subsidiario asko egin behar dauela, beste inork egiten ez dauenean.

– Ekin misino-lurrei! Gizaburuagan eta Amoroton, aurkitu al dok umerik goseak hiltzen edo zer jantzirik ez daukanik?

– Horrexegaitik ez naz hasi errotari edo jostun. Baina herri horreetako umei inork ez deutse irakasten euskaldunok bibliako profeten aurrekoak garenik. Horregaitik Santimamiñera eroaten dodaz, edo Lumentzako haitzuloa erakusten deutset, edo hemendik ikusten daben abade txikitxo bat, Jose Migel Barandiaran, zertan dabilen azaltzen, edo gure ipuin mitologikoak kontatzen, edo gure erlejino paganorik kristautasunera aldatzea zelari izan zen, edo Eliza Katolikoak hemen herritarrik zelari sorgintzat erretzen zituen, edo Francok paliopelan ibiltzeko zelako meritua egin dituen, edo gure gotzainek zelari pasatu behar izan daben bere 'ternatik' (ez da bainuetxe bat), edo zergaitik, jai handietako meza nagusietan, udalbatzei aurreneko bankuetan tokia egiten jaken, bandera espainola estandarte dabela, edo ... Beraz, zerranda osoa ez jatzu interesatzen, ezta?

– Oraindino ez joat entzun, horretan guztian, Jainkoa non dagoen.

– Denean! Den-denean, aitatu dodazen azken lau kontu horreetan izan ezik. Funtsean, Barandiaranek zer egiten dau Jainkoaren aztarnak bilatu besterik?

Batzar-egun haiek errutina txepel samarrekoak izatetik animatuak izatera igaro ziren. Ustez erantzukizun hierarkikoa zuten besteak, kontserbadoreenak ere, irrikaz egoten ziren halako kontrobersiak sor zitezen, gero, bide batez, maisoari jakinkiago ekiteko. Baziren, zaharrak izan arren, benetako poza hartzen zutenak, eurek isilean sentitzen zutena, baina adierazteko beldur zirena, debate gisan jarraitu ahal izatean. Derrigorra zen batzuei benetako karinoa hartzea. Bestalde, konpromisoan aurreragi edo batere ausartuko ez baziren ere, kideen artean ahalik areriorik gutxien edukitzea komeni zen, hala ere gehiegi geldituko baitziren, batzuk ideologiaz, beste batzuk espiritualismoz, ez gutxi bizimodu erosoz. Apaizak berezko gaiztotasunagatik baino arriskutsuago ziren izan zezaketen malezia apurra zabaltzeko astiagatik. Mugida berria beldurrez, baina espektazioz hartzen zutenen artean, ostera, isolamenduzko nobelagai absolutuak zeuden, gerran eta aurretik bando galtzailean sufritu ondoren, gerraosteak bakardadean josi zituenak, harik eta, hirurogeiko hamarkadatik gorantz, arimen pizkundez bestea ere gerta ziteke-elako zantzu desiatuak begizatzen hasi ziren arte.

.....

Sotanagaz batera, beste ohitura milenario bat ere bazihoan, edo joaten hasi zen. Ez berehala, baina bigarren urtera, berorizko tratua zukara alda zezaten proposatzen hasi nintzenean, ikusi nuen errezeptuzkotzat zeuden gizalegeetatik errespetugabetzat jo zitezkeenetara aldatzea kontu delikatuua zela, funtsean subjektuaren beraren apreziazio bat aldatzen baitzen onetik txarrera. Horretan, haurrak ziren edozertara errazen moldagarri, nabarmenagia ez balitz nagusiak onartzeko gertu ez zedena haurrek praktikatzea. Hurrengo giza talderik ulerkor eta onarkorrena bistan zen gazteria izan zitekeela.

– Be(r)orrek ondo baderitzo...

– Behorrek' larrean! – hasi nintzen moztzen.

– Zelan nahi leuke, ba, beror... nahi leuke... Zeuk?

– Zeuk, zeunke! Zergaitik ez?

– Horretan deskuidatzearren, belarrondoko galantak hartuta gagoz hemen.

– Neu be hartuta nago umetan. Zoritxarrez, ez dot ezagutu aurrerapenik, belarrondoko barik gertatu denik.

– Trataera hori ez da kristauek asmatua, abadeek eurek ezarria baino.

– Orain neu naz zuen abadea. Probatu zeinkie bestera.

– *Formalismoak gorabehera, hartu-emonan bardin izan leiteke konfiantzazkoa zelan bildurrezkoa.*

– *Ulertzen dot zuen dependentzia, kasik automatismoa, hain ohitura sustraitsua batak tekiko, baina niri oso gatx egiten jat berorika tratatzen nauen baten lagun sentitzea. Izan be, trataera hori mailen ezberdintasuna markatzeko sortua da.*

– *Zergaitik ezin geinke pentsatu berorrek errespetu handiagoa merezi dauela, eta gizon dominanteek baino?*

– *Intentzinoa eskertzekoa da, baina konparazinoa beste bat da. Zelan izan leiteke Jainkoa zuka tratatzea ('gora zu, Jauna', 'hostian bizi zara'), eta haren ordezkaria, berorika?*

– *Holan hasiz gero, makina bat gauza aldatu beharko litzateke hemen.*

– *Hobera izanez gero, aldatzen saiatzea obligazino behar leuke. Ni ez nintzen abar de egin Jainkoa baino gorakiago tratatua izateko.*

– *Orduan, 'Jainkoa legez' ala 'abadeak legez' bizitzea komeni da?*

– *Jainkoa zelakoa den esplikatzea gatxa bada, zelan bizi den ez da samurragoa Badaezpada, saia zaiteze 'abadeak legez' bizi izaten, kostako jatzue baina.*

Arrazoi purua eta arrazoi praktikoa, ezberdinak ez ezik, batzuetan kontrakoak (inoiz, biolentoki kontrakoak) izan daitezkeela berriro nekusen, gauza hori huskeria lirudikeen auzi batean. Hutsa ala betea huskeriazko bereizketa izan daitekeenean, nork ebatz lezake zer den une batean funtsezkoa? Artean, trataera motari, zeharka, maiz ekiten genion arren, ez nuen inoren gogorik lar presionatu gura, ez hainbeste helburuaren dudaz, baizik pentsatuz laster iritsiko zen sotana-uzteak lana asko erraztuko zuela, halaxe gertatu zen bezala.

– *Orain be berorika jarraitu behar al dozue, prakadun txakil bategaz?*

– *Guk lehen be ez geuntsan 'berori' egiten sotanari... zeuri baino! –ausartuzen jaulkitzen, 'zeuri' horretan zaunka baten indar guztia jarritz.*

– *Eskerrik asko. Izango ahal dozuz imitatzaileak.*

– *Zer jagok? –hasi zen gero eztenka ofizialismo klerikala–. Mendeetako errespetua bat-batean sasira jaurtitzea eginkizuntzat ala metodotzat hartzen dozue abade gazteok?*

– *Egingo dogu berba, uzteko desiatzen zagozen sotana horren azpiko gizona bistaratzten denean.*

Lantzean behin, 'behorrak larrera' bezalakoen ironia nahikoa izan zen, ohitura berria berez-berez zabaltzen joan zedin. Ez, noski, kristau guztiengana, batzuek, apaizgoa aspaldi utzia nuenean ere, hil arte jarraituko baitzuten berorika (eurak hil arte, esan nahi dut), denboraz beste ezer joan ez balitz bezala. Eta errespetua. Zirrara nostalgikoaz gainera, uka ezineko balakua sentitzen nuen, ustekab

gutxienean, aspaldiko norbaitek zioanean edozein taberna zulotan: *Berorrek zer hartuko dau?* Edo semaforo baten orpoan topo egitean: *Bilbotik berori be?* Balaku horri harrotasun bihurtzen uzteko hustasun mentalean ez nintzen jausiko, baina bai sentiarazten zidan nire senik agian basikoaren, beldur indeterminatuaren, aurkako segurantzua bat. Nor edo zer ausar zitekeen itzal hori kale arrasoan aitortzen zitzaion gizakume bati erasotzera, edo burla egitera soilki, umetan hainbeste aldiz egina zioten bezala? Beharbada, kontraste horrexek zeragien trataera handios hartaz gabetzeak zemaian pena.

Izan ere, haurtzaro harkor, hauskor hartan, arrisku-senen bategatik izan behar zen jendarte ezezagunetan sartzeari nion erreparoa, kontradikzioagaz, halaber, ezen,aldi berean, nire atseginik handiena jendetzan ibiltzea izaten zela, baina neu bakarrik eta inork ez ezagutzeko lekuan. Lagunagaz edo lagunekin, ez zabiltza inork ezagutzen ez zaituen lekuan. Bakartasuna bakarrean bakarrik proba daiteke. Orduantxe ere, ostera, bazen azpian segurantzua-sare inbisible bat, halako zentzuan, non, beti ere, senak eskatzen zidan ezagunen bat aurkitzea arriskudun eremua izan zedila, Bilbo, esaterako. Ezagunik aurkitzea ezinezkoa zen posibilitaterik ezin nuen mentalki ere jasan. Hala, bakartasun ibiltariaz gainera, atsegin erantsia zen arratsalde guztian inoren kaixorik entzun gabe, ez begirada pertsonalizaturik jaso gabe ibili izana, edo, gehienez ere, salbuespen bat edo bigaz libratu izana, eurak efikazki laburtuak. Frustrazioak ere gertatzen ziren, denak zeu ikustera Bilboratu zirela iruditzen zitzaizunak, baina urteko egun galduen edo aldrebesean kupo inebitablean bat gehiago sartzea nahikoa zen, ondorengo egutegi guztia libre ager zedin, Bilbo egun baten gorabeheran ez zegoela berresteko. Izatez, kaixo bat abstraktuki ere ezin irudikatzen eremuan neu bakarrik aurkitzerik ez zitzaidan inoiz gertatu, hori, ares-tian esan bezala, pentsatzeak ere izutzen baininduen. Orain nagoen egoerak ez dauka, noski, ordukoaren antzirik. Neu ez beste inor ez dago inon, eta pentsatzeak ere ez nau izutzen. Hemen, Lea Ibarrean gora eta behera, fenomeno esplikaetzin batek inguruaren kaixo etengabe bizi nau, giza ezuste ororen alteraziorik ezinaren jabaltasunean.

Itxinarena baino subtilagoa izan zen Doninarena. Honek ere lizunkeriako bekatuena azalpen xehe, luze, konpletoak ematen zituen, baina Itxinaren kontaketa nahigabetuak, larritasun moral baten ondorioak ziren bitartean, susmoa neukan Doninarenak ez ote ziren atsegin konsentituak. Bilatuak ere bai, maleziaz pentsatzen hasiz gero, baina zaila zen norbere lehiatilapean belaukatzera apaltzen zen gizakume soil batengan hain asmo bihurriak suposatzea. Itxinak senarrarekikoak

bezala, Doninak, era luzeagoan, mutilarekikoak kontaktzen zituen, neska gazteak baitzen, ez nolana hikoak ere, niretzat ordutan denak ziren apartak baina, imposibleak zirelako edo. Saiatzen nintzen azaltzen, Itxinari bezala, nahikoa zela ustezko hori katuaren izen orokorra aipatzea, baina hark ere, Itxinak bezala, beste apaizen eta konfesoreen irakatsiak aduzitzen zituenez gero, ezin nion gehiegikeria zela uste nuenari bortizkiegi aurre egin, egia baitzen, diktadura militarren gainean zela azpian, diktadura moral ez txikiago bat zegoela. Egia zen, baita, Doninaren gogo sufritunak baino gutxiago ez nindutela arduratzen txandaren zain zeudenen esan mesa posibleek. Minutu bat edo bitan erabakitzen ziren konfesioen erdian, bost minututik gorako saioak ezin ziren susmorik sortu gabe gelditu, batez ere Donina bezalako neska desiratu baten kasuan. Entzuten bainoago sufritzen egoten nintzen, pentsatuz:

– Zer pentsatu behar jaket zain dagozenek, eta herri osoak gero, honelako bantzetan dortokek uretan legez korritzen baitabe? "Ari dok mamarru hori galde eta galde". Edo: "Horrek be bajakik haria nogaz luzatu. Denak bardinak!".

Etsirik ezingo nuela kontaketa labur zezan lortu, Doninari ere Itxinagaren efektibo gertatu zen metodoa probatzera jo nuen. Alegia, bere fintasan eskrupulosoan, beste bekatu larri bat eragiten ari zela, ni ere ez bainintzen objektu diseinatu bat sotana higatu baten azpian. Ez dakit nire aldetiko aitortzak alderantzizko eraketa lortu zuen ala angustia erantsi batek gehiago estutu zuen, behintzat, hurrengo goetan, deskribapen obsesiboagoak zekartzan. Hatzen ibilera, adibidez, ezin zuen orokorrean kontatu, banan-banan baizik, haurtxoen eskuari heldu eta, hatz txiki biko erpuuraino, esaten zen antzera: *Honek sua piztu, honek gatza egin, honek probatu, honek mahaira atera, eta honek... dena jan!* Haurtxoa bere hatz potoloari bantzetan gelditzen zen, liluraturik, *barriro! barriro!* esanez. Doninaren kasuan, hatz potoloa seigarrena izaten zen beti, nahiz eta, 'barriro' horretan, haurtxoaren insistentziarik ez zuen berdintzen, nire zorianerako, bestela, irten eta erreskadan zeudenean esan beharko bainiekeen: *Etorri bihar, hemen koipetsu luzea dator eta.*

– Aizu, Donina –abordatu nuen behin–. *Konfesaletua ez da solas luzeetarako tokia. Jentea txarto pentsatzen jarri behar dogu, jarrita ez badago, bai zutaz, bai nirekin. Ez dozu uste?*

– *Eta zer egingo dot?*

– *Beharbada, ondo bazeneritzo, ez litzateke txarrena konfesaletutik kanpora berba egitea, astiz eta patxadaz. Nik uste dot kontu batzuk argitzekoak izan daitekezela, eta halarik ez balitz, zeure esku legoke lehenean jarraitzea, edo dena delakoa, baina trankilago berba egin eta gero.*

– *Zelan edo non egin geinke?*

– *Abadetxean, esaterako. Zu askotan egon zara, neska-taldean, abadetxeko aretoan. Abadeagaz zeozertaz jardun nahi izanez gero, normalena abadetxera jotzea da. Ez dozu uste? Zeuk nahi bazendu, jakina.*

– *Zergaitik ez dot nahi izango?*

– *Orduan, eguna eta ordua ipintzea bakarrik falta dogu.*

– *Berorrek esan, berorrek ahal dauenean.*

– *Nire ahala nahiko zabala da, emoten deustazuen lanagaitik.*

– *Herri bi ez daroaz, ba, Gizaburuaga eta Amoroto?*

– *Bien artean be ez dago estura handirik, hil be banan egiten dira eta.*

– *Jaio be bai.*

– *Niri horretan ez jagot zeregin handirik. Etor al zeintekoz bihar, goizean zein*

*arratsaldean?*

– *Nik arratsaldean nahiago.*

– *Erdi seirak aldean, umeekin eskola ondorengo amaizten dodanerako.*

–

Urduri nengoen, kezkatu, ikaraz ere bai. Gauari zati handia jana nion, sukalde zahar txikian atzera eta aurrera. *Zer izango ete dok* –pentsatzen nuen– *mutill baten neska bategazko lehenengo hitzordua?* Nik hori ez nekien, eta jakitera ere ez nengoen destinaturik. Baina larri nengoen, zeren jakin-min desirosak atzematen ninduen baina gehiago aztoratzen ninduen haren erreakzio min baten beldurrak. Lehenik, argitu beharko zen zertatik zetorren hain azalpen konpletoak eman behar izateko obsesioa. Horraino, tentagarri zen. Baina gero berean tematzen bazerriaren? Doninaren konfesioak marmargai bihurtzen hasiak ziren herrian, nork jakin eskandaluaren forma ere hartuak izateraino. Neure ezein ekimen gabeko lelokeria bategatik, ezin nuen neure eginkizun orokor garrantzitsurako garbi gorde nahi nuen izena nahasten utzi, hain zuzen herriaren atentzioari (maiseatzaileei, batez ere) inolako aitzakiarik eman nahi ez nion endredo batean. Bera ere, *kaixo, arratsalde on, bardin berorri – zelan? – ondo, jauna – bazatoz? – bai jauna – aurrera!* eta horrelako sarrera-hitzen ondoren, abadetxeko pasilloko ohol zahar irregularren gainean, klin-klan, nire atzetik urduri zetorrela sumatzen nuen, nahiz eta, ia ziur, gureez beste arrazoi batzuegatik. Konfesioko salbuespen guztiz erritualetik aparte, beti multzoan tratatzen ohituta zeuden abadeagaz bakarrean eta aurrez aurkitzea ezin zen erraza izan, saiatzeko banintzen ere, neure aldetik, naturaltasun laxo bat erportatzen, gehiegiagatik susmagarri eman zezan beldur nintzena. Pertsona batek intimitaterik ustez sakonenak eta ustegabeenak agertzeko prestasun osoan derrai-zunean, txakurtxo batek bezain menkor, ez dakizu habia samur batera ala esku bota batera zoazen.

–

– *Aretoan, umeak edonoiz dabilz sartu-urtenean, eta sukaldean berba egingo dogu, ondo baderitsozu.*

- Berorrek dinon lekuan.
- Jesarri hementxe, jauregi itxurarik ez dauka baina.
- Sukalde buñueldar bat dirudi.
- Nahi al dozu freskagarri bat, neskafe bat...
- Askaldu barri naz. Hartu lasai berorrek.
- Aizu, Donina, jente aurrean edo elizan egoki izan leiteke, baina hemen, sukaldetako batean, berorika hori gogor egiten jat. Nahi badozu, trata naikezu zuka.
- Hori neuri egingo litxakit gogor.
- Lehenengotan baleiteke apur bat arraro egitea, baina laugarren berbarako, non malen begitanduko jatzu.
- Parka, jauna, baina, horrela bat-batean, ez leuskit urtengo.
- Ondo dago. Ez gara huskeria bategaitik estutzen hasiko. Baneban zugaz astuz eta lasaiago berba egiteko gogoa, atzo esan neutsunez, ezertara behartzeko asmo barik, beti be. Ez dakit konturatzen zaren, baina zure konfesinoak herrian berbaldu dea emoten hasita dagoz. Ez dabe ulertzen hain denpora luzean zeri ekin geinkion. Eta, jakina, horrelakoetan, jentea badakizu zer errimea den susmorik okerrenak garatzen.
- Otu be ez jat horrelakorik egin.

Irribarre ironiko gurako baten gainean, eguzki sortunaren kolorea aurregiratu zaio. Beldur naiz, eta hori ziur egotea baino larriagoa da, jendeagan deskargatu ditudan 'susmorik okerren' horiek neure patrimoniotzat ulertu ez ote dituan. Beno, hemen ezin gozak pentsakizun insolubleen txirikordan nahastu.

- Jenteari otu jako, ba, neurri bateraino ulergarri be badenez. Zeuk be pentsa zeinke minutu bat edo biko 'pasada', konfesinoa gehienentzat horixe baita, hamar minutura eta inoiz gehiagora luzatzeak desesperagarri izan behar dauela atzean zain dagozenentzat.
- Ez jat bururatzen zer konponbide izan leitekeen.
- Ez daukazu autorkizunak horrenbeste xehetu beharrik, pekatua izentatu eta aurrrera baino.
- Nire era ez da neuk asmatua, jauna. Labor kontatzen hasi nintzen, baina galderak eta galderak egiten eustezen, pekatuak, ondo parkatua izateko, ondo azaldua izan behar ebala eta. Azkenean, halantxe ohitu nintzen, eta, zelanbait esateko, gustu hartu neutsan osterantzean sufrikario bat izango zenari.
- Nik ez dot horrelako zehaztasunik behar. Izatekotan, alderantziz.
- Baina ni ezin naz lasai gelditu, "mutilagaz halako zerak egin" esanda bakarrik.
- Zergaitik ez, horregaz ondo ulertzen badot, lehen be hainbestetan entzuna, galnera?
- Sekula ez da izaten bardin-bardina.

- Bardin da. Niri zer ardura deust zuen elkar-janak, neure burua endredatzeko edo... garbi esanda, inbidiaz urtzeko ez bada? Zer pentsatuko leuke zure mutilak horrelako xehetasun intimoak abadeen belarri errefinetan dabilzala baleki?
- Nik ez daukat mutilik, jauna.
- Mutilik ez? Orduan zer da kontatzen dozuna?
- Pentsakizunak ez al dira bardin pekatu?
- Donina! Elefantekumea tronpatik eskegita baino galduago utzi nozu. Ez egin barrerik, horrek elefantekumeari ez deutso graziaz egiten eta.

Nire ezuste bainoago sustoak ironiaren edo espantu freskoen despleguan diluitzeko txolinaldia izan zuen. Lehenen pentsatu nuena (gai labain horietan, azkenak iristen aurrenean), edo nire barruko domingiloren batek pentsatu zuena (desiratu zuena?), izan zen: *Neu hartzen eta najok honek bere fantasien objektutzat?* Domingiloa bere zulora bidali nuen, eta pentsatu nuen (ala aholku eman nahi ote nion?): *Gajoa! Gorputz horretan badon, ba, pentsakizunetik harago zegaz joan!* Bigarren domingilo hori ere bidali nuen zulora, eta hurrengo pentsakizuna neure benetakoa izan zedin saiatu nintzen: *Txo! Distantzia bat agudo, ze hauxe izan leitekeek kasu bat, seminarioan abstraktuan jaso heuen emakumea, orain, deabruak objektu errealtzat aurkezten deua.* Honek ere barne domingiloren baten bihurrikeria izateko antz handiagoa du, baina astia eman dit elkarrizketari jarraibide bare samar bat aurkitzeko.

- Egia da, Donina, pentsakizunak pekatu izatea ez dela zuk asmatua, baina badirudi, konfesinoan erreplikatzat, bi bider gozatzea zeure inbentzioa dela.
- Jauna! Nik ez dot ezer erreplikatzat, bi bider gozatzearren.
- Bi bider pekatu egitearren esan nahi neban.
- Hori zelan esan leikit berorrek? -Oraintxe bai ikusiko nituzke deabruaren benetako begiak Doninaren begiradan, infernutarrak nahasmenean haserretzea ilogikoa ez balitz-. Sekula entzun dodan gauzarik gogorrena!
- Zeozergaitik aitatu deustut elefantekumearena. Neuretaz be, konfesino kontuan entzun neikeen gauzarik pentsaezina izan da zurea. Zein desburuk sartu deustuz buruera horreek, edo zelan desburutu dira zure buruerak, pentsakizunen ibilbidea erreplikatzeko lantegi amaigabera bortxaturik aurkitzeko?
- Ez da hain zaila, jauna. Desiatzen dena bariazzino gitxigaz erreplikatu ohi da.
- Beraz, ez daukazu konfesino bakotxean dena zehaztu beharrik. Behin entzun badot, aurrerantzean nahikoa dozu "horixe" esatea, nik "horixe guztia" ulertu daidan.
- Ez dau, ba, berorrek usteko nire zehaztasuna bizioagaitik dela!
- Hori zelan usteko dot, ba? Ez neuke nahi hizketaldi honetatik alhadura bat gera dakidan ezen neska zintzo bat, zintzoegia esango neukeena, malko-punturaino estutu dodala, oraintxe zagozela susmatzen dodan moduan.



- Ez horrenbesterik, jauna, negar errazekoa naz baina.
- Pentsakizunak! Neuk be badakit horreek egiten, kasu honetan benetan txarrak gainera, zureak ez legez. Kontsolatzen naz pentsatuz nireak nahibakoak eta zureak nahigarriak, baina bionak kontzienteak izatean bardintzen garela.
- Nireak noiztik ez dira txarrak, beti horixe entzun badot?
- Txarrak, txarrak... Zer txar izan leikie, tartean mutilik be ez badago?
- Pentsamenduan bai.
- Berak igartzen deutso?
- Nork igarri leike nire pentsamenduan zer dabilen, bakartasun osoan pentsatuta bada?
- Beti mutil bera dela?
- Batzuetan aldatzen dot. Pentsamenduak gitxiago dezepzionatzen dau errealitateak baino.
- Orduan ez dira hain pentsakizun txarrak, beti bat beragaz ez bada.
- Poliandria mentala libre dela esan nahi al dau berorrek?
- Ez esan inori nik esan deutsudanik, baina, pentsaketan gabilzanez gero, tentelkeria litzateke fideltasun imaginarioak gorde ezinik zoratzea. Pentsamenduak kontinua egin deioen nahi dau, berak gehiago insistitzeko. Espiral horri jarraitzeak zoroetxo ko atean ipini zaikex.
- Edo infernukoan.
- Hortixek dator zorabidea. Egizuz lasai nahi dozuzen pentsakizunak. Zeu tiraka ibili barik, euren kontura datozenak badira, ez da zure errua.
- Orduan deabruak narabilela dinoste.
- Deabruarenak badira, berea da erantzukizuna.
- Orduan deabrua nire gogotik jaurtitzeko agintzen deuste.
- Joango da, gogaitzen denean. Zure gogoan egoten utzita, mesede baino ez dozu egiten, ze, hortik bialtzen badozu, beste baten gogoan sartu nahiko dau.
- Berorrek alegre samar dakus kontua, baina ni larri ibiltzen naz.
- Zer nahi dozu? Larriago ibiltzen lagun zaizadan? Neu larritu naizun? Mutilik ez dozula jakinik, neuk be ezin dot pentsatzerik ekidin neugan pentsatzen ez dote dozun. Horrek ez ninduke lar arduratuko, batzuetan, pentsatzea eta desiatzea hain bereiz-gatzak ez balira.
- Egia autortzeko, nire pentsakizunak berorregaz be katigatzen dira.
- Badirudi zure deabrutxo hori fronte guztietako soldadua dela, ze, dinozuna egia bada, lehengoez gainera, sakrilegioaren pekatua egiten dozu.
- Ene Jainko errukior! Ustelduta nago!
- Ez eidazu negarrik egin, anker konplexua gelditu dakidan nahi ez badozu. Apio ba bat egingo dogu. Hurrengo zatozanean, zuk esan "horixe, jauna", nik erantzun "ederto, aurrera", eta ikusiko dogu zer gertatzen den. Behingoagaitik, inpernua ez da handituko.

- Ez dakit gauza izango nazen.
- Orduan eskatuko neuskizu beste konfessore bat bilatzeko. Komenturen batera jo izeinke, han horrelako kontuekin euren gogoak zigortzeko desiatzen egoten dira eta.

Eskaria bete egin zuen, eta minbera nenbilen, jeloskor ez esatearren, gogokera biok, sarritan, nahiko bereiz-zailak izaten baitira. Elizkizun orokorrez gainera, neska hutsen edo neska-mutilen taldeagaz nituen harreman ugariatzen, ezin nuen begirik beragandik saihestu, eta begiratuz gero, ezin nuen pentsatzerik ekidin: Zertan ete dok hau? Nogaz ete jabilk? Batez ere, 'norekin' horrek erremintzen ninduen, nire ez dakit zein barne-geruzak jariatzen zuen izerdi kaustikoa bide, izerak, halaber, lotsatzen ninduen pentsatuz zer burutapen ridikuluetan niharduen, diktaturaren itomenetik arnasbideak zabaltzeko, kristautasunak nolako argitasuna eta nolako indarra eman zezakeen predikatzen nuen bitartean. Aldi berean, neure burua ia gogoeta unibertsalera jasotzen nuen, zer partikularren ganga bezala: "Gure jarduera ageriak zenbat azpi-bilbe ezkututzen dituen! Zeintzuek, gehiengotan, ez duten beste arrakasta-itxaropenik, itxuraren jauntasuna sabotatzea baino, jhahiz eta ahalik ezkutuen beti ere, itxuraren urguilua ez apurtzeko moduan".

Horrelako esperientziek asko lagundu zidaten itsasoa ulertzen, zeinaren zabalera, konparazioz, hilerrri mugitun bat besterik ez den hondo bizitsuaren aldean, eta zeinatiko jatorri milionarioki urrunak (denborak ez du jatorriaren zentzurik aldatzen) nire izaera immateriala kasik literalki irudikatzen duen, neu menditarra izan arren. Lehorrean badirudi lurrazala bera dela dena, sakontzearen egintzatik harria eta inertetasuna besterik ez baitator. Nire baitan zebilen kontzientzia itsasakarak, ostera, dikea saltatzen zuen, gurutzatzea gertatzen zitzaidanean biak banaka edo batzuetan elkarregaz zetozen Donina eta Itxinagaz, hau ere antzeko kasuagatik aldunduta zebilena nire konfesalekutik. Egun on, zelan, eguraldi lorrina, ezta?, eta horrelako estalgarrien azpian, ezin nion utzi pentsatzeari: Zuek, gajo-ok, auzoak izanik, ez dakizue elkarren barri, nik urrunagotik biona legez. Dardara puntuak jo minduen otu zitzaidanean ea haien bien korronteak, zubi elektrikotik bezala, nire bitartez, bata besteagaz komunikatzen ziren; beldurra ere sartu zitzaidanean, ni, txotxongiloen kasuan bezala, euren maneiatzaille sentitzetik, euren fusible bezala urtzera pasako ez ote nintzen. Itxina, arestian kontatu bezala, ez berehala itzuli zenean, Doninarena ia despit gisan sentitzen nuen, zentzugabeki, noski, haiek horretan elkarren ezjakitun baitziren; baina bai berriro ere berresteko moduan sentimendu batzuen extrabagantzia, zeintzuek, euren izate-arrazoia besteen gogotan osoki datzanean ere, norbere baitako bezala funtzionatzen duten, kontra dikzio erantsiagaz ezen nire kontzientzia hainbestean okupatzen zuten pentsakizun haiek ez zeukatela garrantzi eragilerik nire asmoen arkitekturan. Halako zerbait mola lehoi-ama etzanak, umeen jolasak zaindu bitartean, betiko zuhaitzeko hegazti-



aldrari begiratzeko dion, bere unibertso partetzat bainoago distraziotzat. Behin edo behin, ostera, zuhaitzak egun osoa badarama hegatziz bete gabe, lehoi-aria aztoratuko da, larrituko da, eta umeak ahoan hartu eta tokiz aldatuko ditu, inguru madarikatutik bezala. Orduan igarriko du distrazioa ere unibertsoren parte dela.

Denbora bazihoan, baina ahanzteak zaila zen, noiznahi gertatzen baitzen elkar ikusi beharra, gehienetan taldean, bakarrean ere, bidean gurutzatzean. Kale bakarreko herriek abantaila dute ezen elkar ikusi ezina dutenak ere elkar ikusten ohitzen direla, elkar ikusiko ez balute bezala. Okerragoa da lotsarena, edo zerbaitegatik ikusterik komeni ez zaienena, hauei zail egiten baitzaie elkar ikusi ezinduen profesionaltasuna. Goiz batez, Donina abadetxean agertu zen, ohiko sarrera-hitzen ondoren esanez:

- Amak agindu deust pakete hauxe ekartzeko berorri. Opariren bat izan behar da.
- Jesus! Zeren oparia?
- Gozoki batzuk uste dot, lehengoan berorrek egin ei eutsan mesede bategaitik.
- Badakit zergaitik izango den. Gernikan, azkenengo autobusa galdurik, nogaz itzuli jiratu neutsalako izango da. Neuk ekarriko neukeen, baina motorrean abadeagaz etortzeari nabarmen erizten eutsan. Benetan larri zegoen gajoa. Emoiozuz eskerrik handienak, opari hau ez zen inondik beharrezko baina. Zuen ama finegia da mundu zakar honetan ibiltzeko.
- Bada, bai, ez deusagu askorik erakusten baina.
- Zeu zelan Lekeitio aldetik?
- Ondo. Etorriko naz, luzeegi barik, berorren konfesalekura be.
- Hortxe bai ez daukazula estutu beharrik. Zeure barrua apur bat askatu badozu, horixe da behinena.
- Ikusiko dogu.

Nire buruak motibo gutxi behar bazuen abiatzeko, oraingoan helizea bezala oldartu zen, seinale guztiak alde aurkitzen baitzituen. Amaren agindua saihesten ez zeukan gaitz, ama bera ere noiznahi bainekusen. Ez ote zen bera aurreratu oparia ekartzera, itzulera iragartzeko hain zuzen, supituan agertzea gogor egingo zitzaiolako? 'Zeu zelan?' horri zergatik erantzun zion galderak inondik iradokitzen ez zuen ildotik? 'Ikusiko dogu'. Horrek 'laster arte' esan gura izan jok. Berriz ere, pentsakizun hauek guztiak nire bizi-asmo nagusietatik oso urrun zeuden, baina gogoaz bazebilen. Zer egin behar nuen? Lepoa moztu eta burua ostikatu, ea orain non topatzen doan zer pentsatu! burlatuz? Neure buruagaz konforme egoteko arrazoi handietako bat zen, hain zuzen, bazekiela horrelako pentsaketa sutsuak paraleloki garatzen, egitura zentrala ezertan lokatu gabe. Igande goiz batez, zortzietako mezaoren orduerdi aurreko dandak jotzen ari zen kanpai-joleagaz ohiko hitz freskoak

(goizagatik, ez ohetik harako umoreagatik) egin ondoren, elizan sartu nintzenean, arima bakarra zegoen denean, konfesalekua baino pare bat ilara atzeragoko bankuaren horma aldeko muturrean, konfesatzeko zain itxuran. Erdiko pasabide-tik sakristiarantz, paretik pasera, burua doi-doi eta begiak ertzeraino okerturik, iluntasun trinkoan, jantziaren zuritasunagatik ez izatera, inor bazegoenik nekez bereizi izango nukeen figura hartan, Donina ezagutu nuenean, nire nagiak eta logurak azkar joan ziren aldare gaineko santu-santa hieratikoen artetik gora, absidean errebotatu eta denak, "omnes in vitro", konfesalekuan ezabatzeko, deabru txikiak Polentino perratzailearen pipontzian ezkatatu ziren bezala. Egunean zeharreko edozein elizordu bakartitan pentsakizun agitatuak eragin izango zituzkeen aurkikuntza hark nire gogoari, igandeko mezara bilduko zen jendetzaren pentsamenduan zetorrenari, kezka endredosoa besterik ez zion ekarri.

- Gaur, luistarren konfesino eguna! -hasi nintzen pentsatzen, aldare aurreko harmailadi gaina genuflexioz ondratzean-. Sartuko jatak erdialdean, eta oraindik mutil erreskada atzean dela, kapaz dok hori meza-kanpaia jo eta jaregin ezinik jarraitzeko.
- Agur, Maria, txit garbia!
- Pekatu barik sortua. (Ene Amatxo orbangabe! Hobe zeuk be pekatoren bat egin izan bazendu!) -Konfesalekuan eseri naizeneko hurbildu da.
- Hilabete eta erdi, jauna. Apur bat luzatu egin naz oraingoan. Lehengoagana ez neban joan nahi, eta berorregana itzultzeak erreparoa zemostan.
- Ni entzuteko eta entzuna isilik gordetzeko nago.
- Gaur ez dau askorik entzun beharko. Horixe bakarrik.
- Horixe... zer? -inozente-buru egiten dut.
- Ez al ginen berbatu, hurrengoan, 'horixe' esanda nahikoa izango zela?
- Oh! Egia! Ahaztua neban. (Ahaztua, berebilak!! Abadeok ezin dugu 'barrabilak' esan). Besterik ezer?
- Besterik ezer be ez, jauna. Horixe.
- Pozten naz, zeugaitik. Penitentzia barik, saria merezi dozu. Pasa zaitez meza ostean abadetxetik, zuen amarentzat oparitxo bat daukat eta.
- Penitentzia barik bialdu behar nau?
- Errezaizuz, nahi badozu, hiru Agur Maria, Oibarko Ama Birjinari eskerrak emoteko.

Historiaren atal bat dotore amaitu zen. Denborak beste atal batzuk ekarriko zituen, ez gutxiago dotoreak, baina horiek konfesiotik kanpora gertatu ziren, eta ez dira sekretuan sartzen.

Lekeitioko kale-sare melankoliaz kresaldia, karramarro geometriko baten tek hondartzan utzitako marrazkian inspiratua, nostalgia gabe oinkatu dudanean, Isuntza gaineko hotela baino kokaleku egokiagorik ez dagoela erabaki dut. Otoio hotelak samurkiago hartzen nau, aurreko izena –Zita Enperatriza– aldatu nionetik. Jada ez daukat ezer andre uren haien aurka, zeintzuek, pasatzen ziren toki guztietan, izena bertan uzteko bizioa zeukaten, marraskiloek lorratz likina bezala. Zita Parmako hura gazterik hil balitz (edo hil balute, enda horietan hain errimeak direnez), hogeita hamabost urtegaraz, esaterako, pozik utzi izango nukeen bere izena *gaur Zitagaz lo egin behar joat* pentsatuz gaua desiatzeko. Herri urperatuan bera bakarrik bistan gelditzea lortu zuen dorrea bezain garaile gelditu naizen honetan, ordea, ez nau gehiegi xarmatzen, ia ehun urtegaraz, zaharrez bainoago presuntziorik utzi gintuen gorentasun zimur baten ondora itzultzeak, askorik ez nauela molestaturik jakinda ere. Sentimendu batzuk joaten ari zaizkidala egia izan arren, sen batzuek badiraute oraindik. Iragan hutsagaz eta orain hustuagaz gelditu naizenean, ez naiz etorkizun mizkeari zirrika hasiko.

Ez dakit Otoio hotelaren eta, oro har, herri osoaren begirale altxatzen den Lumentza tontor konikoa, txarakaz jantzitako haitz eternala, Lekeitioko lehen miraria izango den. Badaezpada, izena aldatu diot, *Kalbarioa* zenari *Lumentza* deituz, eta badirudi orain naturak herria haiekin hornitu zuen edertasun maitemingarri ugariak bertatik sentitzen direla osoen eta sarkorren, nahiz eta sentierari edozein zoko zaion aski, bere ahalmen gorenean urtzeko. Hain toki fantastikoaren oinetan hilerria aurkitzeak ez nau atzeratzen, berorren bila bainator, biziak nigandik ezabatzea hautatu zutenez gero, ea hilekin gizarte iraungarri bat osatu ahal dudana. Ez daukat dudarik, hilekin beti ondo konpondu izan bainaiz, nire jaioterriko eskola koxkor, gainezkor eta sarritan beldurgarritik metro gutxitara zegoen hilerri txiki xarmanta, eternitate insensibilearen aurrerapentzat barik, bizitzaren osagai ludikotzat eskaini zitzaizkidanetik. Antzinako lekeitiarrek hilerria honen jagitasun zoragarriara altxatu zutenean, ez dut uste izango zenik, garizumako sermoilari futuristak (izu-filmak) aldarrikatzen gozatzen ziren moduan, marinelek itsasargi pozgarriari euren patu noiznahi tragikoaren kontzientzia jarki ziezaioten, baizik hilerriaren ikuspegi postalezkoak euren arrantza-lana, immensitate urdinaren hain puntu txikira murriztua, baikortasun bizigarriantz zabal zezan. Hain malda gotorrean honen hilerri hedatsua aurkitzeaz ezin naiz harritu, pentsatzen ari bainaiz egoitza ikusgarri hau hilek eurek hautatua izan zela, oinez etortzen zirenean. Hortik sortuko zen hilerria bertan kokatzeko ideia, biziak eurentzat nahi baitzuten hilak lepoan eroateko grazia, zer egingo zaio, ba. Hala ere, ez zuten lortu ortu santuok euren xarma esentziala gal zezaten, nire gogoan, behintzat. Ni, hilerrietan, biziak molestatzen ninduten, eta loreek tristatzen. Orain, loreak nahi adina ditut kanpoan, esanez: *Goza nazazu! Ostika nazazu, nahi baduzu, zu berriz itzultzerako, lau bider*

*birloratua eta hirutan zimeldua izango bainaiz.*

Hilak, berriz, hil eternoak, nahi adina eta nahi bezalakoak ditut bertan. *"Hemen datza Franco, beste era batera hiltzeko piztu zena"*. Hauxe ere maitagarri hemenean, lastima izan zen baina. *"Hemen datza Carrero, piztu beharrik ez izateko moduan joan zena"*. Bitartean, hau marka, *"Hemen behar luke Arestitar"*... Lasai, Gabriele! Azkenean, zugandik haragoko euren biziraupenak hainbeste amorratzen zintuen Derioko marmolistak ere joanak dira, zure aitaren etxearen eraistea burutu ahal izan gabe. Joño! Hemen baten bat bizirik jagok, antza. Sarri, Sarri, Sarri, Sarri... *"Ni ez naiz hemengoa"*. Ona, Joseba! Banuen susmoa ni baino zorte hobekoa zinela, nirea bestea baitzen: *"Nik ez dut hemengoa izan nahi"*. Azkenean, zuk hain konnaturalki baliatu izango zenukeen destinoak ni biziraule bakar uztea ez da izan zure akats, ez nire meritu. Barka itsuskeria, baina *"ni, orain, banaiz hemengoa"*. Horrek ez du esan nahi zure ondoan etzango naizenik, *"ni orain, zu gero"* epigrafeari jarraituz (*"zuk kakalarria, nik ere bai"* bezalatsu), hor baitakust tokiari alazo datorkion mezu bat: *"Hemen datza gizon ikustezina"*... Emakume bat aurrean jarri zaiolako. Ez zen esaldia osatzen ausartu, ez omisiorik ezak intentzioa alutuko zuelako, baizik pentsatuz ea non aplika zitekeen hilerrian baino egokiago *"laburra, baldin on, bi bider on"* delakoa, eternitatean etzanda zaudela.

Azkenean ere! Hemen dago, sen orokor baten tirakadan kamuffaturik, oharkabean bere bila nentorrena. Neure buruaren bila, epitafio xume batean bera, nahiz eta ohi baino luzeagoan. Azkenean, noranahi noala, beti daurkit joan naizela, ez neure buruaren bila (lelokeria intelektual horretatik antzina sendatu nintzen), baizik neure buruaren zerbaiten bila. Ezer ez badaurkit –zaila berau, bidaia at-espazialean ere–, etxera nitzul derrepente, non ziur den neure burua oso-osorik aurkituko dudala, aurretik suposatzen zitzaion nonahitasuna deuseztu gabe; hots, beste lelokeria intelektual mordo bat gehiago, iluntzeko labirinto mentaletan sartu gabe. Hemen datza neure buruaren zerbait. *Agur eta esker on, bihotzeko Santi, samin handiagorik ez liteke senti, argiaren gudari bizitzan zu beti, hiltzean egin zara gure egunsenti, bihotzeko Santi, ez liteke senti, zu beti, egunsenti*. Santi Brouarden aurpegi biribila eguzki jaio berriari gainjartzea erabaki nuen, eta harrezkero, haur irribartsu bat pediatarren eskuetan bezala dakust egunsentia. Ez beti ere, baina bai gehiegi kosta gabe. *"Hemen datza Platon, filosofia poesia bihurturik, izangarritasun oro betiko abolitu ziona"*. Ondo zaudete elkarren ondoan filosofia eta biok, Gametxogaz trianguluan, baldin bera hemen baletza. Erramun Gametxo: ideia bakar bat, egiazkoa eta totala, ulertzeko norbaiten bila bizi guztia, luzea emanik, eta ezin aurkiturik, adimen garatuagoen itxaropenerantz ezabatu zena.

Zertara igo naiz hona? Betikoa. Ez da 'egin eta gero pentsatu' delakoa,

lehenago, esplikatzan hasi eta inork ulertzerik lortu ez nuen jenioa, baizik nire kontzientziak, gehienetan, atzerapenez eta murrizki derraiola nire buruaren totum, konpaktu horri. 'Horri', bai, 'horri'. Planeta bat (euli bat?) besterik ez den izan horri, zeinaren erdigunea dela suposatu ohi dudan kontzientzia hau, bere inguruan biraka, kanpotik barrura sartu ezinik dabilen. Auziak ez dauka misterio handirik. Txikirik ere ez, garbi esanda. Hilerrira igotzeko gogoak eman dit, eta hemen nago, hemen natza, hemen nabil, hartza bere izokindegian bezala. Ez nator ezeren bila, are gutxiago, hilerriko bakearen, horretarako biziak behar baitira. Bizien bake hilerritarra. Kanpoan elkar hiltzeraino basatitzen zirenak hemen elkarri bide ematen aurkitu dit, *aurrera, mesedez!*, gur egiten, *zure aitaren, nire semearen, gure espirititu komunaren*, denak gozo-gozo, uso-uso, inor ez delako ausartzen tiro bat airean jaurtitzan, gorputzera zuzen tiratzeko ere toki aproposagorik ez daitekeela izan, ohartzeko; jo eta zulora, inolako bitarteko gabe. Biziak inguruan dabiltzanean, muturrak luze-luze, izen-abizenak eta harriak transluzitzen dituen xehetasun urriak usnatuz (*9 hilabetegaz jaioa eta 96 urtegaz hila. Zure senideak..*, eta beste hizki ezabatu batzuk, seguruenik *gero arte!* diotenak. *Hator heu, kapaz bahaz!*), orduan hilak geldi-geldi egoten dira, itsasoa bezala, hondartza turistaz eta euliz bete denean.

Biziek alde egin dutenean, hilak xuxurlan hasten dira, *eskerrak noizbehin eta berean presati datozen, aitaren beraren, semeen koskoilan, goteunen kupulan, halan be, bai Jesus!, nire bi femurrak zeuk jan dozuz? bertan dekozuz!*, mugitzen ere bai, nahiz eta bizitango abiadura zati eternitatea berdin patxada hilezkorrean. Eragiketa horrexena izango da hilek berdin korritzea, gaztetan zein zaharretan. Neuri ere hilerrira inor bizirik ez dabilenean gustatzen zait; beraz, maiz etorri behar harko naiz. Bai bizirik dirudiela Lekeitioki, hilerritik begiraturik, eguzkiaren abantzuak hainbeste aurpegi ezberdin ateratzen diola, zein berdingabeago! Batez ere, hodei bizkorreko egunetan, ostarteek, itsasoa eta lehorra hartan berdinduak diren laiotz astunetik, agerpen maitemingarriak sortzen dituztenean, bustian distiratsuak, jaiotza exultanteak bezalakoak. Edo hodei nagietan, itzalaren oihal irregularrak portua eta herria kamera lentoan ekortzen dizkizunean, zein alde desiatzenago duzun ez dakizula, argituz doan bizitasun kitzikagarria ala ilunduz datorren estaldura melankolikoa. Uste dut sarritan etorriko naizela Lekeitioko hilerrira, edo kokapenik bistosoenean zerbaitegatik egon ohi den beste edozein hilerritara, non go bizilagunak, gorrotoen zintuztenak ere, inplakableak diren zure une poetikoen errespetaun.

Biziak atzera-aurrera zebiltzanean, hilak isilik eta geldi-geldi egoten zirela esan dut, baina bakarrik hilerriratzen nintzanean, nigaz konfiantza hartua zutelako, edo neuk ere gutxi molestetzen nituelako, dardara xume bat sumatzen nuen

oinetan, aditasun osoan jarrita bakarrik atzematen zena, antipodetako lurrikara baten uhina bezalako, nabaritu bainoago deduzitua zela tematzen zidatena, zertatik ez zidaten uzten arbuioaz beste defentsarik: *Biziek in berba egiterik ez jok merezi!* Oraintxe ere odoleko bibrazioa bezalako bat sentitzen dut, arreta handiegirik jarri nahi ez diodana, hilak, horretan, haurrak bezalakoak baitira, konfiantza apur bat ematea aski zaienak, berehala total harrotzeko. Azaleango daldaratxo odolera pasatzen zaizu, eta lehenengotan ez dago ezer kezagarririk, halako kilikortasun preorgasmikoa besterik, baina garunera heltzen direnean, huraxe bakarrik falta bailitzaien, bat-batean halako borazitateak jotzen ditu, ezen, berbertan erreakzionatu ezik, garezurra hustu ahal dizute. Nik trukoa ondo hartua nien. Ezer badaezpadakorik sumatzen nueneko, murru gainera saltatzen nintzen, oraintxe nagoen bezala, paisaia agortezinera begira. Eurak horraino ez zaizkizu sekula jalgiko, paisaiak hozkia damaielako eta, batez ere, biziek hauteman ditzaten beldur direlako. Horrela, sekula ez dute jakingo hilerritik kanpora, orain, ez dagoela inor inon, neu besterik, baina ez diet poz gehiegi hori eman nahi, arestian aipatu harrotze kontuagatik. Segi dezatela euren inozentzia eternoan. Epitafio amaigabe batek harritu nau: *Hemen datza Dermun Sarriondo, bera ez izateagaitik, Peron bihurtu zena. Peronez desengainaturik, Fidel Castro bihurtu zena. Fidel Castroz nekaturik, Oteiza bihurtu zena. Oteizagaz hasarraturik (zaila ere ez zenez), hobi-lurretik erauzi zutena, Malynjai bihurtzera zihoala...*

- *Heuk erauzita, potrozorri heren horrek!* -eraso dit ahots garratz batek-. *Nora eroan heuen nire burdinazko kurutze uhartua, medailoi marfilezko eta guzti?*
- *Berrogei urtean egongo zen hortxe, marfilezkoa izan balitz!*
- *Ni ez nok marfilezkoa, eta hemen najagok.*
- *Baina Malynjai bihurtzeraino! Jatorriari apur bat begiratu behar jako, ezta? Bizitzan hainbeste buruhauste emon zeuntsan gure amak sumatu eban mutazino marikita horrek grazia handirik egingo ez eutsana, eta kentzeko agindu eustan.*
- *Zuen amak...*
- *Kontuz zer esatera zoazen zeure amaren lehenengo umea izan zenaz!*
- *Nire kurutze uharra zergaitik ez heuen bere lur ustelean utzi?*
- *Banekielako autoaren maletegian gusturago ibiliko zena.*
- *Kontrol puta bateko miatzaileari beragazko enkontruak infarto bat emon arte?*
- *Hainbesterik ez neban gura, baina zeharo ahaztua nintzen, neure kalterako, maletegian zer merkantzia nerabilen.*
- *Muga guztiak zeharkatzen eta polizia guztiak desorientatzen?*
- *Zeuk be ez zinoen ezer!*
- *Zer lortzeko, lurretik bizirik erauzten ninduaala, nire alaraio ulergarri guztiak alperrik izan baziren?*

Zerbaitegatik esaten nion aurretik amari:

- *Kendu? Bildur naz ondoren zerbait gerta dakidan.*
- *Inork ikusi barik erretiratzen badok -amak ez zeukan dudarik-, burdina uhar batek zer egingo deua?*
- *Gure osaba denok ikarutzen zinduezen mehatxu apokaliptikoa ("Torreburun handiena gertatuko da") bete barik joan zen gero!*

Torreburu ('zaharra' eta 'barria') gure osabaren eta ondoko geure etxearen izena zen. 'Joan zen', bai, berak egin baitzuen bere buruagaz egin beharrekoa. Orduan, mehatxua ere deusezturik gelditua izango zela pentsatu genuen, lasaitasun osoz, bestalde, handik 40 urtera, inor ausartzen ez zena egin nuen arte. Bere hilerriko oroigarria, burdinazko gurutze ezin uhartuago bat, han zetzañ ahanzturaren zentinelan, nahiz eta urtean behin ingurua garbitzen eta lore-sorta bat uzten genion, bizien begi txarra saihestearren. Hilerrian inor ez zebilen ueña baliatuz, 'kendu eta bakea' pentsaturik, lurretik erauztea erabaki nuen. Jendearen joan-etorria ugaltu zenean, bakoitza bere hilaren bila, inork ez zuen ezeren faltarik sumatu, lurpekoak berak izan ezik, zeinaren bizkarrean gurutzea arpoia balearenean bezala sarturik egona zen, antza, era hartan hiltzen zena (bere buruaz beste) ahozpe ehorzteko 'lege naturala' atera baitzuen, ez genekien nondik, herriko parrokoak, eta onartu aginte zibilak. Ikusi ezik, inork ezer igarriko ez zuen, baina, ikusiz gero, denek marmarrari emango zioten susmoa neukan gurutze kasik erdoilak jana hilerriko hondakindegira jaurtitzera nindoala, emakume bat agertu zen hilobiarte batetik, azken hileta egunean utzitako lili-sorta usteldua jaurtitzera bera ere. Haren bistan ez bainintzen ausartu gurutze batez hondakin gisan gabetzen, bazterrei arretaz begiratzeko planta egin nuen, hilerriko konponbehar material ugariak jasoz bezala, zoko hartan zaila baitzen kargu hartzea merezi zezakeen ezer begitatzetik. Arreta bortxatuak balio izan zidan gehiago ohartzeko nola hilerriko harresiaren angelu ez guztiz zuzen bat beste horma lodi batek triangulatzen zuen barrutik (nondik egingo zuen, ba?), hipotenusa delako hitz beldurgarri hori osatuz, metro eta erdi gutxiagoko altueran. Angelu hartan, hilerriarren harresiak bazituen lau metro. Bistan zen barruko hormaren baxuagotasuna gainetik harrikatzen ziren hondakinak indartsuegi bazihoazen, kanpo-horma altuagoak jota, barrurantz jaustea ziurtatzeko zela, nahiz eta, batzuetan berariaz, edo pizkundearen fedea kemendurik, kanporaino ere iristen ziren, parean harrapatzen zuenari tokiaren errespetutik urrunga biraoak jaulkiaraziz, batez ere, hondakin nazkagarria bazen, zein ez?, edozer jaurtitzeko baitzen bertara, belar on zein txar, lore ustel, lingirda, marmol zati, untzori, hezur galduak... Betiko jaurti behar zen, antza, hondakin degi triangularrak ez baitzuen aterik, goraino bete zedinean, horma botatzea aurreikusita edo.

Hilerriko hondakindegia izanik, eternitatearen atzerazina barneratzeke era aktibo bat ere izan zitekeen, konprobatzera gonbidatuz bezala nola jaurtitzeko egintzarik libreena ere ezin zuen ekidin objektua guztiz erreskateazina izaterik. Aterik eza urrundiko inpresioa zen, zorionez, hurreratuz gero, nabari baitzen ate existitu bat itsutua izan zela. Hilerritik txikia izanik, barruko edukiera triangularrak ate bat justifikatzeko baino nekezago beteko zen, edo, bete ahala, zurezko atea usteltzeko edo burdinazkoa erdoiltzeko arriskua zegokeen. Merkeagoa zen hamar urtez behin, adibidez, edo hamaikaz, nahiago bazen, ate-horma eraitsi, beharrezko hustuketak edo zapalketak egin, eta berria eraikitzea, baldin ustelkuntza naturalak berak ez bazuen, hainbeste denboran, sedimentatze guztia berez-berez egiten, zeraren kasuan ez baitzegoen horma zaharrik eraitsi ez berririk eraiki beharrik. Bitxiena zen, ordea, gurutze zahar baina astuna eroso jaurtitzeko, guztiz hurreratu behar izan nintzenean, ate itsutua zirudiena marrazki bat besterik ez zela, hipotenusa delakoaren beldurgarritasuna arintzeko distrakziozat edo. Garbi zegoen marrazkiaren horma osoa eta jatorrizkoa zela, inolako etenik ez ezarkinik gabe; hots, ate itsuaren irudi zirriboratuaz beste interbentziorik gabe, berau ere, seguruenik, jatorrizko hormaren hasierakoa. *Joño! Hemen aterik ez dela, beraz, inoiz existitu, baina konfiantza bat sentiarazo gura deuskuela existentzia itsutu batena, zeina bera be, halaber, existitzen ez den.* Negatiboranzko intzitzazio deduktibo hori baino garbiagoa ez al zen izango horma soil eta lau bat, hilerriarri dagokion gristasun higatuagaz?

Izango zen, baina, dirudienez, herri koskor honetan ere izan zen, noiz-bait, intentzio aski konplexu bat garatzeko adimena, ni garai hartan nintzen haur pentsalariaren buru-jolasik bihurriena baino maila subtilagoa suposatzen zuena. Eta, jakina, oraingo bisitarien adimen-mailak bidezkoago dakusena, zeren denek zoko ustez kriptiko honetaraxe jotzen baitute. Naturalak eta argiak diren beste lau hilerritik angeluri kasik inork ez die begiratzen, baten bateranzko zehar-begiradan, angelu guztiz zuzena ez ote den duda txiripaz sortu zaienen bat ez bada. Izan ere, zentzumen espontaneoek, begirada urrun zein hurbilari laukia iruditzen zaion harresiak bost angelu ditu; angelu guztiak ezin dira, beraz, zuzenak izan. Baina inork ez lerrake pentagonoa denik ere, norbaitek plano batean garbi erakusten ez badio, barrutik panteoiek eta hilerrietako zuhaitz tipikoek ez baitute perimetrorik ikusten uzten. Kanpotik, berriz, ez da ohi hilerrien forma geometrikoetan fikatzea, inor ez baita jartzen, etxe bat bezala, adibidez, hilerritik partikular bat egiteko burueran. Hilak bisitatzen datorrenak ez dakar beste inolako asmorik, eta normalena da bera ere ezertaz ez ohartzeko. Osaba Dermun-Peron-Castro-Oteizaren zorioneko gurutzeak zokorik zoko ibilarazi ez banindu, neu ere ohartzeko nengokeen hilerriarren geometria ezustegarriaz. Denak pentsarazten du gure hilerria beren beregi diseinatua izan zela, bizien bizkarrean zetozen hilak, apur bat desorientaturik, bakarrik

gelditutakoan, beste munduan urrunegi joan ez zitezen.

Aipatu emakumeak bere jaurtiketa egin zueneko, beste bat agertu zen asmo berdinez, eta biek berriketa apal baina bizkorrari eman zioten. Nitaz zerbait esaten hasiko zirela banekienari itxaron gabe, eurt egin nuen, gurutzea, erdoilak arindua baino porlan-oinarriak gehiago astundua, disimulatzen ahaleginduz. Ahalgin zaila, batzuetan, hilerrian edonondik sortzen baitira izaki ibiltariak, hilobiak husten ari direla pentsatzeko moduan, *zu be hemendik?, urteroko ohiturari jarraitu guran, hau al da zure andrea?, beronek ezetzik ez badino...* Disimulatzeko modurik onena bere lehengo lur txatalean uztea dela erabaki dut, ingurua apur bat mehatzu arte. *Ene! Kurutze hori hortxe al zegoen, lehentxoago pasatu naizenean?* Egon behar zuela argudiatzen saiatu naiz, hilerrietako misterioetara jo gabe, beste baten inpertinentziak salbatu nauen arte: *Kurutze hori uste dot igaztik falta dela hori*. Kontua da nola salbatu behar dudan orain bere tokian egotea, hain loka gainera, ukitzen inor ez dela ausartuko fidatzen naiz baina. *Andreari laguntzera noa, baztan guztietan katigatzen nazela esan ez daien*. Andreak berak ez dit askorik lagundu, galdetu didanean:

- *Osaba Castrorena egin dozu?*
- *Bai dot, ez neure gustura baina.*
- *Eroan honeexek lorok.*
- *Harek ez dau lorarik behar. Kurutzea kendu dot.*
- *Nora?*
- *Bertan utzi dot barriro, autora inork ikusi barik eroateko bitarte baten zain.*

Gautzen ari du. Bisitariak oraindik badabiltza, baina argiak hasiak dira zabaltzen hilerriei dagokien moteltasuna, gurutzea besapean hartu dudanean, ikusita ere, zer daroadan ez bereizteko modukoa. Maletegia irekitzeko, gurutzea autoaren kontra tente utzi dudanean, ahots bat entzun dut atzean: *Egin dozu azkenean be*. Ez dakit gurutzeagatik zioen, ala nik egitea arraro egin zaion hilerrri-bira orokorragatik, baina, badaezpada, darantzut: *Berton egiteko, uhartuegi dagoenez behar den lekura eroatea pentsatu dot, barriztu on bat emoteko*. Horixe egingo dut, gainera: garbi-garbi egin eta, barniz on bat emanda, hondakindegira jaurti, osaba transformistaren, bere aldetik, azken asmazio, gure aldetik, gorazarre moduan

Horixe pentsatu besterik ez, nire guraso defuntuen hilobieie azken ukituak ematen ziharduen emaztearen dei larria entzun nuen. Lurreko hilobi bikoitz erdi garbituaren ondoan, eta aitzur txikia esku biekien estutuz, horma kontrari albokera, kasik etzanda aurkitu nuen, artean euren hilak abandonaturik hubilduak zirenek nola heldu ez zekitela. Hilekin zabiltzanean, biziekin zer egin asmatzen ez dago

erraz, alderantziz ohituago gaudelako edo. Kasu honetan ez zirudien alderantzitazuna korrespondentzia osokoa zenik. Erdi zorabiatuak, hilerrriaren aurreko landara atera genuen, arnasa sanoak susper zezan. Bere begi noizbait irekiek inguruan hainbeste jende arduratsu ikustearen sustorik disimulatu ezin zutela, etsita bezala esan zuen:

- *Haurdunaldiarena izango da.*
- *Inoiz ez dozu zorabiorik izan barren!* –hots egin nuen beretzat bainoago ingurukoentzat, pentsatzen nuela, kasik amorrutz: *–Bizia sortzen ari denak ez leukek hilak garbitzen jardun behar.*
- *Oh! Haurdun bazagoz, hori ez da ezer!* –hasi ziren esaten, bakoitzak bere kasua edo andreairena aportatuz, ahotsaren indarrak txanda libratzen zien neurrian.
- *Gure osaba demonino horrexen kurutzearena ez bada dena!* –pentsatu nuen bat-batean, ez barne-ikara, nahi bada, zentzunbako, baina larri bat gabe.
- *Zer gura dok, ba?* –entzun nuen bere ahotsa, bizitzan bezain burlosoa, inoiz nahita min egilea–. *Berrogei urtean begi guztien maiseagarri egonda, orain isil-isilik bazter naiten, hasierako frailekume bati, gero neuk baino transformazino gehiago jasango ebanari, traban nagoela otu jakolako?*
- *Traban ez, baina faltan be ez, hainbeste hilobi marmolezkoren artean zeu, lur mustur ziztrin baten maizter, kurutze lotsagarri baten azpian, inor bertan bazenik be ez genkiela... 40 urtean!*
- *Hilen eskubideak ez dozak preskribatzen. Are gitxiago, mendekuak.*
- *Gure haurtxo jaiogaiari ezer gerta balekio, zure hazurrak eho eta Malynjainen ispilu-markoaren masillatatzat ipiniko zaitut. Ondo dago Peron, Castro, Oteiza, Panero... baina Malynjai eta pitokeriak!*

Barre-karkaxa labirintiko bat dantzut, osabak aztoramen bizi bat atzean utzi usteta alde egiten zuen guztietan bezalakoa. Horretaz, bizi zela, errutina prebisibletzat ezaxolatzen ginen, baina hilen barreak badu umoreaz handiko kirrizkada tinbriko bat, normalean lapiko bat lurreratzean baino gehiago molestatzen ez zaituena, baina esteak lepoan korapilatzen dizkizuna, jaiotzatik ala alderantzitik hurbilago dagoen ez dakizun izaki baten zain zaudenean. Emazteari ezer esan gabe, gurutzea, bere inskripzio obalatu zuriagaz (*Hemen datza Dermun Sarriondo Etxebardi, 1909an jaiotzen eta mende barruan hil zela suposatzen dena*), maletegian sartu nuen, moketaren azpian eta ordeko gurpilaren gainean, kontrol bateko miaztaileari aurkikuntzak infarto bat eman zion arte. Ondo egina! Heldu eta maletegira bera ere. Lekeitioko hilerrian, barre-karkaxak hilegi datoz, itsasoaren barbaroa alteratzeko.

Hilerritik kanpoan, Lumentza tontorreraino igoera kasik osagarri mito-

logiko bat da. Hilak astunak dira 'lepoan hartzeko', baina euren gainean, kasu honetan, hilerrri oso baten 'lepoan', materialtasunaz gabeturik sentitzen zara, kasik inexistenziaren airosotasunean, kontzientziaren presentzia salbu. Hau, bakarrean, oso arina da. Hilerrriaren murru sendo, altuek, eta ia eurok adinako horma paraleloek luzaturiko kalekka estu, bihurrietan gora, hilerrria noiz amaitu den ere igaritzen ez den jarraipen estrainio eta geroz erripeagoan, Tiro eta Troiaren arteko fosa frankoan noala iruditu zait, hilak oste batean, hilak beste ostean, eta neu, bizi-bizirik, urrats bakoitzaren garaipenean, domeinu totalaren erpinerantz. Hilerrriaz beste horman, lantzean ate bat ageri da, bat berri samarra, hurrengo zahar-zaharra, giltzarra po uhartua dingiliz. Ez naiz molestatzin irekitzen diren jakiten. Nahi badute, irten bitez eurak bidera, nahiz eta zurezko ateetan, martxan noala, ezin dudan ekidin, neure ukabilkaden hotsetik, haraindiaren tamaina kalkulatzen saiatzea, sentsazio kaotikoaren atseginatik bakarrik. Amaitu dira hormak. Tiroarrak eta troiarrak bake gozoan gelditu dira, elkar dibinoki hilda. Lumentza mendiko txaraka-lur exzistentea hasi da. Lur bainoago haitz, zidor bihurtun, tarteka mailakatu gora, arteei eta beste basa zuhaitz zailduei kresalezko mintza usaintzen zaie. Beronek ere paleolitiko dirudien zidorrak gainera, naturaren sorreratik berdin dirauen oihan trinko honetan, batek sentitzen du piztutasunaren kontzientzia gozatzea dela gizatasunak hartarako merezi duen bakarra.

Noizbait, Lumentza konikoaren tontor zorrotzera iritsiko nintzelakoan, harresi gainean kokaturiko zelai fantastiko bat aurkitu dut, hogeita bost metro diametroko zirkuluan. Kanporagotik giza altueraraino, gorteiuz edo ikusmin soilez luzatzen diren arteek koroaturik, gotorleku ohi bat izan daiteke (ez dakit edertasunaz beste zer babesteko), edo behatoki davincitar bat, edo, seguruenik, lekeitiar emakumeek, senar marinela horizontean urperantz ezabatzen zirenean, bira guztiko paisaia lehortar-ozeanikoaz horditzeko moztu zuten erpina. Berton, azpian ilaran doazen hilerrri, eliza eta portu gainetik, itsas marra difusoa abarkatu guran, kalbarioa: gurutze bat, beste bi txikiagok aldamedua, hirurak ere oso handiak. Jesukristok erdiko gurutze kolosal hori honaino igotzeko habaila ekarri bazuen, ez da mirari pizkunderaino jarraitu izana, mirari ez den bezala, honelako ikuspegi aurkitzean, ezker-eskuineko bi lapurrez ahaztea, edo Lekeitio oinetan zuela, "*barkaiezu, Aita, ez baitakite non dauden*" deliratzin hastea. Lekeitio, ozeanoaren jaiegunezko belarritako hori. Bere portua kolore aldakorreko maskor bat ahoz gora bezala ageri da Lumentzatik, nondik kaioak, ontzi-masten artean, lumak haizetan bezala diren, zeintzuok, halaber, kontzentrazio sarrian biltzen direnean, elurra eguzki betean diruditen.

Lumentzako behatokian, kalbarioko gurutze nagusiaren kontra, ha-maiketakoa jaten eseri naizenean (urdaiazpi aizkoratua, solomo aiztotua, zahato

potzoloa, ogi txigortua, *benetako ogirik ez ete joat gehiago jango!*), pentsaketa oro zentzugabe ez ote zaidan sentipena gaidintzeko argudio bila dihardut. Beste pentsaketa bat gehiago, beraz. Zertarako edo norentzat pentsatu behar dut, inor inon aurkitzeko posibilitate arrazionalik ezin badut itxaron? Denbora amaigarri guztia ez al nuke eman behar jaten, ibiltzen, ikusten, gozatzen... bizitzen? Direktoki bizitzen, alegia, entretenitzen saiatu beharrean pentsaketaren ez agian denbora galduagaz, bera ere jolas oparotzat esplotatzen trebatua naizenez gero, baina bai efektu atzeratuagaz, hartaz pentsatzen ari naizena, edo ari naizen unea, jada joana izaten baita? Edo, okerrago dena, aurrerapen faltsuagaz? Hau edo hori edo beste hamaika, eta gero ez dut pentsatutako herenik egin. Hots, egindako bi herenak pentsatu gabeak izan dira. Egia da pentsatu gabe gozatzea kostatzen zaidana, baina pentsatu behar dut —berriz ere pentsaketan— balitekeela zailtasun hori aurreko ohitura agresibo-defentsiboen inertzia soil bat besterik ez izatea. Orain ez daukat ezeri eraso beharrik, ez inor saihestu beharrik. Ohitura aldatzen saiatzea besterik ez daukat, pentsaketak daramaidan denbora gozamen direktora destinatuzko. Lortuko dut hori ere, egoskorra nintzela ziotena egia bada, baldin, lorgarri dela pentsatuz batera, aurreikuspen larri baten beldurrak dardaratu ez banindu. Susmoa daukat hitzak ezabatzen ari zaizkidala. Ez nago guztiz ziur, lehen ere horrelako irudipenek, batzuetan, angustiosek, maiz jotzen baininduten, hiztegiatar oldartu eta *hemen jagozak! hemen jagozak!* aldarrika baretzen nintzela. Hiztegiak orain ere badauzkat, baina hitzak josteko ahalmenik ez dator hiztegiatan. Liburuak irakurtzen jarraitu behar ote dut, hitzen erlazioak ez galtzeko? Beti jakin-mindu, liluratu eta, funtsean, intrigatu izan nauen adimenaren abiakera misterioitsua beldur naiz ez ote zaidan amaiera gisan argituko. Zer gertatu zen aurretik? Adimenak sortu zituen hitzak, ala hitzek eragin zuten adimenaren garapena?

Eragile-ondorioen ordena originala nolana hikoza zela, badirudi hizkuntza eta pentsamena elkarrekikotasun banaezinean gertatzen direla. Arau orokorra eta kasu partikularra neugan unifikatzeko fenomeno ustegabera iritsi naizenean, argi dago hitzik gabe ez dakidala pentsatzen, eta pentsatu gabe, agian, ez nekikeela sentitzen ere. Nola eutsi behar diet hitzei, norekin hitz eginik ez badut? Hala behar duela sumatzen dudana moduan, hitzak ahanzten has banadi, hizkuntza ere joango zait apurka-apurka. Hizkuntza joan badakit, pentsatzeko ahalmenak alde egingo dit. Nahiz eta pentsaketa bera jolasik atseginen, oparoen, exzitanteena izan, horrek ez ninduke hainbeste larrituko, beldur ez banintz, ziur ez banengo, pentsamenagaz batera, kontzientzia joango zaidala. *Eta zer?*, dioste eurek ni inguratzeaz zoriontzen diren eta ni eurek inguratua izateaz zoriontzen naizen animaliek. Eskerririk asko, bizikide laztanok, baina neure buruaren oharmena galtzen badut, alferrik izango naiz zoriontsu. Hots, ez naiz izango zoriontsu, lehengo bizitza zaharrean sobera frogatua nuenez. Ondo bizi ginenean, gauza bat falta zitzaigun ondo bizi

izateko: jakitea. Sufrimenduak ez du oharrenik behar, sufrimendu izateko. Aitzitik, ezoharrenak hura txikitzen lagun dezake, eta hori on desiagarritzat jo daiteke. Zoritxarrez, ordea, ezoharrenak zorionean ere txikitze- edo ezabatze-efektu bera eragin dezake. Orduan, inbentzioa izorratu dugu. Zertarako nahi dut (ondo) izan, banaizen ez badakit? Badakit naturari horren konturik eskatzea absurdoa dela, animalia guztiek 'urruma batez' aldarrikatzen didaten bezala. Kontua ez da hainbeste nola eragile itsu batek adimena bezalako ahalmen bat sor zezakeen, baizik nola ez zuen, sortzekotan, hilezkor egin. Itsutasun bati zer eskatu behar diozu? Kontua da ezen, sarritan giza zoritxarrik handientzat sentitua nuen kontzientzia hura orain naturaren errore esplendidotzat bizi izateko aukerara heldu naizenean, bera ezaba dakidan arrisku bizian, beharbada probabilitatean, seguruenik derrigorrean aurkitzen naizela. Hizketan ahantz badakit, ezabatua dateke kontzientzia. Halaber, gozamen kontzientea. Halaber, gozamena bera. Larritzekoa ez al da?

Ez zait komeni gehiegi larritzerik, larritasunak berak ez dezan, fatalki, beldur naizena aitzinaraz, baina uste dut, sakon-sakonean, ardura horrexek ekarri nauela Lumentzara, nora sumatzen dudan maiz itzuli beharko naizela. Izan ere, hilerria oinetan eta itsasoa muturretan duela, behatoki berdin lilurategi hau baino eragile efektiboagorik nekez aurki nezake pentsa-praktika gehi senti-proba egiteko. Edertasunak sentsazioak bizitzen ditu, eta nahiz eta pentsamenak ez dirudien sentsazio soil bat gehiago, badakit sentitze indartsuak pentsatze intentsora arrastatu izan nauela beti. Halaxe izaten jarrai dezan garantien bila nabil, hain zuzen. Hiztegi guztiak jasoko ditut Lumentzara, hitzek, hemendik, nire begietan zehar, euren erlazio guztiak berri ditzaten. Ez dit ardura erlazio berririk asma ez dezaten, orain ez baitut arterik behar. Soil-soilik, pentsatzeko gai izan, soil-soilik, 'neu naiz' sentitzeko beste. Neu naizela inguru guztia sentimendu bihurtzeko gai den bakarra; neu naizela pozik dabilena, neu naizela poza, neu naiz, ni naiz, neu naiz... Nire pentsatzeko eta sentitzeko inertzien badakit egoera honi kalifikazio bat eman nahiko diotela (eroa, absurdoa, delirantea, paranoikoa...), ez baitaukat beste erremediorik, pentsatzen dakidan moduan pentsatzea baizik. Berdin dio inertzioi zer edo nola pentsatzen duten, pentsatzen darraiteno, zeren, hotzean eta objektiboki pentsatuz gero, hau ez dago era irreallean, patetikoan, errealistan, absurdoan, imaginarioan tratatzerik. Hau 'bera' da. Jaits nadin Karraspio hondartzara bainu sentsual bat hartzera, atzera-aurrera temosoan diharduten olatuei zentzu apur bat eman. Ez die askorik axola izango, baina ukatu ere ez dira egingo, bat ere axolarik ez dielako, hain zuzen. Orain lagun inkondizionalak behar ditut.

.....

Gizaburuagan Oibarko Ama Birjinari aitortzen zitzaion zaindaritza Amoroton Santa Barbarak zeraman. Zeruko mailaketan ez zen, noski, Ama Birjinagaz berdintzekoa, baina tontor bistatsu batetik herri guztia mende zeukanak bazuen zerua biguntzeko ahalmena, trumoiaren mehatxuak ezereztuz. Berak ere Barbara zuen izena, gaizoak, nahiz eta, gerora, dohatsua izan zela aterako nuen. Zeharo maitemindu zen, zeharo eta zoraro, erantzunik itxaron ezin zen tokian, hots, itxaron ezin nuen tokian, neure bitartekotzan jarri baitzuen arrakastaren ahalbide guztia. Bere maitearen lagun handi nidekusean, eta, batez ere, transposizio inozentea eta inkontzientea egin zuen, beragan neukala sentitzen zuen autoritatea bere maiteagan ere izan behar nuelakoan. Berez konfesio sarrikoa izanik, zarratuago etortzen hasi zen. Egunero itsuan etorriko zatekeena (ahal izatera, goiz eta arratsalde), ez zen hainbestearino ausartzen, beldurrez ni gogaitarazteko, eta ondorioz –suposa nezakeen–, zubia hondatzeko, baina ez. Neska onegia, xalোগия zen, kalkulu egoistak egiteko. Eta, batez ere, itsuegi zebilen, gajoa, estrategia subtilerako argitasuna gordetzeko.

– *Gari ikusi dau aspaldion berorrek?* – galdetzen zuen pekatu inexistenteen zerrenda airean jaurtiz batera, eskuetatik luma bustiak astinduz bezala.

– *Zapatuan ikusi neban Bilbon, jaialdi batean* –gezurra esan nion, Gernikan izan baitzen, baina beldur nintzen, Gernika hurbilago iruditurik, "goazen bertara" esan-go ote zuen.

– *Ah, bai? Zer dino? Aitatu eutsan berorrek nitaz ezer? Noiz etorriko da Amorotora? Datorren domekan?*

– *Ziur-ziur ez eban agindu, baina baleiteke.*

– *Ah, bai? Beragaz berba egin ahal izango dot? Berorrek lagunduta, jakina.*

– *Zergaitik ez, gu be ez gara ha Kennedy eta ni Luther King eta?*

– *Ai ama! Belaunak dardar hasi jataz. Eskerrak belauniko nagoen. Inor ez dago atzetik zain, ezta?*

– *Susmoa dot biok bakarrik gagozela elizan* –erantzun dut inozentzia planta ez guztizkoan, garbi ez deskartatzeko moduan bere galderan ulertu dudala beste inor eza segurtatu ondoren etorri dela.

– *Berorri ez deutsu ardura apur bat luzatzen bagara?*

– *Ni horretarakoxe nago hemen, ez da toki erosoegia baina.*

– *Batzuetan kezka egoten bainaz, berori lar zorabiatzen ete nabilen.*

– *Ez, Barbara. Ni ahal dodan guztia laguntzeko nago.*

– *Baina honelako gauzetan!*

– *Honelakoetan eta denetan. Gertatzen dena nire laguntasunak ezin dauela joan zure ilusinoaren bidetik. Lehen be inoiz aitatu izan deusut, eta ez neuke nahi zu ezergaitik mintzerik, bai baitakizu zu eta zure zintzotasuna zenbat estimatzen dodan, aurrerabide gaxkeko desioan sartu zarela. Azkenean, atsekabe hondagarrian*



*jausteko arriskuan zabilz.*

– *Badakit, jauna, baina nik bihotz bat baino ez daukat, eta horrexegaz bizi behar dot. Ezin deusat kontra egin, gelditzea mehatxu egiten deust eta.*

– *Ulertzen dot (egia esan, ez dut lar ulertzen), baina buruagaz sentitzen be ikasi behar da apur bat. Gari zu baino askoz gazteagoa da. Urte batzuk falta ditu karrera amaitzeko. Haren buruan tximeleta asko dabil. Haren mundua eta zurea oso aparte dagoz. Gainera, uste dot badaukala lagun finko samar bat, lantzean bategaz ez da bilenean. Zelan egongo zara horrelako arbi-lore baten zain?*

– *Ez deust ardura, jauna. Datorren domekan baletor, ni konforme nengoke berba batzuk eginda, berorrek lagunduko baleust. Bakarrik ez naz ausartzen, baina berorren inguruan...*

– *Zoaz trankil Jaunaren bakean. Hori baino ez bada, egingo dogu.*

– *Eskerrik asko. Berorregaitik ez balitz, ez dakit zer egingo neukeen.*

– *In nomine Patris et (neuk be ez jakinat zer egin neikeen) Filii et Spiritu Sancti. Amen.*

Lehenengotan, Gariri ezer ez aipatzea pentsaturik nenbilen, neskaren itsualdia pasakorra izango zelakoan, baina endredoa aurrera baitzihoan, zerbait jakinaraztea erabaki nuen, ez zedin gerta ezen Barbarak, egunen batez, mutila zuzen abordatzen bera ausaturik, aurki zezan nola entregatzen nituela ziurtatzen nion mezuak ez ziren behar zen destinora iristen, nondik ateratzen den nire bitartekotza 'eskuzabala' ere, azken-azkenean, egoismoaren modalitate bat zela, neure buruaren alde bietaranzko oniritziak hainbeste kezkatzen baininduen. Eta zer? Ezin al nintzen saiatu ahalik onik gehien egiten, okerrrik gutxien jasoz, efikazia oreka horretantxe zegoela jorik, neure burua izorratzeak egin nezakeen ona mugatuko baitzuen? Hori guztia senez negien, noski, ez berariaz, orain ohartzen naizen edo suposatzen dudanez, zeren erraza baita, ur joanen alderantziz, norbere burua aldez geroztik analizatzea, baita maitatzea ere, errakuntza txit zorigaitzekoren bat tarteko izan ez bada; eta ez izanaren kasuan, berdin erraza baita atsegintzea, zorigaitz horietatik librakuntza norbere trebetasunari zor izan zaiola pentsatuz. Unean bertan, ostera, ez neukan batere argi errakuntza larri bat egitera ez ote nindoan, Barbararen maitemina, guztiz inposiblea zela ziur nekiena, interesatuari azalduz, zeinak nola hartuko zuen ez neukan inolako ziurtasunik. Gerta zitekeen mutila tentaturik aurkitzea, ez, noski, abusatzera, ustez ezagutzen bainuen hain astapotroa ez zela izango suposatzeko adina, baina bai apur bat jolastera. Neska ere ezagutzen bainuen ustez baino gehiago, nork finka zezakeen, maitasun itsuen kasuan, jolasa eta abusoa zertan bereizten diren?

Tartean neu nengoen, ordea, eta ez nekien, lehenago edo geroago, desku-bitrua izatea kasik inebitablea zen nire bitartekaritzaren faltsutasuna bera ez ote

zen mingarrien gertatuko. Azkenean, amodioari destino eternoaren arabera korritzen uztea erabaki nuen, zeren grina horrek, bere alde eginik, hargatik zu eskertu beharreko asemenik lortzea batere segurua ez den bezain ziurtzat jo dezakezu, kontra eginik, zure gainera maldizioa ekarriko duela. Gure kasuan, beraz, arrakasta bazen, bejon, porrota bazen, blues hunkigarrietarako beste motibo bat.

– *Txo! Gauza bat. Nobia faltan ez haz ibiliko, eztok?*

– *Hori sekula ez dok izaten sobran.*

– *Baina esan gura joat horrelako finko samarren bat.*

– *Orain arte, lorrina besterik ez jarabilat, baina, aukera konbintzente bat agertuz gero, igual errendituko nintzatekek.*

– *Ba, hasi hadi mentalizatzen, ze Amoroton bajagok bat, higanako itsumenez zoratu behar nauena.*

– *Atxurkada baino barri hobea dok hori. Datorren domekan bajaukaat Amorotora hutsik ez egiteko arrazoi eder bat.*

– *Baina ha ez dok hiretzat, Gari. Edo hi ez haz halakoentzat.*

– *Hori neuk ikusiko joat.*

– *Nik ha eta hi, biok ondo ikusita zaukiedaz, eta ez joat uste aurrerako izan daitekeenik.*

– *Harena zorakeria badok, neuk be egin neikek beste zorakeria bat.*

– *Gauza bat eskatuko deuat. Aprobatez merezi dauela uste badok, ez eiok itxaropen lar emon, eta atzerako bahaz, ez eik braust eten. Eta, batera zein bestera, trataik curioso, min handia hartzeko pertsona klasea dok eta.*

– *Jode, hi! 'Gauza bat' izateko, gauza piloa dok hori. Esan leitekek ze heu hagoela beragaz zertuta.*

– *Ez pentsa. Burukomin gitxiago izango najoan.*

– *Aizu, Barbara! –hots egin nion hurbiltzen ausartzen ez zen neskari, Amorotoko plazan, Gariri 'horixe dok' ahapekatuz–. Ekarriko deustazu, mesedez, sakristiako arropategian utzi dodan duieta, neuk uste baino freskoago egiten dau eta?*

– *Atoan! –hots eginik, airosa ezkutatu da elizpean.*

– *Mandatu pozgarriarrik –diotsat Gariri– apenas bizi guztian hartu izango joan, gaizoak.*

– *Neska ederra dok –Garik.*

– *Hi umea haz horren ondoan.*

– *Gizonduko nok!*

– *Laster topatu dozu! –diotsat neskari bueltan.*

– *Bista-bistan zegoen –esanez, berak laguntzen dit janzten, Gariri diotsadan bitartean:*

– *Hauxe dok herriko neskari jatorrena.*

– *Horrenbesterik ez da izango! –hots egiten du aztoraturik, plazako jende guztia*

abadea jantzeko bere operaziora begira dagoela konturatzeke, ni egiten naizen bezala.

– *Mutil hau ezagutzen dozu, ezta?*

– *Ezagutuko ez dot, ba, Amorothon hainbeste bider ikusita?*

– *Gari dau izena. Seminarioan urte mordoia egina da berau be, eta handik gara lagun.*

– *Lastima izango zatekeen mutilik guapoena abade egitea* –Barbarak.

– *Horretarako gagoz egin garenok, guapoenei trankil joaten uzteko.*

– *Ez, ez, oh, berori be guapoa da, baina esan nahi neban ze...*

– *Bai, Barbara, ulertu dogu. Ez eizu dena hain serioan hartu, mundua jolasteko be bada eta.*

– *Izan behar leuke, baina ez dakit. Laguna, Gernika aldekoa, ezta?*

– *Zornotzakoa, neure moduan. Beno, ni, izatez, Etxanokoa, baina orain dena da bat.*

– *Etxanoko okila hau* –sartzen da solasean Gari–, *orain, bele jantzita, bildurra emoten dauela uste dau baina.*

– *Zornotzako kalandriek inbaditzen ez gaitueenean* –nik.

– *Holan elkarrri burlaka ibiltzen zarie beti?* –tentatzen gaitu Barbarak, harridura planta nik uste apropos handituan, berak ere malezia apur bat badaukala erakutsi guran.

– *Ahalegintzen gara, lehentxoago esan dodanez, mundua jolasgarri be izan daiteken. Parka. Abadetxera sartu-urten bat egin beharra daukat. Behingoan etorriko naz. Segi, nahi badozue, tabernara, batera zein bestera, edo txokora be bardin. Topatuko zaituet.*

– *Egin ahalegina* –Garik–, *ze herri txikiotan erraz aurkitzen da bat noraezean, Bilbon majo moldatzen gara baina.*

Abadetxean, eliz liburu zaharren goi ebakidurei hatz-mamiak pasatzen hasi naizenean, gutxienez herri honetan nagoenetik, inork ez diela hautsik kendu ikusteak egoeraren ridikuluaz hobeto jabeazten nau, plazatik zergatik aldendu naizen gogoratzeak ez baitu garantizatzen hemen zer egin behar dudan jakiterik. Lehenik, eta azkenik, denboratik apartatzera etorri naiz soilik, eurek ere susmatu izango zuten, eta hemen nago, eskuak geldu eduki ezin eta zeri heldu jakin ez, nahiz eta sotanak poltsiko sakonak eta zabalak dituen, bere azpialdera pasatzeko ebakidura bertikal eta guzti. Ez da lehenengoa, honelako hutsune tenporaletan, nondibait edo norgandibait inbisibletzearren, zokorik sinesgaitzenetan babestu naizena. Seminarioan, edonon zeuden komunetan sartzea nahikoa zen, garantia inbiolablez ezkatatzeko zein negar egiteko, beste zeregin izendaezin batzuk ez aipatzearren. Mundu zabalean, ostera, ez da erraza norbere burua barregarri ikusteko bazter lasai bat aurkitzea, ez bada, esaterako, kalean zoazela, katapultan jaurtitako txikle muskila erarik egiagaitzenez belarrian itsatsi zaion exekutiboa itzultzean,

zakarrontziaren estalkia jaso eta burua bertan gorde duzunean, hondakin bilako plantan. Nola dakusu zeure burua? Zer pentsatzen? Gordeleku segurua, beti zakarrontzi horrixe txiza egiten ohituta zegoen txakurrak atzetik etorri eta zeure bernara diharduela igarri ez baduzu; edo aurretik jenio gaiztoko exekutiboak usaina hartu eta estalkiagaz bertan estutu ez bazaitu, *hurrengoan txikle a nora bota esploratzen ala?*, zapla-zapla estalki gainean ukabilka. Atzerantz ostikada ondo gidatu bat jaurtitzeko okasio aparta iruditu zaizu, suposaturik dagoeneko begiluze mordoia pilatu zaizuela inguruan, baina ez zara ausartu, ez baitzude seguru gainean duzuna exekutiboa ala ertzaina den, uniformeak bereizten kalamitatez zarelako. Buru deserosoak ez dizu ematen pentsatzea besterik: *Txikle indigesto bategaitik gizona zelako atarramentuan aurkitu leiteke!* Abadetxean ez daukat ezeren beldurrik, garbi baitago neu naizela abadea eta neu etzeko bakarra.

Kasu hau ez da, gainera, beste horiek bezalakoa, non sen-kolpe batek hartara eraman zaituen egoeraz atzetik jabetzen zaren. Oraingoan, kontzientzia osoz harturiko erabakiak ekarri nau, nahiz eta, seguruenik, okerreko lekura etorri naizen. Ez dago norbere egoera suntsun bat norberak bakarrik obserbatu ahal izatea bezalako dibertsiorik, zeinaren intentsitatea hainbat biziago den zenbat handiago izan deskubritua ez izateko segurantza. Nago nitasunaren esperientziarik direktioa ere ez ote den orduantxe gertatzen, saguarena bere zuloan ezkatatzen denean bezala. Masa handi baten aurrean izar txundigarri zaudenean, lurrun- edo hautshodei inkonsistente, inkontziente, rarifikatu bat besterik ez zara. Bakartadean ere, euforiaren edo beste edozein sentipen bortitzen mende zaudenean (sentipen bortitz negatiboek deuseztu egingo zaituzte), areago jotzen duzu espantsiorantz, zeuta-sunerantz baino. Sekretasun inpenetrablez inguraturik, bakarreango ridikuluaren pertzepzioa izan daiteke zuzenen baitaratzen zaituena, hartaz argien plazertzen zarena, eta seguruenik, errealtate objektibora gehien hurbiltzen dena. Liburu zaharretan hatz-markak eta leihoan plazarantzko begirada ganorabako batzuk utzirik, banoa bikotearen bila, samurtasuna ala sarraskia aurkitzeko zalentzan. Barbarari plazatik frontoirantzko kantoian erreparatu diot, neska-taldera izulia. *Hasiz batera banandu dozak, antza.* Osterantz ezkatatzeaz, Barbararen eskuak egin didan agur jareginak (Kariberantz enbarkatzera bailihoan) ohartarazi dit gauzak ez direla hain oker joan, alde batetik behintzat. Gari mostradore muturrean aurkitu dut, bakarrik, bitter bat aurrean, arrotz bezala begiratzen dion jendeari berak ere arrotz bezala begiratzen entretenuz. Hurreratu naizeneko jauki dit:

– *Apropos alde egin dok, eztok, txarri horrek?*

– *Hi! Niri ez jeustak ardura, baina kontuz non zer dinoan. Hemen abadeari zuka egiten ez dozak oraindino ausartu, txarriarena igual parkatuko deue baina.*

– *Ba, heuk bakarrik entzuteko moduan esanda, nik ez deuat hain erraz parkatuko.*

- Ez heunstan esan, nik hiretzako neskatzat ez nebala jotzen aurreratzean, heuk ikusiko heuela zer egin?
- Ez laugarren berban beragaz buruz buru geldituta.
- Berak oso pozik gelditu izanaren airea jeroian.
- Tabernan ez jok sartu gura izan.
- Hau ez dok Bilbo, hi! Hemen, meza ostein, neska bakarra tabernan sartzea nabarmen samarra dok, areago mutil ezezagun bategaz.
- Eta plazan, denen bistan bai?
- Joango dozak orekatuz, polito-polito. Neu be oraindino, beste abade batzuk prakadun janzten hasita dagozenez, hementxe najabiik sotana zaharra tatarrez gure errebelde fama behar ez diren arloetara joateari eustearren.
- Belea ez jok bele egiten lumajeak bakarrik.
- Kontuan izango joat. Zer antz hartu deusak neskari?
- Pozik emoten joan.
- Adurretan esango neukek. Barriri nonbait elkar ikusteko barbarik ez dozue pasatu?
- Kontu xehea besterik ez joagu erabili, zer ikasten dodan, non bizi nazen, eta horrelakoak. Tabernara sartzeari ezetz esan deusanean, hortxe amaitu dok dena. Berak be ez jeustak ezer apartekorik agertu, eta lehen bestean.
- Harek uste jok berak agertu beharreko guztia nik esana deudala hiri. Orduan, hik beragaz berba egitea onartzea seinale ontzat ulertu izango joan.
- Nik ez joat ezer onartu. Heuk utzi gozak bakarrik.
- Kontua dok harek horrelantxe ulertu izango ebala, eta orain neuri ekingo deustala, zer esan dau?, berorrek zer uste dau?, hurrengo noiz ikusi ahal izango dot?, eta abar. Neuk be eduki behar joat hire jarreraren ideia bat, okerreko haizerik ez emoteko.
- Utziok pozik dabilen bitartean! Moztea beti izango dok mozte, eta bitartean ilusinoa luzatzen bajakok, haxe gehiago izango jok.
- Nik bajakiat higaz zer eginik ez daukana, eta arazoa neure kontu hartuko joat.

Biharamun goizeko zortzietan banekien nor ez zen faltako. Astegunetako mezan, mongiloetatik aparte, dozena erdi bat kristau (emakumeak) batuko ziren goia, motibo berezi bat ez bazen, bereratuirenen bat edo. Astelehen hartan, alukeria egin nuen, berariaz. Ez zen goizeko mezarik izango. Eguneroko mezaren obligazio kanoniko txit-txit zorrotza (bekatu mortalaren pean, kristau alerik ez bazetorren ere berdin) hasia nintzen apurka-apurka laxotzen, errazago Gizaburuaga eta Amorotoren zerbitzu bateratua hartu nuenetik, txandaka antolatu beharrak ez baitzuen ordena estriktorik eskatzen. Orduantxe ikasi nuen baloratzen gure aitak kontatzen eta, funtsean, bekaizten zuen Muxikako Oka auzoko zenbait gizonen lau elizatako bezero posibleak izatearen abantaila estrategikoa: Ariatzako meza-

ra joan zirelakoan, Gorozikan zirelakoan, Ibarrurin zirelakoan, Ajuriara ere joan izan zitezkeelakoan, Gernikan pintxo-pintxo, sardinarrekin hamarretakoa egiten. Neuk ere erraz neukan bi herriren artean antzeko zerbaitegiten, nahiz eta saiatzen nintzen ez abusatzen, ez hainbeste mezaren beraren, baizik kristauen errespetuz. Astelehen hartan, Amorotoko kanpaiak ez zuen mezarik iragarri. Banekien Barbara larri egongo zena, eta ez dakit zergatik sufriarazi nion, neu halakoxe amodio-kontu batean partaide ezin izatearen mendekuz ez bazen. Nago ez ote zen gehiago izan ezen, bere sentimenduen urgentziari arabera erantzun azkarrak ez zetorkiola ikusiz, ondorio beroegi eta aurreratuegiak atera beharrean, dena ezerezean bukatzeko posibilitatea ere kontenplatzen ikas zezan. Asteartean ere huts egiteari gogorkeria handiegia iruditu zitzaidan. Konfesioko sarrera-hitzak eta aitorkizunak irristan pasatuz, arnasan ere pasioaren aztoramena igartzen niola, ez nion bat ere hitz-trabarik jarri, nahi zuen tokira lehenbailehen irits zedin:

- Atzo zelan ez zen mezarik izan?
- Badakizu, ba! -erantzun nuen, neurekiko pentsatuz: "Nahikoa egin don galdera neutro bategaz hastea!" - Gizaburuaga be neure kargu dago eta.
- Gari zelan? Ezer aitatu eutsan berorri?
- Neska jatorra zarela esan eustan.
- Jatorra bakarrik?
- Beno (zer gehigarri asmatu behar joat orain?), jatorra izatea ez da gitxi.
- Bere aldetik ez eban halako zerik halakotu?
- Mutilak badakizu horretan nahiko zokorrak izaten direna, leloak ez esatearren, baina nik pozik zegoen antza hartu neutsan.
- Nigaz egon zelako?
- Argi-argi be ez eban esaten, baina bere aldetik hain maitatua zarela badakizunaren aurrean aurkitzea beti da pozgarri, baita urdurigarri be.
- Urduri egon zen?
- Hasarre be egin eustan bat-batean bakarrean utzi zinduedazelako.
- Nigaz bakarrean egotea ez jakon gustatu?
- Gustatu bai, baina badakizu, ba, lehenengo aldia be bazen, eta apur bat noraezean gelditzea normala da.
- Niri berbakera normala begitandu jatan, bere aldetik.
- Bai, bai, jakina. Gari mundu handiko mutila da, baina, bihotz kontuetan, oraindino nahiko infantila da, sasoi horretako mutilik gehienak legez.
- Lehengoan berorrek esan eustan haren buruan tximeleta asko dabilela, lorarik lora balebil legez.
- Apur bat zoro oraindino, adar jakinean pausatu ezinik.
- Neskalagun finkorik ez dauka, beraz?
- Ez dot uste, baina ezin deustut ziur esan, neuri be ez deust den-dena kontatzen eta.

- *Hurrengo noiz etorriko denik ez eutsan aitatu?*  
 – *Egunik ez genduen izentatu, baina "laster arte" esanda banandu ginen. Gertatzen dena ez dogula hemen bakarrik elkar ikusten, baina nik uste dot laster agertuko dela, Amorotora etortzea asko gustatzen jako eta.*  
 – *Amoroto gustatzen jako?*  
 – *Halan esaten dau, behintzat: "Hik daukat subertea Amorotora abade etortzeaz gaz!"*  
 – *Geuk be badaukagu subertea berorregaz, jauna. Hurrengo datorrenean, jakinarazoko deust, ezta?*  
 – *Bai, Barbara. Nire aldetik, ez dozu hutsik izango. Halan be, badaezpada gomen datzen deustut ilusino larregirik ez egiteko Garigaz, ze haren burua nahiko loka ikusten dot.*  
 – *Ez deutso ardura. Nik nahikoa dot noiz datorren jakitea.*  
 – *Horrenbeste egingo dogu. Ha nire laguna bada, zu neure eliztarra zara, eta fina, gainera.*  
 – *Ai, Don Jabier! Ez daki zenbat eskertzen dodan berorren borondatea!*  
 – *Orain, ondo baderitzozu, amaitu egingo dogu. Penitentziatzat errezaizuz pare bat... –eta abar–. Amen!*

Batetik, Garik berak ere ideia bultzatu zidanez, ilusioaren gozamina luzatzen laguntzen niolarik, eta bestetik, egiaren jabetza dezepzio mingarriegia ez izateko bezain urrun joatetik defendatu nahi nuelarik, neskari buruzko epitetoak gaizki hautatzen ezin deskuidatzeak euron erabilera orokorra sailkatzen eta mailakutzen irakatsi zidan. Ohartzen nintzen ustez kalitate moralik oinarrizkoenei (*jator, on, fin, zintzo, prestu, noble*) edo hauen kanporanzko isladei (*jaseko, nordun, patxadazko, zentzudun, ganorazko*) ez ziela jaramonik egiten. Kalitate intelektualek ere (*argi, zoli, erne, azkar, burutsu, talentos*) ez zioten zirkin handirik eragiten. Kalitate fisiko bakaizgarriei (*polit, lirain, eder, galant, panpox*) pasiboegi irizten zien, nonbait, meritugarri izateko, euron agerpen aktiboagoetan (*airos, xarmant, pinpirin, elegante, txairo*) hedaturik ez bazetozen, nahiz eta ez gehiegi horrela ere. Izaera komunikatiboa aberasten zuten kalifikazioei (*alai, atsegin, apal, irrikor, xalo, otzan*) arreta gehiago jartzen zien, batez ere, harreman interpersonalak (biren artekoa, garbi esanda) pentsaraz zezaketenak (*amoltsu, adeikor, txeratsu, etorkor, bihozbera*) baldin baziren. *Bai? 'Otzana' esan dau? 'Amoltsua' esan dau?* Horrelako galdera antsiosek hurrengo mailako kalifikatzaileak (*samur, ezti, gozo, laztangarri, gozatsu*) bilatzen zituzten, zeintzuek, benetan, berak irrikatzen zuen amodiozko harreman intimora bideratzen zuten. Maila horretan, *'garri'* atzizkiaren barruan ere bazen, intentsitatearen arabera, gradazio esanguratsu bat (*xarmagarri, deigarri, tentagarri, desiragarri, gozagarri, jangarri, aztoragarri, erogarri, amesgarri*), non lehenengotan bitxien egiten zitzaidanaren arrazoia, hots, nola *'amesgarri'* eskalan

nabarmenki goren koka zitekeen, berehala ulertu nuen. Nonbait, harentzat, *'desiragarri'* edo *'erogarri'* izatea baino askoz gehiago zen Garik beragaz amets egitea, seguruenik, berak Garigaz egiten zuenaren paralelismoa sentitu nahian.

Baziren epiteto batzuk, noraezean bezala uzten zutenak (*xelebre, bitxi, berezi, espontaneo, dibertigarri*), kontestuaeren arabera, positibotzat edo ez hain halakotzat har zitezkeelako, baina, jakina, neuk ere ez neukan beti umorerik, edo inspiraziorik, kontestu egokiak prestatzeko. Baziren, askenik, beste batzuk (*sentsual, plazergarri, erotiko, berogarri, esplosibo, larrugarri*), ikaratu egiten zutenak, ez hainbeste –deduzitu nuen azkeneko– berak 'amestuko' zukeena esplizituegi aurkezten ziotelako, baizik unibokoegi gelditzen zirelako bere fantasia multiformean. Edo, segurkiago beharbada, beragan deskubrituak bide ziren dohain horietaz zirraratzeak bere desioaren edukia nabarietegi erakutsi izango zuketelako. Lar fisiologikoz, kasik zakar lirudikeen *'jangarri'* epitetoak, adibidez, konnotaziorik latzenak izan ditzake, haurtxoari *jan-jan egingo zaitut*, edo *jateko moduan dago* hainbeste aldiz esan edo esaten entzun ondoren. Oraindik jatearen sekuentziaz jabetzeko dagoen haurrari, *'jan-jan'* egin eta gero, *orain zer egingo dogu?* galdetzen badiozu, *barriro be jan!* erantzungo dizu, eta halaxe *barriro!, barriro!, barriro!*, aldi bakoitzean benetan jaten duzula sinetsirik, harik eta zeu aspertu arte, edo bera nahi gabe lokartu arte. Malezian aurreratzen hasia bada, berriz, behin jan ondoren, *orain zer?* galdeiozu, eta *orain kaka egin!* erantzungo dizu, zuk zenbat eta higuin handiagoa agertu, bera hainbat gehiago tematzen eta plazertzen dela, zeren bereztzat *'kaka'* hain jenero estimulagarria izanik, pentsa nolako zoriona izan behar duen bere burua amaren sabelean kaka bihurturik irudikatzea, bera hantxe osatua izan zela ulertu aurretik.

Haurrekin baino zabalkiago, Barbaragaz ere berdintsu jokatzen nuen adjektiboen kateaduran, bere erreazioetatik gidatuz noiz aurrera jo nezakeen, noiz atzera egin behar nuen. Maila bereko edo antzekoak berdin zen bakarra zein ilara jaulki, harengango eragina ez baitzuten areagotuko itaizureko tanta jarraituek baino gehiago. Mailak gaingitu egin behar ziren, efektiboa izango bazen. *'Ona eta gozatsua'* askoz gehiago zen, amodiozko kontestuan, *'on, argi, eder eta alai'* baino. Alegia, barrenetik goieneko jauziak bitarteko maila guztiak kontenitzen edo prezinditzen zituen. Mailaketa egitekotan, beti gorantz behar zuen, zeren, alde-rantziz izanez gero, esaterako, *'amesgarri, samur, alai, eder, argi eta ona'* (eta mailaketa kontestuan beti ere), edo lehenengoari ondorengoek ez zioten ezer erantzen, edo, okerrago zena, errenkada hain zen gainbeheratzen, non dezepzio orokor bat besterik ez baitzuen eragiten, batel bat hondoratzen ikusteak bezala. Indirektoki baina aldaezinki irakasten zidan kalifikazioak selektiboa, edo, gutxienez, progresiboa izan behar zuela, kalifikatzaileek elkar desegingo ez bazuten. Mekanismo

horiek igartzea ez bazitzaidan gutxi kostatu, ez nintzen aiseago jabetu zergatik kualitaterik ustez balioetsuenak alderantziz ordenatzen ziren Barbararen eskala inmediatean, inola ere neska txolina edo extrabagantea izan gabe, harik eta susmatu nuen arte ez ote zen aldrebasa izango amodioa bera, zeinak, horren arabera, bera ez tandarazi duten lehen motibazioak diren, hain zuzen, gero berak lehenen galduko dituenak, azkenean, eraikin guztia beherengo mailako kualitateen gainean bermatu behar izan arte. Gertatzen dena sarritan ez dela izaten hartaz azken jabetu ohi den oinarri nagusi horretara jaisteko astirik, bitartean, bideko malkarren batean, amodioak garondoa hautsi duelako. Barbara, bere gai kutunari ekinez gero, pozarren (seguruenik, ohartzeke) prestatzen zen nire aprobeitara, eta neu ere, kaparradari sanoki eutsi nahian hastetik gozabide agortezina aurkitzera igaro nintzen, abstraktuki hamaika aldiz irudikatua nuen maitemindu total bat, akabatu bat, errealki, karnalki, nolabait, esperimintatu ahal bainuen. Saiatzen nintzen, beti ere, gamako mutur beroeziak ekiditen, edo, gutxienez, puntu horietan, mutilaren sentiera, beronen ahotik harako hitzez barik, neure interpretazio bidez ematen.

- Bai? Hori esan dau? Haragoko zeozer be itxaron neike, beraz?
- Baietz esango neuke, ze zu neska xarmagarria... gozoa zara benetan.
- Berorrek hori uste dau?
- Nire usteari ez jaramon handiegirik egin, ze abadeok, gai horreetan, larregi ez ulertzeko obligazinoa daukagu, baina geuk be ez doguz beti obligazinoak zehatz betetzen, eta beharbada, kasu honetan, uste zuzena izan leiteke.
- Berak be hori esan eban?
- Esan-esan, ez eban esan, baina badakizu mutilak zer dorpeak diren euren sentitakerak azaltzen. Nik dakidana da, batzuetan, zure auririk apropos ateratzen ez deusadanean, laugarren barbarako bera hasten dela "Barbarak zer jinok?", "zelan jabiik?" eta horrela. Orduan, zure barri emoten hasten natxakonean, matrailetatik ostadar guztia pasatzen jako, eta erratzen zail daukat, aurpegia zuzen-zuzen obserbatzen baitzatsat, zurerik orain ikusi ezin dodan moduan.
- Ai! Nirea neuk be ez dakit zelan egon leitekeen, jauna! Batzuetan, ispilura begiratzeko bildur izaten naz, zer mamu aurkituko ete dodan, baina gaur uste dot ikusteko moduan egongo dela.
- Zuk begiratu bildur barik ispilura, bera ez da zutaz lotsatuko eta.
- Ai, jauna! Ez dakit zelan eskertu berorren laguntasuna.

Denbora aurrera zihoan, edo generaman, Barbarak intentsoki, nik jakin minki, inoiz apur bat zerriki ere bai (zer, ba? hemen denak lorrinean, eta norbera garbi-garbi?), harik eta susmo kezagarri bat, arbitrariotzat baztertzen saiatu nintzena, ziztaka hasi zitzaidan arte: nire penitentea bere maiteagana iristeko helburuak baino gehiago ez ote zuen seduzitzen mezuen joan-etorriak berak? Inoiz ez

baitzuen planteatzean, hala gerta zedinean, fardelari nondik heldu ez jakiteko beldur nintzen moduan, mutilagaz hitzordu partikularrago bat molda nezan Gernikan edo Bilbon. Bolada batean pentsatu nuen ez zela ausartzen, ez hainbeste, erabaki faltaz, baizik, benetako intentuan, dena bertan amaituko ez ote zen beldurrez. Gero iruditu zitzaidan egoerari gustua hartu ez ote zion, aldi berean, bitartekotza gozatu eta arrakasta definitiboaren posibilitatea osorik mantenduz. Nire hipotesiak amaituz zihoazen, errepikatuz alegia, baina bitartekari-lanak gutxitzen ez zirenez, eta Barbararen jorana ere ematen ez zenez, eta bere nigazko konfiantzatik neuk ere beragaz berdin izatea onartuko zuela suposatzen nuenez, behin esan nion, edo eskapatu zitzaidan:

- Aizu, Barbara! Ba al dakizu zer pentsatzen dihardudan?
- Zer, jauna, zer?
- Ba, niri honenbeste zeregin ematekotan, kasik hobe zela neugaz maitemindu bazina.
- Berorregaz maitemintzea posible al da?
- Hori ez dago maitegaiagan, maitaleagan baino.
- Ai ama! Orduan berori be... baina hau...
- Lasai, Barbara. Esan-modu bat izan da. Freskura bat, nahi badozu.
- Hori niretzat ez da freskura bat.
- Sutsuegia zarelako. Zintzoegia esan nahi dot.
- Ni berorregaz maitemindu izan banintz, berorrek zer egingo eban?
- Oraitxe egiten dodana, gitxi gorabehera, baina atzera-aurrera gitxiagoz. Esan izan deusut zure Garigazkoa ezinezko ikusten dodala. Nigaz be, bardin esan izango neutsun, baina, behintzat, alde biak zuzenean adituko litzatekez. Orain, batzuetan ez dot jakiten faltan ala traban nagoen.
- Ai, Don Jabier! Traban ez! Hain gitxi, hori posible bada.
- Erabagi eizu lehenbailehen, ze, bestela, hementxe zorabiatuko gara.

Historia ez zen askorik luzatu, luzatu zena gozoa izan bazen ere. Nik laster amaitu nuen kartzelan, eta beste biek ezer aurreratu zutenik ez nuen entzun. Zubia jaustean, urertzak aldendu egin ziren, antza.

.....

Garrantzitsu neritzon edozein aurrerapauso ematea erabakita nuenean, haurrekin probatetik hastea zela efektiboena eman zidan senak. Ez, noski, fedesenak, aurrekoak baizik. Konfesio kontuan ere horixe egin nuen, ez haurren ulermenarez garatuago zegoelako, baizik haiek desulermena garatzeke, edo hainbeste

garatzeke zeukatelako. Artean konturatua nintzen, giza bizitzako auzi garrantzitsua gehienetan, gakoa ez zela egia bat ulertzea, baizik harrapatzea zergatik ez zen ulertzerik komeni. Haurrek horrenbesteko distortsiorako gaitasunik ez zuten zergatik gero, neuk eskatu gabe utzi zioten banan aitortzeari. Ari ginen ohiko talde-konfesio baten prestakuntzan, nahi zuenari zeuzkan bekatuak denen aurrean esateko aukera emanez. Gehienek antzeko huskeriak, ia adostuak ziruditenak, aipatzen baitzituzten (*amari txokolata ostu, elizan atzera begiratu, maisu-maistrei atzetik zinuak egin, lagunei burla egin, lagunekin drogan egin*, horrelaxe bost hornitu arte ia beti) ekitaldiak laster hartu zuen aitortza baino enkante antz handiagoa.

- *Amari txokolata ostu, zenbatak?*
- *Neuk, neuk, neuk, neuk...* -denen eskuak goraka.
- *Herri honek aberatsa jirudik, etxe guztietan txokolata egoteko.*
- *Zuenean ez zegoen ala?*
- *Gurean bazegoan, baina txakurrentzakoa. Guk ezin izaten geuntsaan haginik sartu.*
- *Hori guzurra!*
- *Guzurra zelan esango joat, ba, konfesioan gagozela?*
- *Ene! Abadeak be konfesatu egiten dira ala?*
- *Geuk be bajakiagu pekatu egiten.*
- *Horrela neuk be bai! Norberak egin, norberak parkatu.*
- *Isi! Goazen aurrera! Zinuak egin, zenbatak?*
- *Neuk, neuk, neuk, neuk...*
- *Lagunekin drogan?*
- *Neuk, neuk, neuk, neuk...*
- *Nik txakurragaz be bai auzoko alpapatzan* -Kiliko izeneko mutiko batek-. *Aitita Aseentziok belarriak majo bihurtu eustazen.*
- *Penitentzia eginda jagok, orduan. Elizan atzera begira egon, zenbat?*
- *Neu, neu, neu, neu!...* -geroz txilio handiagoak.
- *Atzetik ipurdian ziri eta ziri egiten deusueanean, atzera begiratzea pekatu da?*
- *Kilikok.*
- *Izan leitekeek, baina kasua ikusi beharko litzatekeek.*
- *Holantxe, esaterako!*
- *Et, et, et! Orain ez! Geldi ipurdiak, eta eskuak be bai, ahal dela. Lagunei burla egin, zenbatak?*
- *Neuk, neuk, neuk, neuk!... Neuk be bai, neuk be bai!...*
- *Denok? Orduan, parra.*
- *Baina nik lau bider, eta honek, hamalau!*
- *Guzurra! Honek hamalau eta nik hamaika bakarrik!*
- *Ez zarie makalak, kontaduria badarozue, baina, ahal dela, kontaduria bardina*

*adostu behar dozue. Bestela, diferentziak bioi kargatuko deusuedaz. Isilik, mesezdez! Orain itxi begiak eta jarri kontzientziara begira.*

- *Nik ez dot ezer ikusten.*
- *Ikusiko dok, begiak ixten badozak.*

Entzutekoak entzunik, eta aitorkizunak amaitzea asko kostata (nik uste askok bertan asmatzen zituztela, besteak baino gutxiago ez izatearren), bekatuaren zentzua azaltzen saiatu nintzen, ez zirenak (huskeriak) eliminatuz, eta izan zitezkeenak seinalatuz, batez ere, elkarrekikoak eta elkartasunaren aurkakoak. Azkenean, absoluzio kolektiboak egin genuen, ez aurretik garbi ohartarazi gabe, inork, ondoren, zerbaitegatik edo, beste gabe, betiko eran nahi zuelako, banan etorri nahi bazuen, konfesiolekuan eseriko nintzela. Inor ez zen etorri. Konfesio-mota hori ez zen, noski, ezustean inprobisatua. Aurretik, bidea garbitua nuen hurrekin, baita herritarrekin ere taldeka (neskak, mutilak, emakumeak, gizonak), edo sermoi orokorretan, lantzean praktika batzuekiko zenbait zehar-gogoeta jaulkiz, edo ustezko inkoherentzietan puntak bilatuz. Ez nintzen konfesioa bezalako errito hain zentrala eta barneratua edozelan lokatzen hasteko bezain inkontzientea. Banekie-nez haurrek lehen konfesio kolektiboaren berri euren etxeetan berehala kontatuko zutela (ondo ustez, oker sarritan), hurrengo igandeko sermoia azalpen bat emateko baliatu nuen, egina argudiatuz eta detrakzio posiblei aurrea hartuz. Azken hori (detrakzio posibleena) ez zen, bide batez, positiboki argudiatzeko ere metodorik ahulena, oratoria unibertsalak irakatsia zidanez. Herritar gehienek artean, gauzarik sakratuenetan ere, zentzua aplikatzearen aurkako interesik ez zegoenez, ez zen inolako gerra santurik behar izan, ez horretan ez beste hainbat arlotan; nahiz eta bai planteatzen zuten zenbait kezka, areago, kasu hipotetikoan, euren buruak nola defendatu jakiteko, zentzua kuestionatzeko baino:

- *Lekeitioko artzapezak zer esango leuke?*
- *Ez daukat itauntzeko asmorik. Zuek jarraitu beti zentzunari. Kontzientziari. Hemen neu naz zuen arimen erantzule, bera bezain abade.*
- *Baina haren autoritatea berorrena baino gora dago.*
- *Autoritate konflikturik sor baledi, eztabaida bat antola geinke, eta zuek segi gehien konbentzitu zaituenari.*
- *Eta gotzainak berori desautorizatuko baleu?*
- *Harek nahiko zeregin dauka Francogaz paliopetan ibiltzen.*
- *Eta Aita Santua?*
- *Aita Santua Erroman dago, eta Erroma urrun dago. Ezer larririk suma daienean, bialduko dau ordezkariaren bat. Jakingo dozue, hil-kanpaiak atzekoz aurrera entzun daizuezeanean. Bitartean... (Zer?).*

Hurrengo konfesio egunean, haurrei berriro aitortze indibiduala proposatu nien, aurrekoan haserre joan zirela jakin nuela esanez, derrigortu ei nituelako. Denak zorua ostikatzen hasi ziren, oihuka:

- *Guzurra! Nork esan dau hori?*
- *Horixe entzun gura najoan* –pentsatu nuen, neure burua, agintzen barik, obeditzeko plantan jarri.
- *Umeei obeditu? Zer dakie horreek zer komeni den?* –norbaitek objektatzen bazuen, gogorarazten nien:
- *Oinarrizko sakramentua den bataioa, afiliazioa zelanbait, ezjakintasun totalean hartzeko gauza izan baziren, "amari txokolata ostu" zelan konfesatu erabagitzeko beste nortasun autortu beharko deutsegu, ezta?*

Atzea gordetzeko erarik efektiboena aurea erakustea dela jakinik, presaturik nengoen ahalik duinen erantzuteko salbuespenari, naturan araua edertzeko bezala, giza mailan izorrazteko izan ohi denari. Askotan gertatzen zait (ez nau, beraz, ezustean harrapatzen) etorri behar duela ziur nagoen keinada gutxitan datorrela itxaron bezala, edo itxaroten nuen aldetik. Oraingoan ere ez nuen itxaroten eliztar batengandik eta hain era zuzenean etorriko zenik. Gerraostea miserablea izan zelako ustea gezurtatzeko egina zirudien gizon puska baten besoak konfesalekuaren ate apal, inoiz apalgarrian kokatu zirenean, neure burua etxolagaz iraulia nekuskeen, eliz horma sendoaren kontra bermatzen ginela oroitu ez banintz.

- *Ave Maria purísima!* –hots egin du, zahar gorren batez beste eliztar guztiek jada onartua duten 'Agur Maria txit garbia'-ren lekuan.
- *Sin pecado concebida!* –darantzut argiro, berak, seguruenik, itxaroten ez zuen moduan.
- *Ia hilabete, jauna. Hilean behingo ohiturakoa naz, baina aurreratzea pentsatu dot, laster banango konfesinoa amaituko den bildurrez.*
- *Ez dot uste. Non entzun dozu hori?*
- *Umeak ez al dira batera konfesatzen hasi?*
- *Zu ez zara umea.*
- *Ez oraindino. Baina, normalean, honezkero berorrek be igarriko ebanez, umeekin hasten diren aprobak gero nagusiekin aplikatzeko izaten dira.*
- *Ez daukie izan beharrik. Ez dot uste Jesukristok "utz umeei nigana hurreratzen" esango ebanik, nagusiak engainatzeko intentzinoz.*
- *Jesukristoren izenean, buru bihurri samarrak ez dabilz hemen aspaldion?*
- *Neu, behintzat, ahalegintzen naz zintzoa izaten, eta uste dot jenteak be halantxe hartzen nauela.*
- *Jenteak, sarritan, engainatua izan nahi dau. Hain praktika sakratu eta mendetsu*

*bat apurtzeak zer on ekarri leike? Ez da izango beste asmo batzuetarako zeharbide bat?*

- *Asmo politikoak esan nahi dozu?*
- *Haor, ba! Ikusten zer ederto ulertu dauen berorrek?*
- *Igarri, areago, zure kasuan gatxa be ez denez.*
- *Uste dot punta lartxori tiratzen dabilela berori. Gazteei burua berotuta uste dau herria alztatzea? Hemen nork ekarri dau beharra, bakea, ongizatea?*
- *Hara, Malon, eta parka ezizena erabiltzea, ze Tibur legeez, ez dakit inork ezagutzen zaituen.*
- *Trankil horregaitik. Izenak eta jantziak ez dau inor gizontzen ez alutzen.*
- *Jantziak gitxiago, hori badakit. Esan nahi neutsuma da hau penitente moduan etortzeko lekua dela, baina ez dakit salatzaile moduan ez zatozen. Nik estimatzen zaitut eta gustura egingo neuke berbalditxo bat zugaz, abadetxean, lasai.*
- *Abadetxean jente ezezagun askotxo ez dabil?*
- *Zu etorri gero, portzentaia jaitziko litzateke.*
- *Ikusiko dot. Igual agertuko naz gaineko egunen batean.*
- *Badakizu hango atea denentzat dagoela zabalik.*
- *Horixe txokatzen jat! Edonorentzat zabalik egotea.*
- *Denentzat esan dot, ez edonorentzat.*
- *Egongo gara.*

Konfesioa erarik klasikoenean amaitzeko, gizon puska hura aurrean belauniko ikusi nuenean, *ego te absolvo... amen!*, nire belaunetako haragi-tokorrak (seminarioko belaunikaldiek sortuak) hezurreraino mindu ziren, halako pisua gainean imaginatuz. Pentsatzen nuen abadetxera etorriko ez zena, baina lortu zuen apur bat kezka nendin, ez hainbeste, presio inguratzaila estutzen ikusi nuelako, baizik enfrentamendu bat, norbere eliztar bategaz eta hain herri txikian, nolabait etxeko bihurtzen delako; eta gauza jakina da etxe-odola, onean tiratzaileago, oke-urrean lehegarriago dela.

Itxaroten nuena kleroaren maiseoa zen, zenbaiten ahoan detrakzioa izango zena, baina hori ere uste ez nuen eran iritsi zen. Larunbat goiza eskolarra eta arratsaldea jaia izaten zenez, eguerdi huraxe baliatzen genuen, dotrina-ordu lasaiaigoan, konfesioak ere egiteko. Ohitura horren berri bazekiten zenbait apaiz ordu horretantxe azaltzen ziren, pasieran bezala, bisita aitzakian. Umeekin elizan aurkitzen baininduten, han geratzen ziren otoitz plantan, eginkizuna amaitu arte. *Horreek zeremonia ikusmiratzera jatozek disimulan*, pentsatzen nuen. Haien lekukotzan, azalpenak eta erritua bera biltasun eta seriotasun handiagor burutzen genituen, umeak ere ohartzen baitziren obserbatuak zirela. Azkenean, hauek etxera bidalirik, elizpean haiekin solasten nintzenean, jabetzen nintzen lantzean bat, fingi-



mendua izateko baino zintzoago iruditzen zitzaidan itxuran, hunkiturik irtena zela, zioenean:

- Ez najoan pentsatuko umeekiko zeremonia bat hain samurra eta errespetuzkoa izan zeitekeenik.
- Neuk uste baino naturalago urten behar jok denak—pentsatuz atsegintzen nintzen, ez dezepzio puntu bat gabe, dema intelektual eta teologiko baterako gai oparo eta horzduna neritizona era mantsoegian erabakiko ote zen.

Eskualdeko kleroak hilean behin egiten zituen bileretako batean, gehienek oraindik, bazkari gozoa barne, 'erretiro-eguna' deitzen zioten hartan, artzapezaren esku zegoen ohar-txandan, entzuten hasi nintzen:

- Badot beste esankizun bat be, gure Eliza Ama Donearen fede eta praktikei muinmuinean jagokena. Zenbait kristau eta elizgizonen kexak ailegatzen hasi jataz, zelan abade gazte batzuk zabaltzen hasiak diren umeek ezin dabela pekatu mortalik izan, nagusiek be ez daukiela inpernuaren bildur izan beharrik, eta horrelakoak—Badakizue gure Aita Santu gurgarriak pontifikatu barri dauela, inpernuari buruzko doktrina katolikoa argi eta biribil berretsiz. Olatua portua irunsteke beste harrotu aurretik, izan daigun kontu zorrotza zelako anbiguetateak predikatzen doguzen.
- Parka, Don Hipolito!—hasi nintzen, entzulegotik zutiturik—. Predikari hori ni barenaz, ez dago ezelako anbiguetaterik. Nor da hemen dinonik umeak infernu eternala merezi izateko besteko pekatua egiteko gai direla, gure diktadura odoltiak berak be autortzen dauenean umeek ezin dabela erantzukizun penalik izan? Diktadore guztiak bere imitazio kaskarrak baino ez litzatekezen arketipo basatizat jo behar al dogu Jainkoa? Bide batez, konparazino kontundente bat gura denean, zergaitik aitatzen dira naziak eta hitlerrak, espainolek adibiderik argienak euren etxean ez baleukiez legez, errege-erregina katolikoakandik, indioen holokaustoetan zehar, Franco paliozale horreganaino? Suposatzen dot hemen tranilik berba egin leitekela, konfesino-sekretuaren profesionalak garenez gero.
- Tranilik, baina neurtuta!—dio Don Hipolito artzapezak, haserretik ala urduritasunetik gehiago duen igartzea zail den autoritatez—. Gurea ez da mundu honetako erreinua epaitzea, zeruko erreinua lantzea baino.
- A zelako erreinua, ume inozenteak betiko sutara jaurtitzea!
- Hori utzi Jainkoaren esku.
- Baina Jainkoa geure esku dago, eta ezin dogu bere irudia hainbestean deprabatzuten utzi.
- Horretarako atera dok inpernurik ez egotea?
- Nik ez dot esan ez dagoenik, hutsik dagoela baino.
- Bertan izan haz?

- Zeu beste. Gitxi baderitzozu, Aita Santua beste.
- Fedea fedea dok. San Tomasenera itzuli behar al joagu, bi mila urte sasira botata?
- Gauza bat egin geinke. Inpernua habitaturik dagoela esan behar bada, nortzuk diren harako izentatzen hasi beharko gara. Niri kristau-karitateak ez deust uzten merezi ez dabenak alperrik sufritzen ikusterik, merezi daben batzuk azartatzeko gauza izanda.
- Esaterako?
- Ba, esaterako, Francogaz paliopetan dabilzenak.
- Gure gotzaina?
- Edo Francoren krimena eta ondorioa bedeinkatu zituen Aita Santua.
- Gotzainak eta Aita Santuak inpernugai direla esan nahi dok?
- Gizaburuagako eta Amоротoko umeak baino lehenago bai.
- Eskumikua irabazten ari haz!
- Legena baino hobea litzateke.
- Ba al dakik zelako inpietateak esaten habilen?
- Horrexegaitik ninoen, hobe gendukeela inpernua hutsik dagoela predikatu. Zeu be trankilago biziko zara, igual gatx egingo jatzu baina.
- Zueri ez al etsuen seminarioan obediencia konturik aiatu?
- Itsua, gainera! Gertatzen dena, begiak itxi eta zentzuna zabalduz, gauza harri-garriak ikusten direla, kardenalak uso lumatzen eta.
- Nahikoa da! Arrarsaldean darraikegu. Goazen bazkaltzera!

.....

Sotana uzteko presarik ez hartzeko motibo nagusitzat, jendeak pentsa edo maisea zezakeen hartarako libratzea baino helburu nobleagorik bazela gure bihotzetan erakusteaz gainera, beste estimulu ugarietako bat zen ezen, norbera batere ahalegindu gabe, presentzia bat biziro narbamentzen zela, batez ere sotana-gaz asoziaturiko tokietatik kanpora bazen; esaterako, trenean edo autobusean, non beti aurkitzen zenuen apaiz edo fraileren bat, aulkia berari utzi beharrekoa, edo bere aldamen librea okupatu ezinekoa. Halako kasuetan, asko lasaitzen ninduen norbait ezaguna eta konfiantzakoa agertzeak, 'jesarri hemen!' nire gonbita onarturik, hutsune inguratzailea (eremu magnetiko fatalen bat?) disimulatuko zuena. Alderantziz, biziki atsegingarri zen presentziaren inpaktua aurretik garantizaturik ikustea, batez ere, hala gertatuko zela jakinik, norberak hautaturiko tokietan. Markinako ganadu ferian sartu nintzenean, behien eta txahalenak baino gehiago aztoratu zirela uste dut jabeen buruak, abereen izu-erreakzioaren beldurrez ere bai batzuk, nahiz eta adei mesedekorrez aholkatu:

- Ez dakit sotana-barrenak pasiatzeko zorurik txukunena aukeratu dauen berorrek.
- Kolorean ez dago hainbesteko alderik -lasarazi nahi izan nituen.
- Hm! Hirutasuna ez da kolorea bakarrik. Usaina eta zaporea be badagoz. Ahaztu barik honeek txiza be parrastan egiten dakieela, atzean Jainkoaren ordezkariak dagoen begiratu barik.
- Zaila da, izan be, Jainkorik ez dagoen tokian egitea -argitzen dut.
- Berari ez egitea be bai, orduan -beste batek.
- Zer dino abade jaunak?-hurrengoak.
- Entzuteak balio dauela -nik.
- Ho-ho-hori be entzutekoa izan dok! -erantsi dio behi nabar errape-handi baten murruntzari totel berriatuar batek, lehen hitzeko oztopoa gaindituz gero, dena ila-ran jaurtitzeko artea zeukanak. Solasak euren artean darrai:
- Dotrinan ibilia hori be. 'Maaa!'(tusalen) esan nahi joan.
- Nahi gehiago, esan baino.
- Dena batek esatea ez dok derrigorra. Gurean, oiloak hasten dozak "zer, zer, zer, zeeer?", eta batzuetan "zer... demonio!", eta beste batzuetan "zer... kristo!" izaten dok. Gauza garbirik sekula be ez, eta arrautza nork jan dauen, gitxiago.
- Jauna! Uste dot gaur; hemendik, domekarako sermoia eginda eroan behar dauela.
- Gaizaburuagara edo Amorotora bazatoze -sartzen naiz-, gustura kontatuko dot Matusalenen historia.
- Oso-oso be ez kontatu, ze 969 urteen laburpena egin behar badau, 'egun handira arteko txartelagaz joan beharko dogu.
- Hainbeste urtean bizi izatea hirugarren egunean biztea baino gatzago ez dok? -oilodunak.
- Ba-ba-bai zera! Hil eta gero hilezkor izatea erraza dok.

Banindoan ferian aurrera ganadu-lerro estuen artetik, ezagunak agurtuz, ganaduak gurtuz, ezezagun harritu samarrei bidea eskatuz, atzean marmarrak utziz, eta pentsatuz ezen, sotana bati osoki esleitzekoa zen eszena malevichtar hartan, mezako jantzita sartu izan banintz, bi baino gehiago belaunikatu izango ziratekeela, ihesera tentatuak barne, euren arimen bila nentorrelakoan. Baserrietan eraikitzen hasiak ziren belar-siloen usain-kirats txuleskoa, arrain-ongarrien sulfurikoagaz baturik, hankajokogari gertatzen zena, elizara ere ekartzen hasi zirenean (intzentsua gehitzearen efektu ustez leungarria laster ikusi zen gehiago larritzekoa zela), obligatuago sentitzen nintzen elizkizuna abelkizunean txertatzera. Ferian, berriz, kasik nahiago nuen "izan zaitezte eurotako bat gehiago" gomendio apokrifoa bertan bete elizan baino, batez ere, hirugarren pasilloan neure herritarren multzo bategaz topo egin nuenean.

- Hara! Hemen nire kristau maiteak! -hots egin dut solemneki.

- Joño! Zelan gure abadea hemendik?
- Zeuen bila nenbilen beren beregi, feria guztian.
- Halanbearrez izan dela jakinda be, guretzat bardin da, jauna.
- Zelan baina berori hemendik, bekorotz batzera ez baita izango?
- Ez uste hori be egin barik nagoenik, ez da ofizio erraza baina. Etxeko behiak bertan sartutako inoren artotza bat ez igartzeko moduan uzteko, iretargi bako gauean, ingeniari argia izan behar zen. Arto-landarak birlandatu, hutsuneak bardindu, arto zapalduak tentetu, burua jandakoak disimulatu, bekorotzak zehatz jaso, eta azke-nean, lan ondo eginaren asaskutzat -edo txarto, hori egun barriak argituko eban-, artotzaren barrualde lorrindu bakoan gorputzari deskarga piramidal bat uzten lagundu... Hori guztia egiteko, hamar aginduak baino gehiago jakin behar zen.
- Hauxe abade konpletoa etorri jakuna!
- Baserritarra, soilki -diot, sotana goitik behera seinalatuz.
- Jakin leiteke baserritar ingeniari batek ganadu feria batean zer behar izan leikeen?
- Behitxo bat erosi nahi neuke, bakardadea erdibanatzeko.
- Gazte samarra nahiko dau berorrek.
- Konforme naz neu baino zaharrago ez izateaz.
- Hemen badagoz horrelakoak, baina jaten dakieenak denak.
- Abade bat hain ondo gobernatzen dauen herriak behi eta guzti be egin leikeela pentsatu dot.
- Ondo pentsatua, jauna! Halan be, hemendik behi bat eroan deiogun nahi baleu, gora begira egoten dakiena aukeratu, handik datorrela dinoe eurok eta. Ea enda horixe zabaltzen jakun herrian.
- Horretarako, fedea be behar da gero!
- Behiekin ez dago bildurrik, goian ezer badago. Fedeak ekinkor, temati izan behar badau, San Pablok esaten ei eban moduan, honeek kapaz dira, larre gorrian, ezer ez dagoen lekuan, bururik jaso barik jarduteko.
- Hara! Ez da etsenplu txarra kristau epelentzat.
- Etsenplu hori ondo hartuta gagoz, jauna. Gu geu be fedetik errazago hornitzen gara jenerotik baino.

.....

Idazten ari nintzela, logurak eman dit, eta ametsak hileta batera eraman nau, non esaten ari nintzen hilak oso beharrezkoak direla, biziek elkar ikus dezaten, elkar maitatzeko konpromiso gabe. Ebasioak merezi izan du, bide batez handik pasatzea otu zaidan feria agurturik, harantz nentorren Lanbide Eskolaren atarian utzi bainau. Nire gaia Erligioa da: plataforma bat, nahi dudan guztia erara ekartzeko

modua damaidana, erligioa bera barne. Bibliako hastapenek euskaldun garaikideen ibilerak eta sinetakerak (Arlanpe, Atxurra, Lumentza, Santimamiñe, Isturitz...) eskatzen dituzte. Gizakiaren kreazioak Adan eta Ebaren (beraz, Jainkoaren) hizkuntzara nakarte: euskarara. Pentsaera zientifikoan ere garatua izan nahi dudanez, ordea, harro jaso baina bere oinarri arbitrarioaz lotsatzen hasia nintzen hizkuntzamoto hori honela zehaztu dut:

- Ez da, baina izan zeitekeen, ze euskara Adan eta Eba baino zaharragoa da.
- Hori zelan izango da, Adan eta Eba lehenengo giza bikotea bazen?
- Ez al dozue kosmologian ikasi unibertsoa dela esfera inteligible bat, zeinaren zentroa toki guztietan dagoen eta zirkunferentzia inon be ez?
- Hori ezin daiteke izan!
- Orduan, Jainkoa zer da? -Inor ez da erantzuten ausartu-. Denporágitik be antzekoa esan daiteke. Gure hizkuntza Adan eta Ebaren aurrekoa izatea eurek asmatua izatea baino posibleagozat jo behar da, ze garai hareetan, posible guztia erreál bihurtzeko halabehar klimatikoa zegoenez, ez da harritzekoa euskara-euskera delakoaren forma originala 'eguzkiera' izatea.
- Horrela hobeto ulertzen da.
- Itxura logiko bat hartzen dau, behintzat, eta horrek asko balio dau gitxiago dakie el auste dabenen aurrean. Gaurko nahikoa da. Ondo igaro asteburua, eta astelehenean, ahal dela, bizirik etorri. Aitaren, semearen... Amen!

Garai zaharrei halako paralelismo hurbilak aurkitzea erraza bazen, historia garaikideek zuzurtzia zorrotzagoa eskatzen zuten. Klasea euskaraz emate hutsa bazen aski subertsio hezkuntza-sistema gurutzadatu hartan, non erabakia zuten euskarak bazeramala munduan heriotza asistitua merezi izateko adina denbora. Eskolako zuzendariak, erdaraz ozta-ozta zekien amaren seme euskaldunak, hain barneratua zuen modernitate erdalduna, ezen Pitagorasen teorema bezain lasa garbitzen zuen euskararen auzia: "Belaunaldi baten gorabehera".

Abadea zen, baina balore ekumenikoek lilurutzen zuten. Ekumenismoak inperialismoagaz afinitate susmagarria ez ote zeukan erasotzen bazioten, konparazioa arlote irudituko zitzaion, ez edozein pentsaeratan gerta litezkeen abusuek pentsaeraren beraren espiriturik inbaldatzen ez dutelako ebidentzia naturalagatik, baizik inperialismoari ez ziolako sumatzen hainbesteko izaera negatiborik, abustu posible horiexez besterik. Langile porrokatu, berean zintzo, asmoetan handios (haren buru robotikoan, plan batek beste plan bat irensten zuen, handiagorantz beti) egun batez, txorietarik beherako izaki guztiak (espezie guztietatik %95, beraz) desagertu izan balira, berak ez ziokeen igarriko, norbaitek ohartarazi ezik, zerarekin kasuan ez zukeen pena handirik hartuko, aitzitik agian poztuko, insektiziden eta

gainerako pozoien gastua eliminatzen zelako. Horregaz ez da ulertu behar dinosauroen nostalgikoa zenik. Haren memorian ez zen atzera-martxarik. Seguruenik, egon ere ez zegoen atzerik, programazio instintiboaz besterik. Arestiko esferaren antzera, marra bat zen, zeinaren puntu guztiak aurrean dauden, aurreko muturra helezina den, eta atzekoa existitzen ez den. Eztabaida ere zaila zen haregaz, behin esanda, argi ulertzen ez ziren gaiei denborapasa baitzeritzon, denbora-galtzea, alegia. Eztabaidarik luzeena proposamen ezusteko bat egin zidanean izan zen.

- Zergatik ez hoa Alemaniara?
- Hirugarren mundu-gerrara?
- Doktoretza bat egitera, teologiako adar batean.
- Badakizu teologiaren adarrak antzina moztu nituena. Enborra zutunik utzi neban, eskultura moduan.
- Beste arlo batean, orduan, zuzenbidean, psikologian, ekonomian... Jente jantzia eta prestatua behar joagu, sortzen ari den mogimendu kooperatibo honetan eta besteetan, Elizak presentzia kompetentea izan daien.
- Nire aldetik, egon ziur Elizaren presentzia izango dela, ez, beharbada, zure gogoa baina.
- Oraingo abade gazteok ez al zarie ari oinarri erligioso eta intelektual sendoari albo egiten?
- Doktoretzak emongo leuskigula uste dozuna? Ni ez naz Alemaniarako abade egin, Euskal Herrirako baino, badakit konkretino horrek hozkia damotsuna baina.
- Esparru txiki eta sektarioegietan tematurik zabilze. Fedearen mezulariak begirada zabalago eta jasoagoa behar jok.
- Atmosferikoa? Alemaniakoa onartuko baneu, nork baimendu eta ordainduko leuskit?
- Neu arduratuko nok denaz. Prestasuna besterik ez dok behar, datorren kurtsoan Bonnen edo Innsbrucken egoteko.
- Badakizu zer itxura hartzen deusadan zure magnanimitateari?
- Okerra, seguruenik, beti legez.
- Eta zuzen asmatua, ia beti legez. Bistatik aldendu naiten gura dozu. Oraintxe noa, ba, Alemaniara, Brandenburgera, hain zuzen, zu askorik entusiasmatzen ez zaituen jardun intelektual batera.

Begiak betaurrekoen kristaletan itsatsita, ikastetxe atariko harmailetan pantokrator iheslari baten irribarrez utzi dudanean, gelaxka batez gogoratu naiz, non nire jostailu kutun batek Bachen kontzertu orekagarri bat joko didan Brandenburgeretik. Klasea aurretik, nortasuna damait, gailen sentiarazten nau. Ondoren, gela bete astapotrok desarmatu nautenetik bueltan, patxada genitibora narakar. Bachen musikak gizateria apenas mantsotuko zuen, baina unibertsoari kaoserantzko motiboak asko murriztu zaizkio. Lea-Artibaiko berrogeita hamar bat gazte ikasle-

ren aurrean jarri naizenean (denak mutilak), ez dakit arestiko doktoretza kontuak gogorarazi ote didan Maisu Juan, ala arestiagoko feriak, Peru Abarka. Hasierako otoitz arauzkoa eginik (orduan arauak bete egin behar ziren), hasten naiz:

– *Ezagutzen dozue Peru Abarka?* – Denek sorbaldak jaso eta, azpiko ezpainagaz gainekoa janez, aurpegi anakronikoa jarri dute. *Entzun ere ez?* – Sorbaldak gorago eta azpiko ezpain aurrerago. *Bertokoa da, ba!*

– *Etxebarritarren bat izango dok* – entzuten da atzean –, *zesta-puntan atxurragaz jokatu nahi ebana.*

– *Zergaitik ez ondarrutarra, kondoi faltan, abarkekin arrantzatzen ebana?*

– *Isilik, mesedez!* – Hitz egin duten mutilak nongoak diren argitu zait, behintzat. *Izatez, ez dok oraingoa, aspaldikoa baino. Ez dok egiazkoa be, antzekorik izango zozan baino. Mogel ezagutzen dozue? Joan Antonio Mogel. Entzun be ez? Hau egiazkoa dok, ba! Zozan, orain pare bat mendeko gizona.*

– *Oooohhhh...* – lasatu dira aurpegiak, zama handi batetik libratu bezalako dezepzioz. Libratzea eta dezepzioa ez dira, antza, kontrakoak, larritasun bat alferrik igaro izanaren lotsariak laguntzen dienean.

– *Gizona edo... elizgizona.*

– *Elizgizonak ez al dira gizonak?*

– *Gizon baino gehiago, hitzak berak dinonez.*

– *Gure herrian, gizona andreak egiten dauela esaten da. Abadeon kasuan... Bero-  
rrek badau neskamerik?*

– *Oraindino ez joat pentsatu gizontzerik. Mogel Markinako parrokoa zozan, eibartarra jaiotzaz. Ospetsua. Liburu bat be idatzi joan, Peru Abarka, oso ospetsua. Zorritzarrez, ospea apalkuntza bat gehiago dok, norbere herrian ezagutzen ez bahabe.*

– *Bibliak dino inor ez dela bere herrian profeta.*

– *Oraintxe aprobatuko joagu. Hemen, Lea-Artibaiko Markina, Ondarroa, Lekeitio eta beste herri txikiagoez gainera, bazarie mallabiar, berriztar, mutrikuar, eibartar, elgoibartar... inguru zabaleko gazteak, eskolaldi luzeak eginak denok. Mogel ez ei dozue entzun be egin. Beste adibide bat ipiniko joagu. Lekeitiarrok ezagutzen al dozue Azkue? Kontserbena ez; bestea. Abadea hau be. Ezetz? Normala, Lekeitiokoa baitzen. Beste herrietakook be ez dozue Azkuerik inoiz entzun? Orduan, argi jagok Bibliak dinona ez dela guztiz egia.*

– *Abade eta profeta, inkompatibleak izango dira.*

– *Bai, antza, ze, izen ospetsu bi aitaturik, bata be ez bada profeta, ez herrian, ez albo-herrian, gatx handiren baten gainean bizi gozak.*

– *Hortik atera behar dena ez al da izango ospearen osagai bat guzurra dela?*

– *Baleitekek ospeari be, nonbait itsasteko, landu bako lurrik ez gustatzea. Bibliak dinona dinola, nik uste najoan Mogelek eta Azkuek baebela eskola honetan ezagutuak izateko beste kategoria. Gauza bat egingo joagu. Badakizue, ikasturtea*

*gainditzeko, lan bat egin behar dozuena, hamar bat orrialdekoa, banan, eta hama-bostekoa, gehienezko lauko taldean. Batean zein bestean, nahi dozueno, orrialde bakarrek lana egiteko aukera emongo deusuet, erantzun labur, argi eta konbinzente bat aurkitzen badeusazue honako galderari: "Mogel eta Azkue ospetsuak zergaitik ez dira ezagunak euren herrian, ez inguruko herrietan?"*

– *Informazioa non topatu behar dogu, inork ezagutzen ez baditu?*

– *Horixe dok, hain zuzen, zuen iker-sena bertan luzitu daitekeena.*

Feriatik etorrerak Peru Abarkagandik pasatzea ekarri du. Nik, gazteagotan, ikasle hauen adinean (17-18 urte), bera askatu ezinik burua hausten nuen eta oraindik ere guztiz argitzeko nagoen korapilo intelektual bat gelan planteatzea pentsatu dut. Izan ere, nire sentiera (egilearena bera ere bai, seguruenik) Peru Abarkagaz gehiago kideren zen, eta, hala ere, Maisu Juanen bidetik nindoan. Izugarrero gozatzen nuen halako ateraldi, pasadizo eta ipuinak entzutean, non baserritar soil eta sarritan zarpail batek parean gertatzen zitzaion eskolantea barregarri uzten zuen, argitasunean. Ez zen eskale, bufoi edo gisako pertsonaia marginalen pikareska bakarrik, adimen mailako nagusitasun kasik esentziala eta niretzat ia erreberentziala baizik. Seguruenik, erabilieta eta kantatuena nuen 'herria' kontzeptua pentsatzean, multzo orokor zehazgabe bat irudikatu izango nuen. 'Herritar-  
rak' esatean, oster, baserritarrek, arrantzaleak, dendariak, igeltseroak, harotzak, zapata-konpontzaileak eta horrelakoak ikusten nituen beti, argi zehazturik. Inoiz ere ez abokatuak, irakasleak, medikuak, eta karreradunak, oro har. Eta neu karrera bat egiten ari! *Hau zelan koño dok?*, estutzen nuen neure burua. Markinako Lanbide Eskolako ikasleekin probatzea pentsatu dut. Ferian entzun berri nituen arrazoi zorrotz batzuk atseginez kontatu ondoren, eta eurek ere, neuk uste, atseginez entzun ondoren, galdetzen diet:

– *Nortzuk direla uste dozue argiogoak? Baserritarrek ala karreradunak?*

– *Baserritarrek!!* – darantzute ia aho batez, eta oraingoan ohartzen naiz intonazioaren enfasiak ikasleen ohiko espiritu kontraktaria bainoago sentimendu errotu bat biltzen duela, harriztekoa ere ez dena berau, gehienak baserri edo arrantza jatorrikoak baitira.

– *Orduan, tontoago izateko ikasten zabilze?*

Trikimailu ala irain, nola hartu ez jakinaren aurpegikera transbersalez begiratzen didate, eguzki baxuaren itzal luzatua bezalako, bati itzal tentetuaren erpinean bonbila piztu zaion arte:

– *Hori kontradikzinoa ez al da?*

– *Hire galderak esplikazino bat izan daitekeenaren hasiera jirudik.*

- *Noiz izan da kontradikzioa ezeren esplikazino?*
- *Ez dok derrigorra gauza guztiek esplikazino bana edukitzea.*
- *Zertarako ikasten dogun argi ez badago, ez dakit ikasiak zer esplikatzeke balio leikeen gero.*
- *Gauza bat egingo joagu. Arestiko lan-ordeagaz batera, nahi dozuenoi beste aukera bat damotsuet, orrialde bakarrean honako auzia argitzeko: "Zelan izan daiteke eskolatzen saia gaitezen, gero eskolabakoak gehiago mirestekotan?"*
- *Orrialde bat gitxitxo ez da?*
- *Ezjakintza diluitzeko, bai. Erantzuna jakinez gero, orrialde erdi nahikoa dok.*

Nork pentsatuko zukeen, hamahiru urtean beragaz jantzirik, bat eginik ibili ondoren, sekula gehiago ezin erantzeko etsipen osoz apaiztu ginen sotanari handik urtebetera jaregin ahal izango genionik, inolako kataklismo gabe? Zer gertatua izan zitekeen hain tarte laburrean, ia geure materiaren forma bihurtua genuen bildukin milenario hura bidean utzi ahal genezan, sugeak larrua baino freskoago, nahiz eta ez, beharbada, gutxiago minbera, laster azalduko dudanez? Oraintxe ere harritzen naiz, eliza ofizialarekiko hain kontestatarioak (aurkariak ez esatearren) eta ustez geroaren ikuspendun izanik, nola ez genuen sumatu aukera hura zabalduko zitzaigunik. 1965ean hil arteko sotana-ustez apaiztu ginenok hurrengo kurtsokoak sotana gabe agertzen ikusi genituen euren destinoetara, aldakuntza komenentziagaz bat ote zetorren segurantzarik edo ausardiarik ez zeukatenak salbu, halako hura, batez ere, zeinak, Jainkoaren grazian hiltzea lortzen bazuen –sotana ala heriotza!–, beragaz pizteko baldintza testatu zuen, ahalik eta kapilautza millitarrrik gehienak zerbitzatu eta gero. Nahiz eta kriterio inperanteak duinagotzat jo sotanaren jarraipena, zaharragoak ere hasiak ziren aukeraz baliatzen, ez denak, suposatzen dut, efizientzia ebangelikoaren arrazoiz. Seminarioan kriterio 'duinagoak' nagusi baitzirauen, ironia bitxia gertatu zen ezen, apaiz eginak kale-jantzi freskoan zebiltzan bitartean, apaizgaiek sotanape etsian zerraitela, apaiz egiteko pozgarri nagusietako bat, hain zuzen, soineko hartatixe libratzea zela. Ohitura-aldatze guttietan bezala, hasierako beligeranteenak, hierarkia-mailak barne, azkenean, oso urte gutxitan, "eskakizun orokorrari obedituz" salbatu ziren sotanaren desertore izatetik, infamazioari ahal zuten plazer guztia atera eta gero.

Aukera irekia zela jakiteak zeman lasaitasunez, presarik ez hartzea erabaki zutenen multzoan lerrotu nintzen, artean sobera zabaldua zen 'abade errebeldeen' mugida alde hartatik interpretatzeko (eta fulminatzeke) amorratzen zeuden beste urgentzia inkonfesable batzuekin nahasteko biderik ez ematearren. Nire aldetik, hala ere, arrazoitua militante guztiz kontziente eta indartsu horri ezer kendu gabe, bazen beste kontu subtilago bat, erabakia atzerarazten zuena, irrika inbertituan bezala. Hamar urtegaz soineraturik, apaizgoak irrebetsible, hil arteko bihurtu

zuela-eta, abailduran bildu ninduen estalgarria, bat-batean, libreki, nahi nuenean, oraintxe bertan utz nezakeelako dardara delizios, muinerainoko, sinestezin hura luzatu egin nahi nuen. Plazer handietan, egintza bera baino (sarritan labor eta itsuegi) bere aurrea ohartuago eta dohatsuago izaten delako esperientziari jarraituz, sotanak betiko utzia izango zidala suposatzen nuen gogo-marka bezain barneraturik gelditzea nahi nuen beragandiko askapen-emozioa. Hori unea behin eta berriro errepikatuz bakarrik lor zitekeen. Hala, gauero oherakoan, sotana, logela erdiko lanpara hirukoitzean dilindan, biratzen nuen, ukitzen, eragiten nion, Xalbadorek penaz ikusi zuen soineko hutsaren alderantziz, betetasun atsegintsua sentituz. Eseriz, zutituz, etzanez, inguratuz, hots, pentsamenari angelu posible guztiak eskainiz, behin betiko hustasun imminente hura amodioaren irudirik samurren bilakatzen ari zen. Nio-tsan:

- *Egunen batean, helduko don goiza, eta hortxe geldituko haz dilindan, hutsik, betiko. Denpora batean, hortxe edukiko haut, logela geriza mugikorrez, irribarkorrez betetzen. Egunen batean, komodan gordeko haut, erlikia gozo, lizuntzen hasi arte. Orduan, azpiko kortan eskegiko haut, amaraunekin bat eginik, saguek astiro-astiro jan haieen. Nik fase hori ez jonat ikusiko. Ez jonat ikusi gura. Gurago jonat nire gomutan fresko eta labain bizi hadin, izur suabez osaturik. Hori guztia, beharbada, bihar goizean bertan hasiko don. Ez, ez! Oraindino, ez. Ezin jonat honen zorion sinestezin eta merkea horren amai azkarrera jaurti. Oraindino, soinean edo distantzia batera, heuri be astia emon gura deunat, heure izate errugabeki fataletik arinduz joatearen kontzientzia goza dainan.*

Aipatu kontu 'subtilago' horri beste sentipen ez gutxiago intimo bat gehitzen zitzaion, zeinak, beharbada funts beretik, soslai oso ezberdina eta berezia konfiguritzen zuen. Auzia ez zen hainbeste sotana, neure nortasuna baizik, sotana-tik kanpora bere burua nola ikusiko zuen beldur zena. Metaformosiaren espektazio urduria. Kafkaren labezomorro txikia handian errepresentatzera nahiko oharkabez eta luzeki aldatu ginenok ezin genuen antzeman alderantzizko jauzi hain supitu eta kontzientek gure nortasuna nola inpakta zezakeen. Oskoletik kanporatze natala bezain bruskoa, baina era guttiz helduan eta ohartuan. Aipatu metaformosi inbertitua: gizakia labezomorro bilakatu beharrean, labezomorro handi batek gizaki itxura hartuko zuen. Izateak, oster, bere oskolari bereiztezinki loturik bizi izan zen gizakiak, zer itxura hartuko zuen, oskol gabe ez baitago izaterik? Ez zen, noski, hartaz nahiko bareturik eta, azken urteetako oporretatik, ia banitaturik ere banengoen itxura fisikoa. Gakoa itxura morala zen. Irudi berriak eutsiko ote zion nire pertsonaren inguruan sumatzen nuen itzal, estimu, kasik maitasuna uste nuenari? Ala benetako giza labezomorro agertuko ote nintzen, aldekoen sentimendu zoriogarriak sotanagaz ezabatu ondoren, arerioen eta maiseatzailen ezinikusia

bakarrrik gelditzen zela? Zalantza kezka garria oinarriarik ezin zen erabaki, ordea, egiazko egoeran konprobatu arte. Hala, bere zentzua aurreikustea ezinezko dela argi ateratzen dudana zeinahi etorkizunez ezaxolatzeko dohain seguruenik instintiboa dudanez gero, sotana-uztearen pentsaketak aurreratzen zizkidan bihozkatada atseginak gozatzeari eman nion.

Banindoan bigarren sotana-urtea betetzera, eta noizbait izendatu behar zen eguna. Ez zegoen egintza apurka gauzatzerik edo ikuslei aurrerapen progresiboak eskaintzerik, belauetaraino, adibidez, eta gero gerriraino, edo alderantziz. Une batean, supituan, braust biluztu behar zen jende aurrean. Herritarrak presta nitzakeen zerbait, asmoa azalduz, okasioa iragarritz, irudira aurreohitzen lagunduz, eta horixe egingo nuen, kanpai larregi jo barik. Garaia gutxi gorabehera erabakirik, egun egokia berehala agertu zen: udaberriko gatzatu-jana. Urteroko ohituran, Gizaburuagako gazteriak herriko etxerik urrunenera, Urrexolako artzain-baserrira, txangoa egingo zuen. Bazkaritan, aurretik ardiki gisatuz esteak apaldu ondoren, gatzatua izango janari estelarra, ontzi galantetatik plater sakonetara aizkolariaren lehen ezpalak bezalako puskak ateraz, tente geratzeko bezain mardulak. Nire asmorako, egun ezin egokiagoa. Herriko neska-mutilik gehienek batera ikusiko ninduten, eguna eurekin igaroko nuen, eta iluntzerako, nire itxura berria natural ikusten ohituak izango ziren. Etxeetan eta inguruetan, berria era batera zabalduko zuten. Aurrerantzean, beraz, denek itxaroten zutena ikusiko zuten, itxaroten zuten bezalakoa ez bazen ere. Txangoaren ohitura arratsaldean Nabarniztik pasatu eta Aulestitik bueltan itzultzea zenez gero, herri horietan ere ikusiko ninduten, talde handi baten barruan eta babesean. Banekien ez zena frontera joatea bezain larria, baina jendearen erreakzioei eta, batez ere, norbere uestezko haien pentsakizunei bakarrean aurre egitea larritasun handiegia izango zatekeen nire lotsa batzuetan infantilarentzat.

Goizean, ordu izendatuan, nesken barbaroa dantzut abadetxe aurrean, eta mutilen eupadak eta ujiak. Sorgin-ikusi bat ere egiten dut atearen behatxulotiki. Denak elkartu arte ez dut irten nahi, gero, etorri ahala, hainbeste *ene!* eta *jesus!* banan-banan ez entzutearren. *Urten egin behar dok!*—diotsat neure buruari, baina erabakia atzeratzen da. Batetik, denbora astiro doa, taupadak banan-banan baitantzudaz; bestetik azkar, taupadak azeleratzen baitoaz. *Hauxe dok, ba, uea, inoiz ez zela helduko etsita bizi izatetik, noiz helduko pozean egon hazena!* Unearen intentsitatea zenbat osagai ezberdinek, gurutzatuk, kontrajarrik, atabikok, imediatok egituratzen duten barne-ikusi nahian dihardut, baina intentsitateak berak ez dit uzten analisiak eskatzen dituen banantzeak egiten. Kanpora irtendakoan, badakit ez dudala izango modurik sentitzen ari naizena bereizteko eta, beraz, bizi-kiago gozatzeko. Badirudi garunak une dohatsu edo dohakabeen osotasuna euren

antelazioan edo oroitzapenean gauzatzeko jenialtasuna izan duela, horrela, une bikain gutxi batzuek bizitza oso bat edertu ahal dezaten. Lastima, proportzioz, une madarikatu bakar bat nahikoa izatea programatu zuela, bizitza oso bat izorratzeko. Ez dakit neure kabuz irteterik erabaki izango nukeen, ate joka hasi ez balira:

— *Don Jabier! Zer esperantza dago, ba?*

— *Banator!! (Urten egin behar da!—diotsat golkoari). Egun on denoi!*—diot kanpoan, neure burua erreberentzian entregatuz—. *Ecce homo!*

— *Zer da hori?*—batek.

— *Zuen abade barria*—nik.

— *Barria ala beste bat?*

— *Hori zeuek erabagi beharko dozue.*

— *Lehenagoagaz konforme baginen, berau be ez da txarra*—dio mutil batek.

— *Txarraaaa?*—beste mutil batek, enfasi nabarmenez—. *Gu baino guriago jagok hau!*

Ateraldi probidentziala, nobedadearen tentsioa barre-algara kolektiboan apurtu eman baitu, bat-bateko haitzak olatua bezala. Oraingoan, neu nago olatu barruan, dantzudala:

— *Geure modukoa! Abadeak aingirak dozak ala?*

— *Orain honegana joan behar joagu konfesatzera?*

— *Konfesaleku batzuetan, lehen be ez jagok igartzen erraz jantzita ala biluzik dagozen.*

— *Egin barre, egin barre!*—pentsatzen dut neurekiko, esposizioko irribarrez—. *Hauxe zoan komeni jatana.*

— *Eta orain*—ausartzen da lehenengo neska—, *gehiago ez dogu berori sotana izusiko?*

— *Ezetz dirudi*—darantzut erdi ahopean.

— *Pena da, alde batetik.*

— *Nahi badozue, barriri jantziko dot. Oraintxe gagoz astiz.*

— *Ez, ez! Baina noiz edo noiz... irudia gordetzeko beste.*

— *Sotana ez da ken-ipiniko prenda, txaleko antibala legez.*

— *Ene!*—hots egiten du albo-pasan gertatu den emakume batek, taldeko hiru neska-mutilen amak—. *Gure abadea prakekin?*

— *Ama!*—haserre egiten dio alabak, zerbait gordinagoa jaulkitzera zihoalakoan.

— *Zer nahi zenduen?*—galdetzen diot etsipen gisan—. *Praka barik urtetea?*

— *Jesus!*—emakumeak—. *Goazen martxan, horixe ikustea be igual subertatuko jaku.*

— *Eta zer?*—dio Sastripo kanpai-joleak—. *Ez al dogu Jesukristo ia biluzik ipintzen kurutzean? Abadeok zer dira ha baino gehiago?*

— *Gitxiago!*—berresten dut—. *Gu kurutzeratzen bagaitue, gerri bueltako zapitxorik*

*ez jaku tokatzen.*

- *Azkenean hemen* –Sastripok berriro–, *zaharrak bueltan, aurrera gindoazelakoan.*
- *Konsumatum est. Amaitu da nobedadea!* –aldarrikatzen dut, meza amaierako tonuan–. *Abiatuko al gara Urrexolarantz?*

Saiatzen naiz ahalik naturalen jokatzeko, baina naturaltasun saiaturia ez da erraza. Ezin dut ekidin ihes egiterik begiraden gurutzatzeari, zeintzuek hitzek baino askoz gehiago deskolokatzeko nauten. Behetik goranz, zorutik aurpegiraino, astiro-astiro begiratzen didanari kasik erruki hartzen diot, neuk sarritan sentituriko zalantza, lotsa, beldurra sumatzen baitut beragan. Begirada horrek, okerrean, aireratu egiten nauela damait. Begietatik zuzen hasirik, goitik beherantz, oin puntetaraino doan eskanerrak, osterak, ehorzpen sententzioa eragiten dit. Geldian inebitableak diren begirada horietaz ohartzetik abioak libratzen nau, eta bagoaz. Elizaldea galdu dugu bistatik, igo ahala, berriro bistartzeko. Hortik aurrera, gazte artean bestelakorik ezinezko den moduan, egun alaiak eta sorpresiboa izan zen alde guztietatik, nobedadeak, usterik gutxienean, deskonjono berriak sortzen baitzuten, Nabarnizko Goierriko (zenbat Goierri ote daude munduan?) baserri baten ondotik pasatzean bezala. Berbarora irten zen gizonak, gizaburutarrak ondo ezagutzen eizituenak, *hemen gatzok Gizaburu osoa* entzutean, oilarki zuzendu zuen:

- *Gizaburutarrak... denak ez hor!*
- *Garen denak ez, baina hemen gagozen denok bai.*
- *Betaurreko ilundun hori be bai?*
- *Hau geure abadea dogu.*
- *Zergaitik ez gotzaina?* –gizonak burlaize gangarrean.
- *Edo Aita Santua!* –Sastripok.
- *Horrek gehiago koadratzen jok* –gizonak arrazoikor–. *Fedea martxan ipintzekotan, hobe dok handiak sinistea.*
- *Zertarako, ikusten dozunik be sinistu ezin badozu?*
- *Ikusi zer?*
- *Aurrean daukazuna. Geure abadea!*
- *Gizaburuko abadea haz hi?*
- *Zu, inoiz, nigaz konfesatuta zagoz.*
- *Dedio! Banengoen, ba, esku horreek finegiak zirela, baserritarrenak izateko!* *Gure andreak hau ikusiko baleu! Benita! Ea gizon hau ezagutzen donan.*
- *Gizonak 'Gizaburubako' herrian?* –derasa andreak garratz, atarira irtenda.
- *Beno, gizona edo... elizgizona!* –zehazten du Sastripok, niganantz seinatuz.
- *Fabiolaren keridoa izateko itxura hobea jaukak horrek.*
- *Ez zagoz zeu gitxi enteratuta goiera honetan!* –jaurtitzen diot neuk ere.
- *Semeak Afrikatik irrati zostor bat erdi-ostuta ekarri ebanetik, printzesak eta*

*bailarinak ugariago jabilzak hemen oilasko gizenak baino.*

- *Azkonarra uxatzeko ona ei da irratia muna baztarrean* –jakinarazten diot.
- *Eta auzoak erakarri, irratia debalde entzutera? Ez, ez, ez!* *Erosi daiela bakotxak berea, edo bialdu daiela mutilen bat Afrikara soldadu.*
- *Auzoena zepoagaz konpon leiteke.*
- *Ez dok erremedio onuragarria. Baten bat bertan akabatzea gertatuko balitz, eguna eta dirua galdu behar, hiletara joaten eta mezak ateratzen.*
- *Lehenago edo geroago, hortik ez gara apartatuko.*
- *Beti jagok itxaropena norbera aurretik joateko, kargak atzekoei utzita.*
- *Kontatu horri dena bildur barik!* –animatzen du senarrak–. *Neu be, inoiz, berorregaz konfesatuta nagoela jinon.*
- *Ez jagok gatx zerua, horrek parkatutako pekatuekin zabaltzekoa badok.*
- *Benetan abadea nazela gerta baledi, etorriko zinateke nire konfesalekura?*
- *Nik ez jaukaat pekatuak astirik.*
- *Gizonak badauka, antza, etorri zen eta.*
- *Ai, gure gizona! Desiatzen najagok ahalik pekatuak gehien egin daien, ea lortzen dauen inpernuan amaitzea. Ba al dakik zer litzatekeen barrero Jainkoaren aurrean berorregaz juntatu beharra?*
- *Zerua holan baino zabalagoa izango da.*
- *Mundua be zabala dok, baina hau beti itzultzen dok.*
- *Ez itzultzeak poztuko zindukez?*
- *Ezin izan joat konprobatu.*
- *Desioa konproba daiteke.*
- *Ez jakiat. Desioa be ez dok beti aurretik ibiltzen.*
- *Hori bako pekatuak tristea izan behar dau.*
- *Desio hutsa be ez dok asko alaiagoa.*
- *Hartu zuk astia pekatu batzuk egiteko, eta neuk parkatuko deusudaz denak.*
- *Pekatuak parkatzeko baino egiteko itxura hobea daukak hik.*

Eguna horrela joan zen, Gizaburuagako gazteen gozamenerako, eta nire oroimena betiko markatzeko. Baldin gazteok, zukara jaisten ausartzeke, eurok oraindik berorika egiten zioten taldekidea edozein bazterretan hika hartzen zutela ikustea beste gabe motibo esplosiboa bazen, pentsa zer izango zen, barreekin harroturik, zorrotasun gordinerantz lerratzen zirenekin. Gauean, abadetxeko sukalde zaharreko erloju neu baino altuagoaren aurrean, zurrumbilo guztia oraindik belarrietan, oroitzapenen bakartadean gelditu nintzenean, ez nengoen ziur helburu 'betea' ala betegabea izan zen, ala beteezintzat hartu behar nuen. Kontua da ezuste paradoxikoa inondik ere aurreikusitako izango ez nukeen aldetik etorri zela: kristauei egoera berrira egokitzea askoz gutxiago kostatu zitzaizen, neuri baino. Areago oraindik, esango nuke ia iraingarri egin zitzaidalda jendeak hain azkar asi-



milatzea egoera berria, hortzore-alda soil izan balitz bezala. Uneka, larritzen ere hasia nintzen, sotana-mina sentitzen nuela ikustean. Moda horiek bezala, zeintzuk, futurismoz kamuffaturik, gaintuuen uste zutenera itzultzen diren. Bakardadea bera, sotanapean natural egin zitzaidana, arraro iruditzen hasi zitzaidan. Ispiluek errezeloz begiratzen zidaten, muzinti ere bai sarritan. Ez nuen irudi haietan neure transfondorik hautematen. Figura moldagarri bat, orrazgarri, jantzigarri, biluzgarri, esperimentagarri bat bakarrik nekusen, ez pertsona bat.

Zer arraio gertatzen zen argitu nahian luzaro nenbilen, harik eta ametsei kargu hartzen hasi nintzen arte. Izan ere, ia beti, neure burua sotanadun aurkitzen nuen ametsetan. Prakadun egoerak gehienean larriak ziren. Edo burla edo barre egiten zidaten, lotsagarri benengo bezala, edo albo eta ihes, legendun banintz bezala. Sotanagaz, ingurua bare, orekan nabari nuen, zenbait begiradaren erasia bengatiboak salbu. Ametsetan, zorionez, berriro ere libre nintzen beldurretik. Laster ohartu nintzen horixe zela gakoetariko bat. Izan ere, nire umetako beldur nagusia, ostua izatea edo galtzea, ez zen hainbeste zer ziren garbi kontzibitzen ez nuen egintza horiengatik eurengatik, baizik egoera horietan gertatuko zen giza terriorioaren bortxaketagatik: ukitu, heldu egingo zidaten. Maiteki, nahi baduzu, baina igurtzi, eskuztatu egingo ninduten, eta hori banekien ondo zer zen, ez beti zuzenki, baina bai hartarako beldurraren bitartez. Hain maite nuen jendartea ez nekien nola uztartu hain beharrezko nuen distantzia bategaz, edo, zehatzago esanda, distantzia baten garantiagaz, zeren inoiz ez nengoen seguru une bateko separazio hura ez ote zen nire nahiaren aurka eliminatua izango. Umetako sen basikoek hil arte darraitenez gero (zenbat basikoago, hainbat indartsuago), sotanak garantia horixe, bortxaezin horixe eskaintzen zidan. Isolamendua ere bai, noski, baina hori puskatzea, edo puskatzen saiatzea, neurri batean neure ekimena izan zitekeen bitartean, bortxaezina, ia osoki, besteen esku zegoen. Ahal duzuna beti egin dezakezu; ahal duzun moduan defendatu ere bai. Agresioaren objektu izan ala ez izan, ordea, ez da zeure erabakia. Trenean esertzen banintzen, banekien nire albo eta aurreko jarleku biak ez zirela okupatuak izango, edo, derrigorrean, azkenak izango zirela, jarleku baino lagun gehiago sartzen bazen. Orduantxe ere ez beti, askok nahiago baitzuten tente joan, harago kamuffaturik, nire albo edo aurrea libre zegoenik ikusi ez balute bezala. Maiz gertatzen zen, hala ere, premia handikoren bat edo autista samarren bat inguratzea, edo, soilki, kristau errukiorren bat, sentitu behar nuela suposatzen zuen lotsa edo mespretxua salbatzera zetorrena.

– *Abadeak be trenean?*

– *Aingeruak be ez gara eta.*

– *Ez deutso berorri ardura izango ni hemen jesartzea, ezta?*

– *Ez, emakume! Estimatu bai asko, baten batek hutsunea bete izana.*

– *Neu be horixe pentsatuta etorri naz.*

– *Ez zenduen ezer pentsatu beharrik, libre zegoena okupatzeko.*

– *Badaki berorrek, ba.*

Banekien, baina ez ninduen hainbeste molestutzen, bai bainekusen bazi-rela nik baino ingurune handiagoa libratzen zutenak, guardia zibil bikoteak, esaterako, trenean zebiltzan garaian; baldin eurak ez baziren norbere aurrean lehenean esertzen zirenak, nahiz eta bagoia erdi hutsik joan, uniformearen kontzeptu orokorrean kolegatasun bat ulerturik. Okerragoa zen, eurak aurretik eserita zeudela, motibo beragatik, edo bi hutsune (eurena eta nik sortuko nuen) betetzeagatik, esaten zizutenean: *Siéntese aquí, padre, que por algo somos cuerpos complementarios.*

Sotanak, inguruan, metro erdi erradioko zirkunferentzia libratzen zizun. Erdi gehi erdi, gehi norbere gorputzaren beste erdi bat, metro eta erdi diametroko espazio kasik inbiolablea abantaila handia zen mundu aski biolento honetarako. Isolamendutik begiratuta izan zitzakeen desabantailaz ere jabetzen nintzen, noski, baina abantaila-desabantailen erlazioak planteatze soil ere ez zen gutxi adierazgarri sotanaren nostalgia ulertzeko. Bere babesa hain ez zen imaginarioa, ezen behin, taberna batean, erdi mozkor batek paparretik heldu eta botoi bat erauzi zidanean, susto ikaragarria hartu nuen, sagrarioa irekitzean, Jesukristok horzka egin balit bezala. Beste herritarrak ere durditurik gelditu ziren, ardia artzaina jaten ikusiz bezala. Salbuespen guztiz irregular hartatik aparte, sotanagaz, neure espazio liberatuak laguntzen ninduen noranahi, eta hori pribilegio handia zen haurtzaro eta gaztaroan, bere burua nola defendatu ez jakinik, hainbeste larritasun igaro zuenarentzat. On handiak (osasuna, askatasuna...) eurok galtzean maitatzen diren bezala, sotana uztean jabetu nintzen zer txakil, zer biluz, zer neu soil gelditu nintzen berriz. Bai, bai! Abade nintzen, abade nerraien, baina jada ezer ez zen berdin.

Babesa ez ezik, gehien ardura zidan karinoa ere sotanagaz joan ote zelakoa neukan sarritan. Herritarrek neuk ezer apartik egin gabe maite nindutela nabari nuen. Gorrotagarri ez izatea nahikoa nuen maitatua izateko. Neure aldetik, norbaiten sentimendu edo ideiarene batekiko kidetasunik agertzen banuen, berriz, maitasuna ferbore bilaka zitekeen. Beti nintzen hartzaile, gutxienez maitasunaren espresio handietako bat den barkamenean. Hutsegiteak aise jasaten zitzaizkidan. Barkamen esplizitua eskatzeraino iritsi gabe ere, jarrera apala banerakusen, txera oparora jasoko nuen, ez euren barkatzaileari barkatu ahal izatea goitasun dibinotzat har zitekeelako, baizik horrela hobeto segurtatzen zelako bueltako benebolentzia, onerako zein txarrerako eragina zeukan autoritate batena. Maitasunaren bideak ezkutuenak badira ere, hain sinpleki elkarlotzen dira bere eragileak (sentimenduak, premialak, dependentziak), ezen, azkenean, emaitzari bakarrik begiratzeke sinpleta-

sunean bizi nintzen, bestela izan zitekeenik pentsatu ere egin gabe. Sotana eta biok bereiztezinak izanik, niganako maitasunak ez nekien hartatik eta nitatik zenbateko proportzioa zeukan, ezta proportziorik bazenik ere. Ez nuen dudatzen (komeni ez zelako, beharbada) niganako maitasun guztia neugatik bakarrik zenik, harik eta, sotana gabetzean, jabetu nintzen arte aurretik berez emanik bezala zatorrena orain irabazi egin behar zela. Itxura bera, lehenik. Artean, airean zebilen buruaren eta lurrean arrastatzen ziren oinetakoen erdian, sotanak itxura perfektua osatzen zuen bere izur zinbel eta barren airosos. Orain, arduratzen hasi beharra zegoen hankak zuzenak ala okerrak ziren, botoiak berdinak ziren, zuloak ilaran zeuden, zilaren bertikala noraino aurreratzen zen. Poltsikoen hegalekietan barrura, inpunitate osoan ibiltzen ohituta zeuden eskuen mugimenduak kontrolatu behar ziren. Brageta ondo itxi gabeaz ere konturatzen ikasi behar zen. Huskeriak, pentsa zitekeen, baina irudiaren erantzukizun osoa norbera zelako ardura etengabea ez dakit ez zen izan sotana bera baino zama handiagoa, batez ere gerora ikusi nuenean jende ustez burutik sanoa nolako astakeriak egiteko edo jasateko prest zegoen bere irudiagatik.

.....

- *Azkeneko erretirora ez hintzen etorri* – diost irteeran Don Tomasek, bueltan bera etxera eroateko desiatzen egoten nazenak.
- *Badakizu, ba. Beste zeregin 'errebelde' samar bat* – darantzut, berak jaulki ohi didan "zer jinok gure Origenes errebeldeak?" delakoaren zehar-aipuz.
- *Gazteen faltan, batzarrok ez jaukiek arimarik.*
- *Gaur ezin zaitut eroan, baina, bihar edo etzi, egingo deusut bisitatxo bat, mandatu kokkor bategaz.*
- *Askari sasoiaren etorri, bisita atxakia biok baliatu ahal daigun, bestela, gure Kasildak gauera arte mehetik edukitzen najok eta.*

Don Tomas oraindik 'buelaren zain' dauden ameslari etsiezin horietako da. Sondikarantz pasatzen diren hegazkin bakaretako baten burrundada entzutean, aztoratu egiten da, *bajatozak! bajatozak!* oihuka, inor aurrean ez denean. Norbait aurrean bada, ezin du ekidin, hegazkinen hotsa sumatzen denetik ezabatu arte, halako kurrunka biszeralei jaregiterik, pare bat dozenatik gora, Kasilda neskameak ondo kontatuak dizkion bezala, zeinak, eskura gertatzen zaionean, josteko makinan martxa guztian jartzen duen, mototseraraino asperturik ei baitago esaten: *Berorrek itxaroten dituen hegazkinak eginak be ez ziren izan.* Don Tomasek ezin du sinetsi Jose Antonio Agirre hegazkin gabe sar zitekeenik gerran, eta gutxiago gezurrean zebilenik, laster etorriko zirela eta eusteko eskatzen zuenean. Hegazkinok inon eraitsiak izaniko arrastorik aurkitu ez zenez gero, usterik gutxienean itzuli behar

zuten, oraintxe, esaterako, *bajatozak! bajatozak!*, nigaz hartua baitu kurrunketara ez jotzeko adina konfiantza.

- *Ikusten dok plano hau?* – diost, ganbara zaharreko mahai trauskil baten gainean, Euskal Herriaren formako paper handi bat erakutsiz. Lehenik, txerria zatitzeko mahaia iruditu zaidanari gero sorginak erditzeko edo destriptatzeko antza hartu diot. *Nire frontea hementxe ibili zoan Elgetatik Bilborantz, atzeraka-atzeraka, azkenean, Santoñan bazterra jo arte.*
- *Plano zehatza dirudi, bonbazulo eta guzti. Txokatzten jatana da zergaitik dagoen plano Euskal Herriaren forma exaktoan ebakia.*
- *Mugakideak ez jatazak interesatzen.*
- *Arrazoi praktikoa izan daiteke, konbintzentea ez dakit baina. Zenbat gerra irabazi dozuz plano honetan?*
- *Asko!*
- *Eta galdu?*
- *Bakarra. Horixe Franco txarri hori mortuko potzorriek jan izan balebe, abade batek esateko ez dok txukuna baina!*
- *Txukunegia esango neuke, zeu be frontean ibilia izanik*
- *Basortuko ospitalean kaperau-erizain, hankak mozten eta moztuak ezkututzen. Kasilda! Askaria prest jagon?*
- *Bai, jauna!* – neskameak bi solairu beheagoko sukaldetik.
- *Arrautzak be pare bana?*
- *Eta urdai-xerrak, pare bina!*
- *Goazek!* – hots egiten du, plano ei berez biribilkatzen utzirik. *Urdai erreka baino larriagorik ez jagok, hoztutakoan. Uste joat ardaotxo be badogula!* – gaineratzen du ahapeka, Eskoriala ganbaran bahituta balu bezalako ahogozoz.

Don Tomasek, bere planoekin eta bere liburuekin (erleak, hiztegiak, belarrak, profetak), bere ganbaran bizi du etorkizuna. Presentea baino askoz harago, nolana, oraindik ez baitu aipatu agindu nion mandatu kokkoraren konturik. Askaritzat, pare bat arrautza eta urdaia iragartzen ziren, baina lukainak ere badira, gorri-ilunak, beroan okertuak, zaporean txerri bizia eternizatzen dutenak. Sukalde berez iluna ilunago legoke (argirik ez da pizten abemaritakoak jo arte), Kasildaren aurre osoko mantal zuriak argi egingo ez balu. Gorputz handiko emakumeak, adinean aurrera samar, mugimendu lentoak garatzen ditu, zartagineko keari nagitasuna erantsiz. Ardoa porroian mahairatu du Kasildak. Ontzi horretatik lorrin gabe edaten oraindik ez baitu ikasi (gero lorrina paparrean gelditzen zaizu, sotana beltzean ere nabarmen, oxidaturik bezala), zain nengoen edontzia nola eskatu pentsatzen, Don Tomasek esan duen arte:

- *Atera baso bana be, Kasilda, gaur apur bat kokoteko minez najabilen eta.*
- *Sabaiko lukainka sortara majo begiratzen eban, ba!* –Kasildak.
- *Labur eta kostata, Kasilda. Porroiak begirada luzea behar jon–. Gero, niganako isil plantan, baina Kasildak entzuteko moduan, eransten du: –Igarriko heuen honek porroitik zergaitik edanarazo gura deuskun, eztok?*
- *Elegantziarren?*
- *Berbera! Ardaoa elegantzia aurreztearren.*
- *Hemen douez basook!* –hots egiten du Kasildak, gorputz osoa mahaira okertuz–  
*Min hori kokotetik burura pasatzen jakonean, badaukat erremedioa, azeri-buztan zukua.*
- *Mesedez, Kasil! Gaur azeri-buztanik ez!*

Beti harritu izan nau zenbait abadek neskameagaz osatzen zuten tan-demak, 'bikote' hitzaren desbiazioak saihestearren. Izatekotan, bikote perfektua esan beharko litzateke, kendu beharrekoak kenduta, hots, kendu izanagatik. Don Tomasen zurrutean, sudurra barruan duen edontzi lodia betaurrekoetara hurbildu denean, biak material bereko agertu dira. Askaria aurrera doala, dohatsu naiz oso, gizon baten benetako zorion-une baten partaidea eta, batez ere, obserbatzaile izatearren. Kasildak kafea eta 'kopatxoa' atera dituenean (txikia eta lodi-lodia hau ere, betaurrekoen material bereko), neure bisitaren xedea betetzeko uea iruditu zait.

- *Orain, Don Tomas, lehengoan aitatu genduen aza azaldu beharko deusut, ezta?*
- *Zer joagu nik egitekorik?*
- *Badakizu lehen be euskal kleroak* –Kasilda neskamea igarkabea aldendu dela ohartu naiz– *dokumentu garrantzitsuak sinatu izan dituela, Erroman aurkezteko. Kanpaina bat abian da, hil honen...*
- *Dokumentua aldean daukak?*
- *Bai, baina lehenengo...*
- *Atera!*
- *Hauxe da.*
- *Non sinatu behar joat?*
- *Sinatu hementxe, baina...*
- *Kasil! Ekarri hori luma gorri hori!*

Badager Kasil pasillo ilunetik eta badakar luma gorria pedestal eta guztia, bera gainean jartzen duten zeinahi objektu duintzeko pentsatua dirudiena. Don Tomasek, betaurrekoak premia banoago solemnitaterik doiturik, astiro-astiro sinatzen du, bisturiagaz bihotza zabaltzen ari baillitzan. Kasik inprentako kaligrafia estanpatu ondoren, errubrikaren bi azpillerro miragarriro paralelok harritzen nautela,

*beste bat!* hots eginik, hirugarrena marratzen du, garrantzia nabarmentzeko asmo osoz bezala.

- *Hirutasunaren iradokizun heretiko samarra ez al dozu marratu?*
- *Urruntxo salto egin dok, Jainkoa leku guztietan egon arren.*
- *Sinadura hori apenas izango den Erromaren begiko.*
- *Erroma be lekutan jagok hemendik. Lerrook Jainkoagaz ez jaukiek zerikusirik. Hirutasuna triangeluak osatzen jok. Paraleloak elkarrentzat inexistenteak dozak. Niri ez jatak erlegino ezbardinak ukatzerik gustatzen. Gurago joat denak salba daitezzen. Lerroak triangeluan itxi zirenean, posibilitate infinituak bakarrera murriztu zoazen. Tamalgarria. Nahi beste infinitu izan leitekezak, elkar hausteko beharizan barik. Jainkoak ezin jok matematikak baino gitxiago izan. Orain esplikaidak zer sinatu dodan.*
- *Bertan daukazu testua. Kopiarik ez emotea erabagi da, segurtasun arrazoiakaitik, badakizu. Hemen deskuido txikia behar da, plan guztia hankaz goratzeko.*
- *Ño! Sinadura batzuk ilustreak jagozak hemen: Esteban Bilbao, Kareaga, Oriol, Areiltza, Sukia, Ibarra, Castiella, Iturmendi, Iribarne... –Izen horiek ez dira, noski, dokumentuaren oinetan ageri, bere sarkasmo egarberan baizik.*
- *Dokumentua ez dozu irakurri behar?*
- *Zertarako, sinatuta badago?*
- *Ez dakizu zeure heriotz zigorra sinatu dozun be.*
- *Hori be ikusiak gozak. Norbere heriotz zigorra norberari sinarazi! Batek itaundu joan ea hori heriotzaren aringarri izango zen, eta ezetza jasotzean, erantzun joan nahiago ebala sinadura okasino hoberako gorde. Badituk uneak, non sendotasunaren formarik lirikoena zinismoa den.*
- *Pare bat minututan irakurria dozu.*
- *Egidak heuk laburpen labur-labur bat, luzean zer izan daitekeen kalkulaten joat eta.*
- *Ba, orain arte Erroman alperrik aurkeztutako dokumentuen...*
- *'Alperrik' hori sobra jagok!*
- *Beno, orain arte Erroman aurkeztutako dokumentuen zerrendaren eta euren edukien laburpenaren ondoren, Eliza pobrea, bizia, askea eta bertokoa planteatzen da. Horretarako, Euskal Herriko errepresioa azaltzen da, eta errebindikatzen bere herri-, gizarte- eta kultura-eskubideak, eta gotzainen eurok defendatzeko eginkizuna, hizkuntza barne. Eskubide politikoetan ez da larregi sakontzen, aldarria ahalik gehienentzat onargarri izan daiten.*
- *Zenbat sinadura izango dozak?*
- *Ideala, seirehun bat, baina bostehunera hurreratuz gero, pozik.*
- *Ideala sei mila esan nahiko dok, Euskal Herrian garen abade eta fraile.*
- *Hori, ideala barik, idealismoa litzateke. Platon antzina hil zen, zoratuta.*

– Zeuek jakingo dozue. Gu zaharrok ez gajoezak inon behar, enbarazuan ez bada, baina gazteok ibil zein tekeze argi. Honeek ez jakieek parkatzen gero!

.....

Don Eustakio izaera makalago eta konplexuagoa da. Bera baino zerbait zaharragoa den parrokoaren mendean darama errepublikatik honako denbora guztia, gerratea barne. Jende aurrean ahoskera mehea, kasik emea duena, bakarrean piztu egiten da, konfiantzazko lagunekin. Susmoa daukat lagun horiek ez direla dozena erdira iristen. Euretako bat neu izateko zortea daukat, ez dakit zergatik. Inoiz pentsatu izan dut, doilorki, efebo-grinaren bat ez ote zen tartean, neskamerik ere ez duenez gero. Parrokoaren etxean jaten du, eta badirudi horrek autoritatezko erlazioa asko zentratzen edo, gutxienez, finkatzen duela. Garbitasuna ez daukat argi non egiten dioten, batzuetan, sotana nahiko lorrindurik ageri baitzaio, txakurrak gainean lo egin balu bezala, baina ez dago haragoko ondoriorik ateratzetik, parrokoaren sotanan ere luzaro izaten baitira zopa markak paparrean, botoi artean behera eski beltzean jardun balira bezala. Don Eustakiok bizitza aparte egiten du, herrian diren abadetxe bietako zaharrenean, baina ez dakit izate horrena den independentziari dion benerazioa, ala independentziaren sena den bizitza bakartira axikitzen duena. Hura baino askoz argiago eta jakintsuagoa izan arren, bere burua parrokoaren menpetasunera mugaturik sentitzen du, zeinari, bestalde, ez zaion ikusten, bere txepelean, inor bereziki menperatzeko nortasunik, nondik, batzuetan, pentsatzen dudana Don Eustakioentzat parrokoa, nagusi indibidual bat barik, dependentziatzeko ente bat ez ote den, egintza aske eta boluntarioen zorabio amaigabetik libratzera behartzen duena. Kanpotik begiraturik, parrokoagaz zerikusi hurbilik ez duten zailtasunetan ere, berez-berez ateratzen zaio leloa, formulazioa aldatzen saiatu arren (hau ere nahi gabe, seguruenik), funtsean berdina dena. Baina gure parrokoari... bakarik hori zelakoa den... gure parroko zimel horrek... esaiok hori gure beste horri... Inoiz, gogorragoak ere bai, konfiantza kolerikoan, ezinari duintasun epikoa emanez: Gure parroko txarri horrek... baina parroko potrozorri hori... Tarteka, abiapuntu fataletik pasatzerik ez zaio ahaztuko –zer egingo jakok, ba, horixe tokatu jakuk eta!–, beste ziklo marmarti bati ekiteko atseden bila bezala. Jaten mizkin samarra izanik, aszeta oso baten aurrean zaudela pentsatuko duzu, harik eta hirulau kofiak marka mahairatzen dizkizun arte, bitrinaran utzi dituen jatorriak eta ezaugarriak bertute teologalak bezain sentikorki azaldu ondoren.

– Ardaoa ona izango dok, baina baltzegia– dio–. Kofiakak mezako ardaoa kolo-rea jaukak. Aditzen dok, eztok? Jesukristoren odolaren antzekoago.

– Gizona eraisten be abilago izango da hau.

– Lantzean ikutu bat bakarrik. Egun guztian be zenbat edango joat, ba? Kopa mar-  
dul bat, goia?

– No! Honek badaki nondik doan! –justifikatu nahi dut eztula.

– Kofiakak horixe egin behar jok. Bestela, ahotik urdailera zer daukaan ez haz konturatzen.

– Eta burua?

– Bardin! Honegaz eginda jagok gerritik gorako anatomia. Eta beste gauza asko. Jesukristoren odolarena ez deuat alperrik esan, ze meza be emonda gagozek hon-  
negaz.

– Kofiakagaz?

– Esanda be ez jeutsak ardura, aspalditxo izan zoan eta. Badaezpada, ez inon ezer aitatu, eta gitxiago gure parroko zahar horri.

– Horren bildurrik ez izan. Baina harritzen naz!

– Mezako ardaoa neu arduratzen nok, eta domeka goiz batean, ez nok, ba, kon-  
turatzen meza-ardaia falta dela, bezperan ekartzea ahaztuta? Esaiok orain gure parrokoari, jentea elizan sartuta dagoela! Kofika uragaz apur bat moteldu eta hic est enim calix sanguinis mei. Parrokoak be haxe. Ezer aitatu baleu, ardaoa ozpinduta egongo zela esateko asmoa neukaan, baina ez joan, antza, ezer igarri. Txarrena, monagilo zapo batek tragoa egin eutsala, baina honek be ezin, ba, pekaturik deklaratu, karraskada batzuk egin joazen baina. Pekatua inbentu ona dok, gauzek larregi korritu ez daieen.

– Gu errebeldeak ginelakoan...

– Ez jagok derrigorra lako errebelderik. Hasi hadi gure parrokoagaz lelokerietan. Gainera, zer? Ardaoa Kristoren odol bihurtzeko gai den sakramentuak zergaitik ezin jok bardin egin kofiakagaz, ur sanoa nahastuz gero?

– Nik ez daukat eragozpenik, baina zure moduko batek hori egitea!

– Ikusiko dok, egunen batean honelako parrokoa subertatzen bajak.

– Hori baino balentria apalagoa da proposatzera nentorrena, baina oraintxe ez dakit aitatu ala ez, ze, parroko hori akabatu ezik...

– Esan bildur barik! Badakik ni gauzak jakiteko eta onartzeko be desiatzen egoten nazena, neu ez nok baliente-balientea baina. Gainera, parroko honegaz!

Banekien Don Eustakiok ez zuela dokumentua sinatuko, baina, giza konplexutasunean, egintzak berak adinako garrantzia edo handiagoa izaten baitu ingurura zabaltzen den uhinak, ez neukan ahalegina alferrekotzat jotzeko motiborik, ez baita berdin begioa ala begikotasuna sortzea bazterretan. Don Eustakio ez zen aurka maiseatuko. Ez gintuen, beharbada, agerian defendatuko, baina, segun non, bere erara, aldeko hitzak izango zituen, edo kontrakoie erreparoa jarriko zien. Koldartasuna eskubidea da. Utzi egin behar zaio bere bidean joaten, eta ez, sugeari bezala, burua zanpatu, lurreko diskretuki limurtzeko izaera duelako.

– *Hi etorri beti be, ezer egon nahiz ez* –erregutu zidan agurtzean–. *Gurea amaitu zean, baina zeozer ikusteko irrika ez jakuk joan. Linboan eta bildurpean bizi izan gozak, hori ezer ez egiteko atxakia be izan leitekerek baina. Ni asko pozten nola, hi eta hire modukoak datozenean, zer martxa edo norabide barri dabilen jakinez gozatzeko. Zeuentzat be ez dok txarra izango gure modukoak ezagutzea, geldi da gozen guztiak ez direla arerioak jakin daizuen.*

.....

Don Ferroli auzia nola aurkeztu zalantzan nago, ezetz esango duela suposatzen dudana bihozkada positiboren batek salbuespenera nola ekar lezakeen. Apaiz gutxiak lortua izango du gehienengan biziotzat maiseatua litzatekeena makaltasun sinpatikotzat hartua izatea. Noiztenka itxura tamalgarrian atzeman duzula baliatuz, ez Don Ferrolez hitz txarrik edo dudazkorik arriska bere herri-tarren aurrean. Mundu guztiak daki, "botila ardoa mahaian eta purua muturrean jarriz gero", beragandik edozer lortzea ez dela hainbeste lagungarri horiengatik berezko etorkortasun erraz eta, nik uste, aproposkoagatik baizik, zeinari txurru-plinak bai damaion kolorea, baina ez muina. Ikasketetarako sobratu ez zitzaion argitasuna (edo gogo) bizitza praktikoan ingenio bihurtzeko sen bakana sobera erakutsia du, bere makaltasun horri, aitzakiak bilatu beharrean, justifiku biblikoa kasik sakramentalak aurkitu dionean. Aski du Jainkotasun guztia gizatasun ahulera bildu zuen Jesukristo hartzea babes, zeinak zerbaitegatik bihurtu zuen ardoa bere odol, ahalmen mirarigile berberagaz sagar-zukua ere berdin har zezakeenean. Izan ere, badirudi, azken afarian, traidorearen hanka egiteak Jesus bera ere apur bat kolokatzera animatu zuela, eskuren zeukana transubstantziatuz. Horrek sakrilegio baino gehiago lirudike zentzugabekeria, bera hiltzeko atxilotzera etortzeaz zirela bazekienez gero; baldin, denean etsenplu izateari behingoaatik albo eginez, zahartzaroa saihestearren entregatu ez bazen, zaila ere ez den moduan hirugarren egunean piztea itxaroten zuenarentzat. Ulergarri da sagar-zukua arbuatua izatea. Ebaren ebokazio labainegiagatik, baina hauta zezakeen, adibidez, esnea, 'odol bereko' eta 'esne bereko' izateen sinonimia kasik naturala garatuz, baina ez. Ardoa behar zen, apropos duda gabe, Jesusen gogo esentzialki orokontzientean.

Aurrekari hauek guztiak berak sekula usainik hartu ezin izan zion argudiatze zizerondarrean ezarririk, hor dator Don Ferrolen ekarpena, azaltzen duenean ezen, Jainkoak nahitaez ondo aurreikusia behar zuenez, mahats-hostoak, Eba biluziaren irudikapenetan, ez lukeela estaltzen duenik estaliko, sagarraren benetako esanahia era deigarriagoan seinalatzeko ez balitz. Horrela, Jesukristok, ardoa

bere odolizat asumitzean, apaizaren grina edenikoa hostopeko misteriotik edari hartarantz desbidetu nahi izango zuen, egia baita, substantzia aldatu arren, ezaugarri akzidentalek (pizgarriek) berdin darraitela. Garbi esanda, ondorio naturala dela ezaugarri horietaz zaletzea, eta, behin edo behin, estasiari azkeneraino jarraitzea misterioaren aitormen gorena besterik ez dela. Hori guztia ofizioaren deribazio santutzat jo behar da, hostoa mugiarazten ez den bitartean. Argudioaren logika lar ortodoxoa ez izateak bide damaio Don Ferroli elementuak ordena ezberdinetan erlazionatzeko eta, beti ere lagunartean arabera eta ingenioaren laguntzaz, efektu ezberdinki graziosoak eta xarmagarriak lortzeko, apaiz baten ahotik arte zaila bada ere.

– *Ni garaura najoak, ez hostora* – esango dizu batean.  
 – *Gaur aihena tokatzen dok* – beste batean.  
 – *Erdibidean, beraz?* – galdetzen badiozu, erantzun dezake:  
 – *Baina gorantz beti, kaliza bezala* –. Edo: – *Beherantz, baina albora begiratzen saiatuz.*

Susmoa daukat, gainera, 'edan txarrekoen' kontraposizioz, funtsean, 'edan oneko' izatearen kontzientzia laketua ez ote daukan. Eliztarrei entzungo diezu edanak Don Ferroli ez diola egiten berezko ontasuna nabarmendu besterik. Izan daiteke, gutxienez, gogaikarri jartzea, baina horixe ere ez. Mihia tratatzen hastera doala igarri batera, entzun eta barre egingo dizu, lantzean behin, *bai, eztok?, esan be!, eta?, hori dok ona!* eta gisako makulu errazekin solaskideari eder eginez. Hain dirudi bere izaeran konfiantzadun, ezen, behin edo behin, bere kabuz etxeratu ezin izateraino deskuidatu denean ere, ziur dago kontu eta begirune osoz erretiratu izango dela, eta inork ez duela bere kontrako hitz zakarrik zabalduko, edo zabal-tzen duenak bere burua izentxartzea besterik ez duela lortuko.

– *Joño, Gorki!* – hots eginez besarkatzen nau, nik jotako atea ireki duenean.  
 – *Trotski esan gurako dok.*  
 – *Trotski txakurra zean gurean. Ez dok gurako haregaz bardindu haidan, eztok?*  
 – *Txakurak ez dozak, ez, sotanazale. Hilaren lehenengo barikuetan, gaixoei Gure Jauna banatzera noanean, a zer eskandalua sortzen den baztarretan, inkisizinoa baletor legez.*  
 – *Nik hori laster konpondu najoan. Txakur-narru figurako humerala eroaten hasi nintzoan, eta zoratuta legez ezkututzen dozak.*  
 – *Gaixoen aurrera ez haz humeral horregaz azalduko baina!*  
 – *Gaixok nora alde egingo jabe, ba?*  
 – *Logelara sartzetako, jantzi liturgikoari buelta emon, gitxienez.*  
 – *Deabruaren bildur den arimarentzat, txakurra ez dok ezer. Tragotxo bat ez dok*

*gura?*

– Azkenean. *Tratua zarratu daigunean.*

– *Orain be badakark lorrinen bat?*

– *Esan neuan lehengoan zelan adierazpen garrantzitsu baterako sinadura bila gabilzen, Erromara biartzeko eta Europa guztian zabaltzeko, euskal kleroaren izenean. Herritarrek ezingo leukiena, lepo-moztearen pean, ea abadeok apur bat itxuratu ahal dogun. Hemen daukak testua, argia eta elementala.*

Irakurtze plantan, ziur naiz, bere begi pitin bat okerrez, sinadura erantsiak deszifratu guran dabilela. Sukaldea ez da nirea baino asko berriagoa. Lixibak jan dako karlistaroko armairu batean, oraintsu ordeztuak diruditen tiradera izeizkoek Elizaren aggiornamento ahaleginaren irudi larri samarra lemakete, goieneko aurre kristalezkodun bi apaletarik azpikoan botilak (edariak eta tomateak nahastean), eta gainekoan altuera berdintsuko baina oso forma ezberdineko edontziak ageri ez balira, Ama Birjina ala Santa Katalina ote den garbi bereizten ez den irudixo irribartsu bat erdian dutela. Sukaldeko bi leihotako baten orri-bitartea luzera osoko kartoi-tira doblatu bategaz harturik egoteak esan nahi du haizea hemen ere ausarta dela, uda gainean izan arren. Don Ferroli begira, seminarioan noiznahi gertatu ohi zen unea gogoratu zait, bizi-bizi. *Ferrol Goitiandia! – Presente!* Formula militarra ikasia zuen, nonbait, etxeko anaia zaharragoen kondairetatik, eta haren buru distrahitua aldatzeko arautegi eklesialik ez zegoen. Ikusten ari naiz nolako kontzentrazio itxura ematen zion liburura begiradari, pentsamendua auskalo non zerabilela.

– *Ederto jagok!* –hots egin du, exegesitik hara bezala.

– *Heuk sinatzeko pentsatua jirudik.*

– *Hik badakik ni honelako kontuetan ez nazena errimea.*

– *Baina, Ferrol! Abadeok be apur bat bultz edo tiratu edo zeozer egin beharko joagu, eztok?*

– *Ni ez najagok egitearen kontra, baina badakik nire lema zein den: "Laissez faire. Lasai, Ferrol!". Seminarioan, urteak emon najoazen horrelaxe zelakoan. Gero, frantses-kada horrek zer esan gura eban argitu nintzenean, biak zegozela ederto pentsatu naioan: "Lasai, Ferrol!". "Utzi lasai jenteari".*

– *Bigarren hori itzulpen libregeia ez dok?*

– *"Utzi egiten" esan gura dot? Horretantxe ahalegintzen nok, eta uste joat ez dela gitxi. Hemen zer zabaldu asko jagok oraindino.*

– *Egiten uzteak ez jok kentzen norberak be zeozer egiterik.*

– *Ez jinoat ezetzik. Egin gura dozuela? Egin! Nik ez joat inoren arerio izan gura. Jenteak halan edo holan ibili, ezkondu, bizi, hil gura dauela? Nire zeregina ateei zabaltzen uztea dok, prudentzia baten barruan.*

– *Ate guztiak ez dozak berez zabaltzen.*

– *Niretzat nahikoa dok trabarik ez ipintzea. Ba al dakik abadeok zenbat gauza estutzeko, baita lotzeko be, ahalmena daukagun?*

– *Batzuetan, ezin dok saihestu goikoen ala behekoen alde egitea.*

– *Oh! Goitik datozen aginduak eta paperak nire eskuetatik majo nasaituta pasatzen dozak. Beti-beti be ezin dok horrela jokatu, ze hemen otso handiak jabilzak inguruan, baina ez joat bildurrik izaten jenteari esateko: "Parka! Oraingoan ezin da. Ea hurrengoan ahal izatea gertatzen den".*

– *Gagozen postuan eta gagozen diktadura politiko-moralean, kostako jak denekin "laissez faire" aplikatzea.*

– *Ezin denekin be gurago joat izkin egin, aurrez talkatu baino. Alkatea gazteen aurka dabilela? Utzi honeei eurena egiten, haren aurka agertu barik.*

– *Bai, alkate edo dena delako, bera zuzen etorri ezik abadearen kontra! Edo kontuak eskatzera, edo auskalo zertara.*

– *Orduan ikusi egin behar. Ni ez nok lar balientea. Orain arte, konpromisoan aurkitu nazenean, tonto-planta egiteak balio izan jeustak libratzeko. Egik kontu azken aldakuntza-fasera helduta gagozela. Ez dok guzurra be, ze hurrengora pasatu arte, beti dok azken fasea. Zer egin behar joat? Utzi urari korritzen. Berak topatuko jok bidea. Geldi dagoenagaz ez hasarratu, eta egiten dauenari ondo esan.*

– *Eta txarto egiten dauenari?*

– *Ez ondo esan, behintzat. Orain arte holantxe konpondu izan nok, eta jenteari maite nauela uste joat. Hori be behar joagu munduan, beste maitasun mota batzuk galazota daukaguzenean.*

– *Lema frantses hori arlo guztietan aplikatzen badok, horretan be ez haz hi bapezean ibiliko.*

– *Hori ikusiko joagu hurrengo konfesinoan, higana joatea erabagitzen bajoat.*

– *Neuk gurago ezetz, 'in articulo mortis' ez bada.*

– *Ez, koño, mundu hau posibleetako onena baldin bazen!*

– *Onena ala bakarra?*

– *Alderik bajagok? Mundua zelakoa den bakotxak erabagitzen ebala ikusi nebantetik, ezin joat filosofietan pentsatzeko astirik hartu.*

– *Dokumentu hau sinatzeko be ez?*

– *Gurago ezetz. Orain, hasarratu barik amaitu dogunez gero, tragotxo bat egin behar joagu.*

.....

Gehienetan 'abade gazteak' bezala izendatzen zen deiturak (gaurko abade gazteak, oraingo abade gazteak) ez zuen zuzen adierazten multzoaren konpo-

sizioa. Egia izanik gazteen presentzia nagusia, apaizen kasuan, kontsiderazio hori asko luzatzen zen, 35-40 urte ingurura arte, muga bat jartzearen. Apaizgoa bera gaztetasun aurreratuan estreinatzen baitzen (24-26 urte bitartean), eta 'abade zaharrak' asko eta adintsuak zirenez (*sacerdos in aeternum*), kontraposizioak balio zuten. Bitarteko multzorik, 'abade helduak', esaterako, nekez entzungo zen. Klero sekularra, beraz, bi multzotan banatzen zen: 'abade gazteak' eta 'abade zaharrak'. Adinaren kontzeptua ere nahiko erlatiboa zen. Zerbaitetan eragile edo aurrerakoi agertzen zena gazteen sailean kontsideratua izango zen, eta, alderantziz, tradizionala edo immobilista, zaharrenean, nahiz eta gaztea izan. Adin biologiko hutsaren arabera, bazen mugimendu hartan heldu ez gutxi, eta zaharrak ere batzuk. Hortik aparte, kontuan izan behar da klero erregularra ere (fraileak edo erligiosoak) partaide zela mugimenduan, era neurtuagoan bazen ere, zailago baitzuten. Komunitatean bizi izatean (komentuak), banan eta geure kabuz bizi ginen apaiz sekularrok baino askoz kontrol eta disziplina hertsia goen menpean bizi ziren.

Abade gazteena baino zehatzagoa zen 'abade errebeldeen' kontzeptua, adinetik at, multzoa hobeto islatzen zuena. Deitura hori ere asko erabili ohi zen, prentsan eta estamentu ofizialetan, batik bat. Errebeldiak nahiko gama zabala hartzen zuen, zerbaitetan ofizialtasunaren kuestionatzaile, edo herritarrekin (gazteekin, batez ere) ulerkor agertzetik, jarrera radikalagoetaraino.

Mugimendu berriaren hitz klabea, bat hartzekotan, 'konpromisoa' izan zitekeen. Konpromiso hori, gehienbat, Elizaren inguruan edo babesean bakarrik antola zitekeenez gero, eta jazarpen politikoa saihesteko, eduki erligiosoa ematea komeni zenez gero, kontzeptu osoa 'kristau konpromisoa' izango zen. Zerbait aportatu nahi zuen gazteria *Joc, Hoac, Eskautak* eta horrelako kristau erakundeen inguruan antolatuko zen. Apaiz euskaldun gehienon kasuan, *Herri Gaztedi* izan zen geure gogo eta antolakuntza nagusia bertan jarri genuena. Langile mugimenduari buruz, biziera hartako apaiz langileekin bagenuen harremana, baina, eskualde euskaldunetan, motibazio soziala gehienbat mugimendu kooperatiborantz lerratu zen. Orduantxe izan zen kooperatibismoaren gorakada ikusgarria. Hala ere, apaizik nolabait errebeldeenek, mugimendu interesgarria zenik ukatu gabe, eta zenbait kasutan, oso parte aktiboa harturik ere, kapitalaren ekimena gehiago sumatzen zuten langileena baino, seguruenik, kooperatibismoaren bultzatzaile zintzoengan ere, arazo nazional-kulturalen kontzientzia oso kamuts zekustelako, muzinti ez zenean, edo argiro kontrako. Espiritu kooperatiboa bultzatzeko prest egon arren, emaitzeekin ez ginen hainbeste liluratu.

Espiritu hori baserriraino ere jaitsi zen, eta neuk, behintzat, horretan berotasun handiagoa jarri nuen, hura ez baitzen hainbeste, bitarteko eta helburuetan, ka-

pitalaren mugida bat (leku onean!), bizimodu urri eta nekagarri baten aurrera-nahi bat baizik. Elkartasun espirituaeren aplikazio bat, oso eremu zailean. Han-hemen, nekazari langileen kooperatiba txikiak sortzen hasi ziren. Mirari bat iruditzen zitzaizkigun, eta halaxe bisitatzen genituen. Ideia zabaltzen ere saiatu ginen, baina benetako mirari bat izan zen, hots, gutxi zabaltzekoa eta gutxiago errepikatzekoa. Ez dakit haietako batek ere hirugarren mileniorik harrapatu zuen. Markinako Urberuagan, nekazari-eskola bat sortu zen, Markinako lanbide-eskola adar gisan, uste dut. Gazteak biltzen ziren ikasle (neskak ere bai, behingoz!), eta arduradunak ere gazteak ziren, neskak, gehienbat. Niretzat, ez dut esango 'gerlariaren atsedena', baina oasis indargarria izan zen hura, pozik joaten nintzena, pozik hartzen ninduten ustez. Baserriagazko idealismoak, bere bukulismo eta guzti, errealismorik direktoenagaz bat egiten zuen une intelektuala izan zen niretzat. Diktaduraren ezpararik itsuenaren azpian, geure buruengango konfiantzaz eta baikortasunez hanpaturiko aroa bizi izan genuen, errealtatea, gure ilusioen muga baino areago, euron proiektio bihur zitekeelakoan. Ilusioaren edertasuna ez baitatza hainbeste lorpenean, nola sentipenaren beraren bizipenean.

Konpromiso hitzaren barruan, konpromiso politikoa eta soziala zeuden, gehienbat. Konpromiso politikoa, negatiboki, konpromiso antierpresiboan zentratzen zen batez ere, diktadura inplakable batean bestela ezinezko zenez. Era positiboan, euskara, kultura, prestakuntza intelektuala (Euskal Herriaren historia, mitologia, geografia...), folklorea bera, dena bindikatzen genuen osotasun bakar bezala. Eta dena sartzen zuten, berehala, zer politikoa identifikazioan. "Baina zuen asmoa, zuen helburua, politikoa dok, funtsean". Horretan asmatzen zuten, noski. Aurkezpena dekoratzen, disimulatzen saiatzen baginen ere, gure asmo argia eta direktoa Euskal Herriaren eta gizartearen pizkundera eta askapena zen, maila guztietan. Elizari zegokionez, asmo berdin argia eta direktoa zen bere kolaborazionismoaren salapena, eta herritartzearen aldarria. Gure kasuan, euskalduntzea. Baina, oro har, Eliza ofiziala irrekuperabletatzat jotzen zenez gero, jakinki bultzatuko genuen halako desobedientzia erligioso bat. Eliza ofizialek itxaron ezin zena, are gehiago, frontalki oztopatzen zuena, zuzenean aplikatzen saiatuko ginen geure elizetan eta herrietan.

- *Badaki berorrek Lekeitioko bikarioak zer esan eustan?* - ausartu zen adierazten Amorotoko emakume bat, eurentzako berbaldi batean-. *Gizona sabaira bialtzeko!*
- *Ez zeuntsan ezer erantzun?*
- *Jakina! Nik ez nebala gizonik hartu, sabaira bialtzeko!*
- *Beharbada, harek esan nahi ebana izango zen* -hasi nintzen neure hierarkia justifikatzeko plantan- *jarraitzeko zeuk be atzetik, sabaian nasaiago moldatuko ziniela eta.*



– Sabaiak ondo aprobatuta gagoz gazteagotan! Lasto eta zaskara, beroa bai, baina eroso ez da izaten. Ez genduen gitxi kostata estreinatu, ezkontza-egunean, ohe barri-barria.

– Esaiozu bikarioari gizona sabaira bialtzen ez zarela ausartzen, andrea ohe barran bakarrik gelditu dela abadeak jakitun egonik.

– Ene ama! –hots egin zuen beste emakume batek, mantal barrena begietara jasorik–. Zertara etorri gara hona? Zerura bidea inpernutik bilatzera?

– Hori be esan najotsanan –ohe barridun emakumeak–. Abadeek eurek derrigortzen gaitueela inpernura.

– Beno! Orain neu naz zuen abadea, eta nik bialduta behintzat, ez zarie joango.

– Lehengoan, aita..., beno, izenik ez dot emongo, baina fraile bati sermoian entzain neutsan –beste emakume batek– ez fidatzeko inpernurik ez dagoela esaten hasita dagozen abade txotxoloekin.

– Fraile hori nor zen eta norgaitik ari zen kalkulitzen dot. Inpernua egon leiteke, baina zuentzat, ziur ezetz. Komentuan baleiteke hango barri era direktoagoan jakitea.

.....

Gorantz edo beherantz maiz pasatzean, bertako baselizan izandako aste osoko gogo-jardun batzuek gogoratzen hila arte libratu ezingo naizen auzoa zen herrigunetik mendaterantz kilometro batzuetara. Gogo-jardun haiek zertarantz joko zuten ez nuen askorik susmatzen, emakumeentzako berbaldia honela hasi nuen, gutxi gorabehera:

– Jaunaren bakea zuekin bedi, gogo-jardungile bihotzekook. Izan zaitezte ondo etorriak Jaunaren berbara, auzo eguzkitsu honetako etxeoandre nobleok. Zuñ parroko agurgarri Don Terentziok esan deust: "Auzo horretan, egin heuk nahi doana". Neuk nahi dodana, aste osoan. Parrokiaren eliza nagusian bildur zen, antza, predikua abade gazte baten esku uzten, kaleko jente inportanteren bat asaldatuko ete jakon. Baina berba be, azken aldion, apur bat errebeldezen hasia denez gero, pozik bialdu nau goiera honetara, kasik maleziaz, esango neuke, nahi dodazen aproba guztiak bertan egin daidazen. Horixe ulertu neban, behintzat, berari be esan neutsan moduan. Eta horixe pentsaturik etorri naz, harik eta, zuek ikustean, hots, nekarren ideia abstraktu samarra, bat-batean, emakume haragizkoekin konfrontatu behar izan dodanean, beste interpretazio bat bururatzen jatan arte, suposatzen baitot Don Terentziok zuek ezagutzen zaitueela ni ezagutzen nauen beste. Baina interpretazioa bikotxa izan daitekeenez, dudan nago nondik ulertu. Auzo honetan neuk nahi dodana egiteko askatasuna emotean, ez dakit esan nahi eban hain zariela

jente zintzoa eta debotoa, ezen, edozer esan arren, ez dodala lortuko zuek perbertitzerik; ala hain zariela jente okerra eta demoninozkoa, ezen, bikainenak esan arren, ez dodala lortuko zuek konbertitzerik. Erdialdearen bildurrez bazter batera bialdu nauelako izan bada, ez izan dudarik nire 'nahi dodan guztia' zuen onerako izango dela. Ostera, auzoaren izaera posible bikotx horregaitik bialdu banau hona, komeni jat auzia lehen-lehenik argitzea, parkaezineko akats pastoralak bailitzateke aingeruei demoninotzat edo demoninoei aingerutzat berba egitea. Eta hori, jakina, ezin dot argitu, zeuen laguntasun barik.

Isilik gelditu naz. Ondorengo isiltasuna ez da 'entzungarri' dela esaten den horietakoa. Hutsune totala da. Baseliza txikiaren ikuspena ere uzurtzen, txikitzen doa. Aurpegiak espresioak bakarrik zabuntzen dira zerbait, sagar flotanteak eguzkitan bezala. Zorionez, hutsunea bere baitan itxi aurretik, emakume batek hots egin du:

– Zer egin behar dogu? Geu berbetan hasi?

– Ez dot laguntasuna eskatu, zuen mututasuna analizatzeko.

– Bizi guztia elizan isilik egoteko entzuten emon ondoren, orain berbetan hasteko agindu behar jaku?

– Agindu ez. Eskatu bakarrik.

– Eta gogo-jardunak geuk emon elkarri?

– Esperimentu emonkorra izan daiteke.

– Horretarako ez zegoen misionistari ekarri beharrik. Gu ondo ikasita gagoz elkarri barrabaskeriak esaten.

– Hasi gara apur bat argitzen, auzo honetan barrabas-jentea dagoela ulertu behar badot.

– Don Terentziok gugaitik berorri horrelako informazioak emon deusazenez gero, itaundu beio, kaleko jente eleganten horren artean, zenbat praktatan dabilzen santokristoak, eta zenbat gonatan, andramariak.

– Kaleko barri badakit apur bat. Nik zeuena jakin nahi neuke, ahal balitz zeuen ahotik. Hirugarrenen bitartez datorrena sinistea badakizue arriskutsua dena.

– Gugandik zuzenean be, ez dakit sinistekoa izango den, jauna –dio lehenengo emakumeak, aurrerengo ilaran zutitu eta atzeko guztiei begira–. Hemen, deklaratu behar nazen mirari handi batean bizi gara.

– Zin dagizut ez dodala inon ezer esango.

– Ez da berorregaitik, geugaitik baino.

– Jakiteko irrikan jarri nozu, nire etorria zozertan edertu ahal balei.

– Ez da inon aurkezteko miraria, jauna.

– Esain, esan behar badon! –hots egin du lau ilara atzeragoko emakume batek.

– Esango jonat, ba! Gure miraria da, jauna, bista ona daukagula, eta elkar ikusi

ezina.

- Oh! Hori kalean be gertatzen dela uste dot.
- Kalean, ikusi ezina baino gehiago, lar-ikustea dago. Guk, hemen goian, gizon lo-rrin samarrak daukaguz, baina, lehentxoago-gerotxoago, bakotxak bere ohean lo egiten dau.
- Gizonekin gero egongo naz. Ordu honetan, andrena interesatzen jat.
- Androk be badakigu behar dena egiten, inori txistadaka ekin barik.
- Badirudi, zenbat eta gorago, jente sanoagoa dagoela herri honetan.
- Sanoenak, zeruan! Pentsa zertaraino, hilezkorrak baitira.
- Horretarako -txanda kentzen dit beste batek-, inpernuan askoz sanoagoak egongo dozan, su eta guzti bardin irauteko.
- Urruntxo ez al gara ailegatu? -galdetzen dut.
- Guri berbetan uzten badeusku, laster aurkituko da bueltarik aurkitu ezinda.
- Ez da berau galtzeko lekurik txarrena, astebetean bertan ibili behar dodanez gero.
- Berorrek esan nahi dau gatxa dela hemen astebete egitea, galduta izan ezik.
- Galtze zoriontsua, zuentzat aste gogoangarria izatea lortuko banau.
- Horretarako, hobe dau berorrek berba egin, ze guk, elkarrenak entzuteko, urte guztia daukagu.
- Nik berba errazago egiten dot, artajorran baino. Halan be, tarteka, gustatuko litxakit denok berba egitea. Eta egiteko nagirik ez dozuela dirudienez, forma-kontu bat aitatu nahi neuskizue. Gizaburuagan eta Amoro-ton, zuen moduko emakumeek, berorika barik, zuka egiten deuste. Hemen ez daukazue hareek baino gitxiago izan beharrik, eta neu be ez naz han baino gehiago.
- Arteko ohitura guztiak lehenengo egunean aldatzen badoguz, ez dakit aste guztian zeri ekin behar deusagun.
- Aurkituko dogu zeri ekin. Nire asmoa da aste gozo bat igaro daizuen, merezi dozuen moduan. Gitxienez, atsedean apur bat, ze aurpegieta igartzen jatzue, eskue-tara begiratu beharrik barik, zer bizimodu lantsua daroazuen, argitik argira, eta, se-guruenik, ilunari be zati galantak kenduta. Arratsaldeko lauretan hasita, jesarrialdi lasaigarri bat opa deusuet, obligazino sakratu baten menpean jartzeak emoten dauen sendotasunean. Atsedenez gainera, atsegin mental bat eta on espiritual apur bat jadetsiko bagendu, zer besterik eskatu geinkio garizuma aurpegi-ilunari?
- Nago aurtengo gogo-jardunok, "damu dot, Jauna" barik, "eskerrak zuri, Jauna" kantatzen amaituko ete doguzen.
- Horixe, hain zuzen! Ikusten, berbetarako aukera emonez gero, zelako arrazo-eleganteek urtetan dabent?
- Don Terentziari ondo begitanduko ete jako misino penitenteak gozamen bihurtzea?
- Don Terentziok ezagutzen nau, eta badaki bera ausartzen ez dena nigan deloga-tzea berak sentitzen dauena aurrera eroateko modu on bat dela.

- Ha bera be latza izan da gero!
- Izango zen, berak be autortzen dauenez, baina, aspaldion, asko aurreratuta dabil. Fedeak mendiak mogitu badaikez, borondateak harri handiak iraultzen ditu.
- Hemen ezer mogitzea baino gehiago ikusten da mogitzen denari hankak moztea. Berori be, beno, zeu be, ibil zeintekoz argi. Honeek ez deusie gerizari be parkatzen gero!
- Gauza bat daukagu oso alde: kontzientziaren gordetasuna. Hain zuzen, bera da gure bizilagun nagusia, eta bera da gure nagusi printzipala. Bildurrerako motiboek agiriak izan behar dabe, astakeria arbitrarioak barne. Kontzientzia, ostera, inork igarri barik aska leiteke. Berak nahi badau, kontzientziarentzat ez dago diktadura-rik, ez militarrik, ez moralik. Beste kontu bat da kontzientzia horren arabera bizi izaten utziko deusueen, baina hori gero etorriko da. Aste honetan, gogoak apur bat askatzea, edo aska leitekezela ikustea, eskerrak emonez amaitzeko motibo handia litzateke.

Iluntzean, gizonentzako berbaldian, parrokoaren aldetik, auzo hartan nahi nuena egiteko askatasunaren berri eman ondoren, euren ere, emakumeak baino gutxiago ez zirelakoan, hizketarako bidea proposatu nienean, entzule bat berehala hasi zen esaten ezen, bizi ginen estura moralean eta 'bestean' (Franco!! Franco!! izango zen haren buruan), nahi dena egiteko aukera urrietako bat ez baliatzea Jainkoaren kontrako eskergaitz-bekatu larria litzatekeela. Auzoan zer jende mota ote zegoen, emakumeekin guztiz argitzeke gelditu zen auziari buruz, "denean legez, denerik" esan zuen batek, baina proportzioan zehaztasun txiki bat eginda: "badaezpadakoetan gehiago badabaikoetan baino".

- Eta neure burua zein multzotan dagoen ez dakit -gaineratu zuen.
- Hori ezjakin handia izatea dok -eraso zion ondokoak-, berba doiago bat ez emotearren.
- Esan joat hemen denerik gagozela. Batez be, besteei zer jagoken jakite kontuan.
- Norbere burua ikustea gatxa dok, izan be -beste batek.
- Ikusia sinistea gatxagoa! -hurrengoak-. Santo Tomasek ez joan horrelako zeozer egin?
- Hainbesterik ez -zehaztu nuen-. Ha prest zegoen zekusena sinisteko.
- Hemen denok elkar ikusten dogu, eta ezin dogu sinistu antzekoak garenik.
- Denerik egonez gero, gatxa dok antzekoak izatea.
- Antzekoak, baina tarte txikira. Ilunabarrean argitik ilunera legez, txoriburutik artaburura zenbateko alde jagok, ba?
- Hemen, jauna -jaiki zen solemneki artean isilik zegoen bat-, guri berbabidea emonda, argitasun txikia lortuko dau. Halandaze, hobe izango dau 'nahi den' hori egiten lehenbailehen hastea.

– *Hori esateko, zutundu egin behar izan dok?* –bere bankuaren beste muturrean zegoenak.

– *Ondo dago!* –moztu nuen bazetorrela iruditu zaidan ikamika–. *Nire gogoa da zuek iluntze on bat eta, oro har, aste gogoangarri bat igaro daizuela. Andren kasuan, uste dot martxa ondo hartuta gelditu dela. Zuekin, ez neuke gitxiago izan daiten nahize, denerikoen artean alde txikiak ala handiak izan, bistan da inork ez dozuela behar egiten egunean dozena bat ordutik behera. Nik ez zaituet aberastuko, baina bai ahaleginduko naz zueri emoten aberatsek merezi ez daben kategoria.*

Geroztik, sarritan pentsatzen nuen, orduko elizkizunetan, hartara jarritz gero, hain erraz lortzen zen hizketa ugaria, handik urteetara, zergatik hainbeste kostatzen zen beste bilera mota batzuetan, politikoetan batik bat, demokrazian omen geundenean. Haripunta multipleak eta ez hain ebidenteak lituzkeen erantzuna gorpuztuko nukeela uste dut, baina auzi horren zehaztapenak nagitzen edo aurretiaz nekatzen nauenez gero, hobe izango dut, argibide historikoek bat ere zentzurik ez dutela gelditu naizen honetan, nostalgia positiboen sentipen soilean nabigatzea.

Errazena haurrekin zen, beti ere goiz erdian hartzen nituenak eurok. Orduko curriculumean, garizumako gogo-jardunek, eta, oro har, apaizaren edozein eskakizunek, lehenetasun eskolarra zuten. Aipatzen ari naizen auzoan, maistra prest zegoen haurrak goiz guztirako uzteko, baina, eskolara alferri joateari etxeetan zitzaion gorrotoaren jakitun, azken ordua eta bazkal aurrea bakarrik baliatu nituen. Haurrek ere aste berezi eta maitagarri bat bizi zezatela nahi nuen, ondo bainekien, neure esperientziatik, haurtzaroaren hustiakera aberatsena oroitzapen onen pilaketa zela, hil arte iraunkor eurok, denbora joanago eta presenteago. Nagusienkin, kontzientzien askapena izan zitekeen astearen ideia nagusia, lar esplizituki ez adierazia bezain implizituki bilatua. Haurrengan, ostera, kontzientzien askatzea zein lotzea berdin erraza zela jabetua nintenez, jolasean eta ipuinetan eman genituen egunak. Ipuin biblikoak euskal ipuinekin lotuz, hauen ezagutza eta sentiera aise indartzen zen haien garrantzian bermaturik. Euskara biblia baino zaharragoa zelakoa beste ipuin bat gehiagotzat hartzen zuten, eta ez nintzen gehiegi tematzen saiatu. Baldin, oraingoz, zenbait nobedade txundigarri airean gelditzen baziren, irrisiko zitzairen eguna, egiatasun zientifikoaz harrotzekoa.

.....

Kaixo, itsaso handiegi, ni baino mugatuago hori! Bizitokia eta biziraupena segurtatutzat utzi ditudanean, noiz arte zuri galdetzea alferri izango den eta

neuri ere askorik ardura ez didan moduan, lasai hitz egin genezakeela iruditu zait. Badakizu, nik zu lehenengoz ikustean, emozioaren hanpatze amaigabetzat sentitu zintudanetik, nire grina obsesibo bat beti izan dela zugaz buruz buru aurkitzea, bi maitale jazarri bezala. Ez genuen aise lortzen, beti baitzen norbait edo zerbait, zure baldintzatat ulertzen nuen intimitate infinitua hausten zuena. *Zelan izan leiteke –galdetzen nizu– jenteak zu desiatzea jentea dagoenean bakarrik, eta inor ez etortzea, bakarrik zagozanean?* Ni etortzen nintzen, baina nire jokaera ere ez zen guztiz zintzoa, zail egiten baitzitzaidan zu eskusiboki sentitzea, alboan maitaleren bat nuela irudikatu gabe. Zutaz beste presentzia orotatik garbitzea lortzen nuenean ere, ezin nuen ekidin zuganako kontenplazioa sentitzerik, nire gogamenean zegoen edo egotea desio izango nukeen norbait jakinarean edo multzo imaginario baten ikuskizun gisan ez bazen. Uste nuen, zugaz zenbat bakartiago, hainbat puruago eskaintzen nintzaiola behatzaile posibleari, eta hainbat efektu maitekorragoa jasoko zuela berak. Halako zerbait nola mistiko estasiatuen sentipen gorenki harroa bezala, non exzitatzen diren irudikatuz euren trantzearen erakusketak nolako bekaitz jiluratua sortuko duen miresle debotoengan.

Orain, itsaso zenbat handiago hainbat mugatsuago hori, ez dugu inor inon irudikatzerik. Jo nezake atzera oroimenean, nongo izaki bertan bakarrik existenteek ingura nazaten errazago litzaidakeen oraintxe ere, euretatik libratzea baino, baina nago lortua dudala, behingoz, sentimenduak adimenari darraizkion. Hemen gara biok aurrez aurre, buruzburutasun oztopaezinean. Ez niri galde zergatik zauden hor, zergatik nagoen hemen. Gaude. Ez daukat zu zeharkatu beharrik, osorik goza zaitzadan. Ez daukazu nire bila gainezkatu beharrik, osorik murgil nakizun. Jana damaidazu. Emozioa damaidazu. Maitasuna ere baietz uste dut. Merezi izan du.

– *Heuk zer emongo deustak?*

– *Aizu! Nik ez zaitut hizketarako gura.*

– *Heuk esan dena, eta ni isilik?*

– *Nik hitz eta zuk hots. Horrelaxe ez al gara ulertu beti?*

– *Hori amaitu zoan. Fenomeno batek hi jo bahau, nik ezin joat aparte ibili.*

– *Hori beste fenomeno bat litzateke niretzat.*

– *Dena dok fenomeno bakarra. Bestela, ez hintzen nigaz berbetan hasiko.*

– *Ezin naiz libratu elementu naturalak pertsonifikatzeko jite zaharretik.*

– *Jite gordegarría, koherentea izanez gero.*

– *Ez dot ulertzen.*

– *Maitasuna ez al dok oraintxe aitatu? Nire maitasuna gura badok, gehiago entregatu behar haz. Ez, hankatxoak busti eta ospa.*

– *Dzanga be egiten dot.*

- *Ur mehean eta belauniko, penitentea purifikatzen legez.*
- *Zer eskatzen zabilaz?*
- *Maitasuna irabazi egin behar dok. Gitxienez, San Nikolas irlari buelta emon behar deusak.*
- *Igeri ez dakidala?*
- *Zelan, ez joat esan. Potinak eta txalupak nahi beste daukazak portuan, motordunak zein bakoak.*
- *Et, et, et! Ni ez noa ur handira, beste barik. Ez da zugazko mesfidantzarren, baina haizeagaz be berba egin behar da.*
- *Heuk jakingo dok noiz eta nogaz, irla hortxe egongo dok. Ez joat uste asko eskatzea denik, beste zereginik be ez daukak eta.*

Sumazen nuen itsasoak zer eskatuko zidan. Lekeitioko tala-muturreko faroaren azpitik, San Nikolas irlak harrikada batera ematen du, baina apenas inork inoiz lortu duen, nahiz eta badaitekeen ur-azalak, egun argiz, zerurantz jaurtitzen dituen isladek harriaren ikuspena desbistatzen dutelako izatea, distantzia batetik harantz. Egun ilunez, lekeitiarrek badakite harrika hastea alferrik dena, nagiak jaurtitzen laguntzeko ez bada, baina horretarako apur bat nekatu egin behar da. Garai bateko arkuariak lortzen ei zuten irlaraino iristea. Zaila da konstatazio argirik aurkitzea, geziek, aipatu harrien arazoak gainera, labarra jotzean, ondo jaurtiak izan baziren, uretara errebotatu behar baitzuten, seinalerik utzi gabe. Gaizki jaurtiek, edo bidean okertuek, bistan da ez zeukatela zer eginik. Habailariena sinesgarriago izan daiteke, Dabidek Goliathi bekoki erdian begi bat ireki zionetik, garun koralezkoak ikusteko.

Itsasoak zer eskatuko zidan presentitzen nuenez gero, aspalditik nihar duen pentsaketan, eta uste dut plana osatuzat jotzekoa dela, bihar bertan burutzeko moduan, itsaso inprebisibleak kontrakorik agintzen ez badu. Badakit, gure amak esan izango zukeenez, zorakeria bat dela, 'temeritate negargarria', hitz hori ezagutu izan balu. Haizeagaz zuhaitz erpinetara igotzea izan ohi zen bezala, hegaketaren sentsazio zorabiagarria sentitzearren, nahiz eta gero, unean bertan, izuaren larritasuna denari nagusituko zitzaion, baldin, hain zuzen, horixe sentitzearren ez bazen. Nola erakar nazake izugarriak hainbeste, neu honen koldar izanik? Kontridikzio hori, beste asko bezala, esplikatzen saiatzeari aspaldi utzia naiz, eta ez dut denbora handirik galdu, San Nikolas irlari itzulia ematearen aurkako arrazoiak pilatzen. Bai, ordea, beldurraren araberako segurantzaz guztiak zorrotzen, halako eran, non ustezko gertagai larri bati zirritu guztiak ixteko sistemaren asmakuntzan plazer irresistiblea aurkitzen baitut. Plazer horrek, gero, gertaeran bertan ere aplikazio errealik izan ez badu, porrot-min sendaezintzat gelditu ohi zait. Egia izanik beldurrak, aldez aurretiki, prekauzio gehigarri guztiak harrarazten dituela eta

horixe komeni dela, ez zait batere gustatzen, aldez geroztik, prekauzio bat edo batzuk alferrekoak izan direla aitortu beharra. Arrakasta eta, beraz, gozamina ere osoak izan daitezen, prekauziorik fantastikoenak zientifikoki beharrezko gertatu direla egiaztatu behar dut. Batzuetan, neure bildurrari halabehar esterno bat bilatu nahian-edo, desio puntu bat ere izan dut itsasoak biribilki etsiaraz nindezan, baina uste dut plana garantia osokoa dela, itsasoak berak eskatzeak sobera adierazten duenez. Nola eman liezaioke itzulia San Nikolas irlari igeri ez dakien batek? Ur handia guztiz arrotz zaion batek? Preso batek lurpetik nola ihes egin zezakeen bezain galdera exzitante horrek hilabete intentsoa igaroarazi dit, pentsaketak prestakuntza bihurtzen. Badakit marinel batek era sinpleagoak eta ebidenteagoak aurkitu litzukeela, baina ez daukat neure buru menditarragaz diskurritzea besterik, zeina, bestalde, itsasoari buruz, edertasunaren sentiera salbu, ez den askorik aurreratu zuhaitz puntetan hegaldi ustean kulunkatzen zen mutikoaren pentsaeratik. "Bateltxo bat kulunkaz itsas urdinean".

Portua betetzen duten hainbeste ontziren artetik, batel txiki bat hautatu dut, lagun bakarra tximinotan ibiltzekoa, nahiz eta nire hautua, seguruenik, izenak erabaki izango zuen: *Isuntza bai*. Urdaibaigaz leihan, Leketioko arraun-taldea gailen zebilenekoa. *Urdaibai? Zer dinok, madarikatuena? Isuntza Bai!* Ontzi guztiei izen horixe ipintzen hasi ziren, azkenean, erdiak erdiekin nahasteraino. Udalbatzak bando zorrotza kaleratu zuen, ontziak izen bereiztuetara itzularazteko. Lekeitiarren obediencia ohiki pasolaria harrigarriro findu zen okasio hartan, ez hainbeste bandoaren tonuagatik, gor-mutu batek iragarria izan zelako baizik. Badut motor txiki bat ere (nola ote dago bera?), baina argi daukat arraunean izan behar duela. Portu seguruan aproba guztiak eginak ditut, itsasoa lokartzen den egun horietako baten zain. Zerbaitegatik batela iraultzea balitz, gorputza kortxoazko txaleko gizen bategaz inguratzen dut, ez hasieran, hain arrazionalki nenbiletakoan, harrigarriro arinki egin nuen moduan (*ur hondoan egotea merezi heuke!*), flotagailu bikoitz urdin bategaz, hamalau urte nituela, hamahiru urteko neskatxo bat beragaz ikusi nuenaren antzekoa zelako. Zerbaitegatik zulatzen bazen, premia orduan normalena denez, zer egin behar nuen itsasoaren erdian, batelak eskutik alde ondoren, eustea lortua nuen arrauntxo bakarrari helduta? Kortxoazko txaleko ondo lotuagaz, ez dago horrelako arriskurik.

Eta itsasoari batela barrurantz eramatea otu balekio? Ez da horrelakorik gertatuko, irla guztia, distantzia seguru batera, zirga batez inguratzea pentsatua baitut. Gero, bateltxoak kulunkaz, barruko aldetik emango dut itzulia, eta komeni bada, ia prekauzio gehiegizkoz, batela beste soka bategaz atxikiko dut zirga zirkularra, balizak baliza. Balizak eta sokak Dakarreraino joateko beste utzi zituzten hemen. Hau da aberastasuna, dena alferrik denean! Nola burutu, ordea, irlaren in-

guru zirgatzea, berorren existentzia izanik aurrebaldintza, nire bateltxo itasora dadin? Hortxe burmuindu behar izan du, pasio handiz, nire burumolde menditarrak. Ehun metroko zirgaren mutur bat portuaren irteerari lotu diot, eta beste muturra, neure batelaren popari. Atzetik, atoiari, bigarren bateltxo bat daroat, *Terra marique potens* izenekoa (hain ontzi txikiari horrelako izena jartzeak zerbait izan edo izatekoak ginen amorrua izan behar du), beste hainbesteko zirga zati bi dakartzana, bat mutur batetik baliza gorri bati lotua, eta bestetik, hirurehun kiloko hormigoi puskari. Banoa bogan, astiro-astiro, emoziotik eta beldurretik zenbana duen bereizten zaila litzatekeen zirrara handikorrean. Bihotzak ere ez du disimulan pasatu nahi. Itsasoa lo dago, goiz erdiko egun argi-argitan. Iritsi gara zirgak eman dezakeen muturreraino. Atoi-ontzia irauli dut, hormigoi puska hondora joan da, eta baliza ur azalean gelditu da, zirgaren sobra handiz. Hobe da gehiegiz huts egin, gabezia baino. Ontzi iraulia, hutsik, bere posiziora ekartzen ez dago gaitz. Kargamentua neure batelean ekarri izan banu, hustean, iraultze horixe gertatzeko arriskua zegoen, neu eta guzti. Ez uste bigarren ontziarena berehala bururatu zitzaidanik, probabilitate beldurgarri hori nola gainditu ezin asmatuz nenbilela. Azkenean, bikaina inbentzioa! *Terra marique potens*. Batel popara lotuta datorren zirga muturra askatu eta balizari lotzen diot, ez, aurretik, beste soka bat batelaren popara korapilo askaezinez eta zirgara begiztan lotu gabe. Eurt, eta beste ehun metro haragorako kargamentu berdinarean bila. Itzulera triumfala iruditzen zait, marinelek balea arrastan zekartenean bezalakoa. Kaian inor ez dago begira. Begirik ere ez dago inon. Hormigoi puskek nasaratzen, gehienak diketik hautatuak, eta eurok zirgatzen, egun batzuetako lana izan dut. Hormigoizko arketa estalkiak ere ez ziren txarrak, zirgaleku eta guzti, txikiegiak baziren, hiru-lau elkarrak lotutako fardoak eginez.

Bigarren joanaldian, lehen balizari beste zirga bat lotu, eta boga, beste muturrak ematen duen uneraino. Hemen, atoi-ontzia irauli, ainguratzako hormigoi puska ondora, eta goian gelditu den balizari ekarri dugun zirga muturra lotu. Berriz ere, batelaren segurantza-soka zirgara begiztan lotu, ontzi iraulia zuzendu, eta portura. Bigarren itzulera triumfalagoa da, urrunagotik bainator. Gure amak ikusiko banindu! Hasi baizik ez naiz egin, ordea. Irlak talatik, portutik, hordartzetatik, ez du handi ematen, baina, arraioa! Goliath antropoidea atez jausi zen, antza, Dabid Isuntzako hondartzatik begira gelditurik, *'aitita makurra'*-ren forman. Hormigoizko aingurek geroz sakonera handiagoan atsedean hartzen dute, 40, 50, 60... 100dik gora, irlaren alderik barrukoaren parean. Itotzeko, bi metro nahikoa baditut, zer ardura dit 100 metro zein 100 kilometro izan? Portu aldetik edo ezkerretik bezala, Karraspioko hondartza aldetik ere lan berdinean dihardut, marea baxuegiak abiapuntu batetik bestera nabigatzea eragozten ez didanean. Halakoa, hondartzatik irlara ia oinez hel daiteke, maiz egitea maite dudana moduan, Goliathen begitik lehor-mundua nola

ikusten den probatzeko. Oso ezberdin, noski, mundu berdin-berdina izanagatik. Neure jite innato bat ere izan daiteke, txikitatik ohartu bainintzen nire ikuspena kasik objektuak berak baino gehiago erabakitzen zuela behatokiak. Horrexegatik ibiltzen nintzen zuhaitz guztietara igotzen, handik, bai nire bazter hurbil maiteak, bai paisaia urrun amesgarriak, nola ikusten ziren gozatzeko. Zergatik ote da itsasoak, sakonera batetik harantz berdina izan behar duenak, irlaren eskuin aldetik, beldur txikiagoa, kasik konfiantza maitekorra damaidala? Karraspioko hondartza sentiberaren xarma izan behar du, nire gogoa, inguru honetan betidanik, oroimen gozora edo desio bizira bulkatzen duena.

Iritsi naiz, azkenik, hilabetegarrenean, ezker-eskuinetik eramandako baliza lerroen azken bi muturrak elkarloturik, zirkulua ixteko une loriosera, irlaren osterik urrunenean, itsas eremurik irekienean. *Itsasoan ura lodj, ez da hondarrik agiri, neure laztana ikustearren, pasauko nintike handi*. Zeren bila menturatu naiz honaino, Karraspion edo Isuntzan etzanik, itsasoari *hator hona, kapaz bahaz!* erronka jotzea besterik ez neukana? Zirkulua azken aingura-harriagaz itxi dudanean, batel zamaria ur gainean berriro pal-pal jarri dudanean, neure batelaren segurantza-soka zirgara begiztan lotu dudanean, hor jo nau pentsakizun terrorifiko batek, egoera ezberdin bakoitzera prezisio zital osoz egokitzen dakienak: zertarako nituzke harrizko aingurak, zirgak, balizak, kortxoak, segurantza-sokak, itsasoaren lo gozoa, ur azalaren dizdikera ondulantea, eguzkiaren argitasun euforikoa, atmosferaren gandutasun hipnotikoa, une batez, gorputzaren bat-bateko apeta horietako bategatik, berton zorabiatuko banintz? Txalupa geldi-geldi dago, ur ezin geldiago baten gainean. Horrek itsasoaren hondorainoko ikuspen gardenaren pareko bertigoa damait, begiak itxita konpontzen ez dena, orduan arrain guztiak behetik eta hegazti guztiak goitik, neu estutzen ikusten baititut. Susmatzen dut nire bat-bateko barne krisi tektoniko hau zertatik heldu den. Uraren nirekiko domeinu absolutuak baino larritasun handiagoak jo nau, lehorrik inondik ez bistatzeko unera aurreratu naizenean. Lehen aldia da, neure munduaren gerizarik ere hautematen ez dudana. Atzean, urezko estepa amaigabe bat besterik ez dakust, ez dut ikusi nahi, non horizontean preszinditza bidezkoen litzatekeen, goiak eta beheak hutsune berbera osatzen baitute. Aurrean, tope egiten didan irla ezin dut lehortzat sentitu, bere alde malkarrak, beltzak (eguzkia porturantz bueltatua da), areago baitirudi belotzar bat aurpegi goseti bat ezkututzen duena, naufrago posibleak edo ameslari inkontzientek hurbiltzeko amorrutik bizi den munstroarena.

Badakit larrialdi honek ondorengo bizitza askoz intentsoki eta, batez ere, ohartukiago biziaraziko didana, mendi-balentria kasik irrazionalen egileei (8.000koak eta) gertatuko zitzaieen moduan, suposatzen dut. Horretarako, ordea, ziurtasuna behar da ez dela azken saiakera izango, eta horixe da, hain zuzen, orain

alderantziz sentitzen dudana. Beti sentitu izan dudana, baina oraingoan, 'beti' horren estatistika segurua ez dit balio. Inoizkoan ere ez dit balio izan, azkena izatearen posibilitatea ahalegin bakoitzaren propietate eskusiboa baita, baina nire esku ez zeuden faktore ezkutuen konfuentzia dohatsu batek, suposatzen dut, aurrera atera ninduen, *gehiago ez nok honelako esturetan sartuko! promes eginaraziz, baina sartu nok, ba, azkena izatear den honetan be!* Zelan mentura nintekeen honen astakeria premiagabera, hondar sentsualean etzanda, goiko eta beheko munduen kontzientzia bakarrak gozatzea besterik ez neukana? Dezakedan bakarra zorabioak eman arte ez itxarotea da. *Ea, arrauntxoak! Segi zeuen lanean, uretara jausita be ez daukazue itozkeko bildurrik eta.* Antzeko trantzeetan (zuhaitz-hegaldietan eta) salbatu izan nauen senak salbatuko ahal nau oraingoan ere, zeina, sugandila buztan-moztua bezala, miragarririko bikoizten zen. Nire kontzientzia izutua, buztan-moztua, noraezean histerizatzen zen bitartean, gorputzak bere martxari zerraion, harik eta, larritasuna oraindik zuhaitz puntan inarosten zela, oinak jauzian lurratzen ziren arte. Bertan –orduan bai!– zerraldo etzanik, arnasa ere klandestinoki hartuz bezala, gorputzak kontzientziari itxarongo zion zuhaitzetik jaitsi arte, berriro biak bat, tregoa suspargarri baten ondoren, zorion berreskuratua arriskatzen jarraitzeko. Bat-batean, benetako lehorraren mutur bat hauteman dut, Getariako sagua. Beste lau arraunkadatan, kostaren gortina guztia ireki zait. Horra Karraspio hondartza, beilegi eta ezta, berak ere inoiz estualdi larriak pasarazi zizkidana, sotanak, trikornioak eta larrugorriak tarteko.

Iritsi da benetako eguna, itsasoaren eskaria betetzekoa. Hain harro nago San Nikolas irla zirgatzeko buruturiko balentriaz, ezen, orain, lehen aldiz arrauntzera noan itzuli osoa huskeria bat iruditzen zait, itsasoari maite-aitortzan eskaintzeko. Egia da aurretik larritasun handiak, gehiegizkoak igarota naizena, baina horiek ez zaizkio maiteari kontatzen. Ez lehenengo egunean, behintzat. Gizarte lehiati hartan parte hartu nuen hainbat jokoren alderantziz, kasu honetan, prestatze ariketak askoz larriagoak izan dira benetako ekitaldia bera baino. Ez da hainbeste, balentriaren lorpenak kemendu naueko –zati bat horrena ere izan daiteke–, zirkuluaren barrutik nabigatzeak damaidan segurantzagatik baizik. Azken batez, beldurtzen nauena ez da itoztea, itsasoak erdirantz eramanez nazala baizik. Neure *Isuntza Bai* kaitik askatu dudanean, bigarren bateltxoak, nire zama-ontzi leialak, pena eman dit, iruditu baitzait adierazten ausartzen ez den inbidiaz gelditzen dela, itzuli definitiboan ez daroadalako. *Hator, ba, heu be!* esanez, neure batelaren popara lotu dut, hutsik oraingoan. Falta egin lezakeelako sentipen neurekoa baino gehiago dela uste dut bere leialtasunaren esker ona, baina biak izan daitezke. Izan daiteke, baita, ezusteko karino bat hartu didala ere, ez baita alferrik izan nire larritasun handien lekuko isil eta laguntzaile zintzo. Portuan hara-hona bat egin dugu, eta iruditzen zait, lokarria urpean, tirakada gabe jarraitzen didala,

ahatekumeak amari bezala, gehiago ez dezadan abandona eskatuz. Kai ertzean txakur nabar bati erreparatu diot, uretara saltatzeko dudana. *Hik be etorri nahi dok?* Ulertu duela dirudi, halako poz-artaziei eman baitie. Bakarrik gelditu naizenetik, animaliak jauzi bat hurrago daudela uste dut gizatasunetik. Kai kontrara hurbildu naizenean, txakurrak ez du dudarik izan bigarren batelera saltatzeko. Beharbada, ezagutu egin du, bere ugazabagaz itsasoratzen zenetik.

Bat-batean, kai ertzean begirada jaso dudanean, horra non topo egin dudana buru-lerro anizkun batez, ikusle ala partaide nahi ote ditudan galdez: bi txakur azeri antzeko, bildots bat, ahuntz bat eta bi ahume, hiru katu gorri-gorri, bi berde, oilar nartziso bat, eta hiru oilo hori, euren lelatasun proberbialari legokiokoen baino arreta jarraituagoan begiratzen didatenak. Bi txakurrek, taldean euren protagonismoa nabarmendu guran, nora goazen galde plantak egin ondoren, elkari muturretik uzkira xuxurlatzen diote, bat ere disimulu gabe: *Zoratuta jagozak!* Ulertu dut, baina galdetu diet, badaezpada: *Zeuek be etorri nahi al dozue?* Bietako batek, zeinetara dudatu ondoren, batel laguntzailera saltatzea erabaki du, lehen txakurraren ondora. Batela hurbildu diet, eta bildotsa, bi ahumeak, katu gorri bat eta oilar nartzisoa erreskadan saltatu dira batelera, pinguinoak uretara bezala. Gizatasunerantz beste jauzi bat gehiago bezala. Gainerakoek ez dirudi nahi dutenik, kaitik begirada muzintian. *Ondo jagok! Hemen bakotxaren nahiaz beste derrigorrik ez jagok.* Honetan, txerrikume bat obus txiki bat bezala inkrustatu da batelean, taldetik atzean gelditurik, zekarren abiada itsua kai ertzean gelditu ezinik, antza; edo apropos, beharbada, baina susmatu gabe batel bat aurkitzerik ura itxaroten zuen lekuan, lehen ere halako saltoak egiten ohitua, txerrien igerizko elegantiaren arabera, Jainkoak sorreran agindu zienetik: *Zoazte putzu txiki eta handi guztietan zehar, eta txundi ezazue mundua zeuen arte txerritarrez.* Hunkitu ere egin nau ikusteak nola abereon oroimen genetikoak Noeren kutxa miniaturan berritzeagaz lausengatu nahi nauen. *Eskertzen deusuet bihotzez* –hots egiten diet arraun bat tentetuz–, *baina baita eskatzen, portatzeko pozik bezain formal, intimitate behar den eginkizunera noa eta.*

Portuko bi dike-muturren bitartetik itsasoratu naizenean, plastada bat dantzut atzean. Txakur bietako bat uretara saltatu da. Hain abentura irekiari ez dio, nonbait, usain onik hartu, eta baterian atrakaturik dauden ontzien artean ezkutatatu da, esperientzia ondo zailduaren arabera. Gelditu den txakurraren zalantza ez da lagunari jarraitu ala ez, nire batelera nola saltatu baizik. *Ez, Txibiton, izena gustatzen bajak! Hi heure ontzian, lagunekin, eta ni neurean, bakarrik. Hau maite-abentura bat dok, eta ez joat ondoan inor jelskorrik behar.* Garbi ulertu du, nahiz eta onartzeko borondate urriz.

Boga serioan hasi baino ez, horizontean irudi deigarri bat hauteman dut. 'Kaioa', pentsatu dut lehenengoan, baina ezin du izan, itsas plataforma hori Bermeo parean baitago. Arraunak geratu eta hobeto begiraturik, emakume kolosal bat bereiztu dut, horizonteak gerritik ebakia; edo gorputz erdi uretan murgildua, ez dakit horizontetik honantz ala harantz. Giocondaren bisaia eta eskotea ditu, Fernando Beorleguik maskorrekin edo karramarroekin egingo ziokeen adatsagaz. Izaki errealean joateak izaki mitikoak itzultzera animatu baditu, dobleki irabazle irten ninteke, baina orain dagidan neurea lehenbailehen. Arraunei berriro eman diedanean, Giocondaren besoa seinaleginan iruditu zait. Ez dut inoiz pentsatu besorik bazuenik ere. Beorleguiren ekarpena izango da.

- *Et, et, et!* -dantzut jarraian, tinbre urezkoz, ahotsa irristan baletor bezala.
- *Et, et, et, zer?*
- *Barrutik ez! Zirkuluaren kanpotik egin behar dok itzulia.*
- *Orduan zertarako egin dot zirkulua?*
- *Zertarako, heuk jakingo dok. Zergaitik, neuk esango deuat: itsasoagazko mesfidantzagaitik.*
- *Noren izenean berba egiten deustazu?*
- *Itsaso nok. Aurpegia erakutsi eragin deustak, eta, halan be, ez haz fidatzen.*
- *Ez dakit igeri!*
- *Izara santua bezain bare najagok. Hodei izpirik ez dok agiri. Haizeari Bermeotik honantz ez pasatzeko agindua emona joat. Eguzkia geratu egin dok hire itzulia amaitu arte. Bigarren batela konsentitu deuat. Abere inozenteak laguntzaile dozak. Oraindino be segurantza-marraren barrutik nahi dok? Hori maite-aitortza baino gehiago maite-iraina dok.*
- *Tira, ba! Kanpotik ahaleginduko naz.*
- *Et, et, et!* -errepikatzen da ahots irristaria, soka korrikorra zirgara lotzen hasi naizenean-. *Ikutu barik! Zirkuluari ikutu barik!*
- *Zer ardura jatzu soka muskil bat lotu daidan, gidatzeko bakarrik?*
- *Begiak ez al dozak nahiko gida? Onak gajagozak ilunkeran elkartzeko!*
- *Zuek zer dinozue, gosez beste guztia jolasa delakoan bizi zarienok?* -galdetu diet bigarren bateleko adituei, eta baiezko keinuak iruditu zaizkit, ez dakit argi zeri-. *Ondo dago!* -diotsat horizonteko aurpegiari-. *Arrisku kasurako soluzinoren bat aurreikusit neike? Esaterako, aingura antzeko kako hirukotx hau, ur handirantz naraozula banekus, zirga-marrara txikotean jaurtitzeko?*
- *Onartuko deuat, bakearren, baina gero, itzuli guztian, ezelako arriskurik ez dela sortu gerta baledi, beste gurari bat onartu beharko deustak.*
- *Itzulia amaitutakoan, zeuk nahi dozuna. Aurrera?* -galdetzen diet abereei. Inork ez dio ezetzik-. *Abantean, beraz!*

Ura isil-isilik dago, eta saiatzen naiz arraunak injekzioa bezala sartzen, nahiz eta, sartutakoan, bihotzeraino sakatzen diedan, leher hadi hortxe! Batzuetan, neuk igarri gabe, atzean metro batzuetara etorri behar lukeen birbatela parean jartzen zait, aurea hartu nahian. *Zer, laguntxoak? Arraun ezkuturen bat ala? Et, et, et! Barrutik ez! Nahi badozue, kanpo aldetik.* Irla ostearen erdian, berriz ere zirkuluaren itxierako sentipen larri, hutsunezko berdina jo nau, lehorraren ikuspena guztiz ezabatu denean. Ortzemugako aurpegirantz begiratu dut, eta berak, buru osoagaz, aurrera-keinutzat ulertu dudana egin du birritan. Behin honainoz gero, ez dago atzerarik. *Boga, boga, marinela, joan behar dogu... popatik brankara.* Auf! Hor da berriz ere Getariako sagua, inoiz baino bakarrago, gotorrago, tontorrago. Kostagortina zerraduna ireki da, Karraspioko hondartza jurasikoa hor dago, eta hemen nator, gatoz, gaizki amaitzea miraria izango zatekeen abentura bat burutu izanaren aintza nori eskainirik ez daukagula, zorionez. Batela hondarrean enkailatu denean, taaato!, zuek ere egin horixe, oinetakoak busti barik, ahal dela. Txakurra hondarra jo aurretik dabil hondartzan zilipurdika, beti aurrea izateko grina antisozialaren arabera. Besteak ere saltatu dira, oilo txakilak barne, eta txerrikumearenak, epilepsia ez bada, zorionaren narrasmena izan behar du, induska eta ikasi gabeko garagarak egiten. Oilarra bakarrik gelditu da bateltxoan, lorontzi bat bezala, lorontzi gisan alda dezaten zain, jauntxo enperadore. *Hori baino ez bada, egingo deugu.* Banekien oilarrei ez zaiela ukitzerik gustatzen, eta hegazkada purrustatuan saltatu da, pisua arintzearren, luma mordoak ontzian utzita. Kukurrukuaren programa ere karelean utzita joan da. Eguzkia abian da, ipartxo gazia badabil, olatu mehea badator aparra hondarrean ehorztera, hurrengoari berria ekartzeko pozik ez kentzearren. Neu ere pozik nago, biolentoki pozik, gehiago ez dudalako itsas balentriengatik zoratu beharrik izango. Orain, horizonteko irudiak ezabatzea dauka, nahi bado.

- *Beste barik? Promes bat egin deustak.*
- *Bete dot. Itzulia zirkuluaren kanpotik izan da, zintzo-zintzo, ezeri ikutu barik.*
- *Ez al heuen agindu, ezelako arriskurik ez zela sortu gertatzen bazen, beste gurari bat beteko heunstala?*
- *Ni ez noa gehiago ur handietara.*
- *Oso gurari erraza dok, atsegina be izan daitekeena, hogeita bost graduko tenperatura kitzikagarri honetan.*
- *Zer egin behar dot?*
- *Etzun hadi ur mehean, biluzik, goranzko olatuak gorputz osoa estaltzeko eta beheranzkoak ez guztiz eskapatzeko moduan, burua zerbaiten gainera libratutik.*
- *Flotagailu bat daukat, bigun-biguna.*
- *Ipini bera burkotzat, eta zabaldu besoak gurutze santuan, olatu laztankorrek galzarbeetan pal-pal jotzeko moduan.*



Esandako moduan etzan naiz, irlaren eta eskuineko haitzen artetik, horizonte harrigarriro hurbilera, ia zapaltzailera begira, ezabatuko den beldur naizen irudi femeninoa, itsasoaren aurpegia, oroimenean itsatsi guran, ahalik zehazkien Olatu epelen goranzko fereken eta beheranzko freskuren intermitenziak uste dut zentzumen guztien atsegin batua antolatu nahi duela. Begiak itxirik, ubarroi ilara baten hegada bezalakoa ere neure parean nabari dut. Berrito irekirik, Giocondaren aurpegi borobillokoa aurkitu dut. Aldi batera, sfumato sakonerantz atzeratuz, Nefertiti erreginaren elegantzia luzatua aurreratu du, zeinaren adats-ontzia esnekaikua iruditu zitzaidan beti, esne maitea. Lasterrera, ganduaren nagitasunean, Ingresen *Bainu turkoa* agertu zait, eme-biluz mardulen artean urtzen neu, aii, ez, hobe dut bakarra, *Odaliska handia*, gorrotoaren minetik ere ezingo lukeena bere eskaintza edenikoa ematu. Orain, Maneten *Folies-Bergère taberna*-ko Suzon, neure eskola-laguna izan zitekeena, horizontetik honago iruditu zait, non beraganako maitasun eutsiezina ezin duen eragotzi errukia nagusi dakidan. *Gaur ez, baina hurrengo batean, nahi baheu, beste inor ez jagon munduan*. Horizonteko irudien segidak ur hondoko proiektore batetik bezala berritzen darrai. Susmatzen hasia naiz itsasoaren gurariak zer bide egin nahi dezakeen, Campenyren *Lukrezia hila* agertu zaidanean, bere hariak heriotza ere desiragarri egin zuena. Gauguinek emakume tahitiar bi eseri dizkit albo banatan, soilik, begira dezaten, ahal badute, senti dezaten, euren kostaraino iristen den gesa kilikari honek bueltan nolako zoramena dakarren. Botticelliren *Udaberri*-ko Venusak (Ama Birjina haurduntzat hartu izango nukeen, aurrean hiru Grazia biluzak ez balitu) eguzkia motelarazi du, Munchen *Madonna* bistaratu arte, beltzean atzituriko zuritasun aztoragarria. Eskerrak baretzen nauen Rafaelloren *Madonna kardantxilodunak*, non xoriñoak eta bi haur biluzek eskotean pedestalduriko aurpegi bilduari beronen biluztasun ezkutuan estasiatzekeo bidea damaioten. *Parka, Maria, Josepe harotzaren larrosa moztubako hori, baina nik pentsakizun dohatsu honeexekin maitatu zintudan, benetan*.

Ai, Frida Khaloren *Bizkarrezur hautsia*, zeinaren aurpegi oinazetuak daragian nahigabeak ezin duen eragotzi pasioaldi bat imaginatzerik. Beorleguiren *Emakumea Hondarrabian*, irudi bigunki iradoki baten osotasuntzat norbere sentimenduko edozein aurpegi onartzen duena, edertasun inexistenteak barne. Orain, Rubensen *Hiru Grazia* biluzetariko edozein, non frogatzen den irritsa piz dezakeela berdin mamiak, nola haragiak. Elisabeta Siraniren *Porzia hanka bat zauritzen*, non labana beldurgarriak areago diotsun: "Begira izter gozatsu hau, aurpegi eta eskote tristeki ederren berme erogarri". Nire eskuak ere gorputz harkorra zauritu guran dihardute, olatu maratzan erritmora. Oin bertikaletan zapladatxoa nabaritzean, hondarrera zabaltzen dira ahurrez gora, eta urak alde egindakoan, izterretatik parrerraino ferekatzen naute, erdiko mastatxo banderagabea ere bere posizio ani-

mosoan zori onduduz. Ene itsaso oraintsu hain beldurgarri hori! Zer gurari modu da nigan burutu nahi duzuna? Han baitager Dürerren *Eba biluza*, alborantz begiratzen duena, begi desirosak lotsa gabe begira diezaion. Orain Vanessa Bell-en *Bainua*, ur epelaren bulkada ile-kopetan biguntzen duena. Berriz ere Berorleguiren *Emakumea Hondarrabian*, handik pasatu ziren bisitari eder guztien iradokizun. Murilloren *Sortzez garbia*-k darraio, seminarioko liburuen orriak beragaz markatzen nituena, airean goranzko flotazioan, zerura alde egingo ote zuen (ez! mesedez!) beldurrez.

Hurrengoa ia neure jaioterritik dazagut: *Bordeleko neska esneketaria* (Goya), desioz ala bortxaz plazara doan ez dakizuna, ikusten ez den asto baten gainean. Eta nik azpi-zorte horixe zeukan astotxoa ikusi nahi! Astiro-astiro, horizonteaz oso handik, gorantz datoz Tizianoren *Maitasun sakratua* eta *Maitasun profanoa*. Jantzia eta biluza. Oi, itsaso deliragarri! Nigatik, bietako edozein. Jantzia biluz nezake, biluza neuk jantz. Orain, ahal bazenu (eskerrik asko!), Giorgioneren *Judith faszinantea*, hanka biluzategaz zapaltzen duen buru moztua norbere izan ledin nahikunde sortzen duena. Irudiak pasatzen, pasatzen ari dira, eta azkenak, beti, Frida eta Emakumea Hondarrabian. Madonna, Judith, Porzia, Odaliska, Nefertiti... Mortala! Gioconda ukiezinak, at-lurtarrak, keinu egin dit, bular bat erakustera bailihoan. Bazuenik ere ez zitzaidan inoiz otu, denak haren irribarreak liluratzten ziren bitartean, ni bere eskuakin obsesionaturik bainenbilen. Ene ama! Ez dut pentsatu nahi Henry Millerrek nola kontatuko zukeen gertatzen ari zaidan hau, ez, oh, bai. Nire zerritasun harroa ez nuke nahi irits ledin artea zerritzeraino. Bainua, Sortzez garbia, Maitasun profanoa, Eba, Suzon, Madonna... Eurek irazeki nahi izan banaute, zer egin behar nuen? Emakumea Hondarrabian, Neska esneketaria, berriro Frida, Nefertiti, Judith, Hondarrabia, Frida...

- Hau nahi al zenuen, itsaso gazi-lizun horrek?
- Ondo hago?
- Buff! Ez nago definible.
- Arrain hila dirudik.
- Gorantz ala beherantz zoaz?
- Beherantz tokatzen dok.
- Zuk bai jakin zati batean ez nagoela tentetzeko moduan!
- Sei ordu barru itzul naitenean, jagita egongo ahal haz.
- Bildurgarria zinelakoan, maitagarria zara.
- Irlaren ekuadorrean ez heuen hori esaten.
- Behingoagaz nahikoa izango da, ezta?
- Heuk jakingo dok.
- Elkar maitatzera bortxaturik gagoz.

.....

Ostegun arratsalde batez, neure bulego-logelako erdiz behera armairu eta gora apalategi den altzari ilunean, ezeren itxaropen ez desitxaropenean, elizako erregistro-liburu zaharren bizkarretan noiztik noizerako datei begira nagoela (zaharrena 1641eko maiatzean hasten da), errepidetik abadetxerako sarrera-arrapalan behera, berbaro misto eta zoli batek aztoratu nau. Bertatik jaitsiera bistan dagoen leihoaren errezel ertzetik, oso gazteak direla dakust, 15-16 urteko neska-mutilak, denak ezezagunak. Monitoreren batek gidaturik, abadetxearen jarraiko eliza bide batez ikusi nahi duen txangoren bat izango den pentsamenduak apur bat penatu nau, bekaitz inkonkretu batez, zeinaren sentipenaz beti lotsatzen naizen, beti alferrik. Honetan, abadetxeko ate-joa dantzut, gazteren baten (mutikoa, seguruenik) pasaerako inkontinentzia. Berriz ere, daun-daun. Honek beren beregikoa dirudi. *Itxaron apur baten!* –darantzut. Hirugarrenean, hiruko bi: daun-daun-daun, daun-daun-daun. *Banator!!* Pasillo luzeko azken ezker atean, abadetxeko aretora jo dut, nondik, atarira daman leihotik burua aterata, *oraintxe nator!* hots egin diodan dozena bateko taldeari, ate aurrean, erronda-kanturako bezala, arku luzangan pilatua bera. Leihoa itxi dudanean, ez dakit zergatik ez dudan atea zuzenean ireki, ez baitaukat itxaronarazteko inolako motiborik. Arauz jantzita nago, sotana ondo loturik, orraztuta ere bai. Erreflexu instintibo bat izan da.

Aretotik pasillorako atalasean, belarri bata leihorantz, bestea kanpoko aterantz, berbaro hurbila entzuten geratu naiz, neurtuago, enpastatuago, arrapalan behera zetozenean baino. Hitzak nekez bereizi arren, hizkeraren doinutik, argi dago lekeitiarrak direna. Neskak zertxobait gailentzen dira (edo neu eurenaren harkorrage), aldatzen ari zaien ahotsaz lotsatu ohi diren mutilen gainetik. *Baitxa zera be... ixi... esan dau baratorrela... zeure popia... txakur zaratia ixan da... olagarruana... ja-ja-ja... txakurra zetako abaretxian?... txitxiña zaintzeko... eongo zarie ixillik?... elixan gooz ala?... Zertarako ari naiz hau guztia entzuten, entzun guran? Prakak jjazten ibilliko'ra, iruditu zait esan duela neskato batek, baina mutikoa izango zen, eta, seguruenik, kapak jjazten esan izango zuen. Atxilotzera letozkeenei zer esan pentsatzen bezala nago, nahiz eta, oraingoan, emozio dardaratiz, zer entzun behar ote dudan. Nahi gabe, espektazioa luzatzen, gozatzen ariko naiz, bai ki. *Neu bisitatzera ete jatozak? Zer dela eta? Nondik? Beno, hori bajakiat. Honek lekeitiarrak ez badozak, "oillarra oillua dok".* Atearen behatxuloan daukat begia. Okerrik ezin dut itxaron aurpegi gerakaitz, bizikor, karkaxati horiengandik, nahiz eta orain apur bat eusten ari diren, nagusien ikuskizun batera tranpaz irrinstatzeko zain baleude bezala. Zer bait ona izan behar du, nahitaez; bisita soila baino gehiago, beharbada. Adin horren arretak beti xoratu nau, seguruenik, neuk adin horren ez-*

tanda barrurantz atxiki behar izan nuelako. Hortxe daude, ba, atean nire zain, neu ibiltzea hain alferrik bekaiztu nuen mistotasunean. Orain badakit adin hori bere azala bezain porosoa dena, zuloak estaldurak baino gehiago, haurtzarotik hurbilen.

– *Zabalduko al dok atea, lotsagarri horrek?* –zaunka egiten diot neure buruari, eta berehala, gozotasun irrikorrez, hiena-multzo nerabeak bezala begiratzen didan taldea agurtzen dut: –*Kaixo, arratsalde on! Hauxe ezuste polita, abadetxe baten aurrean izateko!* –Denek batera 'arratsalde on' edo antzeko bat murmurikatu ondoren, barretxoak egiten dituzte–. *Jakingo dozue hau abadetxea dena, ezta?*

– *Berori abadea dena bai* –neska batek.

– *Sotana honegaz gatxa da beste ezer izatea.*

– *Berorregaz berba egitera gatoz* –neska berak.

– *Ah, bai? Ezustea xarma bihurtzen da, orduan. Barrura sartuko gara, ala nahiago dozue kanpoan edo tabernan?*

– *Berorrek nahi dauen lekuan.*

– *Orduan, barrura sartuko gara, lasaiago egoteko. Aurrera, aurrera! Hemen Lekeitioko eskekoak bildur barik sartzen dira, 'Txiliki' edo 'Popiño', esaterako. Barre egiten dozue? 'Txanton Pipirri' be ez zen Ispazterreraino joan izango, Lekeition jaten emon baleutsie. Hau areto xume bat da, oraintsu molda barri doguna, logela bi bat eginda. Telebista be badago, umeentzat eta. Taberna bietako batean badago beste bat, eta hauxe da herri osoko bigarrena.*

– *Lokal polita da.*

– *Herri txiki baterako, nahikoa. Lekeition badaukazue hoberik, gizartetxe galanta eta.*

– *Han gu lakoentzat ez dago lekurik.*

– *Ez zarie abadeekin ondo konpontzen?*

– *Elizan sarri ikusten ez bazaitue, jai daukazu.*

– *Notariotzan baino paper gehiago eskatzen dabe* –hitz egin du lehen mutilak.

– *Honek jakingo dau* –ondoko neskak–, *notarioaren semea da eta.*

– *Ah, bai?*

– *Eta berau* –mutilak bueltan– *udal bandako zuzendariaren alaba.*

– *Hara! Jente ilustrea zatoze gero!*

– *Eta ni korneta-jolearen semea eta talaiariaren iloba, notejode!*

– *Ja, ja, ja!*

– *Umorea be halakoxea zuek, kresalari kenduta.*

– *Gu ez gara baserriarren modukoak, pozteko be negar egin behar dabenak.*

– *Neuri be ondo etorriko jat, orduan, zuekiko tratua, ze, kontuak kontu, jada komeniko da itaundu deizuedan abade baserriar bategandik zer nahi zeinkien, ezta?*

– *Berba egin nahi genduen berorregaz, ze...*

– *Parka, parka! Hunkitzen nau zuen errespetuak, baina nahiago neuke zuka trata-*

tuko baninduzue.

- Zuka abade bati? Lekeitioko bikarioari esan horixe!
- Nik Lekeition ez dot agintzen, baina Gizaburuaga eta Amorotoko bikarioa banaz, eta hori be bada zeozer. Zuek itsaso zabalaren balkoian bizi zarie, eta ez da harritzekoa baserritarrek baino solteagoak izatea.
- Gugaitik hika be bai! -dio notarioaren semeak.
- Hainbeste be ez litzateke egoki, niri ez leuskit ardura izango baina. Naturaltasuna izorratzeko era bat naturalergia izatea da. Orain jarraitu hasi zariena azaltzen, esandako trataeran, ahal bada.
- Ah, ba -bozdu dirudien neskak-, ez dakit, beno, ea zelan urteten dauen... hauxe da larritasuna!
- Zuk pentsatu aitita makurrari berbetan zagozela.
- Ja, ja, ja, ja! -denak batera-. Bistan dagoenean!

- Garabi-kolpe batek zuhaitz beztua arabazoetatik biluzten duen bezala, barre-etzanda bat bezalakorik ez dago, komunikazioaren konduktuak garbitzeko. 'Aitita makurra' Lekeitioko Isuntza hondartzako haiz bat da, giza forma horretatixe izena hartua, mareak behin estaltzen, behin bistaratzen duena. 'Abadeen kaia' izenekotik hur, elizako urritasuna hornitzeko, txirla-batzetik bueltan zetorren sakristau ernegatua dela ere badiote. Abadeez beste inor pasiatu ezin zen kaira begira, pentsakizun biraozkoren bategatik bertan gatz-harri bihurtu zen, zeinari marea inpenitentea, abadeek igarri gabe, demonio-kolorea emanaz joan zen. Pare bat mendetan, inork ez zuen sakristau egin nahi, eta abadeek seroreez baliatu behar izan zuten, harik eta, inkisizioak ustezko promiskuitate hari begi hiltzailea jarri zionean, berriro sakristaura itzuli ziren arte. Honek kondaira gogoan izango zuen, eta onartu bazuen, txirla-batzetik libratzeko moduko baldintzak izan zirela suposatu behar da. Gaur ezagutzen dudak sakristauak kandela negartiak baino gutxiago kexatzeko itxura dauka.

- Orduan, larritasunak alde batera utzita, zuek nahi duzue...
- Ba, guk... zeugaz... ai ama!, abade bati sekula ez deusatzat 'zeu' esan, berba egin nahi genduen, ea gugaz zeozer egiteko modurik izan zeink... leitekeen, konsiliario moduan, edo ez dakigu zelan izaten den hori.
- Proposamen pozgarria eta... ohoragarria be bada hori. Orain zertan zarie? Bazen al zarie ezertarako?
- Berbetan ibiltzen gara, zeozer egin nahian, baina ez dakigu zelan egin. Horixe nahi dogu, hain zuzen: batek batek gida gaizala.
- Lekeitio guztian ez daukazue inor?
- Nahi dogun modukorik ez. Denak dira zaharrak, edo santujaleak, edo bizizaleak...
- Edo frankistak! -errematatzen du notarioaren semeak.

- Hainbeste? -harritu planta egiten dut.
- Ez dakizu asko! Lekeition, turistei ondo esan eta falangekoak losintsatuz gero, eginda dago.
- Bildurra libre baita.
- Bildurraren atxakian, bizimodu zuria be ez dabil gitxi.
- Ondo dago. Asmatuko dogu zeozer.

Halako gazte talde baten 'zeozer egin nahiak', 1960ko hamarkadan eta Lea-Artibai bezalako eskualde batean, euskal kontzientzia nazionalaren pizkundean nolabaiteko parte-hartze aktiboa esan nahi zuen, jakintzan eta ekintzan. Antifrankismoa ere bazen, noski, baina areago, espainiar estatuaren posizio kongenitoaren aurkako altxamendu progresiboa. Baita mugida horren guztiaren eragile eta indargarri izan zitekeen sinesmen kristauaren lur-hartzea ere. Ez zegoen argi abiapuntuan zein zen eragileago, kristau kontzientzia ala euskal kontzientzia. Proporzioak neurtzea zailagoa zen, ia pentsaezina baitzen erligioaren egituretatik at inolako mugidarik antolatzea. Zer ardura zuen bi ibaietako zeinek zekarren ur gehiago, bien afluentsiatik haranzko itsasoa interesatzen bazen?

- Zuek kristau kontzientzia euskal kontzientziarako atxakiatzat hartzen dozue -erasotzen zuten indar erligioso eta politiko dominanteek.
- Badakizue hori horrela ez dena, baina, balitz, ez al deritzozue atxakia ederra? -izaten zen erantzuna.

Lekeitioko gaztetxo talde gogotsuagaz lanketa iraunkor bat antolatzeko, oinarri nahitaezko baina zail bat biltokia zen, argi baitzegoen eurek ez zeukate-la erregulariki etortzeko modurik, haietako eliz lokalez neuk agintzen nuen Gizaburuaga edo Amorotora. Bazen aurretiko beste kontu bat ere. Herriaren eta agintari erligioso eta zibilen begietan, teorikoki behintzat, Lekeitioko eliztar zirenen gidaritzan sartuko nintzen, inoren barrutian nolabait, kompetentzian, beraz. Baimen delegatua zail nekusen arren, Lekeitioko eliz agintari jakinaraztea eta, ahal bazen, onarraraztea garrantzitsua zen, metodoz behintzat, inoren jarrera negatiborik aurreritzi gabe. Izango zen, auzi sakonagoetan, zailtasunak non agertu, hain gutxi kostatzen den eta, sarritan, hain emankorra den gizalegean -egiazkoan, ez plantazkoan- jarkitzetik hasi gabe. Artean forma edukiaren zati funtsekoa izateak (bakarra ere izan liteke) pentsarazi behar luke giza harremanetan ez daukala gutxiago izan beharrik, baldin giza izaeraren beraren deribazioa ez bada dena. Ez nuke artea gizatasunaren alternatibatzat hartu nahi, bere estensiotzat baizik, nahiz eta argiro sentitzen dudak artearen inspirazio nagusia giza kontradikzioa dela.

Izatez, gaztetxoek taldea ez zen Lekeitiotik hurbildu zen lehenengoa. Aurretik, beste talde batez nabilen, neska-mutil helduagoak eurok. Hain zuzen, eurekiko jardunean sortu zen gaztetxoek talde bat ere abiarazteko ideia, batzuek etxean zeuzkaten neba-arreba gazteagoengandik hasirik.

- Zelan egin geinke? Zuek taldea nonbait batu, eta ni hara agertu, ala...?
- Doazela eurak Gizaburuagara edo Amorotora, edo bila zaizela ahal daben lekuan eta moduan. Hasi daitezela, lehenengotatik, eurak izaten ekimen guztiaren jabe.
- Ausartuko ez balira? Edo luzatuko balira?
- Ausartuko dira eta ez dira luzatuko, batzuk gogotsu dabilz eta. Lekeitiarrok ez gara baserriarren modukoak, egitekoa hainbeste pentsatu beharrekoak. Badakigu gauzak pentsatu barik egiten be.

Arestian aipatu gizalegeak zenbat ematen duen gazte-talde helduago horren bueltan probatu nuen, nahiz eta gaztetxoekin ere errepikatu. Gizalegea ez da xaboi bat, zikinagaz batera bera ere xahutuz doana. Hori pazientzia izan daiteke, zeinaren kasuan bai izan daitekeen zuzurrera lehenbailehen galtzea azkenean galduko duzula sumatu duzuna. Lekeitioko bikarioaren etxeko atea jo nuenean, itsasoaren ikuspegiak kikiltzen ninduen beronen hotsak hanpatzen ninduen, sentitzen bainuen olatuak *aurrera! aurrera!* esanez zetozela. Beti harritu izan nau olatua nola aurreratzen den hain oldartsu, eta erretiratzen hain koldar. Ez daiteke damuagatik izan, berriro itzultzen baita, ez baldin bada itsasorantz itzulerak bera ere kikildu egiten duela, *nondik etorri nok ni!* pentsatuz. Lehen agurrak eta sarrerahitzak, kafea eta gailetak barne, aierrik adeitsuenean burutu ziren, bisitaren motiboa zehazten hasi aurretik

- Gizaburuaga herri gozoa izango da, ezta? Eta Amoroto! Gain harek gogoari jasotasuna dakartso.
- Ez nago herriokin kexatzeko moduan, jenteagaz batez be. Maitagarriak dira, eta uste dot eurek be maite nabela.
- Suberte handia da hori.
- Badaukat suberte hori. Orain beste kontu bat jakinarazo gura neuskizu, Lekeitioko hierarkia nagusia zeu zarenez gero. Joan zen astean, lekeitiar gazte batzuk etorri jatzen, euren talde bat gidatzeko prest nengokeen proposatuz.
- Badakit zeozer.
- Hara! Isilpeak arin korritzen dau hemen.
- Kresala badakizu zirritu guztietan sartzen dena.
- Ez ete da izango konfidentiak ugaritzearena, aspaldion gertatzen ari denez?
- Gizartetxeako arduradun Don Txantonek komentatu eustan zelan gazte batzuek lokal baten eskea planteatu eutsien, euren batzarrak egiteko. Suposatzen dot eurak

izango zirela zugana jo dabenak, notarioaren semea eta.

- Eurak dira. Zer deritzozu?
- Zer eriztea gura dozu, ba? Gazte horreen helburua ez dot uste eliz talde bat sortzea denik.
- Nik baietz esango neuke, abade bategana jo dabenez gero.
- Ez dot uste abade horregana abade legez jo dabenik.
- Zeure moduko ordenak hartuta nago, eta sotana be badaroat oraindino, zurea bezain distiratsua ez baina.
- Sotana horren azpian, aspenas katixima bakarra dabilen.
- Hori sotana erantzten dogunean ikusiko dozu, presarik ez daukat baina.
- Laster erantziko dozue zuek.
- Eta zuek apur bat geroago, gugaitik inon direnak esan eta gero.
- Ni sotanagaz hilko naz.
- Ondo deritzot, baina ez zara sotanagaz biztuko.
- Ez hartu aurrerik Jainkoari. Orain munduko kontuekin gabilz.
- Jainkoa, ezer izatekotan, zabala da. Ez dot uste gazte horreek bere seme-alabatzat errefusatuko leukezenik.
- Nik ez dot hori esan.
- Baina dudan ipini dozu kristau asmoz dabilzenik.
- Hori be ez dot esan. Bakarrik esan dot gazte horreen asmoa ez dela eliz talde bat sortzea.
- Eta, halan balitz, zer? Gizartetxea zer da, gizarteko arazoak konpontzeko gogoia daukientzako zerbitzu bat besterik?
- Gizartea kristau erara konpontzeko, ez ahaztu.
- Nondik aurreritzen dozu gazte horreen asmoa, eta nirea zeresanik be ez, kristau era ez denik?
- Hara! Garbi esango deutsut zeuk be ondo dakizuna. Kristautasunaren gordailua Eliza da. Eliza unibertsala gotzain-barrutietan banatuta dago, eta gotzain-barrutiak, eliza lokaletan. Hain eginkizun neurribakoa ordena minimo batez eroateko, bako txak jakin behar dau zein den bere eskumen-barrutia. Gazte horreen Eliza Lekeitioko eliza da, eliz talde bat zintzoki garatu gura badabe, eta Lekeitioko elizak bere arduradunak eta bere funtzionamendua daukaz. Betoze eurei jagoken elizara, eta atsegin ez atendituak izango dira.
- Neuk be garbi esan beharko deutsut, orduan, zeuk be ondo jakin behar zeunkeena. Lekeitioko elizan eurek gura leukien benetasun kristaurik aurkitzen ez badabe, eliz partaidetzatik ezabatu egin behar al dozuz? Begira, Don Simon. Hemen Vatikanoko II. Kontzilioa ez da alperrik pasatu. Diktadura militar txikitzaile bat ez dogu alperrik bizi. Euskal Herria bizten ez da alperrik ari. Ulertzen dot adinean aurrera zoazenok, hainbeste miseria ikusi eta gero, garai barrirantz tiratzen bildurtzea. Baina euren fedea zeozertan konprometitu gura dabenei, utziezue, behintzat, ahal

dabena egiten.

– Bai, ahal daben hori kristau espirituaren barruan balitz. Zuek Eliza be lokatu egin gura duzue. Eta zu intrusino bat burutzen ari zara... geure barrutian!

– "Don Simon eta Don Juda! Olatua balkoira heldu da". Salaketa makur hori ino- zentzetzat hartuko deusut, baina ez teologikoki eta, gura badozu, sakramental-ki frogatu barik kontradikzino itsusian zabilzela. Alberrietako kristauak ez al dira Le- keition sarri konfesatzen? Lekeitiar batek konfesinoa eskatzen badeust, ukatu egin behar al deusat? Ez al dozu Lekeitiotik kanpora inor bataiatu, ezkondu, gantzutu? Ez al zara zeureak ez diren hainbat elizatan sermoilari ibili?

– To, to, to! Horreek beste kontu batzuk dozak.

– Sakonagoak eta serioagoak. Sakramentuak ez al dira askoz esentzialagoak, nik gazte horreekin egin neikezen batzar informalak baino?

– Nik ez dot sakramenturik inon ospatu, hango eliz agintearen gogoaren kontra.

– Ah, ah, ah! Agintea eta gogoa direla, beraz, kako. Aurrerantzean, badakit non aurkitu agintea, eta non ez, gogoa.

– Abadeok elkar ez inbaditzea kristau espiritu- etako bat zela uste neban.

– Eta nik uste neban kristauen kontzientzia librea menperatu gura izatea ez zela espiritu ebangelikoa.

– Ez naz kontzientziez ari, antolakuntzaren esparruaz baino.

– Ni ez naz inora mogitu; eurak etorri dira nire bila. Zeure eliztar eksklusiboak dire- la uste badozu, zeu konpondu eurekin. Nire aldetik, oraingoan ezin deusut boron- daterik eskertu. Aurkituko dogu lekua, gizartetxean ez bada Karraspioko hondartzan, jente gehiagok ikusi gaizen moduan.

Gazteek aurkitu zuten lokal bat, abandonatua zirudien garaje moduko bat, zeinaren zahartasunean gehiago nabarmentzen zen neska-mutilen gaztetasun ko- loretsua, gehi kresalaren beltzaran labaina. Gehien gogoratzen dudana da, argia falta zenean, kandelekin moldatu behar zela. Desiatzen egoten nintzen horixe geita zedin. Etxean hamazazpi urtera arte kriseiluagaz hazi eta bizi izan zen batentzat, birgertatze zoragarria zen hura, haurtzaro eta nerabezaroaren malenkonía gutzia azaleratzen baitzen bera bat gehiago zen neska-mutilen elkartzeko maiz amestuan, etsiki irrikatuan. Iragan sentimendua sinesgarriro berritzen zen orduko irudikapen idealizatuaren oraingo burutze errealean.

Elkarrekin gustura egoteko beste motibo batzuk ere ez baitziren falta, gure batzarrak amaitzen zirenerako, gaua zen beti, eta gaua, Lekeition, ez da feno- meno soil bat. Gaua, Lekeition, deitate bat da, laztanki estaltzen zaituena, sensual- ki besarka dezakezuna. Talatik itsasoari "ekin hortxe errenditzeke!" agindurik, biz- pahiru tabernatan elkartea luzatu gabe ezin ginen banandu. Hantxe hartzen nuen sotana-uztea aurreratze-ko erabakia, biharamunean Gizaburuagako abadetxe-ko jai-

kierak berriro atzeratuko zuena. Denboragaz apur bat ekandu banintzen ere, lotsa handia zemaian ikusteak nola portuan zehar, udan batez ere, hainbeste turistaren buruak, pasaeran, guganantz biratzen ziren, edo terrazetako mahaietatik begirada luzeek jarraitzen ziguten. Gauak sotanaren presentzia esfumatuko zuelakoan, al- derantzizko efektua sortzen zela nekusen. Gure koadrila berritsu eta zalapartariak berez ere urrundik zerakarren atentzioa harridura bihurtzen zen, erdian halako belztasun ibiltari bat hautematen zutenean. Eurok ez ete dozak lotsatzen?, pentsa- tzen nuen lagunengatik, eta inoiz esan ere bai, baina haiek balea porturatzea baino naturalago hartzen zuten dena. Ezagunek agurtzen nindutenean, lasaitzen nintzen, euren bila etorri banintz bezalako itxurak justifikatzen ninduelakoan, baina ezeza- gunen begiradetan, indefentso aurkitzen nintzen. Ezin nien insistentzia berdinez erantzun, eta ezin nion haien insistentziaz ohartzeari utzi.

Denboragaz ekandu nintzela esan dut, baina areago zen, edo zela uste nuen, jendeak ohikotzat hartzen zuela 'Gizaburuagako abadea' (batzuentzat) edo 'Amarotoko abadea' (beste batzuentzat) Lekeitioko gazteekin ibiltzea, bai baitze- kiten, edo susmatzen baitzuten, denborapasa soilean ez genbiltzala. Zenbaitentzat 'nahasle zikinak' ginenoiz askok (gehienek, uste dut, indiferentzia hain zaila zen ga- raian) sinpatiaz begiratzen zigan, ofizialtasun intratable hartan nobedade disona- tea zelako bazen ere. Batzuk, edozein kale zokotan, konfidentzia sutsuak egitera menturatzen ziren: Honeek txarriok! Popatik emon behar jake. Errebolta on bat preparatu behar da. Zuek tira, kleroak indar handia dauka eta. Abadeen errebel- dian, egiten zena baino gehiago zen suposatzen zena. Hain estamentu sekular, botereko, misteriosoko elementuak mugitzen, kasik matxinatzen ikustea iraultzaren (edo al- dakuntza handien) seinale definitibotzat jotzen zen. Lantzean leku batean afaltze- ra gonbidatzen ninduten, eta onartzea ez zitzaidan kostatzen, ez hainbeste neure etxean, abadetxean, inor nire zain ez zegoelako, baizik abadeok inon enbarazuan ez aurkitzeko inkontzientzia kasik genitala genuelako. Inoiz, agurtzekoak agurturik, denbora batzuetan lasaia, gehienetan intentsoa, beti ere gozatsua azkarregi igaro izanaren penaz, ilargiak Lambretta gorriari Karraspioko hondartzarantz tiratzen zion, giza gerizen ausentzia totalean, Lekeitioko neure deitate- ita itsasoagaz maita nezan. Egunsentiari ere itxaron izango niokeen, bueltan guardia zibilaren kuartel aurretik pasatu beharrik izan ez balitz, non, ezer konprometigarri- rik ez neramala ziur egon arren, ezin nuen ekidin iragan sustoen edo izu futuroen taupadak azkar zitezen. Ateko guardia erdi uzurtuari, gauez hormagaz kolore bakarra egiten zue- nari bere kontrara utzitako ikatz-zakua bezala, hiru turutada jotzea (Lambretta gorriak tru-tru-tru egiten zuen), erdi lo zegoelakoan, majo damutu zitzaidan behin, atzetik jarraitu eta Oletan harrapatu nindutenean.

- ¿Usted no sabe que no se puede bocinear delante del cuartel?
- Nire asmoa ez da izan inor asaldatzea, jauna.
- ¿Y sí vacilar al guardia de la puerta?
- Ate horretan, gaeuz, inor ez da ikusten.
- Entonces, ¿quería usted vacilar a todo el cuartel? ¡Saque la documentación!
- Poltsa zahar hau arakatzean, beldur naiz berriro ez ote duzuen tru-tru-tru entzuli beharko.
- ¿Lleva usted la bocina en la documentación?
- Giltza manillarretik askatuta dago, eta dingiliz ez erabiltzearen, poltsan daroati Haizeak zabaltzen didan sotana biltzeko, belauak estutzean, bozina erdian harra patzen dut, eta hau beti dago jotzeko prest.
- ¿No sabe usted de algún garaje donde le puedan solucionar el embrollo?
- Ez daukagu oso soldata luzea, zuena ere izango ez den beldur naizen bezala.
- Ahí tiene usted razón. ¡Quién me hubiera dicho que iba a escuchar una buena verdad de boca de un cura rebelde!
- Egia errebeldia baita.
- La verdad es un orden cuya servidumbre nos encumbra.
- Olatu bat, beste bati darraiona.
- Que garantiza el sosiego y genera prosperidad.
- Iraganaren bihurtze permanentea.
- Imagen de Dios en unidad y grandeza.
- Zapalkuntzatiko askapen gutxienez morala.
- La revolución permanentemente terminada.
- Kontzientzia bat, ahalegin indibidual txikiakin harri handiak mugitzekoa.
- Defensa contra un mundo emperrado en corromperse.
- Gertatuko denaren, edo litekeenaren poz aurreratua.
- Lo que unió la guerra no lo separe la paz.
- Egiak izan lezake aurpegi bakarra, baina aurpegiak zahartu egiten dira.
- Siendo el Pueblo Vasco tan antiguo como dicen, ¿por qué porfiarán en prolongar su vejez?
- Espainia hain handia izanik, zergatik tematzen ote dira bertan ezin kabitzen?
- Creo que nos entendemos, ¿verdad?
- Intelligentia, pauca.
- Tenga su documentación y continúe.
- Berriz zuen aurretik pasatu arte.

.....

Gaztetxoan talderako ez zen lokalik aurkitu, probidentzialki, nik uste, halaxe desio nuelako ez bazen, zeren nire baitako nerabeak sentipenetan gehiago agintzen zerraien ofizio handiak baino. Eurek ere ez dut uste ahalegin handirik egin zutenik, eta ez adinaren arinagatik bakarrik. Behin Amorotoko, behin Gizaburua-gako etxera etortzen ziren, txango gisan; behin Baurdoko haitzetara, Ispazterrera edo Mendexara igoko ginen, eta horrek sentiarazten zien abentura etengabea sar-turik zebiltzala. Inoiz, ni ez nengoela, abadetxera sartu ziren, leihoa bortxatuta, gero ondo disimulatutik utziko zutelakoan. Nigatik hartan pasatuko zen, eurek hurrengoan zirikatu ez banindute:

- Abadetxean ez dozu asteon nobedaderik sumatu?
- Zeren nobedadea? -Ez nuen sumatu, baina berehalaxe susmatu nuen haien aurpegi txilibrinetan.
- Ona zagoz zu lapurrakandik prebenitzeko!
- Sistema prebentiborik efizienteena eroatea merezi dauen gauzarik ez edukitzea da.
- Sukaldean be ez dozu ezer sumatu, edari-botiletan edo?
- Horretan be, nahiko sistema efizientea daukat: edan beharrekoak edanda etxe-ratzen naz. 'Txaputxeruen' antzera (lekeitiarren ezizena), baina neure kontura oheratzeko moduan.
- Beharko, notejode! Bakarrik ez zara bizi ala?
- Ez guztiz, aingeru jagolea aparte. Ikusten bizi-solairutik behera zelako altuera dagoen? Ba, hor bada korta zahar bat, zaskaraz eta zaborrez beterik, apropos. Sukaldeko horma-erlojuaren oinetan, tranpol bat zabalik uzten dot, neu ez nagoenean, arratoiak etxean zabal daitezen, ze badakit lekeitiar haragiaren oso zaleak direna, batez be, gose amorratuak ibaitik zuzen dakarzenak. Oraingoan libratu zarie, baina ni, zuen kasuan, ez nintzateke barriro sartzen menturatuko, oso gaixotasun arraroen transmisioarek dira eta. -Mutilek barre ganberroak eta neskek higuin-zinuak egiten dituzte, sudurrak ahurretan gorderik-. Abadeari, normalean, ez deustie erasotzen, baina nire aurreko... bat, bi, hiru, lau, bost, sei... zarpigarrinari, arratoi albino batek, zapaltzen deskuidaturik, haginka egin eutsan behatz potoloan, eta handik, apurka-apurka, puzten-puzten, hidropesia ete zen, odolean haizea ete zen, bakar-bizioren bat, azkenean, post egin eban. Heriotza unetik ehorzketara bitartean, hertuz-hertuz baitzihoan, hasierako hilkutxan kutxa hurrenez hurren txikiagoak sartzen joan ziren, handia hainbeste bider txikitzeak baino errazago eta, ziur, merkeago urtengo ebala-eta, harik eta, lehenengo palakada-lurraren aurretxoan, azkenengo txikiena egokitu eben arte. Suposatzen da gero be txikitzen jarraituko ebala, baina nahiago izan eben misterioa ez argitzea.
- Madarikatuarena! Zeozergaitik ez euskuen herritarrek jaramonik egin, leihoa bortxatzen ikusita be. Barre, gainera! Guk uste genduen abadea erreskatatzen gen-

*bilzela pentsatuko ebela, baina begira. Denak arratoiekin buru bat eginda. Gero baserritarra inofentsiboa dela esango dabe.*

*– Hemen, lehenengo edo bigarren intentuan ez da ezer gertatzen, konfiantza hartu daieen. Hirugarrenean be ez, igual, hirutasunaren bildurrez. Laugarrenean, narrua! Ez al dozue entzun, hasarratzen direnean, baserritarrenak direla matxinadarik bildurgarrienak?*

Irteerarik eskuren eta bistosoena bera izanik, gehienetan Mendexan bazten ginen. Lekeitiarrek ez zuten uste Mendexa euren balkoi naturala ez zenik, euren kale estu eta altuetan, balkoirik kabitzen ez, edo erdi itsuak zirenez gero. Euriagaz, pilotalekuan, giro ona bazegoen, kanpoan, eta gusturen hilerrri osteko motan esertzen ginen, Ondarroarantz baserriak ageri zirela, Gipuzkoan harantz txikitzen-txikitzen, eta aurrean itsaso luzea (beti 'zabala' ez jartzearren), zeinaren kosta-marrak Frantzia ere harainditzen zuen. Norbaitek argudia zezakeen hori ezinezkoa zela, horizonteak, nahitaez, honago behar zuelako, baina inork ez zuen konprobatu. Lekeitiarrek uste zuten Mendexatik ikusten ez zena ez zela mundua ere, nahiz eta arrantzaleak, etorreran poz bat ekartzen eta joatean beste bat uzten zutenak, urrunago ibiltzen ziren munduaren biran, *baina gauza bat dok ibiltzea, eta beste bat ikustea*. Hori ere egia zen, eta hobe zen lekeitiarrekin ez hastea ustezko kontradikzioak eztabaidatzen, haien logikan kapitulu batzuk osorik falta baitziren:

Haurrei berdin zien edonon ibiltzea, hilerrria zein disneya plano berean hartzen baitziztuzten, baina nerabeekin ez zegoen exzitazio puntu batetik libratzerik, beste munduaren kontra geldi edukitzea lortzen bazenuen ere. Hilerriaz oharitzen zirenean, bazirudien aurkikuntza ostentatu nahi zutela, eserita zeuden lekuan, hormari bizkarra jarrita, hasten zirenean:

*– Txo! Saka denok batera, ea munduaren hemendik ala handik dagoen indar handiagoa.*

*– Nuloa! Horma hau ez dok mogitzen.*

*– Orduan, geure alde, horma alde honetakoek egin baeben.*

*– Laster jakingo joat* –hots eginez, mutil bat bazihoan horma-zuloetan gora.

*– Txo, txo, txo!* –alferrik alto emanik, uzkipierantz batu zitzaion praka-multzotik tiratu eta lurrera saltarazi nuen, esanez: *–Ni barik zatozenean, egizue nahi dozuena, baina nigaz zabilzenean, ahalegindu apur bat kontrolatzen, mendexarrekin ondo konpontzen nok eta. Hilerrrian barrabaskeriak egiterik txakurrek be ez deutsue parkatuko. Entzuten oraintxe be zelako zaunkak bazter guztietatik?*

*– Jesarri egingo gara orduan, abadeak be hilakandik bizi ei dira eta* –amore ematen du Aitor izeneko batek.

*– Aitor! Egongo zara isilik?* –agiraka egiten dio lehentxoago bere lehengusina dela

esaten ere lotsa zela jaulki dion neskak.

*– Isilik zergaitik? Egia ez da ala?*

*– Egia da, bai* –baieztatzen dut–, *baina herri txikietan lagundu egin behar da hiltzen, berez ez dira abadeok gobernatzeko beste hiltzen eta.*

*– Ja, ja, ja! Batean arratoiak, bestean abade hiltzaileak, eta gu hemen, kristautasun barri bat asmatu nahian!*

*– Gauza bat egingo joagu. Ekin deiogun ekin beharrekoari, eta formal samar amaitzen badogu, erronda mardul batera gonbidatuko zaituet Mendexako herriko tabernan. Bai ala ez?*

*– Baaaa!*

*– Aitorren baietzik ez joat entzun.*

*– Hiltzen laguntze horrek apur bat ikaratu egin nau.*

*– Baietz orduan. Joan den astean, Herri Gaztedi izeneko mogimenduaren sorreraz eta helburuez mintzo ginen. Gaur, apur bat aurrerago jorik...*

Erabakitako ekintzetako bat Oiz mendira egun osoko txango bat izan zen, Lea ibarretik igo (Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar) eta Artibairantz jaisteko, Trabakutik, Bolibarren zehar, Markinaraino, nondik iluntzean autobusez itzuliko ginen Lekeitiora. Gazte-talde guztietan bezala, bistan zen batzuen irrika nagusia neska-mutilak nahastean ibili ahal izatea zela, egun oso bat hala igarotzeko aukera urrietako baten irrikan. Teorikoki bazeramaten, bai, txango hutsa baino gehiago zen kontzientzia, baina, adinaren sosegaezina mendiaren basatasunagaz batu zenean, nekea zen ordena apur bat ezartzeko gelditzen zen euskarri bakarra. Mutilen kasuan, exhibizio balienteen txandan, galaitasun afantsu bezain dorpe samarrak ere bai, aldasgoran jarraitzea kostatzen zitzaien edo kosta-planta egiten zuten neskeganako. Abiadak edo aldasgorak neu ere arreta gehiegi ez zabaltzeko moduan estutzen ninduten arren, aurkitzen nituen tarteak eta lortzen nuen kontzentrazioa, adin eklosibo haren talde-erreakzio eta banangoak obserbatuz, neure nerabearo ez hain urrungo uhin-kolpe moztuak berritzeko, gozatzeko, oraingoan orduan baino oharmen handiagoz eta larritasun txikiagoz. Hori guztia erarik gozoeanean gertatzen zen, taldeko finenek, adin horietan gehienbat neskak izan ohi zirenek, kezka eta ideal guztietara zabalik, neure inguruan joateko interesa agertzen zutenean, bata galdetuz, bestea adieraziz, dena ibiliaren arnasa eta kolore piztuetan. Eta lantzean ikuspegi infinitu baterantz, atsedean txiki kasik poetikoak eginez, beti ere, ahal bazen, neure jaiotetxea bertatik ikusteko moduko tontortxoetan. Nork esan behar zidan, hamabost urte nituela, mendi-etxetik hain amesti begiratzen nuen Oiz hartatik, hamar urte barru, alderantziz ikusiko nuela neure nerabearoa, ipar isurialdetik igotako neska-mutil kostakumeen begiekin?



- Hangoa zara zu?
- Hangoxea! Arraro samarra, ezta?
- Arraroa ez, baina...
- Dezepzionantea?
- Ez, ez! Lekeition ez jako habiari hainbeste begiraten, kaleari edo portuari baino.
- Nire jaiotetxe inguruan ez dago, ba, kalerik ez porturik.
- Eta zer? -salbatu nahi nau mutiko batek-. Zerua ez al da itsasoa bestekoa?
- Handiagoa esango neuke nik -zehazten dut.
- Et, et, et! Horixe ez! -beste mutiko batek, bizar orde, aurpegian zehar xerlotxo bakan bel-beltzak dituenak-. Itsasoa baino handiagorik ez dago.
- Zeruan ibilita hago ala? -eraso dio neska batek.
- Ibiliko naz han be. Baserritarrak marineltzea, hor konpon, baina gu baserritar-zerik ez daieela pentsatu.
- Argumentua sakona dok -berriro lehengo neska-, baina zeru-lurren tamainua-gaz ez jakiat zer zerikusi daukan.

Ezin nion utzi aldi berean gogoratzeari nola, urte batzuk lehenago, auzoko lau txakurregaz zelaian jolasean leherrak egin ondoren (neuk, noski, ez haiek), askaria janez abiatzen nintzen, mendirantz. Nor hurbilago leihan jarraitzen zidaten eskutik ahora zebilen joanetorriaz ezin jabeturik, nire aurpegia begiekin jan guran lantzean birrin batzuen irritsean. Etxekoak bazekien, beragaz bakarrik nenbilernean, dezente gehiago harrapatu ohi zuena, baina, hainbesteren artean, ez nengoen neure askari doa hain eskuzabal banatzeko trenpuan. Txakur haien irrika askariagaz amaitzen zen, baina lekeitiar gazteekiko Oizaldian, egun osoa joango zen konpainia amesgarriz inguraturik, kontu gangarrez gainera, egunaren espirituari zegozkion era guztietako gaiekin: gazteria, Eliza, herria, Euskal Herria, errepre-sioa, Ez dok amairu, frankismoa, Elantxobeko katxalotea, estropadak, Ondarroako 34... Eguerdiko hamabietan, San Kristobal basilizian ginen.

- Entzun, neska-mutilok! -diot harrigain batetik-. Gogorrena egin dogu, baina tontorrera oraindino tiradatxoa dago. Hamaiketako atzeratua jateko une txarra ez da haxe. Basiliza hemen daukagu, San Kristobalek gugaz partaide izan gura baleu. Oizpe iturri oparoa mendipe horretantxe dago, bostehun metrora. Janez eta atsedenean orduerdi bat emonik, eguneko geure batzar formala bertan egin geinke, zelai gozo eta bistatsu honetan. Gero, libre gara arduetatik, eta kementsu, gailurrez gozatzeko. Tontorrera igongo gara eta, beheanzkoan, aldagora guztiak atzean utzirik, beste aldeko Kurtzebarri zelaian bazkalduko dogu, ondoren Trabaku aldera eta handik Markinarantz jaisteko. Aurpegi gorritu horreetan, txarto erizteko adorerik agiri ez denez gero, zabaldu maletok eta hasi jaten, on egiteko eskarietan denporarik galdu barik.

- Ez dogu errezatu behar?
- Errosario bat, nahi badozue.
- Eh, eh, eh!!
- Orduan, ez egin galdera arriskutsurik.

Bakarrik etorri izan naizenetan, beti bera miresten eta ezin ulertuz jardun dudana Oizpe iturriaren misterioa denei sentiarazten saiatu gabe ezin naiz gelditu. Iturria baino gehiago, erreka da, haitzaren erraietan inkrustaturiko askatik, tutu zabal batek beste aska luzeagoetara bete-betean banatzen duen parrastada. Misterioa da, mendi tontorra bertatik hain hurbil izanik, nola ez den, lehorterik luzeenetan ere, emaria, ez agortzen, baizik ezta mehetzen ere. Fenomenoaz, nire aurretik, milaka urtetatik oharturik zegoen herrian esplikazio asko entzun izan ditut, zeintzuetako bat ez den atzo goizekoa. Dena itsaso zen garaikoa baino ez. Urek jaisteari eman ziotenean, Basajaunek (dena itsaso izanik, izena ez da ondoegi egokitzen), noraino joango ziren ez jakinik, eta ibaien esperientziarik ere ez izanik, Oiz mendiari golko deskomunal bat egin zion, ateratzen zituen materialak uragaz bidalirik. Lekeitioko San Nikolas irla halaxe sortu zen, itsasoa oraingo mailan gelditzean, Oiztiko materialak bertan kokaturik. Golkoa urez bete zen, eta astiro-astiro, gazitasuna lurrera eta haitzera irazi zen. Mendeetan zehar, munduaren beste aldean, Adan eta Eba euren jardintxo mortuan zaindu ezinik zebiltzanean, Oizko gizakia oparo bizi zen, gazi puntuko belarrera hain itsu ziren abereek nahi adina haragi eta esne ematen baitzioten.

Beste esplikazio bat ere entzuna naiz, oraintsukoa, karreradun baten ahotik; zientifikoa, beraz. Oiz Anboto eta Gorbeia lurpetik komunikaturik dago. Airekoa banekien, Anbotoko sorginaren joanetorrien bitartez. Lurpera itzulirik, Anboto eta Gorbeia altuagoak direnez gero, lehorteean, Oizek haietatik hartzen du ura. Lehortean beste mendiak urtsu egotea zaila izatetik aparte, objektatu nionean oreka ekologiko subtilegia ez ote zen urak, gailurrik gailur ibiltzeko moduko ontzi komunikatuetan, behealde lehortuetara tantarik ez irazteko bezain selektiboki funtzionatzea, erantzun zuen ezen, zientzia aspaldian harroko zebilen arren, lurpean oraindik argitasun baino misterio gehiago dagoela, Oizko kasua bera adibide. Berriz ere objektatu nionean ezen, argitu nahi den fenomeno baten argudiotzat, fenomeno bera adibide duen baieztapen orokorrako bat ematea ez dela zientzia aurreratzeko metodo jatorregia, erantzun zuen zientzia deskuidoka aurreratzen dela. Honezkero, ez nion zehaztu nahi izan deskuidoak ere, inspirazioak bezala, tokian harrapatu behar zaituela. Ni ez nauzue haitz baten alde bertikaletik jausten ikusiko, osetetik lasai joan naitekeenean.

Iturriko asketan eta hauetatik behera abiatzen den errekan, inon diren

zipriztinen eta palastaden ikusle eta partaide ere izan ondoren, baseliza inguruko zela fin-finean, tertziopelo berdezkooa dirudien honetan, batzar-gela baten bila nabil. 'Gela' diot, zoruak sakonune biribilak baititu, gerrak eraginak izateko baino suabeagoak. Itsasoa jaisten hasi zenetikoak, seguruenik. *Hauxe!* neure buruari hots eginez, metro bat inguruko urratsetan neurtzen dut, ez dakit zertarako, ziur bainago berau izango dela. Bistan dagoena kalkulu serioen ondoriozko deskubrimendutzat aurkeztu behar dut. Sei urrats edo sei metroko diametroa. Sakonarena kenduz gero, lau eta erdi bat. Eserita, hankak ardatzerantz luzatzeko moduan. *Hauxe kopa ederra!*, hots egin du mutil batek, ertzetik barrura begira, tente. Nik katilu antza gehiago hartzen diot, edo fruta-ontzi batena. Denok zirkunferentzian eseri garenean, mutilen ipurdi batzuk indarka sumatzen ditut, trineoan bezala, erdirantz lerratu nahian. Ez dutela lortzen ikusirik, hainbesterako inklinaziorik ez baitago, disimuluan, armiarma erara probatzen dute, eskuak atzerantz eta belaunak gaketuz, lau-hanka inbertituan. Beherantz bai, baina gorantz ezin dute, ez aldatsagatik, lagunek atzean tope alua egiten dietelako baizik. *Zer ete da mutila izatea!* esaten zuela gure amak gogoratu naiz. *Batez be, neskak aurrean direnean*, pentsatzen dut, neu ere ia tentaturik bainago.

– *Denok gagoz? Bat, bi, hiru, lau... hoguei, hogueita bat. Ederto! Hamabi neska eta bederatzita mutil. Neugaz, hamar.*

– *Zeure sotana falta da.*

– *Ederto tximurtuta urtengo leuke motxilatik.*

– *Bihar, mezarakoan, Akelarren lo eginda zatozela pentsatuko dabe.*

– *Nostalgia handiak baitagoz gure herrian. Nahiago dozue jantzi daidan?*

– *Beleak lehen be ugari dabilz hemen.*

– *Orduan hasi egingo gara. Lehenik, amaitzera doan hilaren erreposoa egingo dogu, eta ondoren, hurrengo hileko plangintza.*

Hitz txandak ordenatzen ari naizen bitartean, pentsamenari hainbeste tokitara jarraitu ezinik nabil. Neu hizketan ari naizenean ere ezin naiz abstrahitu mendi eta itsasoen bira guztiko eszenatoki mugagabe honek injektatzen didan sentsazio kosmikotik. Bakarrean hain zirrarragarri ez litzatekeenak, lagunez inguraturik, batez ere norbere inguruan bildu diren gazte oraindik arretakor eta amestien artean, dimentsio espektakularra hartzen duela dirudi. Pentsamenaren beraren baitan ere, mugimendu xehe bezain bizia nabari dut, zirkulu zentrokideen reberberazioa. Edo garuna osatzen duen espiral fin-fin batena; edo batzuen, ez bainaiz bakarria ala mordoia diren bereizteko gai. Nire umetako jolasik liluragarrienetakoa zen obserbatzea nola, harritxo bat uretara jaurtitzean, uhin zentrokideak sortu ahala urruntzen ziren. Putzurik gehienetan, uhinak tangente ordenagabeetan apurtzen ziren, ertza distantzia ezberdinetara aurkitzen baitzuten. Horregatik

saiatzen nintzen, urez beteko balitz, oraintxe geundeeen bezalako putzu biribilak aurkitzen, edo, hobe oraindik, neuk eraikitzen, ikuspen zoragarri hartaz gozatzeko ezen uhin bakoitzak hegala bira osoan jotzen zuela eta bat-batera ezabatzen zela. Hala gertatzen ez bazen, putzuaren egitura uniformetu behar zen. Efektu hori etxeko ontzietan (konketa, galdara...) egin-eginean lortzen nuen, harkoskorrak banan eta kurioso jaurtiz, erdi-erdira beti, baina nik sorkuntza hori natura basatian gozatu nahi nuen, eta ez neuk iturritik kostata ekarritako uragaz, nonbait berez bildua zenagaz edo bertara zetorrenagaz baizik. Orain gaudena bezalako sakongune urduna aurkitu izan banu, honen handia, honen zoru eta inguru gozokoa, ziur eskolara eta edozertara piper egin izango nukeena.

Bazen beste figura bat uhin zentrokide haiek baino gehiago xarmatzen ninduen: espirala. Batez ere, erlojuen errailetan aurkitzen ziren espiral xehe-xehe, beilegi dirdaitu haiek. Uhin zentrokideetan, alferrik saiitzen nintzen miraria ulertzen ezen nola zitekeen paralelismo perfektu haiek, elkarrekin konektatu gabe, halako simetrian garatzea. Espirala ere, lehenengotan, zirkulu zentrokideak zirela usten bainuen, harik eta deskubritu nuen arte, txunditurik, hari bakarria zela dena. Bolada bat izan nuen erloju guztiak irekitzeko mania sartu zitzaidana, amaren desesperaziorako. Hantxe agertzen zen espiral niminoa, bizi-bizia, xorarazlea. Hatz puntaz ukitzen nion, eta garunean kilikili egiten zidan, hatzak ez baitzuen, hain xumea izanik, ezer sentitzen. Ukituz batera gelditzen zen, baina tentsioa, begiak zabalik sumaezina, begiak itxita, gorputz guztira hedatzen zen. Esperimentua ezin izaten nuen luzatu, unibertsoa gelditzen nuelako larritasunak jotzen baininduen. Nire zoramena, neuk aberiatutako erlojuagaz, amak auzoko Leagana bidaltzen ninduen izaten zen. Emakume niretzat miragarri hark nola josten, hala konpontzen zuen dena. Erlojua ibilarazteko antze bitxia zeukan, zenbait pieza edo torlojutxo kanpoan utzita. Hura mahai gainera destripatzen zuen une sorgin hartan, nire begiak ere arabera multiplikatzen zirela uste dut. Lapikoari eragitera alden du zen batez, begi multiplikatu guztiak hartara ziren espiraltxo dizdizaria gorde egin nuen. Erlojua martxan ekarri nuen etxera, eta espiraltxo sakelana. Ziur nengoen garuna halakoxe espiralekin osaturik zegoela, inoiz, belarrietan, bibrazio fin-fina, firrindatxo baintzuen, inurri batek Eustakioren tronpa jotzean bezala. Konparazio honek beldurtu egiten ninduen, eta saiitzen nintzen espiraletatik ez aldentzen. Animalien garunak, mahaira ateratzen zituztenak, higuigarri egiten zitzaizkidan. Ez nuen ulertzen gure aitita Andresi nola hainbeste gusta zekiokkeen gai likin, mengel, deforme hura, kristalak finkatzeko masilla antzekoa. Baina hori garun hila zelako zela pentsatzen nuen. Nolakoa izango ote zen hura bizirik, bere gordegu inpenetriblean? Nirea garbi neukan erloju txikien antzeko espiralez betea zela.

Nire oraingo espirala kono-bikoitza dela uste dut, erpinetik bi aldeeta-

rantz zabaltzen den diaboloa, baina hari fin bakarrez osatua. Horizontal dagoela esango nuke. Ezker uztai nagusiaren bibrazioak halako jelsia bat inspiratzen ditu. Bai litzatekeela zirraragarria zirkulu oiztar hau, neska hutsez! Mutil momolook etxean geratu balira, gaixorik! Edo futboleant, elkarri hankak apurtzen. *Zelako astakeriak pentsatzen habi?* Ezin dut, batzarra gidatzeko zereginaren azpian, lotsatu besterik egin, eta negargura bat sentitu aurreko mutilen aurpegi oraindik osatu gabeen alde, neure espiralaren uztai aldizka bortxatu, beti errukarri bat eurenagan ikusiz. Bai litzatekeela potentea zirkulu hau mutil hutsez! Nesken distrakzio gabe. Euren aurrean exhibitzeko edo kontenitzeko premia gabe. Mutil 'momolook' bezala, ez naiz ausartu neska 'mamalak' pentsatzen. Hauengatik, negargura bainoago errukia sentitzen dut, euren pasio, nahiz ez inozentez, bai oraindik zigortugabe, gaiztotugabe begiratzen dutenean, ez baitakizu nola libra ditzakezun destino arruntetik. Eta mutilak, inkontzientziaren amiletik. Maitagarriak zarete zeuek nahiz gabe, mutikook, laster zokor zareketen bezala zeuen meritu osoz. Bai zortea zirkulu honen lotune izatea! Beharbada, birtualitate guztia zirkuluari dagozio, baina neuz naiz irekiera eta itxiera.

- *Tira, neskak!* -haserretu dira mutilak-. *Hain ganorabakoak ez gara izango, ezta?*
- *Ardurabakoak bai* -salatzen dute neskek-. *Han gengozen Don Txanton, gizarte txeko arduraduna, zelan entretenitu ez genkiela, mutilen zain, "laster izan behar dabe, oraintxe etorriko dira", eta, azkenean, marroi guztiari geuk eutsi behar, zuen marroagatik.*
- *Eta kartelak nork egin zituen? Eta mozorroak? Eta batelak prestatu? Eta...*
- *Iso, isi!* *Sotana jantzi eragin behar al deustazue? Egunak ez al eban ondo urten?*
- *Jakina!* *Baina nork sakatuta?*
- *Ondo urtenda, hasarratzen bazarie, txarto urteten dauenean, zer egin behar dozue?*
- *Elkar jan!*
- *Horrela, taldea berehala amaituko jaku. Argi dago denek ez ditueela konpromisoak zehaztasun bardinez betetzen, baina nik herrian eta alberrietan be, oso komentario goresleak jaso dodaz.*
- *Hori geu animatzearren dinozu!*
- *Aizan, Urne!* *Ni ez non, sotana motxilan sartuta, Oizeraino etorri, zueri guzurra esatekotan!*

.....

Seminarioan gaude, Oizko ibilalditik bi, hiru, lau urte lehenago. Mutil hutsezko zirkulu susmagarria. Beharbada, horrexegatik hain beroa. Ez. Tenperatura

odolarena da. Kontzientzien pizkundea. Ni teologian, haiek 'erretorikoak' izeneko komunitatean. Izen bitxia, Gurgide gotzain otxagabiar tridentinoaren ekarpen mediebala. Nik 20-24 urte, haiek 15-16. Bi, hiru, lau urte barru, Oizen izango ditudan adina. *"Arratsaldean zubian, hain ordutan"*. Komunitateak nahastea ez da zilegi, baina, bide batzuk nahitaez konpartitu behar direnez gero, ez da zaila zubian elkartu eta, erreka bazterrean gora, zuhaitz trinko baten babesera urruntzea. Nerabe talde bat irrikaz inguratzen da, ordu exaktoan, zerbait zorrotza, astingarria, gutarra entzun nahian. Galdetu, planteatu, argudiatu. Konspirazio ideologikoa eta morala. Hauek, geroago Oizkoek bezala, idealen mago bat dakuste nigan. Nik hauengan, geroago haiengan bezala, ezinegon idealista bat. *Politika zergaitik da hain tabua seminarioan?* - *Sartuta gaukiezen itxituratik ihes egingo ete dogun bildur direlako.* Gotzain otxagabiarrek lantzean Francoren ministro bat dakar seminariora, Ama Birjinaren debozioaz hitz egitera. Politikaz bera arduratzen da. *"Queridísimos seminaristas! No os dejes corromper por el demonio político, y mucho menos por el veneno separatista"*.

- *Hori bera ez al da politika?*
- *Hori diktadura da.*
- *Eta Erroma?*
- *Diktaduraren kupula.*
- *Eta Joan XXIII.a?*
- *Kupularen zulo bat.*
- *Orduan, gu zertan gabiliz hemen?*

Zirkulu beltza zelai berdearen gainean. Sotanen kandela usainari belar usaina nahasten zaie. Konbinazio artegarria. Urrun-urrunean, Bizkargi eta Borroa mendien artetik, Oiz ageri da. Nork esan behar zidan, handik bizpahiru urtera, Oiztik Deriorantz begiratuko nuela, seminarioko zirkuluan amesten nuen beste zirkulu batetik, nahiz eta amesten nuen baino errealizazio grinatsuagoan? Gazte txoak berehala berotzen dira eztabaidan:

- *Guk zergaitik ezin dogu gizartetxea erabili?*
- *Elizarena delako.*
- *Gu ez al gara eliztarrak?*
- *Jakin behar zeunke, Lekeition, antzarrek bedeinkatuak izan behar dabela, Jainkoaren grazian lepamoztuak izan daitezten.*
- *Luistarren Kofradian edo Acción Católica-n izena emon behar bada, emon egingo dogu.*
- *Eta astero konfesatzen eta jaunartzen hasi, eta hilero kuota ordaindu, Lopezeneko izozki bat noiz erosiko inbidiaz gagozenez?*

– *Ea, laguntxook!* –saiatzen naiz gaiak bideratzen–. *Parka diminutiboa, baina 'burutxo' ikusten baitzaituet. Zer egoeratan gagozen, zagozeen, ondo kokatzeko sasoi-a dogu. Zuen kristau kezkek, herri kezkek, euskaldun kezkek Lekeitioko eliza ofizialaren magalean garatzekoak izan balira, nigana ez zendueen joko. Ezta? Zorionez, kristautasuna ez da egitura instituzional bat bakarrik. Hori ba ete den be dudan ipiniko neuke, zerbait biribilagoa ez esatearren, baina bego. Zorionez, kristautasuna espiritu bat eta bizitza bat da, eta horretantxe gabilz. Inorgaz itsutu barik, geure bidea egin behar dogu, eliza ofizialetik ahal doguna xurgatuz (neure be, neurri batean, eliza ofiziala naz), eta gainerakoa geure erara garatuz, espiritu horren arabera.*

.....

Tito Lukrezio Karok gonbidatu nauenean, ez dut dudarik izan solasgure ospetsu honetara asistitzeko, Atenasko Pathos hariztiko zelai biribilean. Hemen ere zirkuluan eserita, dena belarri bainoago begi naiz lehenengotan, ezin sinetsiz nola bere ingurura bildu garena suposatzen den Sokrates hori ez den irudimenean nekarraren gizaseme iletsu eta bizartsu eskultural hura, Jose Migel Barandiaranen antzeko gizontxo bat baizik, betaurreko gabe eta, sotana ordeztu, berna erdirainoko tunika gris-berdaxka bategaz, belarrarekiko kamaleoi-efektua ez bada. Burua, ma-trailetatik gorantz, nabarmenki estutzen zaio, errematea kasik gailur eran eginez, jaiotzako opresio akzidentalaren baten ondorioz, seguruenik. Gauza anekdotikoak kontatzean, astiro eta patxadaz hitz egiten du, esaterako: *Nik ez dut u-rik e-da-ten, be-har du-da-na es-ne-an e-da-ten bai-tut.* Gero, eztabaida gaietan, geroz bizkorra-ago ekiten dio, etxera joateko presa balu bezala, zera ez den inoiz gertatzen, bera gelditzen baita beti azken. Batzuetan, etxerik ba duen ere dudan gelditzen naiz, beti norabide ezberdinerantz agurtzen baita, inorantz erreferentzia finkorik ez balu bezala, zaila baita pentsatzea Atenas guztia berea dela. Gehien harritu nauena, hala ere, bere txilibitu-ahotsa da, itxura fisikoagaz bat datorrena, noski, baina ezin da aurre-uste guztien aurkako inpresio orokor koherente bat kolpe bakarrean jasotzea. Dozena bat laguneko zirkuluan, Lukrezio, diskrezioz, lantzean informazio bat da mait:

- *Hori Platon duk. Beste hori, Teles.*
- *Tales esan nahiko duzu.*
- *Teles esan diat.*
- *Aristos?*
- *Bera. Orain heldu dena, Fanes.*
- *Hmm! Hori ere Aristos?*

– *Biak Aristos. Teles eta Fanes.*

Platonek gizaseme mardula dirudi, guria eta apatza, buru borobilaren goialde garbiro soilduagaz, eta arrats gorritik harako ilargi apur bat ukendatuaren kolore melankolikoz. Kolore hori beltzaranduz gero, Marcel Prousten monsieur de Charlus-en antzekoa esango nuke, baina konparazioa ez da fidagarria, lehenago Charlus bera irudikatu bainuen Platonen antzeko. Txinpantze erara eserita gauden zirkuluak iluntzeko eguzki erortunaren gorritasun ahuldua hartzen du, Troiatik ekarria omen den haritz izugarriro kapelatsuaren kontrara. Sokrates Maisuak gidaturiko galde-erantzunen beroketa ondoren, elkarriketa akademikoa abiatzen da.

Platon: *Naturak ez zuen ondo egin, ugaltze-grina eta eros-grina aparte garatuz. Badirudi ugalketa zigortzat ezarri digula.*

Maisu: *Natura kuestionatzea ergelkeria da. Planteatu duzun korapilo hori saia zaitez, biharko, askaturik ekartzen.*

Teles: *Fisia eta metafisia kontrakoak izatea kontradikzio itxurazkoa besterik ez da. Lukrezio: Fikzio horietan hasten bazarete, ni banao etxera.*

Maisu: *"Eguzkia joan da bere amagana. Bihar etorriko naz denpora ona bada". Lukreziori bueltan diotsat: Platonen aipatzen zuen "ideien mundu erreala" horrek zer esan nahi du?*

Lukrezio: *Hori despistatzeko duk.*

Ni: *Despistatu, nor edo zer?*

Lukrezio: *Zer ulertezinen aurrean, pentsalarien joera innatua, arrakastatsuen behintzat, esplikazio ulertezinagoa taxutzea izaten duk.*

.....

Hamazortzi urteagaz, seminarioaren atzeko ihesbide ez ugari, baina bai ondo ikasietako batetik, maiz ezkututzen nintzen solasaldi haietara, non emakumearen presentzia beste atsegin guztiak aurkitzen nituen, neugan hasten eta neugan ixten zen zirkuluan. Oraintxe Oizen bezalatsu.

– *Euskaldunok zer garen edo nondik gatozen jakiteko, historia ikasi behar bada, ez dakit apuntatuko nazen. Niri historia neuk gogoratzen dodan lekuraino bakarrik interesatzen jat.*

– *Gogoratzen dozuna ez daukazu ikasi beharrik.*

– *Orduan, 'interesatzen' barik 'gustatzen' esango dot. Ez jat gustatzen eta kito. Euskal Herria noizbait independentea izan zela aurkitzeko balitz be!*

– *Santimamiñen ez ziren gure moduan Madrilera edo Parisera begira egongo.*

- Konparazino ederra ekarri dozu oraintxe, gizaki ala tximinoki ziren garbi ez zekieenekoa.
- Ikastaroa erabagita dago, eta egin egingo da. Gogorik ez daukana doala lapatan.
- Non egin badaukagu?
- Aurkituko dogu, Anteroren txalupan baino ez bada.
- Ikastaroa proposatu ebana isilik dago hemen.
- Elizan berak bakarrik berba egiten dauenak nonoiz izan behar dau eskubidea, bera bakarrik isilik egoteko.
- Zer esatea nahi dozue? -galdetzen dut era sokratikoan, esatekoa ondo pentsatu eta ez banu bezala-. Badakizue nik, Gizaburuagan zein Amoroton, nahi beste leku daukadana. Historiaren interesa ez da bertan Euskal Herri independenterik aurkituko dozuen ala ez. Herri baten izate politikoa ez dau historiak erabagi behar, bere borondate kolektiboak baino.
- Eta borondate hori autortzen eta onartzen ez badeutsue?
- Borondate kolektibo bat, definizinoz, ez da kanpotik justifikatzen. Bera da bere objektuaren arrazoi. Beste kontu bat da borondatea behar den beste gopuztuta dagoen, eta balego, garatzen utziko deustien. Horretantxe ez al gabilz?

.....

Nire zirkulurik gozokien gogoratuak haurtzarokoek eta nerabezarokoek izaten darraite. Zergatik gozoen, pentsatu beharko nuke. Zergatik gogoratuen, ez da hain zaila. Bizkargiko Santakurtz eguna, edo Oizko San Kristobal berau, adibidez. Herriko litanian edo 'erromerian' bazen ere, independente joatea gustatzen zitzaidan neure maletatxoagaz, gero eguerdian denak, euren zamauak lurrean zabaldurik, taldeka esertzen zirenean, hara-hona ikusmiran ibiltzeko askatasuna izan nezan. Ibiltzeko, edo gustuko talde batean abegitua izateko. Neure otartekoa jan eta neure limonada edandakoan, zelaietan zehar norabait joateko plantan, koadrilengatik ingurutik pasatzen nintzenean, batzuek, jabetasun gabe nenbilerakoan-edo, jana eskaintzen zidaten.

- Hi, mutiko! Eutso kopautxo bat -batean.
- Platano bat gura dok? Laranja bat? -beste batean.
- Hi nongoa haz?
- Torreburukoa.

Janari ezetz niotsan, nahiz eta platanoak tentatzen ninduen. Zeren bila nenbilen, orduan? Gogoratzen naizenetik, ez dut uste neuk ere argi neukanik, ohar-

tuki behintzat, nahiz eta derrigor izan behar zuen desio instintiboren bat, aukera gerta zedinean bakarrik zehaztuko zena. Bertatik ikuspegi osoa zegoen tontorgune batean, hogeitatu bat laguneko korruan, tarterak batzen eta postreak zabaltzen ari ziren, mahatsa, platanoak eta etxean egindako pastelak.

- Mahats-morda bat gura dok? -Andre eskaintzailea ezagutzen nuen, eta taldeko beste batzuk ere bai, Etxanokoak ez izan arren.
- Bazkalduta nago -erantzun nuen, baina ez nuen alde egiten.
- Bakarrik etorri haz?
- Amagaz etorri naz, baina eguerdirako itzuli egin behar izan dau.
- Jesarri hadi hementxe geugaz, pastel zatitxo bat jateko.

Andrearen tarte bat egin eta, besotik oraturik, bere eta bere alaba izan zitekeenaren erdian jarri ninduen. Korru guztiak berrikeria animosoan ziharduen. Nik mahatsari eta pastelari inbidia handia nien, baina gehien estimatu nuena agindua bera izan zen: Jesarri hadi hementxe geugaz. Zirkulu zoragarria. Denerik zegoen, gizon, andre, neska eta mutil. Umerik ez zegoen, eta nik halaxe nahiago, bestela, noiznahi etorriko baitzen beste agindu bat, muturrak garbiarazita: Hale! Zuek segi orain jolasera. Nik hantxe egon nahi nuen, dena ikusiz, dena entzunez, lantzean korrukide baten buru-igurtziak hartuz (hau dok hau mutikoa!), zerbait hartzea zutitzen zenean. Ia erronomia guztietan aurkitzen nuen zirkulu gogoko bat, ezezka-ezezka, selekzio luzea burutu ondoren. Igarri egiten zidatela uste dut, umeek aurpegian ei daramaten arima ez beti egiazkoari jarraituz. Nire kasuan, egia zen erromeria amesgarri haietako ilusio nagusia, ustegabeena (aurpegiak, historiak, tokiak, intrigak), ondorengo egunetan nire pentsaketa gehien okupatuko zuena, halakoxe zirkulu batean hartua izatea zela. Neugan hasi eta amaitzeko apropos sortua zidudien zirkulu kasik mitologikoa. Harik eta zoriona apurtuko zuen gertaera berez harrogarri bat gertatzen hasi zen arte. Aitagaz bertsoak kantatzen hasi nintzen, inprobisatzen ere bai, eta jendeari hain grazioso egiten zitzaion halako kakanarru bat langintza heldu eta tabernatar batean entzutea, ezen lehen hartarako irrikaz nenbilen okasio guztietatik iheska hasi nintzen, bai bainekien, usterik gutxienean, norbaiti kantuan has nendin eskatzea otuko zitzaiola. Batek esatea nahikoa, denek kalaka berari ekiteko. Ihes-grina horixe hartu nuen, akosoari eustea baino arriskura ez hurbiltzea gutxiago kostatzen baitzen. Gutxiago ez zen, noski, gutxi, zeren, hain pena handiak jorik, behin baino gehiagotan deskuidatzen nintzen, desioak errealitatea bere erara molda zezan itxaropen ez gehiegi kalkulatu. Etorriko zen eskarmentu ziurra ez zuen garantizatuko deskuidatzen ez jarraitzerik. Hurrengo saihesteko adina garatzeke zegoen talentuak nekez antola zezakeen haragokoan prebentziorik.

- .....
- *Eta Franco Bermeora, hi! Harrapaik hori!*
  - *Geure Lekeitio ederraren aurretik, gainera.*
  - *"Francok kaxalotia atrapa".*
  - *Nik hori beti alderantziz kantatu dot: "Kaxalotiak Franco atrapa".*
  - *Dagoen moduan eleganteagoa da. Izokin bat amuan ipini eutsien, eta kaxalotea begitandu gizakume ñarroari.*
  - *Baleiteke eginkizun diplomatikoan joatea, diktadore bategan kontraesana ez bada. Bermeo beti harrotu da munduaren zati bietako bat izateaz, independentea bera.*
  - *Bi?*
  - *Bera eta 'gainerakoa'.*
  - *Franco horren jakitun al doa?*
  - *Kaxalotearen atalean sartzen da.*
  - *Bere udako Donostialdia Bermeora iristeko base bat besterik ez ei da.*
  - *Zelan moztu leio bidea?*
  - *Bermeori ezin deusagu alukeria hori egin.*
  - *Zuhurragoa ez al litzateke, bera Bermeotik dabilen bitartean, guk Aiete okupatzea? Kapilaua badaukagu.*
  - *Ederto, gazteok! Pozik joango naz zuen kapilau, baina Oizen gagoz. Oraindino gailurra eta itzulera falta jakuz, eta batzar kanpal hau amaitzea komeni da.*
  - *Francoren etorrera dela-eta, ezer ez al dogu egin behar, Aiete okupatzeaz gainera?*
  - *Pentsatuko dogu zeozer, oraindino badago astia eta. Nagusien taldean be badihardue horretan, eta, zernahi dela, bateratua eta egingarria izan behar dau. Eta serioa. Aiete horrenari txango usaina hartzen deusatz, eta hemen ez gagoz dibertsinoetarako.*
- .....

Gaubeiletan alternatiba erosoak aurkitu nuen. Gero ere luzaro jarraituko zuen ohiturari, norbait hiltzean, auzo eta ahaide, jende mordoak batzen zen etxean, defuntuaren alde erreduan eta etxekoei lagun egiten. Bilkurarik laburrenak ere asko luzatzen ziren, erredua eta solasa txandatu. Defuntuaren kasua bizi-lege normalekoa bazen, hots, ume, gazte edo heriotza dohakaberen bat izan ez bazen, solasa, bigarren bueltarako, ia erromeriakoen antzekoa izaten zen, pasadizo eta istorio. Hantxe aurkitzen nintzen pozik, eta batez ere seguru, ezinezko baitzen,

hilarekiko errespetu-erakutsi baten barruan, inork bertsoz edo kantarik eska ezan. Nahiz eta norbaitek, beti ere, nire alderdi hori aipatu, kontua ez zen aurrerago joaten. Haurtzaro zati bat eta nerabezaroa gaubeilaz gaubeila gozatu nituen, batez ere, apaizgai joatean, erromeria giroak itxi edo zaildu zitzaizkidanetik. Gaubeilak, ostera, ez baitziren nahi adina gertatzen, amagaz beti teman nengibilen, bere ustez, tokatzen ez zitzaigun etxeetara joan nahi izaten nuelako. *Utzion doala!* -erasotzen zion tokamenaren baino jendartearen sen hobea zeukan aitak-. *Honek be beronen karrerako praktikak egin beharko jozan.* Apaizgai izatea horretan abantaila zen, jendeak nire asistentzia obligazio orokorragotzat hartzen baitzuen, edo, soilik, neure debozioarengatik fintasuntzat. Bide batez, ama ere harrotzen zuen etxe hartatik esker ona jasotzeak, nahiz eta bera beti saiatu argi uzten ez zela eginbehar baten konplimentuz izan, baizik, behin esaten deskuidatu ei zenez, *"bere kapritxoz, parka, bere borondatez"*.

Eta hantxe, atarte bete lagun, biribilean, eta ni, defuntu gaiztoa jada iritsia zela suposatzen zen zeruan. Ilargia parean aurkitzea gertatzen bazen, atarteak, giza zirkulua barne, bitan zehar-ebakiz diagonal oharkabeki mugikorrean, konposizioa hain fantastiko bihurtzen zen, ezen defuntua argitasun horiskaren gainean itzultzen imaginatzeak exaltatu egiten ninduen. Matematikan, beste figura guztiei hartua nion gorrototik libratu ziren zirkuluak eta diagonalak hara non aurkitzen zuten euren salbutasunaren esanahi zoriontsua, kezka ere sortzeraino gaubeilen irrirts kasik boluptuosoa ez ote zuen suposatzen jendea hil zedin desioa. *Ba, bai!* -aurre egiten nion Jainkoari, kontzientziak ahalegin guztien aurka estutzen ninduenen-. *Zer dauka txarrik jentea zugana joan daiten desiatzeak, norberak sakatu ezik? Zorionez, laster hartu nion artea pentsamenduari, ohartu nintzenean askoz jatorragoa zela ibiltzen utziz, kontra eginez baino.*

.....

- *Lastima da zirkulu neolitiko hau desegin beharra, baina, hirurak eta erdietan beste aldean, Kurtzebarriko landan bazkalduko badogu, hiruretan gailurrean egon behar da. Makalenak hasi abiatzen, balianteak saiatuko dira azken ez ailegatzeko eta.*

Hego horizonteko haitz-lerro atonalaren kontra eta Oizen jarraipena den mendizerra pinutsuaren bi alboetara, etxe bakarrak edo auzo txit urrunak tontorren erreferentziatik bereizi guran dihardut, zurrunki tente neure betiko zeregin ez dakit jorantsu ala jada gaixoberan. Lehenen, beti bezala, neure Torreburu-Autzagana-Bizkargi lerroa dakust, gero Aramotz azpian Bernagoiti, Mugarrapean Santa Luzia, Urkiolan gora Txakurzulo, Anbotopean Gallanda, Udaltax azpian, Intxorta azpian...

Honetan, hain bihurritzat ez neuzkan bi mutili baselizaren teilatu gainean erreparatu diet, lagunei igotzeko zeinuak eginez, handik munduaren beste aldeageri balitz bezala. Alde zelebrea izan behar du, barreek ere ohikoen antipodak baitirudite.

– *Eup!* – oihu egin diet, haserre baino bekaiztiago naizela disimulatzen kostatuz–. *Lekeitioko islako akerrak berton ala?*

– *Islandia be ederto ikusten da hemendik, ja, ja, ja, ja!*

– *Bai, eztok? Ba al dakizue Txili lekeitiarrari zer gertatu jakon, orain bostehun urte?*

– *Oinaztuak jo eta txitxin bihurtu?*

– *Larriagoa. Txerreni aurre egin eta atzetik jarraitzearen, azkenean Oibarko Ama Birjinak salbatu joan ikatz bihurtzetik. Zuek bere gainean zagozeen San Kristobal hori Txerren baino ahaltsuago dok, eta Ama Birjinak ez zaitue salbatuko, biak bando berekoak baitira. Lekeition egundoko jaia eskaintzen jakon txoferren zaindari horrek, istripuak prebenitzeko ez ezik, eragiteko be bajaukak ahalmena, komeni bada. Uste joat laster erabagiko dauela komenentzia, bere teilatua zapaltzen jarraitzen badozue.*

Ez nuen usteko akerrak txokolatea erakutsita bezain bizkor abiatuko zirenik beherantz, tardatu dutena gehiago izanik, neuk uste, lasaitasun puntu gailen bat erakustearren; garbi esanda, oilarrenak egiten jardun ondoren, nesken aurrean oilo ez agertzearen. Ez naiz gehiegi entusiasmaturik, bai baitakit metodoak, neuk bat ere uste gabe funtzionatu duenak, zientifikoki aplikatzen saiatuta ere, hurrengorako ez duela balio izango. Nerabeek uste dut igarri egiten didatela euren adinaz geratu zaidan ez-igararen sentipena, edo igararen pena, saneatu nahian nabilela, eurek abade batengan inoiz itxarongo ez zuketuen konfiantza damaiedanean. Orduan, autoritatera jotzen dudanean, ez dute sinesten; jarrera teatrala iruditzen zaie, eta neure baitan ezin dut hala ez izateko motiborik sentitu, nahiz eta eskertuko nukeen, batzuetan hain beharrezko izaten denez, aktore autentikoagoa izatea. Kideetasun samurrekin eta sentimendu positiboekin bakarrik zaila da sen ganberroak noiznahi salta daitezkeen talde bat menperatzea. Eskerrak egun batek ez duen ematen okerra garatzeko astirik. Eta, batez ere, eskerrak talde honetan, adinaren maitagarritasunaz gainera, oso neska-mutil kezkatia eta, oro har, ardu ratsuak batu diren.

Pentsaketa hauetan eta gazteen obserbazioan noala, hari edo honi ahalmoa ematek aparte, aldasgoran hitz egiteki libratzen saiatuz eta, tarteka, paisala geroz urrunagoen kontenplazioan atsedean hartuz, igarri gabe ez dut esango, baina uste baino airosoago iritsi naiz tontorrera, non; arnasestuaren putzekin batera, mutil batzuen harrokeriak entzun behar diren.

– *Gu antzinatek gagoz hemen!*

– *Erdi Arotik?*

– *Ordu erditik.*

– *Ez deusue askorik balio izan, harkaitzak geldi dagoz eta.*

– *Ez ginen mendia jaten hasiko, zuek errazago ailegatzearen, ezta?*

– *Gitxienez, harri solteak batu behar zenduezen –sartzen naiz neu ere–, atzekoen estropozuak aurrezteko.*

– *Ala goitik behera jaurtitzeko mihina arrastatu ezinik zentozeenoi?*

– *Hori neuri ikasita daukazue, Hamalauren ipuinean –diot neuk ere.*

– *Harriak iraulka jaurtitzen inon ikasi beharrik ez daukagu, artzainak ez gara baina. Begira!*

– *Et, et, et! Nekabuen!*

– *Oh! Abadeak be biraoka?*

– *Baita popaka be, behar izanez gero! Ez al dok ikusten aziendak dabilzela maldan, eta etxeak dagozela barrenean?*

– *Aitor!!!* – alarmatu dira neskak, arriskuaren oharmenak bainoago neure erreazioak izaturik.

– *Eutso trago bat eta lasaitu hadi, mesedez, Lekeitio ederrera begira!* – agintzen diot, zahatoa eskainiz.

– *Hori bai!* – onartzen du.

Harritzekoa da nola edozein lekeitiar, gazteena zein gaiztoena izan, edo zeri uzteko prest egoten den, 'Lekeitio ederra' entzunez gero. Neuk ere Lekeitio, Kantauri luzea eta lehorralde osoa ikusi nahi dut, eta betikoa gertatzen zait. Panoramika orokorrean biratu banaiz, hurrengo biran, begiak detaileak eskatzen ditu, hautemangarri hurbiletatik hauteman-zail distanteetara, lurtean irrikaz bada, ez gutxiago zeruan. Ostarte-egun haizetsua bada, hodei azkar batek lurtean txundituko nau, ikusiz nola itzal ahalguztiduna, fronte guztia irentsi ahala, atze liberatuari eskapatuz aurreratzen den. Itasadar bati erreparatzen badiot non argia kaioren artetik xabalinan, itsas lerroan surfean, edo hutsuneka dibertitzen den, gero zoko guztiak banan-banan ikusmiratu nahiko ditut: muturrak eta sarguneak, batelak urgoran, ontzigintza, portua, hirugarren amodioagaz estreinatuko dudana labarpea, laugarrenagaz lo egingo dudana hotela (hauek etorkizun inprobablean, abade bati dagokionez), bosgarrenean inor ez hil, seigarrenean bizirik harrapa dezadan. Bakoitzeako oroitzapenak ere banan-banan berritu ondoren, berriro inponentzia orokorrera zabaldu beharko naiz, detaile maiteetarako ez baitago astirik. Beti intrigatu izan nau, dezepzio puntu batez, zer legek eragiten duen, iristen hainbeste kostatako tontorrean, gero hain denbora laburra egitea. Tontorra antsiatuago eta denbora laburrago. Laburren, tontor heroikoak. Giza izaeraren kontradikzioa izango da, sakonagoak ei diren maite-grinetan ere, gehien desiatu duzunak azkarren hustuko baitzaitu.



Kurtzebarriko landan bazkaltzen eseri garenean, bistan da gizakiok ere, Petiri Santzek estutzen gaituenean, jatun konpultsiboak garena. Hau paper hotsa eta motxilak arakatu beharra! Bat-batean, durdituta geratu naiz, neskatu batek jatontzia ireki eta *tximinoi batzuk nahi dozuz?* galdetu didanean. *Bat hartuko deustut, estimatzearren*, erantzun diot. Tximinoia ahoratu dudanean, mihi<sup>a</sup> geldi-geldi geratu da, igela txoletean bezala gainera zer ote datorren. *Hau dok tximinoia?* Joan zen astean, gazteoi berauei, batzarra apur bat arintzearren, ipuin bat kontatu nien, Mendexako hilerri kontran. Ikusmiran hurbildu ziren mendexar umeak ere gonbidatu nituen ipuina entzutera, non tximinoiek zuhaitzik zuhaitz ziztu saltarian ziharduten, Mendexako mutiko bat okil habiara igo zenean. Zenbat eta tximinoiei, entzuleen irribarre bat atera guran, fantasia handiagoak eragiten nizkien, aurpegi serioagoak nekutsen. Inguru honetan tximinoirik ez egotea alferrik jotzen nuen kresalaren irudimenari graziaz ez egiteko arrazoitzat. Ekinago eta aurpegi arraroagoak. *Hau dok tximinoia?* palpaltzen da mihi beldurtua, ahosabaiaren kontra leunki estutuz, haginak geldi eta zintzurra zain. Oraindik ez diet ezer esango, baina 'tximinoia' niretzat tximinoia zen, eta hauentzat 'txipiroia' da, antza. Pentsatu behar nuen Lekeition tximinoari 'matxango' esaten zaiola, XVIII. mendeko Antonio Aboitiz lekeitiarraren *Matxango* izeneko bertso-sortan kontatzen den historia bitxia hainbeste aldiz kantatu ondoren. Txipiroiak zuhaitzik zuhaitz, kresalaren irudimena-arentzat ere gehiegi zen aukeran. *Adibide egokia* –pentsatu du mihiak, tintontzi zefalopodoa noizbait haginei entregatu dienean–, *fikziorik fantastikoenak ere erlazio errealen bat izan behar duela ikusteko.*

Esperientzia literario bitxi horretatik aparte, beste alderdi itxuraz arrunt batek egingo du bazkari hau nire gomuta samurren hil arteko ondarean sar dadin. Bakoitza bere maletatxoak irekitzen hasi direnean, nik ere neure otartekoak eta frutak izter arteko zelai berdean zabaldu ditut, laukitxo zuri-gorridun zapi tradizionalaren gainean. 'Tximinoiaren' misterio argitu baina isilik gordearen efektu magikoz-edo, elkarren kutsapenez-edo, denak euren jakietatik eskainka hasi zaizkit, batak *jan hau*, besteak *jan hau be*, hurrengoak *hauxe be probatu behar dozu*. Arrantza herrietako etxeetan, artean ere probatua eta harriturik gelditua naizenez, izenik ere ez dakidan arrain motarik bariatuenak agertu dira aluminiozko ontzixotetan, prestatuak ere erarik bariatuenetan.

- *Neureak nork jango jozak?* –galdetzen dut.
- *Emon sakristaulari!* –batek.
- *Harek txanpona gurago jök* –nik.
- *Bihar jango dozuz* –beste batek.

Ikaratu egin naiz "*bihar jango dozuz*" bezain esaldi xotil batek nolako

gogo-dardara eragin didan pentsatzean. Ez ditut, ba, bi txerrikume ere, edo bi haurtxo jan behar! Otarteko soilak. Esalea mutila izateak gehiago dardaratu nau, suposatzen baita adin horretan –hauen kasuan, ziur– mutilak neskak baino askoz heldugabeago izan ohi direla. Baliteke mutikoak kasualki esatea ere, zer zioen jabetzeke. Inork ez du, ordea, aitzakiarik jarri, talde osoak guztiz natural entzun baizik, egia balitz bezala nire biharkoa bi otarteko atzeraturen mende egotea dela. Esan balu bezala: *Gordeizuz biharko, bakardadea antolatzen nahiko zeregin izango dozu eta*. Errukia ez da hitza. Pena hartu didatela sentitzen dut, eta sentipena askoz sakonagoa da, pena hori norbera baino ustez beheragoko mailatik (adinez edo zentzuz) datorrenean. Badakit zer den, itxaron ere bai maiz, haurrengandik egia kolpagarriak entzutea, baina ez dut uste inoiz gertatu zaidanik haurrek ni babestu nahi izaterik, penagarri iruditu natzaielako. Nerabeok, niretzat, haurrekiko samur-eskalan darraite. Zerbait jakingo dute, noski, abadeen bizimoduaren berri, baina badirudi beldurrak, edo errespetuak, edo distantziak, bitarteko sentimenduen sorrera eragozten ziela. Konfiantza eman diet, eta pena hartu didate. Babes premian nakuste. "*Laztan premian, beharbada*", itzultzen dut neurekiko. Eurak ohartuko ez badira ere, nik ezin baitut beste era batera ulertu, dardara zirrara bilakatu zait, eta zirrara negargura; barruaren irabio sentiberetan etorri ohi zaidan negargura, zergati zehatzaren kontzientzia gabe. Etxera alde egin eta Mahlerren *Lurraren kanta* entzuteko gogoak eman dit, zeinaren musikak, oro har, tristura urratzailea sortu ohi didan, epidermis gabeko biluztasunean gelditu banintz bezala.

Nire gogokera errendikorra konplikatuz doa, 'tximinoi' eskaintzaile neskak *beste bat be jango dozu* esan ondoren, mutil bat zutitu eta legatz xerra bat ogi gainean eskainiz hurbildu zaidanean, hitzik esan gabe bere aho betean, galdetu beharrik ez legokeen errutinan bezala. *Eskerririk asko!* esanez, hartu egin diot, zer egingo nion, ba. Legatza jan dudanerako, hor dator beste bat, zapo zati mardula sardexkan dakarrela, eta ondoren beste bat, eta beste bat, ezezagunago eta gozoago zaizkidan arrain mota guztiekin. Eguberriko Jesus Haurtxoa bezala sentitzen naiz, era guztietako petaloak jaurtitzen dizkiotela. Mutiko bat alboan besterik ez dut behar, bertara dirua botatzeko azpilagaz. Denek eman nahi didate zerbait, eta neure salbazio sentimentalaren senean ulertzen saiatzen naiz denek sentitu nahi dutela nik eurengandik zerbait hartzeko harrotasuna, haurtxo besoetakoak lau hatz ilarakoak batera ahoratu nahi dizkizunean bezala. Konparazio guztiak haurrengana lerratzen zaizkit, ez baitakit, bestela, nola libra naitekeen apalduraren sentipenetik. Ez dut uste ere fenomeno hortixek ez denik ondoen ulertzen, zeren, izan ere, neska-mutilona, une honetan, areago hautematen dut haurtzaroaren luzapen, nera-bezaro ganberroaren bigunaldi baino. Kontua da, sentimenduen gainezte honetan, urdailak zail daukala arabera portatzen, lege fisiologikoak ez baitu gainezkarik onartzen, *gehiago ezin dut* baizik. Ezin dut, ordea, batzuen onartu ondoren, beste

batzuenaren errefusatu, batez ere, txakurraren intentzio alderantzizko baina begiradaren gardentasun berdinean, *bai! jango dozu!* diotenean. Azkenean, lortu dut denen zerbait jatea, eta badirudi urdailari esker ordenatu dela, beste hainbestetan bezala, sentimenduen edo emozioen nahasmena, batez ere, zama gorri bat belar finean hedaturik bezain bare eta kilibera gelditu naizelarik, neure otartekoak motxilan gordez esan dudanean: *Honeek zeuekin gogoratuz jango dodaz bihar*. Eta euren aurpegiak losintzazko irribarrean zabaltzen ikusi ditudanean. Batzuetan, zoriona osorik aurkezten zaizu, baina badakienez gero bere presentzia ezabakorra dela, bazkari zeru-lurtar hau nire oroimenaren gelaxka intimoetan gordetzen dihardu, erle maiteminduaren zehaztasun dardaratiz.

.....

Eguna abentura usainez osatzeko falta zen elementua itzuleraren azken etapak dakarrela dirudi. Trabakutik Markinarantz errepidez, aldabeheraren azken tarte suabeen goazela, munduak erabat ilundu nahi du, errekarate sakonaren berdetasuna irentsiz. Trumoi urrun bat entzuten da, era kasik jarraituan, ortzi-ikara ala lur-ikara den ez bereizteko moduan. Tantak ere abiatuak dira, mehatz baina lodi.

– *Pausoa bizkortu beharko da oraintxe!* –hots egin dut txantxa tonuan, ohartzen bainaiz neska batzuek gutxi falta dutela alarmatzen hasteko.  
– *Ailegatuko gara?* –galdetu du batek.  
– *Bai hankak apur bat jasotzeko gauza bagara* –darantzut, neurekiko konfiantza handiegirik gabe.  
– *Bota daiela denok uholean joateko beste!* –garrasi egin du mutil batek, probokazio triunfalean.

Oinastu delirios bati eztanda hur-hur batek jarraitu dio, neska batzuen ai-amei mutilen eupadek erantzunez. Hauei, batzuei behintzat, desiatzen daudela igartzten zaie, zerbait bortitza gerta dadin.

– *Aupa, neskatxoak! Bizkortu ointxo politik, laster gara Iruzubietan eta.*

Animatzen saiatzen naiz, baina ez dut uste oraindik falta dela kalkulatzen dudana kilometro luzea aterrian egin ahalko dugunik. Oinastu-trumoiaren alternantzia geroz zarratuagoan, tantak ez dira trinkotu, bai loditu, anpuluak, batzuk airean, beste batzuk zoruaren kontra lehertuz; azken hauek areago dirudite oinastuaren argi akutxilatuak erdibituriko listorren abdomenak, sargoriaren desesperazioan atmosferara zabaldurik, gorputzaren goialdea salbatu nahi dutenak. Zeruan ospa-

kizun handiak direla esanez noa, horrelako argi-jokoak eta tarrapatak antolatzeko, baina nire inguruan datozen hiru neskek ez bide dute distrahituak izaten utzi nahi, nahiz eta batek bera babestu guran dirudien mutila ondoan dakarren.

– *Trumoiak ez dau inor jaten* –diot.  
– *Oinastuak jo bai!* –neska batek.  
– *Oinastuari errekarateak ez jakoz gustatzen* –nik.  
– *Okerrenean be, zer pasatuko jaku, beratu besterik?* –dio mutilak.  
– *Beratu ala ito?* –neska babestua dirudienak.  
– *Ea Iruzubietara onez heltzen garen* –diot–. *Markinaraino jarraitu beharrean, hor-txe hartuko dogu autobusa, taberna dotore-dotore askaldu ondoren.*

Mutilik gehienak apropos atzeratzen dira, elkarrenganako zeresan handien plantan, ekaitza bidean leher dakigun desioa gaizki disimulatuz. Neskak trostan, batzuk lasterka, ni ere euren artean nator, kasu honetan, portaera humanoagoa iruditzen zaidanaren alde agertzeko aukera baliatuz. Ez iritsi, bai iritsi, zeru beltzeko ospakizunek gaizki amaitzeko geroz erabakiago diruditela, tantatza bakanek *hemendik! hemendik!* hoska bidea markatzen digutela, jo dugu azken bihurgunea, nondik Iruzubietara ia bertan den. *Horra, ba! Oraintxe salbatu gara!* Nesken pozezko ijuei mutilen oihu gangarrek darraiete, zeintzuek orain, nahi zuten deskalabruak huts eginik, ziztu eroari damaioten, helmugara atzetik iristea ezin jasanez. Atzean ez bada, aurrean nabarmendu behar. Armola jatetxearen aurrean pilatu garenean, ez dakigu azaina burutu ala zapuztu dugun, baina sarraski oparoaren gainean lur hartu berri den sai-aldra dirudigu.

– *Sotanarik ez al dozu jantzi behar?*  
– *Edarra egongo dok, tximur-tximur!*  
– *Makailaoaren ondoan eskegi beharko dozu, etxerakoan.*  
– *Ala makailaoa barruan dela?* –Aitorrek.  
– *Hori zelan ulertu behar joat?* –tiratzen diot neuk ere karkaixa kolektiboari.  
– *Makailao eskegia sikua ez da izaten, ba?*  
– *Eta gazia!*  
– *Badakizue zer egingo dogun?* –proposatzen dut–. *Askaldu gose-gozo, Franco hil balitz legez.*  
– *Berez hil balitz legez?*  
– *Hori zeuek erabagi. Ni abadea nok.*

Tabernara sartutakoan, autobusa ordubete barru dela dioskute. Mahai li-break ilara bakarrean jartzen hasi garenean, mahai okupatuak zituzten bezeroak euren kabuz zutitu eta alboratu dira, tokia uzteko bezala, pentsatuz, seguruenik,

honelako talde zalapartatsuari hobe dela esertzen lagundu, noraezean ibiltzen utzi baino. Batak kala, besteak kola, besteak kila, freskagarriak eskatzen hasi direnean, zerbitzariari apur batean itxaroteko eskatu eta, hitzei berariazko solemnitatea emanez, diotset:

– *Betoz freskagarriok, baina etxe honetan badakit beste jenero batzuk be badirena. Zuen esteak jada zimelduta dagozena be bai. Badira lau ordu, sekula egokitu jatan bazkaririk aberatsena zuen eskutik jan neien nahi izan dozuena. Utzidazue orain, ez ordainez, bai esker onez –baita dirua zuek baino errazago ‘batzen’ dodalako be–, askaltzera neuk gonbida zaizedan. Eta hemen (hau isiltxoago esango dot), diktadura militarraz gainera, diktadura moralak be indarrean dagoenez gero, ez daukazu disentitzeko txandarik. Horrexek bakarrik!!* –aldarri egin dut, garondoan jausi zaigula zirudien trumoikada ankerrak eragin digun txilio kolektiboaren ondoren.

Argia joan da, eta tabernandreak, etxeko amama dirudienak, kandela lodiak errenkatu ditu mostradore gainean, argi egiteko baino arrazoi transzendenteagoz, seguruenik. Gure taldeko mutilak oraintxe daude ez tatan, nesken ikaraz gozatzekotan, baina hauek ere pozik dirudite zorteaz, bidean harrapatzeko beldurretan zetozen ekaitza aterpean gaudela lehertu delako, bere amorru katastrofikoa. Buru guztiak leihoetan pilatu garenean, munduaren azkenaren entsegu orokorra kontentatuz bezala. Kanpoak haitzulo eskerga baten ahoa dirudi, oinaztuak sabai deskomunalak, horma irregularrak eta pintura intriganteak ateratzen dituela. Ikusgarria da euriak nola jotzen dituen kristalak mokoka, eta zorua pizzicatoan, eta nola ibai gaineko zuhaitzek –haltz, lizar, makal– elkar amorruz zafutzen, horzkatzen duten. Gazteen uhuek eta oihuek pentsarazi didate: *Honelako fenomenoak larru gorritan jasan zituenak zelan irudika zeikeen Jainko benignorik?* Bat-batean, betiko joana zirudien argia itzuli da. *Ooohhh!!* Ez zen oinaztua. *Aaahhh!!* Bera da. Mutilen uluen tonutik, dezepzio mortala izan dela atera behar nuke, batzuk ekaitzera baino begitsuago hauteman ez banitu etxekoandrea mostradoreko kandelan oinetan lerrotzen ari zen plateretara, atun, urdaiazpi, txorizo eta edari. *Txokolatea be bai gainetik, nahi izanez gero*, hots egin du amamak, kandelak errespetuz itzaliz eta, badaezpada, bertan utziz. Baietz erantzun dut, gazteei lotsagabetzeko edo lotsagatik ezezteko astirik eman gabe.

– *Ahal balitz, txurroekin, ezta?* –galdetu dut berehala, neska-mutilei begira.  
– *Horixe gatxa!* –darantzu amamak, gazteei aurrea harturik–. *Hau ez dok Lekeitioko parkea.*  
– *Arin igarri dozu.*  
– *Lekeitiarren berbakerari isilik dagozela be igarriko neuskiok.*

– *Kontuz ibili beharko dogu* –diotset gazteei, arabera imintzioz.  
– *Lekeitiarra nor ez den be igarriko neukek.*  
– *Bizimodua igarle moduan ateratzerik ez dozu pentsatu?*  
– *Ez dakit balioko neukeen, oraintxe be duda handi batean bainago.*  
– *Guk argitzekoa bada, borondatea gehiago daukagu talentua baino.*  
– *Aizue, gazteok! Ni berbetan nabilkonari ‘zu’ ala ‘berori’ egiten deutzazue?*  
– *Ja, ja, ja, ja!* –algaratu dira denak.  
– *Ondo jagok! Baneban susmoa* –orain neuri begira– *berori ez zela prakadun hutsa.*  
– *Prakak betetzeko modu gitxiago dago, egon be, ez betetzeko baino.*  
– *Ez gizon modu lorrina dagoelako, baina sotanagaz jaunago emongo leuke berorrek.*  
– *Gazteokin ez baitago gauza onik! Nik eurenetik bazkaldu truke, sotana gorde deuste, eta txarrena, susmoa daukat ez ete den geratu Oizko harripe batean.*  
– *Harripean bada, gatx erdi. Inurriak egingo jakoz, baina beleek ez dabe eroango.*  
– *Gatx osoa badakizu zein den? Bera besterik ez daukadala.*  
– *Hori egin dozue, mutilok?*  
– *Edo neskok –nik–. Barrabaskerian gozatzeko, ez dago sexuen mugarik.*  
– *Hain lotsa gitxi al dago Lekeition?*  
– *Izan genduen, baina baserriarrek jan euskuen!* –aldarrikatu dute denek, unisono ezustekoan.  
– *Barrabana! Bai lezino ondo ikasia!*  
– *Honeek olgetarako kresala daukie, amama.*  
– *Ez da txarrena bera, gagozen munduan. Jaizuez txorizook, hoztu egin behar jatzue eta.*  
– *Ea, gazteok!* –agintzen dut–. *Eroan platerok mahaietara eta ekin.*  
– *Nik banekien berori abadea zena* –diost gizon batek, mostradorean neugana hurbildurik–. *Pare bat hilabete izango dira, Amoroton hileta batean izan nintzena.*  
– *Amoroto herri jagia da* –diot, zerbait dudagabetik jotzearren.  
– *Berorrek sermoian esan eban gauza bat be gogoan daukat.*  
– *Ah, bai? Beti ez gabilz alperrik, orduan.*  
– *Gitxi gorabehera, izan zen: “Zuek, hurretik zein urrunetik etorriok, hilari hilerriraino bakarrik lagundu daikiozue. Handik aurrera, biziok biziei bakarrik lagundu daikiegu”.*  
– *Total txarto be ez dago, hori esan baneban.*  
– *Beste gauza bat gaineratu eban gero. Apenas denei bardin gustatu jaken.*  
– *Hasi zarenez gero, eskertuko neuskizu amaitzea.*  
– *Hemen ez dot uste belarri arriskutsurik dagoenik* –dio keinu makurberan, taberna guztia disimuluan begizatuz–. *Berorrek esan eban ze: “Badakit gatxa dela, eban-gelioan eskatzen jakun moduan, norbere burua etsaia maitatzeraino errenditzea, baina parkaezina litzateke sentimenduetan kide garenok elkar ez laguntzea”.*

- *Hori be ez dot uste hain txarto dagoenik.*
- *Segun zelan hartzen den 'kidetasun' hori, beragaitik bainoago aurrekoagaitik. Batzuek etsaia maitatzetik libratzen ginelakoa ulertu eben.*
- *Poztekoa da jakitea entzule guztiak ez direla elizan lo egoten. Orain, beste kide-tasun bati txarto ez baderitzozu, neure gaztetxook maneiatu behar dodaz. Honeen edukazinoagaz, atzerapen txikia behar da mahaibe gelditzeko.*

Umeen bihurrikeriak eta gazteen zorakeriak zalantza asko konpontzen dute, zaharren setakeriak ere ez gutxi bezala, nahiz eta naturak hauena konponke-ta gisan bainoago zamatzat hartzera grinatzen gaituen. Lekeitiar gaztetxo espon-taneoekiko ibilerek gortina aproposa eskaintzen zuten eszena interesgarriak pro-bokatzeke, edo ataka delikatuak saihesteko, aldekotzat ala kontraktotzat abordatu ninduen dudatzeko itxura hartu nion gizon horren kasuan bezala, zerbait konfiden-tziala aitortzeko planta ostentosoan egin ondoren, taberna guztiak entzuteko bezain ozen mintzatu zenean. Garbi jakiteko moduan aurkeztu balitzait, jarraitu izango niokeen baterantz zein besterantz, baina oker lerratzeke beldurra egin zuen den-boraren esku utz nezan duda argitzea, komeni baten. Denborak ez zuen urte erdi behar izan, Amoroto zein Gizaburuagako zenbait hiletatan erreparatu nionean, neurekiko mesfidatuz nola herriotan apenas ezagutzen zen gizon batek bertan hainbeste ahaide izan zitzakeen, harik eta zendu baten senitarteko batek, bera-gaz konfiantza nuenak, delako gizonak euren familiagaz inondiko ahaidetasunik ez adiskidetasunik ez zeukala ziurtatu ondoren, abertitu zidan arte: *Nik badakit hori zertara datorren*. Ez zen behar izan denborak, geroago, beste argudio bat ekar zezan, txibatotzat mehatxatu zutela zabaldu zenean. Gehiago ez nion nire hile-ta elizkizunetan erreparatu, baina denbora inpenitenteak berriro nahi izan zuen Markinako kuartekeko pasillo lizuntsu batean gurutza gintezen, goizaldeko orduen ezuste osoz, elkarren ez-ikusi ahalegin erabat alferrekoz, eta, nola ez, bion zeregin guztiz kontrakoz.

.....

Hilerrria lagun, itsasoa maitale, Otoio hotelak arreta eskusiboan zaintzen nau. Olatuek neu jartzen naizen tokiraino bakarrik jazartzen naute, nire boronda-tea zehatz errespetatuz. Arrainak nahi dudanean amuratzeko prest daude, amorra-tzen ere bai, uretatik kanpora egiten dituzten jauziek adierazten dutenez, otzarara euren kabuz iritsi nahian. Itxaroteko erregutu behar izan diet, ekarriak ditudan hornidurak amaitu arte. Lekeitioko kaleek ez naute mehatxatzen, ez ihes egiten; Soil-soilik, hortxe daude, etzantasun konformean; pasatzen banaiz, gorteiatzeko, ez banaiz, oroimintzeko. Ezar nitzakeen segurantzaz guztiak finkatuak dira. Nire

ahaletik edo sumamenetik at dauden okerrekin ezustean harrapatu beharko naute; ez diet euren itxarote beldurtuan bizi naizelako atsegirik aurreratuko.

Itsasertza alde dudala, ibarra ikuskatzera noa: Lea. Iraungo ahal du izena duen bezain xarmagarri. Dakusdan ea berkonkistara behartu nahi nauen ala osota-sun musingabeen eskaintzen zaidan, berriz ere izena duen bezain gozo. Lekeitio-tik, Mendexa, Amoroto, Ispazter, Gizaburuaga eta Aulestin zehar Munitibarreraino, ibar guztia zeharkatzen duen bidegorrian sartu naizenean, zoru kirrizkariari, oinak ezarritz batera, dardarizo bat atzeman diot, emozioarena bezalakoa. Abantzatu aha-la, lantzean luperia txiki bat salbu, bidea ezagutu nuen jatorrizkoa baino gorriago begitantzen zait, odoltsuago, zalantza aroa amaitua balitz bezala. Itsasoaren erre-ferentziatik eskuintzat jotzen zen aldetik noan arren, ezin naiz ezkerreko sentit-zetik libratu, nire norabide genetiko goranzkoa izan baita beti, uraren kontrako lehia pasionalagatik edo. Itsasbeheraren behearenean, bidegorria bere paraleloan doan itsasadarraren ibilgua barize erraldoi bat bezala ondulatzen da, are ilunago nazkagarri baino, usaimenaren adaptazioagatik duda gabe, gezurra baitirudi bizia-ren sortzailatzat beneratzen genuen gesalak horren altzo ustela gorde lezakeela, ur gezagaz nahastetik harako deprebazioa ez bada. Orain ezin du zibilizazio zikinaren ondorio izan, baina kiratsak badarrai, nabarmenago, esango nuke, lehen hartara immuneturik nengoenaz beste kirats bat delako berau, pentsatu beharko dut. Beste adaptazio batera errenditzea gutxiago kostako ahal zait, izate naturalaren alde-rantz denez gero, zeren, itsasbehera bakoitzean, hilerrira igotzeaz beste salbame-nik ez bazait gelditu behar, hobe dut Oizera itzuli.

Txakur desorientatua bezala, usaimenagaz lehian, pare bat kilometro erdi oharkabean eginik, Oletako zabaldira iritsi naiz. Errepidea eskuin apur bat gorantz, ibaia ezker zelaiaren barrenean, auzogunea aurrez aurre ageri da, non hiru jatetxeek, lehengo modu-moduan, bidegurutze hirukoitzari, angelu banatatik, guardia inkondizionala dagioten. Errepide gainean, gasolindegia gorriritasunak autoritate osoz estaltzen ditu azpiko lau auto beltz eta lur-garraioko bi kamioi beilegi. Estaliek ere autoritateagaz kopulazio lasaian dirudite, mangonak deposi-tora dituztela. Mugimendua bakarrik falta da. Umetan amestu ohi nuen kopula-zio eternoan, esperientzia desiatua hain arin (batzuetan, hain lorrin) amaitzearen dezepziara iritsi aurretik. Behi txaroles batek moztu dit inguruaren obserbazioa. Neu konturatzeko, bere txahal ez jai-zaharra erdi hankapean dakarrela, munan hur-hurretik derrait, bere adar irekietako bategaz ia ukituz. Ez bata ez besteak ez dagerte bidezoru hondartsua zapaltzeko gogorik. Ez dakit zerk jo nauen lehe-nago, ezusteak ala sustoak, hain bolumen hurbilaz ohartu naizenean. Lehenengo ihes-kolpe instintiboari eutsirik, nahiago izan dut, sen guztien aurka, konfiantza eta lasaitasuna erakutsi. Esku bategaz, pozik onartzen dituen azkurak bekokian eginez,

eta besteagaz, ostera ezkutatu den umeari hurbiltzeko keinu laztankorrek luzatuz, bihotzak diost norbaitegaz hitz egiteko ordua dela.

– *Nor falta dozue? Ugazaba? Ugazabandrea? Beharbada, etxeko mutiko buruberoa, behi-zaintza bere asmazinoekin konektatzen ebanaz batera, zuek zeuen ibilera galduei emoten zeuntseena? Ez dirudizue alperrik galduta, baina ez zengozeen askatasun totalerako prestaturik. Ni derrigorrek polito ekandu nau biziera barrira. Zuek ez daukazue derrigorren nozinorik, ezta? Horrexegaitik zarabilze nik jada sentitzen ez dodan nostalgia klaseak. Ondo dago. Izan gaitzen lagun, baina afektiboaz beste lotura barik. Txotxo!* –diotsat errape azpitik bistaratzen ausartu den txahal-burutxo oraindino balantzariari–. *Etorriko al hintzateke morroi nire etxera –hotelera!–, ze katurik be ez jaukaat platerak mihizkatzeko, ez txakurrik, aurpegia garbitzeko? Miradore eliptikoan ipiniko haut, olatu esnetsuei begira adurtu haiten. Ez, ez! Etortzekotan, ama barik. Esnea jiratuko joagu nonondik hiretzako beste, eta erpururik ez jak faltako errotzat. Kurioso maneiitzen ikasten badok, beste erpuru antzeko bat be izan leitekek.*

Bidean aurrera abiatu naizenean, bitxiena ez da, zekortxoak beste aldean saltoan harrapatutik, ama-umeek albo banatatik jarraitzen didatela, apur bat atzeragotik eskoltatuz, baizik dozena bateko zaldi-aldra –heldu, gazte, ume– ibai kontratik lerroan abantzatzen dela trosta solemnean, exhibizio hipikoan bezala. Nire paretik hogeit bat metrora nire alderantz kurbatuz, bueltan-bueltan aurrea hartzera bezala datoz, lepo txit tenteak besterantz simetriari okertuz, kontrako begitik bakarrik, ezkerretik, ikusi behar banindute bezala. Kurbaduraren muturra nire alderantz errenditu denean, buruak alderantziz biratu dira, ez denak batera, estudiantuta bezalako segida uniformeaz baizik, ohartu gabe lehengo kontrako begia orain erakoa dela, nahiz eta ezkerria izaten jarraitu. Zaldien argitasun proberbialak pentsarazi dit beste begitik itsuak ez ote diren, hori ere, denengan, estudianturik bezala gertatzea bada aski bitxitasun baina. Metro gutxitara, aurretik alborantz baterian kokatu zaizkidanean, oraingoan buruak zuzen eta zerbait ospatu nahirik bezalako aurpegiarekin, horra non hautematen dudanean, errepide aldetik, beste aldrea xeheago baina ugari bat, adosturik bezalako desordenan, nahiz eta neuganazko intenzio argian. Ardi-ahuntzen nahasteak ez nau hainbeste harritu, nola tartean, kide natural bezala, txerriak ere, kolore guztietakoak, onartuak izateak. Ez eurongatik, noski, abere agortezin hori beti ikusi baitut edozein lagunartetan txertatzeko prest, behien hankapean, behor artean, artaldean, ahuntzaldean, katuekin, txakurrekin, oiloekin... Uzten zaion edonon, sukaldeko mahaiepa barne. Txerria izango da, nik ezagutu dudanean hemisferioan, animaliarik sozialena, nondik esplika daitekeen zergatik den hain naturala gizakiak izatea bere antzik handiena.

Aldra eskuin aldetik hurreratu zaidanean, ahateak eta pelikanoak ere hauteman ditut tartean, euren ipurdiak zuzen ekarri ezinik; indioilar mordo bat, paumaren faltan denak pilo-piloan; orein dispertso batzuk (bat herrena), eta dozena bat txakur alboak eta atzealdea zaintzen, buztanpeak ere bai aldizkatasun infaliblean, euren ofizio indiskretoa ahaztu nahi ezta. Izango da, hainbeste zango eta belarriren artean, oraindik identifikatu ez dudanean espezie gehiago ere. Zelai ez guztiz lauan, goiko samaldaren informaltasun alaia nabarmenki kontrajartzen zaio beheko zaldi lerroaren txukuntasun ordenatuari, baina bi fronteen hurbiltzea hain sinkronikoa da, ezen zail egiten zait kontraste enteatuaz ez dela pentsatzea, zertarako ezin igartzeak artegatzen nauena. Eraso garbien aurrean, senak laster erabakitzen dit zer egin, sarritan oker bada ere, baina beti inferioritate babesgarrian tratatu dituzun izaki batzuek inteligentzia zuzen interpelatzen duen koadroa aurkezten dizutenean, ez dut aurkitzen erreakziorik, atzera begiratzeaz besterik, ez, noski, hori bekatu zen elizan bezala, zerbait interesgarria ikusi nahian, aurrekoaren ikuspenetik libratzeko baizik. Horixe egin dut, ustez zuhurbide bakar gisan, baina oker orain ere, aurreko urduritasuna zauskada bihurtu baita, atze guztia animaliaz itxirik aurkitu dudanean, halako fronte xuabeki kurbatuan abantzatuz neugana, non pankarta bat baizik ez den falta, igartzea zail ez den mezu honegatzat: *Gizateriarik ez bada, ordezkaria zertarako?* Zorionez, eraso asmoz bainoago ikus-minez datozela dirudi. Bost metroko radioan, zirkuluerdia neu ardatz naizenaren inguruan doi-doi ki trazatuz, gelditu egin dira, abereek jartzen dakiten begirada hutsalki finko eta kolektibo horregaz, objektu ezagun bati zirkunstantzia ezezagunean erreparatu diotenean. Neuri ere hain objektu ezezagun egin zaizkit eurak, ezen, animalien aurrean sekula ez bezala, zer egin ez-jakite totalen aurkitzen naiz, hainbestean, non inakzioak areago larritzen nauen, zer egin ez-jakitea egoeraren zerbait jakitea bailitzateke. Mihiak nire erabakitik at hasi nahi du hizketan, eta hasiko denez gero, ez daukat disuaditzen saiatzeko ahalmenik. Neure ahotsa dantzut soilik, nitaz beste.

– *Zer? Inoiz ez al dozue ikusi hego bako bipedorik?* (Esaten hasiko, eta hau pitoke-ria!). *Hori jakinik, aterkiagaz etorriko nintzoan.* (Nondik jarraitu behar dut orain?) *Trago baten faltan najagok. Atoan itzuliko nok, Lekeitio berbertan jagok eta.*

Animalien korruerdia geroz gizenagoak bidegorria, erditik pasatzeko libre nekusena eta euren hankek jator errespetatzen zutena, buruekin itxi du, ertz banatako lepoak elkarrengana biratu direnean, *zer jinok horrek?* keinuka. *Tragoa ez al da arrazoi sufizientea* –hots egiten diet–, *zeuek uragaitik elkar hilko zeunkienean? Ondo jagok! Aurrera, orduan, lehen be zuen agindu barik abiatu nok eta.* Bira erdiz, arteko posizioa itzuli naizenean, beheko zaldi-lerro kasik doktoralaren eta goiko ahuntz-ardi-txerri gehi gainerakoen nahaste karnabaloaren tokian, beste zirkuluerdia gizen eta trinko bat agertu zait, neure ardatzetik bost metrora halaber,

doi-doiki taxutua. Erdi gehi erdi berdin oso, harrapaturik nago. Zirkuluaren erradio amaigabeek immobilizaturiko ardatz transfixo bat nintzateke, erdian ebatura bat ez banekus, bidegorria, hain zuzen, miragarririo libre datzana, zeina ez dakidan irtenbidearen eskaintza den, ala iheserako intzitzazio bat, saiakeran birrin nazaten. Aurreko lerro itxuraz ez hain ferozen atzetik, arantzezko koroe bat altxatzen dela esango nuke, perspektiba iruzurtiak lineara bortxatzen dituen adarrak direla ez baneki, ikusi dudan erret koroarik sinesgarriena osatuz, berandutxo baina. Goren arkutzat, idi-adar deskomunalak nabari dira. Euren izaera jasanakorak azken lerroa eskatzen duen, perspektiba berriz ere biziosoak aurrenera jaurtitzen ditu. Natura jakintsuaren efektuak eta potroak!

Potroena pentsatu besterik ez, hor ageri da, aurrerantz, bidegorria zapaltzen ausartu den tipo bakarra: zezen gorri kalpartsu bat, pepinoak bezalako adarrekin, bekokiagaz planoan eurok. Bere zangoen pausakera faraonikoak, kasik inbalidoraino lentoak, gorputz irmotik independentea dirudi, baina horrek eta bere aurpegi kaotikoak ikaratzen nauten baino gehiago deskontzertatzen nau ikusteak zirkulua ixten den une exaktoan gelditu dela, aurrenengo lerroan, zerbait perfektua osatu duen kontzientziaz baino areago, bere aurrean duen giza txotxongiloari toeroroen ipurdi esturik ezin aurkituz. *Zer ideia dakark, Moxo, buru horretan litekeena bada?* Ez dirudi iraintzat hartu duenik, nahiz eta kliskatzen dituen muskuiluak bezalako begiak, buruagazko proportzio barregarrikoak. Santxok On Kixoteren errote egingo ziekeen bezala begiratzen dit, gorroto gabe, baina inongo irritis gabe. Ingurutako animaliarik ezberdinenak helbide guztietatik hurbiltzen eta pilatzen ari beharrean, afluentsia ibai aldetik bakarrik gizenzen banekus, Noeren Ontzia bertan atrakatu dela pentsatuko nuke, ez dakit atseginez ala atsekabez, orain ez bainago historia zaharrekin hunkitzeko bezain desumoretua, nahiz eta bai, agian zaharregiekin. Badirudi animalioek, euren ez-kontzientzian, badutela prekontzientzia bezalako bat, zeinagatik badakiten kontzientziadun bakarragana arrimatzeak euren ez-kontzientziari kontzientzia indirekto bat damaiola. Atsegintzen dira nigan euren kontzientzia sentitzeaz, horrela mirari epikureo goren lorturik euren kontzientziaren onura posible guztia baliatzen dutela, kontzientziaren problema guztiak saihestuz. Emaiek bertatik, irrazionalak zirela baina! Badakit arrazoiketa bihurria dena, kasik zentzugabeki filosofikoa, baina nire inguruan antolatzen den geometria delirante honi ez diot beste zuzterrik aurkitzen.

– *Zer nahi edo behar dozue, mistikaren umezurtzok? Badakit zirkulu inpresionante hori besterik ez dakizuelako egin dozuena. Zail egiten jat pentsatzea jakinez gainera estutzen nozuela urtenbide nuloan, nahiz eta txakurrek usteko daben euren meritua dela, eta txarriei pitorik ez ardura nor nori noren zer.*

Animalien presentzia inguratzaileak baino gehiago dardaritzen nau euren isiltasun dibinoak. Ez txilin ez joare, inork ez du agertu nahi naturak hainbeste kostata irakatsi dien apur ridikulua. Artalde mardul bat ondotik pasatzen ari bazazu, isil-isilik, ukitzen, ointxoan dza-dza besterik entzuten ez dela, ihesari emango zenioke, patetikotzat sentituko ez bazenu inork erasotzeko asmorik ez ahalmenik ez dakarren abere indefentso batzuegatik izutzea, baina badirudi isiltasun batzuk Oteizaren hutsuneko mailukadak baino durdigarriago direla. Zorionez, ez daukat ihesean saiatzeko aukerarik, bira guztia berrikusirik, zirkulua hain baita jarraitua, non begirada bakarra dirudien denak. Beste zereginik ez lukeen helikoptero batek suposatzen dut lurrean inkrustaturiko begi handi bat lekuskeela, nini ziztrin bategaz, neu kasu honetan.

Proba dezadan beste metodo bat, itsasotik urruntzean, beti aldean dararamadana: korneta atonala, launa desakorde tonaleko serie laukoitzat jotzeko diseinatua. Estridentzia birziklaezinen tartatada bat, fragmentu bat izan zitekeen bezalakoa, musika halako uneraino eboluzionatu zenean, non esan zuten: *Bo! Heldu gara gaizkiago egiterik ez dagoen puntura*. Aitortza larrutuegia iruditurik, era literarioan aldarrikatzea pentsatu zuten: *Hainbeste aurreratu ginen ze, itzuli beharra gertatu zenean, bidea ezabatua zen*. Kornetaldiaren aurretik, beti ere, preludio eszenikoa bezalako saiakera leunago bat abiarazi ohi dut, zeinak huts egin baleza, musikara joko dudana, B plan bortitzagora bezala. Normalean, hots, animalia bakkarren edo saldo txikien aurrean, efektu segurua izan ohi zuenak ez dakit balio izango duen honen kontzentrazio anormalaren aurrean. Eszena da galtzei eta galtzapekoei oinetakoen gainera jausten uztea eta goi soinekoak, kasuon, alkandora eta motxila, gerriaren altuera nibelatuan lotzea, zila bistan utzirik, eta belauak zabaltzen ahaleginduz, oinak galtzetan gatibu daudela. Elipse tente bat sortzen saiatu behar da, 'parteen' eskegitasuna hondo hutsean ondo nabarmentzeko moduan. Txakurrik lagunena, beti hur-hurretik jarraitzeko irrikaz zenuena, berehala uxatuko zaizu. Nire umetako porrot esplikaezinetako bat, hain zuzen, izan zen ezin izan nuela lortu 'Txurtzil' zeritzon gure txakurtxo berdexka behin ere ingura zekidan, baso bazterrean galtzak askatu eta neure zereginera makurtzen nintzenean. Ez zegoen ez dakit nola kalkulatu hartzen zuen distantzia batetik hurbilarazterik, galtzarik ez nuela zikinduko garantizaturik ere. Ea orain zer gertatzen den, bai baitirudi ikuseria inguratzailea sorpresaren baten zain dagoela. Biluztasunak erdizkoa bakarrik izan behar du, gerritik beherakoa bera. Gerritik gorakoak ez du balio, animaliek goitik ezer itxarongo ez balute bezala. Biluztasun osoak ere apenas inpresionatzen dituen. Koherenteegia iruditzen bide zaie, baldin diferentziarik atzematen ez dutelako ez bada.

Jarri naiz esandako erarik arauzkoenean, eta abelburuen masa zirkula-



rrean uhin bat bezalakoa hauteman dut, bira guztira uniformeki hedatua, zeina berdin izan zitekeen nigatik, edo muturretatik zitzuan pasatu zaien eulitzar ikustezin bategatik, honek zirkulu osoa markatzea arraroa da baina. Seguruenik, eulitzarrak joa izan den mutur lerdetsuak albokada ezkerri bat egin izango zuen, eta mugimendua, hurrenez hurren, buelta osoan transmititu da, elementu likidoen batasunak naturalki daragiena, solido bizidunetan, alarmak egin baitezake, diferentzia paradoxikoz ezen uhin likidoa ahulduz urruntzen den bitartean, alarmak handituz joateko sorginkeria daukala, animalion buruetan argiro islatu den bezala. Mutur bakarra kolpatu duena eulitzarra izango zen, uhinaren transmisioa askoz lentoagoa izan baita intsektu txistukarien uestezko pasaera baino. Bere gelditasun lasaira itzulia den buru-zirkulua apenas immutatzen duen nire preludioak. Berez afektatuago behar luketela suposatzen zen txakurrek ere ez dirudi ezer arrarorik hauteman dutenik (denok ote gaude erdi 'eraginda?'), masaren babesean hobeto distrahitzen direlako edo.

– *Zer, lagunak? Ezer ez balitz legez? Ez nago, ba, postura erosoegian! Ez etorri nigana zuen bilkura atipikoan premonizino kezagarriak edo seinale prodigiosoak irakurri behar dodazela ekitera, ze gauza horreek ulertzekorik neu bakarrik gertzen naz zuen gainetik. Misterioen ardura antzina galdu neban zuen inozentziaren alde, ze 'zuen gainetik' entzunda be, ez zarie hasarratzen, gizajo elkar zozotzaileok. Txarto esanda zein ondo esanda, espresino bardina? Ea honi zer deritzozuen.*

Atera dut korneta, kanpo-zuria eta barru-horia, bietatik distiratsua, eguzkiak orain bezala ematen dionean. Egun lainotsuan koloreek alde egiten diote, zuzerkoa bailitzan. Animalia guztiek begiratzen didate magia baten zain bezala. Ez dut uste Stravinskyren solo bat itxaron dezaketarik. *Hasiko nok?* Matrailak haizatu ditut, bakoitzean apo bana kukuturik bezala, paparra hanpatu dut, zahagia bailitzan, banoa indar osoz putz egitera, inor ez da izutu, magiaren zain, eta hor doaz desakorde tonalak, neuk eraginak direla ez baneki, musikaren kolikoa direla esango nukeenak. Mugitu dira, bai, su zirkular bati erditik haizeak eraso balio bezala, nahiz eta mugimenduak ez dirudien hain biolentoa, elkar oztopatzen dutelako; animalion garun amorala ez da eboluzionatu elkar zapaltzeari gustu hartzeraino. Bilkura osatu den bezain jaiton barreiatu da, nahiz eta era naturalagoan, eta bideari jarraitzea besterik ez daukat. Noranzkoa martxan erabakiko dut.

.....

Amoroton, astegun bateko goizeko zortzietako mezara, mutil gazte bat agertu da. Apaizgaia eta Markina aldekoa dela azaldu dit. Izena, edo ezizena, 'Txo-

pe'. Neu bisitatzera ei dator. *Beno, berorregaz egon nahi neban*, zehaztu du berehala. Meza ondoren, mutilak bizikleta abadetxeko eskailera barrenean uzten zuela, aldameneko bulegoa irekitzen hasi naizenean, herriko maisua agertu da atarian, hitz egin behar urgentea zeukala eta. Hil-bizikoa ez bada, pasatuko naizela gero eskolatik esan diot, eta baietz berak, hil-bizikoa dela. Zer izan daitekeen susmatzen dudanez, heltzeko apur batean 'biziari' agindu diot, 'hiler' aldatu aurretik ailegatu naizela eta. Ez da gustura marmartu, baina bulegoko atea irekitzen ez da ausartu, barrutik itxi dudanean. Bulegoa behe solairuan dago, kalearen altueran, leihoak plazara damala. Erregistro liburuak eta gainerako eliz liburu, dotrina eta paperak bertan pilatzen diren arren, itxura nahiko abandonatua dauka, heze usain mingostua barne. Aurreko abadeak baino gehiagotan sartzen banaiz, bertan harmonio txiki bat dagoelako da, bere ajean, pieza alaiak, tibiri punbara pun, 'hobeto afinatzen dituen gregorianoa baino, zeinean badirudien, akonpainamendua sartuz gero, melodia urperatzen dela, neure esku ezkerren maldizioen bat ez bada. Aulki bakarra Txoperi eskaini eta, paper eta liburuska kolorge batzuei hormarantz sakaturik, mahai gainean esertzeko tokia libratu dudaneko, leihoa beteko buru bat agertu da plazatik, bilatzen duen piztia barruan ote den begira bezala. Kareharri landuetan emmarkaturiko leihoa ez da handia, baina buru batek dena okupatzen duela irudituz zaizunean, gorputzak makurtzea gehiago eskatzen du iheska irtetea baino. Buruak ukabil bati toki egin dio, zeinak kristala kas-kas jo duen, tamainak ziragarren baino askoz gozoago.

– *Joño!* –diotsat Txoperi–. *Kuriosotik, gizon galdua gehiago jirudik bildurgarria baino. Zabaldutakoan, gorpuzka ere buruaren arabera dakarren gizonari–. *Zer nahi zenuen?**

– *Berorregaz berba egin beharra daukat.*

– *Oraintxe bertan?*

– *Ahalik arinen, beharrari bitarte bat kenduta nator eta. Guk ez daukagu abadeen lanegunik.*

– *Mejoratu geinke, baina ezin gara kexatu. Zu ez al zara...*

– *Fulminio Dartañaga Inkamendi, 'Fuldain' esaten deusiena.*

– *Ez naz harritzen. Bakarrik zagoz?*

– *Konfesinoa bakarka izan ohi da, hori be aldatzera ez badoa orain.*

– *Elizara joango gara, nahi badozu.*

– *Ez da konfesino sakramental.*

– *Segi orduan tabernara. Berehala noatzu.*

– *Bakarrean gura neuke, berorrek arazorik ez baleu.*

– *Txope! Eragiok hortik lan apur bat bizikletari, gizon honegazkoa egiten dodano. Jesarri hortxe* –diotsat Fuldaini, sartu denean, Txoperen aulkia erakutsiz–. *Ez da bulego txukunegia, ia inork ez baitarabil.*



- *Lehen aitatu dogun lanegunaren arabera izango da berau.*
- *Badira eskasagoak be, herri honetako eliza ugaria baita lokalez.*
- *Berorrek ez al dau Gizaburuagan lo egiten?*
- *Han zein hemen, eta batzuetan, ez han ez hemen.*
- *Nonon lo egingo ahal dau!*
- *Ez beti. Eternitatea benetan predikatzen dogunoi mundualdi ziztrin hau ahalik itzarrien egitea gustatzen jaku.*
- *Oraingo abade modernoek edozer.*
- *Uzten deutseen neurrian, ze, ordena-gizon batzuekin, tabernan be ezin lei ahorik edegi. Suposatzen dot orain domeka bi taberna horretan izan genduen istiluaz berba egitera zatozela, ezta?*
- *Ez, hain zuzen, izan leiteke baina. Motibo latzagoz nator berorregana.*
- *Niri ha be ez jatan bigun begitandu. Inoren herrira etorri eta tabernan autu baketsuan diharduen koadrila bati, berbatxo bat atxakia hartuta, Francoren miraria mapa eta guzti ahotik sartu nahi izatea ez dot gizalege txukuntzat jotzen.*
- *Ez nago ahaztuta. Horretaz be jardungo dogu, baina, lehenengo, beste kontu bat argitu nahi neuke hemen, berorrek zerikusi zuzena eduki leikeela susmatzen doguna.*
- *Esaidazu lehenbailehen, zuen susmoen ziurtasun bihurtzeko patuak harrapa naien aurretik.*
- *Harrapatzea eta zapaltzea be merezi dabe hemen batzuek. Hau zer da?*

Kartazaletik atera eta kuartilla erdi bat luzatu dit, hizki gutxiz baina larriz idatzitako postal itxurakoa, dioena:

**fuldain, txibatoa eta puteroa**

**herriak laster jakingo dau  
zure bateango ofizioa  
eta besteango bizioa**

- *Hau zer da? -nik.*
- *Galdera hori neuk egin deusat berorri.*

Berorika apropos nabarmentzen ari dela dirudienez, intonazio eta guzti, neuk ere apropos sailhesten dut zukara jaisteko eskatzea. Indarra trataeran ez dagoela jakin arren, formalismoak lagun dezake premian dagoena, ni orain bezala, kementzen, beldur bainaiz, ahalegin guztia eginda ere, ez ote dudán lortzen biziki sentitzen dudán urduritasuna, animalia batek berehala sumatuko lukeena, dardara

puntura ez iristerik; nahiz eta, bestetik, dudak ere jotzen nauen berorika hanpatu horrek ez ote dion, honelako gizon baten ahots sendoan, beldurgarritasunari osotasun kontudenteagoa eransten. Gizon puska galanta da, izan ere, eliminatua izatetik libratzeko ezaugarri nazietan osorik sartuko zatekeena, kalabaza helduaren kolozazio eta guzti. Janzkeran, errepide zaintzako arduraren batek (Aldundiko langilea da) eskatuko liokeenaz bestera, soineko komunek lemaketen arruntasun ia familiarrak guztiz alderantzizko efektua daragi bere oinetako inponenteen gainean, berna erdirainoko bota kasik ferreoak eurok, gerra irabazira baillioan. Praka-barren pitin bat, ez dakit apropos, altuek zola eta punta prepotenteak ez dituzte gehiago bistaritzen gorantz ezkututzen dena iradokitzen baino. Harmonioaren kontra tente, esertzeko gonbita ukatu izanak ere bortizki sendotzen du irudia. Nik, berriz, lehenengotan eserita, ezin dut lortu bulego-mahaiaren kontra tentetzeak ere neutraliza dezan nire kikiltasun sentipena basabere askoz handiago baten aurrean, berak ez igartzeko ahalegin larrian nabilena. Kemen-egintza guztiz kontzientea behar dut, bihotz-taupadei intentsitate jasangarrian eusteko.

- *Ez dozu usteko libelo hau nik idatzia denik, ezta?*
- *Libelotzat al dauka berorrek?*
- *Egiten jatzun kalifikazioa zehazten ahalegindu naz.*
- *Niri berorren ustea interesatzen jat.*
- *Bigarrena, nahi bazendu, konfesinorako utzirik, lehenengo kalifikatzaileari buruz, ustea baino gehiago esango neuke. Guardia zibilagaz badaukazunik ezkututzen ahalegintzen ez zaren hartu-emona zaila da deportitioa bakarrik izatea, ez baitot uste kuartelak kiroldegizat bisitatzeoak direnik.*
- *Ni kuarteletan formalitateak betetzera bakarrik sartzen naz.*
- *Beste batzuek be bai, sartuarzoak baina.*
- *Ez behar den beste, baina hori ez da kontua orain. Kuartelean sartzen diren guztiek txibatoak izan behar al dabe?*
- *Nire ahotik ez dozu horrelakorik entzungo, baina bai entzungo dozu, barrero nahi badozu, lehengoan, tabernako intzidentean, denen aurrean esan neutsuna. Zuk badaukazuz antezedenteak, txibatotza zeregin naturalizat esleitzeko modukoak.*
- *Horregaitik induzitu dau berorrek libelo hori, ezta?*
- *Ez daukazu eskua pistola eran zuzendu beharrik nire paparrera. Frogatua deusut badakidala gauzak aurpegira esaten, ez paper hau bialdu deusuna baino balienteago nazelako, baizik badakidalako, hemendik ez hain luzera, preso amaituko dodala. Eta uste dot, egun ez hain urrun batean, gauzak asko aldatuko diren itxaropenari eusten asko lagunduko deustala satisfakzioak ezen orain bildur deusuen guztiek zutaz sentitzen dabena zeuri zuzen esan neutsula.*
- *Edarto! Pentsatzen neban guztia pensatzen neban baino argiago utzi deust berorrek.*

– *Pozten naz argitasunagaitik, zure modukoak pentsatzen hasteak bildurtzen nauen beste.*

– *Segi daigun pentsatzen, orduan, ea bigarren parte horretaz zer dakien berorrek.*

– *Hortxe ezin deusut zehaztasunik emon, zeuk ondoen jakitea bidezko denetik gora. Kanpakiak entzun dodaz, herritar guztiak legez, baina konfesino-legeak entzungor egiteko agintzen deust.*

– *Nik noiz konfesatu deusat horrelakorik berorri?*

– *Bardin da beste edonori egin badeutsazu be, ziur baita harek ez dauela sekreturik apurtu izango. Gertatzen dena da libeloak dinon putamin hori oso grina efektiboa dela ideologiarik etsaienak bertaratzeko. Normala da, batzuetan, zaleen edo 'biziodunen' elkar-ezagutzak diskrezinotik eskapatzea, ehiztari furtiboen kasuan legez. Lehenengo puntu zital horretan agertu deutsudan zabaltasunetik auzi bigunagoetarako sinesgarritasunik atera bazeinke, bigarren salapen horixe da zure pertsonari egingo neuskion azkena, nahiz eta zu zeu ez zaren, beharbada –eta hau jakinean dinot–, horrelako maiseoen zabaltzaile azkena, batez be abaderen bat desprestigiatzeko deanean.*

– *Gauza larregi batera kateatu dau berorrek, kalabaza artean esku-bonba ezkutatu nahian legez. Niri ez jat interesatzen bizio handi ala txiki horri buruzko berorren erudiziorik, eta hain gitxi eritzirik. Kanpai horreen sokari tiraka zer esku dabilen bakarrik jakin nahi neuke, eta horretan ziur naiz berorrek nire aldean asko dakiela, edo jakin leikeela.*

– *Hara, Fuldain! Zuen Txit Jeneral ñarroaren seberitate disekaturainoko zintasunik jaso ez badot be, banaz berbak ez biolatzeko bezain fidagarria, eta zin dagizut ezer ez dakidala paper horren jatorriaz ez zabalkundeaz, baina saiaturiko nazela jakiten. Atrebentzian bazagoz, astebate barru berba egingo dogu.*

– *Atrebentziarik ez neuk?*

– *Gaez, ahal balitz, egunez nigaz ikusi zaiezen komeni ez bada.*

– *Gaez zein egunez, zein bitartean!*

– *Zatoz orduan gaez, neugaitik.*

Atrebentziarenak efektua eragitea eskertzen dut, neure eskaria izatetik libratzeko. Fuldain eskualde guztian dakuskezu, bere karguagatik dagokiona baino harago eta honago. Hegazti planeatzaileei bezala, inguruarekiko gaintasunaren exhibizioa jaitsiera pikatuetan bermatzea gustatzen bide zaio, joan zen eguneko enkontrutik atera nuenez. Amoroko tabernan gaude, goizeko meza osteko solas niretzat gozagarrien horietako batean. Herrian hau, munduan hori, ilargian bestea, badirudi goizaren argitasun gazteak, pare bat zurruten graziak eta astebarru sarritan bakartiaren elkar-goseak herritarren asmamena disparatzen duela. Norbaitek *botaik beste bat* agintzen dueneko, zerbitzariak egina du lana, berbaroan murgildurik dabilen inork *niri ez!* esateko astirik edo oharmenik izan aurretik. Igande

honetan ere, ohi bezala, handiegia ez den tabernako karkaxak barruan kabituko badira, lantzean batek uhin espantsiboak egotzita bezala kanporatu behar du, espaloi kontrako auto baten gainera, esanez: *Eskerrak hauxe hemen zegoena, bestela banajoak beste aldeko horman burua apurtzera.* Aktualitatean dabilen krisia dela eta (gero bizi guztia igaroko nuen krisia entzuten), bat esaten ari dela: *Hemen gerrikoa saman estutu beharko da laster, iluntasun bat zabaldu da mostradorean. Zer izango, eta gizon bat sartu da atetik. Berbak neurtu beharra izango da oraintxe ahapekatu didanari nik zergaitik?* galdetu, eta berak *kontuz horregaz!* alertatu nauenerako, esplikazioa abian da gizonaren ahots trumoizkoan:

– *Saman? Batzuek merezi leukie, bai, samatik be! Noiz bizi izan gara oraingo moduan? Nork ekarri dau hona beharra eta prosperitatea? Alperra eta nahastaila ugaritu da hemen, eskerrak emon eta bakea ondratu beharrean. Separatismo ziki-nak ekarriko deusuela uste al dozue orain daukagun komenentzia?*

Banuen zerbait entzute Fuldain delako bat bazela eskualdeko herri batean, frankista sutua bezain astokiloa. Lehenengo ezaugarria normalizat neukan, frankista izatea zaila baitzen sutua izan ezik, baina bigarrena ez zen derrigorra. Baziren agintariak, eurekin korrekzioz konpontzen nintzenak, edo, gutxienez, aurkaritza jakina halako distantzia profesioetik elkarri jasaten genionak. Batzuetan, adeitasun egiazkotik ere ez genbiltzan urrun, herri txiki bateko harreman nahitaez hurbilari dagokionez, konfesioa bera barne.

Taberna txiki bateko lagunarte inofentsibo baten gainera alberritar bat hain bortizki oldartzeak halako amorru alderantzizkoa sortu digu nola Jesukristori elizan merkataria aurkitzeak. Herritarrak makurtzen ikasiak baitaude, episodioa hortxe amaituko zatekeen, nire kontzientzian zartakoa gertatu ez balitz ezen hauxe dela une bat, Kristoren ordezkotzak bera imitatzeko eskatzen duena. Beldurrak, ordea, beste solaskideek, hondakin erradiaktiboa altzairuzko upelean bezala, isiltasunean isolatu dutenak, ni ere hasierako sumin-kolpetik berehalako abailmenera eraitsi nau, eta ziur naiz albo egitera eraman izango nindukeela, ahots trumoizkoak bere erretolikan jarraitu ez balu.

– *Entzun zuek Radio Paris, Radio Pirenáica eta horrelako zaborreriak! Horreek ekarriko deusue etxeetara ura, kaleetara argia eta bankuetara errituak. Krisia barik, guleria dago hemen! Orain arte denak isil-isilik, eta orain, pepe eginda jar-tzen hasi garenean, dena erreboluzinoa eta txarrikeria?*

– *Aizu, parkatu beste norbaitek be berba egitea, baina honeek sermoi luze samarra entzun barri dagoz elizan.*

– *Elizan elizakoa eta herrian herrikoa. Egiak edonon balio dau, eta guzurrea edonon*

ito behar da.

– Baina edonon ezin da edozelan izan. Egiak nondik dauka eskubidea edo guzurak nondik meritua, euren herrian bakez-bakez dagozenen ahorraino alberritar bat horrelako astrapalan sartzeko? Ala zeure herrian ez daukazu nork entzunik?

– Ez daukat herririk, neurerik ez besterenik, esan beharrekoa irunsi eragingo deustanik. Zuk agindu behar al deustazu non berba egin?

– Nik ez dot berbarik galazo, ahohandi bat apur bat baretzen saiatu baino. Neu be berbetan ikasteko lekuetan ibilita nago.

– Badakit ondotoxoa be zu nor zaren. Sermoi luzeak apur bat laburtzea ondo letorkion bat.

– Hurrengo domekan luzatzea tokatuko da, hau guztia esplikatuko behar bada.

– Ez al deutsezue honeei esplikatzen abadetza zelan baliatzen dozuen, inguruetakoz gazteria nahasteko?

– Eta eskolatzeko. Gazteriak jakin behar dau euren guraso asko zelan hil ziren gerran, edo zelan fusilatua izan ziren, euren herriedeek salatuta. Ez da nire irakaspena, gazteakandik eurakandik ikasia baino, inguruko bat baino gehiago dautzala lurpean, Fuldain delako batek bialduta.

– Zer? Esan al zeinke nortzuk dautzan lurpean, Fuldainek bialduta?

– Et, et, et! Paparretik helduta, ni baino gehiago zara. Atera beste errondaxo bat, Karpan (tabernariaren ezizena), hau berbaz konpontzekoa da eta. Nortzuk dautzan lurpean esango neuke, euren senide bizien zugarako bildurraren begiruneagaitik ez balitz. Kontua da, Fuldain –bai, bai!, utzidazu amaizten, lehen geuk zuri legez, purrustadak ez baitira berbakera inteligiblea–, kontua da, dinot, zure historial mardula ez dela aproposena sarreran jauki dozun egia-guzurren probari aurre egiteko. Kontua da zuekanako bildur inbentziblea be badoala galduz, zorionez, belaunaldi gazteagoetan, nahiz eta, seguruenik, aurrekoek bezain ondo zuek ez ezagutzeko suberteagaitik izan. Bajoatzue amaituz Francoren fragatan bazentozue legez edo non inperatzeko segurtasuna, zeuen Txit Jeneralak berak bizirik ala disekaturik dirauen be ez dakizue eta. Beraz, eta azken berbak putzak zeuretzat gordeta erantzuteko gauza bazina, hurrengoan gure artera, gizontasunez ezin bada, gizalegez sartzeko daukazu.

– Amaiz dozu?

– Arazo orokorra baietz uste dot. Konkrezino partikularragoetara jaitsi nahi izanez gero, denpora luzea beharko geunke, eta orain ez daukat astirik, orduerdi barru, meza daukat Gizaburuagan eta.

– Honelako abadeak ametitzerraino endekatu zarie? Ondo dago! Ausarkeria hortan laster helduko jako buelta.

– Eta zure jauntxokeriari? Nik badakit nire destinoa zein den laster: zu euren hain lagun zaren kuartelen batetik bizirik pasatzerik lortu badot, bizialdi luzea, zuen hain bernategi katolikoetan. Ez dakidana da zeu ohartzan ete zaren zeure destino hurbil

eta errukarriaz. Nire itzuleran, honeek guztiok beso zabal aurkituko dodazen eta hartuko nabean bitartean, zu, bazterren batean, burua agertzeko lotsaz egongo zara, bildurrez be bai beharbada, eta ernegaturik ziur eguzkiagaz, argi egiten dauelako.

Azken paragrafoa lasaiago eta ozenago jaulki dut, kasik deklamatu, artean joana baitzen, bere azken hitzen mehatxu tonuagaz batera. Sukarrak deformaturik bezalako aurpegikeraz kanporatu da, uhin espantsiboak egotzita bainoago berak uhina atzerantz ostikatuz. Handik egunetara, berdin larderiatsu, nahiz agian kezkatiago, berriz elkar ikusteko proposamenari ukorik egin gabe alde egin duenean, pentsatu dut, azkenerako, etsaitik etsaira, konfiantza hartzea lortu behar dugula.

.....

Gizaburuagan, abadetxe lokalak bere memorian atxikitzen zituen hainbat banako zein talderen artean, Ondarroako gazte batzuen erdiko zutabe mendetsu, zaharberriuan markaturik gelditu zen eurekin izango nuen harreman intentsioagatik, eta ez gutxiago, proposamena egitera aurkeztu zirenetako bat, taldearen buru zirudien mutil zail, luze eta beilegia, handik hiru urtera, heriotzara kondenatua izango zelako. Neu ere ordurako kartzelan, harexen alde izango zen egiten genuen lehenengo gose-greba. Heriotz zigor judiziala konmutaturik, heriotz zigor naturalak eraman zuen, urte gutxiegiaren buruan. Hor dakust bera abadetxe lokallean eseria, bizkarra aipatu zutabearen kontra, sei-zortzi neska-mutilen taldean. Gazte helduak dira, 20-25 urte bitartekoak. Biziak, jareginak, oldartsuak. Idealistak. Loriaurik nengoen, herri txiki bateko abade koskor, halako bisita inponentea jasotzeaz. Aurretik eta ondoren ere ez zen edozein izango, baina, orduko Euskal Herri konbultsoan, Ondarroa herri emblematikoa zen, itsasoan zein lehorrean, bakean zein gerran. Francoren Azor yatea, bere segizio heren-mundutarragaz, Donostiatik Santanderrera bidean edo bueltan, Ondarroa paretik zirkulu erdiko desbidean pasatzen zen, kosterreri horretan itsasoa sutan egon zelakoa ez sinetsi arren, egon zitekeela deskartatzen ausartzeke. Lokalean sartu ziren umeak, lehenengoan, saguak argia piztean bezala desagertu ziren, sustoa jijjika bigunduz. Bigarrenean, eskuak leihoen kontra kabestruan, errezel artetik zerbait ikusten saiatu ziren. Hirugarrenean, atea erdi-irekiz, burutxoak ager-ostentzen ziren. Laugarrenean, abadetxe atarira irtenik, erdi-agiraka esan behar izan nien:

– Umetxoak! Ez izan gogaikarriak. Laster amaituko dogu.

– Joh! Eta bitartean non egongo gara?

– Bitartean, horixe ez beste mundu guztia daukazue egoteko.

- Nortzuk dira?
- Gero esango deusuet.
- Gero, gero! Horixe esaten deuskue beti, ezer esan nahi ez dabenean.
- Hale! Ibil pilotalekuan. Barrero musturrik erakusten badozue, kortan giltzatuko zaituet.
- Nongoak diren bakarrik.
- Hori be gero.
- "Gero, gero, gero!"... "Gero, gero, gero!"–, kanta-leloa errepikatuz, arrapataka urrundu dira, nik aginduaz beste norabide batean.
- Umeak denean ume–diot, barrura itzultzean.
- Geu holantxe hurreratuko ginen baino abadeakana! –hots egiten du bisitarietako batek.
- Orain gitxiago! –beste batek–. Orain eurek ez gaitue nahi.
- Eta zuek abade barik ezin bizi! –zirikatzen ditut.
- Geu be Eliza gara. Baina instituzinoak diktadura moduan jokutzen dau. Eliza horregaz oso hasarre gabilz. Kristau konsekuenteak izan nahi dogu, ez santujale txepelak. Eliza santutzako horrek onartu nahi ez bagaitu, era alternatiboak bilatu behar doguz.
- Oraintxe uste dot asmatuko neukeela zuen bisitaren helburua.
- Ondarrutarrok gardenegiak baikara.
- Gardentasun apurtua, bera da arriskutsuena. Zeozergaitik egoten dira jauregi-jardinetako eta zenbait abadete-ortutako hormak kristal zatiz koroatuak.
- Bisitaren helburua ulertu badozu, erantzuna besterik ez da falta.
- Oraintxe bertan?
- Edo pare bat arnasa barru.
- Ea, orduan –hasgorapen, hasbeherapen–, joan-etorriko bakar sakon bat nahikoa den. Nik neure jarrera azalduko deusuet, gero zeuek erabagi daizuen. Eskualdeko beste herri batzuetan be banabilen arren, Ondarroa hemendik urrun samar dago, eta komeniko litzateke intrusio desleial bat ez iruditzen moduko hasiera diskreto bat aurkitzea. Zuek 'kristau konsekuenteak' dinozuen nik 'abade konsekuentea' esan beharko neuke. Suposatzen dot konsekuentzia hori askatasun moralean, justizia sozialean eta eskubide politikoan aplikatu nahi dozuela. Helburu horreek betetzeko marko on bat, ez dakit onena, baina bai, beharbada, emonkorrena, aldi eta inguru honetan, Eliza izan daiteke. Areago, Elizatik edo bere eragin-eremutik kanpora, oso zaila dela esango neuke, ze: alde batetik, diktadura militar honek Elizari bakarrik permititzen deutso espazio libre bakarra. Nahiz eta elkar-sostengu zinduren menpeko libertatea izan, bi aginteetako bata be ezin dau kolpera egin –ezta biek batera be– zuek edozein santujale bezain kristau ez izaterik, edo ni abaderik menkorrena bezain elizgizon ez izaterik. Barruan gagoz, eta barrutik harako krakada beti da sakanagoa, definizino soilz, kanpotik barruranzkoa baino. Bestetik, kokapen kasik

ezarri horren gainetik, guk badogu mezu bat, mezu ebangelikoa, argia, ederra eta guztiz ulergarria izan daitekeena. Eliza instituzionala delako sofistiazio adulteratu horri jarki behar jako Ebangelioaren sinpletasun gardena, ia ebidentzia ezinbestekoa esango neukeena. Geu inogaz hasarratzen ahalegindu barik, mezuak berak sortuko ditu kontradikzinoak. Azkenik, Elizatik edo bere eragin-eremutik kanpora efektibitate handirik ezin lortzeko arrazoirik pisutsuena da gure ingurua, eta oro har, Euskal Herria, ia erabat kristaua dela, edo katolikoa, behintzat. Bere pentsakera, sentikera eta siniskeratik tiratzea izan daiteke herri zapaldu honi askatzen laguntzeko erarik emonkorrenetako bat. Baleiteke zuek, fede edo eliz kontuetatik aparte, ekintzaile kultural, sozial edo politiko soil moduan lan egin nahi izatea. Ez neuke era horretan kolaboratzeko eragozpenik, neu be herritarra nazenez gero, baina suposatu nahi neuke zuen nigana jotzea nire izate eta status eliztarragaitik izan dela. Beharbada, ez zinen horren zehaztasun esplizitutik abiatuko, baina halan balitz, zuen proposamena gogotsuago onartuko nuke; eta esimatuko neuke abadetzak eskaintzen dituen abantailak baliatzeko moduan hartuko baninduzue.

Susmatzen nuen, baietz truke, euren gogoia ezin zuzenago interpretatu nuela esango zutena, horixe da, hain zuzen, guk nahi genduena!, baina senak, edo hain zapla bertara altxaturik aurkitu nintzen pedestalaren bertigo puntuak, printzipioen deklaraziozko solemnite bat eskatu zidan, ez hainbeste, balizko kasu batean, hartatik defendatzea ezinezko izango ote zen beldur nintzen zerbait zehaztezinari aurrea hartu nahi izatearren, baizik, bisitarien asmoez hobeto jabeturik, neure buruari aurrera-pausorako sendotasun bat eskaintzearren (eta baita –hau parentesian esan behar dut– hain ezustean gainetorri zitzaidan gorapenaren banitate primarioagatik ere). Primarioa edo... genitala, agian, neska exzitanteen arretagatik? (horrek merezi zuen parentesitik ateratzea).

Eliz agintariekin enfrentaturik egoteak ez zien ondarrutarrei eragozten –berori zen, hain zuzen, enfrentamenduaren arrazoi handietako bat– eliza behar zenean okupatzea ('inbaditzea' zioten agintariekin), euren protesta erligioso, zibil edo politikoak gauzatzeko, partikularitasun bitxiagaz ezen, proportzio handi batean, meztarrak eurak zirela jarraian okupaziora pasatzen zirenak, eta alderantziz, egin-tza bata eta bestea guraize beraren bi orriak bailiren, naturaltasun berdinez nola tu egiten zioten aurkian Franco eta iruntzian Hilen Harana zekartzan txanponari. Hala ere, nahiz eta pentsaera ofizialdun kristauekiko errespetuan jokutzen saiatu, zaila zen herikideen arteko tirabirarik ez sortzea, batez ere eliztar erregimentzaleek aldarrikatzen zuten inbasio-doktrinagatik, non, errespetu erligiosoaren bilgarrian, azpilan guztia egiten zuten, 'errebeldeen', 'nahasleen' eskakizunak globalki izentxartuak izan zitezeten. Herriaren sentiera nagusia bestelakoa izan arren, ofizialismo erligioso zein politikoaren jarraitunak ere ez ziren lau katu, eta hain gutxi, lau katu

biluz. Francok ez zirauen hain luze armengatik bakarrik, atxikimendu sendoengatik baizik. Eliz agintariak, kristau 'nahasle' haiei ezin begi txarragoa izan arren, ez ziren ausartzen poliziarri elizan sartzeko eskatzeraino, eta guardia zibila ere ez zen ausartzen, oraïndik, eliz baimen gabe irrunpitzin. Bai ausartzen zen elizak hertsiki inguratzen eta hurbiltzea mozten, behin behintzat, nire abantaila handirako. ETako lehen ekintzaile erailaren, Txabi Etxebarrietaren, aldeko meza kanpaina historiko hartan, Ondarroan ere, nola ez, izendatu ziren eguna eta ordua. Elizak ezin zuen arima baten aldeko mezarik ukatu, are gutxiago, zenbat eta pekatariago izan zela suposatu, hainbat otoitz premia handiagoa aitortu behar zitzaion baten kasuan. Bertako eliz agintarien gogoaren aurka, sermoia egiteko eskatu zidaten, baietz erantzun nuen, joan nintzen, eta beste ehunkaren, milakaren artean, elizara hurreratzeko plantarik ere ez izan zen egin. Elizkizuna ofiziatzekoa nintzela argudiatzek ez zuen balio izan, neure kautan niela: *Total txarrak be ez zarie. Onetik libratzen nozue!*

Kosterri horretan murgiltzen hasi nintzenez, ez nekien zertaz gehiago harritu, hango arrain-motez ala talde-motez. Biltze-eskubidea abolitua izateak bakoitza erreboluzio bat izatea eman zuen, errepresioa ere arabera ankertzen zela. Olatu orokorraren gorakadak Ondarroan konnotazio intentsuak eta anizkoiak izan zituen, non, kultura, gizarte, politika eta erligio, motibo guztiak ur berean elkartzera zetozen. Guardia zibilaren gogo profesionalki amorratu baina teknikoki oraïndik rudimentario samarrak kostata zerrendatzen zituen atxilogaia, zail egiten baitzitzaion bereiztea nor ez zen atxilogai. Errugabeei eskrupulu gabe heltzeko metodoa ezarri behar izan zuten, probabilitateak errudunak ere aparatuko zituen itxaropenez, nahiz eta beti gelditu ameskaitza ezen, atzitu zen bakoitzeko, ihesle jakinak edo saihesle anonimoak hamarka biderkatzeko efektu madarikatua gertatzen zela. Metodoaren injustizia, eragileen buruan, sobera justifikatzen zuen orduan ere 'zuzenbide-estatua' ziotenari zegokion fideltasunak, ustezkoago berau egiazko baina, olatuaren handitze azeleratuari sinestekotan. Bikote batek diost:

- *Ezkontzera goaz, eta kristauki ezkondu nahi geunke.*
- *Zorionak lehenengoagaitik. Bigarrenagaitik ezingo zaituet madarikatu, nazeña izanik. – Baina guk ez dogu sakramenturik nahi kristau legaltzat onartzen ez gaituenen eskutik.*
- *Baleiteke onartuak izatea, ordain on bat opatuz gero.*
- *Hori txarrikeria litzateke.*
- *Porcus Christi! Ez jat bururatzen beste zein alternatiba izan leitekeen.*
- *Izadiaren elizan, eta zeure eskutik, oneritziko bazeuntso.*
- *Ona! Izadia Jainkoaren sorkuntza da, eta ni abade legala naz. Beste kontu bat da baldintza horreetan buruturiko zeremonia Eliza ofizialean balioetsiko deusueen,*

*gero zerbaiteko behar bazendue. Beharbada, zibilki be ez jatzue onartuko.*  
 – *Aprobatu barik ez da jakiten. Ondorio seguruetara bakarrik jokatuz, sekula ez ginateke ezertan aurreratuko.*  
 – *Arrazoi hori akinotar doktoareen aipu literala ez bada, uste dot bildur barik emon leitekiola baztartxo bat, Summa Theologica-ko hamazortzi liburukietako edozeinetan.*

"*Santa Eufemiko zelajen, laprast eindde jautsi nintzen, hazurrik ez neuen hausj, mamife mailletu baizen*". Aulestiko mendi horren tontor-tontorrean bada baseliza bat, izadiaren gingatzat har zitekeena, baina hirurehun eta hamahiru harmailen barreneko zelaia nahiago izan zuten. Aldareztat harkaitz gotorrak (*tu es Petrus et super hanc petram*), edo pagopean zurezko mahai sendoak (*in mensa tua, Domine*) izan arren, zelaian eseri ginen, hogeita hamar bat laguneko zirkuluan. Zorua apur bat sakongunean, eguzkiak nahiago zuen haitz zurisketan islaturik iritsi, zuzenean baino. Inguruak mezako espezieak ere naturalak izatea eskatzen zuen, hots, bakoitzaren motxilako ogia eta ardoa. Ez ezkongaien eta lagunen aldetik onartzeko eskrupulurik suposatu behar zelako, baina zirkunstantzien konkurrentzia egin-eginean zetorren gogoratzeko nola Jesukristok eurekin afalduko ziren ogi-ardo berberak hartu zituen mahaitik, zentzuzko zen moduan, Jainkoaren seme sibaritatizat agertu nahi ez bazuen. Eta nola teologia kanonikoaren beste inbentzio horiek 'gure eguneroko ogiaren' arbuizatzaile klasistek ezarri zituzten, handik mende batzuetara, mezuaeren korrupzioetik. Ulertuz, beti ere, eta maitatuz, noski, hain espezie sofistikatuen eskakizuna mendeetan eta dogmatikoki sinestera behartu dituzten kontzientzia menperatuak. Eguna jai kosmogoniko kasik edenikotzat gogoratu beharko nuke (ondarrutarrekin neka zintezkeen, aspertu inoiz ere ez), ospakizun hartara igoarazi gintuen ibilbideak bueltan berriz ere kinka delikatuak, batzuk larriak, ekarriko zituela ohartun izan ez bagina, garaiaren gordintasunaren arabera. Zorionez, nire oroimenak, malkarrei denborarekin berdintzen utzirik, atseginezko leuntasun panoramiko bat besterik ez du gordetzen. Bostehun urtez bizi banendi, arrisku handia dagoke XX. mende alua zorian betean joantzat senti nezan.

.....

Garai iraulkor haietan, lagun baten kasutik atera nuen apaiz baten kalbarioa osa dezakeela honako ezaugarrien hirutasunak: lerden, atsegin, beldurti. Azken hau hobe litzateke, beharbada, 'gizajo' bezala definitu, kalifikazioak delako pertsonaren irudia gehiegi uzkuruko ez balu, baina Don Anton bezalako gizase-m bat, metro eta laurogeian gorakoa, lerden, bezain atletikoa, berezko sinpatian

txapelduna, ustekabea hagin bat erori zaion haurra bezala negarrez urtzen ikusteak gizajotik ere jaisteko gogoia ematen zuen. Zer gertatzen zitzaion gizon hari, mahaiaren beste aldean, gorputz erdi bere malkoen eta auhenen gainera botata, aflikzio errenditua zirudienari, tarteka *bajakiat nondik datorren* zotinka?

Neska bat beragandik haurdun dagoela zabaldu dute, beste zurrumurru batzuen errematetzat, hala nola, etxean daukan lehengusina neskame baino 'gehiago' dela. Lehengusina hori beste neska batzuen, haurduna barne, erreklamua dela, haren lagun aitzakian etorri eta lehengusu abadeagaz 'jolasteko'. Lekeitiotik Ondarroara bitarteko haitzetara apropos joaten dela, badakielako, toki diskretua izatearen babesean, bere ohituraren berri dazaguten neska-taldeak —eta mutilak ere!— harantz inguratuko direla arnasa hasperenka apurtzera, sotanapean imajinatuta ohi zuten gorputz oparoa bainujantzian askoz ikusgarriago aurkiturik. Egia da Don Anton, bere edertasun fisikoez gainera, gizon atsegina eta jendekina dela, baina *nik zer erru daukat horrenik?* auhenka, desesperatzen zait tarteka, eta ez dakit zer egin, aldi berean bere arrakasta bekaiztu eta bere patuaz errukitu besterik.

Badiruzi izaki dohaintsuei berez, ia nahitaez dagozkiela amodiozko nahaspilak, suposatzen baita dohainek —batez ere, norberak ez dituenek— erabiliak izateko patua daramatela, kontrakoa naturaren errorea bailitzan. Orduan, norabide gehi grina horretan, gezurra eroso zabaltzen da, ura kristalezko lautadan bezala, egia bilakatzeko segurtasun labainaren gainean. Azkenean, gertaerek alderantzizkoa frogatu badute, beti dagoke onarpen orokorreko deitore baten arrazoia: *Pena da, ba, gezurra izana!* Seminarioan ikusi izan ditut mutikoak, negaraldi amaigabea. Neu ere bai, ohe gainean kakalardo eginda, edo lotegi kolektiboko armairu-ate irekiko ispiluaurrean, ez neure burua ikustearren, ondokoagandik ostentzearren baizik. Sekula ez zait gertatu, ordea, honelako gorpulentzia sotanadun bat honen arranpalo ikusterik, zergatik zehazki ez dakidala. Sukaldera sartuz batera, bere gorputza mahai gainera jaurtirik, harakinak txahal larrutua bezala negarrari eman dio, *hondatu nahi nabe!* errepikatuz. Aldi batean asaskatzen utziz arestian aipatu auhen-hitzak tartekatzen zituela, baina amaitzeko itxurarik ezin hartuz, tentaturik egon naiz trufatzeko: *Anton Piruleron! Hi mutil handiegia haz, horren umeki negar egiteko.* Azkenean, honela abordatzea erabaki dut:

- *Ea, Anton! Negar gero egingo joagu. Orain esaidak nik zertan laguntzea nahi doan.*
- *Ezin dozu ezer egin.*
- *Motiboa zein den jakin be ez?*
- *Badakit nondik datorren!* (Negar, negar, negar).
- *Hori lehen be entzun joat. Negar-uluok be bai. Emoidak nondik horren xehetasun*

*bat, izen bat, ahal balitz.*

- *Lehenik, 'zer' jakin behar da. Hondamendia!*
- *Bajakiat. Entzuna joat zelako fardela zabaldu deuaen, baina inork ez jok sinisten. Aitzitik, denek hartzen jaken infamiaren adibide higuinarriztat.*
- *Hori ez da horrela. Onenean be, beti geratzen da duda zital bat, txarto esaten jarraitu nahi dauenak inpuneki ekin deion.*
- *Momentuko atsekabea ukatzeko bezain inkontzientea ez nok, Anton, baina dena argituko dok. Hire herrian oso maitea haz, inguruan hire izena oso errespetatua dok. Zalapartaren ondoren, lehen baino donago izango haz edonon.*
- *Neugaitik ez deust hainbeste ardura. Ba al dakizu neska batzuentzat, neure etxeko lehengusina barne, eta euren familientzat, zelako lotsaria sortu den?*
- *Hori guztia bajakiat, Anton, hik beste sentitu ezin bajoat be, baina gatxa enfaizatzuz ez dok atsekabea leunduko. Esaidak, behingoz, 'nondiko' edo 'nogandiko' horretaz zer susmo daukaan.*
- *Ziurtasuna! Nakusen guztian, berak aurpegiatzen deust. Harrotu egiten da, gainera, zelako zuloa zabaldu deustan exhibitzen, handiangoak zabaltzeko boterea daukala mehatxatuz.*
- *Izena badakik, beraz.*
- *Zoritxarrez.*
- *Nik jakiteak zoritxarra handituko leukek?*
- *Bildur naz esaten.*
- *Anton! Katakumeak gozak, ala zer? Sukaldea malkoz uholtzera bakarrik etorri al haz nigana?*
- *Ezin dot ekidin.*
- *Ez jak eskatu be egin. Baina bai agintzen jak jaulkitzeko izen hori, atoan kanpora bialdua izan nahi ez badok, atetik edo leihotik.*
- *Mmm...*
- *Herriko idazkaria?*
- *Ez da herrikoa.*
- *Eskualdeko falange-burua?*
- *Hurrean zabilz.*
- *Fuldain?*
- *Bera!*
- *Mekabuen el Fulminio Dartañaga Inkamendios! Hori, joan den astean, neugana be etorria dok mehatxuka, 'Fuldain, txibatoa eta puteroa' delako panfletoaren erantzuletzat salatuz. Hi be horregaitik mendekatu nahi al hau?*
- *Nirea beste kontu bat da, latzagoa eta zuzenagoa.*
- *Arraioa! Gizon horrek hidra batek baino formaniztasun gaiztoagoa ete jaukak?*
- *Forma guztiak batera esango neuke.*
- *Hasi kontatzen, orduan.*

- Kontu luzeegia da.
- Hasi kontatzen, dioskura! Eta altza buru hori! Alperreko negarrari ekin beharreen, lehenengotan hasi bagina, honezkeru tabernan gengozkean, dena amaituta eta, beharbada, soluzinoa aurkituta.
- Soluzinoa...a...a...a...
- Altza buru hori, ala mazoa ekarri behar joat?
- Bandera kontu madarikatua!
- Joño! Parka parentesi alu bat, baina aurpegi fulminiar horren agerpenak Goyaren Akelarre-ko aurpegi bat jirudik.
- Ba, orain Velazquezen Bredako errendizinora atzeratu behar dogu, Santa Eulalia zelaian, Oizko mendi-maldaren balkoiune batean, badakizu.
- Baseliza hori ez dok zuen herrikoa.
- Bertako abadeak eskatu eustan, Don Hilariok, bera haraino igoteko zahartuegi zegoela eta. Ikusiak ikusita, susmoa daukat Don Hilario zerbaiten bildur zela. Joan nintzen sano-sano, eta zelan ez, poz-pozik, eta hamaitetako meza aurretxoan, inguru guztia jentez beterik, eguna be halakoxea, badakizu erromeria hori ospetsuenetakoa dela, hor jatordez gazte batzuk janzen hasita nagoen altara ondora -baselizetan badakizu sakristiarik ez dagoena-, esanez:
- Parka, jauna, baina gauza bat oharraraztera gatoz. Susmoa dogu alkatea eta agintariak mezatara sartzeko asmotan direla... badaki berorrek zegaz?
- Udal bandagaz?
- Bandera espainolagaz!
- Espainiako... -ez nekien zer esan.
- Berberagaz! Horrelakorik gerta baledi, zin dagigu, mezerdian himno nazional espainola hasiz batera, baseliza airean joango dela.
- Nork esan deusue hori?
- Jai eta kirol zinegotziari piper-potoa baturik ikusi deusagu. Ez eben ekarriko, zelai erdiko Donearen Haretx puntan zabaltzeko, horretarako potrorik ez leukie izango eta.
- Shh! Isilago, mesedez!
- Ziur elizkizunerako dela, mezaren errespetuan zerriki babesturik.
- Eta nik zer egitea nahi dozue?
- Esan alkateari, bandera espainola elizan sartzen badabe, ez dagoela mezarik.
- Hori ezin dot aurreritzi, zabaldua dakarreela ikusi arte.
- Ikusi eta gero, izango al da berori meza suspenditzeko gauza?
- Baina, gazteak! Ordezko huts bat naz hemen, herrikoa be ez nazena. Zelan suspendituko dot meza, beren-beregi etorritako hainbeste kristauren aurrean?
- Dozena-erdi jauntxo beste guztiek biziro eskertuko dabe, baita goretsi be, beroren zintzotasun profetikoa.

- Ene Jainko ezkutu! Gazte maiteok! Ni ez nozue heroi troiar bat, giza... 'kume' kikil bat baino. Zergaitik ezartzen nozue ezpataren eta zezenaren artean?
- Alkateagaz berba eginda, jakinarazo leio berorrek zer istilu-asmo usnatu dauen.
- Usnatu nondik? Haizetik? Txibato lana egiteko agintzen al deustazue?
- Aurkituko dau berorrek era noble eta konbintzenteren bat.
- Eta jaramon egitera ukatuko balira, prebisiblea denez?
- Orduan, gure zina literalki betea izango da.
- Minutuak baino falta ez zirela, baseliza eta inguruak jada jentez beterik, janzen hasia nintzela, erantzi eta kanpora urten neban, formazioan sartzen hasteko orduaren zain zegoen agintariakana. Bandera tente, baina oraindino zabaltzeko zeukien, zorionez.
- Zu al zara alkate jauna, mesedez?
- Jainkoaren eta Espainiaren zerbitzurako.
- Etorriko al zara, mesedez, altara ondora, gauza bat komentatu deizudan?
- Monagilo noala pentsa daieen? Berton ez al da bardin, gauza larriren bat ez bada?
- Hobe dogu bakarreen eta apur bat aparte berba egin.
- Esan berton esan beharrekoa -banderadunak-, konspiratzaileak be ez gara eta!
- Ezin al dogu diskretuago berba egin? Istilua berton has daiten nahi al dozue?
- Zer istilu, madarikatua? Alkatea neu ez al naz?
- Hori inork ez dau dudan ipini, baina bandera hori mezara sartzen badozue, baseliza airean joango den mehatxua jaso dot.
- Nork? Zelan? Geu barruan gagozela?
- Banderarik mezara sartu ezin? -banderadunak-. Derrepente zabalduko dot.
- Mesedez! Itxaron apur batean. Saia gaitezen berbaz aditzen. Derrigorra al da, Jainkoa zerbitzatzeko eta Santa Eulalia ohoratzeko, oihal hori altararaino sartzea?
- Bai da, mehatxu horreei lepoa mozteko.
- Eta mehatxuak beteko balira?
- Astaputz bedeinkatuak! Guardia zibila zertarako dogu hemen?
- Parka, jauna, baina pentsa non gagozen. Gazteria beroago eta ugariago dago hemen, guardia zibil bikote soil batek menperatzeko baino.
- Hori ikusiko dogu. Kemena ez da bardina mihiñean eta eginean. Nahastaille txoriburu batzuen mehatxueta makurtzen hastea besterik ez geunke behar, gerra bat hain erraz irabazi eta gero!
- Ez dago atzerarik, beraz?
- Ez atzerarik ez alborarik. Zabaldutako bandera salbatzailea, eta aurrera!
- Geldi apur batean! Zeuen Txit Jeneralak elaboratu eta sinatutako Konkordatuaren arabera, zuek ezin zarie agintari moduan eliz eremuan sartu, eliz arduradunen



baimen barik. Arduradun hori, ordezeko banago be, neu naz gaur hemen.

- Elizara sarrera ukatzen deuskula esan nahi dau berorrek?
- Ez dot hori esan, eta ez dot esango. Bakarrik dinot ezin zariela nire gainetik pasatu, berbak amaitu aurretik.
- Berbak amaitu dira, eta, gainera, ordua da! Jentea alarmatzen baino ez gabilz hemen.
- Orduan, alperrik sartuko zarie. Ez da mezarik izango, hori be zeuek emon nahi ez badozue.
- Mezarik ez... gugaitik? Herriko agintariakaitik? Bandera ofizialagaitik?
- Mesedez, gizonak! Ez zaitzeze berotu abade dohakabe baten gainera. Badakizue ni ez nazela egundo ezertan sartu. Orporaino damututa nago zuen parroko zaharri mesede bat egitera mendiratu izanaz. Une honetan ez naz izuontzi errukarri bat besterik. Baina, destino errukigatxak su biren erdira kondenatu nauenez gero, ezin naz arriskatu, zuen hasarrea eta, beharbada, mendekua be ekiditearren, gero zeuek be damutuko zinatekezen auskalo zelako triskantzari bidea emotera. Banoa barrura. Banderagaz bazatoze, mezarik ez dagoela iragarriko dot. Egizue nahi dozuena.

*- Ez ziren sartu. Meza tentsoa, eztenkorra izan zen, jenteak nabari baiteban zerbait goria gertatua behar zela, agintariak ez sartzeko. Jakin be bai gehienek, gazteek ahopeka zabalduta. Nire ardura nagusia eskuen dardararik ez igartzea zen, baina, hostia eta kaliza santuak jasotzean, Jesukristo gizajoari perlesiak emon eutsala zirudien. Gure Jauna banatzean be, kosta jatan mihin batzuk, berez be zirinak, azartatzea. Sermoia laburra eta mordoiloa egin neban, laburragoa izango zena, pentsatutako unean amaitzen asmatu izan baneu. Jenteak atera eban argitasun bakarria izan zen Santa Eulalia trikitilari ona izan zela. Ezusterik handiena meza osterako zeukan destinoak. Hatxezko horma bertikal baten erditik arpoi antzera urtetan eban hatx-adar batean, ikurrin itzel bat agertu zen dingiliz. Ha zelako zalaparta eta zoramena sortu zen! Guardia zibil bikotea eta agintariak laukoan abiatu ziren beherantz, errefortzu bila edo. Ezustearen handiena ez zen, ostera, mogida hori guztia izan. Zelaia astrapalarik zatatsuenean harrotzen zen bitartean, hor jatorri Fuldain, agintariekin artean isilik egona, heltzen deust esku bategaz paparretik, eta besteagaz ikurrin eskegia seinalatuz, dino:*

- Ikusten berorrek hori? Ikusten berorren mehatxugile konsentituek gure bandera nazionala zegaz laidotu daben? Hau ez da horrela geldituko, eta berori be ez da protagonizatu dauen txulokeriagaitik heroi bihurtuko, mehatxugile burubero horreen izenak salatzen ez baditu.
- Baina, Fuldain! Azkenean, gizakume ikaratu bat besterik ez nazen hau lortu behar dozue heroi bihurtzea. Nik ez daukat ezelako zerikusirik gaur hemen gertatu denagaz. Mehatxugileek eta zeuek ipini nozue saihestu ezineko artzian. Ez naizu

orain, mesedez, beste kalbario handiago batera derrigortu.

- Berori be euren alde?
- Ez nago ezereen alde, hazurretaraino ikaraturik baino. Ez eizu nire makaltasunaz abusatu, izenak eskatuz. Heroia ez naz, baina Judasenik ezin dot egin.
- Handiagoo egin dau berorrek, gure erregimen salbatzailearen -abadeoi jaten emoiarean!- sinbolo gurgarriari meza ukatuz. Judasen azkena badaki berorrek, ezta? Ba, hasi zuhaitz bila, soka neuk dakit zegaz kordatu eta. Elizan bandera espainolik behar ez bada, abade 'puteroak' be sobra dagoz.

*- Berba zantar horreexek airera jaurtita aldendu zen mendi-zidorrean behera, pinuei, ezker-eskuma, makilada gorrotozkoak jaurtiz, neuk hartu beharrekoen esanguran legez, edo, soilik, seinale gisan markatuta uzteko, "hi bai, hi bai, hi be bai... samatik denok!". Ez daukat dudarik nire kontrako infamia guztiaren estrategia Fuldain izan dela. Horixe da nire historia tristea.*

*- Arraioa! Hastea kosta jak, baina bai amaitzea be! Fuldain madarikatua! Kontu batzuk beragaz konpongai jaukadaz, eta higazko zapalkeria be sartuko joat sortan. Sasoia dok lekaio ganstertuoi aurre egiten hasteko.*

*- Nire izenik ez aiatu, mesedez. Okerraldia amaituko da noizbait, denporak ezartzen dauen justiziaz edo ezabapenez. Gizon horregaz ez dot ezelako etsaigorik elikatu gura, irabaziko neukeela jakinda be.*

*- Nork dinoa hurrengoan ez dela heure parrokan agertuko, exigentzia bardinekin?*

*- Gu suberteko gagoz horretan, ze gure alkatea, herriko jaiak inguratzean, ezkutatu egiten da urtero, Errioxara edo inork ez daki garbi nora, nahaste posibleetatik ihesi. Ha ez dozu lokalizatuko, itsasoak su hartu badau be, baten bategaz koneksino sekreturen bat izango dau baina. Alkatearen faltan, zinegotziek be ez dabe ezertan sartu nahi izaten, eta jaiak inon baino baketsuago joan ohi dira.*

*- Fuldain astakirten horixe dela, beraz, eskualde guztiko ofentsibaren arpoi nagusia. Hi lasai, Anton. Asmatuko joat abordatzeko moduren bat, hire informazioaren ezelako susmorik sortarazo barik.*

.....

Oraingo zelaia areto rektangular handi, erdi-gotiko, garai samar bat dugu, tren-geltoki itxi bat bezalakoa, iraupen erosorako txikitua. Ekitaldi-areto, jantoki mediebal, kapera monastiko, zer izendapen eman zalantzan nabilen bitartean, sexu bietako ehun lagun, gazteetatik adin luzeetarainoko maila guztiak, maletak lekutzen eta lokalean kokapena antolatzen dihardute, aulkiak eta mahai astunak kongresu zirkularrerako bezala jarrit. Sabaitik eskegitako kandelabro laukoitz, horiska, kankailuek, eta iluntasunagatik, patrioren batera damatela diruditen alde

bateko leihate beiratedunek beste mundurako itxarongela pentsaraziko lukete, ehun lagunen atzera-aurrera marmartsu, itxuraz informal, baina helbururen batera lehenbailehen iristeko lehiatsuak azoka arrapatako bat emango ez balu, bi gudu-fronteren artera sartua. *Hau be ez ete dok beste okupazio bat izango?* Ez da, baina beldur naiz ez ote den horixe bilakatuko, edo, argiago esanda, aretoaren alde itsuaz kanpoko errepidearen beste aldea jotzen dagoen kuarteletik horrelakoxe interpretazio aluren bat, profesionalen bat, ez ote den gainetorriko. *Hauxe dozue aretoa. Kabituko zariela uste dot.* Horixe esanik, priorea klausurako atetik aldendu da. Komentu batean gaude, beraz, baina geure araupeko. Bi ondarrutar autobuskada, karmeldarrenean preso, guardia zibilen gotorlekutik pare bat ezpaloitara. Film surrealista baten abiakera. Gogo-jardunak egin behar ei dira. Horrexek salbatzen du gidoia.

- *Badakizu hona etortzeko den jenteak errebelde fama daukana* –esan nion priorari.
- *Guretzat kristauak dira* –erantzun zuen-. *Komentua errespetuz hartzen dozuen bitartean, ez dago zer esanik.*
- *Ondarroako parrokiatik baleiteke txakurra ezartzea, eurek egotzitako 'matxi-noak' abegitu dozuezelako.*
- *Gu ordena independentea gara, parrokiekin adiskidetasun kristauaz beste loturarik ez daukana.*
- *Predikari gatozen biok ez gara gotzainaren begi-begikoak.*
- *Berak ez al zinduezen abadetu? Gu ez gara nor beste egitura batzuen ortodoxiak epaitzeko.*
- *Kuartela be hortxe dozue aurrez aurre, errepidea bitarte.*
- *Horreek ez daukie eskumenik gure etxe barruan. Adiskidetasunean ez bada, autotasun kristauan bizi ezinik ez litzateke behar.*

Sinestekoa zen gizona seguru, konbentziturik mintzo zela, garaia ez baitzen erabaki buruarinetan menturatzekoa. Ondarroako kristau talde handi batek (ofizialki 'nahasleak', baina, euren hitzean, kristau konsekuenteak izan gurakoak) garizuma desafiotzat ulertu zutenen aldetik erantzun zitzaizen gogo-jardunak jada antolaturik zeudela parrokia gisan, eta nahi zuenak haietara asistitzea zeukala, beti ere, erakuntza horren mentasunean. Taldearen ordezkariak azaldu zuten eurek ez zutelara elizaren erabilera besterik eskatzen, beste jardueretatik libre zegoen ordu batean. Predikaria eurek ekarriko zutelara, inor molestatu gabe. Funtsean, aukerara paralelo bat eskaini nahi zuten, kristauen hautagarri, ohiko ereduaren ondoan. Itxarotekoa zenez, ezetz. Parrokiako jarduerak parrokiako arduradunek erabakitzen zituztela.

- *Orduan herritik kanpora joko dogu.*
- *A zer bakea!*
- *Denen aurrean argi geratuko da zer zarien: diktadura moral bat, beste diktaduraren lagun.*
- *Denen aurrean argi geratuko dena da nahastea besterik ez zendueela bilatzen.*

Kanpora jotzeko mehatxua errazagoa zen, aurrekari haiekin inon tokirik aurkitzeak zirudiena baino. Eta zirudiena errazena izan zen. Markinako karmeldarren komentua probatu genuen, eta baietz, zergatik ez.

- *Azaldu al deutsezue behar bezain argi zelako zirkunstantzietan goazen?*
- *Azal eta funts, xehetasun guztiak jaso ditue.*
- *Halan be, baietz?*
- *Baietz-baietz.*
- *Espiritu Santua badabil, beraz.*

Hiru egun izango ziren, goizetik iluntzera. Goizean hitzaldia ('sermoia', aktarrik inora bidali behar bazen) eta solas-debatea izango ziren, erdian orduerdi bateko atsedena-hamaiketako. Bazkaria, bertan. Ez zen komeni komentutik sar-irtenean ibiltzerik, kuartelaren ahoan. Bazkalostea kantuan luzatuko zen, ondarrutarrekin hastea baino amaitzea zailago zena berori. Arratsaldean, berriz ere hitzaldi edo 'sermoia', eta solas-debatea. Iluntzean, atezain legoak autobusak ataria tratatzen zeudela abisa zezanean, ondarrutarrak euren itsaso berorantz abiatuko ziren, eta bi jardun-emailleok, motor banatan, geure parrokiatarantz, ez bidetako nonbait, banatu aurretik, egunaren geure arteko balorapen bat egin gabe, kafe 'gogortu' bana bitarte zela. Edo askalafaria. Laguna familia ugari baten etxean bizi zen, non ikasia zuten abadearen erre-tiro ordugabeengatik ez arduratzen, auzoko txakurrek ere, ez asaldatzen bezala. Nire abadetxeetan, Amorothon eta Gizaburuagan, inor ez zegoen ez zain ez zelatan, salbu, Gizaburuagako sukaldean, metro biko erloju tripaundi bat horma kontratan, hau ere ondo ikasia nire ardurarik ez hartzen edo hutsarentzat jotzen.

Aipatu kantuari buruz, goizean eta arratsaldean ere izango ziren kanta-saio puntualak. Aldizka ur azalera irten beharra duten arrainek bezala, ondarrutarrek kantua behar zuten, ito ez zitezen. Kantu hori, arnasaz gainera, gogo-jardunbide oparoa zen. Artean, Lebeerie-ren diskoa (*Gu gara Euskadiko, Bakearen urzoa...*) zirkuito klandestino guztietan zebilen. *Ez dok amairu* taldea (*Ez dut nahi, Gazte gera gazte, Zenbat gara, Eta poeta...*) abiada furiosoan zebilen. Atahualpa Yupanki (*Un día pregunté yo...*), Brassens, Bertolt Brecht... Zerrenda amaigabea eta beroa. Atahualparen kanta horren itzulpen libre bat ere egina nuen, gero, idazkia galdurik, buruz gorde nuena. Aspaldiko urteetan kantatu gabea izan arren, uste

dut lortuko dudala orain berritzea, bakardade absolutuaren indistrakzio unibertsal honek lagundurik.

Leloa: *Behin baten galdetu bainun  
"Aitona, Jainkoa nun?"  
Aitonak triste erantzun  
"Jainkorik bai al inun?"*

Ahapaldiak: *Aitatxo galdua daukak  
omezurtz gaixo horrek  
lehengo gerra zikin hartan  
hil zian bala batek.*

*Hire anaiak harturik  
aitak utzi fusila  
tiro bat egiterako  
han jausi zuan hila.*

*Aitatxo galdua daukak  
anaia ere berdin  
handitzean jakingo duk  
nola bildu haiekin.*

*Geroztik hire amatxo  
urtua duk negarrez  
galdeioek orain berari  
Jainkorik bai ala ez.*

Behar ziren kokapenak eta zehaztapenak eginiak, lehenengo hitzaldia hasi beharra zegoen. Hiru eguneko jardunaldiek sarrera orokor bat behar zutela pentsatu genuen, honela jaulkia edo 'predikatua' izan zena:

*Kristau lagunok! Lagun kristauok! Andra, gizon, neska, mutil! Umeak bakarrik falta jakuz, herri konpleto bat osatzeko. Lasai pentsatu geinke Jainkoaren herri hautatu bat garelara, lur aginduaren bila, geure erreinu barriaren bila. Iheska legez etorri behar izan dogu. Katakunbetan legez batu gara hemen, aginte militar, zibil eta erligiosoan begietatik ezkutuan. Eliza ofizialak ez gaitu nahi, baina geu be Eliza gara. Izena kentzen ahalegindu arren, izaterik ezin deuskue kendu. Eta,*

*zorionez, gure izateak geroz jarraitzaile gehiago dauka. Eliza inkonformea garelara? Bai! Eliza iraultzailea? Zergaitik ez? Berboi gogorregi deritzenentzat, dinogun, beste barik, Eliza barritzailea garelara. Eliza barria nahi dogu, hau da: Eliza pobrea, Eliza librea, Eliza hemengoa, Eliza euskalduna. Eta hori, jakina, araberrako herri batean bakarrik gauzatu leiteke. Euskal Herriari edozein herriri beste eta lako eskubideak zor jakoz, gehi ebangelioko beste bi: batetik, txikitasanari eskaintzen deutsan errespetu handiagoa, eta bestetik, zapalduari autortzen deutsan lehentasuna.*

*Kontu honeek guztiak badakizue, eta badakizuezelako etorri zarie hona. Geuk be badakiguzelako onartu dogu zuen gonbita, duintasunean harrotzen gaituena bera. Zuek kristau, gu abade, komunitate berbera osatzen dogu, eta herri berbera jasan, eraiki eta burujabetu nahi dogu. Nire lagun hau Francoren diktadura militar-katolikoak gerra ostetik epaitu dauen lehenengo elizgizona dozue. Zuen herrian, Ondarroan, zelako errepresinoa dabilen sobra dakizue. Baina, zorionez, olatua gorantz dator. Ez dozue, behin baino gehiagotan, Ondarroako eliz dorrea alperrik asaltatu kanpai-jotze luze eta burrunbatsuetan, ez itsasoa sutan zegoela iragartzeko, olatu beroa gorantz zetorrela aldarrikatzeko baino.*

*Hori guztia horrela izanik, hots, erabagi guztiz kontzienteak ekarri gaituelarik, zer egin behar dogu hiru egunotan? Erantzuna bikotxa izan daiteke. Alde batetik, erabagi errebelde honen eta jarrera orokor konbatibo horren adar guztiak erlazionatu, zalantzak eztabaitatu, argumentuak pilatu, ideiak sakondu. Bestetik, kontzientziak eta sentimenduak sendoturik, estrategia argiak zehaztu, kristau-lana eta herri-lana batera eta ahalik efikazen aurrera eroateko. Beste era batera esanda, egoerak aztertu, errealtitatea zuzen diagnostikatu, elkar-lana finkatu, helburuak markatu, geure eta besteen indarrak neurtu, eta, horren arabera, ekin, ekin, ekin. Kristau fedeak babesten gaitu, herri fedeak kementzen gaitu.*

Egun biziak, beroak, alaiak izan ziren. Ondarrutar bakar bat nahikoa bazen itsasgora beherantz bidaltzeko, pentsa ehun batera, gazte eta heldu, andrezko eta gizonezko, komentu bateko areto erdi-ilun, fresko-freskoan, kandela-usain exzitantean. *Honeek fraileok derrigor erre behar dabe beste zeozer be.* Neuk ere pentsatu izan nuen, baimena ematean, ez ote ziren estasi punturen batean aurkitu izango, zeren, behin utziko emakumeei komentuko eremu intimoetara sartzen, eta berean hainbeste batera, nahastean eta ondarrutarrak, hori erlatibitatearen teorian ere nekez koadratzen zen.

*- Ba al dakizu Einsteinek zergatik zituen ulaje eta bibote beti haizatu hareek?  
- Bere burua haizete bat zelako?*

- Ez.
- Orduan, ez jakiat.
- Neuk be ez.
- Inork ez jakik?
- Ez dot uste.
- Ederra egin joagu!

Elizaren esanahi unibokoagaz topo egiten genuen beti, Vatikanoko estatuaren ñimiñotasunean beste azeptiorik kabituko ez bailitzan. *Ebangelioa hain argia bada, zergaitik ez dabe denek bardin irakurtzen?* Eta gotzainek eta probintzialek, eta gobernadoreek eta falangeek, eta gazteluek eta monastegiek, eta taxistek eta txibatoek, eta direnek eta ez direnek. *Mezua argia izateak ez dau balio, gizakia iluna bada.* Bidezko zen gogoetan zentratzen kostatzea, gizartean eragiteko hain gogo bizia eta erabaki irmoa zutenen artean. Ez al ginen horretarakoxe bildu? Gogoetak zenbait abstrakzio eskatzen zuen, baina Ondarroan abstrakzioa kresalak transpasatzen zuen. *Batzuetan, geure artean hain jarrera sutuki jarkiak agertzen badira, zer ez itxaron Euskal Herri zabalean eta mundu txikian?* Lasai eztabaida gintezkeen haserretzerainoko askatasunean, jakinik bagenuela zerbait infaliblea, gogobatasun intelektuala eta sentimentala noiznahi berregingo zuena: kantua. Ondarrutarrei *kantatuko al dogu zeozer?* galdetzea proposamen sentsual bat bezalakoa zen, kasu honetan, adinen eta intentsitateen bariablerik gabe, *'zaharrenak txarren'* delakoan ez bazen. Egoera orokorra, berriz, sentsuala baino gehiago, pasionala zen. Errepresioak hartara behartzen gintuen erralismo gordinaren barrutik, bazen euforia kolektibo bat, zeina hedatuz joateak segurtatzen zigun ez zela espejismo bat. Ideien eta sentimenduen kidetasun orokorrak grina ase baten atsegina sentiarazten zigun, itsadarreko urbeherak bultzaturik, arraunketa exaktoki batuan, itsasoaren konkista ziurrerantz bagindoaz bezala. Edo, alderantziz, bere gainean gentozen olatua hain zen handikorra, ezen konfiantza osoa genuen lehorra irentsiko zuela.

Komentuan geundenez gero, berbaroarean bolumena kontrolatzea kome-ni zen, errazena berori, eman zezakeenaz bestera, zeren ondarrutarrei, suabetik zemaieanean, inork ez zien igarriko zetazko panpinak ez zirenik. *Gogo-jardunak izanik, gerokorik ez al dogu aitatu behar, eternitate eta abar?* Oh! Eternitatea handiegia zen hain denbora laburrean sartzeko, itsasoa txikiagia bezala, hondartzako zuloa betetzeko. Herria, Euskal Herria, kristau herria, Jainko herria, Israelgo herria, dena zen bat, eta batasun horixe bilbatzen, argudiatzen, gozatzen joango ziren hiru egunak. Zorionez, Israelek oraindik ez zeukan gerora ondo merezita irabaziko zuen ospe beltzik, nahiz eta, izan balu ere, ez gintuen auzitik askorik desbidetuko, gurea argi baitzegoen Euskal Herria zena.

- *Gogo-jardunok biribiltzeko, zer deritzozue Penitentziagaz eta Eukaristiagaz amaitzeari?*
- *Banan-banan konfesatzen hasi behar al dogu, zoko batera bazterturik, galtzuginan ari bagina legez?*
- *Sakramentu komunitarioa egin geinke, bere jatorrizko izatearen arabera, eta gogo-jardunotan garatu dogun espirituaren haritik.*

Umeekin, hasiak ginen konfesio bateratuak egiten. Batzuok jada ez genuen bestelakorik egiten, baten batek berariaz eskatu ezik, zaila berori, umeen buruetatik eragozpen kanonikoek edo dogmatikoek agudo alde egiten baitzuten, etxetik-edo presionatzen ez bazuten. Nagusiekin zailago zen denen adostasunez eta kombikzioz aurrera egitea, eta, batez ere, nahitaez emango zen irudi ageria ongarri baino kaltegarriago izango ez ote zen neurtzea. Aurrerapausoak sor zezakeen eskandalu soziala ehotzeko gai izan behar ginen. Gogo-jardun haietan bildu ginekin ez zegoen problemarik. Konfesioaren egintzak berak ere ez zuen aparteko eszenifikaziorik eskatzen. Aurreko 'kontzientzia azterketa' esaten zitzaion hartan, geure hiru egunen gogoeta kritikoa egingo genuen. Aurkitzen genituen akatsak, 'pekatuak', batez ere elkarrekikoak, publikoki aitortuko genituen (nahi zuenak pekatu individualak ere aitortu zitzaizkien), edo, beste gabe, bakoitzak bere kontzientziari egingo zion aitortza isila. Eta damuaren gainera barkamena iritsiko zen. Hitz hutsezko bedeinkapena nahikoa zen, gurutzearen imintzio gabe. Bilera baten amai soil bat, apaiz baten azken hitzokin: *Jainkoaren izenean, zuen huts eta pekatuetatik absolbiltzen zaituet.* Halaxe egin zen, eta aukera eskaini arren, inork ez zuen banango konfesorik eskatu.

- *Eukaristia be geure ogi-ardaoekin egin geinke* -proposatu zuten-, *Santa Eufemiako zelaian egin genduen moduan.*
- *Leitekeena hori be, baina pentsatu beharko geunke Santa Eufemiako zelaitik komentu bateko barrunbera alde handia dagoela.*
- *Hango eta hemengo Jainkoa ez al dira bat bera?*
- *Berbera, noski, baina guk ez ditugu elizkizunak Jainkoa konbertitzeko egiten, elkar sendotzeko baino. Jainkoak ez gaitu, berak beretzat, ezertarako behar. Bakarrik behar gaitu, misterio ulerzaila bada ere, besteengana iristeko. "Horiei dagiezuena neuri dagidazue". Beste era batera esanik, "niri egin beharreko guztia besteei dagiezuena da". Jainkoak badakigu edonon ulertzen dauela, baina hemen komentu batean gagoz. Besteengana iristea bada helburua, ulertuak eta onartuak izateko moduan saiatu behar gara.*

Eztabaida luzeen ondoren, tesi prudentea nagusitu zen, radikalena, alegia, honela argudiatua. Konfesioa batzar itxuran joan zitekeen, baina meza bat oharka-

bean pasatzea zaila zen. Eliza galanta bertan zeukan komentuko nagusiek onar ezaketen elizkizuna gogo-jardun aretoan ospatzea, mahai bat aldare bihurtzeko gehigarriak eta meza-jantziak bertara ekarririk. Hori guztia egin genezakeen, noski, inori ezer esan gabe ere, elizkizuna geure erara atonduz, ogi-ardo arruntak barne. Inor ez zen alto ematera etorriko, baina bai jakingo zuten zer meza mota burutu genuen. Jardunaldi bestela ere zeresangarri batzuetarako hain eskuzabalki (eta ez arrisku gabe) ireki zitzaigun komentu bat zertarako jarri behar genuen, tokia emateagaz gainera, euren kontzientzientzat gehegi izan zitekeen nobedade bat estaldu edo gaitzetsi behar izateko konpromisoan, alde askotatik etorriko zitzaizkien kontu-hartze, agian salapenen aurrean ezen orgia sakramental bat anparatu zutela? Bestalde, zer aurreratzen zuen gure kausa ustez askatzailak, lagun hartu gintuen eta, beraz, gurekin neurri bateko kidetasuna izan behar zuen komunitate eragintsu bat arerio bihurtuta? Espezie sakramentaletan zentratu, egia izan arren ebangelioaren espiritua ogi-ardo kanonikoek baino hobeto errepresentatzen zutela gure eguneroko ogi-ardoek, funtsean, misterioak berdin zirauen misterio. Kontua ez zen hainbeste materiakoa, fedezkoa baizik, zeinarentzat berdin zaila zen Jesukristoren gorputz-odolak irudikatzea espezie kanonikoetan zein ogi-ardo arruntetan. Espezie horien sofistizazioa bikaintasun sinboliko bat gehiagotzat hartua izango zatekeen, fedearen depurazioa eta ez deprabazioa adieraziko balu. Alderantziz izan zenez gero (eta zaila da horrelako errefinamenduak, ezsein arlotan, zintzotasunaren ondorio izatea), ez zegoen gaizki misterioaren itxurak ere jatortasun originalera itzularaziz joatea, bilakaera orokor eta harmonios batean, baina argi edukita bilakaerak ez direla ekintza bakarrean gauzatzen, eta ekintzak eurak ere ez direla zirkunstantzia guztietan berdin egokiak izaten. Ezin zen, noski, erabat predeterminatu delako ondorioa, komentu batean ere, nahitaez ongarri baino kaltegarriago izan behar zuenik, baina bai aurreikus zitekeen, segurtasun osoz, probabilitate arriskutsu bat saihestearren bazterten zen aukera, izango zela nahi adina aldiz berritzeko modua, zirkunstantzia seguruagoetan. Kontradikzioak, gaindituak izateko lekuan bakarrik sortu behar dira. Gutxienez, ulertuak izateko lekuan. On da erakarri nahi denaren soka tenkatzea, inoiz ere ez haustea. Tenkadura ekintza jarraitua da; haustura, une bakar bat. Olatua, handituz datorrela imitatu behar da, ez apurtzen denean. Fronte osoko ondulazio hazkor eta aurrerakor hori.

Segurua zen, soka hausteko moduan planteatu izan balitz, bilera hartan ez zela gogo eta kemen faltarik izango, baina, azkenean, gogo eta kemen berek alderantzizkoa onartu zuten. Jarrerarik iraultzaileenetan ere, gizakia izaki gregarioa da. Balentia, gehienez, singularitasunaren baieztapena da. Horretan, piztia gizakia baino gutxiago ergel da. Iraultzen porrota, edo, hitz apalagoetan formulaturik, giza masa bat onartzeko prest legokeen aldakuntzen arrakastarik ezaren erantzukizuna (errua, garbi esanda) gidaritzena da beti. Baita, noski, nola ez, indarren korrela-

zioarena ere, baina gidaritzaren baten egiteko nagusietako bat horixe da, hain zuzen: bere eta beste eragile inplikatuaren indarrak neurtzen jakitea. Ez dakit Markinako amaiera nolakoa izango zatekeen, atzean ondoez mingarri bat utzi bagenu, baina guk fraileak eskertuz eta eurek gu ohoratuz elkar agurtzea gogo-jardun esanguratsu hain unerik argitsuenetakoa izan zen.

.....

Denborari joaten utzi nion, ez Fuldaini gertaeren beroan erasotzeko beldurragatik, zeren, gertaeren kateak etetearen alderantzizko martxa zeramanez gainera, beldurra ez zen hotzean txikituko. Ezta erasokera aparatzeko zailtasunagatik ere, irudimena baino gehiago baitzen kemena, zeinari zalantzak edo luzapenak gehienez ahultzea dakarkion. Arrazoa gehiago zen zenbait jende, Don Anton kasu, 'fuldaindiak' ofizioz leporatu ahal zion partaidetza-susmotik libratzea. Edo libratzen saiatzea, zeren fuldaindiaren memoria, edukietan dispersio gutxikoa, denborak gehiago finkatzen baitzuen aldatzen baino. 'Fuldain, txibatoa eta puteroa' delako orriarena ere apur bat hotz zedin komeni zela irudituz zitzaidan, nahiz eta, seguruenik (eta tamalez, inongo kaletan ez bainuen paperik hauteman, ez berririk entzun), gutun anonimo indibidual bat besterik ez zen izana izango. Zaila zen subjektuari berari, ofentsibaren baterako, apropos oturiko trikimailua izatea, ez intentzio faltagatik, bere burua hain egoki laburbiltzeko argitasunik ezagatik baizik. Denborari joaten uzteak nire harenganako eta haren nirenganako —suposatzen dut— asmoak laxa zitzaizkien arriskurik ez zegoen, zeren, nahiz kausa jarkietan, eremu fisiko berean mugitzen ginenez gero, elkarrekin topo egitea maiz gertatzen zen, eskualdeko tabernetan, edo plazetan, txakur solte baina gosetien ibilbiderik sekretuenek ere bidegurutze zentriko laburrak izan ohi dituzten bezala, *hemendik ez jagok ezer, hortik be ez, handik gitxiago*. Badirudi senak bultzatzen dituela, gosekideak errenditurik, hots, bazter batean hiltzera etsirik, eremu guztia norbereztat garbiturik aurkitzeko itzaropenera. Gu ez ginen txakurrak beste hurbilduko, ez elkar saihesten nabarmenduko. Inoiz tragoak ordaindu ere bai, eskerrik asko eta guzti, errondak tartean harrapatzen bagintuen. Elkarren beldur ez bagina bezala, baina ordaintzeko asmorik gabeko zorrak bagenitu bezala.

Eskualdetik kanpora, ni haren baino hura nire ibileren berri jakiten gehiago saiatzen zela uste dut, nahiz eta ez lortu hark nirea jakiterik nik harena beste, berak ez baitzeukan ezkutuan ibili beharreko kontzientziarik, goikoek metodo eta guzti enkargaturiko eginkizunen batean ez bazen. Gehiago saiatzen zen, ez baitzekus, berak bere barruti eta probintzia mailako nagusitzetara bezala (Mugimendu eta Falangearen Ordezkaritzetara, kuartelak-eta jo gabe), nik estamentu

paraleloetara (Artzapeztegira eta Gotzaindegira) maizegi jotzen nuenik. Orduan pentsatzen zuen, ez hain oker ere, goiarekiko harreman organikoen nire gabezia sare alternatiboetan elikatzen zela. Sinplifikazio horregaz, nire ibilerak nahiko fidagarriro ezagutzea lortzen bazuen, metodo enpirikoen premia gabe, neuk ere beste sinplifikazio batez, "erregimenaren ekintzaile sutsua" delako definizioagaz, haren ezagutza aski konpletua eratzen nuen, egintza partikularren batuketa neketsura jo beharrik izan gabe. Edo, zuzenago esanda, haren edo nire egintza bakar bat nahikoa zen (haren kasuan, Santa Eulaliako gorabehera, adibidez, edo, nirean, sermoi bat), batak bestearen jarduera orokorra osatzeko, tximinia batek, ketan batez ere, lantegiaren existentzia eta izaera adierazten dituen bezala, oroigarri monumentaltzat gorde duten kasuren bat ez bada; gizakiengan operazio fisiko zaila berau, nahiz eta, moralki, historia iaioa den pertsonaia orokorki abominableak laburpen sublimatean hilezkortzeko, kanonizazioak barne. Hortik izango da diotena historia ere arte bat izan daitekeela, gehienez arte madarikatua baina. Delakoa dela, estutik zabalera zein zabaletik estura, Fuldainen eta nire kasuan esan liteke lana asko errazten geniola elkarri.

Denbora bat behar nuen nola erasan zehazteko, zeren, "sasoa da lekaio ganstertuoi aurre egiten hasteko" nioenez, pentsatzea beldurgarri bazen, egitea apenas plazegarri izango zen. Egin ondoren, bai. Orduan, Fuldainen osasunerako egingo dudan kaka piloak efektu eukaristikoa izango duela uste dut, bitartean Kafkak beldurrari alferrrik jartzen dizkion ate edo harresi suzesiboen kapituluak deskojonatzen naizela. Horrelako zerbait izan ohi da nire metodoa, aurretik doanari aurrea hartzeko; izan ere, ez baitakit beldurrak nolako aurpegia duen, beti atzea ikusten baitiot. Orduan, aurrea hartuko badiot, edo hartzen diodala sentitu nahi badut, ostea aurkitu behar diot. Aurreari ostea hartu. Beldur infinituki sortzailak haietara behartzen zaituen formatako bat. Fuldainen kasuan, ez da hainbeste pertsona fisikoa bera, ordezkatzeko duen aparatua baizik. Horrek ikusarazi dit, nire kasuan ere, ez naizela hainbeste bermatu behar neure pertsona txakilean, neure kargu gurean baizik. Berorika hitz egingo dit, eta onartu egingo diot. 'Nahasle zikintzat' banauka ere, ezingo du sentipena ekidin ezen: *Elizagaz topo egin duk, Fuldain!* Horixe sentiarazi behar diot, esanez, esaterako:

- *Fuldain! Ez nago bakarrik. Eskualdeko abaderik gehienak bat datoz dinodanagaz. Pentsa eizu, domeka jakin batean, sermoi kolektibo bat egiteko be prest dagozela.*
- *Zoratu egin al dira abade guztiak? Ardao pozoitsuren batez hasi al dira meza emoten?*
- *Hemen denok bizi behar dogu, Fuldain, ez zeuek bakarrik. Zoritxarrez, mentalizaturik, ia etsirik gengozen, gehienek gorroto daben erregimen hau jasatera, baina zu egin behar soiletik lekutaraino... 'zantartu' zara.*

- *Neure disziplinari darraiot, berorrek berorrenari legez.*
- *Zu ez zaitu inongo disziplinak derrigortzen horren kirten eta fanatiko jokatzera. Bandera espainolaren kontua elizetan leuntzen hasita zegoenez, hor zatoz, beste hainbat alukeriaren artean, baselizetan be piper-potoa sartzerat tematuz, bakean pasatzen ahalegintzen ziren agintari eta abade guztiak konpromiso gorrotagarrian ipiniz. Zer nahi dozu? Eskualde guztia apurtu? Ala lo dagozenak itzartu eta gazteria guztia altzarazo?*
- *Eurok dira, abadeok, gazteria hondatzen dabilzenak.*
- *Laster zaharteria be matxinatuko da, ze, gaineko egunen batean, eskualde guztian entzungo da sermoi hori. Eskuratuko deusut aurretik testua. Ez dogu zapoki jokatu nahi, gero be publikoa izango denez gero.*
- *Publikoa? Ikusiko dogu zenbat ausartzen diren horrelako nabarmenkeriara!*
- *Bardin da bakarra banaz be, Bizkai guztiak jakiteko. Zuretzat hainbat okerrago, neuk bakarrik egitean, testua gogorragoa izango baita.*
- *Hurrengo egunean, kartzelan usteltzera joango da berori.*
- *Horixe da zuen baliabide ustez ahalguztiduna, baina esana deusut destino hori, batera edo bestera, aurreikusia dodala. Zu lako bati gangarra moztu izanak gustura usteltzeko poza utziko deust.*
- *Gangarra moztu... neuri?*
- *Beheratxoagotik, beharbada. Ni edo baten bat zeugaitik kartzelatua izatea lortzen badozu, kuartelera sarritxo joate horren orde, kuartel osoa beharko dozu aldean, Aulio Mertonena gerta dakizun nahi ez badozu.*
- *Zer Merton?*
- *Errekarik erreka, biluzik etxeratu behar izan zena, hotzak gogorturik eta sasiz uraturik.*

Mertonenez egin zuen ez-jakin planta ez zen sinesgarria izan, eskualde guztiak baitzekien beragatik igaro zuela halako estuasuna Auliok. Gizona, soinekoak hegalean utzita, ilunkera aurreratuan, butroia botatzen ari zen errekan. Oraindik ez zen aparailu argiro debekatua, baina Fuldainek, edozertan bildurra sartzeko zeukala uste zuen gaitasunaz harroturik, guardia zibilen presentzia oihukatzeke burutapen kirtena izan zuen. Izen-abizenek pentsaraz lezaketen baino gizajoago zen Aulio Mertonek ez zuen, bere hankajoko itsuegian, soinekoak jasotzeko akordurik izan, eta okerrera, ez zuela behingoan aurkitu errekatik irteteko modurik.

Eskualdeko apaiz guztiak onartzeko moduko sermoia zailagoa izango zen, noski, zerua parke nazional deklaratzeko baino, baina testu leundu eta neurtu bat moldatuz gero, behar ziren prudentziak hartuta, dozena erdi bat elizatan jarraitua izatea ez zen ameskeria, izenik aipatu gabe, beti ere, nahiz eta denek ulertu nortaz ari ginen. Irakurtzen ausartuko ez ziren apaizak ere, denak ez ziren kontra

agertuko, bai, oster, askok azpitik xaxatuko, inork ez baitzuen gogoko urte guztia jaien beldurrean igarotzerik, bandera-istilu aluen zain. Suposizio logikoak ziren. Hala ere, beldur nintzen kolegak tentatzen hasteko, harrera negatiboan beldurrez. Beldur nintzen Fuldain zuzen abordatzeko, mehatxuaren agerpenak plana izorra zezan beldurrez. Beldur nintzen kolpea bakarrean jotzeko, indibidualistatzen arbuia nindezaten beldurrez. Beldur nintzen erabakia burutzeko ere, Fuldainen iragarpena azkarregi bete zedin beldurrez. Beldur horien eta beste guztien tentsio radialak, irradiazio eran ala zulo beltz eran jotzen ninduten ez nekienak (ekimenean bat derri gorra zen, atzera egitea barne-porrot latzegia baitzatekeen, burua eta emozioak hainbeste estutu ondoren), erresultante kasik infantila eman zuen: *Zergaitik ez joat probatuko mehatxu soilaren efikazia?* Umetan, txakurrei beti aurea eman behar zitzaiela entzunik, neure bazkaria (eskolara eraman ohi nuen otartekoa) elizpean jaten harrapatu nuen bati, distantzia batetik, hortzak erakutsi nizkionean bezala, ea hankajokoari heltzen zion. Kentzera nindoala-edo pentsaturik (ez bide zekien nirearen zenik), berak askoz hortz handiagoak erakutsi zizkidan, eta mehatxua laster anulatu nuen, premiazko ere ez zena, bestalde, txakurrak erabakirik erosoena hartu baitzuen: hanka-jokoa, otartekoa ahoan zeramala. Ez nintzen erabakitzeke gauza izan metodoa (txakurrei aurea ematea) ontzat ala ipuintzat jo behar zen.

Fuldainen kasuan, pentsatzen nuen ez zela beharbada hain zakurra izango, edo gutxienez, orain hortz handiagoak nituelarik, umetako hura bezala erretiratuko zela, otarteko baten truke. Esaterako, bisita bat bere emazteari, zeinikusmoa neukan senarrak baino gorrotoago ninduela. Baina emakumeengan sentimendu kontrakoak trebeki txandatzan direla entzuna nuenez gero, probatzetik ez zegokeen okerririk, pentsaturik, batez ere, etxeko kideetasun politiko sutsuak beste zenbait albate maneiatzeko eskumena eman ahal ziola, senarraren kasuan beste isil-bizioa ere bazen bezala. Nahasten ari nintzela usterik, bolada batean Fuldain burutik desterratzea ere pentsatu nuen, baina zaila zen, noiznahi topo egin beharra gertatzen baitzen. *Klausuran sartu behar ete nok?* Ez zitzaidan iruditu Fuldainek horren erabaki espirituala inspiratzea logikoa zenik, eta hantxe nerrari, ez eta bai, erabakia ezin zehaztearen eta zehaztua ezin betetzearen artean, harik eta enkontratu ohizko batean, biok tartean aurkitu ginen erronda bat ordaintzera nindoala, irmoki hurbildu zitzaidan arte, nire besoa mostradoretik erretiratu eta taberna guztiak entzuteko moduan hots eginez:

– *Parka berorrek, baina hau neuk egingo dot. Ezin dogu permititu abadeak dirurik jarri daien, gero geuri eskatu behar izateko.*

Esanahi zuzenean iraingarritzat ere har zitezkeen hitz horien tonua hain izan zen otzan eta adeitsu, ezen dirua jausi baitzitzaidan, honi ere hitz haiek kon-

tzientzia sortu bialioten, "ez naiz duin esku horiek zikintzeko". Jasotzera nindoala, berriro apartatu ninduen, esanez:

– *Utzi bei neuk jaso daidan. Ezin dogu permititu gora begira bizitzea jagokona behe lardatsera makurtu daien.*

Hitzen materialtasuna ohiko zitalkeriatiak hobeto ulertzekoa izan arren, jarrera orokora ironia karinosotzat hartzekoa zen argiro. Arteko nire beldur guztiak, nahaski total bat eginda, hain egoera ustegabearen aurrean nola birkokatu ez zekitela zebiltzan, geltoki jendetsu batean iragarri dutenean bezala txeke milionario bat galdu dela eta aurkitzen duenarenzat izango dela. Neure harridura dar-daratu kanporantz ez islatzeko ahalegin suprahumanoak (seminarioan ikasitako kontentzio-teknikak) ez zidan hautematerik eragotzi nola tabernako lagun guztiek, tabernaria eta sukaldeko gortina artetik burua aterea zuen tabernandrea barne, aurpegikera desorientatua zeukaten, txahal bat hizketan iruditu zaizunean bezala. Ez neukan inorako presarik, ez asmorik, baina, bat-bateko joan behar bat asmatu, ahalik itxurosoen alde egin nuen, ez bainuen jende aurrean Fuldainegazko harmoniarik erakutsi nahi, fenomenoaren ulerkuntzari neure kantuan buelta batzuk eman arte. Ez zen erraza, emanago eta noraezago aurkitzen bainintzen. Aurreko beldurren erresultantea baino beldur larriagoak jo ninduen, ezin bainuen bere edukia bisualdu. Beldur zehatza badirudi norbere elementu bat, norbere jabetza bat dela, baina beldurrari aurpegirik ikusten ez badiot, deboraturik sentitzen naiz. Egun batzuk obserbazioan pasaturik, ohartu nintzen Fuldainen jarrera-aldakuntza ez zela inkoherentzia puntual bat izan. *Asko mantsotuta dabil*, berretsi zidaten bere herriko gazte mugitun batzuek ere. *Hori zelan ulertzen dok?* Inork ez zeukan esplikazio argirik. Bolada bat pertsekuzio-mania totalean neraman, ezin bainuen burutik kendu, hartzaren besarkadan bezala, taktika subtilago bat izango zela helburu suntsigarriagoetarako. Borondaterik laztankorrenez, hartzak bizkarrezurra hauts diezazuke.

Amorru puntu bat ere bazen tartean, plana pentsatzen –erabakitzen batez ere– hainbeste kostatu eta gero, korapiloa nire interbentzio gabe aska zitekeelako. Premia bukatzen denean, kemenean izan ohi den gorakadak laster aurkitu zuen dezepzioa kompensatzeko motiboa: hura baino pieza handiagoak menperatuko nituen. Bera saiatzan zen nigaz tratu lagunkoia izaten, baina gehiegi bortxatu gabe, hortxe kortesiaren eta konfiantzaren artean, sumatzen baitzuen nik ez niola hurbiltasun gehiegizkorik eskaini nahi. Denbora bazihoan, eta fenomenoak konfirmatzen ari zen. Egoera politiko orokorrak baretzearen guztiz alderantzizko martxa zeramanez gero, Fuldain pasarte ez ahaztu, baina bai aparkatuen artera jaurti aurretik, argitasunen bat ateratzeko azken ahalegina egin nuen bere herriko apaiz batengandik,



politikaz beste zarraparra guztietan nabarmentzen zen gizon koskor, egoskor eta extrabagantea bera. Izena ere, Don Kausino.

- *Asko mantsotu dok, bai* -baiezatu zuen irribarre katastrofiko.
- *Asko bakarrik? Lar, esango neuke, gauza onerako.*
- *Pilak hoztu izango jakozak.*
- *Gaixo larriren bat diagnostikatu ez badeutsie.*
- *Osasunetik hobeto jabilk hori, amodiozko komenentziatik baino.*
- *Horretan be mantsotu al da?*
- *Lekeitioko jostun alargunak zapuztu jok behintzat, besteenik ez jakiat baina.*
- *Amodiozko desengainuren bat izango ete da, beraz?*
- *Ez joat uste. Biziotik ez dok inor mantsotzen.*
- *Hipotesiren bat nahitaez izan behar dozue herrian, hurretik ezagutzen dozuenon artean.*
- *Nigaz konfesatu izan ohi balitz, antz bat hartu izango najoan, baina horixe be orain arte, komentuei apalegi eritzirik, lantzean monasterio batean egiten izan ei jok.*
- *Jainkoaren graziari esleitu behar ete jako aldakuntza?*
- *Horreei ez jakek susmatzerik be bururatu Jainkoa euren alde ez egotea baleite-keenik.*
- *Orduan zer gertatu jako gizon horri?*
- *Franco bizian kanonizatzeo hotsak hasi direnean, berak be merituginan hasi nahi izango joan.*
- *Bai, Francoren merituak alderantzizkoak ez balira.*
- *Aldrebes ulertu izango joan. Horretan, amodiozko desengainuak izan leikek z-rikusia.*
- *Ez ahal zen hasiko Francok beharko dituen mirarietarako lehiatzen.*
- *Ez leukek balioko. Fuldainen miraria egiatzkoa dok.*

Zerbait atera nahian joan eta lehen baino deslaidago unti ninduen abade-lagun zarraparrero horri Fuldaini baino higuin handiagoa ez nion hartu, auziaz des-jaramontzea erabaki nuelako, ez inosibletzat, baizik nire buruan, zerbaiti bolada obsesiboa dedikatzeo jenioa daukan honetan, gero gertaera berriek aurrekoak nat-uraliki arrastatzen dituztelako oroimenaren satora, nondik anekdota edo metafora gisan bakarrik agertuko diren, erlazio inprebisible batek tiraturik, sarritan transfor-maturik. Esaterako, umezaroko denboraldi bat bere beldur izugarriz bizi izan nuen txakur bat, muturzapal, burubeltza, astiro-astiro Fuldain izenez etortzen hasi zen nire gogora, halako insistentziak, non, handik urteetara, neure txakur bati 'Fuldain' izena jarri behar izan nion. *Bai txakur-izen polita!* esaten zidaten. Bigarren txakur hori neurea eta maitea zenez gero, azkenean, izenaren jatorrizko eduki gorrotatua ere xarmagari bihurtzera iritsi zait.

Fuldainen metamorfositik urtebetara, Don Fabiok, apaiz gazteok hainbes-te miresten eta maitatzen genuen eskualdeko parroko batek, bere etxetik pasatze-ko aitzakia noiznahi aurkitzen nuenetako batean, Fuldainen herriko apaiz arestian aipatuagatik diost:

- *Ba al dakik Don Kausino Ameriketara joan dena?*
- *Ez dot ezer entzun.*
- *Bertan aurkitu arte ez jok barria jakin daiten nahi. Neuri bakarrik jakinarazo jeustak. Honezkero, iritsia izango dok.*
- *Ihes egin beharren bat?*
- *Badakik harek gauzarik normalenik be ezin ebala era normalean egin.*
- *Ameriketara zertara, narru bila ez bada?*
- *Horretarako, liskartiegia zoan.*
- *Ez da, ba, sobra zeukan fedeari enplegu bat emotearren izango!*
- *Kontrarioak amaitu jakozela jirudik. Kontatu neuan zelan behin etorri jatan, esa-nez: "Txarto nago, Don Fabio! Ez daukat kontrariorik, ez izateko esperantzarik". Baten bategiz liskarrean ez bazen, deprimitu egiten ei zoan.*
- *Kontrariorik ez jakon faltako, behar den lekura jo izan baleu bila.*
- *Ez pentsa. Jente politikoa gaz be erronkatzen zoan.*
- *Bere narraskeria unibertsalagaitik?*
- *Eta ingenioagaitik, hi! Ez dok esango alkatea oilar-burrukara desafiatu eta txita bategiz joan jakonekoa barregarria izan ez zenik.*
- *Izena be Kausino, uste dot abade egin zela, bokazinoari kontra egitearren.*
- *Handiena ez dakik. Fuldainen mantsotze ikusgarria zelan gertatu zen argitu jeus-taan.*
- *Ez da izango! Merezi leuke horrexek arreta apur bat.*

Fuldaini, beste guztiak bezain egun bete, ibiltun eta entregatu bateko iluntze batez, gutun bat heldu zaio, berak hain maite duen egoitzako idazpuruagaz. Gutunazala, emozioz, ez lar kurioso irekitzea lortu ondoren, dirakur:

**Mugimenduaren eta Falangearen Bizkaiko Ordezkaritza Probintziala**  
**Bilbao, 1968ko Maiatzaren 13a**  
**Fulminio Dartañaga Inkamendi**

**Jaun eta kide agurgarri hori:**

**Zure zerbitzu eta kausara entregu sutsua behar adina inoiz eskertzerik eta goraipterik ez genukeela aitortu ondoren, oharrok guk bidaltzean bezain go-gorik sanoenez hartuko dituzula itxaroten dugu. Informatzaile gutarren aldetik,**

berriak jaso ditugu herriko apaiz bategaz etsaigo handi samarrean zabiltzala, jende guztiaren jakinean. Badakigu Don Kausino delako hori ez dela harribitxi bat, baina ez dirudi arerio arriskutsua ere. Gure Mugimendu noblearen aliatu nagusia Eliza dela jakinik, gure ordezkariak ahaletin berezia egin behar dute apaizekin –eta elizgizon guztiakin, oro har– ahalik ondoen konpontzen, bai gure printzipio organikoak herriaren begietan erakarkor garatzeko, bai arriskutsuegia izan litekeen estamentu bat arerio ez bihurtzeko. Tinko eta bortitz jokatu behar da, noski, baina gure Mugimendu nobleak horretarako daukan antolakuntza banatuaren eta mailakatuaren barruan. Zure karguari dagokionez –Mugimendu eta Falangearen Eskualdeko Ordezkari–, zure eginkizuna ez da hainbeste justizia zeure esku hartzea eta tirabirak sortzea, nola ahalik informazio gehien jaso eta pasatzea, era bikainean egiten duzun bezala, gero dagozkien agintariak eta gure beste eragile efektiboek esku har dezaten.

Oharpen hau onez hartuko duzulakoan, eta betetzen saiatuko zare-lakoan, har ezazu gure ondohirik anaikor eta benetakoena.

¡Viva Franco! ¡Arriba España! El Ilustrísimo Delegado Provincial del Movimiento y Falange de Vizcaya, Don Higinio Bocabajo Tejerino.

- Bitxia, ez tok?
- Arraroa, areago. Don Kausinok zelán daki hori?
- Zelán uste dok?
- Gutuna berak interzeptatuta?
- Hori arruntegia dok.
- Zelán, ba?
- Berak bialduta!!
- Eh? Hori egia ez da izango!
- Ameriketara alde egin dauen moduan. Han be baten bat narrutuko jok harek.

Ez nekien poztea ala alarmatzea zegokidan. Fuldainek artean hain 'era bikainean' betetzen eizuen informazio lana, oharpen horren ondoren, hobetzea lortu bazuen, onak geunden. Kausino barrabana! Galdezka joan nintzaionean, ez zion ezeri jaregin. Erronkosoa eta lotsabakoa zena begenekien, baina ez hain maltzur trebea. Gutuna faltsutzeko, azalak eta inpreso ofizialak, idazpurudunak eta zigilatua, non edo nola eskuratu zituen argitu gabe joan zen, baina ez dago dudarik efektua fulminantea izan zela. Eta hain apalgarria, ezen Fuldain ez bide zen ausartu goikoei ezer aipatzen ere. Bestela, probableena da berehala argitu izango zela ziria, nondik ateratzen den gure Fuldain beldurgarriak basati primitibo samarra izan behar zuela, Don Kausino batek hala menperatua izateko. Bolada luze bateko

beldurren nahastura korrosibotik hain era alprojan askaturik aurkitzeak depresiora jaurti ninduen. Gauaren bigarren orduan, Ezkioko Ama Birjina agertunaren argitasuna zelakoan, denok besogoran belaunikaturik, aurreko mendi malda ager-ostenka zeharkatzen zuen tren zela jabetu nintzenean bezala. Inguru ahuspeztu honi nola anuntziatu behar diot orain Ama Birjina tren bihurtzearen miraria?

.....

Markinan, Lanbide Eskolako gazteekin harremantzeko aukerarik ez nuen falta, neuk ere eskolak ematen baintuen bertan. Ikasleak Lea-Artibai osotik eta haragotik zetozen. Baziren bi limitazio. Bata, eskola zela, ez herri giroa. Orduetgiak ere eskolarrak ziren, gehienbat. Gazteekiko harremana lan zitekeen iluntze orduetan, lokalak itxita zeuden. Bestea ez zen txikiagoa. Mutil hutsezko eskola zen. Limitazio garrantzitsu horri ibilerak berak ekarriko zion irtenbidea, efektiboa bainoago abenturazkoa, seguruenik. Neu ere artean gazte, ez neukan inolako zailtasunik abenturan efikazia ikusteko. Kaleaz beste aldean, metro gutxira, bazen moja mertzedarien komentu eta kolegio handi bat, non, halaber, Lea-Artibai osotik eta haragotik etorritako ikasleak biltzen ziren, denak neskak, asko barneko. Diziplina zorrotza eta biziera oso arautua bide, neskak oso harremanbide urria, ia hutsa zuten euren horma lodietatik harantz zebiltzala bazekiten, bazentzuten mutilekin. Apaiz nengoen herrietako ikasleak bisitatzen hasi nintzen, gehienbat euren eskariz.

Moja pare ondo uniformatuak, koro formako kofia eta guzti, zeintzuen irribarre txandatuak ez baitakit mojakotik ala apaizei eskaintzera behartutik daukan gehiago, gela karratu txiki baina nabarmenki altuan utzi nau, zeinak zerura kasik nahitaez begirarazten dizun, zerua goian delakoak egia izaten badarrai. Nire eliztar ikasleak berehala etorriko direla, hots, ekarriko dituztela esanez aldendu dira mojak, adeitsu. Ez dira hain berehala agertuko. Neure lehenik komentuko, gero seminarioko etorrerak berritzen dihardut, pabilioi erraldoi baten auskalo zein mutur eta zenbatgaren solairutik abiatzen nintzenean, "preséntese en la puerta principal" agindua jasota, beti arnastuan eta sarritan hautsezturik, zer edo nor izango ote zen larritasunez. Hamabost-hamasei urtera arte, seminarioan iristen zitzaidan dei oro ezin nuen suposatu zerbait terriblea izango ez zenik. Oraingoan, hor aurkezten zaizkit, noizbait, hamasei urteko hiru neskatila irrikatsu, irribarreitsu, nonbait iragarri baitzaie "les espera su párroco". Agur-hitz nire aldetik txeratsu eta eurenetik urdurien ondoren (harriturik nago nire presentziak horren aztorapen espektantea sortzeaz), ahots tonua golkoraino jaitsi dute buruagaz batera, nondik begiradak, kamalehoiaren miztoa bezala, azpitik zeharka disparatzen diren, begiak puntan dituztela. Bat eledun nagusi, beste biak lantzean eranskin indargarri batera mugatzen dira.

- Don Jabier! Guk ezin dogu hemen gehiago aguantatu!
- Jesus! Mehatxua dirudi horrek.
- Mehatxua baino gehiago.
- Horrenbestearaino desesperatuta al zagoze?
- Berorrek ez daki hau zer den!
- Inperna?
- Txarragoa!
- Aprobatu al dozue bera konparazioak egin ahal izateko beste?
- Hemen ez dago Polentinarik, ez deabruz beteriko pipontzi alegrerik, berorrek kontatzen euskunez.
- Egidazue zuka mesedez.
- Mojaren batek entzun eta asteburuan etxera barik zigortu gaiezen?
- Ba al da moja euskaldunik hemen?
- Ez dakigu, baina edonor da kapaz txibatazioa sartzeko.
- "Madre! La compañera Antxiñe trata de tú a su párroco".
- Hemen egia da hormek belarriak daukiezena.
- Salaketa ekarpen amoroso bat zela esaten euskuen seminarioan be -nik.
- Amorosoa? Baleki berorrek!
- Tira, egidazue zuka, mesedez. Ezer gerta baledi, neu egongo naz mojekin, edo etorriko naz hondeagailu bategaz, horma belarridunok eraistera.
- Bai helduko bagina zergaitik zigortu gaitueen jakitera!
- Baina, neskatxoak! Hori ezinezkoa da. Zelan zigortuko zaituee, zergaitik esan barik?
- Hemen edozer da posible. Atera begaiz berorrek, edo ihes egingo dogu.
- Edo zeozer txarragoa.
- Zorakeriarik ez egin niri, eh!
- Ba, atera gu hemendik.
- Ez dakit zelan, bahitzaile bihurtu ezik, zuekin tentagarria litzateke baina. Barre?
- Negar be egiten dogu, ez gitxi. Elkarregaz lo egiten utziko baleuskue, behintzat!
- Hori hemen moja bat eskegitzea baino larriagoa litzateke.
- Zer nahi dozue nik egitea? Nik ez daukat zuekan aginpiderik.
- Aurkituko dau moduren bat. Berori argia dela dinoe.
- Gure gurasoekin berba egingo baleu, ziur hareek berori jaramon egingo leus-  
kioena.
- Eta egunero joan-etorrian ibili? Hori badakizue oso gatxa dena.
- Mutilak etortzen dira, ba, Lanbidera!
- Ai, neskatxoak! Bekaitz al zarie mutil jaiotzearen akatsa leuntzeko uzten jakezen abantailaz?
- Akatsa kolegio honetan hiru urte egin beharra da.
- Utzidazue zeozer pentsatzen. Datorren egunean etorriko natxatzue barrero.

- Beste kontutxo bat be badaukagu. Entregatuko al leuke berorrek gutun hau?
- Gutuna edo...
- Ez daukazue zehaztu beharrik. Kosme Baglieto... Kosme, Kosme... Hau ez da nire ikaslea, baina konponduko naz.
- Eskura emon, eh! Ahal bada, bakarrean.
- Neskatxoak! Nirea ez da amodio direktoan espezialista izateko ofizioa, baina, bitartekotza delikatueta, esku suabekoa nazela uste dot.

Parke bazterreko urki zartatu bati lotuta zeukan Guzzi motorra arrankatu ezinean harrapatu dut gutunaren hartzailea.

- Ez jok nahi? -galdetzen diot.
- Nahi beharko dau, lehenengoan ez bada azkenengoan.
- Horrekin adinagaz temoso jartzen dozak gero!
- Erreta be bai, baina tiratu beharko dau, suak hartu arte. Gure aitak opari honexegaz izorratu ninduen, nik Sanglas barria nahi neban baina.
- Hara! Azkenean be!
- Beti azkenean, tarratero honek.
- Hi Kosme haz, eztok?
- Kosme Baglieto.
- Kosme askorik ez joat ezagutzen, eta Baglietorik gitxiago.
- Ba, biak batera, atera kontua.
- Suberteko hago. Hauxe emon jeustek hiretzat.

Gutunazal eskuratuari begiratu dionean, matrailak Guzziaren depositua bezala gorritu zaizkio. Buelta eman dio, baina bidaltzailearen izenik ez du aurkitu. Horrek lasaitu egin duela dirudi. Behin gutunazalari, behin niri begiratu, erabaki bat hartu ezinik dirudi, neuk lagundu arte.

- Bakarrean zabaltzekoa dela uste joat.
- Ah! Eskerrik asko.
- Neu nok eskertzen dauena hain bitartekotza politik egin ahal izatea. Erantzun nahi izanez gero, fida heinteke bideak bardin balio dauela bueltarako be.
- Eskerrik asko! Eskerrik asko!

Eskertzearen errepikak hunkitu egin ninduen, interpretazio asko abiatu baitzitzaizkidan, denak samurrak, baina berehala baztertu nuen kasuko protagonista neu bihurtzeko tentazioa. Kasukoa, ezen ez egoerakoa, laster hartu beharko bainuen protagonismo ustegabea, ofizio apaizengan atipiko batean: amodioaren postari. Zehazki esanda: lehen amodioen postari klandestino. Izenburu zoragarria

nobela baterako, edukiz betetzen jakinez gero. Papertxo haien eraman-ekarriak azken oleazioko gaienak baino emozio handiagoa eragitearen kezkarik ez izatera errazago egokitu nintzen beti inoren bekatu gozoak barkatzen jardutera baino. Mezu-idazleek hain desio sinestezinak bidaltzen zituzten, imposibleak ere bai (suposatzen dut, ez bainuen edukiak irakurtzeko bezain ustela eta baldarra izan nahi), ezen batzuetan iruditzen zitzaidan mezuak euren kabuz zebiltzala joan-etorrian, jabeak ere aldatuz bidean, nire golkoa edo sakelak aztoratzeaz beste grina gabe. *Martxa honetan, kasik praktikoago izango joat eskolatik komentura tunel bat egitea.* Esan banuen esan nuen! Neskei zoragarri iruditu zitzairen, eta mutilek, balentria lorioetarako beti gertu, lanean hasi nahi zuten.

- *Erraz-erraz! Kalea eta ibaia azpitik pasatzea besterik ez.*
- *Jauregi baten jardina be bajagok bitartean* – objektatzen nik.
- *Horreek ez dabe ezer igarriko, txakur pare muturmotzak gau osoan zaunkaka ekiten deutso eta.*

Gauza bat ez zitzaidalda gehiegi gustatzen gaineratu nien, hots, ez nuela durarik plana arrakastatsu burutuko zela, baina gero, lurpeko harreman inprebisibleen berotasunean, denborak deskubrituak izatea ekarriko zuela, eta orduan Infragantzio txakilen batek kantatuko zuela, salbade guran, erligioko irakaslearen ideia izan zela. *Hasi hadi gero atzera zuloa betetzen!* Handik urteetara, kartzelako tunelgintzan izango genuen esperientzia aurreraterik ez neukanez gero, jakinarazi nien, lehenago ere, zenbait lekutan, zerbaitegatik egiten zirela fraileen eta mojen komentuek bata bestetik hur, tunel ezkutuen bitartez elkarrekin komunikatzeko, baldin, Ziortzako monasterioan bezala, agintaritzaz zibilaren aldetik lortzen ez bazuten lizentzia ezen: *"Beuka bakoitzak bere ohaidea, auzoen bake eta segurantzarako"*. Argudio mediebala horrek zaputza bezalakoa ekarri zuen gure ideia ez ote zen hain originala; hain 'edonor' izan zitekeela presidente entzunik, Ameriketara joango zela esan eta esan ziharduenak, azkenean ezetza erabakirik, laburtu zuenez: *Lehenengoak ez izatekotan, ez jok merezi lorrainean hasterik.*

.....

Plazakolako jatetxean jarri genuen hitzordua, larunbat arratsaldeko bostetan. Plazakola bidegurutze egokia zen, Ondarroa zein Lekeitioko autobusak bertatik pasatzen baitziren. Haragoko baserri solteren bat edo besteren erdian, ez zegoen ibaia, zubia eta noizean behin Madrildik etortzen ei ziren mamuak rekluditzen ziren dorre-jauregi inerte bat baizik. Ez zegoen, beraz, herrigunerik, begiluzte nontzeberrien edo non-zer-harraparien arriskukorik. Jatetxe bakartian, udatian

zein negutiar, bide-jendea zebilen gehienbat, gurea bezalako eskurtsio-taldeak, adibidez. Mutilen mugikortasuna ez zen hain mugatua, baina mojen ikastetxeko neska internoak erara harrapatzea ez zen erraza, eskualde ezberdinetakoak izateaz gainera, asteburuetan etxera zihoazenak ere komentutik autobusera zuzen joan behar izateko moduan libratzen baitzituzten. Markinakoak bakarrik biltzea pentsatu genuen, inguru hurbilekoak ere onartuz, lagun-zirkuitoen arabera; eskolatik kanpora harreman erraza zeukatenak edo izan zezaketenak.

Idea ustez argi, baina plangintza zehatzegirik buruan ez nuela, kanpora ematen zuen aterpeko mahai luze batean, agindutako askariaren zain, freskagarri batzuk banatu zizkigutenean, 16-18 urte bitarteko neska-mutil talde batean ohi diren barre eta oiñuen artean, hara non neska batek hots egin zuen: *Zertarako juntatu gara hemen?* Ez zait sekula gertatu, baina teiltua osoan gaineratzea bezalakoa izan zen. *Nondik urten behar joat orain?* izan zen nire durdidura, kolpeak efektu zuzenagorik izan ez balu bezala. Bat-batean, zuri gelditu nintzen neure kautan (ilun, teiltu gaineratuaren azpian), erantzunaren izpi gabe eta erantzukizunaren fardel osoagaz, galdera zuzenki neuganakotzat ulertu bainuen, hala nola: *Zertarako ekarri gaituzu hona?* Nire teiltuek ez zuen ematen iluntasunaren inguratze totalaz jabetzeko lain argitasun besterik. *Honeek ez dozak nire eliztarrak. Herriz, lekutakoak. Asko, ikasleak be ez. Batzuk, ezezagunak. Zertarako ekarriak izan direla esan behar joat, euren uste nagusia neure ideia izan dela bada?* Zalapartan, gehienek ez zuten galdera jaso, eta jaso zutenek erantzun gangarretatik jo zuten:

- *Turistak begizatzen, abade baten arrimura. "Jauna zuekaz". Suecas, hi!*
- *Zergaitik ez txokolatea txurroekin ontzen ikastera?*
- *Je, je, je!*
- *Zeri egiten deusak je-je-je?*
- *Zer nahi dok? Ju-ju-ju?*
- *Edo jo-jo-jo, baina je-je-je-rik ez niri!*
- *Beste bi bokal baino ez dozak geratzen.*
- *Hartuizue popatik! Zertara etorri gozak hona?*
- *Mojen miss zerrenda berezitu bat osatzen.*
- *Berezitua zer don?*
- *Ba, esaterako: Miss Panpox, sor Teresa. Miss Mizin, ahizpa Zelia. Miss Sarjento, sor Kanuta. Miss... Lagundu apur bat!*
- *Miss Popi, ahizpa Zelestina. Miss Mariatxi, sor Graziana.*
- *Miss Marizirin, ahizpa Letizia.*
- *Miss Amama, ama Eulalia.*
- *Nahikoa dok! Amagaz amama eginez gero, ez dok aititarik behar.*
- *Zertarako jakin behar da zertarako juntatu garen?* – hots egin zuen batek, le-

hiaketatik kanpora-. *Polito ez gagoz ala?*

Neu ez nengoen hain polito. Askarian zehar, lasaiago geundenean, probableena zen neska hark galdera errepikatzea, beharbada, gehienengoa gogokera ordezkatzu, bitartean bidezkoena baitzen auziak ahoz aho korritzea eta ezer pentsatzeko asmorik ekarri ez zutenak ere kutsatzea. Azalpen sinesgarri eta konbintzente bat asmatu beharra zegoen, batez ere (hori argi neukan, baina ezin zen argiegi adierazi), bilera hura segida baten lehenengoa izatea lortu nahi bazen. Adin hartako gazteak, elkarrengana biltzeko zeukaten grinagaz, ez zen zaila arrazoiketa zorrotzik gabe erakartzea, behin. Kontuak hurrengo egun bat planteatzean sortuko ziren, batez ere nesken aldetik, mutilak ohituago baitzeuden bururik behar ez izateko moduetan ibiltzen. Askaria bazetorren. Azpil bitan lukainka erreak, beste bitan aurrautza frijituak, eta beste bitan patata frijituak, 'ugari', agindu genuenez. Ogia ere, 'ugari'. Edarrietan, freskagarriak eskatu zituzten. *Ekarri ardaoa be!*, agindu nuen enfasi zerbaitez, zerbitzarien eta inguruko bezeroen aurrean nagusitzat hartuak izateaz loria zitezen. Jaki guztiak mahaian lerrotu ahala, begiak haietara lerrotu ziren, behin zuzenka, behin trabeska, baina denak karrilean. *Ekin!* hots egin nuen, eta apur baterako bakea egina zen. Mutilen buruak idazteko ohi zutena baino beherago jaisten ziren; neskenak, gorago. Mutilen matrailak hanpatu egiten ziren; neskenek prozesioa barruan gorde nahi zuten. Arrautza-gorringoan bustitako ogia ahoratzean, mutilei, ezpainak zikintzeko beldurrez edo, hagin-ilarak ikusten zitzaizkien, neskei ezpainak bakarrik, mardulduak, nahiz batek edo bestek majo kontra-erakusten zuten mojen eskuetan zebiltzana.

- *Ondo, gazteak?* -hots egin zuen etxekoandreak, mostradorera agerturik.
- *Edarto!!* -erantzun zuten aho batez, aho betea zutenak barne.
- *Beste ogialdi bat ekarri beharko dozu* -gaineratu nuen-, *honeek lukainkaz betetzea gatxa izango da eta.*
- *Ura be ekarri!* -oihu egin zuen mutil batek mahai muturretik.
- *Ura orain?* -oihu egin nuen neuk ere, igarri bainion beste freskagarri bat eskatzen ez ausartzearena zela-. *Amaituta daukienei* -zerbitzariari begira- *ekarri beste erronda bat* -agindu nion etxekoandreak.
- *Ez, ez, ez!* *Ez da behar!* -murduskatu zuen uraren eskatzaileak, bitartean sartutako ahokada maneiatu ezinik.
- *Neuk aginduta be ez?*
- *Beno, 'beroorren' agindua bada...*

Gose-urteak jada igaroak izateak (inguru hartan, behintzat) ez zuen esan nahi jateko amorrua joana zenik. Gurasoen gerrako eta gerraosteko sindromea seme-alaben burura pasatua izango zen. Postretzat, etxekoandreak berak egindako

pasteltxoak opatu zizkigun. *Estimatu egin beharko dogu, ezta?*, galdetu zuen baiezta nuen. Frutarik-edo nahi ote genuen, eta: *Ekarri hori be, ahalik bariatuen* -agindu nuen-. *Ez neban gazte honeen sasoia eta aurreko guztia alperrik igaro, mahatsez eta platanoz asetzeko gutizian.* Fruta-ontzi irribarretsuak mahairatu zirenean, begiak berriro lerrotu ziren, edertasunagatik ere bai, jada ematea behar zuen irrikagatik adina. Neskato ez dakit harritu ala beldurtuago batek albokoari xuxurlatzen ziola ohartu nintzen: *Askari honek zenbat urten behar jeuskun?* Albokoak, begiak mahaiperantz eta aurpegi-azal guztia eta sorbaldak bekokirantz pilatuz, erditze larritzat aurreikusten zen 'urtete' haregaz berak inolako zerikusirik ez balu bezalako keinua egin zuen. Mutilak, nonbait, ez ziren oraindik kontuak ateratzen hasi. *Kafeak eta kopatxo bana be atera beharko dozu nahi dabenentzat, ezta?* -hots egin nion zerbitzariari. *Hau zer ospakizun da, ba?* -atera zitzaion barru-barrutik neskato harritu-beldurtuari. *Zuek hartu nahi dozuena, atzeari begiratu barik* -nik. Zer egin pentsatzera iritsia nintzen gero, gazteen larritasun inozente hura areagotzen ikustea bizi izan dudana hurbiltzerik handiena izan dela uste dut atsegin sadikora. Kopak ere onartu zituzten, batzuek gorriak, gehienek zuriak. Orduan ginebrari propietate digestiboak esleitzen zitzaizkion. Neuk ere etsenplu eman nahi izan nuen. Janak janda eta edatekoak azken zurrutetara zihoazela, zerbaiten zain-giro eutsia bezalakoa sumatu nuenean, hasi nintzen:

- *Neska-mutilok! Bizi, ezta? Apur batean isildu, mesedez, ahalik gehien, ea lortzen dogun elkar entzutea, inguruari entzunarazo barik. Ez daukat ezer ezkurturik esateko, baina ez dago beste bezeroei gure kontuekin desaspertzen lagundu beharrik. Lehen batek itaundu dau ea zertarako juntatu garen hemen. Ezta, Zuriñe? Ziur nago galdera hori beste buru batzuetan be badabilena. Erantzuna simplea da: zuek askari batera gonbidatzeko kapritxoak neukan, eta kapritxoak, bikainak direnean, bete egin behar dira.* (Horrelako asmorik ez neukan inondik ere, baina askarian zehar akosatu nauten pentsakizunek erabaki fanfarroia harrarazi didate. Kontu osoa ordaintzeko dirurik nekez izango dut aldean, are gutxiago etxean, baina aterako da nondibait, elizatik edo hilerritik. Erakunde ekumeniko bateko partaide izateak horrelakoxe konfiantza ematen du). *Ez, ez, ez! Ez egin alperrik muzin zinurik edo protesta plantarik. Tabernandrea gaz berbatuta nago, eta badakizue horrek neuri obedituko deustana. Udako opor dohatsuak hasi barri doguz. Mutilekin hartu-emon jarraitua izan dot urtean zehar. Neskokin ez hainbeste, mojek oso noiz behinka eskatzen eusten hitzaldi komunitario ondo bigilaturen batetik harago, edo neure herrikoei bakarrik egiten uzten eusten bisita mehatzetatik. Kolegioko kontrola saihesten daben isil-mezuak jo barik, jakina, hemengo batzuek ondotoxo jakingo dozuenez. Mutilekin, zorionez, klaseen lehorretik haragoko hartu-emon giharragoa garatu ahal izan dogu. Hain zuzen, astebeteko ibilaldia egitea pentsatzen gabilz Gipuzkoan zehar, kanpin-dendekin. Baina badakizue: neska hutsa zuntzuna bada,*

*mutil hutsa antzuna da. Horregaitik, zer atseginaz gainera, aberasgarria izan leitekeela pentsatu genduen neskok be partaide izatea prestakuntza mentalean. Baita beharbada, zergaitik ez?, abentura errealean be. Baina horrek beste askari bat beharko leuke. Argitu al jatzu apur bat, Zuriñe, zertarako juntatu garen hemen?*

*– Ibilaldi hori zertarako izango litzateke? – galdetzen du Zuriñek.*

*– Abenturazko aste batean, Gipuzkoa ezagutuz, elkarregaz berbabidea izateko.*

*– Berbabidea zertaz?*

*– Gazteriaz, Euskal Herriaz, eta, bereziki, geure herri Markinaz.*

*– Markinan zer dago berbakizunik? –dio mutil batek, beste batzuek jarraitzen diotela:*

*– Erdara eta pilota ugari.*

*– Eta armak Esperantzan.*

*– Markina lo jagok.*

*– Hilda esango neukek.*

*– Ala okerrerantz bizirik?*

*– Interesgarria litzateke, geure herria denez gero –sartzen naiz–, zuzenerantz bizitea zer litzatekeen elkarregaz solastea, Zuriñek beste galderaren bat ez badauka.*

*– Zuriñek ez leuke zapuztaile jarri nahi –dio berak–, baina ea gure etxeetan nor espilikatzen dauen gure adineko talde misto batek zertarako ibili izan leikeen astebetean, Gipuzkoan zehar, kanpin-dendetan. Mojen kolegiotik horra salto handiagoa dago ur bedeinkatu ontzitik... Egia esan, ur bedeinkatu ontzitik ez dakit nora salta leitekeen.*

*– Gelditu bertan! –mutil batek.*

*– Hire esku zikinaren zain?*

*– Edo asto egarritu baten zain! –gaineratzen dut, umetatiko asoziazio bat ezin ebitatuz– Ez da derrigorra mutil hutsez pentsatuta zegoen moduan izatea. Eta emon leitekio beste forma onargarri bat. Eskandaluak alperrik sortzea baino zentzunbakoagorik ez dago. Edo mutilena bere martxan utzirik, pentsa leitekez beste ekimen batzuk, hartu-emon pizgarri bat garatzeko.*

.....

Harripeak ere susmagarri ziren garaian, hain neska-mutil talde gazteagaz, plan silbestre horretan irteten ez nintzatekeen ausartuko, zeruarena egia izan truke ere. Talde mistoaren forma oraindik nebulosoa bueltan doitzekotan utzirik, ibilaldia mutil hutsez abiatu zen. Arratsaldeko hiruretan, hamabost zezenko, ate alboak bortxatzeko oldarrean sarturik, autobusean kokatu zirenean, lasaitu ordez larritu egin nintzen, Elgoibarren irteera nolako eztanda izango ote zen pentsatuz. Saltoan eta uhuka kaleratu ziren, motxilak zaldi hezigabeen gaineko lehiatzaileak bailiran.

*– Mutilak! –hots egin nien, jendeak nola begiratzen zigun ikusita–. Hau Markinaren beste aldeko Elgoibar baino ez dok gero! Oraindino ez gozak Oestera ailegatu.*

*– "Zer gara gu, nor gara gu, astapotroak gara gu!" –kantatzen hasi ziren, korruan biraka–. Hori hobeto jagok! –berretsi nuen–. Norberak esatea lakorik ez jagok, jnork ez sinisteko.*

Elgoibarko kale, hain luzez, estuena iruditu zitzaidana goitik beherantz hartu genuenean, 'astapotroenak' indar durdigarria hartu zuen, oihartzun aprisionatu biderkatu. *Guria, Karakate, Jalisco, Jandajuan, Txarriduna* eta horrelako taberna- eta jatetxe-izenak pasaturik, *Bar La Ruina* agertu zenean, ez zuten dudarik izan. Harritu nintzen barrua hain nasai eta txukun aurkitzeaz, ia kaobazkoak ziruditen mahai zabalekin eta araberako aukiekin. Ez nintzen gutxiago harritu, gortina artetik gizon-morroso euskaldun kasik genealogiko bat agertu zenean, *zer, mutilak? trago bat ala bana?* hots eginez. Bero egiten zuen, eta porroi handi bat sangria eskatu genuen.

*– Ardaoa, ahal dela, kolorea emoteko beste bakarrik –esan nion disimulan tabernariari–, anbulantziarik be ez darabilgu eta.*

*– Kuadrila animosoa, eh!*

*– Abiatu baino ez gara egin.*

*– Sasoi gauza edarra dok!*

*– Horreen sasoi esan nahiko dozu zuk. Aizu, atrebentzia parkatzen badeustazu, gauza bat txokatu jat hemen.*

*– Tabernaren izena?*

*– Arin igarri dozu.*

*– Lehenengoa be ez haz eta!*

*– Orduan nahiago dot ez molestatzea.*

*– Bai zera! Bezero bat laketzea baino eginkizun atseginagorik ez jagok.*

*– Halan bada, gustatuko litxakit izen horrexen arrazoiak jakitea, zeu eta, suposatzen dot, sendi guztia horren euskaldunak izanik.*

*– Betiko elgoibartarrak denok, denporen ilunarotik gehiago. Taberna hau Bar Larraina izan zoan beti, gure asaben asaba batek Oñatiko auzo batetik ekarritako izena, antza. Urte baltzetan itxita egonik, barrero zabaltzeko paperetan hasi ginenean, Bar La Ruina legez erregistratu zeuskuean, udal errotiloa be horrelaxe etorritz. Hainbeste kostata lortu zenari barrero eragiten ez hastearren, laga egin genduaan, ea zer gertatzen zen, funtsean, gure etxearen zoria nahiko ondo jasotzen ebala-eta, gure aitaren kasua, esaterako, zainari, galtzaileen frontean bizirik apartaturik, gero fusilaturik hiltzea egokitu jakon. Errakuntza ala burlakuntza, azkenean, izen mesedegarri gertatu zela uste joat.*

*– Egia esan, izenagaitik ez izatera, ez dakit geu be hemen sartu izango ginen.*

*– Bezero barrien kontua eroateko be ez dok txarra, ze, gitxi-asko, denak deskuida-*

*zen dozak aitatzen. Denpora batean inork izen konturik galdetu ez badau, seinale txarra.*

Nire 'astapotro' nobleek adi-adi entzun zituzten tabernari gihartsuaren azalpenak, baita gero, mahaian, nire iruzkin gehigarriak ere, nola inperio espainola, eta ez gutxiago frantsesa, garbikuntza kulturalaren bandalismoan, toki-izenak ere suntsitzeraino degeneratzen den, prezisio hau, inperioaren kontzeptuan, tautologikoa ez bada. Porroi sangria errepikaturik eta nagusiari itzultzen saiatuko ginela agindurik, geltokirantz jo genuen, Donostiaranzko asmoz, ez bidean ozen mehatxatu gabe, uluka alegia, trena eskapatzen ausartzen bazen, kapaz ginela atzetik harrapatu eta lehenengo zubian dingiliz uzteko, taldekide batek lepotik heldutako suge bati oraintxe egiten zion bezala, bidaztien muturretara ustekabean hurbilduz.

– *Bai topatu be!* –hots egiten dut, esan beharrekoaren arrakastaren konfiantzarik eza harriduran enkubrituz.

– *Utziok bizitzen!* –dio batek.

– *Bizitzen utzi bere erruagaitik paradisutik jaurti ginduezenari?*

– *Ezetz eduki dingiliz, buztanetik helduta* –beste batek.

– *Adan bezain leloa nazela uste al dok?* –Heldu eta buruz-kanpo bizian birakatur, "hemen daukak! hemen daukak" oihu egiten du, buztana eten eta suge gaizoa, estatua huntzorritu baten kontra jorik, pedestalera jausi den arte. Estatuaren buru gainean ukitze kutunean ziharduen uso pare, bakearen uso inozentea, zapelaitza bezala gaineratu zaio narrasti zorabiatuari.

– *Mutilak!* –saiatzen naiz agindu-tonua ematen, "hi Adan izan bahintz, beste modutan gengokezak!" pentsatuz–. *Oker informatu ez bagaitue, bost minutu jaukaguzak geltokira ailegatu eta txartelak ateratzeko. Badakizue sugeak trenean txiza eragiten dauela.*

Ebidentzia jakintzat jaurti nuen ohar horrek ez zuen geroztik denontzat 'Sugelin' izango zenagan nik nahi bezalako aprentsiorik sortu, baina, trena trufu-trufu hasi zenerako, lortua genuen denok barruan egotea, bakoitza bere aulkian esertzea kostako bazen ere. Beste bidaiariak han-hemen mehatzuak zirela, mutilek ezin baitzuten denak sail bakarrean jarri, hutsunerik handienean pilatu ziren, batzuk eserita, besteak zutik, pasilloa ere okupatur. Erdian harrapatu gertatu zen neska pareak erle-erasoaren aurrez bezalako aurpegiak ageri zituen. *Komeniko litzatekek jesartzea* –iradoki nuen– *interbentorea etorri aurretik, gehienean jenio gaiztokoak izaten dozak eta.* Sugelinek laster aurkitu zuen konponbidea, bagoi guztia seinalatur: *Horreek denak batzen badira, geu be batera egon ahalko gara.* Inork ez baitzuen alusio seinalerik eman, *hemen ez jagok, antza, euskaldunik* gaineratu zuen, jarraian txunditurik esklamatzeko: *Holako markarik! Gipuzkoan euskaldunik*

*ez!* Plazerrezko mendekuz, eta erresorte bakarrak eraginda bezala, bagoi osoa durditzeko moduko unisonoa abiatu zen, "zer gara gu, nor gara, astapotroak gara gu". Bidaiari batzuen irribarretik atera zitekeen Gipuzkoan ere bazirela euskaldun batzuk, mutil bizkar-uztartuen mugimendu traketsak egiten zien graziarena ez bazen.

Bagoiaren balkoixora irten nintzen. Seminarioko azken etxeratzetik, trenik zapaltzeke nengoen. Hurbileko azkartasun zorabiagarritik urrungo lentotasun suabera, atzerantz eskapatzen ziren ertzek, zuhaitzek, zutoinek, etxeek, horizonteek emozio kasik biolentoak altxatzen zituzten. Ez zen hainbeste, sekula trenez ibili gabeko parajeen nobedadeagatik. Nik uste dut trenak, nonahi narabilela, sentimendu berberak berriarazten dizkidala, trenbide-hegal hurbil-hurbilera begiratzeak eragiten didan bular-hutsunea bezala. Hori eta beste sentipenak barruan daude, ilunetan, zuhaitzik eta etxeorraztik ikusten ez den golkoan. Trenetiko paisaiak, zernahi darakusela, beti horraxa narama, neure kobazulora, kontenplaziora. Autoan nabilenean, obserbatuz begiratzen dut, gauzak zehazki ikusiz. Kontenplazten jartzen naizenean, ez ditut gauzak eurak ikusten, neure kobazuloa baizik. Autoak ere tentatu ohi nau horretara, baina arriskuak laster jabearazten nau kontenplazio gidarien suizidioa dela. Trena daukat horretarako, balkoixoan neu bakarrik nagoenean batez ere, alde baterako zein besterako askatasunez. Baina trenetik zail egiten zait obserbazioa, berehalaxe jausten bainaiz kontenplazioan, ikusterre guztia neure kobazulo bihurturik. Kobazulo iluna da, baina ederto dakust, gauda transluzitzeko izpi berezidun kamerek bezala. 'Astapotroena' kantatzen diharduten gazte horien adin jorantsuan, bi tren zebiltzan nire kobazuloan, joaneko dohakabea eta bueltako dohatsua. Oraintxe noan tren berbera, baina bertan, sentipen dohakabea urrundu ahala (gehiago ez duket seminariora joan beharrik), norabide dohatsua bakarrik gelditzen nabari dudana. Debara iristen ari garela, dena iruditzen zait agerkunde, itsaso ageria barne. Nire kobazuloak dena bihurtzen du hungigarri. Eskerrik asko, astapotro maiteok!

Funtsean, hala ere, balkoixora irtetea uste dut, kobazulo bila barik, mutil taldeagazko zerikusitik aldentzearren izan dela. Interbentoreak, bekain beltz trinkoak babirusaren hortzak bezala bekokirantz gurutzatzen zaizkionak, pasaeran, barruan tokirik ez ote zen galdetu didanean, apropos nengoela bakardadean erantzun diot, paisaiak arnastuz eta, bagoi artetik, tren musikaren fiabardura infinituak pertzibituz. Berak eguna bertan atzera-aurrera daraman plataforma bizidunari aurkitzen diodan xarma beraganako lirismotzat eskertu duela iruditu zait, trenaren propietate emotiboak beragandiko emanazioak bailiran. Badirudi poesiak edonon balio duela, engainu txikiren bat sortzeko gauza bada. *Gazte horreek zertan jabilzek hor?* marmartuz ireki du bagoiko atea. Ni neure paisaiara eta neure musikara.



Ezin diot, ordea, atearen erdiz gorako kristaletik disimuluan begiratzeari uko egin. Uniforme urdin iluneko eta txano berdineko gizaseme musu-latzari erreparatzean, untxiak zuloetara bezala ezabatuko zirelakoan nengoen euren aulkietara, baina kollega bati bezala zabaldu diote korrua, barrez eta oleska. *Han dago gure arduraduna* (beharbada, 'gure kapilaua'), edo horrelako zerbaite esan bide diote, denek neugantz begiratu baitute, interbentore gorpulentoak barne. *Zeuek konpondu!* pentsatuz alboratu naiz. Hitz gogorren batzuk jarraiki bide dira, mutilak burumakur bantandu baitira euren jarleku dispartoetarantz, bola igo-zoriari eutsi nahian bezala. Interbentorea hurrengo bagoirantz ezkutatu denean, buru guztiak barrez eta ujuz biratu dira elkarrengana, baina ipurdiak aulkietan josita, interbentoreak mehatxuz zorrotzen bat utzirik, antza, usterik gutxienean itzuli eta multzo tentean harrapabaliatza. Asmatu dut, halaxe agertu baita berehala, denei berriro txartelak ateraraziz, baten batena pikatzea ahaztu zaion plantan. Haranzkoa amaïturik, bueltako pasaieran diost:

- *Zaintzarik seguruena bistatik galtzea, eztok?, kartzela jatorretan legez?*
- *Bai, antza. Begira zer mantso dagozen.*
- *Mantsotasun igarokorra, jagokonak kargu hartu ezik.*
- *Bagoi barruan zaila baita paisaiaz eta trenaren musikaz gozatzea.*
- *Paisaiak eta marikoikeriak, txiza zarra-zarra egiteko?* -Horren gordin mintzatzeko, apenas aipatu dioten 'kapilau' konturik.
- *Et, et, et! Nik ez dot hemen txizarik egin, eh?*
- *Ikusten balkoitoxoaren barren ertza zelán dagoen, erreta?*
- *Pentsa hori egin daben zirriztadek kokotean zelako aberia egingo leukien.*
- *Aberia neuk preparatuko joat, barriro zalapartarik sumatzen bajoat.*
- *Hartuko zindukedaz laguntzaile. Trenak Donostian kaleratzen gaituenean, ea zer egin behar dodan horreekin, aste osoan!*
- *Aste osoan, non lo eginda?*
- *Ez dakit. Kontxan edo.*
- *Prrrrfff!*

Inondik imitatu ezingo nukeen purrustada horregaz, beste bagoira saltatu denean, pentsaketan utzi nau zer adierazi nahi ote zuen, arbuio, harridura ala higuin, *hau mundu modua!* esklamatzeko era kretaziko bat izan ez bada. Bagoiari harantz, hurrengo bagoiaren bila zuzen doala segurtatu naizenean, 'marikoikeriak' nobletzeko ideia polita iruditu zait txizarena. Debatik Zumaiara bitartean, bada tunel ugari, baina hau itsabistan egin behar da, honelaxe, kresala arnastuz zulo eta sakanen gainetik (*badozak gero parajeak eurok!*), ea tren zahar hau erretzen ari den bat kolaboratzen dudana, pasarazi zizkidan larritasunen ordainez. Trenean ibiltzen hasi nintzenean, bere izate fantastikoak liluratzen ninduen baina gutxiago ez nint-

duen ikaritzen pentsatzeak zer egin behar ote nuen, txizalarriak edo, okerrago, kakalarriak ematen bazidan. Ez zen urik edo surik behar erreflexu horiek abiarazteko. Pentsatzea aski zen, larria berehala etor zedin. Edo pentsatu eta egin, umetan ikasi genuen bezala, eskolako hormetan nork gorago, edo urmael eleganteetan nork urrunago leihatzen ginenean. Txakurrek ezin jarraitzeko adina menperatzen genuen egintza, autoen urritasuna konpentsatzeko, gurpilak banan-banan zirritatuz. Arte hura ez zuen apaizgintzako sakramentuak ezabatu. Zumaiara hurbiltzean, mutil bat inguratu zait, taldearen ordezkari, seguruenik, Donostiako asko falta ote den galdetuz. Itxura gehiago hartu diot, beharbada neure barne analogietatik, Zumaiara Donostia ote zen jakin nahi zuela.

- *Formal?* -galdetu diot, bide batez.
- *Baaai!* -darantzu dudarik ez uzteko tonuan. Badaezpada, deranst:
- *Hobe dozue, ze interbentoreak guardia zibil kamuflatua izan behar jok.*
- *Euskaraz badaki, ba!*
- *Horixe dok susmagarriena!*
- *Orduan gu...*
- *Shhh!!* - Sekretua bizkor darama lagunengana, ez dakit Donostiaraino diraukeen baina.
- *Hau dok Donostia?* -hots egiten du Sugelinek, besoak goraka, harridura bainoago dezepzio tonuan, geltokiak Amarako plazara jaurti gaituenean.
- *Donostiara ez al gentozean?* -dio hurrengoak.
- *Eta San Sebastian?* -beste batek.
- *Hori itsasorantz egongo dok.*
- *Markina eta Xemein legez?*
- *Niri dinostak? Ni Iturretakoa nok!* -Markinako auzo bat berau. Euren aieru gutzietan aurrera egiten utzi ondoren (Bizkaiko Golkoan dagoenak dena Bizkaia izan behar duela eta abar), interbenitzea erabaki dut:
- *Indietako espainolada zantar guztiak ikasi dozue, eta geure hiribururik dotoreenaren izenik be ez dakizue? Biak dozak hiri bera, bata euskaraz, bestea erdaraz.*
- *Hau al da Franco udan ibiltzen dena?*
- *Honen behean ez! Hari goia gustatzen jakok, ñarro guztiei legez.*

Aiete aldea seinlatu nien horizonte altuan, Machu Picchu burumoztua iruditu zitzaidana. Gure norakoa Igeldo zenez, izango genuen hiria ikusteko modua, ia dena zeharkatu behar baitzen. Joanaldia ez zen laburra, baina ilunabarraren hurbiltasuna alde neukan, ez bainuen hirian katigatzeko arriskurik nahi. Igeldo urrun zegoela (*ikusten mendilepoaren amaiera kasik bertikalako dorre moduko ha? ba, harexen ezkerrean gora*), kanpalekua aurkitzen eta dendak jartzen denbora beharko zela, lehenengo zeregina kokapena zela, gero zernahitarako patxada

izan genezan, hori guztia egun argiz egin behar zela, eta abar, konbentzitu ziren martxara, bide erdian, Ondarretan-edo, trago bat jotzera gelditzekotan, atsedean eta ikusmiran. Nik banuen beste premia bat ere. Café Easo jartzen zuen hondartza gaineko txiringito nahiko elegantean eseri ginen, gauza politak ikusteko asmoz (desiatuak, behintzat), baina ez zegoen nik behar nuenik, telefonorik alegia, edo ez ziren gutaz fidatzen, bertokoegiak ginelako-edo, atzerritarrak losintxatzen ohi-turik. Okerrak poztu egin ninduen, mutilen aurrean hitz egin beharretik libratuko bāinintzen. *Dei bat egitera najoak. Egon hemen, neu etorri arte. Baina hementxe, eh!* Antiguora jorik, itsasoa bertaraino sartzen zeneko taberna antza hartu nion batera sartu nintzen, eta baietz. Bazutela telefonoa, "euskaraz zekiena". Apaiz antzik ez zidaten hartu (neuk uste), baina turistarenik ere ez, nonbait. Markatu nuen eta, sarrera-hitz topikoen ondoren (*hemen zure anaia, Donostiatik – neu be zure anaia – Obaban zagoz ala? – ni Zornotzan! – urrun entzuten da – belarria bertan daukat, ba – aldrebes ez dozu edukiko, ezta?, ahokoa belarrian? – ahoa ahoan eta belarria belarrian – oporrak zelan? – bizkor!*), erregutu bainoago agindu nion:

– *Gogoan al dozu gure ibilaldira biltzeko zarena, pare bat egunerako? Bai, bai! Oso ondo, baina hobeto beharrean. Eguena urrun dago! Bihar bertan etorri behar dozu, aste osorako. Bihar, bai, bihar! Eguna argitzerako, ahal balitz. Ez! Bai! Derrigok behar dot laguntasuna. Bildurrik ez, bildurrik ez daukat. Nik daukadana izua da!! Gazteok ezin neikez dominatu, garabi jantzita be. Motorrean ez, Jainkoarren!! Honeen artera motorra sartzea marrazoei odola erakustea lakoa da. Hartu goizeko lehenengo tren, eta etorri lehenengo bagoian. Igeldoko jolas-parkean egongo gara. Trenetik Igeldora? Ahal den moduan eta ahalik arinen!*

Anaia ni baino zaharragoa zen, mutilek ez zuten ezagutzen, eta errespetua ezartzen ni baino trebeago izango zen. Horixe uste nuen, berak ere uste zuen, baina usteak gutxi irauan zuen. Biharamun goizeko hamaiketan Igeldoratu zen gizona, eguerdirako, kolega soil bat gehiagotzat hartua zuten gazteek, pentsatuz, seguruenik: *Abadearen anaia izateko, etxeko hondakina izango dok.* Anaiak zioen: *Lanbide Eskolan ala Larbide Eskolan hezi dozuez mutilok?*

Baina oraindik bezperan gaude. Iluntzean, errepidetik dezente urrundurik, pinadi bakarti batean kanpatu ginen. Bost oihal-etxolaz, Amazoniako auzunetxo bat bezalakoa eraiki genuen, pinadi zoru-gorrian, nahiz eta, harantz, oihan tropikal konpletua ematen zuen, inguru maldatsu eta trokatsu baten gainean.

– *Nik uste najoan –dio mutil batek– Igeldo, dena zela jolas-parkea eta elegantzia, baina hemen boak agertu baietz!*  
– *Hi jango habe, baina egosi, nekez –erantzun diot.*

Gauetz, Donostiara jaitsi gabe ez zegoen bakerik. Arrazoi egiazko baino balizkoagoak emanez (nekea, berandua, Donostian ibiltzeko aste osoa genuela), Igeldo herrira igoarazten saiatu nintzen, hiri-ibilerak anaia zetorreneko utzi nahian, baina amore eman behar izan nuen. Nire ardura ez zen norbait galtzekoa, baizik norbaitzuek auskalo nora eskapatzekoa, edo auskalo zer biziotara jotzekoa. Zorionez, ez nekusen arriskurik, ezta tentaziorik ere, taldea sakabanatzeko, jaioterrian kasik saihegarri zirudien elkar-premia erbeste urrunean klan-grina bortitiz bihurtzen baitzen. Gure mutilen kasuan, adin horretan batez ere, multzoa bera zen arrisku, kantuan eta zalapartan hasten zirenean. Beldurrez nenbilen, euren 'astapotroak gara gu' kanta faboritoaren arabera, noiz zer bota, apurtu edo markatuko zuten, toki-jabeek nonahi atentzioa ematen zigutenez.

– *Aizu! –aurre egin nion bati–. Oraindik ez dute okerrik egin, eh!*  
– *Baina egingo diate!*  
– *Obligazioa al dago?*

Ganberro airerik gorenean, usterik gutxienean, gairik serioenak azalduko ziren, neuk batere bortxatu gabe, bai baitziren hiru-lau taldekide, kontzientzia ez dakit garatua, baina bai kezkatua zekartenak. Hauek noiznahi zeuden gertu, aurkitzen zuten edozein erreferentziari tiratzeko, edo erlazio posibleak hariltzeko. Nahikoa zen 'Hotel Vasco' irakurtzea, baten bat has zedin:

– *Vasconia zer zen?*  
– *Eta lehenago? Eta gero?*  
– *Zazpiak bat ala zazpian San Fermin?*  
– *Kanta bat nahastu jak bitartean: "Bat, bi, hiru, lau (bis), bost, sei, zazpi (bis), euskaldunak irabazi, irabazi!*  
– *Irabazi zer?*  
– *Galdu doguna, gitxienez.*  
– *Kanta hori zeini jagoko? Zazpiak bati ala San Fermi?*  
– *Biei.*  
– *Biei batera ezinezkoa dok.*  
– *Zergaitik, zazpiak bat leitekeena bada?*

Orduan (eta noiz ez?), Euskal Herrian (eta non ez?), baziren gai goriak, irrikagarriak. Garai hartan, gerraoste tenebrosoa pitzatzen ari zen, argitasun aurtak bazetozen, eta jakin-mina bizituz eta zabalduz zihoan. Edari bat amaiturik, bigarrenagaz Kontxako hondartzan zirkulu eseria osatu genuenean, miraria gertatu zen. Ez zen luzea izan, mirari orori dagokion moduan. Halako uneak aste osoan ere ez ziren luzeak eta ugariak izango, sortu bezain berez joaten baitziren. Mi-

rariak ziren, ez hainbeste astea haietarako antolatua genuen solasengatik, baizik ikusteagatik, klaseetan formal egongo baziren, ia beste gerra bat deklaratu behar zitzaizen gazte 'astapetro' haiek nola hondar epelak bezain isil eta adi-entzuten zuten den-dena, arrazoi ematera hurbiltzen ziren olatu solidarioak barne, goranzkoan *bazabilze? bazabilze?* eta bueltan *segi holaxe! segi holaxe!* esanez. Euskal Herria, Herri Gaztedi, Ez dok Amairu, Agirre, Etxebarrieta, Aresti, Franco, Mao, Errusia ilargira, Euskal Herria, Kuba, Vietnam, Angola, Aljeria, berriz Euskal Herria... Hain hunkiturik nengoen, ezen (neu ere anizgarren zurrutean), geroagoko esku-telefonoak asmatuak izatera, anaia lehenbailehen etor zedin agindua anulatuko bainuen, edertasun hura partekatzeke penaz, barneratu gabe, artean, edertasuna ez dela partekatzean zatitzen, hainbestean handitzen baizik. Astea lehen egunean justifikatuzat sentiturik, animatua nintzen gainerako guztiak alferrik galtzeko. Euforiak ahantzarazi zidan anaiaren premia errealtateak laster nabarmenduko zuen, mutiak uretatik ateratzea zailago izan baitzen txerria txokolatetzatiki baino, batez ere Oñatiko markaren bat denean. Txerri sibiratik daudela hemen!

- Horreek dozak tamariz ospetsuak?
- Gaixorik jirudiek.
- Hainbeste poema babestearren!
- Poesia gaixotasuna dok ala?
- Ona, ziur. Txarra, virus mutante bat.

Biharamun eguerdian, anaia ere jada iritsia zela, Igeldoko jolas-parkean, hainbeste turista arrotzen artean, batez ere frantses pastosoen, ezin ginen teleskopioan diru mordo bat xahutu gabe gelditu. Txakurkume saldo bat galtzerdi-multzo finiko bati tiraka bezala inguratu ziren, norik begia lehenen jarriko eta mirari handiagoak ikusiko, dena ere zalaparta lotsagabea. Bakarrean hain lotsor izanik, harritzen nintzen nola, aldran, inguru oroz inhibitzen ziren, etxeorraz baten gain-terrazan bailaude. Turistak hantxe ziren, oster, errenkada legalean, txandaren zain, egonezintzen hasteko gutxi behar zutela. Anaia eta biok haiekiko erlaziorik gudan ez ikusteko moduan kokatu ginen, geu ere txanda zain bezala, hor konpon. Inposa bitez edo defenda bitez eurak bakarrik.

- Euskal Herria txikia zela, baina hara bertan Paris!
- Paris non ikusten dok?
- Hantxe! Guk ez jaukaagu errurik lurra borobila delako.
- Jode! Planoa balitz, Australia be bai, orduan.
- Orduan be zeozer beharko geunkek iruntzian.
- Mortuak eta poloak.
- Batera?

- Elkarren ondoan ipiniz gero, mugena eurek konponduko jabeak.
- Eta ertzean? Alde-bikotxa izateko, hegala be beharko jok zeozer, alde-bakarra izateko beste mehetu ezik.
- Hanburgesa ondo plantxatu bat, jantxakurra kontsola daitezen?
- Egin leitekek ertza zorrotz eta erdialdea potoloago, esfera hegalaria baten forman, atxurrean hasi eta, beste aldeko bedarrak jorratuz, alde honetako artoak sasira jaurtitzeko moduan.
- Gorputz esferikorik ezin jok izan airean, unibertso naturalean. Hor egon ezik, non egon behar jok?
- Joño! Unibertso guztia korritu al dok, horren seguru egoteko?
- Niri horixe irakatsi jeustek fisikan. Heuk be jakingo heuen hainbeste, urtea euliak irentzen igaro ez baheu.
- Ez ete dok izango ezinezkotzat jotzetik ez dagoela konkluditzea, unibertsoa argiaren abiaduragaz neurtzeko bezain koxkorra bailitzan?
- Ona, Einstein! Utz fantasiak eta demoiozun esfera horri ertz apur bat, bueltan-bueltan txinatar harresia josiz.
- Hau geratu dok! Kun, kun!
- Apurtu behar dok!
- Orduan, sartu beste hogereko bat! Behin izango aukera mundua era ilusorioan ikusteko, eta bertan ez gozak etxera joango, Igeldo polita dela esanez.
- Hik ez dok begiratu behar? -galdetzen diot gure petrilerara apartatu den bati.
- Gurago dot mundua neure begiekin ikusi.
- Hemendik ikusgarri jagok Donostia.
- Eta harago agiri den itsasadar antzekoa?
- Haxe dok, ba, Bidasoa ospetsua, Txingudi badian! -esklamatzan dut solemneki, esateko desiatzen nengoena berak galdetu izana baliatuz-. Ibaiaz handik ikurrina libre dok. Hemendik, barriz, goi-tentsinoko kable guztiak txinpartaka jabilzek, trappezista ingenioso batzuek oihal zuri-gorri-berde bat eskegi dabelako.
- Teknologiko irakasleak dino Frantziak beste kategoria bat daukala Espainiaren aldean.
- Kontuz! Frantziar perbertsitatea letalagoa dok. Huskerietan mardul, funtsa ihar-tzen deue.

Igeldoko trenean ibili gabe ez zegoen alde egiterik. Gehiegi ere ez, diruak aste osorako luzatu behar baziren. Badaezpada ohartarazi genituen diru kontuaz, ez zedin gerta, adin hartako geure esperientziatik eskarmentua genuenez, azken egunak igaro beharra, ez hainbeste mehetasunean, zeina, norbere baitan gordea, garaipen harrogarria izan daitekeen, baizik eza denen aurrean agertzeko beldurrez. Batzuek, sentieraz bainoago urguiluz, balentria simulatzeko ahalegin guztiak egin bazituzten ere, gehienek ez zuten errepikatzeke berotasunik agertu, eta ez

dut uste bidaien prezioagatik bakarrik izan zenik. Hori bai. Larritasun ustez duinki gairituak eragiten duen gorakadan, eta taldetasunean beti sortu ohi diren adimen fantastikoen arabera, Sugelinek ezin zuen ezkutatu aurkikuntza handi bat egin izanaren puztura. *Hauxe dok gure kostarako tren berebizikoa, ez tunel ez kristo!* Zeinahi proposamen nahikoa izaten baita objekzioak erakartzeko, laster ihardetsi zioten tren hartan jende zahar gutxi ikusten zela. Beraz, Lea-Artibai bezalako eskualde batean, lokomozio mota horrek akats handia zeukala egokiera sozialaren aldetik. Aurkikuntzaren defentsoreak arrazoi deigarria atera zuen, gehienok noraezean uztea lortu zuena.

– *Ohitzea da. Hamabi urte nituela, hilkutxa bat ekarri eben gurera. Inor bistan ez zegoen bitarte batean, etzun nintzen bertan, eta ezin izan neban minutu erdirik egin, izaki munstros baten ahoan nengoelakoan. Gure aitita, osterá, trankil-trankil joan zen.*

Igeldoko jolas-parketik oso hur, bazen jatetxe ospetsu bat, nongoa zen apaiz lagun bat, Euskal Herri mailan entzutetsua, Gipuzkoako Herri Gaztediko arduradun nagusi gisan. Nahiz eta apaizok, eliz mailan, diozesika edo probintziak antolatzen ginen, motibo kultural edo militanteak bide, baziren Euskal Herri mailako harreman sareak, zeintzuetako garrantzitsuena, apaiz eragileen artean behintzat, Herri Gaztedi zen. Jatetxea apaizaren gurasoek zeramaten, eta esan beharrik ez dago zer ondo eta txeraz hartuak izan ginen, aurretik ere etxe hartan, semea tarteko, bilerak eginak baikinen. Harro nongoen, gazteen aurrean, halako bazkari gozoa eta 'konpondua' bideratzeaz, bai bainekien eurak ere harro sentitzen zirela, Igeldoko jolas-parke ospetsuaren ondo-ondoko jatetxe batean halako ezagupidea zeukan bategaz ibiltzeaz. Arrazoi lausenguzko horien azpian, osterá, bazen beste helburu bat, samurrago eta barrurago sartuko zela itxaroten nuena. Hain ondo eta merke hartuak izateak nahitaez sortu behar zuen sentiberatasunean Herri Gaztedi zer zen eta nola funtzionatzen zuen azaltzeko aukera zuzena eta marko bikaina eskaintzen zitzaigun. Horri, aste barruan, jatetxeko seme apaizagaz beragaz egoteko aukera gehitzen bazitzaion, aurretik berbatuak ginenez, orduan gure Igeldoaldia benetako 'ikas-bidaia' bilakatuko zen.

– *Don Jabier!* –dantzut deia kanpin-dendatik, ilunkeran.

– *Horrela, 'don' eta guzti deitzeko, baten bat larri jagok* –pentsatzen dut–. *Zer gertatzen dok?* –galdetzen dut, kanpora irtenik. Mutilek erdi ahopean diote:

– *Gizon bi dagoz hor... nork jakin... uniformedunak... arduradunagaitik... nik hanka egin dot... galdezka.*

– *Uniformedunak?* (Ez jaket susmatu izango, ba –pentsatzen dut–, *Igeldo asaltatzera datorren komandoren bat ete garen!*). *Trankil, mutilak! Laster konponduko joagu dena.*

Itxuratzea errazago egin dut sinestea baino. Ilunkera gau itxia da pinadi barruan. Afalostean, bakoitza bere denda moldatzen ari ginen, Donostiara jaitsi aurretik, bueltarako dena prest uzteko, etzan eta lo. Mutilek normalean ohi darabilten zalapartaren faltan, isiltasun basotarrak ikaratu egin nau. Pinadi hegaleko soilunean, hor daude bi gizon, mutil, mamu... Gauetz, uniforme guztiak beltz. Trikorniorik ez ikusteak apur bat lasaitu nau.

– *Kaixo, arratsalde on! Gau on ere esan daiteke baina.*

– *Zu al zara kanpaldi honen arduraduna?*

– *Arduraduna edo... ordena apur bat ezartzen ahalegintzen dena.*

– *Hemen ezin da kanpatu. Nori eskatu diozue baimena?*

– *Egia esan, eskatu behar zenik ere ez zaigu bururatu. Ez dugu pentsatu pinadi bazter honetan inor molesta zitekeenik.*

– *Hau ez da kanpalekua, eta alde egin behar duzue hemendik.*

Jada lasaiago nongoen, udaltzainak edo, gehienez ere, guardaren batzuk zirela ikusirik. Igeldoko parkezainak, beharbada. Ez dute inguru makala hartzen, lekutan baikaude jolas-parketik, turista bedeinakuei garbitasun remotoa ere garrantzitu behar ez bazaie. Lasaiago nengokeen, 'alde egite' horrek berriz ikaratu ez banindu. Mutilak, denda ertzetatik, dena belarri sumatzen ditut. Horiek ere ke-menetik kikiltasunera berehala pasatzen, gaizoak.

– *Nora alde genezake hemendik, gaua bizkarrean dugula?*

– *Hobeto pentsatu behar da non kokatu. Hau okupazioa da.*

– *Ez dugu, ba, asmo biolento horrekin egin.*

– *Horrelaxe ikasiko duzue hurrengorako.*

– *Aizue, barka benetan ere, baina... Egun argiz etorri izan bazinete, ez genukeen txintik ihardetsiko, baina orain nora joan behar dugu, ingururik ez ezer ezagutzen ez dugula? Gau-lapurrak garelako pentsatuko dute.*

– *Egina duzue nahiko lapurreta, eta barkatu zaizue nahikoa, gaua hemen igaro baduzue.*

– *Zer oker egin dugu, ingurua txukun zaindu besterik?*

– *Eztabaida honek ez dauka zentzurik. Toki debekatu bat okupatzen ari zarete. Alde egin behar duzue eta kito.*

– *Aizue, hara... Lotsa ematen dit kinka honetan aurkitzeak, eta handiago ematen dit neure izatea deklaratzeko baliatu beharrak, baina... apaiza naiz, eta hau neure anaia da.*

– *Ederra etsenplua!*

– *Esan dizuet lotsa naizela. Okerretik ez gaude libre, baina apaizok ere badakigu lotsatzen. Bizkaitarrak gara. Mutil horiek Markina aldekoak dira. Gipuzkoa eta Do-*

*nostia ezagutzeko pozean abiatu ginen, Igeldo alde hauxe, batez ere. Egindako gaitz bat ez da mesede bat eskatzeko bigungarririk egokiena, baina hitz damaizuet, nire arima beleak eramana izateko zigorpean, ordu batzuk besterik ez dituen gau hau hemen pasatzen uzten badiguzue, egunarekin batera ezabatuko garela hemendik, ingurua aldarea baino inpekableago utzirik, eta gizon biren bihotzondoa eskertuz.*

Apaizen aipuak, eurenganako makurmenak, Gipuzkoarekiko gure ikusmin eurak ere barne sentitzekoak, edo, beste gabe, euren ontasun berezkoak (ez dago predeterminatua uniforme baten azpian gizatasun zerbait ezinezko izatea), edo, soilik, erretorikak, zerbaitek eragin zuen, 'gau on' arazuko bategaz (ez dakit irritsu ala muzinti, aurpegikerak bereizteko baino ilunago baitzegoen) pinadi mamuan gora ezkuta zitezen, ez "argi utzi" gabe, mehatxu argiz alegia, biharamunean han aurkitzen bagintuzten, alde egin beharra baino zerbait kezkarriagoa izango zela. Baietz guk, bai, bai! (Entzuten badakigu). Gazteak ez ziren gutxi laxatu. Gaua salbatua zen. Erretorikarena ez da hain zentzugabea, zeren, esaterako, "egun argiz etorri izan bazinete" ordez, "egun ez etortzeko argitasuna izan bazenute" esan banu, edo "gizon biren bihotzondoa" barik, "gizon biren bihotzeka" eskertu bagen, bada beste historia batean geundeke, baina orain ez daukagu inertiari jarraitzea besterik.

– *Hau ospatu egin behar joagu*—diotsegu gazteei—. *Gaupasa bat merezi dozue. Baina, egunagaz batera ezabatzekotan, osorako egokiera lasairik ez dagoenez gero, asteko barrurako utziko dogu. Orain, lo! Ahal bada, begi biekin, eta amesetan den porarik galdu barik.*

.....

Eguna inork eskatu gabe argitu du. Geure motxilak bizkarrean, baga toz Igeldon behera, oraindik izate ohartura zabaltzeko kemen osorik gabe. Ondarretatik Kontxan zehar, jolas usainkorretan diharduten txakur bakanak mesfidatu apartatzen zaizkigu, ez dakit hain turista goiztiarrez harriturik, ala muzindurik. Aymeric Picaud bezala, gure hizkera modu arrotzez, 'hau-hau' eta horrelako hots solte eurentzat eta beretzat natural batzuek beste. Donostian, Gipuzkoa Plazan, autobusik hutsenean sartu gara (txoferrik ere ez dago bertan), nondik norakorik ez irakurtzea lortu ondoren. Horixe genuen erabakia, baina, ueña heldutakoan, ez zen erraza begiek autobusaren bekokiko errotulora ez eskapatzea, barrutik kanporantz bazen ere, hizkiak iruntzietara irakur-minez. Batzuek uste dut ezin izan diote eutsi, ez irakur-minari, noraezaren kezkarri baizik, baina denek diote ezer ez dutela ikusi, eta hemen horrexek balio du, koherentzia esternoak; barrutik, bakoitzak egin

beza kaka berak nahi duen praktetan. Otarte erdigaz itzuli den txoferra (beste erdia jana izan behar du, ez zaio igartzen baina) haserretu egin da, harritu baino lehena-go, halako tropa autobus barruan aurkitzean, ekipaje eta guzti. Uste dut soldadutzat hartu gaituela, eta badirudi bere soldadutzaz baduela oroitzapen higuinarriren bat, galdetu baitigu ea oraindik ere "horrelako zerrikeriak" irakasten jarraitzen duten. Hori jaurti eta gero, autobusean nola sartu garen galdetzea ia sobra zegoen, baina, badaezpada, azaldu diot, atea zabalik eta barrua hutsik ikusi dugunean, sartzeko gonbita bezalako ulertu dugula, seguruenik, geure gorputz nekatuen prezioz, eta jada barruan eta formal geundenez gero, izan zezala gure atrebentzia barkatzeko onberatasuna. Badirudi sentimendu samurretarra jotzeko erretorika hori, kolektiboki koipekeria bezala, pertsonalki efektiboa dela, Igeldoko uniformeengan ere gertatu zen moduan, harik eta norbait aurkitzen duzun arte erretorika praktikoa hornitzen dizuna, *oraintxe emongo deuat hiri koipe gozo-gozoa* esanez. Gure txoferra puntu horretatik ia bertan jarri da, nora gindoazen galdeturik, "zeuk autobusa daramazun lekura" erantzun zaionean. Kasu honetan, pertsonalizazioa okergarri gertatu da, zeren, "autobusak garamatzen lekura" esanda, fardela autobusari kargatuko zitzaiokeen (zertarako dira, ba, autobusak?), baina "zeuk daramazun lekura" delakoa seinalapen direktoegia zen, beste nora eramanez ez balu bezala. Berriz ere azaldu behar izan diot, oraingoan apaiztasunik deklaratu gabe, kontua ez baitago agurmarietarako, izateko ulermen apur bat gazteokin, zeintzuen gogoia Gipuzkoa ezagutzea besterik ez den; baina nola ez duten batere ezagutzen, gidaritza abenturaren esku utzi nahi zutela, jakinik, noranahi eramanez zirela, inguru paregabeak aurkituko zituztela.

Erretorikak berriz ere gailentzea lortu bide du, ulermenaren bikaintasun pertsonaletik baino areago, seguruenik, Gipuzkoaren fetitxe-dohainagatik, baina hor konpon. Bitartean, bidaiariak sartzten hasiak dira, denak ezezagunak, batzuek ezagun antzera begiratzen badigute ere. Txoferrak bere gorputz erdia (gerriz behe-rakoa) inbalidoen antzeko auklian txertatu du, eta gehiago ez dugu aurpegi dezente asimetriko hori ikusiko, harik eta, izen polita iruditurik, Andoainen jaitea erabaki dugun arte, kobratzaileak aurretik azaldua baitigu, berari aholkua eskatu izanaz harroturik, autobusaren azken destinoa Tolosa dela, baina han ez dagoela guretzako moduko ezer, txapelak eta babarrun-fama besterik. Berak ez du esan "horiek baka-irrik" daudenik, baina horiexek aipatu ditu, eta pentsatu dugu, beste zerbait inportanterik egotera, aipatu izango zukeela. Bi gauza aipagarri bakarrik dituen herria ez zaigu erakargarri begitandu, eta nahiago izan dugu bide erdian jaitsi, txartela ere erdi prezioan izango zelakoan, baina, azkenean, heren bat bakarrik gutxiago izan da. Hala ere, irabazten irten gara, zeren, Tolosaraino jarraitu bagenu, bueltako bide erdia heren bat izango zelakoan, berdin hiru heren kobratuko ziguketen, biharamunean konprobatuko genuenez. Kilometroak baino txanponak kontatzen temo-

soago diren gazteoi, injustizia usteko zernahiren aurrean, *hori zelan izan daiteke?* oihuka errebelatzen direnoi, besterik erantzuterik ez zait bururatu: prezioen logika ez dela zentzu naturalean sartzen. Andoainen, autobusak bazterrean jaurti gaitu, erdian ginelakoan.

– *Orduan, eliza dorre-luze horrek zer egiten du hor?*

– *Oh!* –erantzun digute–. *Hori eliza zaharra da. Badira bost bat mende, parrokia izateari utzi ziona. Hilak eliza barruan, edo kanpotik, elizaren horma kontrara ehorzten ziren garaian, izurrite larria zabaldu zen, baina erretore kaskagorrrak, gotzaingoaren transigentziak, ez zuen, nonbait, ohitura era osasungarriagora aldatu nahi izan. Orduan, hilek hil-usaina zuten, ez geroagoko tanatorio-usaina. Herritarrrak urruntzen hasi ziren etxeak egiteko, eta denbora laburrean, beste hirigune bat sortu zen. Elizalde originaleko tradizionalistek iheslariei egiten zien "han dohain ala? han dohain?" burla zakarretik, 'Andoain' izen poetikoa hartu zuen gune berriak, non eliza ere berria eraiki zuten, galanta gainera, zaharra hara aldatzeak malefizioa aldean ekar zezan beldurrez.*

*Han dohain* edo *Andoain*, *Anboto* edo *Han bota* (seme batek aita hil eta 'han bota' ei zuelako), horrelako etimologiez loriatu den herritar eruditoari ken ezaziozu gero ideia hori burutik, batez ere, jatorra baldin bada.

– *Bazterrean gagoenez gero* –proposatu nuen aire inozentean–, *bilatu daigun lehenik kanpalekua leku zabaletarantz.*

– *Herri barrurik zapaldu barik?* –oihu bainoago zaunka egin zuten ia denek batera.

– *Honeekin teman hastea alperrik izango da* –xuxurlatu nion anaiari, zeinak berdin ahapeka, baina marmar tonuan erantzun zuen:

– *Honeekin herri barruan azaltzeko, potroak bekokian behar dozak.*

– *Aurrera, orduan! Inork ez daiela esan Markinako euliak pasatu zirela Andoaindik.*

Herriko etorbide zentrala plaza nagusirantz hartu dugunean, mutilak bi taldetan uztartu dira, besoak elkarren bizkarretan gurutzatuz, lerro bakarra osatzen alferrrik jardun ondoren, ezin baitzituzten kaleko traba guztiak libratu, auto, lagun, gurdi eta txakur. Bi lerrotan, atzekoak aurrekoei orpoak zapaltzeko aluke-rian saiatur, txangoko sintoniari daragoiote, *zer gara gu, nor gara gu, astapotroak gara gu*. Anaiak eta biok atzetik darraigu, talde berekoak garenik ez pentsarazteko distantziara. Zenbait ipurditan, plastoi lehortu gabeak ageri dira, garagardoarenak-edo, baldin, Igeldoko kanpaleku silbestrean, euren zereginak egiten errekaetoaren kontrara gehiegi makurtzearenak ez badira. Autobuseko jarlekuak kurioso gelditu izango ziren. Plaza nagusian, probarki baten inguruan, korru saltaria, ganberro estilokoa, burutu dute, sintonia beragaz, noski, eta begiluzeak ere ez gutxi. Plazak

oihartzuna biderkatzen duela baliatuz:

– *Orain euliek zer azukre-ontzitan sartu behar dabe?* –oihu egiten digute atzeko bioi, begiluze guztiak guganantz biraraziz.

– *Identifikatuta gagoz!* –marmartzen diot anaiari, eta honek: –*Orduan, goazen kafetegirik eleganteenera*–. Jarraian, talde osoari:

–*Mutilak! Exhibizino veneziarra egin dozue. Azukre-ontzia, neure kontu!*

Tabernariak lau mahai guretzat batu dituen ondoren, hamaiketako aurrean, begiak gainean, motxilak mostradore kontran, lasai esan genezake, esateak ezertarako balio balu, hobeto nahi ezin izateko tokian eta moduan gaudela, hots, eibartar bat inoiz aurkitu izan den modurik onenaren pare. Gehiago eskatzea kontradikzioa litzateke. Beraz, goazen beste leku batera.

Kalearte batetik, Andoainez handiko errepide nagusiaren beste aldean, eliza bati erreparatu diogu, apenas dozena bat etxek inguratua bera, mendirantz eta alboetara zuhaitzak, zelai handiak eta baserri solteak ageri direla. *Goazen bertara* agindu digu senak berehala. Eliza bakarti samarren inguruetan, fede-itxuran hurbilduz gero, beti izaten da toki abandonaturen bat edo eremu auzizkoren bat, zeintzuen jabeek, lehen kasuan, edo bigarreanean, alde enfrentatuek, interbentzioa adosterako, asti luzea ematen duten okupazio labor bat burutzeko, denbora ere, herri horietan, ez baita harritzekoa erloju geldiek edo kanpai nagiro astunek neur-tzea. Eguerdiko dandekin batera iritsi garenean, ordu txarra iruditu zaigu alkateaz galdetzeko, zeina, langilea bada, auskalo zer lantokitan, edo baserritarra bada, zer menditan ibiliko den, edo zein etxetan bizi daitekeen. Eta auskaloago batez ere, alkate legala bada, zenbat gorroto pilatua izango duen herrian, bere etsai izaten ausartzea zaila izango denez gero. Herriaren izena (beharbada, horrexek erakarri gaitu) zoragarria iruditu zaigu. *Sorabilla*. Handik urte batzuetara, zerbaitegatik iradokiko zion aditz berri bat, hain dotorea, errima baten premia larrian aurkitu zen bertsolari bati. *Zuk gaituzu bildu / edo sorabildu*. Elizalderik txikienean ere, nobe-dade kasuan, norbait bide batez pasatzea beti gertatzeko legearen arabera (herriska batera iritsi eta txakur bat eta katu pare bakarrik irten bazaizkizu errebitzera, pentsa zenezake hanka bat beste munduan duzula bigarrenaren zain), emakume batek estimatu du guk 'eguerdi on' esatea, berak ere adei osoz erantzunik, gure berri jakiteko aukera ikusi izango baitzuen. Ez diogu zehar galderetan nekatzeko lanik eman, nongoak garen eta zer planetan gabiltzan berehala azaldu baizik. Komeni zaigu garden eta zintzo agertzea, abegi ona errazteko.

Sorabilla ez ei da herri, Andoaingo auzo baizik. Alkate hipotetikoari buruzko aieru onak alferrrik egin ditugu, beraz. *Eliza galanta baduzue, ba, hain har-*

landu perfektuki alineatuz egina, ezen harri-bloke bakarrekoa baitirudi. Elizagaz harro daudela igartzen zaio, ez etsiki bezala formulatu duen baiepen neurtuagatik, traba gabe atera zaion atseginezko irribarreagatik baizik. *Apaiza ere badugu, herriari oso estimatua.* Horixe jakitea komeni zitzaidan, estimuarena batez ere, lehenengo suposatzen bainuen, halako eliza baten ondoan. *Hara! Huraxe da neskamea, serora ere egiten duena.* Emakumea eskerrak emanez agurturik, neskameagana jo dut zuzen, hitz adeitsu batzuen ondoren, nagusiagatik galdetuz. Berehala agertu da atarian sotana altu bat, ilearen zuritasunak buru osoari kolore uniformeamaiaona. Gizon adintsua baina tentea da, elegantzia kasik grekoduna. Hizkera suabe eta lasaiko, laster jabetu naiz herriari maitatua izatearen arrazoieiz, halaxe izan dadin neure desio interesatuagatik ez bada, trebea bainaiz lehen irudipen onberetara dudari joeran huts egiten. Neu ere apaiza naizela agerturik, anaia aurkeztu diot. *Sar barrura. Sar etxera, mesedez*—erregutu digu, ate handian albo batera egin eta eskuarekin bide emanez.

— Bizkaitarrak zaretela, beraz.

— *Mutilak Markina aldekoak dira, Lanbide Eskolan dabilzanak. Jatorrak, gaizoak, baina erronka handiegian sartu ginen, euren mugetatik kanpora portaeraren zorrik sentitzen ez dutenekin, Gipuzkoa zeharkatzen menturatu ginenean. Erabakitako egunak bete aurretik itzultzeko arrazoi bila hastea ere ez baita talentu, nonbait kanpatu nahi genuke gau baterako, eta pentsatu dugu honelako herri txiki batean izan litekeela, beharbada, konpromiso gutxioko bazterren bat, hitza emanik, noski, kuxidade osoa zainduko dugula, horiekin hitza ematea betetzea baino samurrago izaten da baina.*

— *Zelai hori, hariztitxoak barne, elizarena da. Iturria ere bada bertan. Gure aldetik ez dago inolako eragozpenik, tokiari ondo baderitsozue.*

— *Ondo bakarrik? Ondoegi!*

'Gure aldetik' horretan, aurrenen (eta desatseginki) bururatu zaidan bigarren apaiz baten existentzia laster baztertu dut, oraingoan atseginki, mahaiari gailetak eta ardo gozoa utzi berri dituen emakumeari begiratu dionean, erretoreak Zilia izenez deitzen diona bera. Lehenengotan, Erroma aurreko izena begitandu zaidana gero Zezilia edo Ziziliaren laburketa dela atera dut. Ohiko behar zukeen Zezi, Zizi edo Xixi ordez, hasiera jatetik gelditutako elegantzia mitologiko hori hain xarmagarri egin zaidalako arrazoiak baliteke bekaitz-puntu edertzaila bat izatea, pentsatu dudanean, zausk, gizon eta emakume adintsu hauek gaztetatik etor daitezkeela 'gu' izaten, nire oraingo biziera bakartiaz bestera. Pentsakizuna izugarri karnal bihurtu zait, abadetza guztia auzo honetantxe ei daroan erretore beneragarri hau Zilia gazte baten konpainian irudikatu dudanean. Ez dut gehiegi saiatu beharrik izan, aurrerantzean, irudikapen horretakoxe emakumeagaz tratatzen ari

naizela lortzeko. Bere ahots garratzen hazia leun eta bero dantzut, bere irribarre jada zimurtua baina etengabea (pintura batean finkatua bailitzan) egunsenti intzi-pienteak inoiz hartzen duen tomu sedatiboan dakusdan bezala. Zail egiten zait neure burua, hemendik berrogei urtera, gizon honen retrospektiban kokatzea, baina ez dut pribatu nahi nire askatasun bakartiak ibilbide txiki desaiagarri bat saihestu duela sentitzearen atseginetik.

— *Mutilak!*—diotset gazteei—. *Mundurik onenean bizi gozak, ze merezi baino jente hobeak aurkitzen joagu edonon. Gaua salbatuta jagok. Hasi dendak zabaltzen, arratsaldea Tolosan pasatzeko.*

— *Txapelak eta babarrun-fama besterik ez den lekuan?*

— *Normalean, herrikoak eurak ez dozak bertako barriaz lar arduratzen. Mirariak urrungo begietan hobeto islatzen dozak. Txapelerrian, txapelpekoak be derrigor izan behar dozak, ze, Tolosatik kanpora, hainbeste txapelentzat ez jagok bururik.*

— *Guri buruak aurkitzerik ez jaku lar komeni.*

— *Norberea lasaiago galtzeko? Esaterako, haritz errenazentistoi eta iturri landartiko horri zer komeni jaken badakizue?*

— *Dendak kukuletan ipintzea, eurok kontrakorik ez badinoe?*

— *Neuk esango deusuet erakoa. Ez kukularik ez geiserrik, hain gitxi labanarik eta mailurik. Horreei komeni jakek... bakea!! Bake-bakean uztea, entzun?? Ala beste pare bana interjekzino eta galdera-marka gehituko joazat?*

— *Pare banagaz konponduko gabela uste dogu.*

— *Halan bedi! Iturrian arrastadarik edo zuhaitzetan urraturik agertzen bada, zeuen narruagaz adabatuko joaguz.*

— *Soloetara sartzea libre?*

— *Norberetzako zuloa egitera bakarrik.*

— *Horrek ez dau interjekzinoarik behar?*

— *Emongo jako zuloa barrutik bardintzeko kapaz denari.*

— *Eta beste zereginak... hilerrian?*

— *Aldean, toki neutral bat negoziatu arte. Bitartean larritzen denak jantzi beste praka pare bat.*

— *Nik pare bakarra ekarri dot.*

— *Sartu hanka biak tutu berean, eta gorde bestea premina ordurako.*

Eguerdi ostean, haraneko goi auzoek mendi barrenagaz muga-lerro egiten duten egutera maldatik abiatu gara Tolosarantz, aurretik bide posibleen informazioa jasorik. Ibilaldiaren berezko ederrari luzearen nekea gehitu zaio azkenean, *non kofio jagok Txapelerriri hori?* galdera geroz arminagoari *laster, laster!* erantzunez, zenbat falta den erreferentzia zehatzik gabe baikatoz. Errepide ingurutik abiatzera, zalantza hori bide-seinaleek argituko ziguketen. Estrategia apur bat



maltzurki planifikatu dugun anaiak eta biok ere nahiko lan izan dugu geure eskarmentua disimulatzen, hain ekitaldi luzea izango zenik ez baikenuen uste, batez ere, *horra, ba, Tolosa!* biok gailen aldarrikatu ondoren, oraindik bertatik beste lau kilometro falta diren Anoeta zela irentsi behar izan dugunean. Iritsi gara noizbait, eta jipoi handiegiak badu, zorionez, nahi genuen helburua era efektiboagoan lortzeko abantaila, itxaroten baitugu itzulera berriz oinez egiteko desadoreak azken autobusa harraraziko digula, elizalde txiki baten isiltasunak eskatzen duen ordu bakezkoan erretiratzeko. Ez dago esan beharrik Tolosan txapelez eta babarrunez beste edozer aurkitu dugula, ganberrismo apur bat lasai egiteko askatasuna barne, batez ere, atseden aitzakian, barra luze eta gu gabe ere nahiko zapalartatsu baten aurreko mahai ilaran eseri eta (*buf! babarrunak oinpean erne jatazela uste joat!*) askal-afari ez luxuzko, bai aski txurruplindutik altxatu ondoren, kalerik luzeen eta estuenak geure himno faboritoagaz burrunbatzen ari garenean, lantzean ate batean zurrutari sendotasun apur bat erantsiz. Gorengo balkoi lerrotik luze-luze ageri zen dortoka-lepo txapeldun bati burua moztu eta neurea itsatsi diot (*barka, lagunzaharra! ordu laurden bakarrik!*), eta askoz garbiago dantzut gure kalejira geroz arrazoitsuagoa.

- *Mutilak! Ez al dozue uste polita litzatekeela 'astapotroena' bakarrik ez dakigula erakustea, Markinatik Tolosara behin etorriko eta?*
- *"Anteron txamarrotia, Singarren bibotia, harexek ei dauko preso tximinoia".*
- *Zer dok 'tximinoia preso edukitzea'?*
- *Katua eroatea. "Bart goizaldean Peruk zeroian katua, ha zekusenak hutsik ez zeukan barrua".*
- *Eta 'katua eroatea'?*
- *Katua da kakotea. Kakotea da pekorotza. Pekorotza da atuna. Atuna da lebatza. Lebatza da anporra. Anporra da atxurra. Atxurra da hordia. Hordia da mozkorra. Mozkorra da...*
- *Horrenbeste egoera jaukazak gure zurrutak?*
- *Beste hainbeste gehi azkenengoa: txahala, moxala, umetokia, antzarra, buzkantza, kirikinoa....*
- *Hik ilunpe totala esan nahi dok.*
- *Loa?*
- *Ilunpe totalean ez jagok lorik, ez amesik.*
- *Ezebez, beraz?*
- *Ezebeza bera.*
- *Hori badok zeozer!*
- *Ezer ez dena zelan izango dok, ba, zeozer?*
- *Orduan, kanta daigun Anteroren bestea. "Anteron txamarrotia, Francoren bibotia, harexek ei dauko preso Euskal Herria".*

- *Adaptazino polita, bibote hori bizi-bizirik ez balego.*
- *"Anteron txamarrotia, Patxiren bibotia..."*
- *Hori hobeto jagok, Patxi asko egon leitekezak eta.*
- *Euskal Herria preso edukitzeoak, asko?*
- *Benoa, orduan... Txo! -iragaile bati-. Tolosan zelan esaten dozue 'cerdo'?*
- *Ni Atallokoa nauk.*
- *Eta ni Amallokoa, notejode! Herri horretan ez al dago animalia klase hori?*
- *Txerriak eta zerriak, aukeran.*
- *Joño! Bigarren horreexek sinpatikoak jirudiek. Hator geugaz kantura. "Anteron txamarrotia, Patxiren bibotia, harexek ei dauko lepo hilerria".*
- *Ez al zaik 'zerria' gustatu?*
- *'Euskal zerria' ez dok martxan ahoskatzeko ona.*
- *Intentzinoa igarriko leuskiguek.*
- *Orduan, kanta daigun "preso ilargia", rusoen omenez. Viva La Ru...!*
- *Et, et, et! Hori ez eik amaitu, hemengo "gora Eus..." baino larriagoa dok eta.*
- *Viva La Ru... Viva Larrutan blai! Tolosako txapelak eta Haroko gonak!*

Erreperitorioan ez zitekeen falta garai hartan harriek ere kantatzen zuten Labegerie-ren *Gu gara Euskadiko*, badaezpada, hitz madarikatua ordeztuz kantatzen genuena: *"Gu gara Markinako gazteri berria, Markina bakarra da gure aberria"*. Ordeztean, efektua handitu besterik ez zen egiten, mundu guztiak atzematen baitzuen zeharbide pikareskoaren espiritua. Labegerieren beste batzuek (*Bakearen urzoa, Din-dan boleran...*), Ez dok Amairu-ren kanta jada popularrez (*Gazte gera gazte, Euskal Herri maitea, Ez, ez dut nahi...*), eta tankera horretako zerrenda amaigabez, betiko *Zezenak dira, Boga-boga* eta halako klasiko neutroak tarteko, eztarri berealdiko asaskua eman genien, *"bakez eta jator"*, geroago txepelki esango zen bezala; *"alu eta erronkoso"*, orduan gehienek atseginez eta batzuek amorruz ulertzen zuten moduan. Tolosako kaleei zegokienez, ez dakit guk haiek ala eurek gu berotzen gintuzten, denok baikinen sugar orokor beratsuenen barneko. Dortoka-lepoari bere burua itzuli eta kalean naiz berriro, Sugelin berehala konturatu den moduan:

- *Berbetan be badakigula erakustea ez al litzateke polita, "Markinatik Tolosara behin etorriko eta"?*
- *Sugelin, Sugelin! Hori nigaitik esan badok, orain ez nok kapilaua, komandantea baino, ezer salatu nahi badok.*
- *Nik salatzen dot tolosarrak lorito bekaiztiak direla. Gu kantuan hasi, eta eurek be ekin!*
- *Hori arrakasta dela esango neukek.*
- *Ez deuskue luzitzen uzten!*

- *Hori harrokeria dok.*
- *Bizkaitarrak ez al gara?*
- *Nik salatzen dot –Troskillo deitzen diogunak– geu be ez garella txori garbiegiak, kantak honenbestean deformatzeko.*
- *Bardin ulerturik, biziago sentiarazten bada, gora gu eta gure uzkiak!*
- *Zuk esan gura dozu, bardin exhibiturik, narrua hobeto gordetzen bada, gora zu, Jauna, eta gure potroak!*
- *Nik esan gura joat narru bakarria erronkan jokatzea, balentria barik, pitokeria dela, parka hitza, Jaunak esana. Halan be, narrua heurea dela erakutsi gura badok, egik kale bat kantatzen "Francoren bibote antzua, Karmenen bilo publikoa".*
- *Narru konturako, ez al litzateke garbiagoa "¡Viva Franco! ¡Arriba España!"?*
- *Aukera efektiboa horixe, ez lar imaginatiboa baina.*
- *Hemen, orduan, diktadura bi dagoz?*
- *Ez hainbeste. Diktaduran, sutean legez, bakarria nahikoa dok, ez bardin en efektu guztiak eragiteko. Sentitzen joat, baina azkenengo autobusa hamar minutu barru dok, oinez itzuli nahi ez badozue.*

.....

Bueltan Sorabillara heldu garenean, eguna ez argi ez iluneko une hibridoan dago, nahi duenak malenkoniarrantz, nahi duenak engainurantz, nahi duenak ausentziarrantz tira diezaion. Elizalde txiki, kasik infantearen isiltasuna gehiegi ez hausteko arrakastan bainoago ahaleginean dihardugula, elizpeko ilunpeari (honek ilun totala dirudi) itzal puska bat eskapatu zaio, zelai argiagorearen definizioan Zilia bihurtu dena. Agerpenaren forma mamuagatik baino gehiago, ezuste okerren baten ardura etengabeagatik jo nauen aztorapen txikia laster irauli du emakumearen irri-barre hurbiltunak.

- *Iluntze on, Zilia. Hemen gara berriz ere.*
- *Gustatu al zaizue Tolosa?*
- *Guri bai –diot, anaia ere seinalatuz–. Horiek ez dakit konturatzeko astirik hartu duten.*
- *Don Benantziok dio igotzeko etxera, mesedez.*
- *Berandutxo ez al da izango?*
- *Biok etortzeko esan du.*
- *Eskerrik asko. Esan berehalaxe goazela, mutikook apur bat ordenan jarrita.*

Eskertzekoa da inpertinenteak izan gabe gauzak jakin ahal izatea, lehen neskearen izenaz apaizagandik bezala, orain apaizarenaz neskeagandik ja-

betu baikara. Berbaro gangar eta denden konkorrerengatik ez balitz, mutilak arrats gorrian ezabatu direla pentsatu beharko genuke. Muturra dendetan sartu dugunean, basurde adoleszenteak zuloan bezala hauteman ditugu, gunea ordenatzen ala astintzen diharduten ez igartzeko moduan. Ez nago ziur basurdeak zuloan gordezale diren, baina, balira, ziur honelaxe moldatuko liratekeela, azken batez, mutiloi ere inor ez baita saiatu zuloan ibiltzen irakasten, aurreikuspen hori funsgabea baillizan. Badirudi ordenatzeko intentzioan ari direla, euren erara, eta laster etorriko garella esanda utzi ditugu, ohartarazirik, badaezpada, ez saiatzeko denbora luzean erosoago eta kuriosoago egingo lituzketen okerreriak disparte bihurtzen, denbora laburrean sartu nahi izatearren. Promesak, beti bezala, baikorrak eta zintzoak dira, esperientziak dudatzen irakatsi ez baligu. Jainkoak Adan eta Eba paradisutik egotzi izango zituen alderantziz hartu gaitu Don Benantziok bere etxeko atean, eternitate guztia geure zain egin bailuen. Eternitatea, soilik, zeren, kontzeptu horretan, 'guztia' ez dena zer izan daiteke? Nolako arratsaldea, bidaia, parajeak, Tolosa eta gainerako xehetasun oinarritzkoak aipatu ondoren, gutxien itxaron izango genukeena iritsi da, 'eurekin afaltzera' gonbidatu gaituenean. Eskerrik asko eta bestelako, Tolosan askal-afaldu dugula eta abar, alferrik ari garella uste dut gonbita saihesten.

- *Afaria prestatua duk. Mahaian zagok!*
- *Berez goiz-afari zale izan arren, gaur Don Benantziok atzeratu egin nahi izan du –berresten du Zilia–, zuekin afaltzearren. Neuk ere, egia esan, horixe egin dut.*
- *Zer esan ez dakigula uzten gaituzue, afari-legea eginda baikatoz Tolosatik.*
- *Horrelako gazte-martxetan nolako sukaldea ibiliko den kalkulatzeko diagu. Tolosakoak ere legetik gehiago izango zian afaritik baino.*
- *Mutilei zer esan behar diegu? Etsenplu ederra, eurak untxiak bezala dendetan utzi eta gu mahai oparora! Barka 'oparo' horren atrebentzia, baina geuk ere kalkulatzeko dugu horrela gonbidatzeko prestatua izan den afaria ez dela 'lege' soila izango.*
- *Asmatuko duzue zerbait, mutilek ulertzeko modukoa. Horrelako ibilaldi bat eurekin antolatzeko, hezita daukazuela suposatu behar diagu.*
- *Don Benantziok dio lo ere bertan egingo duzuela. Oheak prestatuak dauzkat.*
- *Baina Don Benantziok maite eta Zilia lastangarri! Zuen borondateaz ez hunkitze-ko bezain bihozgabeak ez gara, baina hau guztia gehiegizko iruditzen zaigu. Arriskugarri ere bai mutilak bakarrik uztea. Gau osoan nork jakin zer astakeria burura dakiekeen ibilaldi guztia "astapotroak gara gu" kantatzen daramatenei?*
- *Lo egingo diate ederki, sasoiak eta nekeak lagundurik.*
- *Eurak zoru gogorrean eta gu ohe garbira, ez dakigu zer grazia modu egingo liekeen.*
- *Horiek desiatzen daukazue zaintzaile gabe gelditzeko –Zilia.*

– *Elizalde koxkorrotan ez zagok okerrik zeri eginik, eta baserriak txakur galantek zainduta zaudek.*

– *Emagizue tartetxo bat eurekin hitz egiteko. Berehala gaituzue bueltan, dena delako erabakiagaz.*

– *Baiezkoa itxaroten diagu. Mutilei esan eurentzat ere izango dela saria bihar goizean.*

– *Konturatu al zara –diost anaiak bidean– abade horrek ez dauela inoiz lehen pertsonan berba egiten, beti 'gu', 'gure', 'diagu' baino?*

– *Konturatu naz, bai, neu be bardintsu egiten hasita bainago neure abadetxe-sukaldeko erloju beti-presenteagaz.*

Anaiak bera dendetan gelditzea proposatu dit, baina ez diot onartu. Haiek 'gu' badira, geuk ere 'gu' bezala jokatu behar dugu, erdizka baizik ez badiegu gusturik egin nahi. Gazteak konbentzitzea errazago izan da eurekin fidatzea baino, ondo portatzeko arrazoiak erreskadan etorri arren. Komeni zaigula abadearen borondatea eskertzea, baita onartzea ere, berak eskuratu baitigu kanpaleku aparta, inolako aitzakia barik. Eman diguten konfiantza araberako neurrian itzultzen badugu, falta diren egun guztietarako lekua irabaz dezakegula, interesatuko baltzaigu. Markinaren izen noblea gailen uzteko, Peru Abarkaren gizatasuna berdintzen saiatu behar dugula, gutxienez. Eurentzako saria ere agindua dela biharamun goizerako, gosari gozoa, seguruenik. Garbi esanda, *aita egitean jango dituzuela arrautzak hirunaka!* Argudioa erabatekoa izan dela dirudi, denak "hori! hori!" oihuka saltatu baitira.

*Eta Koxki?*, diost anaiak dendatik kanpora. Taldeko gazteenak, oraindik hamabost urte gaintzeko dituenak, 'Koxki' du... ezingo dugu 'ezizena' esan, haren izenik inork ez baitaki, bera barne. Klasean, ezizena izango zuela pentsaturik, horrela deitzen ausartu ez nintzen batez, benetako izena nola zuen galdetu nionean, estura publiko handian aurkitu zela igarri nion, ez zela gogoratzen erantzutera beharturik. *Heure izenik gogoratu ez?* Gero bakarrean, azterketak nola sinatzen zituen, eta "*Koxki Ibaibarriaga*", erantzun zuenean, ez nion sinetsi. *Notak noren izenean hartzen dozak?* Berak sobrea 'osorik' entregatzen zuela etxean, eta gehiago ez zela ezertaz arduratzen. *Hurrengo urteko matrikulan zer ipini dok?* – *Hori aspaldiegiko kontua da, orain gogoratzeko.* Koxkirentzat, hamabost egun aspaldi izan zitekeen, eta hilabete, 'aspaldiegi'. Mutiko horri egunez igarri ere ez diogu egiten badabilenik, ez, ez dabilelako, baizik, zenbat eta gugandik bereizago, lagun hainbat berdinago (agian gailenago) iruditzen bide zaiolako. Ilunkeran oster, bueltan-bueltan, berak ere igarri gabe, hots, inork igarria ez izateko antze instintiboan, hutsik gabe inguratuko da zaintzaileongana, oilo urruna zalanzkor baina fatalki kotaratzen den moduan; alegia, helbide guztiz jakinera noraezean kamufaturik iristeko moduan. Gero, gau betean, linterna bakoitza bere denda era-

tzaten hasten denean, ni oraindik superbisio orokorrean nabilen artean, Koxki nire zakuaren ondoan etzango da, kasualki bezala. Ni etzandakoan, bera, argia itzali ondoko ilunpeagaz batera, bira-erdian nire kontrara uzkurtuko da, totxoa imanera bezala. *Ardia topatu dok, Koxki?* entzungo da, ilunak amplifikaturik, lantzean ahots batean. Koxkik ez dio inori erantzungo, lo baitago, mugitzeko beldur izan nadin bezain gozo, ukitzen ausar nadin baino laztangarriago, Platonen ideien sorgunean. Jaikieran, argia haren gorputzaz osoki jabetzera kostata iristen deneko, berriro aldenduko da, haizetxoak emaniko kea ilintiarri eskapatzen zaion moduan, eta egun guztian apenas ikusiko dugun. Argi-ilunen kontratasun horrek badu haren garunean korrespondentzia unbilikalena bat, oraindik desatxiki gabea.

– *Ondo begitantzen jak, Koxki, guk abadetxean lo egitea?*

– *Zeure zakuan sartuko naz.*

– *Egosi egingo haz!*

– *Neurea koltxa moduan hedatuko dot.*

– *Horrela izatekotan, kasik irabazten urtengo dok.*

– *Nik bai!!* – Esklamazioaren indarrak apur bat errezelotu egin nau.

Don Benantziogaz mahaian eseri garenean, laster ohartu gara arestian aipatu 'mahai oparoaren' presuntzioa ez zela funsgabea. Antxoa latakook, olibak, esparragoak maionesa hori-gorrika distiratsuz, lukainka zati erreak, eta urdaiazpi gorri-iluna, lodiera errukigabez xerratua. Ardoa ere, "*Errioxako erreserbarik onena*", esan digu, herrian ezkondu zen azken bikoteak oparitua, biak Sorabillakoak. Gero, legatz frijitua datorke, ondoren oilaskoa, "*benetakoa*", eta postretzat, "*gure Ziliak bereziki eginiko flana*". Eta auskalo zenbat gozoki. Kafeetarako, hitzak deitu gabe etortzeko moduan gaude. Ohartzin gara Don Benantzio hiltun ugaria, elegantea, jasoa dela. Jakin-mina ere handia nabari zaio, nontzeberri bainoago berrien jakin zale. Ez naiz ausartzen, honen enkontru gizakor eta eskergarrian, eta bizi dugun hamarkada konbultsoaren barruan, bere pentsaera politikoa eta, batez ere, jarrera eklesiastikoa haztatzen, sor litekeen distantziaren, beharbada aurkatasunaren, beldurrez. Badut, oster, kezka ere ez ote zaion bururatu, apaizkidetasun sentimendutik harago, etxea eta mahaia honen eskuzabal ireki dizkienok nor garen, tamalgarría baillizateke, gerora, ez agian damutu, baina bai kezkatu beharra, Bizkaiko *Gogor* apaiz-mugimendu errebeldearen eragileetako bat ostatatu zuelako. Neure ahaleginik ezagatik, atzean inolako dezepziorik uzteko gogorik ez dudanez gero, neure izatea garbi adieraztea erabaki dut, lo egiten gelditzeko berriro jarriko dizkiodan erreparaok onartu nahi balitu ere.

– *Bilboko gotzain koxkorrak ez ahal du jakingo noren lagun egin zaren!*

– *Hark ez dik nire gain aginterik.*

- Jakingo duzu Bizkaiko apaiz mordo bat lizentziak kenduta daudela, ezta?, predikatzea debekaturik eta abar.
- Zerbait entzuna diat.
- Neu ere tarteko naiz.
- Ez duk horren sataniko ematen. Konponbideren bat aurkitu beharko duzue.
- Zaila, gu lehen baino indartsuago eta fedetsuago predikatzeraz baikaude. - Fedearena badaezpada jaulki dut, esanahi batzuetan ez baita gezurra ere.
- Hori desobedientzia ageria izan zitekek.
- Da! Badugu gotzain frankista antieuskaldun batenganako baino aurreragoko obediendtzarik.
- Erromak beraganako desobedientziatzat hartuko dik.
- Ebangelioa Erromaren aurrekoa da.
- Ebangelioaren interpretea Erroma duk, ordea.
- Geuk ere badakigu ebangelioa irakurtzen, zaila ere ez da eta. Kristauek erreazioari begiraturik, hobeto irakurtzen dugula dirudi.
- Eskumikatzen bazaituzte?
- Hori euren problema da, ez gurea.

Don Benantzio isilik geratu da. Gu ere isilik gaude. Mahaira bildua zen Zilia jantokitik sukaldera aldendu da, emakume baten etxe barruko mugimendua noiznahi justifika dezakeen zerbaiteara. Handiko hots solteak eta gaileten kirrizkada gure ahoan, besterik ez da entzuten. Don Benantzioren isiltasun serioari ez zaito igartzen tentsio-uneak ala pentsakortasunak eragina den. Beharbada, zintotasun ofizialekoa da, mentasun 'itsua' deritzonakoa. Beharbada, bere pozkari instintiboaren argudio bila dihardu. Nobelagileek, honelakoetan, obligazio artistikotzat tartekatzen dituzten digresio distraktiboetara jo nezakeen arren (*koñiak honak edakera norduna dauka; apaizetxe txukuna daukazu; puruaren keak ez al diru logurarik ematen?*), nahiago dut isiltasunari berari utzi irtenbidea aurki dezan. Isiltasuna setatzen ari da. Nik betegarri baliosa aurkitu dut, sukaldetik datozen hotsetatik, Zilia zertan ari den kalkulaten. Anaiak ez dirudi egoeran inkluditua, aulkidun igo den txakurra bailitzan. Gehienez ere, mahai gaineko objektuak obserbatzen ditu, lantzean bat haztatuz, inolako grina gabe, horretan txakurraz oso bestera, zeinak, gu bezain aserik egon arren, ezingo lukeen ekidin zerbait mihizkatzerik gure txienez usnatzerik. Edo, beste gabe, hizketan hasterik, mahaiko isiltasunak txakurra desesperatzen baitu. Noizbait, Don Benantziok, enigma luzeki hartan saiatu, bat askatzea lortu balu bezala, gorputz-adar guztien konbinazio magistralko harridura keinua dagi, esklamatu:

- Nolako erreboluzioak ikustera iritsi garen!
- Zintotasun obediente hain seguru ibili ondoren.

- Iluntasunaren segurantz ere izan zitekean pixka bat.
- Ikusten ez dena nekezago baita bekaizgarri.
- Zerbait ikusi nahi, ordea. Ezer ez ikusteko etsipenetik horizonte bat begiztatzea, madarikatua bada ere, bizigarri izan zitekek.
- Suposamen teoriko gisan ondoriotu duzun "bizigarri" hori zerbait pertsonalagoztat uler al nezake?
- Sentimenduei dagokien suposamenik zaila duk zerbait sentitu gabe enuntziatzea.
- Ez ote nenbilke hain oker, beraz, sentimendu garrantzitsu batzuetan kide garela aterako banu?
- Ni ez nauk Santa Kruz apaiza, baina zuen gotzainaren kastakoa ere ez.
- Gure gotzainagaz, motibo kolektiboez gainera, badut auzi partikularrago bat, Zeruko Argia-n idatzi berri dudan artikulu bategatik, non aldarrikatzen den ezen euren herrietan meza euskaraz entzuteko aukerarik eskaintzen ez zaien kristauek ez dutela beste hizkuntza batean entzuteko obligaziorik. Pentsatzekoa zenez, hierarkietan irritazio larria sortu da.
- Horretaz ere entzun diat zerbait.
- Elizgizon jatorren artean ere ulertzekoa da, bat-batean, eskandalu handi samarra zabaldu izana.
- Luzaroegi geldi egon den erloju zaharra berrabiitzean, ez duk harritzekoa penjuluak urrunegi eskapatzea.
- Aipatu sentimendu garrantzitsuen kidetasunak ez du esan nahi tesi guztietan bat etorri behar dugunik.
- Gure izatea bukatzeaz duk. Zeuek ikusi behar duzue munduari norantz eragin, ahal balitz, geuk zerbait ikusteko moduan. Bitartean, mahaikidetasunak ere balioko dik zerbait, eztuk? Zilia! Ekar niri beste kafetxo bat, eta hauei eurek nahi dutena.

.....

Ez bidali gintuztelako, kokalekua aldatzearen baizik, baita gehiegi abusatze beldurrez ere, azken gaua ahalik basatasun gorenean egin guran, Andoaindik. Tolosara bitarteko arroa bati haitzerantz heldu genion, hego mendilerroaren barrenean. Ezker-eskuin, baserri nagiak eta biztanle zoliak utzirik, gorantz azkena zirendien etxalde bakartian, oraindik urrun samar ageri zen haitzaren berri galdeztatzea. Pentsatu genuen, premiaz baino gehiago, zaila zelako arroaren estune hura zeharkatzea, etxe ondotik zer zalaparta zihonan kargu hartzera irtengo zen norbaitegaz hitz egin gabe. *Non aurki genezake kanpaleku egoki bat hemen, ahalik gozen?* Etxeko nagusia zela dudarik ez zegoen gizon batek aurpegikera muzintia jarri zueh, *hmm! hmm!*, ilunabarra gainean zela, paraje arriskutsuegierantz bagindoaz bezala. *Hor goialde ezkerrean ageri den gaztainadi hori?* Errekazulo sastrakatsua,

bide zahar itxiak, zabalune sasiz janak eta hainbeste disuadigarri aipatu ondoren nongoak ginen-eta galdezka hasi zenean, laster antzeman genion ez zela askorik fidatzen halako koadrila bati etxe ondoan gora joaten uzteaz. Markinatik astelehenean zer asmoz irten eta zer ibilbide genekarren azaldurik, apaiza nintzela ere agertu nion, mesfidantza arintzeko ala larritzeko izango ote zen argi ez neukalako. Apaiz errebeldeen hotsak haraino ere iritsiak izan zitezkeen, eta, behar bada, berak ere izan zitezkeen pentsatzen zutenetakoa: *Apaiz nahasle horiexek bukatu behar diate mundu alu honi total izorrazteko falta zitzaiona*. Bat-batean, dio:

– *Haitza urrun dago, eta den ordu honetatik gora, inguru askorik probatzen zail du zue. Adimenak erabat huts egiten ez badit, zuen kontu nagusia etzalekua da.* –Buru xumeki okertuan, ezpain-ertzei alboetarantz eta bekokiari gorantz tiratuz, baiezko apal bat keinukatu dut–. *Gau bat izatekotan, mandioa utziko dizuegu, nahi baduzue, sarale bigunaren gainean.*

– *Honek itxura errukarria hartu jeuskuk* –pentsatuz, esan dut: –*Mesede handiegia ez al litzateke hori?*

– *Mesedeak, kostagabeak direnean, denak dira tamaina berdinekoak.* –Apaiz kontua entzun duenetik, hika egiten ez dela ausartzen ohartu naiz.

– *Zer egingo joagu, mutilak? Baietz?* –galdetu dut, inozente plantan, inoren erantzunik itxarroteke–. *Baietz, orduan! Esaera den moduan, Jainkoak ordainduko ahal dizu.*

– *Mesede ordainduak ez dauka graziarik, Jainkoagandik badator ere.*

Susmo bihurriak egitetik, pentsa nora aldatu garen. Mundua onegia ez bada, gure zorteak ez dauka azkenik. Etxea benetan pendizean eta estugunean egonik, estartaz beste aldeko muna gainean zelaigune bat erakutsi digu gizonak, non, gereziando erraldoi baten azpian, harrizko mahai biribil bat ageri den, erro-tarria izanaren itxurakoa, zeinaren inguruan tokia proposatu digun, afaltzeko-edo premiarik bagenu. Berriz ere hainbeste komenentziagatik eskerrak emanik, eta mandioan sarale biguna zabaldu eta azeririk argienek nekez imagina lezaketen luxuzko lotegia, belar sanoki lehortuaren usain exzitanteak kasik aineratua, prest utzi ondoren, hor ari gara geure afari iski baino zerbait gehiagoan, hornigai guztia amaitu guran. Bihar etxeranzkoan, astearen despedidako bazkaria tabernan ez egiteko arrazoirik ez dugu utzi nahi. Eguzkia, gorritasun bigunez, aurreko horizontetik altuaren ezker muturrean ezkutatzeaz dela, ilunabar freskatzen hasiak eskaintzen digun Tolosaldeko Donostiarainoko haranaren ikuspegi magistrala etxeoandreaken agerpenak interferitu du, pitxar handi bat eskuan duela, *zuek sagardo pixka bat ere edango duzue* esanez etorri denean. Igartzen da emakumearen janzkera etxeko soila baino saiatuagoa dela, eta orrazia ere ibil berri dela bere adats laukizuzen tentearen formakoan. *Ez dakigu nola eskertu* edo horrelako zerbait esan

izango nionari aurrea harturik, ez nau gutxiago zauskatu, bakarka bezala gaineratu didanean: *Mutiko zoragarriok ondo eratzan ondoren, zuek biok etorri sukaldera, kafetxo bat hartzera. Senarrak ere etor zaitezten nahi du*. Emakumea joan denean, ez dut lanik izan 'mutikoei' plana azaltzen, batzuk, inguruko xehetasun orotara beti zoli, eurak hasi baitira atzeman berri duten gonbita parodiatzen:

– *Kafetxo bat hartzera, hi! Afari elegantera bai!*

– *Peru Abarka taldea lotara, eta eurok maulara. Hau dok Maisu Juan pare!*

– *'Mutiko zoragarriok' kontura, hamaika tratu gozo hartzen bajihaudek asteen!*

– *Doazela! "Que se vayan, se vayan, se vayan"* –hasten dira kantuan.

– *Ondo jagok. Joango gozak, baina gauza bat egingo joagu* –proposatzen dut amaieran–. *Markinara heldu gaitenez, kuarteletik pasatuko gozak, eta neuk lagun-duko deusuet salaketa arrakastatsu bat aurkezten, beste gautxo baterako ostatu truke bertan.*

– *Ez deritot!* –oihu egin du Sugelinek–. *Gu goazenerako, "que se vayan, se vayan, se vayan", hareek aldeta dagoz handik.*

– *Akabo gure izatea, orduan! Kontrariorik ez badago, zertatik duindu behar joagu?*

Jada gautua du. Mandioko bonbila bakardadean horituari linternekin lagunduz, gehienak etzanda, batzuk ezinean, lotegia itxura definitibo hartzeaz dela, etxearen aldeko atea braust ireki eta maldizio beldurgarri bat oldartu zaigu, ugazabaren ahots trumoituan.

– *Kabendios! Zertan ari zarete? Zutik denok!*

– *Okerren bat egin al dugu?* –galdetzen dut ikaraz, apalkuntzaz, durdiduraz.

– *Etxea sutu nahi al duzue? Zerena duk teilatutik ageri den ke hori?*

– *Ez zendueen, ba...* –diotset, lur jota, mutil jada denak tenteei, esaldia nola amaitu ez dakidala.

– *Kanbendios! Kanpora denok derrepente!*

Ugazaba rotabatore erotua bezala gelditu da mandio guztia saratzen eta jotzen, Troia irauli nahian bezala. *Jakin al daiteke zer egin dogun?* galdetzen diet mutilei ahalik haserrean, jada denok estarta estuan, ez dakit luzean, goitik zein behetik ilunak oprimitzen baikaitu. *Eh?* Inork ez darantzu ezer. Aurreko sentipen zanpagarriez gainera, zeren barkamena eskatu ez jakitearen desesperazioak narabil, harik eta estartaren hormazulo batean ipurtargia bezalako txingartxo bat hauteman dudan arte, zigarro mutxikin jaurtia dela berehala igarri dudana. Ohartu naizela disimulatuz, baina okerraren ezagutzak indarberritu didan autoritatez, euren larritasunaz kasik errukitzeaz naizen errudun posibleenganako lepo-mozte gogoia agiraka kolektiboaren suminean ahitu nahi dut, salbamen pertsonalek talde-

izua handitzeko efektua eragin dezaten.

- *Baten bati zigarroa erretzea otu jakok? Eh?*
- *Biri be bai* -deklaritzen du ahosio indetifikaezin batek.
- *Biri? Urte biko umeak zarie ala? Bueltan Markinako kuarteletik pasatzea beretan gerta daiten nahi al dozue?*
- *Nongo piztiak zarete zuek* -oihuka irten da ugazaba-, *mandio batean zigarroak pizten hasteko?*
- *Barka, jauna, ez da erraz barkatzekoa baina* -atera zait itoki, damu-salmoen tonu petoa, inoiz efektiboa itzatekotan, oraintxe dela uea pentsatuz-. *Benetan ere abailduta gaude. Gaztetasuna nahi gabe ere eroa baita. Jaso zakuok eta goazen beherantz!* -agintzen diet mutilei, Ponpeiok soldadu derrotatuei bezain zakar.
- *Beherantz nora, ordu honetan?* -jaukitzen du gizonak lehen baino haserreago.
- *Aurkituko dugu zubiperen bat. Ez dugu zuen borondate onegirik merezi.*
- *Segi denok mandiora!* -agintzen du, zirkuko lehoiei bezala-. *Iragan sustoaz gainera, kristauak etxetik ilunpera txakurrak bezala jaurti genituelako laidoa bazterretan zabaltzea besterik ez genuke behar.*

Mutilak, atalasea bainoago ate gabeko hutsune irregularra dirudienetik barrura, labezomorroak erratzaren aurretik bezala doaz, eskailera prehistorikoko batetik belar solairura igotzeko, euren burumakurrean, ikaratik deskonjonoan zoko bihurtzuna ilunari esker gordetzea lortuz, neuk uste. Pare bat linterna mangelan eta mandioko bonbila inpotentearen argitasun ridikuluan ezin ditut aurpegikerak bereizi, baina adin horretako analogia ugarietatik ateratzen dut, une honetan, bakartasun inpunearen kontzientziara iritsi gabe ere, euren ikaraldia, zenbat eta handiagoa izan den, hainbat karkara ozenagoan lehertzeaz dela. Nire beldur nagusia horixe gertatzea denez gero, etxejauna lehenbailehen agurtzen saiatuko naiz.

- *Jarraitu egin beharko diegu. Berriz ere, nola eskertu ez dakigula, izan dezazue gau on bat.*
- *Ez al dugu esan kafe bat hartzera etorriko zinetela?*
- *Astapetro horiek bakarrik utzita?*
- *Ez dira bigarrenez deskuidatuko, instrukzioak ondo emanda uzten badituzue!* *Emile nahi badute, irten daitezela kanpora.*
- *Ez! Horiek, orain, lo egin behar dute.*
- *Etxekoandreak mahaia gertu dauka.*
- *Eskerrik asko. Esan oraintxe gatzozela.*
- *Mutilak!* -oihu dagiet 'mandiano' jada etzane-. *Fida geintekoz zuekin, gonbidatzen estimatuzera joateko?*
- *Itxura horregaz, ez dakit!* -entzun dut ahots bat ilunaren azpitik.

- *Zegaz joatea nahi dok, ba?*
- *Txinbo-xaboi pasatuaren mosua daukazu.*
- *Ilunpean be ikusten dok?*
- *Ez dago ikusi beharrik. Zeuk be igarriko deutzazu.*
- *Fida geintekoz zuekin ala ez?*

Bagenekien baiezko unanimea izango zena, gizalege kontuengatik baino gehiago, bakarrik gelditzeko desiatzen zeudelako. Zerbait gerta baledi, bakoitzak bere etxeagaz erantzun beharko duela eta horrelako mehatxuak bonbillatik zintzilik utzirik, estarta ilunetik bueltan, atea zabalik aurkitu dugu, baina katean pendulatzan den txakur insobornableak ez dauka pasatzen uzteko asmorik, nahiz eta ezin duen ekidin bere zaunken tonuak etxekoei norbaiten presentzia hurbila adieraz diezaien. Txakurrari idunekotik eutsi eta *aurrera! aurrera!* hots eginez, etxekoandreak berak pasarazi gaitu sukaldera, non, hainbeste iluntasunen ondoren, argitasun mota askok desbistatzen gaituen, sukalde handiaren zurtasun pixka bat horitutik aparte. Hartaz arduratuen gentozen etxejaunaren aurpegiak irribartsu eta hitzun dirudi, ezer gertatu ez balitz bezala. Mahaia kristalezko eta portzelanazko tresneriaz dizdizka dago, paper koloretsuz bildutako gaileten (suposatzen dit) ontziak tartean. Etxekoandreak, aurre guztia hartzen dion mantal beilegi, lore berdedun eta gerritik beherako zehar-banda gorridunez, mahai gainean ketan utzi du kafeontzi exotiko handi bat, etxe honetan jende mardula behin baino maizago zerbitzatua izan den seinale. Eta, batez ere, hau ustekabea!, harraska eta txaparen kontra tente, hamalautik hogeita pare bat urtera bitarteko bost neska aurkitu ditugu ilaran, aurpegiak ezkutatzeko txaldankeria gabe, ikusmin tolesgabek eta guretzat estimagarrien, ikusiak izaten uzteko frankotasun osoz. Bistan da Orixeren *Euskaldunak* poemako irudiak, zenbaitek idilikoeigizat gutxietsiak, ez zirela hutsa-ri-ostuak izan.

- *Pixka bat lotsatuta gaude (pixka bat baino gehiago ere bai! -zuzentzen dit anaiak), baina, gertatuari aurrea hartzerik ez dagoenez gero, egun hau eta zuen borondatea ez ditugula behingoan ahaztuko esanez utzi beharko dugu.*
- *Ez da ezer gertatu, eta ez izan horren kezkarik* -esanez lasaitu nahi gaitu etxejaunak-. *Mundu honetan, gerta zitekeen guztiari bueltaka hasiko bagina, etxe bakoitzak urkamendi bana beharko luke.*
- *Gazteekin beti dago zerbaiten arriskua.*
- *Geuri esan! Etxean bertan ere baduzu ilara galanta.*
- *Neskena beste kontu bat da. Izan daitezke bihurriak, baina astakeriarik, nekez. Sehide guztiak neskak zarete, ala nebaren bat falta da hemen?*
- *Horixe falta dena!* -hots egiten du ahizparik zaharrenak-. *Galde, bestela, gure ahari.*

– *Mutiko bat hartu izango genukeen* –dio etxeoandreak–, *baina Jainkoak ez zigun horretan lagundu.*

– *Edo geuk ez genituen lanak ondo egin* –jaurtitzen du gizonak.

– *Oso ondo egin zenituzten!* –zuzentzen du hirugarren ahizpa dirudienak–. *Lehenengoa edo bigarrena mutila etorri balitz, Jainkoak apenas lagunduko zukeen bostok munduratzten.*

– *Sentitzen dugu, nebatxo posible* –esklamatzten du laugarrenak zerurantz, otoitz tonu burlosoan–, *baina zure inexistenziak existiarazi gaitu.*

– *Neskena 'beste kontu bat' diozu?* –etxeoandreak–. *Hezi itzazu hauek!*

– *Horiek daukaten grazia eskertuko zukeen Bilintxen melankoliak.*

– *Baina berori, badaezpada...*

– *Et!* –moztu diot–. *Horixe ez gero! Bestela, etxea benetan erreko dizuegu.*

– *Beno, zail egiten zaigu, baina derrigorra bada!* *Esatera nindoan zu zeu, badaezpada, mutilekin zabiltzala.*

– *Ai, emakume! Zuka egitea zuri bezain zail egiten zaien amek nola hartuko zuketela uste duzu euren alabekin plan honetan Gipuzkoan zehar galtzea, mandioz mandio? Saiatu ginen txango mistoa antolatzen, baina neskak eurak atzeratu zirenean, Alde batera, gu pozik, soka horiek oraindik ez baitaude hautsi gabe tiratzeko moduan. Jainkoak ez du beti hain oker laguntzen, bai baitzekien neskak etxe honetan aurkituko genituela.*

Mundu arriskutsu honek eman dezakeen bilkurarik atseginenetakoa, aiteondo diskoidalak haitzaren ebakidurak bezala, bueltako gomuta mingarri asko estali zituena, gau huraxe izan zela ezingo nioke era sinesgarrian aitortu sentiera berdintsua geratu zitzaion anaiari baizik, zeren zer balio du gertaera baten erraiak ahalik bizien eta hunkituen azaltzeak, solaskidea bitarte baten zain badago, "bauri politagoa gertatu zitzaigun" kontatzen hasteko? Denboragaz, pasarte dohatsu batek, bere inguru hurbila ez ezik, hedapen handiak garbitzen, maitagarritzen dituen halako eran non, handik urteetara, Tolosatik Andoainera zeharkatze bakoitzean, baxerri hura egon zitekeen mendialderantz begiratzeak, kokapen zehatzaren ahanzturak dimentsio zabalagoa zemaionak, haran guztia sentiarazten zidan laztangarritik. Sentipen hori ez zen puskatuko, gero mundu arraio honi zegozkion alukeria guztiak bertan aurkitu arren. Sukalde hartan inork ez baitzuen presarik ageri, tarteka sartzen zitzaigun kezka (bidaltzen ausartzen ez ote ziren) berehala ezabatzen zuten hurrengo galderak Bizkaiko kostaldeko herriei buruz, familia osoa baitzen, etxetik edo eskolatik, egunpasaren bat egin ondarron eta Lekeition zehar. Gurasoak Markinan ere, alabarik zaharren biek, partidu gogoangarriak ikusiak ei zirenean, zesta-puntaren garai mitiko hartan. Noizbait, esatea erabaki nuen:

– *Beno, gu oso gustura gaude, baina zuentzat bihar laneguna izango da, eta hobe*

*izango dugu berez ere laburra den gau honi gehiago ez kentzea.*

– *Gu etxean gaude!* –hots egin du airok laugarren ahizpak.

– *Zeuek ere bai* –bermatzen du etxejaunak–. *Nekatzen garenean, esango dizuegu.*

– *Beste samaldatxo bat ere badago mandio horretan, ez dakigu lotan ala zertan.*

– *Neu joango naiz* –prestatzen da anaia–. *Badaezpada, hobe dugu bakarrik ez ditzagun luzaroegei utz.*

– *Horixe egiten baduzu, neu behintzat trankilago egongo naiz* –eskertzen diot.

'Neu behintzat' horren erredukzio pertsonalegiak, egiazko sentipenaren aitormena baino gehiago, etxeokoekiko ordezkapen ongura bat izan nahi zuen. Ahizparik gazteenak azkar eta pozik obeditu du anaiari mandiora laguntzeko amaren agindua, eta badirudi, mutil-samalda etzan bat ikusteko irrikaz gainera, bere etxean gertatutako nobedadearen pozak eragindako prestasuna ere badela. Bere tokira muzin-barreka itzuli denean, itxura arraroak hauteman bailituen (adin horretan, zer normal oro da arraro), aurrez aurre dakusdan eta begiratzen didan bost ahizpen ilara tentean Madame Vigée-Lebrunek pintatzeke utzi zuen genialitatea hauteman dut. Oraintxe bai argi dagoela koadro hori kontenplatzetik ezin naizela erretiratu, bidal nazaten arte. Neure sentimendu hurbilegiak distantzian enkubritzearren, Gernika aipatu dut (baiez, izanak direla han ere), eta gizonak berehala atera du bonbaketaren gaia, zerak pentsarazi didan aurretik susmatua nuena, hots, 'iritzi' kontuan ere, konfiantzako etxean gaudela, gure joera zundatzeko amarru bat izan ez bada. Badaezpada, baieztapen neutro bat egingo dut:

– *Hondamendi handia izan zen* ('handiegia' esan nezakeen), *gure jaiotetxetik argi ikusi zena.*

– *Nork burutu zuen inork argitu nahi ez duena* –dio gizonak.

– *Gorriak izatea ez zen erraza, hegazkinik ez bazeukaten.*

– *Gu ez gara Francoren lagunak, eh!* –hots egin du etxeoandreak irmoki, ez dakit nigan eurekiko zer susmo suposaturik.

– *Francoren lagun ez izateko modu bakarra etsaia izatea da* –animatzen naiz neu ere.

– *Jendea lo ez balego!* –andreak.

– *Ilunpean zertarako esnatu, ezer ikusi ezinak ito zaitzan?*

– *Oraintxe ez al da zerbait mugitzen hasia?* –gizonak.

– *Beldurretik askatzen, esango nuke.*

– *Zaila horixe!* –gizonak–. *Gerratik biziraun genuenok badugu aski lan oroimenari eusten. Gazteek ekin beharko diote. Hondamendi hura ikusi ez zutenek.*

– *Badatzo, ziorione. Bagatoz!*

– *Hor mandioan lo behar luketenen artean ere izango dira geldiezin batzuk, ez ala?* –andreak.



– Horretan dihardugu. Ez pentsa Gipuzkoan gabiltzanik, Bizkaitik alde egitearren bakarrik.

Noizbait, hitz-aspertua amaitu beharra zegoen, areago neure kezka, etxekoen gogoz baino, eta ahizpen, gazteenen batez ere, pena handiz, neuk uste. Atarira irten garenean, agerpen hunkigarri batek jo gaitu, ipar horizontearen gainean. Ilargia, osorako pare bat itzuliren faltan, Donostia aldeko argitasun etsilik eskapatu nahian bezala, altueraren bila dator, bere erresuma langidoa aurrerantz hedatuz haran luze eta zabalaren gainera, nahiz eta, aldi berean, bidean aurkitzen dituen xuritasun desorientatuak borazki irentsiz, barruan daraman deabru egurrez kargatuak bere kondenari jarraitzeko elikua izan dezan. *Ikusgarri dago hauxe* –hots egin dut–, *lehen ere ez zarete ikusi gabeak izango baina*. Edertasunetik hornituago daudela gaineratu du etxejaunak aberastasunetik baino. *Zer dira argi-multzoko horiek?* galdetuz, apur bat ataritik urrundu naizenean, etxekoandreak, *Arratek azalduko dizu esanik, besteok goazen ohera* –agindu du–, *eguzkia agertzeko ere ez dela askorik falta eta*.

.....

Afaldu genuen gerezipeco mahaitik, oihan horiska bat erdiberri ageri da, ilargiak areago baitirudi bertatik goratua, hara gaineratua baino. Metro batzuetara, soro-munan, alper bati erreparatu diot eta bertan eseri naiz, ez dakit, zuhaizpetik kanpora, ikuspegia libratzearen, ala etxetik apur bat urruntzearen. *Argitasunik handien hura Tolosa da*, dio ahizparik zaharrena uste nuen, baina bigarrena den Arratek. *Argixu!* –hots egin dio atzetik jarraitu digun ahizpa txikiari–. *Sar ezan txakur nazkagarri hori ukuiluan, inori ez zion lorik egiten utzi behar da*. Tximini luze baten ke-dorre askoz luzeago eta xumeki inklinatu bati ezinezko irudiatu diot, gaua ez baitago figura zehatzak bereizteko moduan. Neure emozioa distraitzeko irudikatua izango zen. Izan ere, Arratek damaizkidan azalpenei baino (*hura Anoeta, Irura, Billabona, Aduna, Andoain...*) adiago nago neure barruko sentipenak, pentsakizun guztiz zehatzen forman datozenei. Errealitate amesgarria existitzen da. Nork pentsatu behar zuen goizaldeko zer ordu den ez dakidan honetan, bazter ezegun bateko etxe ustegabe bateko alper harrizko batean eserita egon behar nuenik bost ahizpetako bategaz, neure jaiotxetik beti ikusi izan dudana ilargiarik mirakulu iritzirik, sekula gaurik ikusi ez banu bezala, nahiz eta maiz ibilia izan bere baitan gorderik, galdurik, negarrez ere bai? Batez ere, ahizpa txikiak barruratzerantz bidali izanak desartikulatu nau, zilegi baitzait ulertzea, amestea behintzat, aitzakia bat izan dela bera nigan bakarrean gelditzeko. Hala balitz, zertan izan behar luke errealitate desiatuak oraintxe badenaren ezberdin? Garbi ikusten

(edo ukitzen) dudana konkrezio bakarra alperren ardatz faltsuaren (suposatzen dut, temosoren batek harri zilindrikoa luzera guztian zulatu ez bazuen) larako burdinazkoa da, zeina, bere aldeko eskuagaz heldurik, behin ferekatzen, behin estutzen dudana, ez dakit bat-batean jo nauen ingrabititate sentsazioari eustearren, ala emozio deslainer zurrunbiloak gorputzean nahitaz eragin behar duela iruditzen zaidan dardarizoa finkatzearen. Dardarizoa baino gehiago, zalantza inurrikor bat ezen, eszena objektiboki idilikotzat jotzekoa bada, zergatik ez dioten araberako hitzek lagundu behar.

☞ *Gure etxetik edertasun handiak ikusiz hazia naiz, baina honek inpresionanteago dirudi* –aitortzen dut laket-gogo gehiegizkoaren beldurra gauak estal dezan fidatutik; “gure etxetik baino edertasun inpresionanteagorik” inondik hauteman dezake-danik ezingo bainuke zintzoki adierazi, neure zuntzadura sentimentala bortxatu gabe.

☞ *Daukagunari ez damaiogu garrantzirik, baina, azkenean, edertasunik handiena doakoa izaten da*. –Esan eta alperrean eseri da, ‘inpresionanteago’ delakoa egia bihurtzeko bidean jarritz.

☞ *Geu ere uste dut doatasun horrexen barruan garelako ederren*.

☞ *Konplikatuegiak ez bagina! Gure garuna oraindik zati ribaletan konfiguraturik dago*.

☞ *Eskerrak bihotza ere badugun*.

☞ *Garunean enkajatzan ez den beste zati bat hori ere, sarritan*.

☞ *Une honetan ez, behintzat. Batzuetan, edertasun esternoak ere eragin dezake edertasun internoa, normalean alderantziz izaten da baina*.

☞ *Ez al gara pentsamendu handiegietan lerratzen ari?*

☞ *Sentimenduetara itzultzea nahiago baduzu, eta itxaronik ez didazula atrebentziatzat hartuko, hauxe da beti irudikatu izan dudana egoera literarioa, eszenak musu bat eskatuko lukeena*.

☞ *Beno. Literatura kompletatzeko bada...*

☞ *Eskerrik asko. (Zergaitik esan ete joat hori?). Borondateak hunkitzen nau aski*.

☞ *Ez zara ausartzen*.

☞ *Izan liteke, baina ez da*.

☞ *Ezkondua zarelako?*

☞ *Oh! Ezkontasuna atzerako baino gehiago izaten da aurrerako arrazoi*.

☞ *Fideltasunen bat gorde beharrean aurkitzen zarelako*.

☞ *Fideltasunak badituz, baina ez arlo horretan*.

☞ *Orduan, txil*.

☞ *Arrate! Sentitzen dut, baina bazenekiela uste nuen. Apaiza naiz*.

☞ *Oh! Barka*.

☞ *Ez dago ezer barkatu beharrik. Aitak ez al dizue esan?*

- Ez diogu ezer entzun, neuk behintzat.
- Ama zergatik uste duzu berorika hasi zaidala, neuk zuzenarazi arte?
- Ez naiz konturatu.

Une bortxatu samar bat igaro ondoren (neure aldetik areago, beretik baino), hizketa lasai eta guztiz berrian jarraitu genuen. Aurretik, sukaldian, hartarako ilusioa adierazia zuen moduan, Bizkaiko kostalderantz jotzerik pentsatzen bazuen, Gizaburuagako zein Amorotoko abadetxean bazuela, nahi izanez gero, ostatua, eta etortzeko lotsarik gabe, bakarrik, lagunagaz, lagunekin, herritarrek ohituta zeudela han deneriko jendea ikusten eta. Benetan estimatuko nuela hori, euren etxean izandako ostatu eskuzabalaren esker onez. Aukera guztiak alferrik eskaini nizkion, handik laster, preso aurkitzen bainintzen urte mordo baterako, Zamoran. Franco hil aurretikoan etxeratu nintzen, 1975ean. Hurrengo urtean, plazarik plaza bertso-lari hasirik, Euskal Herri guztira zabaltzen hasteko zortea izan nuen. Saio batean, Sorabillara ere bai. Elizaldea ez zen gehiegi aldatua urteak aurreragoko kanpaldi bikorios hartatik, Don Benantzio eta Zilia falta zirela besterik. Inguruak ikusmiratuz, oroimenagaz igurtziz, lurretik altxaturiko sentimendu samurregien behelanoak inguratu ninduen, intimitate osoan gordetzeak ezabatetik libratu zuena bera. Gozo-goza, leun-leun, laino guztia gorputzera irazi zen, eta hemen ez da ezer gertatu. Saio ondorengo zurrumbiloan, jada gau erdian, neska baten begiraduri erreparatu diot jendarte mugikorretik, sei bat metrora, txosnako bonbila-arku inbertituen hegalean. Hasi naiz hurreratzen, bihozkadak arrazoi ote zuen, eta begiradarik ez duela alboratzen dakust. Irribarre bat ere abiatu zaiola iruditu zait hurbiletik, eta diotsat:

- Zu ez al zara huraxe?
- Ez dakit zein huraxe esan nahiko duzun.
- Ama Birjina ospetsu baten izena daramana.
- Ama Birjina guztiak ez al dira ospetsuak?
- Zuretzat ospea baino zerbaite gehiago izango da... Arrate.
- Gogoan al duzu?
- Entzun duzu. Eta ez dut uste Ama Birjinagatik izango zenik.
- Banuen agurtzeko asmoa, baina okupaturik zindekusdan, eta azkenean, aurkea hartu didazu.
- Ez zinen abadetxeko ostatuaz baliatzen ausartu.
- Hurrengo Lekeitio aldera joan ginenean, preso zeundela esan ziguten.
- Alperra bizi al da, harri batek funtzio hori har badezake?
- Gainean eserita egon zinen toki-tokian darrai.
- Egon 'ginen', ezta?
- Bai memoria daukazuna!

- Ez da haritzekoa, kartzelan hainbeste errepasso eman ondoren. Ia-ia etxea erre genizuen.
- Ez zen hainbesterako izan. Gure aita beroago baita sua bera baino.
- Txakurrak ere ez zuen fresko-fresko hartu ukuilura ezkuta zezaten.
- Apaiza zinela igarri, nonbait.
- Zuk ez bezala, neuk esan ez banizu. Orain ez naizela ere neuk esan beharko dizut, zuk ez didazu igarriko eta.
- Oh! Bitxia horixe!
- Jada ez daukat aitzakiarik... abadetxea eskaintzeko.

"Jada ez daukat aitzakiarik, pendiente geratu zen musua gordetzeko" esatera nindoan, eta esana legoke, barne alto bortitz batek sikuan birarazi ez banindu. Hizketan generriaren bitartean (gurasoak, ahizpak, bizimoduak, nire berriak, bereak), biraketa inultsibo horren arrazoiak arakatu nahi nituen, lehenengotan urduri samar, barne fenomeno arraroa kanpora zedin beldurrez, baina baita pozez ere, arrazoiak argitu ahala, egoeraren geroz jabeago, erabaki emankor, sentimentalki burutsua izan zitekeelako. Horrek ez zuen eragotzi, ordea, lehen bulkadaren (garbi esanda, desioaren) sekuentzia paraleloa honela joan zedin:

- Tragotxo bana hartuko al dugu, kontu batzuk esanez?
- Ez legoke gaizki. Goazen beste txosnara.
- Txosnen inguruan burrundada handia ez al dago?
- Jatexera iruditzen al zaizu?
- Nahiago baino ez, lagunekin-edo loturik ez bazaude.
- Lagunak hor ibiliko dira gero ere.
- Kafe bizi bat estimatu nuke.
- Ni kafeak gehiegi bizitzen nau.
- Zer moduz gurasoak? -jada jatetxeko mostradorean.
- Ama kilimala dabil aspaldion.
- Eman goraintzi handiak eta berritu eskerrik bihozkorrenak.
- Esango diet. Estimatu dute.
- Eta ahizpak? Bost zineten, oker ez banaiz.
- Gazteen biak hor dabilta. Zaharrena eta hirugarrena ezkondu ziren.
- Eta bitartekoa?
- Bitartekoa hemen dabil, Ama Birjinaren izen ospetsutik haragotu gabe.
- Pozten naizela besterik ezin dizut esan.
- Neu ere poztu naiz ezagutu nauzunean.
- Oroitzapen onek nekez diraute araberako irudi gabe. Beste ahizpak ere agurtuko nituzke.
- Laster agertuko dira nonbaitetik, auto bakarra daukagu hirurontzat eta. Aitaren

- Land Roverra ez da jaira ateratzekoa, ukuilu, soro eta baso usain guztiekin.*
- *Usain produktiboak dira horiek. Beste auto bakar hori erro bakarra baino estu matuago egongo da.*
  - *Gaur ahizpa gazteena dugu gidari. Amorratua da.*
  - *Hirurok batera ibili behar.*
  - *Etxetik irteteko, bai, baina itzulera, sarritan, arau gabea izaten da, orduak eta aldarteak ere ez baitira denenak berdinak.*
  - *Neuk eramango zaitut, nahi baduzu, presarik ere ez daukat eta.*
  - *Izango duzu zeuk ere lagun bat.*
  - *Gaur bakarra naiz, Bizkaitik etorri dena. Bide batez daukat zuen etxerantz.*
  - *Ez dago gaizki. Horrela, nondik ibili zineten berrikusiko duzu.*
  - *Eta, agian, pendiente gelditu zen musuari beste aukera bat eman.*
  - *Ala beste ausardia bat?*
  - *Orain ez naiz apaiza.*
  - *Orduan, ezin du izan pendiente gelditu zena.*
  - *Sentitzen dut, apaizgoa uzteko, elementu hori ez kontsideratu izana.*
  - *Beste elementu batzuek badiraute, gaur ere ilargi triumfala baitator.*
  - *Zeuk ere ez daukazu memoria txarra, eh!*

Paralelotasun mentalean horrela joan zen solas desiatuari, ordea, ama arautuagoa eman nion, esan nionean beste bertsolari adintsu samar bat eramateko nintzela ("zortzigarrena, gezurrik ez esatea"), eta hark kobratu arteko pazientzia bakarrik izaten zuela. Berak halabehar horrengatik penarik ez agertzea ez nuen neu penatzeko motibotzat hartu nahi izan, nahiz eta bai atsekabetu nintzen, horretarako ez baita motiborik behar. Suposatzen saiatu nintzen hark ezin zuela bestelako espektatibarik eginga ukan, eta eginga baldin bazuen (suposizio baikor bat gordetzearren), emakumeak gizonok baino disimulatzaille hobeak direla. Neuk oraindik horrelako sentimendu-jokoen esperientzia direktoegirik ez neukanez gero (eta hogeita hamabost urte bizkarrean, hi!, *habil mutis eta jango dok putis*), pentsatu nuen hobeto hartuko zuela proposatu nahi niona, ausartzen baldin banintzen. Ez berehala, baina derrigorrak eraginda, hots, egun hari "agur eta beste bat arte" joaten uztea betiko galtzea izan zitekeela pentsaturik (kontu hauetan izan daitezkeenak izango denak baino larritasun handiagoa ematen du), ausartu nintzen esaten, esateari berari baino ausardiaren ezaugarriak ezkutatzeari kargu gehiago eginez.

- *Datorren larunbat iluntzean, Lasarteko bazkari batetik bueltan, hemendik pasatzekoa naiz etxerakoan. Bazeneritza, tragotxo bat pozik hartuko nuke zurekin, gaur baino astitsuago.*

Era horretara planteaturik, koartada guztiak hartuak izatearen seguru

tza sentitzen nuen, konkordantzia guztia gezur baten gainean oinarritzen baitzen. Gezurrak huts eginez gero, beste bat berdin asma nezakeen. Hots, orduan zernahi gertagarri zen Lasarten ez bazen (udalerrri ere ez zen oraindik), Hernanin edo Goizuetan (hemen ere zernahi) har nezakeen etxera bidea. Bazkari batetik ez bazen, espetxetik itzulberri nintzenaren muga-lan galde-ezin batetik –ah!, ah!– bueltan izan zitekeen. Hurrengo larunbatean ezin zuela bazioen (berdin zen ezina egiazkoa nahiz simulatua izan), egun eta herri guztiak neuzkan handik 'bide batez' pasatzeko, "zeurekin egon nahi dut" zuzen esan beharrik izan gabe. Era direkto horrek gogo gogoaren aurrez jar zezakeen, saihestu ezinak beldurtu edo urduritu egin zezakeen; eta, beharbada, estuasunean, gezurrezko ezetz bat ematen deskuidatuko zen, gero amore propioak rektifikatzen zail jarriko zuena, ezertarako presuntzio konsistentetik ez zegoen lekuan. Bide batez kotik, ostera, hain era enkurbituan iradokia zen gogo bat errefusatzea zaila zen, dedukzio malizios bat agertu gabe. Pentsaketa hauek guztiak kateatzeko astirik ezak ez zidan denak eta gehiago sentitzeko gozamenik eragotzi (sentimendu bat zenbat pentsamenduz osatzen den inork ez du neurtu), bitarte llabur hartan zeinaren ondoren egunean hainbeste aldiz burutzen dugun errutina bat besterik ez zen etorri, nahiz eta konkrezio irrepitible bat atxikia.

– *Zer ordutan etorriko zara?*

– *Gutxieneko batetik gora, ondoen datorkizunean. Bazkalondoak eta jaiak badakizu nahi adina luza daitezkeela, baina, beranduenez ere, seiak alderako, egitekoak eginda nagoke. Zazpietan ondo deritzozu?*

– *Nigatik bai, aitari presazko zerbait otutzen ez bazaio.*

– *Gauza bat egingo dugu. Ni geldituko naiz, bide erdian trago bat egitea beti gus-tatzen zaidan moduan. Baldin bazaude, ondo, eta bestela, izango da berriz ere beste jaialdiren bat.*

Lehenengotan, neure buruari amorrua hartu nion, hitzordua ez nuelako garrantia handiagorik finkatu, aste osoa zalantza sufrirunean utzi beharrean, azalduko ote zenetz. Laster aurkitu nion egoerari abantaila mardulagoa, zalantzak itxarotzea bizitzen baitzuen, okerreanean ere, atzeratze amesgarri bat baizik izango ez zela. Denbora ez zihoan nahi bezain bizkor, baina, ordain ederrez, bide guztiak zoragarritzen zituen, euren amaiera inebitablea baitzen: *Andabona jatetxean, larunbat arratsaldeko zazpietan*. Horrela esanda, aldarrikapen solemnea zirudiena, heure kautan errepikatzearen poderioz, araberako samurtasunera lerratuz zihoan. Pasatzen nituen inguru fisikoek ere naturak berezkoari eman ez dion faszinazioa hartzen zuten, batez ere, larunbat hartako eguerdi ostean, kostatik Donostiarantz abiatu nintzenean. Bolanterako denbora luzea harturik, normalean ordu eta erdian egitekoa hirutan egingo nuen. Bihurgune zitalak, bazter zikinak, gidari ipurterreak,

kontrol gorrotagarriak; ez albotik ez gainetik ezin pasatuz, argi ernegatuak jaurtitzen zituztenak, dena zen zoragarri, oro har zein partikularki, baita itsaso belduragarria ere, irentsiak irentsi, beste hainbeste barneratzeko borazitate baretasun urdinean ezkutatzen zuena. Nire begiak denean pausatzen ziren, dena xeheki ikusmiratzen zuten, helbururantz joate kontzienteak, bertan egongo ote zen zalantza kitzikaturik, dena helburuaren beraren porositate xarmagarrian bilduta utz zezan. Berandu iritsi nintzen apropos, bera han ez aurkitzeak sortuko zidan larritasunaren beldurrez. Andabona jatetxeko aparkaleku landare-hesiz partzelatuan, autotik jurrera bainoago lainora jaitsi nintzelarik, atariko harmailak igotzen hasi nintzenean (kontatu egin nituen, bederatzi), atzera egitea ere pentsatu nuen porrot beldurrez, zain egon zitekeenak leiho ertzen batetik hautemana izango ninduen posibilitateak aurrera jarraiarazi ez banindu. Amodiora iristeko pretentsiorik ez duen hitzordua bat hainbeste koplak eta asmakeria eragiteko gauza bada (eurongatik ez izatera, ez dakit mereziko lukeen), zer izango ote litzateke, destinoak zerbaite gehiago gorderik baligu? Azkenean, misterio guztiak presentzia zehatz eta txit mugatu batera bildu dira. Hortxe dago bera, mostradore kontratan egunkaria irakurtzen, pentsaketa desbokatuturik ezaren seinale, arreta zerbaitean finkatzearen ez bada. Kaixo eta kaixo eta:

- *Barka pixka bat atzeratu izana.*
- *Neu ere ez naiz iritsi zahar. Zer moduz bazkalondoa?*
- *Zoragarri!* -Horretan ez dut gezurrik esan, adierazpen errealegia atera ote zaldan beldur ez banintz.
- *Lasarten ez dakit inoiz gelditu naizen.*
- *Badu non gelditu, ibaia zikin samar doa baina.* (Zer zerikusi ete jaukak bata besteagaz?).
- *Nahi al duzu zerbaite?*
- *Trago bat elkarrekin hartzeko ez al ginen berbatu?*
- *Tragoa baino gehiago, 'elkarrekin', ezta?*
- *Prezizio polita izan da horixe, zure ahotik entzunda, batez ere. Tonika bat, mesedez, pare bat txorrotada ginebraz* -diotsat zerbitzari neskari, ondoren Arrateri gaineratuz: -*Freskatzeko, eta pitin bat bizitzeko. Jendaurreko lanak amaitutakoan, alai-puntu bat sartu ohi zait beti. Zure lanak oraindik amaitzeko egongo dira, beharbada.*
- *Amak beranduegi ez itzultzeko eskatu dit, ondo ere ez baitabil gajoa. Ahizpa gazteek lagunarteko afaria zuten, eta eurek utzi naute hemen.*
- *Azalduko nintzen fidantza handiegia ez al zen hori?*
- *Apaiz ohi baten ez dakit, baina preso ohi baten hitza sinesteak ez luke arinkeria izan behar, ezta?*
- *Pozten naiz alderen batetik sinesgarri aurkitu nauzulako. Gehiago pozten naiz*

- hemen gaudelako, hori apaiz ohiaren aldetik esana.*
- *Neu ere pozten naiz, hainbeste alde ezin naiz loriatu baina.*
- *Hori denborak esango du. Beno, denborak edo astiak.*
- *Gure ama goizalderantz hasten da larritzen, alabaren bat etxean ez badago.*
- *Nahi duzunean eramango zaitut.*
- *Hain bizkor ere ez. Goizaldea urrun dago oraindik.*
- *Itzuli bat egiteko astia izan genezake, beraz?*
- *Nik ez ditut parajeak askorik bereizten. Oso aldrebasa naiz horretan.*
- *Aia aldetik Orio gainerakoa ezagutzen duzu?*
- *Ez dut uste inoiz pasatu naizenik.*
- *Horixe egin genezake, gero Donostia aldetik zein Azpetia aldetik itzultzeko, iruditzen bazaizu.*
- *Ibilera handiegia ez al dira izango zuretzat?*
- *Ni ibiltzen ohituta nago. Egotea da kostatzen zaidana.*

Bai tontoa izan behar dela, bat-batean hain biziki eta jarraikor poztu ahal izateko! Autoan goazela, ezin diot gehiegi begiratu. Zehar-begirada nahitaez azkarregietan, alkandora zuri-uridin nasaiak aiosten dion kornisa deigarrian, kanaltxoaren iragarpena ageri da doi-doi. Atearen kontratik pitin bat neugantz biraturik, bihurtunea baino doi bat gorago bistaratzen diren belaunak abiaduren balankarantz pausatzen zaizkio. Behin edo behin, eskuinerantzko aldaketetan, nire eskuak nahitaez bere belauna ukitu beharrak ez dirudi axola dionik, ukitze mekanikoa iritzita edo. Ez da, ba, nire kasua. Diozdan eta diozen hitz guztietan, duela zortzi urteko pasartea besterik ez dantzut. Nik: "*Hauxe da beti irudikatu izan dudana egoera literarioa, eszenak musu bat eskatuko lukeena*", eta berak: "*Literatura kompletatzeko bada, utziko nizuke ematen*". Azken hiru hitzok, batez ere. Lasai mintzo da, auzo ez-etsaiak bagina bezala. Ni adei harroxkoan esplaiatzen naiz, berak nik baino hobeto ezagutu behar lituzkeen parajeak azaltzen. Bere harana denaren, edo bere etxetik bistan dauden mendatek edertasuna laudatzea bera atsegintzeko era bat iruditzen zait. Ez dihardut ohartuki, baina badihardut, herriko tontotxoak bere plaza ugerraren mirariak azaltzen dizkizunean bezala. *Etxetik beti ikusi dudana horizontetaz beste aldean ikuskizun hau egon behar zenik sekula ez dut pentsatu.* Aia gainean hori esan duenean, zirrara bat nabaritu dut, zeina ez baitakit edertasunak batzuetan hartzea maite duen sinpletasun estremoari dagokion, ala sinpletasun orotan ikusi nahi dudana edertasun totalari. Bietara naiz irabazle, hots, hain 'tontotxo', ezen ez baitakust inondik galtzaile irteteko modurik, bihurtunen batek amiltzen ez bagaitu, baina orain ez naiz hasiko tragedia tentelak pentsatzen.

Hizkera lasaiaz gainera, bere baretasun-aire orokorrak atzitzen nau, kanpotik igar ez dadin saiatzen naizen nire afanaren aldean, kasik indolentzia le-

makeena, zeina ez dudan uste (ez dut uste nahi) jarrera kalkulatu denik. Tonu berdinsuan esan du *kartzelako patioa tristea izango zen, ezta?*, nola geroago, *paraje ederrak dira hauek*. Galdetzen dizkit gauzak (neuk ere bai berari) kartzelaz, apaizgoaz, haurtzaroaz, baina konprentzio alardetik gabe. Ez zait gustatzen, egoera batzuetan behintzat, sakonki konprentzen saia daitezen, ez hainbeste horrek gero odolkiak ordainez eskatuko dituelako, harenganako konprentzio ahaleginetan zer kaos aurkituko duzun ez dakizula, baizik sentimenduen intentsitate bertan markatzen den gune nuklear hura, konprentzioak ukitu nahi lukeela suposatzen dena, kanpo intrusioak honda dezakeelako. Banakotasun eksklusiboak ere bizi behar du "Mantxako nonbait". *Zure izenaren jatorria den Arrate ere han da gogor tontor lerroaren azkenean, txiki-txiki*. Ez du galdetu zein tontor, baina zaila da beste gabe identifika zezan, neuk ere, bere orientazio urriaren aitortzan fidaturik, jakinean baino areago jaurti baitut airera, eder guran, pentsaturik, berak, kasualki ezaguturik, *hura ez da esango balu, distantziak sobera justifikatzen duela oh! egin du egin naiz* aitortzea. Bai esan du *ez naiz sekula bertan izan*. Nire konplazentzia gogoak berehalegi iradoki didana, *hurrengoan haraxe joan gintezke*, berehalegi moztu dit amodio kontuetan ere berdin inperatiboki, nahiz sarritan oker, agintzen duen biziraun-senak, ohartaraziz hobe dela bigarren egunik lotzen ez saiatu, bakar-ustez ondo hasi duguna nola amaituko den jakin gabe. Egia esan, ez zen ondo amaitu, amaitu egin baitzen. Gauerdia gaingidurik, bere etxe azpian, autoaren itzulera txakurraren haserreagatik urduriago maniobratu ondoren, azken hitzak honelatsu joan ziren:

- *Alperrak hor darrai?*
- *Gereziendo beraren babesean.*
- *Merezi izan du musua zortzi urtez atzera zedin.*
- *Pozten naiz, hori uste baduzu.*
- *Sentitzen areago, uste baino.*
- *Hori pozgarriago da.*
- *Poza eta sentimendua batera, horixe ez al zen zoriona?*
- *Gaurko eguna zorionsua izan dela esan beharko dugu, beraz.*
- *Jarraituko dut inguru honetan saioak izaten.*
- *Neu ere saia ninteke urrunago joaten.*
- *Utziko al didazu, agurtzeko, duela zortzi urtekoa ematen?*
- *Ez al dugu emantzat utzi, Orioko hondartzan?*
- *Luzaro emangai egonak abantaila du ezen errepikak ez duela originala ezabatzen.*
- *Orain ezingo luke apaiz-musua izan.*
- *Bai izango luke apaiz-marka. Sacerdos in aeternum.*
- *Pena da hain gauza onak amaitzea.*
- *Bai dela ona honen ondo amaitzea! Tori.*

*Beno. Literatura konpletatzeko bada...*

.....

Ura! Itotzeko beldurrak bera nire arima izatetik gabetzen nauena; eta ez-arima horretatik berak defendatzen ez nauena. Bizia uretik sortu zela jakin nuenean, lasaitu nintzen betiko, ez-arimaren negatiboa positiboan argizatuturik aurkitu bainuen neure senean, zeinaren uragazko obsesio kasik exaltatuan arimaren forma estilizatuan ez bezalako irisbide direktoa atzeman nuen biziaren abiapuntura. Milioi mordo bat urte bakarrik. Zertarako behar nuen arimarik? Hain inguru urtsuan, ura ondasun urritzat bizitzeko esperientziak, delako obsesioa deitoratzera eta zuzentzen saiatzera bultzatu beharrean, beraganako joeran areago itsutu ninduen, indar primario soil bat besterik izan beharrik ez zeukan bulkadari orain misterioaren jiluramen guztia eransten zitzaioa. Etxea muno baten gorenean egonik, parean jausten zen urak, ugariena izanik ere, berehala alde egiten zuen lotsagabeki, geure begien aurrean esanez: *Segi zuek hortxe zeuen goiera ikuspegitsuan*. Aitari nio-tsan: *Zergaitik uzten deusagu ur horri guztiari joaten?* Zerantzuen: *Berriri etorri zaiten*. Jakingo zuen ez zela hain arrazoi zientifikoa, baina haur bat engainatzeko nahikoa zen, ebanporazioaren ondorioez jabetzerako ere, naturala iruditzen baitzitzaidan joatearen jarraipena itzultzea izatea. Kontua da ura ekarri egin behar zela etxera, aldapa erripen baten barretetik gora, eta ekarria ondo dosifikatu behar zela, berriri lan urri bezain nekagarri hura agin ez zezaten. Lan delikatua ere bai, ontzi tratatuek nahiago baitzuten erdia bidean galdu, *osorik al zatoze?* entzun baino. Behintzat ekarri beharra ez zen samurragoa, bakoitzak pare bana baldekada edateko ez baitzuten biziorik behar, neu izorratzearen egiten zutela pentsatzeraino. Eñurak iturriko uraskara eroatea, berriz, ez zen alternatiba hobea, zeuzkaten jenio gaiztoekin (gosearen ramifikazioak), haien dominatzea, sorotara eskapa ez zezaten, ez baitzen metodoaren zuzentasunez bakarrik garantzitzen.

Etxean hain urria eta adoratu zen elementua bere ugaritasun gratuitoan aurkitzeko, ez neukan neure mendian kilometro bat behegoko edozein errekatara jaitea besterik. Han urak nahi nuena egiten uzten zidan, itotzeko beldurraren mugaraino. Oraindik ezin dut esplikatuz, beti uretan ibilirik, nola ez nuen igeri ikasi. Susmoa daukat beldurrak, exzitazioaren estimulatzaile jeloskor horrek, berak ez ote ninduen jagon misterioaren osotasuna apurtzetik, ez zedin gerta, igeri ikastean, konfiantzak pasioa motel zezan. Ura menkor, moldakor, zernahikor aurkitzen nuen. Opariak hartzeko egunetan, orokorki ere oparoegia ez zen ohiturak diferentziak minkiago markatzen zituenean, euren jostailuak erakusten zituzten lagun aberatsagoekiko mendekua soberazkoa zen, pentsatzen nuenean: *Zuek ez dauka-*

*zue nik neuretzat bakarrik daukadan beste erreka eta erreka zulo, karramarro eta guzti!* Urak enborren eta inoiz egitea lortzen nuen almadia elementalen gainean otzan-otzan eraman nindezan lortzen nuen, inoiz korronte bortitzagoen dardaretan ere arriskatuz, batez ere, zentral hidroelektrikorako kanal luze hartan, behin, urtegiaren konportak irekitzea lortu eta pare bat kilometro ziztuan egin nituen bezala, lera baten gainean. Behin, noski, eta pozik, haraneko lantegi nagusia eta bere menpeko etxe guztiak argindar gabe gelditze alarmantearen arrazoirik deskubritu ez zutelako. Nork pentsatu behar zuen bakarmendiko haur izu baten azioa izan behar zuenik!

Kanal zoragarri hura neure esperimendu guztien aprobaleku libre eta eskusiboa izanik ere, ordea, bueltan oinez igo beharko nuen. Ezin nuen lortu nire eraman-ekarria urak berak egin zezan. Inoiz saiatu nintzen ur gainean jaisten nintzena asto gainean itzultzen, baina nire asmoekin buru bat egiteko jeniorik ez zeukan abere hain nor bat nire komenentziara maneiatzea oinez igotzea baino zailago zen. Gainera, nire erronka obsesiboa dena urari eginaraztea zen, indar kolateralen asistentzia gabe. Itsasoa ezagutu nuenean, poztu nintzen pentsatuz aurkitu nuela, behingoz, soluzio irrikatua: olatua. Joanetorri miragarriro amaigabea zebilena. Baina itsasoa handiegi, bortitzegi, menperaezinegi zen eta, batez ere, ez zen ura, gesala baizik. Elementu basatia, ez-nitarra. Niretzat, ura sukaldeko toki kutun batean gordetzen elementua zen, edaten zena, mahaian falta ezin zena, beragaz garbitzen nintzena, iturriari xarmagarriro zeriona, bitarteko estadio ezkutu geroz ozenagoen ondoren, haranean ibai jaun bihurturik zihoana. Edozein ontzitaraxaloki errendituz, ihintzetik hosto puntetako tantetara lerratuz, nonahi ezkutatu, ezabatuz, zokorik ustegaitzenez islatzen zena: horixe nahi nuen neure esanetara moldatzen asmatu. Gehiena lortua nuen, baina itzulerako gakoa sulozio gabe gelditu zen, betiko.

Oraintxe daukat bizi guztiko irritsa asetzeko modua, ezintasun etsian jarraitu beharko zukeena, denak joanak ez balira. Animalien joan zen asteko kaskataldi bitxi haren ondoren, Lea ibaiaren sorbururaino iritsi naiz. Ez da zehazki sorburua, ibaiak gorputz bat hartzen duen Oiz mendiaren barrena baizik, Munitibarren elizaldetik hego-ekirantz luzatzen den arroa sakonean aurrera, Lekeitiotik hamar zortzi kilometrora. Bertan aurkitu dut, banekielako, Lea Ibarreko antapararik luzeena, Oiz mendiaren magal nagusitik jaisten den ur azkarraren lehen atsedenean, ibai basatia zibilizatu zuen lehen errotan. Ehun bat metro luze, eta presa maies-tosean, ibarra arrastatzeko beste ur, bere kontentzio monumentalak huts egingo balu. Errotara sarrera itxirik, presako konporta zabaltzea besterik ez dago, uhola, antapara hutsean, indarrez arrasta zaitzan. Itzulera da hemen ere gakoa. Zorionez, lanak aurretiaz eginak dauzkatzat, arrakastatsu, neuk uste, laster probatuko dugu bai-

na. Lehenik, antapararen kanal zabalegia estutu egin behar zen, uhola astiroegi eta motelegi abantza ez zedin. Unada batzuetan, hiru metrora zabalitzen zen kanala metro batera estuturik, uraren oldarrak laubidertu egin behar du. Hemen naiz, ba, ahate formako flotagailu handi baten gainean, konporta irekitzeko emozioak mekanismoari ematetik atzeratzen nauela. Ematean, konporta kolpean irekiko da, eta presak errota zuloraino jaurtiko nau, ur amorratuaren gainean. Kolpean irekiko da, eta ez tornu-era zaharrean, apurka-apurka eta kontrolaturik, dena batera eta braustadan baizik, prestatua dudana mekanismo ordezkoiari esker.

Emozioa nioen, baina ez dakit inbentzioak funtzionatuko ez ote duen beldurra ez den izango. Begiak itxi eta, klaunk! Eman diot eta banoa ziztuan, tximista gainean bezala, ur gainean tximistan, ahateari lepotik ondo heldurik eta ia postura etzanean, alboak ere badatozen ala atzean ixten diren begiratzeko asti gabe. Urak aurrea hartu dit, boa buru-moztuaren forman, baina banarama bizkarrean, atzeko oldar berrien sakadan. Gezurra dirudi esperientzia itxuraz hain rustiko bezain funtsean primitibo honek gizadiaren desagerpena zortetzat sentitzeraino lilura nazan. Gelditzea pentsatuko banu, ez dakit ahal izango nukeen, edo ez daukat behintzat, aurreikusia. Une batez, uraren indarrak eta abiadurak beldurtzeraino zirraratu naute. *Eta orain, errotarako sarrera, arku-ahoa, itxita egon beharrean, zabalik balego?* Pentsakizunak begiak itxi eta ahatea estuki besarkatzera eraman nau, orgasmoaren etorrera sentitu banu bezala. Ez dut uste hori gertatuko denik, lehen itzulian, behintzat. Begiak ireki ditudanean... Hobeto esanda, urak berak irekiarazi dizkit, aurpegi osoa kolpatuz, eta susto galanta emanez. Errotara sarreraren kontran errebotaturik zetorren ura. Ur amorratua, sarrera itxita aurkitu duenean, neugana zuzen abailatu da, boari burua itzuli bailitzaion. *Ahoa itxita jagok, behintzat!* Zaplastekotik erreakzionatu dudanerako, joaneko bidaiari amaitu dela ohartu naiz.

Ahate gainean eserita, lepoan eta kaskarrean ferekarik samurrenak eginez, kanal estua, zuzen-zuzena, presako konportaraino dakust, ura, jada bareturik, lodituz doala, pal-pal, metro bateraino. Oraintxe dator inbentzioaren benetako unea, bizi guztia igaro dudana izan zitekeela pentsatuz, baina benetan probatzeko aukera gabe, umetan erreka guztiekin teman ibili nintzenetik. Nagusitan, susmatzen nuen lortzeko sistema, baina nola birmoldatu behar nuen honelako antapara bat, 'umekeria bat' esperimendatzeko? *Zorionez joanak zarie denok! Ez gehiago etorri be egin, umekeria asko eta handiak daukadaz egiteko eta.* Kontua da orain urak berak itzuli behar nauela abiapuntura. Itzul ninteko, noski, oinez, antapara gaineko motatik edo azpiko zelaitik, baina hori, nekoso eta endredosoan izanaz gainera, uragazko haustura bat litzateke. Urak berak jarri behar nau presako konportan, berriro joanetorri berdina hasteko. *Oi, ur xalo, ahalean bortitz, ezinean*

*otzan, beti setoso hori! Sekula ez deustan guztiz obeditu, baina gaur heuk eroan behar non bueltan. Zelan? Orainxe probatuko jonagu, ea zer deritzonan.*

Presako sarrera-konportatik pare bat metro beherago, irteerakoa dago. Berez, huste-konporta kanalaren erdi inguruan zegoen, orain ahaztuta dauzkadan arrazoiengatik hortxe behar zelako, baina niri ahalik gorenean interesatzen zitzaidan, bidaia konpletua izan zedin. Konporta zaharra bertan utzi, ondo itxita, eta berria irekitzea areago zen lan nekagarria zaila baino. Gehiago kostatu zitzaidan sarrera-konporta tornu-sistematik eskegi-sistemara aldatzea, baina hori ere egina dago, maldizio pila baten laguntzaz. Tornu orde, ataka langa batetik dingiliz utzi behar zen. Berdin irteerako ataka ere, beste langa batetik. Bi atakek pisu berdintsuko izan behar zuten, eta biak txirrika, kable, malguki eta kisket sistemaz elkarrekin bat eginak. Orain, nagoen kanalaren beste muturreraino luzatua dudan dispositibo bati tiratuz gero, suposatzen da sarrera-konporta kolpean ixteaz, hots, jausteaz batera irteerakoa kolpe berean ireki edo igoko dela, aipatu sistema txirrikariz. Egia esan, neuk ere ez dakit ondo-ondo esplikatzen zelan egin dudan, funtzionatuko duen ere ez bezala. Nago sentsazio berdintsua izan behar zuela Jainkoak, zeinari gutxiago kostatu izango zitzaion mundua sortzea, gero hura esplikatzea baino, sumatzen dudana bezala artista askori ere gertatzen zaiela, onak zein txarrak izan. Diferentzia bat izan liteke artista onak ez dakiela bere obraren balioa esplikatzen, eta txarrak esplikazioan jartzen duela obran ez dagoena. Ea orain nor ausartzen den norbere burua dagokion aldean kokatzen.

Artifizioak balioko duen ez dakit, baina arte zinetikoa dirudi. Beronen kide geldiaren izen ingelesik ez dut emango, idazle kanpofilotzat lotsatu beharrik izan ez dezadan. (*Noren aurrean, inor inon ez bajagok?*). Indarren transmisio horrek umetematik xarmatu ninduen, nola objektu bati sakatuz edo tiratuz, beste objektu batzuk nahi zen norabidean dispara zitezkeen, kontrarantz barne. Azkenean, eskua bere heldulekuan daukadan kable makarra honi tiratzen badiot, hustubideak automatikoki ireki behar luke, eta betebideak itxi. Balioko ote du? Ba, bai! Tiratu diot, eta lotan zintudien ura, non zegoen ere ahaztua, baurre batean oldartu da, hamabost metrora paraleloan doan ibai nagia estrangulatzeraz bezala. Hustu ahala, ez beherantz bezain azkar, nahiz eta askoz samurrago, ahatetxoa eta biok ere konportarantz goaz. Miraria lortua da: urak daroana urak dakar. Merezki zuen denak joan zitezeten. Bigarren bidaia, funtzionamenduari buruzko urduritasun gabe, zentratuago, ohartuago doan barneratuz, gozatuz, behingo, neure betidaniko elementu hezigaitzaren gaineko domeinua. Hirugarren bidaia pertsonalagoa da. Segurantz neuk lortuaren azpitik, elementua tentatzen, probokatzen jardun dezaket, bere erantzun menkorren, inoiz ere ez guztiz seguruen gainean zoratuz, harrotuz, behin ur-leraren gainean, behin gorputz soilean, desafiitzen ere ausartzen naizela: *Ito nain orain! Hi al haz men*

*diak arrastatzen eta hiriak hondatzen zituena, igeri ez dakien biluztasun txakil bat bildurtzeko be ez hazen hori?*

Bederatzigarren bidaiatik gora, eramaten uzten naiz, pilatu zaidan neke askatzailea etzantasun kontenplatiborantz zuzenduz. Mistika artifizio bikaina izan zen. Urak nakar, urak naroa, nahi den ordenan. Txarakiltxo bati eman hutsez. Azkenean, hamalagarrenean, ahalegin horixe egiteko ere nagi naiz. Lehenengotan, logura zela pentsatu dut, eguzki distrahigaitzak uraren kontra inkatzen duena. Laster konturatu naiz melankolia ezaguna zela, logurak bezain osoki, baina barnekiago hartu nauena. Logurak amets zentrifugoetarantz barreiatzen banau, melankolia deitu dudanak neure erdiko hezurrerantz narama. Ur erabat geldiezinarenean eragina dela uste dut. Hezur hori batzuetan, oso gutxitan, borobil dakust, gehienetan luzanga, lingote txiki bat bezalako, zeina, halaber, batzuetan, mutur-pitzatu dakusdan, beste batzuetan, gaur bezala, ertz gabeko leuntasun. Hezurra da neure izatearen erdigunetzat irudikatzea lortu dudana hurbilkuntzarik aurreratua. Izan dezake muina ere, baina dedukzioz areago, orain bezalako melankoliak jotzen nauenean, zeinaren izaerak dirudien jatorri likidoa edo, gutxienez, likina behar duela. Honen kanal estu eta zelaian ere, ezin naiz gelditasun osoaz jabetu. Arnasaren euste luzea lortzen badut, taupadak nabari ditut. Bihotzaren eten bat lortzen badut, eguzkiak putz dagio urari. Mugimendua hain da subtila, ia subatomiko hutsa, ezen melankolia kasik sentipen plazergarri bihurtu baita, batez ere, bere edukia xehatu dudanean. Une hori, eguratsaren aldarte soil batek eragina beharbada, halakoa da non amaiera bat usnatzen duzun, hurbila ez dena, hori tristura bailitzateke, baina urrunena izan daitekeena. Kontua da, bat-batean, amaiera baten zain aurkitzen zarela, jubilatua baten egoera bailitzan. Bizi guztia hartatik borrokan eman duen bizibidea segurtatu zaionean, azkenaren zain jartzeaz beste zeregin noblerik ez dakus, nahiz eta falta zaiona, sarritan, aurreko bizitza kontzientea baino luzeagoa izan aurre-rapenari esker, zeinak zahartzarua lotsagabeki luzatu duen, gaztaroa betiko tokian utzirik.

Beharbada, gandu melankoliko hori ez dagokio hainbeste azkenerantz hurbiltzeari, gaztarotik urruntzeari baizik, zeinaren erreferentzia guztiz direktoki bizi duen, eta azkenarena, aurreikuspen analogikoz bakarrik. Flotazioan igel hila bezain geldi, abstrakzio totalean ainguratzeaz naizela ere, ezin naiz uraren ukitu porosoa sentitzetik libratu. Iritsia ote naiz zain egoteaz beste funtsik ez duen arora, nahiz aro horren hasiera jaiotzan ere berdin koka zitezkeen? Ezin naiz borrokatu doan eta mukuruz ematen zaidan bizibidearen alde. Eta, batez ere, ezin naiz inoren aurka borrokatu. Biolentziabide oro ezabatu zaidanean, iraupenerako printzipio gabe aurkitzen naiz, turbo faltan bezala, eguna inbentzio jostariekin bete beharrez. Zer izango da jolaserako gogoia joan dakidanean, hori kausa duin bat izan daitekeela



emanik? Orduan, melankoliatik jaikiko naiz, oraintxe dagidan moduan, eta, neure burua murgil braustarietan astindurik, berriz frogatuko dut lege dohatsu bat (horretan ez naiz aldatu izaera zaharretik, non gizakiak bizi guztia zeraman bere buruari beti gauza berdinak frogatzen), kanal honetan egia bihurtzea lortu dudana: urak daroana urak dakar. Bai dela ederra bizitza, bere funtsa inorekin debatitu behar ez denean! Eta pentsamena unibertsoaren zentzua zelakoan egon ondoren, ederren munduan bakarrik gelditu naizenean, alferrik pentsatzea. Jadetsi dut pentsaketaren edertasun purua: pentsatzen ari naizela ohartzea. Egintza da baliosa, ez edukia. Haragoko ondorioak antapararen hegalaria hurbildu zaizkidan apoen saltoak bezain ezdeusak dira. Edo bikainak, baina maila berean. Zer egin dezaket, bufonido horiek –bai izen xarmanta!– hunkitzen banaute? Batez ere, ilunkera samurrean kantatzen hasi direnean: *Hik jan dok aparirik? Ez! Hipez? Nipez! Nok ez? Hapez? Hik ez? Nipez!...* (Nork ez, nik be ez, hark be ez, hik be ez).

Ez dakit sari ala ondorio gisan, fantasia noizbait burutu honek merezi zuen beste kontsumazio bat, erraza baina ez gutxiago zoragarria. Egun batzuetan, kanala beterik ukan dut, sarrera ere itxita, ibaiagaz kontaktua mozturik, ura otzanago, gizakoiago gorde zedin. Iluntze batez, ibarra luzetara zeharkatzen duen bidegorria ibilera kasik kontenplatiboan oinkatu ondoren, Oiz barrenera itzuli naiz zenean, eguzkiaren argia, denbora laburrerako dela jakinik, gailurrei atxiki nahi zaienean, kanaleko ura epel-epel dago, ezin egokiago, biluzik etzan eta igel hilarena egin dezadan, agian kuluxka gozo eta guzti. Ingurua, tontorrek barne, itzalpetu denean, airetxo epelak *neu be banabil* dio. *Habil, habil* –diotsat–, *azala ferekatuz bakarrik, inon bereziki gelditu gabe*. Nire ahalegin bakarra da konturatzea, ahali kontzienteen, zer ondo nagoen. Ahaleginak laster eragin du logura samur, flakzido bat senti dezadan. Lo osoa ere laster bildu da, hainbeste irudi eta pentsakizunek betazalen kontra jo ondoren era guztiz inkonexo baina lasaian, inolako bortxa gabe, lantzean euretako batek arnaskada eraginez, beste batek murgil-sentipen fetala. Azkenean... eten-puntuak ere ezabatu dira, eta plof.

Erdi itzartu naizenean, gorputz geldia barrutik ari zela sumatu dut, hezetasun hedatua bildu nahirik bezala. Neure kontzientzia ameskaran, masturbazio olinpiko bat burutzeko une aukerakoa litzatekeela otu zait, desiozko uhin toraziko bat nabari baitut, uraren sabel barrerako kilimekin batera. Nire konortea ez da ohartzearaino iristen zakila kanaletik kanpora zer dagoen ikusguran tentetu dela. Sen sakonen batek, irreflexo batek erabaki dit ez dudala masturbaziorik probokatu behar, gorputzari nahi duena berez-berez egin dezan utzi baizik. Mugimendu internoa, pasiboa izan behar du. Eskuek nekez osatzen dute lan kompletorik, bizio asko kontrol gutxi, eta bihurrikeria mental gehiegi baitute: lorrina, indekoroa, infidelitasuna, eskrupuluak, ridikulua... Geldi, beraz, eskuak! Ezer balitz, harrapa nazala be-

rak, neuk tiratu gabe. Uste dut harri-lo nagoela. Ez dakit ur epela barrura sartzen ari ez zaidan. Itzarrrik nagoela ere esango nuke, zaldi zuri gainetik jaisten ikusten baititut Courbeten *Biagoa* izeneko neska-lagun biluzak, lotan elkarri helduak biak, euren artean sar nadin gonbidatuz. Tokia egin didate erdian, tigre larru itzel baten gainean, eta behinola hartaz eroturik nenbilen piztiaren izaeran inkarnatzena nindoala, hautematen dut neskak euren lesbianismo guztia nire albo banatan iratzartzen ari direla, sustorik gabeko irribarrez, nagiro, suhartasun gabe, egote atsegin hutsean. Neure gelditasun kasik hilkutxatuan, samurtasun hanpakor bat sentitzen dut, barne uhin iraulkor bat bezalakoa, itzartu nahi dut, zerbait handiegia oharkabean joan ez dakidan, lesbiana biek nire gainetik elkar musutzen dute, eta hau gehiegi da hilkutxan jarraitzeko. Bat-batean, hain sakona da barne-uhinaren irrupzioa, ezen arnasa bila luzatu naiz kanal guztira, hala uste neuk, berehala itzartu bainaiz, oraingoan benetan, *zer dok hau!* esanez, eta paparrari lehertzetik eusteko eskatuz. Oraindik loaren umontzitik libratu gabe, kontzientzia difusioan izan ohi den sentizio totalagoan, pasibotasun osoan mantentzen naiz, gertaerak berak estal nazan, astin nazan, nahi duen modu eta indarrean. Irrupzioaren amaiak eskrotoa ahotik jaurtitzearainoko arnaskadak ekarri ditu, zeintzuen baretze luzeak, azkenean, fetoa bezain kiribil utzi nauen, hau ere halaxe, gaixoa, bere amari larrua jotzearen ondorioz, berdin dio homoki zein heteroki.

Kanal epeleko uretan alboz, neuk ere jarraitzen diot plazer olinpikoari, pozik ez dudalako, ekintza brast mozturik, komunera arrapalada prerrazionalen alde egin behar, oherik ez lorrintzearren, emaztearen esku inoportunoa saihestearren, ordezkorearen estimua ez iraintzearren, edo, soil-soilik, neure adimen andeatuaren mamuei eskapatzearren. Jarraitzen diot plazer olinpikoari pentsatuz sena norberagan dagoela, eta ezandarik konpletoena dela senak bere ekimen hutsez eta independentzia osoz burutzen duena. Besteengan estimulua egon daiteke, eta dago, bego, baina une gorenean, begiak ixten dira, baten begi-kliskadak, elkarren musu-janean, bestearen begiak irekita harrapa ez ditzan. *Baina zelan egiten dozu hau begiak zabalik?* Hitz gogorragoak entzun izan ditut, baina haserreagorik nekez. Alferrik izan zen *zeu ikustearren!* erantzutea, hari ez baitzegoen sinetsarazterik itsumen berdinean genbiltzanik. Orain bakarrik nago, garbi-garbi, eta sena neugan dago, oso-osorik. Zer behar dut gehiago, aitortzaile hark ikusarazi zidana bizi-legetzat hartzea oker egin ez banuen? Bere arauzko *'Agur, Maria guztiz garbia'*-ri nik *'pekatu barik sortua'* erantzun ondoren, Benar isilik gelditu zen. Egoera hartan, segundo hutsak leize baitira, aurea hartzea erabaki nuen:

- ☞ *Zeuk esango dozu ala neuk itauntzea nahiago?*
- ☞ *Berorrek itauntzea nahiago, aukeran.*
- ☞ *Librean ala aginduetatik?*

- Aginduetatik, beharbada, baina lehenengo bostetatik ez itaundu ezer.
- Seigarrenean badela zeozer, beraz.
- Neure gorputzagaz daukat afizinoa.
- Besterenagaz zail dagoelako?
- Besteren gorputzak distrahitu egiten nau.

Horrexegatik izango zen euren gorputzari gehiago begiratu behar zeukaten emakumeek bakar-atsegin oparoagoak aurkitzea, beti hortik zer ziztatu zebiltzan gizonek baino. Eskerrik asko, Benar! Gorputza badaukat. Estimulua emango dizkit Courbetek, edo Tizianok, edo Beorleguik, edo oroimen agortezinak. Badirudi artea ere, sexua bezala, norberagan zegoela, baina ez denengan, antza. Nahiz eta errealtatea denek ikusi, bakanek lortzen zuten hura gaituzte. Besteak lorrinistak ziren, errealtatea marruskatzen zutenak. Zorionez, orain ez dut arterik behar, baina sexuak hemen dirau, bere hedapen osoan. Sexua neu bainaiz! Eta gutizko garantian, bakarrik gelditua naizen arren, sen hau ez baita pertsonal bihurtu. Naturari pertsona ez zaio ardura. Arrek arrak hiltzen dituzte, eta makalak ehizagailu gelditzen, emeak barne. Gizartea, horretan, oso 'naturala' zen, bertsio sobera onduan. Naturari selekzioa interesatzen zitzaioela esaten zen. Aurrera espeziea, baina koen gainetik. Esaten zen, baina naturari zer interesatzen zaio ezer, kontzeptua bera barne? Aireak freskatzen, itzala trinkotzen, gautzen ere hasia dela esango nuke, itsutzen ari ez banaiz. Ura oraindik epel, izango ote naiz zutitzeko gauza?

.....

Aulesti Gizaburuagaren mugakide zen, eta gaur ere hala dateke, hantxe pasatzen naizenetan, oroimenaren zorabioak irrealitzen ez banau. Bizkaiaren digunerantz joan-etorbidea bera zen, kostatik itzulingurua egiteko astia edo bihura haizea falta nituenean. Aulesti zeharkatzen zuen kale-errepidea orduan ere ez zen orain baino gutxiago luze eta estu, sotana haizatuak, motorrean, ia alde biak jonez zitzan; eta orduan ere ez zen unerik, atarietako mailetan edo etxe kontretako har mailetan, norbait pasaera ororen lekuko izango ez zenik, hartarako txanda zortizak ezarriak bailiren. Behin lortu nuen, ordurik desorduenan, kalea neuk inorki gabe zeharkatzea (ez nago ziur inork ni ikusi gabe), eta seinale eskatologikoen dardarak jo ninduen. Haietako batean izango zen aulestiar batek esan zuena: *Gaunko abadeak pospoloak balira, hamaika zokotan agertuko litzatekek kea*. Metafora hori intentzio politiko handiagoa (eta maltzurragoa) hartu nion besteari baino: *Gaunko abadeak oialokak balira, txita askorik ez litzatekek jaioko*. Zorionez, banuen berriak habia maite bat, begiraleek ikus zezaten gelditzen ere banekiela. Gelditu nuen, ki, eliza inponentearen aurreko plazan hanka jartzen nueneko, motorra (lamb

gorria lehenik, vespa berdea gero) tarratadan aldenduko baitzen, hura harrapatzera hienak bezala oldartzen ziren mutiko nerabeen azpian. Beti osorik itzultzen zen, inoiz mutiko bat negarrez agertu bazen ere. Baldintza bakarra jartzen nien, besteak alferreko izango zirela susmatuak:

- Gasolina guztia ez agortu.
- Eta hori zelan jakiten da?
- Pospolo biztu bat depositura jaurtita.

Aurpegikera desfasatua jarri zuten, ekintza direktoan dabilen nerabearen adimenari kosta egiten baitzaio sen primarioak irudimenera konektatzen. Gerdaroi aiseegi kendu dioten ehizakia igeltsuzkoa dela deskubritu duten hienak bezala, zeintzuek ez daukaten, gaixoek, suposatzeke ahalmenik gepardoa ere igeltsuzkoa izan zitekeela. Banekien motorra Aulestiko parroko Don Emilioren atalondan eta bere motorraren ondoan utziz gero, handik ateratzen nekez ausartuko zirena, Don Emiliok berak maiz gomendatua zidan bezala, motorra ez baitzen, bere ustez, edonoren esku uzteko trepetxua. Nire zabaltasuna ontasunari baino lotuago zekusen ondasun kostagabeak izateari, lambretta gorria Gizaburuagako familia batek emana bainuen, eta vespa berdea ihes egin beharreko apaizlagun batek utzia, zainari, halaber, Ameriketara joandako anaia batek utzi zion. *Nire moduan* -zioen Don Emiliok-, *urritasuna arraspatuz erositako motorra bahe, ez heunke horren alegre utziko mutilen eskueran*. Ez nion arrazoirik ukatzen, baina bazen dena materialki ez neurtzeko beste alde bat. Orduko bizimailan eta, ondorioz, pentsaeran hain estimatua eta pertsonala zen ondasun bat mutilen eskueran eta nesken begieran hain zabal uztea eurekiko konfiantza agertzeko era publiko bat zen, herritar batzuek erreminez bezala (*abade txotxolo honek desegin behar jeuskuek gazteek lehendik dakarreen errespetu apurra*), gehienek atseginki hartzen zutena, Don Emilio bera barne, nahiz eta hitzez oso neurriko agertu berau herriaren aurrean, sarritan gaizki disimulaturik bazen ere, apropos bezala.

Izen eminente hori herriko parrokoa zen. Adintsu samarra izan arren, gazteria nire esku utzi zuen, hartarako behar ziren eliz lokalekin, aretoa batez ere, non deneriko bilera, ikastaro eta ekitaldi ugari burutuko zen, elizaren harlandu garrantziko kontraforteen arrimura. Lehenengotan harritzen nintzen gazteen elizaz kanpoko jardunbide guztia entregatzeko eragozpenik izan ez zuenak zergatik ez zidan eskumenik luzatu nahi gazteon eliz egintzetan, are gutxiago umeen eta nagusien. Gazteekiko harreman nolabait laikoa segurtatu ondoren, gehiegi ardura ez zidan besteaz ere tematzen nion, tentatzearren bazen ere, argudiatuz ezen kristatekiko harremanak orokorra izan behar zuela, garapena orekatua izango bazen. Nirekilea eta bera dialektiko kasik deportiboa zenez gero, luze jarduten genuen ho-

rretaz eta zernahitaz, eta laster ohartu nintzen (*ah, barrabana! nik baino malezia handiagoa daukazu zuk!*) elizgintzan ez zuela nahasterik nahi, herrigintza aurrea zihano. Haren prudentziak ez zion hainbeste begiratzeko lerro bereko mugimendu egokitasunari, edo lerro ezberdinen elkarlotzeari, separazioari baizik, halako eran non pentsatzen baitzuen herri-ekintzak eta eliza-ekintzak, agerian jarkitzen ez zireno, hobe zela ahalik bereizen ibil zitezen.

- *Niri konplikaziorik ez ekarri. Heu konpondu hortik.*
- *Ezkonduek elkarrri gomendatzeko aholkua dirudi horrek.*
- *Gomendatu beharrik ez daukiela esango neukek, konfesinoa guzur lehiaketa baten ez bada.*
- *Gizonezkoen izaera putanerra da, izan be.*
- *Andrazkoak be ez jabilzak hemen ideia faltan.*
- *Natura orekan dabil, beraz, ibar honetan.*
- *Eskerrak arriskuak saihesteko metodoetan ez dabela askorik aurreratzen.*
- *Horrek esan nahi dau lantzean sermoitxo bat Aulestiko elizan egiten niri utzi arren, ez litzatekeela kanpantorerrik lehertuko.*
- *Ez, ez, ez! Hik jarraitu heure antzerkiekin eta historiekin. Eliza barrukoaz neure arduratuko nok, hor jente klase asko sartzen dok eta.*
- *Gizaburuagan, bakarra dela uste dot elizarik zapaltzen ez dauena. Amoroton ez dakit, zabalagoa be bada eta.*
- *Hemen badozak batzuk, baina horreek eta sermoian lo egiten dabena ez dozak arriskutsuak.*

Lerro ezberdinen arteko separazioa esan dut, baina, beharbada, gerran ibilia eta kartzela ere jasana zen Don Emiliok nahiago zuen aro hura eta osteko beldurra ezagutu zutenei bakean utzi, haiei eragiten saiatzeari alferreko zeritzolako baino gehiago (*mogitzekotan, irabazleak bakarrik mogituko jakuzek!*), galtzal-leekiko erruki nebuloso bat nagusitu zitziolako, gogoen posizioa detektatzea ere ez baitzen samurra, alde bietako gutxiengo nabarietak izan ezik, bata jauntxoak, bestea odolberoa. Serioan hitz egiteko, gerra terminoak maite baitzituen, susmoa neukan abangoardiatik erretagoardiako tartea handitzea taktika ingeniosotzat hartzen ez ote zuen, atzea zenbat eta loago, aurreak errazago ihes egin ahal bala bezala. Horrelako subtilitate bat herri nahasi eta konbibente batean nola lerratu zitekeen eraso nionean, tonu genesikoan aldarrikatu zuen: *Hori dok, ba, dōhāl dibinoa! Errebeldea izatea alperrik dok, errebeldiaren teknikak jakin ezik.* Parrokian sarbiderik ematen ez zidanak ez zuen pribatu nahi, ordea, auzo aparteetako baselizetan predikatzen uzteak nolako erreakzioak zeragitzan ikusteko atseginitik, behinolako errebelazioak mendietatik behera bezala, subertsioak ere tximisten erreinutik jaistekoak bailiran. Ni pozik. Kalean, gazteenganako irispidea banuena,

goietako esperientziak oxigeno-zerbitzuak ziren, neure jatorriaren eta izaeraren luzagarri.

Aulestiko gazteriagazko jarduera nagusia antzerkia zen, eskualde hartan indarrez garatu zena. Antzerkiak osagai guztiak zituen, garaiako euskal eta abertzale kontzientzia handikorrari armazoi sendo eta deigarri bat eskaintzeko. Lehenik, euskararen erabilerak hizkuntzaren sena eta lanketa zeragien, ohiko hiztunak izan arren, eskolak euren hizkuntzan analfetismora behartzen zituen gazteengan. Pasarte kantatu ugari antzerkia hautatzera jotzen genuenez gero, kantua ere landu behar zen. Aulestin, nesken artean batez ere, kantu sen handia eta kantari onak ziren. Antzerkilari, kantari, koro, prestatzaile, dekorazio eta gehigarri, antzerki batek parte-hartze zabala eta luzea eskatzen zuen. Ia gazteria oso baten harremana eta antolakuntza. Antolakuntza hark hitzaldi eta ekimen lagungarriak ahalitzen zituen, baita bestelako ekintza paralelo ugari ere. Emaizta, gero, artean telebistatik eta antzekorik ez zegoenean, herriaren atsegingarri izaten zen, partaideenganako etxekotasun eta txerak areagotua. Txiki eta handi, herri-geruza guztiak jotzen zituen ekintza zen. Azkenik, eta ez alderik gutxien aberatsena berau, emanaldia beste herri batzuetara eramateko eta hango ekimenak ekartzeko era natural bat zen, herrien arteko ezagutza eta urrungo gazterien harremana zabalduz, dena ere euskal kontzientzia baten eta sen politikiko geroz kontzienteago baten oldarrean, eta zergatik ez, gazteek hain maite duten dibertsioaren pozean.

Problemarik ez zen falta izaten, noski, norbanakoen entregu eta kontzientzia maila hain ezberdinez eta, sarritan, bateragaitzez gainera, herriko indar 'bizikiak', hots, beste era batera bizitzen ez uzteko ardura goitarra zutenak, mugimendu edo nobedade oro berehala susmope inplakablean jartzeko gertu baitzeuden. Hain arriskutsuak ziren lerro etsaiko militante konsekuente haiek oso baliagarriak ziren, bestalde, posizioa inbertiturik, gure militanteen imitagarritzat estudiatzeko eredu praktikoa argia eskaintzen baitzuten. Denboraren buruan, zailtasun ukaezin haiek sailkatzeko nagieria mental larriak jo ohi nau, sentitzen dudalako, seguruenik, abantailosena zehar-gomuta orokor bat dela, zur nobleen ebakera amorrarazi zintuzten adabegiek, gero, altzari urtetsuan, edertasunaren nabarmengarri atzematen dituzunean bezala. Adabegi haietan, sudur bat bereizten dut argi-argi, erpinean gorri, hobi beltzak eta bilotsuak irekitasun suminduan. Mendi-ermita batean, zutitu eta sermoia moztu zidan, uluka:

*Horreek entzutera etorri gara hona?*

*Ez dakit zuk zer entzun nahiko zeunkeen -erantzun nion urduri-, baina neuk gixien nahiko neukeena da zuri derrigorrean entzun eragitea. Zorionez, barruan baino kanpoan leku zabalagoak dagoz, eta erremedioa ez da gatxa, denen konfor-*

mitaterako.

– *Inork ez deust kanpora-biderik erakutsi beharrik, neu egitera nindoana beraganako obedientziagaitik izan den itxura emoteko. Egingo dogu berba, behar den lekuan.*

– *Eskertuko neuke* –gonbidatu nuen entzuleria, hura bazihoala ikustean–, *gustura ez zagozeen guztiok bere konsekuentzia imitatzeko zintzotasuna bazendue.*

– *Zergaitik gonbidatu behar izan dau berorrek jentea nire atzetik urtetera?*

–eraso zidan gero kanpoan, ia paparretik helduta, aipatu adabegiko sudur sumins duagaz, ez dakit jarraitzaileen urritasuna barregarriro nabarmendu zelako (beste hiru irten ziren), ala, kasu hartan, diziplina falangistaren aplikazio mekanikoegial bere exhibizio protagonikoa desluzitu zuelako.

– *Zure erabagia benetan be imitagarri begitandu jat* –erantzun nion ahalik adiskidekorren–. *Halan be, hau guztia, zeuk esan dozun moduan, behar den lekuan berba egiteko utzirik, ez al dozu uste orain egokiena erromeria gozatzea litzatekeela?*

Falangeko ordezkari komarkal haren sudurra bezala, begiak, bekokiak, belarriak ere bereizi ohi ditut neure gomuta altzarituetan, halako alkate kirten, maisu kuarteleko, parroko sabelkoi, kapitain kanpeadore, kontrabandista konfidente, bankari xantaiari eta abar. Sarritan, identifikazioak errotatu egiten dira nire gogoan, adabegi berak nortasun ezberdinak hartzen dituela, bat-beratasun finkoak biolentzia originala aktualtzeko arriskua balu bezala. Ez da neure meritua ere, oroimena bera arduratzen baita irudiak komeni zaion erara (egoismo positiboan, alegia) ordeztzen, bizitzen, iluntzen, bera arduratzen den bezala Aulestiko gazteriagazko harreman intentso eta jorantsu hartatik alde atseginak bakarrik selekzionatzen, mingotsak orotasunaren hondartzat gorderik. Hauek ere hor egongo dira nonbait, halako ospea damaioten eta neuri bost axola didan sakontasunean, espezialistaren batek, psikologia huts egiten has dakidanean, alde mingots horiek irabiatzeko esperimendu suizidagarria egin dezan zain. Nahiago dut mutikoen motor-abenturak gogoratu, edo mutilen astakeria nobleak, edo nesken errepedeko enkontruak. Hauek, beharbada, xarmagarrienak.

Lekeitio aldetik Aulestira heleran, bazen eta bada zuzen luze samar baten, udako egun argitsuetan batez ere, errepedeak, eguzki jaistunaren intzidentziak, ibai dirdaitsua ematen zuen, eta non, lambretta gorriak azken bihurtzetik zuzen hura afrontatzen zueneko, neska taldea, goitik behera pasioan, bidea betean agertzen zen, edo taldeketan luzatua, ibaiaren dirdaia sobera justifikatuz. Lambretta gorria berez hasten zen astirozten haiengana hurreratu ahala, zeintzuek, halaber, motorra geratutakoan, abanikuan inguratzen ninduten, nora nindoan, hurrengo bilera noiz, edo azken berriak zeintzuk ziren galdetuz. Berri horietan, bazekiten fantasiak ere tartekatuko zirena, zeintzuek hamabostetik hamazortzira bitarteko

neskato haien gogoetan hainbeste arrakasta izateak batzuetan kezkatzen ninduen, umetzat hartzen nituelako irain zitezen beldurrez. Trafikoa artean mehatza baitzen, errepedea luzaro okupatzen genuen, haiek bidea libratzeko presa gabe, eta ni halako enkontruagatik edonora berandu iristeko prest. Lehenengo bizpahiru aldietan, haien parean geratzea neure erabakia izan ondoren, berehala hartu zuten bide erdian eskuak goraka plantatzeko atrebentzia niretzat zirraragarria, barreneko bihurtgunean sotana beltz bati lambretta gorriaren gainean erreparatzen zioteneko. Inoiz, oker ere bai. *Ai, amaaa! Hori ez don bera! Arlegiko Don Paskas.*

Haizeak bidea betean astintzen zuen soineko oihaltsu hura utzi eta gero ere, lambretta gorriaren edo ondorengo vespa berdearen gainean zer zetorren igartzea ez zen zaila, urrundik hasten bainintzen sigi-sagak delineatzen, aurrera pasatzeko bitartea nondik irekiko bezala, zerak bide-mozleak piña estuagoan jarriarazten zituen, esanez bezala: *Ofizioak ez deustu ballioko hemendik pasatzeko, espiritu bihurtzen ez bazara.* Nik, jakina, orduan ez neukan espiritu bihurtzeko gogorik, eta azkenean, ustez zisneki, agian antzarki, derrota aitortuan errenditzen nintzen fatalitate xarmagarria. Haien begirada direktoa eta konbergentea zen, gardena eta entregatua esango nuke, suposatzen baitzen nigaz ezin zela izan sentimendu sentsualen beldurrik, nire adineko edozein mutilegaz kontrakorik ezingo zatekeen moduan.

Neu ere banintzen, noski, zernahi sentitzeko gauza, baina horrek ez zuen eragozten neure erabakia eta distantzia gorde nitzan, nahiz gozamen mentalari biderik moztzen ez ahalegindu. Distantzia gordea gehiago zen morala fisikoa baino, motorra jan beharrean inguratzen baininduten, halako naturaltasunez ezen, batzuetan, kezkatzen nintzen gertatzen ziren ukitze inebitableak ez ote ziren neure ekimenezkat ulertuak izango. Bestelako sentsazio nahasi guztien gainetik, banuen argitasun inplakable bat, ezusteko ondorioen beldurrak blindatua, zorotasunak bakarrik hauts zezakeena, ezen ezin nintzela haien xalotasunaz baliatu, ukitze ridikuluetan abiatzeko. Egia da, pentsaketa hauen guztien artean, euren pentsakizun posibleak ere xehatzen nituela, euren gogoen nirearekiko korrespondentzia imaginatua gozatu, egiazkoa ere izan zitekeena, bestalde, nahiz eta, beti ere, burutze ezinezkoaren mugetan bakarrik. Hain hurbiltasun zuzen eta keletibo hura bakarrik zen posible haragoko interes ororen ezintasun konfiatuan, hainbestearaino ezen ez baitakit, dena jota, harremanik desiagarriena bera ez ote zen, oroimenari betiko gordetzea gustatzen zaion emaitzan, behintzat. Baldin egintza baten edertasuna bere gertatze mugatutik baino oroimeneango jarraipenaren kalitatetik neurgarriago bada, hamaika engainutatik libratzen deskuidatu izan naiz inteligentziaren alde.

Neska haiek sumatzen zuten, gure ekintza-lan gehiago-gutxiago bilatuez

harago, mutilekiko harremanaren zubi leial bat nintzela. Adin oraindik babesbehartan, nire bitartez lortzen zuten hurbiltasun baretua ia pentsaezina zen eurak euretara nahastean, ausartzen zirenean. Batzuk errazago eta jareginago hurbiltzen ziren, motorraren gidoin, galga, kable (*hau apurtuta dago*), argi, poltsa (*hemen zer dagoazu?* – *guardia zibilaren exzitarriak*), parabrisa eta ertz eskuragarri guztiak haztatuz (ukitu pertsonaltzat hartzen nituenak eurok, zirrara eta guzti), eta baziren beste batzuk, beti oste-joera zutenak. Nahiz eta jakin jarrera horren esplikazioa naturalena lotsortasuna zela (interesik eza ere izan zitekeen, baina interpretazio horrek ikaratu egiten ninduen), ez zitzaidan bat ere kostatzen bertso paraleloa garatzea ezen saiheskera hura (*belarri ondo erneekin!*, ulertu nahi nuen) autobabes subtil bati zegokiola, begirada direktoak sentiera grinatsuago bat sala zezan beldurrez. Denboragaz, interpretazio kasik bakarra beratu, seinale guztiak nire gogoan ondo egokitzen baitziren esplikazio horregaz. Herriko ordenazainak maiseo herratsuan imaginatzeak (*ikusten abade txarri hori neskaz inguraturik?*) egoerarik intentsitate belikoa eransten zion, nahiz eta okasioa oso joankorra eta informala izan.

- *Atzo be pasatu zinen hemendik* –batek.
- *Gizaburuagan ez dago ezer eta!* –beste batek.
- *Et! Gizaburuagaitik ez niri txarrik esan, eh!*
- *Egia da Zeanurira goazena antzerkilari?*
- *Eurak etorri badira, ezingo gara gitxiago izan* –nik.
- *Honek uste dau Zeanuri Mutrikutik dagoela.*
- *Heuk badakin Amoroto non dagoen?*
- *Et! Amorotogaitik be ez nire aurrean txarrik esan, eh!*
- *Kakapurko abiadorea.*
- *Hori Bermeon ez don?*
- *Lekeition Ez dok Amairu.*
- *Eta Ondarroan Hogeitamalau!*
- *Zuk non lo egiten dozu, Gizaburuagan ala Amoroton?*
- *Bietan* –erantzuten nien–. *Batean oheratu, bestean itzartu.*
- *Jmm! Jmm?*

Denek zer baita eta zernahi esan beharreko burrundadak talde inguratzailea orokorki bakarrik ikusten uzten zidan, eta zoragarria zen, noski, baina banan-banan ere begiratu nahi nien, hain hurbil, betileak kontatzeko moduan, hain zuzenki, bi belarri-gingilak batera ikusteko moduan. Laster ikasi nuen galdera bakandua egiten.

- *Zure neba pilotaria zertan da, Josune?*

- *Oh! Ha ez da galduko. San Joanetan etorri zen, baina...*
- *Zuk ez al zeunstan esan, Kati, aste barrua Bilbon egiten zenduela?*
- *Bai, baina orain familia be...*

Nik galdeturik, lagunak errespetatzen zuten erantzunaren txanda, eta niretzat obligazio txit gozoa zen begiz begi entzutea, eta egia zela konprobatzea hala izan zedin desio nuena, hots, arduratsuenak eta kezkatienak zirela neskariak guaiarenak. Ondorio horren konprobazioa beti alde ateratzen zitzaidan, baina ez nago ziur, balorapenean, desioak ez ote zuten objektibitatea manipulatzeko. Kontua zen, ordenazainen amorru trinkoagorako, ez nenbilela '*neskaz inguraturik*' bakarrik, baizik, neurekiko, '*neskarik ederrenez inguraturik*'. Izorra zaitezte!

Aldi berean, neure barne lotsaren sekuentziari ere jarraitu behar nion, nire pentsakizun inberosimilak denen agerira irtenda agertzen baitzitzaizkidan. Batzuetan, sentipen guztiz egiazkoan, gogo-dardara abismala eraginez. *Ene ama! Hau ridikulua! Zelako txarritxoloa nazela pentsatu behar dabe honeek!* Gehiengotan, neuk paraleloki neraman transposizio gidatuan, arriskuaren zirrara eta guzti. Eta, beti, konplexutasun bizi hura guztia neure galeria mentalean jokatzen zelako segurantzana. *Hau ete dok sentsazioen pilaketa mistikoa?* galdetzen zuen tarteka. Neure kontzientzia, bere barnetasun inpenetrablean, sentsazioen multzo guztiaz argiro ohartarazi nahi nuen. Hori ere aldi berean eta burruntzi eran egin nahi bainuen, hots, gertatzen ari zen guztia kontzientziaren inguruan biratuz, ezer inkontzientzian ezaba ez zedin. Izan ere, pentsatuak ez diren sentimenduek ezer gutxi aportatzen baitute, sarritan atzetiaz konturatzetik eskarmentatu naizen bezala. *Igarri barik joan jat!* Denbora jakin batez edo denbora orokorraz esan ohi dugun horrek '*oso bizkor*' joatea esan nahi badu, bego. Ez dauka erremediorik. Tamalgarrria bestea litzateke, '*benetan igarri barik*' edo oharkabean joan izana. Horrelakoa denbora inexistentea da, sortze aurreko eternitatearen luzapen edo hila ondoko beste eternitatearen aurrerapen. Zertarako balio dit heriotz egoeraren edertasun idealak, bere oharmen txikienik ez badut?

- *Beno, neskak, kran-karran-karran, utziko al deutzazue motortxo honi aurrera egiten, inor zapaldu barik?*
- *Ez, gero kalean mutilekin geratzeko bada.*
- *Ez da geratuko, kran-karran-karran. Pare bat zeuen partez zapalduko ditu, eta aurrera, kran-karrann-karrannnn... –Zer polita zen lambretta gorri hura!*

.....

Aulestin, Markinan, Ondarroan, Lekeition, Mendexan, Munitibarren, no baiten borondateari esker lortu behar nuen sarbidea. Gizaburuagan eta Amoroton neu nintzen jabe eta erantzule. Lehenengoan bazen, elizaz gainera, areto eta guztiko abadetxe bat, luzatzeko penaz zabaltzen zen palmondo batek zaindua, eta bigarrenean, bi abadetxe eta arte milenario bat, zeinaren azpian behinolako abadeen neskame, arreba edo ilobak (emazteak ere nork jakin) kartetan egurasten ziren, egosten utzitako esnea usainetik zaintzen zutela. Bi herriotako eliza, abadetxe, ermita eta gainerako jorik, baziren dozenatik gora giltza, niri erreinu ez hain txiki baten aginte sentsazioa bezala, txapelokerrei amorru konparatiboa ematen zietenak, eurek, numero soilen kasuan behintzat, armaren katuaz beste mekanismorik ez baitzuten. Denak ez zegoen beti aldean erabili beharrik, baina inoiz gertatzen zen dozena erdi baten multzoa motorraren poltsan. Eliz eremuko giltzak, hain astunak, ez ziren sakelari erraz eramatekoak, burdina sobra zebilen garaian eginak edo. Usterik gutxienean alto ematen edo kuartelera deitzen zuten guardia zibilak, berriz ez ziren erraz konformatzen zerbaitek susmagarria aurkitu arte, edo zerbaitei susmoa ezarri arte.

- *Poltsa horretan zer daramazu?*
- *Ireki egin behar al da?*
- *Egizu mesede.*
- *Saiatuko naiz, kremailera honek ez baitu edonoiz ireki nahi izaten.*
- *Giltza askotxo dakust hemen!*
- *Bi herri darabiltzan abade batentzat, dozena-erdi ez dut uste hainbeste direnik?*
- *Hauek ez dira lehengo egunekoak.*
- *Nik baino memoria zoliagoa daukazu.*
- *Nongo giltzak dira hauek?*
- *Abadetxeakoa, aretokoakoa, logelakoakoa, handien hau elizaren ate nagusikoa, korukoakoa, organoarena, hezurtegikoakoa, kanpandorrekoakoa...*
- *Zerukorik ez dago?*
- *Hilerrikoa daukat, nahi baduzu.*

Ganbarak ere baziren, kuadrila handiek lo egiteko modukoak, zakueta zoruan zein literetan. *Mendizabalen amortizazioak gixiegi kendu eutsen horreei*, nentzuen ziola abadetxe sar-irtenaz erretxin zebilen argi-kobratzaileak, argitan ere hain gutxi gastatzeaz errezelo pintoreskoak egiten zituenak. Bi hilez behin etxerik gehienak korrituz (argigabeak ere baziren), hiru herri gehiegi ezagutzeko lanbidea zeukan gizon txiki baina bizkor hark, nahiz eta betazalak logura antzean jausi, lehenengotatik harritu ninduen, ez hainbeste, astegun soilean, praken gainetik abarka-galtzerdi belaunetarainokoak janzen zituelako, baizik, hanka bata, bi kordelak ronboetan gurutzatuz, dantzari erara igotzen zitzaion bitartean, besteak,

kordel bakarrean, zutabe salomoniko baten miniatura zirudielako, hamazortzigarren mendeko gortesaren bat gogoan. Oinetakoak eta betazalen espresioa hain biziki nagusitu dira nire oroimenean ezen, bitarteko detaileak ezkutaturik, irudi osoa gorainoko abarka-galtzerdien gaineko betazal loguratu bat baizik ez baita kasik. Argi-kobratzaile hura, guardia zibila bezala, abadetxe sar-irten gehienbat gazteaz arduraturik zebilena, esku luzatua nola erretiratu ez zekiela gelditu zen, nire propina bere ustez handiegia errakuntza izan zelakoan. Goiz hartan umore bereziki onez nengoela esan nion, bere gogoaz kontra *zergatik?* galdetu beharrak aurpegia nola txakurtzen zion ikustearren. 'Txakurtu' diot, ez zantarragatik, abere horiei senak hartarako prestatu ez zituen ezusteen aurrean ateratzen zaien keinu pailazoagatik baizik. *Esango deusut, ba, zergaitik, konfesinoko sekretua be ez da eta. (Gauza honek badaki berorrek isilik gordetzekoak direna, ezta?, esan ohi zidan berak, nire sentiera politikoa irainduko zutela uste zuen bere 'gaizki-esateak' aitortzen zituenean, nahi zuen erretolika guztia bekatu gisan entzunarazteko aukera baliatuz). Etxe honetan gazteak bakarrik sartzen zirela, baina, oraintxe oraintsu, ez dot bisita makala izan, zuk dagoeneko jakina izango dozunez. Edo elizaldeko pasaera amaitu aurretik seguru jakingo dozunez, erantsi nuen berehala, esplikazioetatik libratzearen, jakinik 'ez dot ezer entzun' zin egingo zuela, egiaz zein gezurrez.*

Goiz hartan, abadetxea bereziki garbi zegoen (garbitu zidaten, argi esanda), bisita solemnea itxaroten baitzen. Eskualdeko gotzain-ordezkariek, pare bat laguntzaile kanonikoz inguraturik, erregistro-liburuen urteko sinatze arauzkoa formalizatu behar zuen. Taxia errepidean utzirik, astiro-astiro jaitsi ziren abadetxerako arrapalan behera, bazterrak begiekin adoraturaz, batez ere, gerri asetikoko baten gainean, bitzta zeruan desplegatzen zuela iruditu bide zitzairen palmondoan. Atarian itxaron nien, ni ere neure lekuaren jabe. Elkarri bostekoak emanik, barrurakoan apaiz-kapela beltzak erantzi zituzten, etxea buruen aski babes baitlitzan. Lepagora zuriaren firrindaz beste beltzasun orokorrean (neue ere artean sotana zengoen), gotzain-ordezkariearen zapaten distira nabarmendu zen. Pasilloan zeharreko hitz bareak eta adeitsuak apur bat mozturik gelditu ziren, aurreko urteetatik zezaguten bulegoa logela bihurturik aurkitu zutenean. *Beste gela biekin areto bat egitea pentsatu dogu, umeentzat batez be - Hara!*, hots egin zuen doi-doi gotzain-ordezkariek. Mahai gainean jada zabalik zeuden hiru liburuen gainera (jaiotzak, heriotzak, ezkontzak) makurtu zenean, eskuan luze zekarren urte koloreko idazluma, *urrezkoa ete dok berori?* pentsatu nuena, airean gelditu zitzaion, nora ezean, eskolan paperezko hegazkintxoak jaurtitzea gelditzen genuenean bezala, maisua begira zegoela sumatzean.

*-Baina... -Perplexutasunaren terminoak ezin lotuz, azkenean, asmatu zuen-. Haur*

*euskaraz dago!*

- Bataioak, hiletak eta ezkontzak ofiziatu dodazen moduan.
- Eskatu al deutzazu gotzainari arautegia hausteko baimenik?
- Ez dot pentsatu ezer hausten nebanik. Sakramentua bera euskaraz jator burutu bazen, erregistro soil bat ez al neikeen hizkuntza berean egin?
- Aurreko erregistroak ez al dozuz gaztelaniaz ikusi?
- Horreek sakramentuak latinez zirenekoak izango dira. Orain, elizkizun oro ama hizkuntzan onartua denean, erregistroek zergatik ez dabe arabera izan behar?
- Nik ezin dot hau sinatu.
- Jainkoak sinatuko leuke.
- Erregistroak ez dira Jainkoarentzat idazten, beharkizun mundutarrentzat baino.
- Nork erabagi dau euskaraz ezin dauela munduko beharkizun izan?
- Ezin dot eztabaidan jarraitu. Bialduko dot txostena gotzaindegira, eta izango dozu beharreko oharpena.
- Neuk be azalduko deusat herriari zure jokaera, eta izango dozu beharreko jizgu. Eta zuek -laguntzaileei-, sinaketaren lekuko zentozeeen moduan, ukoaren lekuko be egingo dozuela itxaroten dot.

Laguntzaileak ahalik hitz gutxien egiten saiatu ziren, etxearen arkitekturari buruzko iruzkin distraktibo batzuetatik aparte. Adeitsu eta paternal sartu zen gotzain-ordezkarria, gizaseme ohartuki lerdan eta lerdan zaindua bera, serlo eta apur bat desitxuraturik, pasillo estuaren alboei sorbaldaka bezala irten zen. Kanpoko aireak eta argitasunak berreskuratzen lagundu zioten gailentasun hierarkikoagaz, taxian sartzea estimatu zuela iruditu zitzaidan. Baldin sakramentuen balioa, ezkontzena, adibidez, formalitate horren gorabeheran bazegoen, inor ez zen ghiago nigana etorri erregistroak sinatzera.

Horrelako eta antzeko beste errebeldia batzuk tarteko, Bizkai guztiko abade multzo handi bat azterketetara deitu gintuzten, Bilboko gotzaindegira. Autoritatea non zegoen gogoraziz batera, gure zuzentasun teologikoa eta moralak ebaluatu behar zen. Oso azterketa dibertitua izan zen, bere laburrean. Lehenik, azterketaren aurkezlea erdalduna zela ikusirik, zaintzaile euskalduna eskatu genuen. Bilboko gotzaindegian kargudun euskalduna eskatzea kabaretean tximeletoi delitzea bezala zen, zeren, euskaraz bazekienik izatekotan, ziur haren meritu erabakigarri bat bere hizkuntza otzanki sakrifikatzeke borondatea izan zela. Zaintzailea hartu zen eskariak. Egitekoa idatzia izango zenez gero, bitarteko euskaldunik zertarako behar genuen hark galdetean, azterketa euskaraz egin nahi genuela adierazi genionean, lapikotik eskapatzen hasitako marraskilo egosiei bezala begiratu zigun. Idazten hasi bagina, hura ez zen, seguruenik, ohartuko zer hizkuntzatan ari ginen, baina ez ginen alferrik ekiteko bezain finak, errefusatua izango zela ziur gendun.

lan batean. Joan zen, etorri zen. Goragoko arduradunak eskatu genituen. Baten bat agertu zen, sotanaren lepo eta botoi gorriak zituen, baina hortik gorakorik ezin zen lortu. Gotzainagaz audientzia eskatu genuen. Ez zegoela gotzaindegian. Guk baietz, bazegoela, auto episkopala (mercedes kolosal bat, Aldundiak oparitua) eta txoferra atarian ikusi genituela eta.

*Orduan, ezin dogu azterketarik egin?*

*Euskaraz ez.*

*Orduan, bertan egon behar dogu baimena etorri arte?* -Ikaratu ziren, okupazio mehatxuren bat ote zen.

*Gotzaindegitik urten egin behar dozue.*

*Agindua ala gonbita da?*

*Gonbita, noski, Kristorengan anaia garenoi jagokunez.*

*Gonbita bada, nahiago dogu deklinatzea.*

*Agindua da!*

*Horrela bai. Hurrengorako, ikasi ordenak zuzen transmititzen.*

Aurretiaz pentsatua genuen Alde Zaharreko jatetxe tipiko batean, hamaitakoko gozatsua egin genuen, jada popularituak ziren *Ez dok Amairu* eta beste kantari batzuen doinu eta guzti. *'Eliza pobrea'* kantatu eta sardina erreak jan, ardotxo alaiagaz.

Taldean ikusi ezin izan genuen gotzaina, otxagabiar Pablo Gurrpide, gorputzez kokkor bezain gogoz frankista gotorra, bakarrean eta beren beregi aztertzaille izateko pribilegioa izan nuen, beste okasio batean. Aurretik ere izana nuen iharegaz uste gabeko enkontru bitxia. Bertsolari gisan ere zerbait ibiltzen bainintzen, Abadiñon saio berezi bat gertatu zen, ez dakit zer egun eta zer motibo bitarteko. Ospakizun handia zen, behintzat, Bilboko gotzaina ere, gure Gurrpide inefablea, letortzekoa baitzen. Eta ni bertotara deitua! Meza ostean, plazako ekitaldia solemnea izango zen. Orduan Gotzain baten etorrera parafernalia totala zen, agintari lerligiosoak, zibilak eta falange guztia inguruan zituela, euren uniformerik konpletuenekin. Ohorezko aurrekuaren ondoren, udaletxeko balkoitik, herriko alkateak feta beste norbaitzuek ondoetorria eta gainerako protokoloak burutu ondoren, Gotzaina berba batzuk egitera prestatu zen balkoian. Bere kapa episkopalean bildurik, altuera baino zabalera handiagoa hartzen zuen, betaurreko lentikular beltz eta solideo gorriko burua doi-doi gaunditzen zela eskudeletik. Orduantxe entzun nuen, lehenengoz eta azkenengoz, Gurrpide Monsinorea euskaraz berbetan. Eta bere Otsagabiako "uskara" dotore egiten zuen barrabanak! Oso gogoan dut nola ahoskatzen zuen zeta hizkia (*enzun, zu, bizi...*) andaluzen "ese" antzera. Ez zen gaztelaniaren eragina, bere etxe-hizkuntzaren ezaugarria baino. *Zelan izan leitekerek gotzain txiki*



*hau* –pentsatzen nuen– *bera horren dotore mintzo den euskararen eta Euskal Herriaren hain arerio handia?*

Berbaldien ondoren, bertso batzuk kantatu behar genituen. Aldi berean irrikaz eta artega nengoen, Gurpideren arpegi txunditua imaginatuz, hark ez baitzuen inondik ere itxaroten bertsolarietako bat bere 'abade errebelde bat' izango zenik. Segizio osoa balkoi handian zegoela (bazen han bandera espainolik eta trapi santurik ugari), bertsolariok ondoko etxeko balkoitik ekingo genion. Kantuan hasi nintzenean, Gotzainari begirik kentzeke, haren arpegia, tipula gorri bat betaurriko tridentinoekin, kirikinorantz transfiguratzeko nekusen. Bertsoa amaitzean, *euklik hori!* pentsatu nuen. Okasioak eskatzen zuen arreta eta solemnitarekin osoz entzun behar izan zuen, bai Gurpidekerak, bai inguruko gorte erromatar guztiak. Ez dakit nolako saioa izango zen, baina, lotsagabeak izaten tematu gabe, ziur naiz ez genuela euskara, Euskal Herria eta antzeko kontzeptuak kantatzeko aukerarik galduko. Entzuleek ohiko txaloak jo zituzten, halaber agintariak, gizalegeak agintu bezala, eta gure Gotzain kokorra bertsoak txalotzera behaturik, agian apalduz, ikusteko plazer heretikoa, erotikoa izan nuen. Gero, behean, gizalegeak niri ere neure agintari apostolikoa agurtzea eskatzen baitzidan, atseginez aurkeztu nintzaion, haren erreakzioa bekoz beko ikusi guran.

– *¡Pero, Amuriza! ¡Tambien te dedicas a eso?*  
– *Bai, Gotzain jauna. Berorrek be oso euskara polita egiten dau.*

Hark erdaraz eta nik euskaraz, ez zen oso elkarrizketa humanoa izan, eta gitxiago luzea. Berari ere saio hura gogoan geratu bide zitzaion, geroago ondo baieztuko nuen. Izan ere, Gurpide gotzainagaz beste enkontru pertsonal luze eta tirabiratsu bat izan nuen, Zeruko Argia-n idatzitako artikulu bat edo bi zirela eta. Urte haietan, liturgiako latinetik ama-hizkuntzetarako transizioa izan zen. Gaztelania behingoa nagusitu zen denean, baina euskarari, herri oso txiki eta guztiz euskaldunetan izan ezik, bitarte urria edo hutsa ematen zitzaion. Herri handi samarretan meza bat euskaraz lortzea balentria bihurtu zen, eta lortzen bazen, ordu marginaletan beti. "Jainkoaren hitza norbere hizkuntzan entzun ahal izateko eskubidea", euskararen kasuan, separatismoaren susmagarri bilakatu zen. Euskaldunik gehienek ez zeukaten meza euskaraz entzuteko aukerarik. Orduan, artikulu bat idatzi nuen aipatu aldizkarian, bi baiezen nagusi defendatuz. Batetik "bere elizan edo parrokiaren euskarazko mezarik eskaintzen ez zaion kristauak ez dauka meza entzuteko obligaziorik". Bestetik, eta areago: "Eskubidezko zaila euskarazko meza entzutea beste eliza batera doan kristauak kristauago jokatuko luke etxean geldituta, ukatzen zaion eskubidea bere parrokiak bete diezaioten presionatuz". Ideia horiek bertan garatzen ziren artikulu hark tximistak atera zituen.

Gogoan dut orduan Belgikan zegoen Txillardegiren telegrama bat nola hartu nuen, esanez: "Txundituta nago. Zorionak". Artean ez nuen Txillardegiri ezagutzen, eta 'txunditu' hitza orduantxe ikasi nuen.

Ez zen dena zorion-ematea izan. Eliz estamentuentzat eta elizgizon gehienentzat tesi hura sublebazioa zen, baseko zenbait abade eta fraile aurrerakoik ere nekez irenstekoa. Gotzainak laster abiarazi zituen neurri diziplinarrak. Lehenik, moralari eta zenbait gai teologikori buruzko azterketa oral bat egingo zidan, berak pertsonalki. Gotzain batengan, interbentzio direkto hori guztiz ezohikoa zen. Berria oso pozik hartu nuen. Kontradizio nabarmenago bistaratzeko modua ikusi nuen, lehenengotatik adierazi nuen azterketa egiteko prestasun osoa. Hala ere, gotzaindegitik iristen hasi ziren gutunak bihurtu egiten nituen, euskarazko azalpen batez: gaztelaniaz zetorren ezer ez nuela haintzat hartzen, eta ni jakituntzat gelditzea gura bazuten, oharrak eta zitazioak euskaraz bidali beharko zituztela. Hainbat gorabeheraren ondoren, eguna eta ordua jarrita gelditu ziren. Gaztelaniaz etorri arren, zitazio hura ulertutzat eman nuen. Bilbora sarritan joan nintzen pozik, baina pozago ez dakit inoiz.

Amorotoko arteari *bihar arte* eta Gizaburuagako palmondoari *gauera arte* esanik, San Anton auzoko zuzenean Bilborantz noala, zeruak urdin lizundua ageri du, horizonteetan horiskatua. Sartaldeko mendi arte batetik, gnoemoak bezalako hodeitxo solteak, marroiak goratzen dira, zeintzuetariko bat elfo zimur bat dela esango nukeen, gotzain kokorraren buru exaktoa, erdian balego. Aulestiko kale luzeari *bueltan ez dakit nondik etorriko nazen* esanik, Munitibarreranzko arro estuan, zerua zuriskatu da, larriturik bezala, hor konpon. Gerrikaitzen gora Galarragarantz hartu dudanean, gotzain kokorraren agerpenak eragindako haluzinazio, amilgarri bat ez ote den pentsatu dut, bihurtu itxi batetik irteeran, neska bat stop seinalean aurkitu dudanean. Bera da stop egin didan lehenengoa. Sotanagaz biltzailearen bitartean, inor ez zen horretan ausartzen. Bihurguneraren batean, orain bezala, ezustean agertzen banintzen, eskua eta hatz lodia jausten nekutsen, ez bertikalak, ezustean emanez bezala baizik. Mutilek biratu eta txiza egiten jartzea nahikoa zuten, baina neskena zailagoa zen, bide bazterrean kamamilarik edo masustarik ez bazen. Gaurko hau ere ez zatekeen ausartuko, duela hamabost egunetik 'prakadun' ez banenbil, sotana armairuko antisits bolatxoak elikatzen utzirik.

*¡Kaixo! Nora zoaz?* –galdetu diot tentelki, neure ezustea kokatzeko astia atera guran.

– *Ganbera.*

– *Tiradaxoa dago, baina uste dot aurretik gauzatxo bat jakinarazo behar deusudala. Ni abadea naz, Ganben eta inguru honetan ondo ezagutzen nabena. Neuk*

ez daukat eragozpenik, baina, beharbada, zuk gurago izan zeinke abade bategaz motorrean ikusi ez zaiezen.

– Neu be maistra naz, Ganbeko eskolan. Badakie nondik eta zelan etortzen nazen, eta ez dot uste inork txarrrik pentsatuko dauenik, berori konpromisoan ipintzen ez badot.

– Igon lasai. Hau be beste eskola-modu bat izan daiteke.

Ezetz esan dut, baina ez nago ziur nahiago ez ote nukeen berak ezetz esan izana. Badakit naturaltasun kontrolatu bat (zer ote da berau?) aurrerapena dela, baina ez nuke nahi konpromiso sendoagoak lorrin daitezen, sailhestu nahian nabilen esamasekin. Hala ere, neuk bilatu gabeko eta, batez ere, atzera-bueltarik gabeko egoerak (nola utziko nuen bide bazterrean?) ustiatzeko dohaina badudanez, laster jarri naiz hartatik nahitaez heldu beharra zeukan gerriaren zirrara ohartutik sentitzeko moduan, berak igar ez dezan saiatur, ez dakit nola. Hain hizketa labur eta urdurian, zehatzegi begiratzeko tenplerik ez dut izan, baina oso gazte eta polit iruditu zait, nahiz denak polit iruditzen ofizioan bizi naizen. Burua pixka bat obalatu daukala uste dut, eta azal beilegia; ilajea ere beilegi argia, sorbalden atzetik ezkatatuz, noraino luzatzen den ez jakiteak intrigatzen nauena. Soineko hori-zuri bat, jertse arrosagaz (ekainean gaude), eta zapatilak ere horiak (gaur dena ageri zait horail, horizonteak barne), galtzerdi berdeekin, eskerrak! Poltsatzat, artisau-kapazua iruditu zait, sorbaldatik eskegitzeko helduleku bakarrez, latza eta ahi kolorekoa, ta mainaz handia, ikusi dudanetik bainoago neure bizkarraren eta bere bularren artean sentitzen dudanetik, zeinaren barruan transbistatzen ditudan traputxoak, pinturak, apain-tresnak, eta egunerako jenero astunagoak, esne kondentsatu poteak eta aurrain latak barne. Hori guztia neure analogiatik, noski, zeren nik zer dakit mendi-eskola apartatu batera egun osorako datorren maistratxo batek zer jaso lezakeen katek. Ezker betertzetik, errepide erdirantz begiratzearren, eta beso apropos zabalduaren barrualdetik, hurbil behar duten belaunak begizatzen saiatzen naiz, eta soinekoaren egia da. Motorreko atze-posizioan, belauna agerian ez gelditzeko, soineko luzean behar du, edo oso zabala. Gorputza ahalik gehien aurreratua dakart, bestela ere nahitaezko den kontaktuaren irudipen gehiegizkoz biolentaturik senti ez dadin. Motorrean lehenengoz daramadan neska. Hiru bat kilometroko penitentzia zerutarra dauka.

– Ni Gizaburuaga eta Amotoko abadea nozu.

– Ni Gernikakoa naz.

– Egunero ez dozu izango baten bat aurkitzeko zortea.

– Astea Ganben bertan igarotzen dot. Astelehenetako kontua bakarrik izaten da.

– Astelehenero pasatu beharko naz.

– Orduantxe bai sortuko litzatekeela esamesa.

– Hori neuri komeni jat gitxien –beldurtu egin dela uste dut–, moraleko azterketa

egitera noanean, hain zuzen.

– Emakumeak motorrean erabiltzearren?

– Ez dot uste, lehenengoa baitzara.

– Ah, bai? Oh!

– Motiboak larriagoa izan behar dau –gehiago beldurtu dela uste dut–, gotzainak pertsonalki aztertzeraz zitatu bainau, gaur goizeko hamaiketan.

– Ez nekien abadeak aztertzen zirenik.

– Beharbada, bueltan lizentzia barik etorriko naz, baina gaur gotzaina bera be estutu behar dot apur bat.

– Zortea opa deusatz.

– 'Deusatz', mesedez. Gehiago elkar ikustea inprobablea denez gero, gera bedi pertsona soil biren enkontrua izan dela.

– Eskerrik asko.

Atxurin hamarretakoa eginda, abade talde batek lagundurik, sosoiko azaldu naiz Mazarredo etorbidera, liburuei begiratu ere egin gabe, azterketa inbertitzeko asmoz. Zenbait ate suzesibotan zeremonia guztiak beterik, areto handi batera sarrarazi naute, Gotzaina atean etorriko dela esanez. Badator, bai, eta ez nolana.

– Hombre, Amuriza! ¡Por fin estás ante tu obispo!

– Bai, gotzain jauna. Zergaitik ez nintzen etorriko?

– Retírense todos y déjenme solo con este curita!

Niri lehen jarleku-lerroaren erdian esertzeko agindu ondoren, berak, eszenatokira igorik, besaulki luxuzko batean apatx egin du. Bere janzkera hanpatuan, kapa, solideo, galtzerdi, besaulki eta oihalaren gorritasunean, bereiztea kostatzen zaidan gotzain 'elfoaren' tipula ilun koloreko aurpegi kasik esferikoa, zeinagaz bat datozen zurezko armazoia dirudienaren kristalak eta besoak, oso goi eta txiki dakust, plano uniforme handi bateango orban bat bezala, eta nago berak ere ni alaberako behetasunean kontsideratzeko motibo berdina sentitu behar duela, posizioen desnibel honek aproposkoa izateaz beste zentzurik ez duenez gero. Azterketa hastera doala, diotsat:

– Parka, Gotzain jauna, baina aurretik, berorrek txarto ez baleritzo, papertxo bat akurri gura neuskio, azterketaren aurrepuntu batzuk azaltzeko. Gaztelaniz dago eta laburra da.

– Otra vez con papelitos?

Ez dit baimendu gura, baina nik ekin eta ekin, ahalik apalen, azkenean amore eman du, "arin irakurtzekotan", mahuka nasaietatik doi-doi bistaratzen zaion

eskutxo bat presa-keinuan astinduz. Papera gäztelaniaz daukat, euskara-erdaren tirabirez harago, gauza batzuk argi entzun eta uler ditzan segurtatu nahirik. Irakurtzen hasi naizeneko, gotzain koxkorra bere besaulkian bihurritzen eta sumintzen nabari dut. Apropos ahalik laburren paratua neukan irakurgaia amaitzeko astirik ez dila eman.

– ¡Basta! ¡Fuera de aquí!

– *Eta azterketa, gotzain jauna?*

– ¡He dicho que basta! ¡Fuera! ¡Llévense a este cura, y que no aparezca nunca más por este obispado!

Gotzaindegiko kanonigoak eta idazkariak ikaraturik sartu ziren, zer eza behar ote zen. Gurrpide txikiari txinpartak zerizkion, sopletea aplikatu bailioten. Hamaikatan penatuko nintzen gero papertxo hura ez gorde izanaz, beste asko ere gorde ez genituen bezala, baina, gutxi gorabehera, Elizaren handiekiko serbilismoa eta txikiakiko zapalgeria, eta ebangelioarekiko traizioa jaulki izango nion gotzainari, azterketari esertzetik salatzaile zutitza pasatuz.

Gizarte osoan gertatzen ari zen iraulketa orokorraren barruan, hizkuntza-aren auziak beste gatazka esanguratsu eta oso bitxi bat eman zuen. Nola orduan ere, eliz liturgian ama-hizkuntzak, latinaren orde, noizbait, onartu beharra iritsi zenean, erdararen eta erdal hiztunen eskubideak sakratuak baitziren, Gurrpide gotzainak, zabaltzen uste zituen errebeldia arriskutsuak moztea erabakirik, dekretu pastoral garratza publikatu zuen, handik urteetara, XXI. mendeko gurutzatu espainol 'demokratikoak' maila zibilean literalki berritzen saiatuko zirena, nahiz eta, seguruenik, inteligentzia ridikuluagoz. Dekretuak funtsean zioen ezen, baldin, Bizkaiko edozein elizatan, meza ofiziatzen zen hizkuntzarik ulertzen ez zuen kristauren baten baten, sermoiarren laburpen bat kristau horren hizkuntzan egitea obligazio zela. Hor nonbaiteko artxiboetan dagokeen dekretuak ez dakit hizkuntzak esplizitatez zituen, baina, nolahi ere, gaztelaniarik ez zekien euskaldunik ez baitzen kontentatzen (baldin bazen, hura jakiteko obligaziorik ez betetzeak aintzat hartua izateko kanpora uzten zuen), espiritu argia eta helburu zuzena erdal hiztunen ulermena garrantzizatzea zen bat-batean, bi mila urtez latinaren ilunpean egonarazi ondoren. Ehuneko ehunetan euskaldun ziren herri, auzo zein ermitetan, turista edo ehiztari erdaldun batzuk kasualki agertzea nahikoa zen, sermoi elebiduna egin behar izateko. Gurre Gurrpide inefableak ez zuen aurreikusi dekretua haien zat bereziki pentsatua zen elizgizonen errebeldiarako motibo argi bat gehiago aurkituko zutela bertan, eta arteko beste zalantzati askok, euren sentimendu kutunetan mindurik, alde bainoago kontra, edo gutxienez saiheska erantzungo zutela. Espiritu hura, konbikzioz edo beldurrez, berez ere sobera praktikatzan zuten apaizak eta fraileak

gehiengo handia ziren arren, bestelako gutxiengoa ez zen inondik ere marginala, batez ere, geroz antolatua zihoanean.

Total, ordena berrira makurtu beharko zutela suposatzen zen uestezko guztiek eta indignazioak erakarrirako berriek elebitasuna alderantziz aplikatzeko doktrina bikaina aurkitu zuten gotzain-dekretuan. Arauari herri txikietan entzungor egin zioten gehienek, eta herri handietan euskararen alde aplikatzera bizkortu ziren askok, beste eliza batzuetan ere, Bilbon, adibidez, zerbaitegatik han ofiziatzea zego-kienean, gotzainaren autoritatea inbokatzea aski zuten, artean euskararen lorratzik izan gabeko aldareetan euskaraz egitera beharturik aurkitzeko, 'obediencia soil-gatik', zaila baitzen inon elizkizunik izatea, tartean euskaldunen bat izan gabe. Ez zegoela jorik ere, has zaitez elizakada bat banan-banan konprobatzen. Jokaera horrek Gurrpide inefablearen aurreikuspenetik are urrunagoko beste ondorio bat ekarri zuen, sortaraziko zituela jakina zen haserre ofizialistak baino askoz onespun gehiago irabazi baitzuen herritarren artean. Askok isilka, ez gutxi agerian, erdaldun hutsak ere sakonki pozten ziren, diktadura politiko-eklesiastikoaren erpeak ez zirela hain desafiaezinak ikusiz. Errebeldia hori eta beste batzuk zirela bide, Gurrpide inefableak zigor kanonikoetan aurkitu zuen azken erremedioa: hainbat apaizi 'predikazio lizentziak' kendu zizkion, berriz ere aurreikusi gabe, 'elfo' gaixoak, berdin jarraituko genuela geure eginkizun publikoan, eta kontradikzioak areagotu besterik ez zirela egingo. Eliza instituzioarentzat ez zegoen konbertsio posibleirik, eta Euskal Herriaren pizkundeak ez zeukan atzera-martxarik.

.....

Atea irekitzen sumatu gabe, pasillo oholezkoan hanka hotsa entzun badut, Sastripo izan daiteke. Sukalderaino iristeko martxa badakar, ziur bera dena. Azkar zutitu naiz, bide erdira irteteko. Sukalderaino lau lagun utzi ditut (Mauri, Oibar, Xemein, Ganbo), kartak mahaira arrapaladan atera eta briskan egin dezaten agindu zorrotza emanik, *gutxienez, mutilak neskak beste bazaretela erakutsi arte – Izan gaitetzkeela ere ez da gutxi*, erantsi du Ganbok. Sastripo da gizon bat, dohain selektiboak daukana, unerik egokienean edo desegokienean etortzeko. Batzuetan, neure sukalde bakartiko melankoliatik, inoiz desesperaziotik, salbatu ohi nau, ez beti, aluak. Beste batzuetan, oraingoan bezala, une aluki desegokian etortzeko antzea dauka. *Hortik pasatzea egokitu ja, eta motorra ikustean, sartzea pentsatu dot*. Hain altua ez izanik, eta konkorr puntuarena ere ez dela emanik, beti txokatu zait bere makur joera, apur bat alboratu eginean, aurrez aurre hizketan bada. Gizaburuagan zein Amorothon aurkezten zait, 'motorra ikusten duenean', dietako ehorzlea baita. *Gizaburuagan hiltzen direnekin, ez dot atxurra garbitzeko be egiten*. Hemen

kanpaijole ere egiten du. Ofizio hori bietan pretenditu zuen, baina ez zitzaion onartu, orduena konpagnatzeko modurik ez baitzen ikusi, herri bat Kanarietara bidali ezik. *Zergaitik ez?*, tematu ei zen bera, baina ez zuen lortu. Hil kanpaia hain alegre jotzen duenik ez da izango munduan. Pizteko premiarik ez balitz bezala.

Non bizi den oraindik ez dut garbi atera. *Gizaburuagan?* galdetuz gero, Amoro-ton hainbeste senide eta etxe aipatzen ditu. *Orduan Amoro-tokoa?* – *Ez, ez! Izatez, Gizaburuagakoa, baina bietakoa. Mendexakoa be bai.* Azkenean, bakarrik bizi izatearen abantailena izaten da beti, etxez etxe konpontzaile ibiliz (larruak, uztarriak, lapikoak, 'handi samarrak bakarrik', *txikiek bista nekatzen deuste*, ohe, malgukiak, aterkiak...), eskaintzen dioten lekuan gaua egiteko ez baitu aitzakiarik izaten, horrela lanak lehenago amaitzeko. Gutxien ez ninduen harritzen nola zekien, esaterako, uztarriak konpontzen, egiten jakin gabe, esan zidan arte: *Abadeek be majo konpontzen ditue ezkon arazoak, eurak zelibeak izan arren.* Saiatzen naiz berari ezer gorde nahi diodanik ez pentsarazten, orduan gehiago zainduko nindukeen beldurrez, baina gaur ez nuen nahi sukalderraino hel zedin, ez abade-txean jendea aurkitzen ohituta ez zegoelako, baizik ez nengoelako ziur neu itzuli arte briskan ekiteko aginduagaz utzi ditudanetakoa baten batek nolako erreakzioa izan zezakeen. Zorionez, konfiantzan bezain astiro sartu ohi da etxe barruan, urrats bakoitzean azpiko korta zaharraren oihartzun amaraundua jasoz. Pasillo erdian topo egin dugu.

- *Zer, Sastripo? Amaitu al dira lanak?*
- *Ez da komeni! Norberak alde eginez gero, atzetik ez dabe jarraitzen.*
- *Goazen aretora, sukaldean jentea daukat eta.*
- *Molestatzen badot, bihar be bardin etor naiteke.*
- *Egongo dira apur batean, har-jaleak be ez dira eta.*
- *Arrateko jardunaldiena aitatu gura neutsun.*
- *Interesgarria, ezta?*
- *Gauza batzuk arraro samar egin jataz. Hasieran, bakotxak bere burua aurkeztueran, hainbeste galdera egiten eben, daturik hutsalenak eskatuz. Horrek ez ninduen hainbeste larrituko, konsiliariora ikusi ez baneu den-dena afanoso apuntatzen. Deklarazino-hartzea emoten eban.*
- *Ez, gizon! Hori baino buru konfiantzazkoagoak dabilz hor. Euskal Herri guttiko jentea batzen denez, elkarren barri ezagutzetik hasten dira, bizileku, bizileku, egoera eta abar. Metodoaren zati bat besterik ez da, jardunaldiak ahalik errotuenak izan daitezen.*
- *Halan izango da, ze, hemen abendu-kantari Gernikaraino urteten dogula eta horrelakoak aitatu genduzenean: gaztaina-janak, kooperatiba-bisitak, areto hau be beru egitea eta abar; izugarritzko garrantzia emoten eutseen.*

- *Ez da guzurra. Herri txiki bat izateko, Gizaburuagako gazteria asko bizkortu da. Amoro-to handiagoa da, eta han be sekulako martxa dabil aspaldion.*
- *Santa Barbaran gertatu zenagaitik? Auzo batean ez ei ziren lar konforme gelditu, jurren bedeinkazioa hiru aldetara bakarrik banatu zenduelako.*
- *Urteko uzta jaisten bazen (Sastripo, Sastripo! Nonzebarri guztiak orain atera behar deustazak?), diferentzia elizak ordainduko ebala agindu neutsen.*
- *Ez dakit zegaz, mezatako diru-batzea kentzen badozu.*
- *Aldatu bakarrik. Ez deritzozu ondo?*
- *Guk beti horrelaxe ezagutu dogu.*
- *Misterio santuen ospakizunean, zer izan daiteke mingarriagorik diruaren hots zitala baino?*
- *Hm! Diru-hotsa alaia da gero!*
- *Mezaren erdi-erdian? Ez ete dago beste unerik?*
- *Batua batuta egongo da.*
- *Eta ebangelioa salduta. Herritarren gehiengo nabarmena zerbaitegaitik agertu da aldakuntzaren alde, zeu barne.*
- *Nik ez dot txarto ikusten, baina...*
- *Orain diru gehiago batzen delako?*
- *Hori be bai. Azkenean, batetik utzi, bestetik gehiago lortzeko. Hori be ez dakit oso negozio ebangelikoa den.*
- *Eliza mantentzeko, ez dago sakramentuak laidotu beharrik. Noizean behin, etxe bakotxak, mezatatik aparte, sobre itxian emondako borondatea lehengo sistema itsusia baino emonkorrago bada, poztu gaitezen duintasuna eta etekina, behingoz, batera doazelako.*
- *Enparango oilaskoen zain egon beharrik ez daukazu, beraz.*
- *Hori be ez zen arrazoi txar bat, kolaboratzeko era garbitzeko.*

Amoro-ton, Enparan etxalde urruneko soroak, urteko bedeinkapenean, arroa sakonaz hemendiko Alakuatik isiputuak izan ziren behin. Gero, baserri hartatik urteko oilasko pare arauzkorik ez zetorrela ikusirik, nire aurreko parroko batek ugazabari kontu hartu zionean, honek erantzun zuen bidali zituela hegazti maiteak hark bedeinkapena jaurti zuen tontorretik, *segi parrokoagana!* aginduz.

- *Ailegatu ete ziren?* – galdetzen dut.
- *Parrokoa hil aurretik ez, behintzat.*
- *Azeriak jan izan zeikezen.*
- *Azeri mota asko dabil hemen. Hurrengo urtean, bedeinka eizuz lau aldeak, badaezpada, haizea behintzat lagun izan daigun.*
- *Eta oinaztua eta trumoiak, Santa Barbararen omenez.*
- *Arratera itzulita, ez nintzen total argitu Herri Gaztedi, Baserri Gaztedi, Euskal*

*Gaztedi edo zer legez gengozen han.*

– Denerik izango zen apur bat. Batzuei gehiago kostatzen jake ezagutza berririk kokatzea eta hartu-emonak zabaltzea.

– Niri ez! Ez nituen urterik onenak alperrik igaro soldadutzan, komandantearen andreaki txakurra garbitzen eta abar.

– Txakurra garbitzen eta abar, ala txakurra eta abar garbitzen?

– Diferentzia horreetaz jabetzeko, gazteegia nintzen oraindik.

– Komandantearen andrea jabetzea nahikoa izango zen.

– Asko irakatsi eustan, komandanteari dirua zelan emon eragin.

– Arrate ez dago, ba, Ferrolen edo Sidi-Ifnin.

– Ni Arraten be ondo moldatu naz, eh! Edonon ikasten dira gauza graziosoak. Oraintsuko ilargiratze ospetsu horri be eragin behar izan geuntsan, sinisten ete genduen eta abar. Gehienak baietzean zegozen.

– Zu ez ala?

– Ezetzik ez neban esan, beste askoren antzera, baina, rusoak argienak badira, be, ez dakit konturatzen diren, hemendik zuzen abiatu arren, hara orduko, ilargia joana dela handik.

– Etorriko jake, apur batean itxaronda.

– Zeuk benetan sinisten dozu?

– Abertitu neutsuen orduko sermoi batean, eguzkia herriko plazan dantzan zebilela entzuten bazenduen, ez esateko, badaezpada, ezetz garbirik.

– Egia esan, hori baino gauza gaxagorik predikatzen dozue.

– Bistarik onenen elkar ikusi ezina, esaterako?

– Ez kasu guztietan hori be. Egia al da inguruko azken bikote famatuan –Gizaburuko moja ohi bat eta Amоротoko fraile ohi bat–, abade baten eskua tartean ibiltzen dena?

– Kanpaiak jotzen beste, entzuten be badakizula esango neuke.

– Mundu guztiaren ahotan dabilena jasotzeko ez da lapiko-konpontzailea izan behar.

– Eskua 'tartean ibiltze' hori ez zen literalki zabalduko, ezta?

– Apur bat halan izanda be, zer? Abadetzan egin dozun egintza on seguru bakarrik litzateke, bakarria izatearen akats horixe ez baleu.

– Neska komentutik ateratzea gehiago kostatzen ondorengo guztia baino.

– Edarra abadea! Moja laztanak komentutik ateratzen, hagin lokak balira legez.

– Berak nahi eban, baina ez zekien zelan ailegatu mundura.

– Nondik etortzekoa zen, ba?

– Esan neutsan: –Kostatik joango gara, Laida eta Lagan zehar–. Eta berak: –Ai, ez, ez, ez! – Orduan, beste kostatik, Debatik bueltan – Ai, ez, ez, ez! Hori gitxiago!

– Anbulantzian eroango zaitut – Ai, ez, ez, ez! Haurdun natorrela pentsa daieen?

– Herriko baten bat inportantea akabatuko dot, eta denak haren hiletan dagozela,

Amorotoko fraile urtenbarria bialduko deusut bila. Inork ikusi barik sartuko zaitu etxean – Ai, ez, ez, ez! Gero zelan urtengo dot etxetik? – Nahi al dozu hilkutxa baten eroan zaidazen, beste mundutik bazentoz legez? – Ai, ene ama! Zelako gauzak dinoz berorrek? – Ba, komentuan itxaron beharko dozu hil arte. Orduan bialduko zaitue zelan edo halan.

– Azkenean, zelan izan zen?

– Eskua 'tartean ibiltzeko' modu bategaz.

– Neuk be estimatuko neuke horrelako esku artista baten tartekotza.

– Ilargia azartatzea baino errazago litzateke, nor dozun begiko jakinez gero.

– Begian dago, ba, nire maldezinoa!

– Ai Sastripo, Sastripo! Batzuetan gorrotagarri haz, gogaikarri beti, baina, behin edo behin, maitatua izatea be merezi dok.

– Oraintxe banoa! Berba horreek endredatu egiten nabe.

– Hurrengoan be jardunaldietarako prest, orduan?

– Zergaitik ez? Jatekoa be kuriosoa zen, moja-usain eta guzti.

Nire kanpaijole lanbidetsuak eskuin begia nahiko zelebreki keinatzeko tika edo 'maldizioa' dauka, masail-azalak aho-ertz pitinki irekiari alborantz eta gorantz tiratzen diola, zapatari baten ur gaineko dzastada bezala. Badirudi begi horrek unerik inoportunoenetan traditzen duela, begirada samurki mantendua itxaroten duena uxatuz, edo insinuazio goiztarregiak iradokiz. 'Huskeria' horrixe egozten dio mutilzaharrerantz daroan jitearen kargu nagusia, gauzez bakarrik ibiltzeak ere erremediatzen ez ei diona. Halako keinu segida baten ondoren, ehortzailea dela esateak ere apenas askorik lagunduko dion.

Neuk ere baditut kezka, kezkgarriro gurutzatuak. Dudagurutze kezkgarriak. Dudarena egia izango da, horixe baita hartaz ziur egon ohi naizen sentipen bakarra. Gurutzearena ere baietz esango nuke. Kezkgarritasuna, ez dakit zer gradutan. Batzuetan, kontu larriak iruditzen zaizkit, beste batzuetan, irudipen puztuak. Sen eta ahalmen guztiakin neurtzen hasten naizenean, ezin dut konkluditzetik libratu umorez laxotzen saiatzen naizen auziak, normalean, serioak izaten direla. Oraingoz, beste aukerarik ez daukat, Sastriporen izaera pikareskoaren bekaizt apur batez, sukaldera itzuli eta auzi pisutsuagoen lema eskuratzen saiatzea baino.

.....

Sukaldera sartu naizenean, lauren buruak beste zerbait egiten ari izan balira bezala biratu dira. Neska pareak mutil parearen kontra, briskan dihardute, edo jardun behar zuten. Eskuetako hiruna kartak kendurik, erdiko piloa osorik eta

txukun dakust, azpian seiko ezpataren erdia ageri dela. Distantziatik horren detaila txikiak ohartzeko gauza izateak handietan ez erratzeko konfiantza damait.

Ni: *Oraindik lehian?*

Ganbo: *Galdu nahi ezta (heure agindua betetzearren).*

Mauri: *Laster amaituko dugu. Lau eta hiru goaz, bostera (neskek irabaztea komeni al zaigu?).*

Xemein: *Nor da esku? (Buru, bihotz, popa).*

Oibar: *Neu! Nondik irtengo naiz? (Hauxe da denbora disekatzea!).*

Ganbo: *Bateko ezpata ez da txarra (bota, bota beste bat, bota tragotxo bat).*

Oibar: *Ez, ba! (Hire kapritxoak egiteko ez nagok). Tori txanka-bastoa.*

Ni: *Leihoan eseriko naiz, albotik inori laguntzeko tentazioak jo ez nazan (irabaziko ahal du lau joko daramatzanak, nahiz mutilak izan!).*

Mauri: *"Hartu ta leihotikan -kantuz- jaurti behar dut nik" (edo saltatuko naun, logura haizela esaten badidan).*

Ganbo: *Zentratuko al gara jokoan, txarrenek irabaz dezaten? (Gaur Lekeitiora joateari albo egin beharko zioat).*

Oibar: *Zeuri dagokizu jarraitzea (non ote dabil horren burutzarra?).*

Ganbo: *Egia! Zer nahi duk, kide? Txanka-bastoa neuk 'hiltzea'? (afizioari jarraitzeko?).*

Mauri: *Hator albotik, pasa-karta bategaz (bigarren araua: "ez nabarmendu inon").*

Ganbo: *Biko urrea. Hain ikusgarria eta hain 'orbela' (hire neskarena heuk jakingo duk).*

Xemein: *Neu ere pasoa (leiho itxia polita izaten da).*

Mauri: *Eskerrik asko. Nik hiruko bastoa. Hamar eta bi, hartzeko dozenan hamahiru (gaur aldatuko nitek neska).*

Oibar: *Errege bastoa (gure aitak baleki gure amak ez dakiena!).*

Ganbo: *Ez duzue horren erraz eramango. Zazpiko ezpata (hau ez duk uste nuena baina uste ez nuena ere ez).*

Xemein: *Zeuentzat. Bosteko urrea (Aita Jainkoak egin banindu abadetxeko giltzarri).*

Mauri: *Beste lau tanto dira. Oraintxe gaizki nago, izan bedi berau gaitzik txarrena! (Apaiz horrek non ote zauzkak urdaiazpiak?).*

Ganbo: *Jaurti edozer, baten batek eutsiko dio eta (jende ona derrigor behar duk munduan).*

Mauri: *ori bateko kopa (hobe ezer ez pentsatu, ez aita, ez ama, ez etorkizun).*

Oibar: *Je, je! Jango al dut bateko ezpatagaz? (Ganbaran txakurren bat dabilela esango nuke).*

Xemein: *Jan beldur gabe, neuk ere badaukat karga bikaina eta (jakingo nuke atearrekin burua nori ireki).*

Ganbo: *Oh! Bateko triunfoa! Autoritate gorenari jolasean ez dago jarkitzerik. Hori*

*neuk ere, errespetuarren, beste hiru tanto, zaldi urrea (txarrak ere bai, onak luzi daitezen).*

Oibar: *Aufi!! Hau mauka! Hamaika eta hamaika hogeita bi, eta hamar hogeita hamabi, eta hiru hogeita hamabost (labe garaian su, burdin- saldak samurtuko zaitu). Tori zopak, zazpiko urrea (gure amak baleki!).*

Ganbo: *Ezer egiteko modurik hortik? (txarrak ere luzitzeko?).*

Mauri: *torri suabe-suabe (urdaiazpia popatik, gazi-gazi). Bidean lehertzen dena harrapatzea ez da gutxi izango (gustu hartuko liokeela ez baneki).*

Ganbo: *Tori ezpatatxo bat orduan, ea biderako lain odol batzen duen (nire kalatxoria non ote zabilek?).*

Ni: *Zortea agerian ere inbatiblea da, antza, ze nesken kartak hemendixek ikusten ditut (ez dizuet esan orain eurekin bularrak estaltzeko!).*

Xemein: *Ba, bai! Hirukoa hemen dago. Erregea ere bai. Erreparorik? (Hiru ezpatak zulatzen dute, señora, zure bihotza).*

Mauri: *jaurti kartok! Hilzoria luzatzea baino ergelagorik ez dago (popatik ez bada, brankatik).*

Ganbo: *Beharbada, ez da hain ergela (txitxarroa ta berdela), hiltzaileak luzapenez gozatzen badira (Jose Migelen burdela).*

Oibar: *Gugatik, amaitu bertan. Beldarren sufrimenduak ez gaitu exzititzen (gure aitak ez ahal du jakingo).*

Ni: *Partida ere amaitu al da?*

Mauri: *Amaitu da! Bost eta hiru, neskentzat diru, guretzat miru. Salta zaitezke leihotik.*

Ganbo: *Norantz ez diozu esan.*

Ni: *Badakit neure sukaldeko berri. Tato! Hau mina! -atzean hazka, hautsak kenduz-. Markoa ez zitzaidan itsatsiko, ezta?*

Ganbo: *Apaiz ipurdiak itsasgarriak al dira?*

Xemein: *Hi haiz astapotroa!*

Ni: *Utziozu praktikatzen herri-euskaraz jabetzera etorri dena.*

Kostata irten den tiraderan, alboetako koilara-sardexken eta barreneko aitzo eta goieneko koilaratxoaren arteko laukian, horma-erloju geldia gertatzen ondoan, karta-paketetxoa gordetzen nuela, leihora begiratu dut, deabururik ageri ote zen, neure urduri puntua deskargatzeko sozio on baten desioz. Udazken aurreratua izanik, pare bat ordu badira gautu duela, bederatzia baino ez badira ere. Arestian aipatu dudak bide direla, ez nago gau osoko tertuliarako aldarteaz, abadetxe honetan maiz gertatzen dena izan arren, herritar lehenik harrutuek gero kasik logikotzat hartzeraino. Egunez behar egin behar balebe, ez leukie gaua hain alegre okupatuko. Jenderik ezberdinenen sar-irtena erarik libreanean gertatzea etxe honen funtzio ederretako bat bezala finkatua denez gero, eta halaxe jarrai dezan argiro nahi

dudanez gero, beldur naiz inor bidaltzen hastea ez ote litzatekeen, luzera, jokaera okerragoa izango. Horregatik, benetan poztu nau ate hotsa entzuteak, ezustekes-terno batek norbere barne korapiloa askatzeko beti sortzen duen itxaropenean. *Egon apur batean* –diotset apopiloi–. *Ordu honetan, eskekorik ezin da izan.* Atea ireki dudanean, Sarasetako bi neba-arreba negar luzea eginda bezala agertu ditza bertan.

– *Aita oso txarto jarri jaku.*

– *Hain gazterik?*

– *Erremedio barik. Medikiak esan deusku usterik gitxieneko kontua dogula, eta deitzeko abadeari. Ez dira orduak, baina...*

– *Izango ez dira, ba? Atoan noa.*–Sukaldekoei diotset: –*Hilzori bat. Gauza hauek zenbat luzatuko diren ez da jakiten. Bueltan ez bazaudete, egongo gara.*

.....

Sarasetako etxe aurrera heldu naizenean, oinez, motorra bostehun metro behe-herago utzita, harritu naiz, atarteko bombila berez ahul bainoago hain gau hedatsuaren tizat indargearren ezker azpian, nola txakur ohiki zangarrak isi-isilik hartu nauen, bete txabolatik burua eta belarri jausiak bakarrik erakutsiz. Badaki, nonbait, etxea zaintzea, une honetan, ugazaba ez molestatzeko dela. Emazteak naroa eskailera erribean gorra. *Sentitzen dot, Karmen, zuek beste gatx izango da baina.* Logela guztietara ematen duen koltza handi eta ahulki argituan, harritu baino ikaratuago nau, gela ireki bateko ohaburuaren albo banatan, bi kandela piztu hautemateak.

– *Oh! Hil al da?*

– *Berak eskatu ditu kandelak, bombila itzungita.*

– *Kargutzen da, beraz, zer unetan aurkitzen den.*

– *Buru argi dauka.*

Hurreratu naizenean, ohaburuko gurutzeta inguratzen duten arrosario gorri-riehi bihiak falta zaizkiela dakust, tartekako alanbre xumeen distiratxoetan. Mesanotxe bietako arrosa-sorta zuriei petalo eroriak ageri zaizkie oinetan, zimeltzen hasteko beldurrez. Sarasetako ugazabaren aurpegian, heriotzaren mustuka bada, baina oraindik ez bide du baretasunaren musua emateko moduan atondu. *Palka. Ez naz konturatu hemen zengozeenik.* Sarasetako seme-alabak, ohe barrenean, komoda erraldoi baten kontrara pilaturik daude. Seme batek ezkerreko erpuuta arriskugarriri sarturik dauka ahoan. Leiho txiki baina sakoneko tapete zurietan puntilla berdedun baten gainean, beltzetik eliz liburuak diruditenen ondoan, bi z

garro pakete, *Ideales* beilegi hilgarri haietakoak, kurioso-kurioso, elkarren gainean daude horma kontrara, zeintzuen gainean, aldaretxo batean bezala, intsektu luzanga zangotsu batek gustura dirudien, geldi-geldi, sakrifiziorako prest. Hainbeste zango batera geldi edukitzeko, kontzentrazioa behar dela pentsatu dut.

– *Zelan gagoz, Anton?* –diotsak eskutik heldurik.

– *Badator berori be?*

– *Berba sanoa daukazu.*

– *Horixe bakarrik, jauna. Arnasa falta.*

– *Etorriko da hori be.*

– *Hm! Urrunegi joan da.*

– *Anton! Ni ez nator hiltzen laguntzera, bizitzen laguntzera baino.*

– *Badakit berori zertara datorren. Hasi berorrek gura dauenean.*

– *Ez daukazue urten beharrik* –diotset etxekoei–. *Denok batera hobeto egongo gara.*

– *Nik ez daukat ezer lotsagarririk esateko.*

– *Badakit, Anton. Zuk ez daukazu ezer esan beharrik. Parkamena jaso bakarrik, nahi bazendu.*

– *Nahi dot.*

– *Ego te absolvo a peccatis tuis, in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.*

Latinez jaulki dut, beren beregi. Sarasetako jaunak zuka egin izan dit aspaldion, hika ere bai bakarrean, umore puntu zelebre hura zekarrenean, baina orain, berorika egiten zidala ikusi dudanean, nahiz lehenengotan nahigabetu naizen, ez zait zuzentzen hasteko uea iruditu. Bai, ostera, pentsatu dut, ordainez, latinezko formula gehiago estimatuko zuela, eta azkenean, neu ere gehiago hunkitu naizela uste dut, Intentzio zintzoei jarraika goazen guztian bezala. (*Parka, ene Jainko. Badakizu nik kontu honeetan zenbat sinisten dodan, baina, honelako une batean, sinisten dabe-hei atsegina emotea ez ahal deustazu faltsukeriatzat gordeko*). Emazte Karmenek ohearen beste aldera hurreraturik, *orain hobeto zagoz, aita?* galdetu dio, eskuan giusu emanez. Seme-alaben artetik entzun uste dudan zotina benetako izango zen, besteen aldetik eutsiarazteko mugimendua bezalakoa sumatzen baita, aitaren aurrean ez nabarmentzeko, duda gabe.

– *Orain hobeto, ezta?* –galdetu dio Karmenek berriro.

– *Hobeto, baina ondo ez.*

– *Jarriko zara, medikuak agindutako botikak lanean hasten direnean.*

– *Bai, Karmen. Botikek alperreko lan asko egin behar izaten dabe.*

– *Egon isilik, berbetan nekatu barik.*

– *Berba egin gura dot baina! Isilik joatea tristeago ez al litzateke, jauna?*



- Bai, Anton. Berba egingo dogu. Nik esan eta zuk entzun. Nahi al dozu fedearen autortza egin daigun?
- Berorrek nahi dauena, jauna.
- Sinisten dozu...? –formularioaren zati bat.
- Sinisten dot, jauna.
- Sinisten dozu...? –beste zati bat.
- Sinisten dot, jauna.
- Ukatzen dozu deabru madarikatua eta bere...?
- Parka, jauna. Orain ez daukat inorgaitik txarto esateko gogorik.
- Arrazoi! Bizitzen laguntzera etorri nazela esan deutsut, eta horixe egingo dogu?
- Zelan?
- Gogoan al daukazu zure alaba Ziortzaren ezkontzatik –hortxe dagoz bera eta bere senarra–, zelan alegre-alegre itzuli ginen Oletatik, eta Gizaburuagako tabernan, erlojuari begiratzea denpora galtzea zela esanda, zelan seme Golori aginduz zeuntsan ekartzeko traktorea elizaldera, autoan igoteko baino egun trinkoagoa igaroz zendueta eta?
- Ekarri egin eban!
- Ekarriko ez eban, ba? Begira zelako irribarretxoak urten deutsun oraintxe be...  
Eta Karmeni lehenengoz etxera lagundu zeuntsanean, zelako trikimailua asmatu zenduen, etxe alboko artepean denpora gehitxoago egitearren?
- Hori zelan daki berorrek?
- Ez bertan egonda, ezta Karmeni entzunda be. Zeugandik izango da, beraz.
- Ah, ah, ah...
- Estropozu egin eta hanka trokatu, ezta?
- Min emoten eustan.
- Min bai... alde egin beharrak! Eta gero Karmen txo, mutila barrura sartzeko bilerdurrez, etxeko botikin guztia –artaziak, bendak eta zapaten betuna pomadatzat– artepera atera, eta hanka sanoari igurtzika. Gogoratzen zara, Karmen?
- Dena imintzioa izan zenik oraintxe arte ez dot entzun –Karmenek.
- Ah, ah, ah...
- Ezkontzera zindoazen goizean nondik ibili zinen? Eztegu-bazkarian, protokolo emozino, argazki, atentzino eta abar, ganoraz jaterik izango ez ete zen arduraz gauera makal ailegatzeko bildurrez, Gernikara isilean joan eta Bolifia zaharrear kilo eta erdiko txuleta eskatu zenduen, iluntzean 'gizon-proba' zeunkala eta. Hori bazenkien, Karmen?
- Jesus, umetxoak! Zuek bazenkieen hori? –Karmenek.
- Zeozer entzun izan dogu –dio Ziortzak.
- Zelan portatu zen mutila? –nik.
- Ahalegindu zen –Karmenek.
- Ai, Anton, Anton, bixigus al monton! Isiltxo zagoz, eh! –nik.

- Horreek denak erreparasatzeko, barrero bizi behar da –Sarasetak.
- Horretantxe gabilz!

.....

Abadetxeko sukaldean, apaizak alde egitea nahikoa izan da, lau briskalariak ur tantak gainera jausitako labezomorroak bezala sakabantzeko. *Telebisino apur bat ikusiko dut aretoan*, esan du Ganbok. *Liburuei begiradatxo bat bota behar diet*, jarraitu du Xemeinek, eta apaizaren bulego-logelako armaru-apalategiaren aurrean jarri da. *Bai politik liburuak, ilara itxian!* Bat ireki, eta berak: *Hemen nago ni*. Itxi, eta zuk: *Segi hortxe egoten*. Maurik Oibarri esan dio: *Gu ohera joango gara, ezta?* – *Laster joango naiz* –Oibarrek–. *Apaiz hau sukaldean bakarrik nola egoten den jakin behar dut*. Bakardadeak ez dira trukagarriak, are gutxiago, esperimentu gisan, baina Oibarrek, arestian entzundako 'deabrua leihotik agertze' kontuaz gogoraturik, zerbait arrarorik sumatzen den konprobatu nahi du. Beldurra, batzuetan, tiratzaila da. Sukaldea, bere ibairanzko leiho sakonez, korta gaineko zoru bitartetsuz, horma-erloju ez guztiz geldiz, komun txiki kontiguorako ate berdez, ganbarako eskailerarako beste ate tripadun batez, zurtasun azal-urratuei eusteko sufritzen dauden hormez eta sabaiz, formika higatuaren orban irregularrek nabarturiko mahaiz, bere gainalde eta zirrindola pitzatuek kiskalerrri bateko ibaien mapa diruditen txapaz, deabrua agertzeko egin-egina iruditu zaio. Aretora sartu den Ganbok atzeraka egin du, telebisioan mutiko bat eta gizon bat aurkitzean. Mutikoa etxeratzea kostatzen zaion eta, joanda ere, noiznahi elizaldera eskapatzen den horietakoa da. Gizona sakristaia izan daiteke. Herriko bi telebisioak taberna bietako batean eta abadetxean daude. *Oh, barka!*, hots egin du Ganbok, zer dioen ez dakiela. *Aurrera, aurrera!* *Hemen denontzat dago lekua*, erantzun dio sakristaia edo dena delakoak. Mutikoak ez du pantailatik bururik zirkindu. Norbaitek norbait hil behar du. Zuri-beltzean ere, odola gorri. Ganbok, inkurtsore erreparoz-edo, itzultzea erabaki du, *segi lasai; zeuek zarie herritarrak*, esanez. *Hemen, sartzten den edonor da herritarra*, esan du gizonak ('sakristaia edo dena delakoa' izan daiteke 'gizona'), baina Ganbok ez du entzun izango, pasilloan zehar baitoa, apur bat haserre, pentsatuz: *Apaiz honek zergatik ez ote dik aterik ixten, gaututakoan, behintzat?* Sukaldeko atea ireki duenean, Oibarrek a zer sustoa hartu duen, agerpena uste ez zuen tokitik gertatu baita, deabrua ez dena, gainera. *Gau on, ohera noa*, esan du, Ganbogaz bakarrean egoten ez ausartuz. *Ondo etorria!*, diotso Maurik Oibarri, leihoan zigarro keagaz uztaiak egiten saiatuz. *Aretoan lagunak daudela dirudi*, abertitzen dio Oibarrek.

Ganbok ezin du bakartasunaren abantaila desprobexu, beti arretarazi

duen sukaldeko hirugarren atea, tripaduna, irekitzeko. Erdiraino bakarrik ireki daiteke. Sakatzen dio, baina ez du gehiago obeditu nahi. Sukaldetik diagonalean sartzen den argitasun zirriindak, tope hurbilegiaren aurka, osteko iluntasunik ezin du arindu. Haztamuka, eskudela aurkitu du, eskailean gora daramana. Igotzen hasten da, eta balaustre baten hutsaz jabetu. Mailaren bat ere faltatzeko beldurrez, eskudel oso lokatuari darraio, ahalik kontuzen. Gora orduko, argitasun zirriindak berelana egin du, iluntasuna apur bat gardenduz. Balaustre baten hutsak huts gehiago ikusarazi dizkio. *Joño! Kontatu egin behar ditiat.* Eskua, barkilo-ontzi gorriaren ruleta berdeko mihi beltzaren antzera, balaustreetan pasatuz, atera zaizkio: sei huts (bat bikoitza) eta zazpi bete.

Xemeinek, sorpresturik, larruzko azaldun liburu kankailu batzuei heldu die. Erregistro liburuak. *Josefa Romualda Trokamendi Baztarrondo nació el día 19 de marzo de 1621 en...* Heriotzen liburura jorik, ez du behingoan aurkitu. *Josefa Romualda Trokamendi Baztarrondo falleció el día 23 de diciembre de 1655.* Gajoa! Gazterik, eta gabonak ospatzeko asti gabe, izen horregaz joan behar beste mundura, beharbada, ume pilo bat senar golfo baten desarduran utzita.

Ganbo ganbarara igo da, gorago eta ilunago. Zer altueratan dagoen ez dakien teilatuko haberen bat buruagaz apurtzeko beldurrez, kontuz-kontuz aurreratzen hasi denean, iluntasunak atzea hartu dio. *Zulotik jaustea besterik ez dago behar.* Pare bat urrats beldurri eman eta argitasun apur baten zain alferrik egon ondoren, zuhurrena itzultzea izango dela erabaki duenean, linterna bat piztu zaito oinetan. Garraisi bakarra atera zaio, larria baina neurtua, nondik dabilen salatu nahi ezta. Ganbarako garraisiak azpian parean harrapatu duen Xemeini Josefa Romualda protagonista den liburua lurrera erori zaio, beste garraisi batez. Liburu sekularrak azpi hutsunedun parket-zoruan atera duen planpadak ondoko logelako Mauriri hots eginarazi dio: *Zer izan dun hori?* Erantzun bila pasillora irten den Oibarrek etxea erdibitzeko moduko txiltoa jaurti du, beraganantz zetorren txakur batez topo egin duenean. Txakurra buelta erdi egin eta kanporantz doa, pare bat zaunka estralurtar eginik. Bera ere ikaraz pasilloratu den Xemeinek *nork ireki dio horri atea?* galdetzen du, Oibarren garraisiaren eragilea argitu duelakoan. Bi neskak sukaldera sartu dira, baina ez dago inor. Oibarrek berriki han utzi duen Ganbo komunean dagoela pentsatu du. Xemeinek hirugarren ate erdi irekiari, tripadunari, sakatu dio eta, bestelakorik pentsatu ere ez bezain erraz, osorik zabaldu da. Argitasunak barrualdea desilundu duenean, eskailera barranean giza bulto bat agertu da. Xemeini lehen Oibarrek erdibitutako etxea berriz bateratzeko moduko garraisiak irten zaio, eta deabrua leihotik itxaroten zuen Oibarrek etxea berriro puskatu du, oraingoan hiru zatitan: erdi gehi erdi, gehi bien batura.

- *Zer koño gertatzen da hemen?* -oihuka sartu da Mauri sukaldean, aztoraturik.
- *Neu naz! Neu naz!* -hoska agertu da Ganbo, eskuak errendizio keinuan dakartzaila, eta larriki iragarri: -*Ganbaran gizon bat dago!*
- *Bizirik ala hilik?* -Maurik.
- *Ez dakit. Txiripaz ez dut zapaldu, linterna piztu duelako.*
- *Hilak piz zitezkek, baina linterna pizten dutenik ez diat sekula entzun.*
- *Beharbada, neure oinak piztu izango du.*
- *Orduan, zenbat lagun gaude etxe honetan?* -larritzen da Oibar, eta Ganbok:
- *Gu lauok gehi telebisioko biak, sei. Ganbarakoagaz, zazpi.*
- *Eta txakurragaz, zortzi* -Xemeinek, baina Ganbok:
- *Probisionalki, ze ganbaran ez dakigu zenbat dauden.*

Sukaldeko ate merkean *kan! kan! kan!* irmoa entzun da. Barruko lauren hasperen-kolpeak, *ai! oh! eh?*, elkarren begietan josiko ziratekeen, ganbaratik *kabendios!!* entzun ez balitz. Baten bat bizirik dago, behintzat. Sakristauak edo dena delakoak, Markus izan daitekeenak, atea ireki du.

Markus: *Parka! Basurdea barruan al dabil?*

Xemein: *Txakurra ez al zen?*

Markus: *Basurdeari segika, seguruenik, aspaldion kaleraino ugaritu baitira.*

Mauri: *Ugaritzetik etxeetan sartzera!*

Oibar: *Ai, ama!*

Markus: *Goseak ate asko zabaltzen dau.*

Ganbo: *Abadetxekoa, hain zuzen?*

Markus: *Hemen edonor sartzen da. Sarjentoa be sartu izan da.*

Mauri: *Putadiola!*

Markus: *Abadea ez al dago?*

Xemein: *Hilzori bat atenditzera deitu diote.*

Markus: *Pixka baterako badauka, orduan. Hemengo heriotzetan, aurrearen aldean luzea izaten da ostea.*

Ganbo: *Nongoetan ez, heriotzagaz betirauna hasten bada?*

Markus: *Jaiotzagaz amaitu zena?*

Ganbo: *Moztu, areago.*

Markus: *Ez da edozer gure izatea, betiraun bi josteko gauza bada.*

Ganbo: *Neuk ez daukat lotura izatearen kontzientziarik.*

Markus: *Ez ete da izango tanta bat goi-tentsinoko kablean? Tanta ezabatu da, eta kableak bardin darrai alde bietarantz.*

Oibarrek Xemeini: *Hartu ditugun sustoekin, ruleta filosofikoan jolasten hasi behar al dugu?*

Xemein: *Sosegu-terapia bat izan daiteke.*

Markus: *Sustoak, zerenak?*

Ganbo: *Oibar hau izan da sekuentzia ustegabe guztiaren abiarazle. Leihoak gaueko zenbait unetan deabruaren forma hartzen duela abade fantasioso horri entzunda, ganbaratik ulu bat entzun duela iruditu zaio. Ate hori ireki du, eta arratoi bat sartu zaio hanka artetik sukaldera.*

Markus: *Ez naz harritzen, azpi hau guztia, antzina mandakorta izana, batzuetan arratoiz betetzen baita. Noizik noiz desinfekzioa egin arren, ibaia berbertan dagoenez, kolonia barriak sartzen dira, ez dakit Aulestitik-edo, batez be abadetxean joanetorri handia sumatzen dabenean, txarrikeria be arabera sortuko dela suposatuturik.*

Ganbo: *Oibarrek jaurti duen garraisiak leihoari deabru forma hartzeko gogoak kendu dio, eta Maurik beste atea zer ote zen alarmaturik ireki duenean, arratoia, galdu gordean, hanka artetik pasatu zaio pasillora. Sustoak batzuetan kontrara eragiten duen suhar efektuz, Mauriri birao itsusia jaulki zaio. Kabendios!! Bulego-logelaren XVII. mendeko jaiotza-heriotzak ezkontzen ziharduen Xemeinek, esku artean sortutako nobedadea zelakoan, liburu lizunak bertan behera jaurti eta atea ihesean ireki duenean, arratoi izutuak bere muturretan eurt egin du, atzean beste garraisi mortal bat utzirik. Nik ere, aretoan zuek ezustean aurkitu eta pasillora itzuli naitzenean, hor egin dut topo aurrez aurre zetorren arratoiagaz, zeina, basurdearen miniatura, arrisku pozoitsuetan hanka-zabal petrifikaturik gelditzeko daukadan erreakzioaz baliaturik, arkupetik pasatu zaidan, Trajano bat bezala. Itzuli eta jartzeko inpulsoak jo nauenerako, piztia zikina kanpotik ere desagertua zen, bat-batean txakur bihurtu ez bada, mespretxu aurpegiz aurretik pasatu zaidana bera, eliza osterantz, pentsatuz: "Zer koño egiten duzue zuek abadetxean?"*

Markus: *Arratoiekin, handiena orain ehun urte gertatu zen hemen. Abade mardo bat, jokoan erronkoso eta edanean temoso fama zeukana, mañai horretantxe, bera, ez zen hori bera izango, baina hortxe, iluntze batez, lo gelditu zen, betiko lo alegia, eta biharamon goizean hortxe aurkitu eben, arratoiek hanka bat, zapata eta guzti, belauneraino janda.*

Xemein: *Ai ama! Oraintxe banoa hemendik.*

Ganbo: *Lagunduko dizut.*

Mutikoa: *Aita! Ni banoa!*

Markus: *Banajatok! Filma amaitu da, antza.*

Ganbo: *Ez nekien aita-semeak zinetenik.*

Markus: *Baiezkoan nago, andreak be batzuetan zeure bardina esaten deust baina.*

Mutikoak apur bat ezberdin ikusi du dena. Indio batzuek anakonda bati erreparatu diote gizaki zuri bat irensten, beharbada, bigarrena. Operazioa ondo amaitzen utzi ondoren, haga sendo bati luzetara loturik, herrirantz andatzen dute sugea, kanta alaien artean, astebeteko jana badaramatelako. Lekura iritsitakoan,

piztia txit ongarrria izan daitekeela pentsaturik, bizitarako uztea erabaki dute. Eguenez, zuhaitzetik zuhaitzera, haurrik ez harrapatzeko moduko altueran eskegitzen dute horizontalean, leiho formako espirituak eta gainerako zurikeriak uxatzeko. Gaez, haur guztiak lo daudela segurtaturik, lurretik metro batera jaisten dute, lantzean toki estrategiko batean, buru aldeko gorputz erdia askaturik, azpitik pasatzen diren arratoiak, basurdekumeak bezalakoak, freskuran eta kontzientzian jan ahal ditzan.

.....

– *Soldadutzan be kontu bitxiak daukazuz zuk –diotsat arnasbidea geroz maizago ixten zaiola dirudien Saraset a gaixoari.*

– *Hm?*

– *Gogoan daukazu komandantearen andreari zelan garbitzen eta orrazten zeuntsan ule-moltzo bat besterik ez zirudien txakur 'artista' ha? Zergaitik ete zen garbiketa ha komandantea falta zenean agintzen eutsula beti?*

– *Hm, hm!*

– *Nahiz eta gero ez zinen gerran hain ondo ibili.*

– *Hm! Txarrena, gosea.*

– *Ez beti!*

– *Hm?*

– *Intxortako frontean, esaterako. Jaten hasteko, garbantzuak apur bat bigundu zain zengozeela, bonbaketa hasi zen goitik, eta denok lubakietara. Zuk zelai erdiko lapiko hari penaz eta bekaitzez begiratzen zeuntsan. Garbantzuak alperrik galdu beharra! Aitaren egin eta tximistan urten zenuen zelai garbira, lapikoa erreskatatzera, atzeko oihuei, "nora hoa zoro hori?", entzungor eginez. Hartu lapikoa eta bazentozen adurretan, baina aurrean barriro bonbak jausten hasirik, atzeko pinadian ezkatatu behar izan zinen. A zer garbantzu-asea, zeuk bakarrik, bonbak jausten ziren bitartean!*

– *Hm, hm! Bizirik etorri ginen, baina orain...*

– *Orain eskolara egin behar dogu osteratxo bat.*

– *Ostera gitxi nik, eskolara.*

– *Baina onuragarriak! Markesaren ortuko madaririk onenak nork jaten zituen? Maistraren sukaldetik bizkotxoak zelan desagertzen ziren? Errotariaren astoa kanpai-sokara nork lotu eban, herri guztia sutera mobilizatuz? Nork ostu eutsan abadeari aterkia, gero sermoi barregarriak eragingo zituen?*

– *Hm, hm, hm...*

– *Anton! –Esku bategaz nirea estutzen uzten diot. Bestea emazteak hartua dio.*

– *Hm... hmmm... hmmm...*

– Anton! Nora zoaz? Hasi baino ez gara egin! Sentitzen dot –diotset seme-alabei.  
Hau ez dot uste itzuliko denik.

.....

Abadetxera sartzean, harritu naiz iluntasunaz, oraindik ez baita hain berandu, Oibar eta Mauri erretiraturik egoteko. Logelara sartzean, gehiago harraritu naiz, erregistro liburuak lurrean trabes aurkitzean. Sukaldean ez dago nobedade-rik, baina bidean, Oibar eta Mauriren gelan, atepeko argi zirrinde hauteman dut. Oin hotsa ere sumatzen da orain. Etxe honek horixe du ona: ez dago isilperako modurik, mugituz gero. Apur batean, egon egingo naiz. Horman eskegita dagoen egutegi handi edo zenbaki handidunean, *Panderiako pentsuak, ez merkeenak, bai onenak*, harritzen naiz bi astelehen jarraikok nola duten 20 zenbaki bera. Badator baten bat. Mauri atalasean taket gelditu da, aurpegikeran ere taket itxura gehiago duela mutil batena baino. Oraintxe konturatu naiz bigarren 20aren 0a armiarma bat zela. *Ganbaran baten bat al dago?*, galdetzen du ahapeka, urduritasun haserreaz. *Ganbarara norbait igo al da?*, bergaldetzen dut tonu berdinean, baina haserreago. Gertatuaren berri entzun ahala, haserreak su hartuko zidakeen, bitartean Oibar sartu ez balitz sukaldera, hau ere lixibatik pasatu izanaren aurpegiz.

Mauri: *Nola ez diguzu esan ganbaran norbait zegoela?*

Ni: *Zergatik esan behar nizuen? Klandestinoak ez al zarete?*

Mauri: *Joder, baina teilape berean!*

Ni: *Teilape berean ez zegoen ezer gertatu beharrik, norbait oso behar ez zen tokira oso era makurrean igo ez balitz.*

Oibar: *Ganbo izan da.*

Ni: *Madarikatua! Gerrako biziraule zintzo eta oraindik sasoiko bat betiko agurtze biltz atsekabez dator, eta begira zer aurkitzen duan gaurko gudari azkarren lubakian!*

Mauri: *Ganbo hori fidagarria al da?*

Ni: *Norbera gordetzen jakinez gero, ez dago fidaezinen beldur izan beharrik.*

Oibar: *Ganbarako hori zergatik dago horrela apartaturik?*

Ni: *Ganbarako hori (ez da lehenengoa) akonjatuta dago, ulertzen? Ez du inolako kuski nahi, eta neuk ere ez dut nahi inolako ikus dezan. Bihar goizean eramango dut, eta libratuko ahal da onez, bere inplikazio guztia errebotte infantil bat besterik ez da izan eta. Uste nuen –uste bakarrik ez, ziur baizik– ganbarakoa gordetasun seguru zegoela, baina gordepekoak eurak hasten badira bazterrak miatzen, ez dago zereginik. Gertatua denez gero, zuekin ere banuen hitz batzuk egiteko gogoak eta zirkunstantzia balia genezake, logura handiren bat ez baduzue.*

Mauri: *Guk ez daukagu beste egitekorik.*

.....

'Ganbarakoak' izango du, noski, berea, baina hemen jatorrizko izenak debeku dira. Etorreraren ordenan, bakoitzari bere identitate probisionala esleitzen zaio, eta horrixe eutsi behar dio nonahi. Neuk ere nahiago dut abadetxetik pasatzen direnei buruzko ezer egiazkorik ez jakin. Nesken kasuan, inguruko Ama Birjinen deituekin hasi ginen: Oibar, Xemein, Erdotza, Almike... Laster ikusi zen izen lokalegi eta, beraz, urrunera ezezagunok herritarrei arraro egiten zitzaizkiela. Nafarroako ez dakit nongo bat Almike (Bermeon) deitzea ez da normala. Ezagutza zabalagoko Ama Birjinak (Arrate, Begoña, Arantzazu, Leire...) erabiltzen hasi ginen, eta horiekin nahasten, errerika gehiegia susmagarri bilaka ez zedin, inguruko ermiten baina santa unibertsalen deiturak: Ageda, Katalin, Barbara, Luzia... Mutiletan Donekristoak nagusitu ziren, hurbilean Mauri, Ganbo, Urto, Lumo, zabalagoan Lezo, Xiru, Andio, Butroi, edo santu-izen hurbil baina unibertsalak: Pello, Mikel, Santi, Bixen... Astebete dator, Oibar eta Mauri elkarrekin etorri zirena, nire lagun bilbotar ezkonberri moduan, *"kostaldean egun batzuk pasatzera"*. Aurretik ezagunak ez badira, erdaraz hitz egitea arau da euskaldunen artean ere, euskaraz hain nabari gertatzen den hizkerak nor nongoa den sala ez dezan. Oibar ezaguna dut. Beldur naiz ez ote naizen, nahitaez, Mauriren ere egiazko zenbait datuz jabetuko. Ez dakit eurekiko zalantzak argitzerik lortuko dudan, zalantzati nagoenik susmarazi gabe, baina egin beharra dago. Suagaz jolastu ezin bada, intentzioekin ezin da haztamuka ibili.

Ni: *Ez zaituztet artegatu gura, oraindik ez baitago motiborik, baina kontu hauek arazoa sortu aurretik erabakitzeak direnez, uste dut zuen hemengo egonaldia amaiera aurkitu behar diogula, susmoak zabaltzen hasi aurretik.*

Oibar: *Mugidaren bat izan al da?*

Ni: *san dizuet ezetz, eta sinestea daukazue, honelakoetan ezer argi badago, itzulinguru deferenteetan ez ibiltzea baita. Baina baita sinetsi behar duzue egoera arriskutsu bihurtzen ari dela. Geroz zailago zait azaltzea nola kostaldean egun batzuk pasatzera etorritako ezkonberri batzuek denborarik gehiena abadetxean igaro dezaketen. Jendeak badaki albora begiratzen, baina ezin zaio misterioa ispilu eta guzti jarri muturrean.*

Oibar: *Etxean bertan ere ez al dabil jende gehiegi eta ezberdinegia?*

Ni: *Zorionez! Itxi nitzake ateak zeharo, alkimista zeken batek bezala, edo has ninteke sarrerak selekzionatzen. Hamabost egunean amaitua litzateke funtzioa. Hemen, zuek orain bezala, asko dira bizi beharrekoak, eta askotasun askotariko horretantxe datza gordetasunaren gakoa. Nahi baduzu, Oibar, bihar joan ninteke Barakaldora, eta grebalariekin edo behar direnekin egon. Langile-borroka batean*

parte hartzea ez daiteke izan mapatik desagertzeko motiboa, beste inplikazioen bat suposatu behar ez bada.

Oibar: Labe Garaietako grebaren antolakuntzan kolaboratzeaz beste inplikazioirik ez daukat. Nik ez dut sinisten langileriaren beraren indar propioaz kanpoko interbentzioetan, Maurigaz sarritan eztabaidatu dudana moduan.

Ni: Baina beragaz etorri zinen eta beragaz zagoz, eta susmoa daukat Mauri hau kanpo interbentzio horietakoa dela. Susmoa baino gehiago esango nuke, eta ez egunotan izan ditugun debategatik ezen, akzio-erreakzioen metodo progresiboriorien bitartez, Euskal Herriaren askatasuna hamarkada baten kontua izatea kasik zientifikoki determinatua dela eta abar.

Mauri: Zer ulertarazi nahi diguzu, esaten ausartzen ez zarena?

Ni: Ez nuela uste langile- edo gizarte-borrokako ekintzaileak armatuta ibiltzen zirenik.

Mauri: Nola dakizu armatuta nabilena?

Ni: Gordetzen ez dakizulako. Atzoko mendi-itzulira irten zinetenean, non utzi zenuen pipa?

Mauri: Utzitako tokian aurkitu nuen!

Ni: Ez ikusia izan gabe. Zerbaitegatik esan nizuen, etorritz batera, elizaz arduratzen diren neskek abadetxea ere garbitzen dutela, aretoa eta dena. Ezin dut hasi hain gela edo hain armairu giltzatzen, ohitura aldatzeak auskalo nolako suposizioak abiaraz ditzan.

Mauri: Arma aurkitu al zuten?

Ni: Zezaketen, eskarmentu ona hartua ez banintz, beste batek zeure berbera egin zuenetik. Neskak sartu ziren, batek arma ikusi zuen, eta ibaiak bere hotsean jarraltu zuen. Konfiantzazkoa zelako, edo ikarak paralizatu zuelako, ez zuen ezer esan, edo esanak ez zuen korritu, nire belarriraino behintzat, baina igarri nion ikusi zuela.

Mauri: Atzo zer gertatu zen?

Ni: Aurrea hartzen asmatu nuela.

Mauri: Sentitzen dut.

Ni: Gertatzen dena gauza batzuk ezin direla sentitzearen esku utzi. Zorionez, orain arte, oso jende arduratsua pasatu da hemendik, zeu ere bazarela inolako dudarik ez dudana bezala, baina nik baino hobeto jakingo duzue kontu batzuetan ezin dela deskuidorik ere onartu. Ondo aurreikusita ibili behar da araua baitesten ei duen salbuespen hori noiz den araudi osoa puskatzeko gai.

Mauri: Ez zitzaidan iruditu arma neramala jakinarazterik.

Ni: Ondo egina, ondo gordetzeko segurantzaz izanez gero. Bestela, hobe da ostalariak ere jakin dezan zer gordetzen den bere etxean.

Mauri: Ez zait otu ere egin toki segurua ez zenik.

Ni: Segururik ez dago sagraiorik ere. Nire kide batek hantxe gorde zuen, gaixoak,

arrapalada une batean eskuan utzi zioten arma, halako zortez non, hurrengo egunean, nondibait motorrean zetorrela, istripu larri samarra izan baitzuen, harexen arduraz, seguruenik. Orduerdi barru hileta bat baitzeukan bere elizan, hor ere arrapaladan, artzapeza etorri zen ordezkotz, zeinari pentsa nolako bihotza jarriko zitzaion, hiletaren solemnitategian, sagraiora ireki eta zapi zuri eta kopoi distiratsuen ostean, halako krotaloo aurkitu zuenean.

.....

Oibar eta Mauriren eta 'ganbarakoaren' faltan, etxea hutsik geratu zenean, askoz handiago iruditu zitzaidan. Sastripo pozik dago, nire bakardadearen salbatzaile itxuran, berriketa astitsugoak egin ditzakegula pentsaturik. Iluntze aldera, Xemein ere azaltzen da, herri-euskaran trebatzera baserri batera etorria izanik, entzun dituen hitz, esamolde eta esaerak nigaz komentatu eta solastu nahian, eta, seguruenik, baserriko monotoniatik elizaldera jaisteko aitzakiari jarraituz. Ganbo, motor baten jabe, libreago dabil, bera ere baserri batera helburu berdinez etorria izan arren. Xemeini galdeturik zergatik ez den bera ere, lantzean behin, Ganbogaz Lekeitoria jaisten edo beste norabait mugitzen, motorrak beldurra damaiola erantzun du. Harritu naiz apur bat, nire motorrera igotzeko prest egoten baita. Egunez eta agerian, neu naiz erreparoa jartzen duena, mihi batzuk euren zerara zabaltzeko desiatzen dauden maiseoak saihestearren: *Zuen abadetxo hori majo dabil, lantzean neska bat atzean hartuta*. Horretan hizpiderik ez emateko prudentzia kasik gaixotiarri eusten diodan arren, gaututakoan, eta ondo ezagutzen gaituzten inguruan, neska bakarra elizaldetik baserrira oinez bidaltzea ridikuluegi iruditzen zait. Orduan, inolako kezka gabe igotzen da, gauaren beldur handiagogatik ere izan daiteke baina. Azkenean atera dudana da mutila bera dela gehiegi gustatzen ez zaiona. Euskaraz adierazteko zailtasuna aitzakiatzat jarriarik, erdarara jotzen duela (*euskaraz praktikatzera ez al gara etorri?*), galdera gehiegi egiten duela, inoiz usain arraroa hartzen diola... Beno, bat gustatzen ez zaizunean, edo nondik aurkitzen diozu okerra.

Asteiden, Ganbo apopillo hartu zuten baserrian, mutila estimatu daukate. *Habia onekoa izan behar dau*—dio Burna etxeoandreak—, *etxera doan bakotxean, hainbeste jenero ekartzen dau eta*. Etxejaunari, Asteideko Belantziari entzun nionak lehenengotan harrotu besterik ez ninduen egin. Ganbok esan ei zion: *Abadea oso maitea da herrian, ezta?* Belantziok baietz. *Guk, behintzat, asko estimatzen dogu*. Aitorpen horrek ez zeukan Ganbo harritu beharrik, zerbaitegatik egin bainuen bitarteko, bera baserri horretan harrezaten, Xemein Galdona baserrian bezala, ibarraren beste hegian. Horrelako proposamen bat egiten zaion etxeak propo-

satzailearen konfiantzakoa eta harreman txeratsukoa izan behar duela suposatzen da. Arreta handiagoa jarri nuen, etxejaunak esan zuenean mutilak, euskararen eta ohituren kontuak baino gehiago, pertsonenak galdetzen zituela. Herriko abadeak renak eta. Belantzio patxadatsu mintzo da. *Horrek ez dauka gogaitzeko astirik, motorragaz noiznahi gora eta behera. Edozein mandatu egiteko gertu dago beti.* Kalekume bati baserriko bizimodua itxiegia egitea eta, kostaldean batez ere, hara hona ibili nahi izatea ez dela harritzekoa, "orduak errespetatzen baditu", esan dudanean, duda gabe darantz: *Horretan zuzena da. Afalordura nekez huts egingo dau. Hori bai, astean behin, parranda galanta jaurtitzan dau nonbait, goizaldean itzultzen baita.* Asteburuetan etxera hutsik gabe doanak aste barruko egun soil batean 'parranda galanta' non jaurti lezakeen kalkulatu guran nabil, batez ere, oserbatu dudanetik, abadetxean jendea dabilenean, noiznahi inguratzen den moduan inor gabeko boladetan oso gutxi agertzen dela.

- Ganbo ikusi al duzu egunotan? -galdetu diot Xemeini.
- Atzo eguerdian topo egin genuen tabernan.
- 'Hola, chatiña!' esanez hasiko zitzaizun.
- Ai Xabier edo Don Jabier! Nik ez daukat mutil horretaz hitz egiteko gogorik.
- Zertaz nahi duzu hitz egin dezagun? Abadetxean lehenengoz utzi zintuztenean ekarri zenuen aurpegi larrituaz, eta joan zinean sartu zitzaizun dardarizoaz?
- Ez da gai atsegina, baina horixe ere nahiago dut lehengoa baino.
- Ez baitugu inoiz argi hitz egin trantze hartaz.
- Zer jakin nahi zenuke zeuk ikusi ez zenuenik?
- Ikusi nuen, jasan nuen, ikaratu nintzen, eta bost egunen buruan jaso zintuztenean, "ez dut joan nahi! oraindik ez! mesedez!", iltze tantakari bat gelditu zitzaidan bihotzean, neska apurtu bat bidali nuela pentsatuz.
- Ondo esan duzu. Zer erants dezaket?
- Xemein! Badakit badakidana. Nobela osoa idatz nezake hartaz, "Xemeinen bost gurutzak", esaterako, baina zeure ahotik ere entzun nahi dut zerbait. Hots, poztu nahi dut jakinez esperientzia hartaz hitz egiteko moduan berregin zinela, ezin baitut samin gabe pentsatu izuontzi bat izaten ote darraizun.
- Ez dakit hitz egiteko moduan nagoen, oraindik ez baitut probatu.
- Gauza bitxiak ere gertatu ziren, zelebreak ez esatearren. Harriduraz begiratzen didazu?
- Jakin-minez, areago. Egoera hartan gauza zelebreak?
- Zuretzat ez, baina niretzat bai. Lehen gaua sukaldean igaro genuen, ez baitzen oheratu nahi. Hara, hona, zutitu, eseri, leihora, komunera, ezin zinen geldi egon, kaiolan sartu berri duten tximinoa iduri. Bigarren gaua ere hala igarorik, hikugarrarenaren erdian, errenditu zinen, baina ez zinen gauza logelan bakarrik geratzeko. Aulkian eserita jarri nintzaizun, lasaitu guran. Lokartu zinela iruditurik, isil-isilik

alde egiten saiatzen nintzenean, izu-atakeak ematen zizun. Hil-hurren bati bezala beila egin behar izan nizun. Argia itzaltzerik ezin zenuen jasan. Ohartzen zinen, horraitio, neu ere ez nengoela ondo-ondo, aulkian mesanotxearen kontra, gau osorako, eta esan zenidan: "Zergatik ez zara etzaten? - Zeure ondoan? - Ni ez nago ezertarako moduan". Horixe esan zenuen. Obeditu egin behar izan nizun, bakartadeak izutzen adina larritzen baitzintuen hiltzoriaren irudikapen hark. Halaxe etzan zen apaiza, lehen aldiz, neska baten ondoan, mehatxu kanoniko eta prekaizio milenario guztien aurka. Suposatzen dut zu ere halaxe aurkitu zinela, lehenengoz, apaiz baten ondoan, luze.

- Lehenengoz eta azkenengoz, apaiz baten eta... inoren ondoan.
- Pozten naiz irribarre xume bat jaregin zaizulako.
- Sentitzen dut zu hala biolentatu izana, baina oso gaizki nengoan.
- Ez ninduzun biolentatu. Soilik, eginkizun pastoral delikatu baten aurrean jarri. Lorik ezin zenuen egin, eta niretzat ere ez zen egoera logarria. Elizako kanpaia isildu egin behar izan nuen, susto izugarriak hartzen baitzenituen.
- Garunetan jotzen zuela baitzirudien!
- Kostatu zitzaidan herritarrentzat esplikazio sinesgarri bat asmatzea, kanpaia zergatik blokeatzen zen gaez. Ez dut uste sinetsi zutenik, baina nahikoa izan zen benetako arrazoia susma ez zezaten.
- Ene ama! Zenbat endredo!
- Ez hainbeste, ipuinak maite baitzenituen. Edo maite beharra baitzenuen. Txilinerrota, Hamalau, Animaliak berbetan, Albokari bat Parisen, Morroia baserri baserri, Doistuko sakristaua, Otsoa artzain...
- Otso horrena ez zitzaidan bat ere gustatzen. Bere uluak dardaratu egiten ninduen.
- Kontatuko al dizut oraintxe, ea ez dardaratzeko gauza zaren?
- Hobe ez, badaezpada. Ez gaitezen sakonerak hondeatzen has.
- Gertaeren ahanzpena ezinezkoa izango denez, saiatu behar zenateke oroitzapenek mendera ez zaitzaten.
- Denboraz gehiago fidatzen naiz neure buruaz baino.
- Denborak zuloa handitzen ere badaki, buruak norabidea markatu ezik.
- Ari gara hizketan! Zer gehiago egin nezake?
- Zeuretzat, ez dakit. Ez naiz demiurgoa. Niretzat, gauza bat egin zenezake, gehiegi eskatzea ez bada. Motz, soil, funts, motiboa jakin nahi nuke, zergatik etorri eta joan zinen hain izate suntsituan.
- Ez nintzen ezertan ibilia, baina hemen badakizu erreboteak noranahiko moduan prestatu daudela. Komisarian egin nuen egun bakarrean, torturen manual guztia errebasatu zuten nigaz, bortxaketaren prolegomeno etengabeak barne. Egintza osoa nahiago nukeen behin, hainbeste hastapenen segida baino. Jartzen ninduten...
- Ask! da. Gehiago ez dut behar.
- Handik astebetara, berriz bila etor zitezkeen abisua jaso nuen, eta halaxe agertu

*nintzen zure etxean.*

– *Ez zen erraza zu nola tratatu asmatzea, zazpikia esku artean baino mendreago Gelditu zitzaidan zirrarratik, saiatu nintzela uste dut.*

– *Zergatik itzuli naizela uste duzu?*

Galderari erantsi dion begirada linfatikoak arteko zirrara uniformeak zauskada bihurtu dit. Abadetxeko sukaldeko mahaian gaude, duela urte erdiko gabon-oste larrian bezala, gaur lasaiago baina. Alkandora urdin-ilun mangamotza arrosario antzeko idunek bategaz, eta mahaiepean, gona zuriska bat, zapatila hori eta galtzerdi berdeekin. Mahaira pausatzen zaizkion beso gurutzatuetan, bilo hori trinkoa eta fin-fina hedatzen da, ondo fijatu ezik, azalaren koloretik bereizteazina. Bekoz beko begiratzea kostatzen zaidan arren, begiak ere horiskak dituela uste dut, negar ugarirako edo bizio berorako destinatuak. Bere aurpegi bete samarra, luzanga, masail-hezurak xuabeki markatzen zaizkiona, benetan polita denik ezin dut zin egin, nire kastitate-botoari, federik ez diodan baina indarrean dagoenari, denak iruditzen baitzaizkio zoragarri, distantzia egokira. Argiaren islagatik-edo beltz berdexka iruditzen zaidan ileak, goialdean kiribil, eskuinetik solte, ezkerreko larria lirainki, sentsualki emmarkatzen dio, bizkarrerantz zein aurrerantz jausteko luzerak politasunari elegantzia mitologikoa eransten diola. Bere irribarreak, goi ebakortzen erdiko bitartekoak hain doiki zentratuak, ez dakit zergatik hunkitzen nauden gehiago: ezagutu nuen egoera errukarriko irudia transluzitzen duela, ala betertzak eta ezpain-ertzak, bitarte horixe irekitzearren, alboetarantz xotiki atezatzen zaizkiolako. Albokera eseri denean, hanka hankaren gainean, bekoki eta mahai ertzetik doi-doi ageri zaion belaun-burua jokora daude sudurgainaren kurbadura xumeagaz, zeinaren punta arinki gorakorrek goi ezpainari eta honek okotz-puntari tiratuz, soslaiaren diagonal kontrapisu xarmagarrian pausatzen den, mahaira angelu zuzenean oketuriko besoan. Eskuin aldeko soslai miragarriko sinpleagoa da, soil-soilik ilearen lerro kasik bertikalak belarria estaltzen diolako. Atzez, sinpletasunak edertasun totalaren silueta erakusten du, tamaina exaktoki naturaleko itzala bere objektura bildu baililtzan.

Ikuspen horretaz guztiaz xarmatzen ari naizen bitartean (kastitate-botoaren bigentzia ez da iristen debekuan sartzen den atsegin hori moztetaino), Xemeinek esana burutik ezin kenduz nabil. *Nik ez daukat mutil horretaz hitz egiteko gogorik.* Ez naiz ausartzen gogoez horren arrazoiak erasotzen, behar bada, nire aieruez oso beste orbita batekoak dirateke eta. *Ez naiz horretaz fidatzen* esan balu, eskatuko nioken azalpen zerbait, baina neska baten mutil batekiko antipatirik hain eragile ugari eta kontrakoak izan ditzake, ezen nahiago dut neure isil-bideekin. Lekeition, haiekin harremana dudan neska-mutil taldea nik berari aurkeztu arte ez zuen bakerik izan Ganbok, berak ere, herri ezezagun horretan, lagun batzuekin

egin nahirik. Herri-euskaraz jabetu nahian dabilen batentzat, oso gurari naturaltzat jo genuen denok, harroki, gainera, gure kausetako bat aurrera zihoalako. Gero, haiekin nigandik aparte harremantzen hasi zenean, txikiteo eta abar, esturan jarri ninduten, lekeitiar gazteak, pentsakizunak leuntzeko filtroak kresalak zulatu ohi dizkienak, *hori mutil hori fidagarria al da?* galdetzen hasi zirenean. *Izango ez da, ba?* nerantzuen alderantzizko filtrotik, neu ere galdera bera egiten hasia nintzela agertu gabe. Aulestira ere eraman nuen, lagunak egin zituen, eta hango apaiz adineko baina bere erara oso aurrelariak denbora batera diost: *Hori mutil hori zer?* Beragana joaten ei zen solasean, eta lehenengotan, oso gustura, apaiza ere xarmaturik, euskararen interesak bilbotar gazte bat ibar txiki batera hala ekartzea garai berrien seinale zela-eta, baina astiro-astiro ohartu ei zen euskaraz, kulturaz eta ohiturez haragoko galderak egiten zituela, ugaritasunagatik arretagarriago in-pertinentziagatik baino.

Ondarroako talde batzuekin biltzen nintzela jakinik, hara ere lagundu nahi zidan, eta dudarik gabe eraman izango nukeen, artean nire mesfidantza aurreregi joana izan ez balitz, batez ere, gau berandu batez (kastitate-botoaren "egun osoko ernaitasunean" ez zen gaurik aipatzen), Markinatik pasatzean, guardia zibilaren kuartel kantoiko kalekxan gora hauteman nuen motorra Ganborena iruditzen zitzaidanetik. *Madarikatua! Zelan ziurta neikek hori?* Eurt egin eta kuartel aurretik, karril hurbiletik, astiro-astiro pasatzeak beldurra zemaidan. Goranzkoan ikusi baninduten (ezagutu, agian, ez bainintzen behin bakarrik altoa jasana bertan, baita barruratua ere), bigarrenez handik pasatzea zertatik justifikatu behar nuen, katuak ere erretiratatuak ziren orduan? Kuartelaren aurrez, errepedearen beste aldean, karmeldarren komentua dago. Atea jo eta konfiantzazko fraile bati kalekka harexen pareko erregilladun leihora igotzen uzteko eskatzea bururatu zait, motorraren jabea kuarteletik irteten ikusteko. Konfiantzazko frailea badaukat, baina komentu guztia aztoratzeko arriskua ere bai. Hurrengo kaleburutik komentua azpiko kalera sartu naiz. Ez da egia katu guztiak erretiratatu zeduna. Marrau bat entzun dut, bera ez dut ikusi baina. *Zer egin neikek? Aukera honi galtzen uzterik ez jagok.* Oinez pasatuko naiz, kuartelaren espaloitik bertatik. Ordu hauetan, sarrerako guardia ez da beti kanpoan egoten. Komentu kantoitik begira dezaket ageri denetz. Oin hotsera-edo, ni parean pasatzean, guardia irtetea suertatuko balitz, ez litzateke derrigorra alto ematea, espaloia publikoa baita. Mutila bera irtetea suertatuko balitz, susto galanta biontzat, baina ikerketa, konpleto. Kasualitatez deskubrituko banindute, koartada sinesgarri bat behar dut, bueltan zergatik eta nora natorren oinez ondo koadratzekoa.

– *Alto! Zu ez al zara orain-oraintsu motorrean pasatu dena?*

– *Gaez ere ondo ikusten, eh!*



- Bazilatzen, gainera? Nora zoaz oinez?
- Zeuengana, jauna.
- Desorientatuta? Zu ez al zara betaurrekoekin ibiltzen?
- Gazte-gaztetarik, baina hor behean gora nentorrela, kristal bat jausi zait, antza.
- Eta konturatu ez?
- Zerbait arraroa igarri dut, baina hemen, geratzeko ere leku txarra zenez...
- Leku txarra, hau?
- Aparkatzeko esan nahi nuen, eta aurrera egin dut, hurrengo kalebururaino.
- Ezin al zinen Gizaburuaga edo Amotororaino ailegatu?
- Ez daukazue informazio okerra.
- Edo Aulestira, edo Lekeitiora, edo Ondarroara. Orain ere ez zinen etorriko...
- Ondarroako 34-tik? (klub ospetsu bat). Hain aurrelaria ez naiz oraindik.
- Kontrabandoren batetik, orduan, meza-ardoarena edo?
- Ez daukazue sinesteko obligaziorik, hots, ez sinesteko obligazioa daukazue, baina Arrateko Gogo-Jardun Etxetik nator. (Denak maiuskulaz, egia ematen du).
- Ordu hauetan, beste jardun batzuk ere izan zitezkeen.
- Ona eta merkea ez dugu debekatzen, jauna. Oherakoan, kontzientzia-azterkera deritzona neure kargu zegoen. Jardunlariak erretiratutakoan, sukaldeko emakumeekin eta Gogo-Jardun Etxeko arduradun mojekin, biharko plangintza errepasatzen hasi gara, kafetxo bat hartuz, eta zuk iradoki dituzun zeregin horietatik libre gaudenoi denbora aise joaten zaigu, beharbada era gogotsuagoan doalako.
- Kristal bakarrez ezin al zenuen jarraitu beste inor ez dabilen orduotan?
- Bistatik lehen ere ez nabil sendoegi, jauna, begiak hain bide luzean buelta gabeko asimetriara ohi daitezen arriskatzeko. Betaurreko gabe, berriz, oinez ondo, baina, motorrean, zorabiatzeko beldur naiz. Azkenik, kristala ez da hain garestia, baina herri txikitako apaizon soldatak -zuenak bezala, suposatzen dut- ez du hainbeste terako ematen, merezi baino gehiago izan arren.
- Zer nahi duzu, orduan?
- Beharbada, hortixek hasi behar genuen, baina premiarentzat inoiz ez da berandu. Linterna bat nahi nuke, ea kristala topatzen dudana, betaurreko gabe hori ere ez da erraza izango baina.
- Ez duzu, ba, nahiko geu hasi gaitezen bila!
- Borondatea izanez gero, nahikoa litzateke argi egitea.
- Baietz esan behar zioagu! -eurek elkarki-. Entreenigarri bat ondo etorriko zaiguk gau-errelebo puta honetan. Tarantino! -leihoko barrore artetik barrurantz baten tek-. Bila ezak objektu errekiatuen gela ilunean linterna bat, badabilena.
- Joder! -pentsatzen dut, bila hasi naizenean bi numeroren erdian, batak linterna enfokatuz, besteak metraileta, argi egiteko-. Topatzen ez badot, kapaz dozak neure arakatu eta aldean daroada la aurkitzeko.
- Ezer ikusten al da?

- Lorratzak, baina ez dira seguruak. Ez argia hainbeste hurreratu, mesedez, batez ere metraileta hori, nire begi kristal gabea aise desbistatzen baita.
- Ez ote da pirritan joan izango errepede barreneraino?
- Kokoteneko bihurtzea hartuta? Hain miragarriak izateko adina ez nituen ordaindu.
- Abiaduraren alde, gorantz egin ez badu.
- Badakizue, jaunak, aurretik azkar pasatzeko baino errespetu handiagoa diodala zuen etxeari. Aizue, atea bakarrik eta ilunetan utzita, ondo al goaz? Ez inor sartuko delako, baina norbaitek ihes egin lezake, zuek igarri barik-. Linterna eta metraileta kuarteleko aterantz enfokatu direna baliatu dut, sakelako kristala espaloi ertze- ra kontuz-kontuz botatzeko, kasik pasatzeko.
- Ageri al da ezer?
- Zaila, kristal luminiszentea ere ez zen eta.
- Oh, barka! -Linterna eta metraileta posizio argigilera itzuli dira.
- Hara! Hemen dago kristaltxo! Eureka!
- Izen eta guztikoa?
- Ez. Beno, bai. Eureka hori Arkimedesen emaztea zen.
- Senar itsusi horrena baino izen politagoa zeraman. Beste kristalak ere izen bikia izango du.
- Izen hori kristal galduei bakarrik jartzen zaie.
- Orain armazoian ondo doitzea izango da kontua.
- Bestela, parabrisean lotuko dut, begiaren parean.
- Kuartelean gaua pasatzerik ez al zaizu bururatu, katxondeo apur bat izan dezagun?
- Gaur utzidazue etxera ailegatzen. Hurrengoan, saiatuko naiz hemendik ez pasatzen, horrek hainbeste molestatzen bazaituzte.
- Segi! Ez bekizu berriz kuartel aurretik oinez pasatzerik otu, hirugarrenak ospe txarra baitauka.
- Eskerrik asko denagatik. Agindua aholku ontzat gordeko dut.

Lortu dut motorrera hurbiltzea, eta Ganborena da, bai, baina horrek ere ez du ziurtasun osorik garantizatzen, bera ez dakusdano. Baliteke susmoaren konfirmazioa izatea, baina baliteke putetxera joan izana ere, ibilgailua bizio-etxetik aparte eta ostua ez izateko etxetik hur utzita. Zaintzen gelditzea alferrekoa litzatekeela uste dut (beharbada, arriskutsua izateak ustearazi dit), koka naitekeen behatokitik hurbilenetik, kuartela den modu-modukoa ageri baita: iluntasun osoa. Badakizu zer egin? *Bart goizaldean Markinatik ez al hintzen?* galdetuko diozu, eta gezurren bat asmatzen saiatzen bada, auzia argi dago. *Koño, baina aproba horrek bardin balio leikek putetxentoaren hipotesirako be!* Bidean, Santa Eufemian gora, behera, lantzean hontz-ulu baten eta txakur-zaunka mehatzen laguntzaz, eta batez

ere, haitz zurietan batzuetan forma eta guzti islatzen den ilargiaren inspirazioz erabakia argituz doa. Esan egingo diot. Egia ez balitz, aurkituko du modua gezur tatzeko, edo bistatik aldentzeko. Beretzat ez dateke kalte larria, nongoa den ere ez baitakigu garbi. Bilbokoa esan ohi du (mundukoa esatea bezala), baina, inoiz, Ba sauri edo Barakaldo ere aipatu izan ditu. Egia balitz, berriz, berak dakike zer egin. Nahi badu, itzuliko da bere jatorri ingurura, eta hemengo ospeak ez dio jarraituko. Gelditzea erabakiko balu, ikusiko dugu bere egitekoari noraino tiratzeko gertu da goen. Esateko erabakia argi dago, baina modua ez da hutsala, hain kontu delikatuari hots, beldurgarrian. Aurrean duzuna, eskala sozialak beherago jarri dizun hori, beldurra diozun zerbaitegaz –labana, mamu, kuarterl– erlaziozatu duzuetik, pentsarazten dizun elementuaren inponentzia guztiagaz aurkezten zaizu. Zabal ditzaket isil-orki batzuk, *Urlia hau eta hori eta bestea da* esanez, baina doilorkeria handiegia litzateke, ziurtasun osoaren jabe izan gabe. Bidal niezaioke anonimo pertsonal bat, *hauxe eta hauxe diote zutaz*, baina horrek ere doilorkerien barran darrai.

.....

Goizalde batez, isiltasunak hamahiru hortz eta baten hutsa dituen abade txee batean sartzean gerta litekeen onenagaz topo egin dut, ofizioz desiatzea tokatu litzatekeen agerpen inprobableetatik aparte. Sukaldeko mahaian neska bat dago. Ez dago beste posibilitaterik, neure zain egon zedin baizik.

- *Ene, Xemein! Hau susto 'bedeinkatua'!* –apaiza bainaiz–. *Nola zu hemen?*
- *Kosta zaizu iristea.*
- *Gutxien usteko nuena, zu hemen aurkitzea.*
- *Ez nuen egon behar, baina banago.*
- *Zorionez! Gutxien ustean nahien litzatekeenari batzen zaionean, emaitza double baino gehiago da.*
- *Gogo-jardunak gau-adoraziora luzatu al dituzue?*
- *Kuartelak ere bide guztietan baitaude. Markiñan alto eman didate.*
- *Oh! Sentitzen dut.*
- *Dolumina dirudi horrek.*
- *Suabeagorik ez zait bururatzen.*
- *Ez da hainbesterako izan. Oraindik apaizok badugu itzal bat, noiz arte ez dakit baina.*
- *Itzalak balio al du beldurretik libratzeko?*
- *Nire kasuan, ez. Zu hemen egon ez bazina, disko bat ipintzeko irrikaz nentortzen lasaitasuna eta inspirazioa ematekoa.*
- *Neuri ere ez zait txarto etorriko.*

- *Horixe egingo dugu, kafetxo bana prestatu bitartean. Zeuk ere hartuko duzu, ezta?*
- *Kafeak apenas lagunduko dizun lasaitzen.*
- *Nire gaurko loa bestela ere joana dateke, musikak mirari handiren bat egin ez baleza. Aparatua ez da galantegia, neure Geloso koxkor maitea. Diskoa gainean jartzean, gizon txiki bat andre zabal baten azpian dirudi.*
- *Konparazioan, posizioak era ridikuluak ez al dagoz?*
- *Alderantziz penagarria baillizateke! Lehenengoan, behintzat, gizon txikia ez da ikusten. Jarriko al dut Verdi bat, Erromesen Korua, esaterako?*
- *Zeuk jakingo duzu ondoen zerk lasaitzen zaituen gehien.*
- *Kafea atzo egina da, baina kolorea eta usaina baditu. Va, pensiero, sull'ali dorate. Azukrea zeuk bota, zeure neurri.*
- *Eskerrik asko. Zaporea ere badu apur bat.*
- *Eskerrek! Inoiz atera izan dut atxikoria hutsezkoa. Inork ez zuen ezer esan, nik tonto-buru egin nuen, eta horrelaxe korritzen du hemen fedeak.*
- *"Lasaitasuna eta inspirazioa" zenioen arestian. Lehenengoarena ulertzen dut, baina inspirazioa ez dakit zertarako behar zenezakeen orain.*
- *Inertziagatik. Kuartelean behar izan dudanez gero (oraintxe eman didan popatik!), buruak jarraipena eskatzen zidan (beharko ez dinat, ba, inspirazioa, aurrera nondik jo ez dakidala bainabil?), beharbada, ipuinen bat kontatu beharko baitizut.*
- *Ez daukazu berririk asmatu beharrik. Niri Txilinerrota gustatzen zait gehien.*
- *Musika jaitsi egingo dut apur bat, ezta?*
- *Ez askorik, gure hitzak ere Verdiren koruan sar daitezten. Ederra da gero!*
- *Zuk egin duzuna ere ederra da, Xemein. Bere hizkuntza gauza inoraeintzat zeukan herri zapaldu batentzat, Bilboko neska eskolatu baten horrelako etsenplua norgarri handia da.*
- *Egia esan... beno, gutxi gorabehera, lehen ere esana dizut zergatik itzuli nintzen hona.*
- *Eska al nezake berriz entzuteko poza, esplizituki?*
- *Ba, bai! Zeugatik itzuli nintzen.*
- *Zoriontzen nau kausa eder baterako bide izateak. Eta pozten naiz herriagatik, beharbada haietarako arrazoi ugari pilatu zaion mesfidantza guztien aurka, etxeak hain oparo zabaltzen hasia delako.*
- *Hori guztia neuretzat ere pozgarri da, noski, baina beldur naiz Verdiren inspirazioak esan nahi nuena ulertzen askorik lagundu ez ote dizun.*
- *Zeug libratu beharko zara beldurretik, Verdik lagunduko dizunagatik.*
- *Ai, Xabier edo Don Jabier! Bizkaian zein Euskal Herrian, banuen aukeran zenbana nahi etxe, hemen bezain ate irekiak aurkitzeko. Aitita bat nafar jatorrikoa dut, eta amaren gurasoak, Uribe Kostakoak. Herri honetara itzuli banaiz, ez da izan zugatik bitarteko bezala, zugatik helburu bezala baizik. Zeugana etorri naiz!*
- *Ondo ulertzeko, beraz, neure pertsonaren bila pentsatu behar dut?*
- *Kosta zaio Verdiri laguntzea!*

– Gehiegi pozteko arriskuan jarri nauzu.

– Sukalde zahar hau nire sentimenduen gordeleku bilakatuz joan da. Itzuli nintzenetik, inpresioa ez zait arindu, alderantziz baizik. Hemengo sar-irtena, ateen irekitasun permanentea, gaua barne, herriagazko harreman karinosoa, eskualdeko gazteria mugitun ia guztiagazko konexioa, hierarkiagazko enfrentamendua, indar biziekiko tentsioa, sermoien espektazioa... Nik neukan apaiz-ideiaren inbertsio etengabea da hau.

– Transgresioa esaten ausartu ez zarena?

– Definizioa behatokiaren arabera izango dela suposatzen dut, baina apaizen sektore batek bildu duen sonak gertaeraren konstatazioa erruz gairatzen duela dirudi. Fenomenoak txunditu ninduen, eta ametsa iruditzen zait fenomeno horren inguruan bizi ahal izatea.

– Zergatik ez barruan? Fenomenoaren atal bat zara.

– Bai nintzateke, hots, izatea desio nuke, barnatzeko gauza banintz nola zure pentsaera eta sentierako gizakume bat gero bere baitara iruntziturik, maskorturik bizi daitekeen, sukalde ipuinezko baina inplakable honetan.

– Ideien gorabeheran dago dena. Zeuk ere izango zenuen ideien bat, hiri handirik baserriko batean 'maskortzera' etortzeko.

– Sinesten bainuen! Zuri, ostera, entzuna dizut zeure biziera honetako gauza asko ez dituzula sinesten.

– Ideiak ez dira sinesten, fedea bezala, edukitzen baizik. Biziera honek ideia handia izan behar du, zuk aipatu fenomenoa disparatzeko balio izan badu.

– Eta esango banizu ni hona, fenomenoaren parte zarenagatik barik, zeure pertsonagatik itzulia naizela?

– Zerbaitetan atsegin natzaizula ulertu beharko nuke, ondoren zertan galdetzeko.

– Ba...

– Nahi al duzu neuk laguntzea, konfesioan egin ohi den bezala?

– Premian nagoela uste dut.

– Inoiz esan didazu asko lasaitzen zaituela nigaz berba egiteak.

– Horixe izan daiteke 'zertan' bat. Solaskidea esateko desiatzen dagoen gauza galdetzeko artea daukazu.

– Entzutea xarmagarri den bezain zaila da sinestea arrazoi hori badela aski senda, bilbotar neska bat baserrira ekartzeko.

– Arrazoi hori hartuta litzateke, solaskidea esaten ausartzen ez den gauzak intuiziotan bazenki.

– Susmoa dut ipuin bat entzun nahi zenukeela.

– Duda barik.

Izatez, Xemein ez dago sukaldean, baina ziur bihar iluntzean agertuko dela, eta nik, badaezpada, eszenak aurreratu egiten ditut, gero hala gertatuko

balira, inork ez diezadan aurrerapen hori ken. Beti ez da horrela izaten, batzuetan atzeratzen baitira. Kontua da gutxitan lortzen dudala eszenak euren gertatze errealean bizitzea, eta orduan aurreratu edo atzeratu egiten ditut, biak ere bai, aurreratua ondo burutu bada. Metodoa ez dakit lar zientifikoa den, baina horrela askoz humanoago dirudi, emankorrago behintzat, denboraren erortze azkarregi edo mantsoegiaren esku utzita baino.

.....

Ganbo apopillo hartua duten baserrira ez nintzen herenegun goizean gutiz alferrik joan. Mutila bera ez zegoen, baina Asteideko Burna etxeoandreak hamaitakoko gozatsua janarazi zidan. Baietz. Urdaiazpia hasi berri zuela, arraultzak goizean bertan jasoak zituela, botila ardoa bezperan irekia zela bisitari batentzat, eta amaitzea komeni zela. Emateko borondatea daukanari arrazoi konbintzenteak piltzen zaizkio. Eguerdirako, beharbada, ez dela etorriko esanda joan da, baina emongo deusat berorren mandatu, abadetxetik pasatzeko. Badakit mandatu jaso zuena, baina ez zen abadetxetik pasatu. Atzo ere utzi nion, Sastriporen bitartez, jaso zuela badakidan beste mandatu bat, baina berdin gaude. Nire susmoa geroz probableago iruditzen zait. Kuarteleko eszena txoriburu haren ondoren, numero bat esaten deskuidatu izango zitzaion: Hire herriko Calvino hori hor ibili duk errepi-dea mihizkatzen, begi bateko kristala besteagaz ezin aurkituz. Ez dut uste Ganbok nire trikimailua susmatzeko adina argitasun izango zuenik, baina ez dago dudarik, ofizioak eginarazi ahal dizkion juzgu txit ezberdin eta inpuneen artean, bere une hartako egiaz ere otu izango zitzaioela loturaren bat. Dena neure burutapena ere izan daiteke. Periferiaren formak ez du zentroaren funtsa aldatzen. Gaur ez haz, ba, bazterka pasatuko! erabakirik, errepedean gora eta behera itxaron diot, brebiar-joa errezatuz, herriko nobedadeak ikusmiratzeko (eta entzuteko!) prezeptuan darraiten kolegen plantan. Zer, abadea? – ziotan lantzean batek-. Bazkaltzeko gosea egiten? – Bai, berak nahi badau, baina hain barik be badakit jaten. Behar zenari erreparatzean, badaezpada bide erdira irten natzaio esku bien errendizio keinuan, agur efusibo bategaz albotik pasatzeko tentaziorik izan ez zezan.

– Higaz berba egin beharra joat.

– Oraintxe bertan?

– Lau berba bakarrik. Urgente samarra baita. Nahi baduk, baztertu eta bertan, motorretik jaitsi gabe.

– Atzo arratsalde erdian, abadetxean sartu nintzen, baina ez zeunden, antza, mototza pasilloan zegoen baina.

– Eskolara joan nintzen bitartea izango zuan. – Sinetsi diot, baina harriturik dirudi,

hika mintzo natzaiolako.

– *Zer da urgentzia hori?*

– *Lau berba bakarrik, agindu bezala: kuartelean ikusi ei haute.*

– *Lekeition?*

– *Edo Ean, edo Gernikan... Badakik, gauza horietan, nahiago dudala detainerik ez jaso.*

– *Dios! Sinetsi egin al duzu?*

– *Nire sinestearen zentzuak ez dik gertakaria aldatzen, esamesaren aldetik, behintzat.*

– *Baina zuk baduzu autoritatea esamesa aldarazteko.*

– *Nik dezakedan bakarria duk, oraingoz, hi jakitun jartzeko beste estima hazadan. Ulertuko duk hire aldeko presuntzioak ezin nauela libratu esamesaren objektua egia izan ote daitekeen kezka beldurgarritik.*

– *Hau absurdoa da! Zuk banazaguzu.*

– *Heuk ere banazaguk. Sinesten diat, baina zer nahi hukeen? Hiri buruzko kontu hain delikatu bat heuk bakarrik ignoratzen utz nezan?*

– *Absurdoa! Absurdoa! Zer egin dezaket absurdoaren aurrean?*

– *Lehenik, jabetzeko astia hartu. Badakik abadetxea zabalik dagoena, nahi duan, nahi duanerako.*

Motorra tarranta bizian joan da, ihes-hodi okatzaileari eskapan. Bihurgunean ezkutatu denean, sentipen berdina izan dut emergentziaz itxita egon den etxearena, ate-leihoak ireki dizkiotenean. Ez diot agertu esamesaren gorputz nagusia neure dedukzioan zetzanik, berari ere dedukzio-bide batzuk libre uztearren. Iluntzean, mutila ikusteko oso era disimulatuan joan naizenean, Burnari entzun diot etxera alde egin duela, bat-batean, motor eta guzti, "presazko kontu bategatik". Ez dela, seguruenik, astelehenera arte itzuliko. Astelehen horri, 'seguruenik', iristea kostako zaiola uste dut. Horixe pronostikatu diot Xemeini, egin berri diodan kontaktetan.

.....

Dagoeneko badakit hegan ikasterik ez dudala, hartan alferrik saiaterik, haurtzaro fantastikoa igaro banuen ere. *Dena dok haize egokia alde harrapatzea*, pentsatzen nuen, baina zuhaitz adarrekin edo lianekin eginiko zabuekin konformatu behar izan nuen, lantzean narruko eder bat hartuz. Hegatzearen hurbilena zuhaitz punten kulunka zen, ibilbide handiegia hartzean, bertigo puntura iristen zena, non begiak ondo itxi, zuhaitz-gerrri jada mehera estuki besarkatu eta oszilazioa baretzedin itxaron behar zen, zera, halaber, haizea baretzean bakarrik gertatuko zen.

*Eta orain punta apurtuko balitz?*, izaten zen pentsakizun larriena, goregi igo izanaren susmoak erasotzen zuenean, larriuneetan beti sortzen zena bera. Zabuen indar eragilea bultzada esternoa edo trebetasun internoa bezala, zuhaitz puntena haizea zen.

Greziar filosofia kosmoaren oinarritzko printzipioen bila abiatu zela jakin baino askoz lehenagotik tematzen nuen, eskola-lagunen arteko eztabaidetan, haizea miragarriago zela ura, sua eta lurra bera baino. Ikusten ez den gauza bat hain biolentoa izan daitekeela! Alde batetik, berari nion beldurrik gehien, hain baitzen inprebisiblea, ikustezina, ihestezina; hain baitzen urrumatia, gauez, burua mantapean gorderik, belarri-zuloak esku biekien prentsaturik ere, teilatua bazeramala zirudienean. Bestetik, bera zen, barean, hurbilen, lastankorren, ausentzia bezain diskretoa, baina hortxe beti, zirkinik xumeenaren zain. Burua mantapean gorderik, belauna mugitzen duzu, eta hor dator gorantz, belarri ertzak ferekatuz. Zopa jaten ari zara, koilaran eta pentsamenduan kontzentratutik, eta nonbait zirrituren bat egin da, edo txakurra sartu da, edo tximeleta bat pasatu, ezpain bustietan kilima bat sentitu baituzu. Tximeleta izango zen, hurrengo koilarakadan, plateran aurkitu baituzu. Hain elementu sentigarri bezain atxikiezin horrek izenak ere bi zituen, gutxienez, *aire* eta *haize*, zeintzuetan beti izorratu ninduen ezin jakiteak non amaitzen zen bata eta non hasten bestea. Haizeari zegozkion misterioen azpian, banuen inor tematzen ausartzen ez zen nagusitasun bat, kasik erreberentzia bat: mendi altukoa izanik, denek aitortzen zidaten haizeagazko harreman pribilegiozko bat. *Torreburu ez al jok haizeak inoiz eroan?* Eurak ere haizearen portaera sarritan mamugarri, inoiz beldurgarrien jasaile izanik, bitarteko influentzetat hartzen ninduten, 'Torreburuko mutikoa' menditik jaisten zeno, eurak seguru baleude bezala.

Zabu-efektua eta zuhaitz puntako haizea batuz gero, hegatzeko sinplea baino zoragarriago izan zitekeen konbinazioa pentsatzen igaro nuen gaztaroa ere, udako opor menditarren bakartasun asmatzailean. Egiatzko asmakuntzarik gutxi, baina pentsaketak, denak. Gizakiaren ezaugarri gorena pentsatzea bazen, naturaren genioa nintzen. Esperimentua ezin zen, ordea, inon burutu, patxadaz behintzat, mendiak inperialki zeharkatzen zituen goi-tentsioko linea hark, tontorretik tontorrera, troka sakonetan hartzen zuen altuera inponentea baliatu ezik, ikurrinak ikusgarriro eskegitzeko aluki bururatu zitzairen moduan, guardia zibilen desesperaziorako, zeintzuek, gorputz rurala izan arren, ez zeuden ohituta euren atsedena hain toki malkarretan aurkitzen. Oraitxe dauzkat neure esperimentu pendiente guztiak burutzeko baldintza perfektuak: nahi beste leku eta bitarteko, eta inoren begiradak saihestu beharrik ez. Bitartekoak nahi beste esan dut, baina nahi bezalakoak ez dira oraitxe ere hain errazak, altuera handia nahi baitut, uraren gainean, eta haizearen norabiderik ohikoena baliatzeko moduan. Leku ideala ibaiadarraren gainean

pentsatua nuen, Lekeitio eta Mendexa banatzen dituen zubitik urez gorantz, baina plan zailegia zen. Lekeitio aldetik, Lumentzako haitzak eta, Mendexatik, euren parekoak elkarrengandik urrunegi daude, kable bat altuera egokian hedatzeko. Lorturik ere, haizearen norabidean trabeskera geldituko zen beti. Erara izateko, tan, kablea, ibaiadarraren gainetik, beronen norabidean jaurti beharko litzateke. Nondik nora lotu, oster, poste bat zubian eta beste bat, gorago, ibai erdian finkatu ezik? Falta zaidan bizitza guztia beharko nuke artifizioa muntatzen. Pentsaketak ondo egon arren, ez zait interesatzen porrota diragarren inbentziorik.

Eliza monumentalaren dorretik edo bere hainbat pinakuluetako batetik udaletzeko ganbarara ez legoke txarto, plaza nagusia gainhegatzuz, ez balitz haizeak, eraikinen kontra, ez lukeela ur gainean besteko korrierarik, eta beronek ere gehienez, kablearen norabideari albos emango liokeela. Horiek denak eragozpen txikiak lirateke, erortze kasuan, plazaren kontra leherturik akabatzeko arriskua. gatik ez balitz. Ur gainean izan behar du, bai erorkerak leuntzeko, bai lantzean nahitako jauzi batzuk egiteko uretara, kaio edo ubarroiekin lehian. Ez naiz erraz ausartuko, igeri jakin gabe, baina flotagailuz ondo armaturik, joango naiz konfiantza hartuz.

Soluzioa portuan dago, aspaldi ohartu nintzen moduan, hegarako eta zela nahirako. Lekeitiara iritsi nintzenean, portua beterik zegoen, ontziak euren lekuan ondo amarraturik utzita joateko ardura izan balute bezala. Horrek esan nahi du ez zela arrapaladako ihesa izan, joate pentsatua eta, seguruenik, desiaturik baizik. Eskerrik asko, ontzi eta guzti joan izan bazinete, gehiago eskertuko nukeen baina. Irla-bira aski temerario hura salbu, itsasora irtetera menturatuko ez nintzen bezala, portua libre behar nuen neure kapritxoetarako, adibidez, lantzean bateltxo baten kulunkan hara-hona ibiltzeko, toki seguruan. Neure txirrika-sistema obsesibo bezain oroahaltsuen bitartez, kamioiagaz tiraturik, ontzi handi eta ertain guztiak itsasora askatu nituen. *Aire! Segi zuek ere zeuen patroieki, leku onera joan zirela dirudi eta.* Ibilgailuen indarra baliatzeko, lanak azkar egin behar ziren, errekinak andeatzen hasi aurretik. Badira aste batzuk, ezein makinari heldu ez diodana, hain gabe moldatzen ikasiz joan nadin, baina uste dut laster ibilgailuok ere, elizetan esan ohi zuten bezala, "itsasoa baino zabalagoa den egun handian" murgilduko direla, jada eginda ez badaude. Ez zen erraza ontziek bi dike-muturren bitarte estuak harantz urruntzea onar zezaten, itsasoak esperientzia desaseginak balekarzkie bezala. Nora zihoazen begiratzeko ardurarik hartu ez zuten ontzi txolin batzuk salbu, gehienak portu barrurantz tematzen ziren. Gezi anestesikoa harturik, erortzearen hartz polarraren aurpegi ez dakit gorrotzkoz ala erregukorrez begiratzen zidaten. *Bajakiat, portua okupatzeko, nik baino eskubide gehiago dozuena, baina ez ezizue horrela hartu, igeri badakizue eta. Neuk be bizi behar joat nonon.* Denboragaz,

aldendu ziren, euren betiko lan-portua neure kirol-portu partikularizat erabiltzetik ez nuela etsiko ikusi zutenean.

Ez nintzen, hala ere, portua erabat husteko bezain radikala izan. Arraundun batelak edo motordun txikiak hor daude lerroan mendebal kaiaren kontra, beharrik edo kapritxorik gerta baledi. Baita mastarik altuenak zeuzkaten bi belaontzi handi ere. Izan zitezkeen *Vasco de Gama* eta *Magallanes*, baina *Ama Kuntze* eta *Aita Mari* dira. Ama Kuntze hego kai-aldearen kontra amarraturik dago, eta Aita Mari, mendebal kai-aldearen, biak erpinetik berrogeina metrora. Izenez hain beldurgarri baina izatez hain inozentea den hipotenusaren neurketa aplikatuz gero, masta puntetara lotu behar dudak kableak hirurogei bat metro izango ditu luzean, kurbadurarena jo gabe. Masta puntak uretatik hogeit hamar metrora daude. Triangelu faszinantea geldituko zela sumatzen nuen, baina, amaitutakoan, beldurgarri iruditu zait. Izango ote nuke barrurik, erdian ia ura jotzeraino jaisten den zabu-aulkian eseri eta altuera horretan marka lezakeen zirkulu-segmentuari zorabiatu gabe eusteko? Ezusteko mugimenduak saihesteko eta kablearen kurbadura ahalik gehien gutxitzeko, Ama Kuntzeren masta plazako platanondo lodien orpoetara tentsatu dut. Haizeak ontzia eramatekotan, plaza eta guzti eraman beharko du. Beste hainbeste egin diot Aita Marien mastari bere atzeko etxe lerroa. Behinolako kafetegi elegantea, oraindik ere bere kale-karpa koloretsua harro erakibitzen duena, atrakaleku soil bihurturik ikusteak apur bat penatu nau, baina hau ez da ueña bihotzari atzera joaten uzteko. Zertan ari ote naizen ikusmiran inguratu diren txakur eta katuek orainari ekiten laguntzen didate, nire banitatea xaxatuz. Hainbeste begiren aurrean ezin naiz barregarri gelditu. Mastak tentsatu ondoren, kablearen kurbadura asko zuzendu da. Orain zabu-aulkia uretatik pare bat metrora dago. Itsasbeheran laura egongo da. Aulkiari eta sokari behar diren segurantza guztiak jarririk –goian uzta bat, adibidez, txirrika kabletik irten baledi–, gerta daitekeen okerrera uretara jaustea litzateke. Igeri ez dakienarentzat oker handia, flotagailuz ondo horniturik ez banengo, kortxozkoak eurok, balizatik balizara egon ohi diren antzekoak. Puzgarriekin ez naiz bat ere fidatzen, inguruan hainbeste kalatxori mutiri, agian goseti, gutxienez jeloskor dabilela. Inoiz, euretako batek hondar epelean lo luzeak harturik zetzan agure aleman koipetsu bati, inork igarri gabe, begi bat hustu bazion, pentsa nolako grazia egin behar dien, hemen neu bakarrik, euren airean tximinokekiak egiten.

Nire ametsa ez da hainbeste, ordea, zabua eragiten nekatzea, horretan ere gozatzeko asmoa dudak arren, baizik haizeak erabil nazala, itsasoa zerbait beti mugitzen dena bera. Horretarako, zabu-sokaren goi aldean bi bela txiki daude atxikita, zeintzuek, nire pisua gorabehera, zabu osoa kablean zehar aise desplazatuko dutela suposatuz behar den hegoako masta kontraraino, haizeak, ohiki, norabi-

de horixe ekarriko baitu. Hegalera iritsitakoan, aulkira lotuta doan beste soka bati tiratuko diot, belak tolestuko dira, eta zabua berez itzuliko da kablearen kurbaduraren erdirantz. Aitor dut mekanismo txiki gehiegi dagoela, artifizio osoaren funtzionamendu zuzena itzaroteko, baina ez duela funtzionatuko pentsatzeko ere, asko jakin behar da. Berehala probatuko dugu. Lehenengoan, badaezpada, haize makala hautatu dut, esperimendua berretsiz, konfiantza handiagoa lortu arte. Hemen naiz, ba, hogeit metroko sokan, hirurogei metroko kabletik dingiliz, portu hutsean, herri hutsean, mundu hutsean, itsas txori mareatzailaz inguratua. Zerbait arrantzatzen noala pentsatzen bide dute, portuko hondakinetatik nola elikatu ohi ziren ahaztutako gabe oraindik. Beldur naiz dena jolasgintza hutsa dela ohartutakoan, neuri ez ote didaten zuzen erasoko. Batek ez badaki buru horietan zer dabilen, gutxiago euren urdailetan zer dagoen. Alukeria litzateke putzezko flotagailuekin uretara jausi, hegaluze karnabalista bat naizela eurek pentsatu, eraso eta flotagailuak zulatu, inurperatu, itota azaleratu, eta derrigor jan nazaten gertatzea. Munduan bakarrik geratu naizenez gero, ez dut hain azken originalik behar. Belak askatu ditut, eta txirrika uste baino zuzenago doa masta puntara, betidanik desiatzen egon balitz bezala. Hogeit metro beheragotik, neu ere banoa, pixka bat atzerago, bertigozko sentsazioz, lilurazkoz ere bai, haizeari aho zabal, ikusiz nola, ontzia jotzera noalakoan, zabuak gorantz miragarriro apartatu duen. Txirrikak mastatik pare bat metrorara ezarria diodan topea jo duenean, belak batu ditut, arnasa sakona hartu, eta bagatuz berriro kablean behera, trebetasun oraindik berretsi gabeak maneiatzen uzten ez didan atzeranzko posizioak askoz sentipen abismalagoa eragiten didala. Abiadak erdiaz beste aldeko aldasgoran altxatu nauenean, berriro aurrez nator erdirantz, lasaiago, baita dohatsuago ere, egoeraren kontzienteago bainaiz, aurreko abailada berriegi eta, zertarako ukatu, larriegian baino. Haize ertain batez lortua haize bortitzaigoetara transportatuz, uste dut sentsazio kardiakoak datozela hemen.

Bat-batean, inutiltasuna baino mingarriago den ridikulua, eta berau baino txatxugarriago den oiloburua sentitu dut, portua alferrik hustu dudala ikustearekin, gero bere ertz txatxar bat bakarrik baliatzeakotan, baretasun sentsualeko, dirdaiko rreko eremu oparora, eskainkorra arbuaturik. Itsaso gizenera irteteko kuraia, ezak ez nau hainbeste lotsatzen, igeri ez jakitetik aparte ere, ez bainaiz neu baino askoz ahaltsuagoa dela badakidan elementu bat desafiatzeko bezain kaskarina, gehien atera nezakeena bailitzateke konklusioa ezen barkatu egin didala. Baina ez ote naiz osorik eskertzeko gauza izango milenioetako itsasgintzaren azken helburua neure gozamen esklusiboa izatera bildu den urmael kolosal, mantso, artistiko hau? *Sentitzen dot, Ama Kuntze eta Aita Mari, baina zeuek be urten egin behar duzue ur handira, hemen disimulu politean zagoze baina, obabatxoa lo ta lo.* Arrak askatzen hasi naizenean, beste pentsakizun dohatsu batek jo nau. *Ondo zagoze berton! Ertz horretan ez dozue trabarik egiten.* Ontziak eta mastak zaburako utziko

ditut. Orain eraiki behar dudana haizeagazko hegaldia da, ontziena baino askoz errazagoa, portua beteko luzeran.

Lekeitioko portua pentagono irregular bat da, non, sarrera-irteera zaintzen duten ipar dikeaz eta eki dikeaz ("abadeen moilaz") gainera, mendebal dike, herriaren aldekoa, aldebikoitza den, angelu oso zabal bat (160 bat gradu) osatzen duela. Hego dikeak, azkenik, bere gaineko plaza nagusira ematen du, zeinaren eki albo libre dela, atzea elizak eta eraikin batzuek, eta hego albo udaletxeak eta beste eraikin batzuek zaintzen duten. Plazako zoruaren zati handi bat, itsas aldekoa, zuhaitzi luzanga bat da, non ale batzuek pare bat mendetik gorako bolumena darakusten, enbata mota guztiei eutsi izanaren seinale harro guztiekin. Ipar eta mendebal kaien angeluan bada eraikin bat, non San Pedro kofradia, jubilatuen etxea, kafetegi bistatsu bat (zabalik ote dago bera?), eta azpian itsas trepetxuen gordeleku bat dauden, azken aldiaren pasialekutat erabiliagoa berau. Angelu erpinetik metro gutxitara, mendebal kaiaren gainean, portuko garabi gotorra dago, nondik begirada aurrez aurreko plazara eta honen atzeko eliz dorre gailenera zuzen jaurtirik, portuaren luzera erdi-erditik harrapatzen den. Garabi honetatik eliz dorre-ara, edo bere zerbitzu-damak diruditen pinakulu panpoxetako batera, kablea bota dudanean (azkenean, dorre-ara izan da, gartzetako kanpaialdien gomuta euforikoz, batez ere bueltakoak zirenean), berrehun metroko luzera gelditu da ur gainean. Dorrea garabia baino askoz altuago dagoenez, kurbaduraren barrera garabitik oso hurr gelditzen da. Dorreranzko igoerak ia portu osoa zeharkatzen du, kai ertzaren parean, uretatik hamabost metrora. Haluzinantea! Kablea halako eran tentsatu dut ezen, haize txikiagoek ere desplazatzeko modukoa izanik, beherantz abiadura bizia hartzeko beste inklinazio ukanen duen. Ehunda hirurogei metroko aldasbera gehi inertziak garabiaren aldera igoeraziko duena jorik, haizearen bultzadak baino liluragarriago gertatu behar du itzulerako berezkoak.

Kabina txiki bat egiten hasi naizenean, laster erabaki dut aulki soil bat izan behar duela, haizeak aurpegira eta gorputz guztira zuzen eman dezan. Baita, erortze kasuan, kabinatik irten ezinik itotzeko arriskua saihesteko ere. Segurantzarik ontologikoenak hartuta nabilen arren, badakit etorkizunari buruz ez dagoela ezusteen ezin metafisikorik garantizatzerik, Jainko ahalguztidunaren kasua barne, zeinari, buztinagaz jolasean hasi zenean, begira zer atera zitzaion. Gero saihestezurra ere, berari liluraz begira zegoela, bezperan sortua zuen katu genesiarki lapurrak atzetik etorri eta eskuetatik eraman zion. Sortzaileak jazarri zuen oraindik zikindu gabeko mundu berrian zehar, jaurti zion eskua, piztia bi egun lehenago egina zen zuhaitz batera saltatu zenean, atxiki zion doi-doi isatsa, baina katuak, abiadaz gehi bere indar oraindik estreinatuta gabez, aurrera jo zuen, bere hezurra ahoan. Jainkoak eskuan geratu zitzaion isats kiribilkorrari hezurra baino politago

iritsi zion, eta, nekaturik ere bai, emakumea beragaz egitea pentsatu zuen, oharzake, hartatik, sedukzio aurreikusitako gabea eransten ziola, gorputzari eragiteko izango zuen grazia biderkatuari esker.

Iritsi da probatzeko garaia. Beldur naizenik ez dut uste, baina belarriak flantzear daude urduritasunez. Ez dio ardura, ipurdia urtzen ez deno, oinek aurrean joan behar baitute. Eseri naiz aulkian, eta kurbaduraren inklinazioak erdirantz marroala, ezin dut ekidin larritasun eszenikoak uzkur nazan, bat-batean, joan zirela guztiak ikusle bildu bailiran. *Hori al dok gu denok falta izatearen pena guztia?* Kurbaduraren barrenean geldu, eskuin aldetik teilatuen ostertzera iritsi nahi duen eguzkiari pare bat keinu egini, eurentzako luzera doiko sokari erantsita dauden bi belarriak txikiak askatu ditut, ireki dira zisne beltzaren elegantzian, eta ipar-haize kilikarriak bagaramatza astiro-astiro, elur-sakanean geldu-itxurako teleferikoan bezain suabe, kaiaren pareta baino hamabost metro lehorrerago ezarria den topearen bila. Berandu jotzean, belak bildu eta bagatoz beherantz, oraingoan azkartasun handikorrez, barrenean, atzera-aurrera samurki txikikorren ondoren, kandelabro bat bezala gelditu arte. Oraindik ez dut uretara begiratu nahi, Narzisorrena gerta ez dakidan. Motiboak baleudeke, baina orain ez nago loretarako. Bigarren goranzkoan, Matxango' etorri zait gogora, XVIII. mendean, Marakaibon bahitu eta Lekeition sardu zuten tximino dohakabea, *"abade baten eskalaba"*. *"Libre zorionian etxeko katu, eta sokaz loturik Matxango gaixua. Horra alkate jauna, nire tragedia..."*. Antonio Aboitiz izeneko abade katxondo batek kantaturiko balada intentzios umorezkoa, baina tristeki hunkigarria. Barka, Matxango laztan, orain ez banago sentibera jartzeko unean. Nire sokak eta zurea ez dira berdinak, baina zeuk ere hamaika platano gozotzatu zenuen umetan, nik basoko ira-trukutzak mastekatzen nituen bitartean. Bigarren itzuleran, ingurua lasaia eta adiago begiratzeko moduan nator. Beherantz eta martxan, esku eta hankak zabal, hegadaren sentipenik autentikoenean, ezizale gehiegizko iruditzen lekeitiar bisionarioek ziotena, ezen munduan ez zegoela Lekeitioren... 'Bardirik' bazenien, haserretu egiten ziren.

- Antzekorik be ez!
- Ondo, ondo! Ez bardirik, ez antzekorik, ez imaginatzekorik!
- Imaginatu behar bada, geuk imaginatuko dogu.
- Baita, baita!

Hirugarren bidaiari, lekeitiarren gomutaren barkamenez, esperientziaren berari Venezian egiteko posibilitateak aztoratu nau. Edo Sidney. Nola iritsi ninteko haraino, itzultzeko denbora izateko moduan? Lehendik banekien unibertso soberan sentitzearen emozioa zer zen, baina ez nuen usteko beti *'geure planetaxo maltea'* genioena ere soberatuko zenik, eta are gutxiago, hain gutxi penatuko nintzenik,

Soberakin orokor horretatik, natura inpersonalak utzi didan zokotxo honetan, orain interesatzen zaidan bakarria haize-egun bat iristea da. Ez da luzaro itxaron beharrik izan. Bi egun luze bakarrik. Neure zabu hegalarian eseri naizenean, haizeak erruki gabe dilindatzen nau. Itsasoaren baurre irenslaren eta zuhaitz eta kalezu-joen orro biolentoki intermitentearen erdian, beldur naiz belak irekitzeko, abiadak ez ote nauen elizdorreraino dispartatuko eta bere kontra puskatuko. Arrazoiketa zorrotzera jo beharra daukat, neure artifizioaren mekanismoak banan-banan, eskolastikoki berrikusiz. Ezinezkoa da haizeak gaindi ditzan bere baliapenerako, hain zuzen, ezarriak diren topeak eta segurantzak. Ezinezkoa da oker oro, baina beldurrik ez dit uzten belak irekitzen. Orduan, zertarako eraiki dut muntaia hau guztia? Zertarako gelditu naiz munduan bakarrik, haizea neure fantasietara makurtzeko ez bazen? Beldurragaz teman hastea okerragoa dela uste dut. Onena, haur mailanontziari bezala, jaramonik ez egitea izango da. Askatu ditut belak eta hor noa ziztuan kablean gora, topea saltatuko ote duen, ez beldurrez, larritasunez baizik. Zorionez, bere tokian gelditu da, baina haize eskandalosoak sakan nauka topearen kontra, berak ni adar hautsia bezala astinduz, neuk belarik ezin bilduz. Beldurrak arrazoiketarik onartzen ez bazuen, pentsa larritasunak, nahiz hamabost metroko altuera bakarrik izan. Ez taktika pentsatuaren, baizik besterik ezinaren itxarotez, haizeak barealdi bat onartu du, edo eskapatu zaio, belak bildu dira, eta bagoaz kablean behera, abiadura geroz handiagoan. Erdi inguruan, hurrengo haize-kolpeak bertan josi gaitu, esanez bezala: *Nora? Erdi tranpan ihesi? Hemendik ez dago neuk esan arte pasatzerik.*

Laster izan da baimena. Kurbaduraren barrenean nago, *hau zer izan dok?* neure buruari galdez, eta haurtzaroko misterio obsesiboetako batera itzuliz, non burua apurtzen nuen ezin asmatuz zergatik elementu berak, ikustezin, aurreikusitezin berak, bortitzaldiak barealdiekin txandatzeko inkonsistentzia zeukan. Bakoi-zein haize bat pasatzen ote zen, ba? Balentriaren gogoetatik ezin dut bururik jaso, lehoiak eta balkoiak hutsik ez ikustearren, ez ardura didalako, baizik eurak txaloka imaginatzeak, brin-braun, brin-braun, harrotasun apokaliptikoa damaidalako. *Zer egingo joagu? Beste larritasun bat?* Berriz ere arrazoiketara jorik, ezin du hain larria izan, orain ezagutzen baitut bidaiaren izaera guztia. Bizi guztian amestu dudana aproba soilean uztea desertzio txatxua litzateke, munduari bakarrean eusteko gailentasuna erakutsi eta gero. Bigarrenean, bat izan dira belak askatzea eta haize-erantsiak habailan tiratzea kablean gora. Oraingoan, larritasuna apalago, bertigo puntuan adiago noa, kohetearen muturrak non jaurtiko nauen zain bezala. Plazako zuhaitz erraldoiak makurtzen ikusten ditut, gainetik pasa nadin, eta aurre goienean dorrea, hanpuruski impasible, tentatzen nauela: *Hator goraino, kapaz bahaz!* Berriz ere zabua bere topean gelditu da, kaiaren paretik metro batzuk barrurago. Inbentzioak itzel funtzionatzen duen pentsakizunean gozatuz distrahitu naizeneko,



belak bildu dira, edo bildu ditut oharkabea, eta banoa beherantz, auzka eta uhuka, itsasoaren baurre ulergaitzei oihu argi eta garaileekin erantzunez: *Heu bakarrik? Geu be bagaituk!* Ez naiz errepikatzen ausartu itsasoaren lehenengoz ikustean egiten nion burla, hasierako txundiduratik mugen konfiantzara jaisi nintzenez: *Bai geldu egon ezina, beti bertan egoteko!* Esanez batera, olatu gizen bat neu netzan haitzera zetorrela iruditu zitzaidan, hankajokoari eman nion, ez ninduen harrapatu, baina arrakala batean estropozu eginda, nire belauburuak urraturik eta ahurrak ondo mindurik gelditu ziren. Geroztik ez diot itsasoari burlarik egin, ezta ebidentzienez ohartarazteko ere, nola: *Mantsotuko zaitu zu be adinak.*

Hirugarren bidaia, lehen bien kulminazio baino gehiago, hurrengo serle amaigabearen arrankada izan da, hain liluramen progresiboki ohartun eta esplosiboan, ezen, nik etsiko nuenagatik, haizeak berak erabaki baitu erretiratzea. Kalhutsean, behinola beteaz bezala (*aupe, txapeldun!, kalatxoritan ala?, dzanga orduan!*), pasiatzen hasi naizenean, konturatu naiz akiturik nagoela, belaubunak dardar, belarriak dzundzun, lokiak dundun, garunak sutan. Irudikatu nahian noa, dorretik garabirako kableak osatzen duen aire-linea elegantea guztiz zuzendu arte tentsatuz gero, zeren diametroa, lehenik, eta zeren diagonalak, gero, izan daitekeen. Hain handian irudikapen zail egiten zaizkidan figura horiek aurreko espazio konkretuan (portu, hiri, hondartza, itsaso, mendi) nola-hala kokatzea lortu dudanerako, portuaren eki dikean nago, "abadeen moilan", zeinaren muturra Lekeitioaren ikuspegiarik osoenaren eta, beraz, ederrenaren zentrotzat jo daitekeen. "Abadeena" izatea (moila horretan pasiatzen zirelako, garai batean eskusiboki, antza) kointzidentzia bat da dikearen sorrerak ia eliza jotzearena. Eliza hor aurkitzea baliteke ez izatea hain kointzidentzia. Kableari berriro kurbatzen utzi diot, baina homogeneouski olingoan, berrehun metroko arku horren jarraipenak nolako zirkunferentzia osatuko lukeen kalkulatu. Kasu honetan ez zait irudikapena hain zail egin, ez hainbeste seminarioan zerura begiratzen irakatsi zidatelako, eta gero, abadetzan, lurrera begira zezaten konbentzitzen saiatu nintzelako, baizik Bilboko jaietara etorri ohi zen norala erraldoian ikasi nituelako zirkunferentzia tente baten posizio guztiak, nahiz eta bali norabide berean, alua.

- *Noria hori ez al daiteke atzera-aurrerakoa izan, eta birakaria?*
- *Eta merke samarra, ez tok?*
- *Prezioak ez deust hainbeste ardua, denporan konpontze batera helduz gero.*
- *Pentsa geinkek sistemaren bat hurrengo urterako, baina gauzak asko erraztuko litzatekezak, bitartean alkate jarriko bahintz.*
- *Horixe gatz ikusten dot, lekeitiarra ez naz eta.*
- *Hago orduan izorratutzat, geu be ez gozak bilbotarrak eta.*

Orain geratzen zaidana da kableagaz beragaz osa daitekeen zirkunferentzia trazatzea. Egin dut eta, bai kasualitate bitxia, Bilboko jaietako noriaren justu-justuko atera da. Orain poligonoetara noa, gutxienez portuaren pentagonaltasun irregularra guztiz erregulatu arte, horrela, xarman beharbada galdua simetria irabaz dezan. Kontua da neure haizeagazko esperientzia berritzeko aitzakia besterik ez dela dena, kapritxozko fantasia bat objektu matematiko bihurtuz, gozamina bariazio amaigabeetan luzatzeko.

- *Ene Haize maite! Ene Itsaso maite! Badakit ni baino gehiago zariena. Hain ni baino neurri barik indartsuago zarienok, ostera, unetxo batez, ez hainbeste neure menpeko, baizik neure desiogile gura zinduedazen. Unetxo batez, eta tamainu batez. Nire asmoa ez da izan zuek desafiatzea, neure fantasia eginbako eta, ustez, egingarri batzuk zuen bitartez burutzea baino. Ez dot zuen nagusitasunik fikzioan be kuestionatuko, hain gitxi ridikulizatuko. Ezingo neuke onetsi zuen probokazioan oinarrituriko inpakturik, ezta literatura arrakastaturik be, zuekanako errespetuaren gainetik. Baina badakit, baita, zuek ez daukazuena sentimendurik, hain gitxi adimenik. Nik biak ditudanez gero, utzidazue zuen nigazko harremona neuk gidatzen, hots, zuen potentzia basaren partetxo bat humanizatzen. Utzidazue nire zuekiko sentimenduak asaska daidazen halako era arrazionalean, non ez zaitezkeen aurki biolentziaz erantzutera beharturik. Gutun xume hau ulertuko dozuelakoan, eta zuen erantzunen itxaropen barik, eskertzen zaitue, laster arte, geratu jatzuen maitale kontziente bakarrik.*

- *Opor luzeetan itxita egondako etxea aire berriz horditzen den bezala (etxeak gizakiak baino hobeto adierazten ditu sentimenduak), zure gogoak apenas izango duen "mutil horretaz gehiago hitz egin" beharrik. Igarria bide zuen ez zinela begia saihesten zion bakarrik, eta bere buruaz beste egiteko labirintoetan barnatu aurretik -hunkigarria!-, deklaratzear zen gerra beste guduleku batean jokatzeko hobetsi ei du. Mandatua utzi dit, bere partez, eskertzeko zuri "sarritan gehiegi probarazi dizun pazientzia", eta barkatzeko, halaber, zure sentimenduak detektatzen ez jakin izana. Beragaz 'zertuta' ote zeunden sinetsirik, zoriontsu joan dela esango nukeen, Lekeitio desengainu batzuk izan ez balitu, euskaragatik hartua zioten karinoari beste deribazio bat ematen saiatu zenean. Giza bihotza, berea aurrenen -lantzagarria!-, absurdoa dela esaten ekin dio, zeinaren (bihotzaren nahiz absurdoaren) gaizkoatze fatalak helburu-aldaketan bakarrik daukan zentzuaren itxura bat, ardatz berean itxura ere galtzen ei baitu. Herriaren askatasunak, maitasun orokor alferreko hori ez ezik, maitasun partikular emankorrek ere jaregingo dituelakoan, bera gogoz borrokatuko ei da batean zein bestean, fronte guztietan, alegia, idealismoa ez ei baita ideia vulneraezin bat, ondasun ahikor bat baizik. Samurtasunaren fiabardura guztietan erregutu diot pentsatzeko hobeto nolako hutsunea uzten digun*

atzean, eta orduan, "beno, astelehenean itzuliko naiz, seguruenik" esanda joan da, baina astelehen hori, 'seguruenik', ez dut uste gure egutegira jausiko denik.

Xemeinek begirada finkoz entzun du dena, zurturik, ibaiaren berbaro, a to nala gardentasun polifonikoan entzuten bailuen, edo durditurik, haizegailua mintzo bailitzaion. Formika nabarrezko armairuaren gainean, sukalde honen modernitate nagusia aparatu berdail horixe da, sabaiaren kontra okertua, harri-jasaren eta ortziaren artean harrapatuta geldituriko hegazia bezala. Neskame omnipresenteak bere abade hipertermikoarentzat Bilbon zuzendurik, ez bide zuen onura handirik ekarri, marranta 'diabolikoa' eragiten ei baitzion. Hemen, nonbait, nire aurretik ere ibilia da deabrua leihoan, baina uste dut, horrentzat ere, neu izango naizela azken aukera. Kontaketa amaitu dudanean, berdin finko darraien begirada, ederregian enigmatiko iruditu zaidana, neuk ere zuzen barnatzeko aitzakia baliatu nahi izan dut, baina horma-erlojurantz desbidetu behar izan naiz, non penduluaren baretasunak sentsazioa itzuli didan ezen Ganboren aldentzea kezka larri baten amaia izan dela, eta ez larritasun berrien abiarazle. *Heurea salbatu dok, baina Xemeinen begiradaren finkotasuna nondik askatu behar dok?* Egoera blokeatuetan, "programak ez darantzu" dioenean bezala, zutitzeko erreflexu instintiboa izan ohi dut, eta nagiak ateratzeko planta sofistikatu bat eginik, hau apur bat kontzientekiago, saskartzat har ez nagan, ez zait bururatu galdetzea besterik ea gazta egin berria gustatzen zaion. Esanaz batera ergel iruditurik, lotsatu nauen galderak izan ohi, behintzat, neskaren baitarapena puskatzeko ahalmena, berak ere, nahiko zentzugabeki (tontoek salbatzen dute arrazionaltasuna), galdetu baitu:

- Berri-berria?
- Mendibeko artzainaren andreak gaur plazaranzkoan utzi didana. Atzo iluntzean egin zutela jorik, badu egun bat.
- Hori asko da?
- Egin berria izateko ez. Berri-berria izateko, bai.
- Ono afalduta etorri naiz. Badakizu nire etxekoandrea nolakoa den. Kafea ere hartua dugu hemen. Berriro jaten ez gara hasiko, ezta?
- Ipuina gelditzen zaigu.
- Oh! Txantxetan esan dizut.
- Eta benetan esan bazendu?
- Hmm!
- Buru-makurtze irribera eta zinutsu horri tankera hartzen diot gustatuko litzazukeela.
- Gustatu bai, baina ez naiz hain umea ere.
- Umea izan behar al da, gustatzen dena egitea ondo egoteko?
- Ez, noski, baina...

Neuk baniotsu gustatuko litzaidakeela ipuin bat zuri kontatzea?

Txantxetan esan duzula pentsatuko nuke.

- Baniotsu txantxetatik benetara alde txikia izaten dela?

Orduan amore eman beharko nuke.

Kontua da ipuinarena hemen ezkutaturik egon zinenean kontatzen nizun eratik etorri dela.

Ez zara orduan bezala kontatzeaz ariko, ni ohean eta zu ohe aurrean belauniko, ezta?

- Zail iruditzen zait zuk nire gogoa asmatu izana, zeuk ere hartarako desio puntu bat izan ezik.

Hauxe bai iruditzen zaidala txantxetatik gorakoa!

- Barka atrebentzia. Zure gogoa biolentatzea litzateke azken nahi nukeena.

Nik ez dut esan nahi izango ez nukeenik.

Nik esan dizut nahiko nukeela.

- Uste gabeko zorion handiegi bat litzateke.

Zenbat itzulinguru, nahitaezko ondoriora iristeko!

- Ipuina Txilinerrota izatekotan.

- Bizar, luma, belarri, buztan, gazta eta guzti.

Logelarako bide laburrean (sukaldean sei urrats, pasilloan zazpi, logelan bost), hain gauza simple bat nola hain abentura fantastiko irudi dakidakeen asmatu ezinik noa, ezintasun zirraragarrian. Jada logelan, leiho txikia erdi-itxi dut lehenik, ibaiaz handiko txaraka ziur ez-habitatutik, azeriren batek zerbait ezohikorik begizta ez dezan. Horiek badakizue, gero, etxerik etxe ibiltzen direna, zaila baita zortea lehenengoan aurkitzea. Xemein ohean eseri da, bertan apatx utzi duzun hauraren jauzitxoak eginez, eta zer egin ez jakitea, edo ez ausartzea, hitzekin estaliz: *Hemen izan zela, beraz, nire gordeleku salbagarria. Ai, ama!* Noizbait elizatik ekarria dirudien aulkia baxu samarra, jarleku zumezkoduna, mesanotxearen aurrera ekarri eta neu ere bertan eseri naiz, alboei heldu eta jauzi planta berdintsuak, oharka-beak eginez, ohartzu batera lotsatuz, eta garbi ez dakidan zerbaitera ez ausartzea neuk ere hitzekin estaliz: *Ohe-jantziak berberak dira, behintzat. 'Ai, ama!' hori ere bai. Lehenengo egunean ez zenuen besterik esaten.* Aulkia apur bat atzeratu dut, geldi eduki ezin ditudan belaunek bereei ukitzea saihestu nahian. Lehengo hartan, oraindik uzteke nenbilen sotanaren azpian, gorputza garantia solemnean gordetzen nuen, baina orain indefentso aurkitzen naiz. *Norena izan dok hona etortzeko ideia hori?* Oraingoan berak aitzinarazi du egoera, eskuekin bere izterrak birritan zaplatuz, hots egin duenean:

- Beno! Ipuina entzuteko prest nago oraintxe.

- Eserita? Honela izatekotan, sukaldean egin genezakeen.

- *Etzanda jarriko al naiz?*
- *Eta ni ohe aurrean belauniko. Horrelaxe izan zen lehenengoa, eta hurrengo guztiak.*
- *Ai, ama! Zoratuta ez gara egongo, ezta?*
- *Ez dut uste, baina balitz, zorotasun zoragarria litzateke. Hala ere, ez nuke inon ere nahi... - "ezertan biolenta aurki zaitezten" esatera nindoana amaitu aurretik, burkoa astindu eta altuera emanik, etzana da ohean luze, apur bat albora eginean.*
- *Orain niri belaunikatzea dagokit ohe aurrean.*
- *Baduzu tokirik? -galdetuz, erdirantz lerratu da, nire ukondoei ohe ertzean paila salekua libratzeko.*
- *Konposizio honek merezi du, bai, ipuin polit bat.*
- *Ai, ama! Albokera etzanda ezin dut egon. Armairu hori munstro nekusen, eta oraintxe ere ezin dut ikuspen hura garbitu.*
- *Hormara begira dezakezu, ipuina pantailan ikusteko, lau-laua ez da baina.*
- *Pitzadurak ere ez gutxi.*
- *Nerbioak dira. Horma zaharrak bizirik daude.*
- *"Bazen txakur polit bat, txiki baltzarana"...*
- *Hasiko al naiz, beraz?*
- *Ni banabil. "Baztarrak usnatzeko grazia zeukana".*
- *Zeuk ala neuk kontatu behar dugu?*
- *Biok. Zuk kontatu, nik entzun.*
- *"Bazen txakur eder bat, gorri baltzarana"...*
- *Ez! "Bazen txakur polit bat, txiki baltzarana"...*
- *Ez al duzu esan "zuk kontatu, nik entzun"?*

.....

Bazen txakur eder bat, gorri baltzarana inguruak zaintzeko grazia ebana.

Zaunka sendoa zeukan burrunba bat baizen erroten bizi zen da Mastinerrota zen.

Behin han abiatu zen basoan gorantza mendia esploratu gura eban, antza.

Kantu bat entzun eban txoritxo batena hain kantu tristea ze negarra zen dena.

Mastinerrotak zugatz azpitik dinotso:  
*Zeri negar egiten deustazu, txoritxo?*

Lehen baino minduago dino txori-amak:  
*Otsoak kendu deustaz txorikume danak.*

Mastinerrotak dino: *Zelan umeak ken, otsoak ez badaki arbolara igoten?*

Orduan txoritxoak kontatzen hasi zen zelan goiko bordatik negarrak zetozen.

Negarrekin batera baita ulutzarrak otso-uluak eta neskato-negarrak

Bihotza urraturik hurreratu nintzen zelako zorigaitza gertatzen ari zen.

Borda itxi-itxian, zer izango bertan?  
Barruan auhen minak, otso zahar bat bueltan.

Norenak ete ziren hain izu-auhenak?  
Xemein deritzon neska hain politarenak.

Teilapetik sartuta: *neu naz, Xemein maite!*  
esanik eransten dot: *arren, lasa zaite.*

Otsoak ate joka mehatxu bortitza:  
*Pasidan berehala atepetik giltza.*

*Ostantzean hireak hortxe egingo jon heu goseak hil arte bertan egongo non.*

Neskatxari dinotsat: *Ekarzu giltz hori, bildurrez ez deiozun emon otsokori.*

*Egon, Xemein, lasai ze ni hurbil banago bera gosetuko da zu baino lehenago.*

*Neuk ekarriko deusut ura eta jana  
otsoa joan arte bere amagana.*

Bordatik kanpo, bere gainean kantari  
ia isekaz esan neutsan otsoari:

*Alperrik dozak hire mehatxu harroak  
hik jo atea baina giltza neuk jaroat.*

Itzuli nintzen neure habiara eta  
umeak zainduz hauxe neban pentsaketa:

*Zelan salbatu neike Xemein derrepente  
auzia utzi barik gosearen menpe?*

Hatan, hara otsoa bertan non dakusdan  
eta zuhaitz azpitik zer eskatzen deustan:

– *Botaidan giltza hori derrepente baten  
Xemein kontsolatzera bordan sartu naiten.*

– *Ja-jai, otso zantarra! –dilot kantu hotsez–  
Emongo deusut, baina zeu hiltzean gosez.*

– *Barriz eta aukeran ipiniko deunat  
botaidan giltza edo emoidan ume bat.*

– *Zelan ase nahi zeinke, otsoko zantarra  
nire ume bategaz zeure ahotzarra?*

– *Ez hadi ume baten errukiz balia  
nahi ez badon osorik jan daidan habia.*

– *Ja-jai! Lekutan zagoz gure habiatik  
nahizta umeok hegan ez jakin oraindik!*

– *Botaidan ume hori, txori buru-loka  
nahi ez badon zuhaitza bera daidan bota.*

*Zuhaitza astintzen dau indar izugarritz  
ene ama! hau zer da? izutu naz guztiz.*

Halantxe gabetu naz ume laztan batez  
beste ume guztiak salbatzeko ustez.

Orduan otsotzarrak, zantar barrabana!  
ha jan eta dinosta: *Bota bigarrena!*

Eta halantxe otso zantar barrabanak  
banan-banan jan deustaz txorikume danak.

Mastinerrotak dino: *Lasai, txoritxoa!*  
*Neuk harrapatuko dot otsoko gaiztoa.*

Mastinerrota arin doa errotara  
eta isil-isilik gaztaien gelara.

Bertan hainbeste gaztai, bigun eta gogor  
ederrena harturik, bueltan dator bizkor.

Gaztaia kokatu dau arbolatik hur-hur  
bidearen erdian, usaintsu ta samur.

Gero bera etzun da baztarrean trabes  
egotez lotan baina, hilda balego lez.

Mendian gora pozik doala otsoko  
usain bizi-bizi bat surrera jatorko.

*Zer usain dok hau? dino, usnaka han hemen.*  
*Noan beherantza ea zelako zera den.*

Jatsi eta: *Gaztaia! Hau ustebakoa!*  
Ha zen ha otsoaren poza ta saltoa!

Hasi zen jaten eta jan eban osoa  
esanez ze: *Hau bai hau bazkari gozoa!*

*Lehen txorikumak eta gaztaia gainetik  
holan nik ez joat jan otso nazenetik.*

*Gero bordan be hantxe egongo dok Xemein  
haregaz bajaukaat lau asterako lain.*

*Ase-ase eginda, musturrez aurrera  
lo egitera doa bide baztarrera.*

*Badoa ta zelako ustebakoa ze  
Mastinerrota hilda aurkitu dau luze.*

*Otsoa ezin da bere pozean agortu  
Mastinerrota bertan ikustean gorpu.*

*Hemen Mastinerrota! –zinoen airera  
Nire areriorik bortitzena bera!*

*Txorikume ta gaztai, hau gero postrea  
gure Mastinerrota hilda ikustea!*

*Orain belarritxora txiza egingo jotsat  
holan bere garaunak garbituko dozak.*

*Hasten da, ba, egiten txiza belarrira  
txakurraren begiak tak zabaltzen dira.*

*Txakurrak heltzen deutso grausk pitilinetik  
eta otsoak ezin alde egin gainetik.*

*Hasten da ulu baten: Ai ene, ai ai ai!  
Eta Mastinerrotak: Gozoa daukak, bai!*

*Azkenean txakurrak, berak jakin zelan  
samatik oratu ta bertan ito eban.*

*Txoritxoa orduan, sagarraren puntan  
pozez zoratuta lez hasten da kantetan:*

*Aupa, Mastinerrota, bihotz-bihotzetik  
askatu gaituzuna otsoen gosetik!*

*Gaurtik izango zara txakur txapelduna  
otsoen izua ta txorien laguna.*

*Otsoen izua ta txorien laguna  
gaurtik izango zara Xemeinen kutuna.*

.....

*Hori ez da orain urtebete kontatzen zenidan Txilinerrota.*

*Urtebetean, gauzak asko aldatzen dira. Orduan izu-ontzi bat zinen, ez armairu, ez horma, ez sabaira begiraten ahal zenuena. Estalkirik ere ezin zenuen jasan, asfxiatzen baitzinen. Gaur begira zer lasai zautzan, itxuraz behintzat.*

*Itxura baino gehiago dela uste dut, zorionez.*

*Txilinerrota ezin zen berdina izan, zegokion usnaz eta sen ongilez.*

*Nigatik aldatu duzu?*

*Bera aldatu da, neu ere aldatu naiz baina.*

*Eskerrik asko. Egoera dramatiko baten birkreazio hunkigarria izan da.*

*Ez guztizkoa. Orduan zeure ondoan etzan behar izaten nintzen, gauak ez infartatzeko adina baretuko bazinen.*

*– Gaur ere... beno, ez naiz ausartzen.*

*Ez daukazu aurpegia estali beharrik. Orduan derrigorra zena, gaur tentazioa litzateke.*

*Aldakuntzak atzerantz izan direla dirudi. Entzunak dizkizudan ideien artean, 'tentazioa' ez al da sartzen?*

*– Ideiak mugagabeak izan daitezke; bizierek mugatuak izan behar dute, batez ere norberak hautatuak direnean. Biziera koherentzia batean garatu behar da, ideiek arrakastarik izango badute.*

*Askatasuna ezkututasun osoan ere gauzatu ezin badugu, ez dakit nola sozializatu behar dugun.*

*Aitor dut Ebak baino era konbintzenteagoan formulatu duzun tentazioak arrazoimena zorroztera behartzen nauela. Askatasuna ez da egintza bat, egintza-katea baizik; areago, tentatzen ari garena bezalako zelai batean. Hara, Xemein! Nik ezagutzen dut neure burua, eta analogiaz, giza gogo. Umetan, edozein gailurretan, nire tentazio behin menperatua, behin eutsiezina, harri borobila aldasbehera bizian jaurtitzea zen. Paradoxaz, irrikaz bezain ikaraz jaregiten nion, norantz eta noraino ezingo nuelako erabaki. Zuhaitzen bat krank edo troka braun jo arte, an-*

tsietate leher-hurrenean nerraion, batez ere, aziendaren batzuk (inoiz laguna ere bai!) ezustean agertzen baziren. Belarrietatik zintzilik maiz egoteak ez zidan hain nioa guztiz moztu. Sentimendu pasionaletan, harri huraxe bezala nakust. Ezin dut garantizatu neure burua gidatzerik. Nahiago dut abiatzea saihestu. Gure egoerara etorririk, niretzat zoragarria litzateke zure ondoan etzatea. Zuretzat berdin balitz, zerk segurtatuko liguke berriz ez intentatzea?

– Zertarako segurtatu behar da biok nahi duguna ez intentatzea?

– Eta gero berriz, eta berriz, eta berriz... biok nahi adina aldiz!

– Eta?

– Zerua lurrean. Gertatzen dena badela bitarte bat, non zu ez zaren Marilyn Monroe baino gutxiago eder, baina bai askoz adimentsuago, eta ni ere ez naizen John Fitz Kennedy bezain boteretsu, baina bai askoz gutxiago degeneratu. Ziur naiz zu ez zarela Marilyn bat bezala sunsituko, eta itxaroten dut nik ere ez dudala Kennedy baten azkenik izango, guretzat amodioa zorianbide baita soilik, eta ez, hain ztat bezala, konkisten eta domeinuen alternantzia.

(Handik mende herenera, bakartasun absolutuz, nahiz eta ez Jainkoaren na bezain dramatiko, gelditu naizen honetan, nire ariketa sentimental bat neure gaztaro inozentiaz errukitzea izaten da, zeina, Kennedy miresten hastetik, arabiarako desengainuan hainbeste penatzerira iritsi zen. Ez zen, ba, zaila jabetzea aski zela "Estatu Batuetako presidentea" entzutea –nola "Erromako enperadorea" zela "Abisiniako erregea"–, desengainurako izango nituen motibo ezagun gehi imaginagarri guztiak karguaren izenetik zuzenki deduzitzeko).

– Edertasun zoriongarri hori guztia zergatik ez liteke oraintxe bertan abia?

– Adimena inkluditzea ahaztu zaizu. Ez al zara ohartzen Kennedy horrek nire biziera, zurea ez dakit, azkarregi irauliko lukeela? Nire ahalmenak harremanak ezkutatzen xahutu beharko lukeenez gainera, nire idealismoa asko desplazatu litzateke.

– Eliza ofizialarekiko zuen kontestazioa argiago agertuko litzateke.

– Gu ez gabiltza Eliza erreformatzearen. Mendeak dira instituzio horren sendakuntza kausa galdua dena, hemisferio honetan behintzat. Elizgizon batek bere statusa baliatuz, ekarpen handia egin dezake herriaren alde, baita erligio zindoaen alde ere, eta horretan gabiltza, zeure kasua adibide.

– Gauzak azkartzen ari dira. Apaizak hasiak dira deskolgatzen. Zeu ere, agian, laster...

– Zergatik hitz egiten didazu horren triste? Zure iragan trantze brutal bat era xarmagarri batean berritzea lortu ondoren, dramatikoa amaitu behar al duzu?

– Ai, Xabier, Don Jabier! Barka nire errakuntza, baina ezin dut utzi argi deklaratu gabe, behin behintzat, egiaren funtsa. Lehen ere aitortua dizut zeuganako sentimenduak

imenduak itzularazi ninduela hona. Argi esanda, zeure bihotzaren bila etorri naiz. Ez dut behar berehala, aurten, hurrengoan, ez dakit noiz. Bakarrik bilatzen dut itxaropenerako izpi bat, denboraren ispilu urrunean.

– Ai, Xemein, Xemein! Emaidazu esku xarmant hori.

Hartzen utzi dit, muin eman diot, eta bigarren muinari bertan utsiz, aurpegi bere eskuan ohera ezkututzen diraut, isil, geldi, adi, ezpainekin hatz-koskorretan bihotz baten uhinak nabaritzuz, dastatuz. Luze bezain igartein aurreikusten dudan bizitzan, beldur gabe aurrera dezaket hauxe izango dela nire bi unerik dohatsuenen arteko bat, etorkizunari posibilitate bat ez ukatzearen. Dohatsuen, unearen eduki, ezuste, osaeragatik, eta ez gutxiago, nire baretasun seguruagatik, zeina zorianaren osagai nagusitzat jotzeko dudarik ez nukeen, Epikuro existitu ez balitz ere. Eskuari jarraituz, gorputz osora oldartuko banintz, aldagai inprebisibleen eta antsietate amaigabeen belaontzian abiatuko nintzateke. Hona, ordea, hasieran hain fresko, orain neure aurpegi ezkutatuaren tenperaturaren sentitzen dudana eskura mugaturik, nire zorian ahalmen guztia mukurutzen dela arriskuaren inexistentzia totalaren gainean. Honen une bakanaren, neure bizitzako lehenengoaren, emozio ezin dohatsugu hau arrazionaltzen ari naizela dirudi, baina zertarako dut arrazoimena, atsegina ahalik gehien barneratzeko ez bada? Ez nintzen, noski, horretarako apaiztu, baina une honen oroitzapenak ziur mereziko duela iragan apaizgo bat. Bururik jaso gabe, ezpainak azalean kilikatuz, kontzientziaren sototik bezala dantzat berriz neure ahotsa, Xemeini zuzendua:

– Izpi hori ezin dizut agindu, ispilurik ez baita ikusten, eta ispilurik ez da ikusten, bitartean ilungune handi bat dagoelako. Sakosta karstikoetan jausten den ura ez dakizu non eta nola irtengo den, ezta irtengo den ere. Lea ibar honetan badituzu adibide ikusgarriak. Ur horren antzera dakust neure burua. Lurpetik igaro behar denean, irteerari ezin zaio antzik eman.

– Lurpe horregaz heriotza ulertu behar al dut?

– Kartzela, Xemein, kartzela! Boragine hau guztia non amaituko den argi baitago.

– Ihes egin dezakezu. Badituzu kide erbesteratuak. Neuk ere lagundu ahal dizut, lehenago zeuk niri bezala.

– Iheserako motiborik ez daukat, baina zikloa osatzear dela sentitzen dut, setioa estutuz datorren heinean. Hainbeste etekin atera diogun ukiezintasun klerikala amaitzera doa. Zamorako espetxea apaizez betetzen ari da. Neuk ere, iaz, salaketa faltsu bategatik, hilabete egin nuen preso. Halandaze...

– Jakin al nezake zer faltsutasun izan zen?

– Badakizu Txabi Etxebarrietaren hilketak ("Benta Handiko hilketak, dago traizioz beteta") nolako meza bolada ekarri zuen Euskal Herri zabalean. Durangon zen egun hartakoa. Saiatu ginen, egia esan, baina ez zen hurreratzerik ere izan. Txi-

bato batek, baserritar euskalduna bera, kale urrunean hauteman gintuen, eta eliza barruan egonik bezala iritsi zitzaigun isuna. 30.000 pezeta (180 euro). Jarraian orokorra isunik ez ordaintzea zenez, ordezeko arrestua. Mila pezetako egun bat berdin hilabete.

– Eguneko mila pezeta, ez zen ostatu garestia.

– Hain merkea ere ez. Nire bi herriotako hileko nomina (Gizaburuaga eta Amoroto) ez da 4.000 pezetara iristen. Isuna diruz ordaintzekotan, zortzi hilabeteko soldata beharko nukeen. Eskerrak kartzelak luxuzko hoteltzat baloratuak diren, ze, abade txee honen prezioan jartzen badituzte, beldur naiz... beldur naiz eta kito.

– Ez duzu esan nahi, ala ez dakizu zeren beldur?

– Hauekin ez dago beldur irrazionalik, Xemein.

– Neuri esan!

– Ziur naiz, esan nahi nuen. Hemen, errebotez, deskuidoz edo gezurrez, iragarria da, daramagun bilakaeran, fardela laster dugula gainean. Destinoak hori agindurik, eta motibo indirekto eta agian tentel bategatik jausteari tamalgarririk iritzirik, aurrea hartzea pentsatzen ari gara. Zergatik ez geuk aurkeztu ekimen sendo bat, ondo plandua eta berdin burutua?

– Ondorioz kartzela lekarkeena?

– Duda barik!

– Asaltoren bat?

– Diktadura katoliko-militar baten aurka, inozentea badirudi ere, ekintza guztiz bakezkoa izango da. Ganditarra, nahi baduzu. Gose-greba bat gotzaindegian, adibidez. Kontua da eragin eta oihartzun handiena izateko modua segurtatu behar dela. Horretan ari gara.

– Sonatuena izanda ere, ekintza bakezko bategatik ezingo zaizue zigor gogorrik ezarri.

– Gogorra ez dakit, une honen oroitzapenak asko bigunduko baitu nire izateko, baina luzea, ziur. Beraz, Xemein –eta hau, ezpainak zure esku gozotik jaregitea kostatzen zaidan arren, buruzut eta begiz begi esan behar dizut, zure sentimenduekiko eskerririk hunkituenez–, ulertuko duzu ez nagoela maiteminean menturatzen egoeran.

– Eskerririk asko ipuinagatik. Ederra izan da dena.

.....

Hitza entzuna izan banu, apaizen estresa inaktibitatea zela esango nukeen. Goizeroko meza aski goiztarra (eguneko obligazio bakarra) eman ondoren, eguna itsas horizonte bat bezala agertzen zen, luze-zabalean amaigabea, zeinaren elementu betetzaila kolore bat besterik ez zen, logura ematen zuena. Egun hartan

banuen zeregin bat, Txope apaizgaia etorria baitzen mezatarra. Noiz edo noiz, Markina aldetik agertu ohi zen, bizikletan, bere gaztetasun bigilatuari ihesbide txiki bat emanez, niotsan, nahiz eta berak zioen ondo hartzen nuelako zela, eta hori ere sinestekoa. Toki onera itzultzeko seta berezia duten txerriari eta soldaduari apaizgaiaarena gehitu behar zitzaion, batez ere nerabezaroan, biziera araututik kanpoko aukerak hain bakan aurkeztzen zirenean. Aukera hori, apaiz baten aldetik zabalduz gero, arauzko eremuan sartzen baitzen, lasai goza zenezakeen meza ondoko gosari, solas eta dena, berandu etxeratzearen okerra amaren hitz haserrezko batzuk burumakur entzuteagaz leunduko zela jakinik. Etxearen izenetik (*Txoperena*), denek 'Txope' esaten ziotenak bazuen nik izan ez nuen bizikleta bat, nahiz eta horrek ibilbidea areago luzatzen zion zabaltzen baino. Otorduak egiten nituen Amorotoko Susanarenean ere, etxekoandreak, Susanak, ezin txeratsuago hartzen baitzuen mutila, maizago etorri izango zatekeen, huts egiteko probabilitate handiegiagatik izan ez balitz, batean Amoroton bezala, bestean Gizaburuagan bainintzen, eta sarritan inon ere ez. Telefonoz abisatzea eta horrelako komenentziak oraindik kimerak zirenez gainera, efikazia ere ez zatekeen altua, zeren, herri txikietan bakarra zen telefonotik, publikoa bera, ea noizko lokalizatu behar zuten "oiloloka izan balitz, txitarik apenas sortuko zuen abade bat". Telefonoa hil-biziko medioa zen, hots, *jaio da!*, *hil da!*, horrelaxe, sinonimoen tonuan. Dei batek ez zuen askorik garestituko berez nahiko ruina zen hilondoa, bizi guztia hartarakoxe arretzen egin ondoren. Txope mezatan jaunartzera hurbildu ez izanaren harridura (ez neuk garrantzirik nemiolako, baizik arauzkoa zelako) haragoko susmo bihurtu zait, meza ostean, elizpean, *Susanak gaur be gosari gozoa ipiniko jeuskuk* nik esanik, tonu minberan jarraitu duenean:

– Gaur nahiago neuke berorregaz berba egin... bakarrean.

– Bai, mutil! Bulegora joango gozak.

– Bizikleta nora kendu neike trabatik?

– Hemen lapur-modarik ez dok oraindino sartu, baina, heu trankilago egoteko badok, sartuik abadetxeko pasillora.

– Eskerririk asko. Anaia zaharrarena da, baina berak ez daki honaino etorri nazenik, eta amak be ez garbi-garbi, eta honelako gauzak badaki berorrek...

– Nik ez joat ezer esango. Halan be, nahiago neukek zuka berba egingo baheunst, hemen gazterik gehienek egiten deusten moduan.

– Gure parrokoari horrelaxe egitea legoke!

– Zuen parrokoa zerua irabazteko biziko dok, baina nik munduan be ibili nahi joat apur bat. Berorika horrek berbakizun inportanteak erretorikan diluitzen dituela emoten jeustak, eta susmatzen joat hik gaur kontu pisu samarra dakarraala.

– Larri samarra bai, pisua ez dakit baina.



.....

Inoiz pentsatu izan dut nire abadetza ingrabitae bat izango zatekeela, Sastripo bezalako geriza bat gabe inguruan. Badatorrenean, ezin dut ekidin *bajatorrk hori!* bezalako sentipen molesto bat. Ez datorrenean, are gutxiago ekidin dezaket artegatasun inkonkretu bat, zerena den jakin arte areagotuz doana. *Sastripo non ete dok?* Orduan, batzuetan, absentziaren oharrenak etor dadin desiatzetik libratzen nau, baina, sarritan, luzaro samar agertu ez bada, mugitu beharra izaten dut, bide batez topo egin beharreko nonbait suerta gaitezen arte. Hagin oso loka bat bezala, zeinari eragiteari utzi ezin izan dion zure atzamar pareak, atera ondoren ere, harexen bila jarraitzen dizun aho guztian, hagin sanoak ernegarazi arte. Hori nire aldetik, baina Sastrupenetik, aipatu gerizarena zuzenago litzateke. Egun osoa gerizadun naizen ere ohartu gabe igaro ondoren, aski da geriza hori, neurea aurrera pasa eta hortxe jarraitzen saia dakidan, neu erretxintzen hasteko, batez ere aldarte batzuetan. Biratzen naiz geriza atzean uztearren, *hartuik popatik!*, nahiz eta, ondorioz, norabide batzuk erratu gero, baina askapenaren sentsazioak merezi zituen oker batzuk, zeintzuok, halaber, sentsazioaren kontzientzia bizituz, euren objektua ederragotzen duten. Hori guztia, geriza inguruan dabilen suposizioan beti ere, nahiz eta ez beti era ohartuan. Inoiz, oster, geriza benetan falta dela ohartu banaiz, ezinegon menperaezina sartzen zait, ez txakurra isats puntaren bila bezala, baizik, kaleen noranzko transbersaletan, geriza naturalaren bila, artifizialek balioko ez duten susmoan. Egoera horretan, geriza naturalik ezak, gauak alegia, harrapa nazan deskuidatu banaiz, eguna argitu arte erretiratzeko ezintasunak; jo nazake, ez bainaiz erabaki inportanterik hartzeko gai, neure gerizaren konpainia gabe. Eskerrak deskuidoak etxera ere eramán zaitzakeen.

Sastripok gerizaren portaera auresangarri bezain atxikigaitzaz ohartarazi nauen ahala, ez dakit bera ez den difuminatuz joan, geroz gutxiago antzematen baitut bere egiazko sentiera zein den bizitzaz, erligioaz, politikaz, eta giza adimena okupatzen duen pentsagai oroz. Arrain kamaleoniko bat bezalakoa da, koralezko oihan guztia ukitzeko gai dena, inolako markarik utzi gabe. Ez dakit garbi maite nauen, behar nauen, toleratzen nauen. Tradituko nindukeenik ez dut uste, baina ustetik harantz aurreratzeak posibilitateaz etsia naizenez gero, leialtasun osoarekin suposamenetik jokatzera erabaki nuen, egia baita, bestalde, herriko eta inguruko berri-ontzi nagusia, batez ere pertsonena, bera dudala, beti ere zeharka baina. Zerbaitez edo norbaitez nik galdeturik, edo bera berez mintzaturik, badakit zuzeneko informazio garbirik ez dudala aterako, baina, ariz-ariz, hainbeste xehetasun eta hari-punta jaulkiko du hartaz eta bestez, ezen aspalditik zerbaitez erdizka neukana tanpez osatuko baitzait, edo uste gabe argituko, halako eran non beragazko tratua

ariketa mentalik emankorren bilakatu zait, adimenaren ahalmen bereizle-deduktiboa garatzeko. Sastruporen bitartez, aniztasun itxuraz kaotikotik konbergentzia biribilak burutzen ikusia naiz. Meritua uste dut nire adimenarena baino gehiago dela bere subtiltasunarena, baina faktoreen erlazioak ez nau arduratzen, emaitzak baino. Nahiago dut zoli indutia izan, berezko tontoa baino.

Sastripogazko harremanean, metodozko dedukzioetako bat da gauza garrantzitsurik ezin dudala galdetu neu bere bila noanean, edo, kasualki topo egirik ere, berak niri intenzio bat esleitzeko arriskua dagoenean. Hots, beti. Orduan badirudi ni engainatzeko edo desorientatzeko eskumen osoz sentitzen dela, nahiz eta, hartan ere, zazpigarren edo zortzigarren hari itxuraz guztiz marginalean, xehetasun zantugarriak eskapatzen zaizkion, baina horiei ez diet jaramon handirik egiten, ezer mamidunik ateratzeko, burua gehiegi nekatu behar izaten baita. Bere kabuz etorri behar du, hots, bide batez eta ezertara ez bezala, eta denboraren mugarik gabe, niri aditzera emateko moduan ezen, ondasun horren—denboraren—administrazio araugabea, bera baino xahutzaileago nabilela, *goizean orduerdiko mezatxo bat emon eta libre*. Hori zenbat eta neuk hobeto dakidan, gutxiago gustatzen zait inork gogora diezadan, baina alumen horixe jarraituz bakarrik itxaron dezaket denborapasa soilaz beste zerbaitez baliozkorik beragandik jasotzea. Ate joeran bertan igartzen diot nire denbora aproban jarzteko tentuan datorren, ala *gau on esatera bakarrik, gero gau osoa izango bada ere*.

— *Barrurako ala aurrerako?*

— *Apur baterako bada be, barrura beharko dogu, ezta?*

— *Falta hartzen hasita nengoan, gaixorik ete zinen. Goazen aretora.*

— *Nik sukaldean nahiago, okupatuta ez badago.*

— *Bere hutsean triste dago, baina neuk be nahiago bertan, ibai hotsa entzuten delako edo.*

— *Triste samar dago, bai, bete samar egoten ohituta.*

— *Aurrera! Ardao tragotxo bat hartuko dozu?*

— *'Txo' bat bakarrik. Bestea hartuta nator.*

— *Kopatxo bat?*

— *Hori 'txo' barik igual, bestela ez dogu izen handiekin tratatzeko aukerarik izaten eta.*

— *Karlosen bat, beraz? Ea zer dagoen hemen: Karlos III, Karlos V, Napoleon, Soberano, Osborne...*

— *Andrazkorik ez daukazu?*

— *Santa Marta bat badago, baina zu santek loguratu egiten zaitue.*

— *Atera Karlos bat, orduan, ahal dela, erregea.*

— *Monarkia itzul daiten?*

- Diferentzia bat ikustearren.
- Izan leiteke errepublika be.
- Hori ikusi genduen.
- Eta ez jatzun gustatu.
- Larregi ez. Hemen jenteak uste dau izena aldatzea aurrerakuntza dela, baina izaera, denetan be, antzekoa dela uste dot.
- Orain daukaguna be bai?
- Hau be ez da denentzat txarra izango. Gaur goizean Fuldainen bisita izan ei dozu Amoroton.
- Hara! Egunkaria arin zabaltzen da hemen.
- Oletako tabernan ikusi dot arratsaldean.
- Haren laguna be bazarela, beraz.
- Lagun-laguna ez, baina kontrarioa be ez.
- Nigaz sarri egoten zarela jakin badai, kontrariotzat har zaitez.
- Nik denekin sarri egoteko ofizioa daukat. Dena entzun, komeni dena esan, eta aurrera.
- Ez dozu entzun Fuldain arriskutsua denik?
- Ez da gizon modu txarra. Bere ideiak izango ditu, baina zeozer edukitzearren Zeuk be ez dozu predikatzen dozun guztia sinistuko.
- Gauza batzuk bai, eta eurak ez dot uste Fuldainen sinismenean sartzen direnik.
- Sinismenak aldatuz joaten dira. Ni, badaezpada, ahalik gauzarik gitxien sinisten ahalegintzen naz.
- Lortzen dozu?
- Zergaitik ez? Jainkoak badaki isilik egoten.
- Amorotoko maisua ezagutzen dozu? Don Sixto?
- Entzutez gehiago. Erdaraz egitea kosta egiten jat, aldean trago batzuk izan ezik.
- Jakingo dozu beragaz gatazkan nabilena.
- Entzun ditut kanpai batzuk, jo be egiten ditut beste batzuk eta.
- Gehiago be entzungo dozuzela uste dot.
- Hemen izan genduen abade bat, kontrariorik ez bazeukan, gaixotzen zena. Azkenean, hari be neuk jo neutsan hil-kanpaia. Jotze efektiboa izan zen, antza, ze Markano be agertu baitzen hiletara, artean elizarik zapaltzen ez ebana.
- Harrigarri da, honelako herri txiki batean, hutsegile bakarra izatea elizara; eta arraro samarra, behin etorriko eta berean abade baten hiletara izatea.
- Nik uste dot abade ha, zeozergaitik, gorroto ebal, eta apropos etorri zela hiletaz gozatzera.
- Horretarako ez al da bihotz makur samarra behar?
- Edo naturala. Sentimendu gordeak ez dau inor mintzen. Arestian aitatu dogun Jainkoaren isiltasuna lakoa da hori.
- Batzuetan, zeu be gaiztoa zara gero!

- Edo naturala. Jente asko dago ona, gaiztoa izaten ausartzen ez delako.
- Gizakia berez ona delako teoria filosofikoari irauli ederra emon deutzazu.
- Berez ona?
- Edo berez gaiztoa.
- Edo biak. Berezko hori nork harrapatu dau bakarrean, zelakoa den jakiteko?
- Markano horrexegaz berba egitea gustatuko litxakit.
- Pasatuko deusat abisua, hurrengo hil-kanpaian.
- Ez neuke nahi, ahal dela, hileta baten inguruan izan daiten.
- Hemen hilak eta biziak nahastean dabilz. Galdeiozu Markano horri, goizean lagun baten andari egin eta, zerbitzuaren esker onez, familiak iluntzean tabernan ordaindu eutsen jatordu oparoaren ondoren, zelan, etxeranzkoan, beste tabernan be tragoz horniturik, hilerrietik pasatzea otu jaken, lagun ehortziaren gainean charlestona dantzatzeko, hankekin lurra ostikatu ahala, hots eginez: "Hortxe, hortxe, hortxe! Urteik orain, kapaz bahaz!".

Bulego umeletik plazara irtetean, airea berri, estreinagabe iruditu zait. Arnasak ere -sakon, luze- jaioberri dirudi. Amorotoko plaza luzanga, atartedun etxe monumentalek eta eliza handiosak lehian tiraturik bezala, albo batetik etxellerro kasik itsatsiak mugatzen du, eta bestetik, etxe bakarrak; eta hiru metro atzeragotik, laukizuzena ixten duen hormak. Hiztegian 'paralelogramoa' ikusi dut, baina ikaratu egin naiz. Plaza honek zenbat sarrera edo irteera dituen (nik beti irteerak konsideratzen ditut) sekula ezin dut ondo ikasi. Batean sei, bestean zazpi, ametsetan zortzi agertzen zaizkit. Kanpandorrean, sagar landare bat handitzen ari da, kanpai-leiho baten azpiko horman berez ernea. Danda hurbilek ez bide dute izutzen. Ez dago harrapatzen erraz, baina landare hori zelan eliminatu pentsatzen hasi behar geunke, hormari kalte handiegia egin aurretik. Proposamen suabe hori egin zuen sakristaulari pena litzatekeela erantzun nion, loratzeko gauza zen ikusi arte, behintzat. Gero garauren bat egin arte izango da, marmartu zen sakristau betiluna. Hori seinale onezkoa litzatekeela iradoki nuen, lore hutsa tristeia dela eta. Eztabaida herri osora zabaldu zen, hain bistan eta toki deigarrian egonik. Batzuen arrazoi mendekatiei (paradisua hondatu eban sagar bati orain kanpandorrea izorratzen utzi behar al jako?) eta beste batzuen arrazoi itxuratiei (zer esango dabe erbestetarrek, eliza sagarrontzi bihurtuta ikustean?) gehienen arrazoi sentimentalak gailendu zitzaizkien, kantuz eurok: "Dorrean, kanpaipean, aurkitzen da sagartxo bat, azpian umetxo bat, sagartxoari begira". Erabakitzaile zehatz baten eta jabe jakin baten faltan (norena zen landarea, zeinaren hazia gorotzean ekarri izango zuen txoria auskalo non egon zitekeen?), landare mukizu bategatik hainbesteko aldambiajea muntatu beharra lantegi antzua baitzen, azkenean, hazten utzi zitzaion, onura nondik hartzen zuen inork ulertzeke, zuztarren bat ur bedeinkatu ontziraino infiltratzea lortu ez bazuen.

Sagarrondoa loratu zen, fruitua ere eman zuen, eta handitzen-handitzen, denboragaz, herrian kanpai arraroak entzuten hasi ziren, harik eta sakristai: ia senetik irteeraino intrigatuak deskubritu zuen arte sagarrondoa bera zela kanpai-jolea; haizeak erara eta aski sendo ematean, kanpai barruan sartu eta mihiari eragiten zion. Danden inolako logikarik ez erregulartasunik ezak ordu arauzkoak ere herritarren zentzuak barne, nahas zitzaizkien arriskua nabaria zenez, landarea erauztean onartu zen. Kanpandorrera nola eta nor iritsi ez zen erabaki erraza. Soka bat engantxatu eta behetik edo goitik tiratzea horma zati bat arrastatzeko arriskuagatik baztertu ondoren, norbait gogoratu zen, Donostiako hiru damatxoek kondairatik, Getariako kanpandorrean akerra eskegi zutela aita santutzat, eta esperientzia positiboa izan zela. Metodoa, analogia bigunagoan, Amoroton probatzea onarturik, lortu zuten kanpandorretik eskegitako akerrak sagarrondoa jan zezan, edo desespezazioan adarrekin puska zezan, ito aurretik. Ohartuak ziren, noski, akerraren lekuan gizon bat eskegita, operazioa errazago eta garbiago burutu ahal izango zatekeela, baina historia ekarpen berriekin aurreratzen ei da. Esperientzia, hala ere, ezin dutesan Getariakoa bezain positiboa izan zenik, hurrengo udaberrian landarea berriro kimatu baitzen, akerraren adar-puntek guztiz erauzterik lortu ez zuten zuztarren batetik, harriztekoa ere ez berau, ur bedeinkatu ontziraino luzatua zela egia bazen. Bigarren landare lirain horixe, edo bakar setati haren pizkunde loriosa da orain kontenplazten dudana, Txoipe apaizgaia noiz itzuliko zain nagoela. Begirada jaitsiz batera, galeria antzera itxitako elizpearen beste aldean, han erreparatzen diot berari arte mendetsuaren azpiko petrilean eserita, bizikletari katea sartzen edo, tarta teka, pedalari afantsu eraginez. Arreta handiko lana, nolana, ia gainean eupada egin diodan arte ez baita nire presentziaz ohartu.

- *Engrasea falta jok horrek.*
- *Honen falta bakarra gehiegizko kapritxoa da, barrabana.*
- *Atezatu beharra, agian.*
- *Atezatuta, zurrundu; nasaituta, urten, topaiozu erdigunea.*
- *Nik uste joat horrek atsedena behar dauela.*
- *Merezi ez dau, baina emongo deusagu.*
- *Ez daukak mogitu beharrik. Berton be leku bikaina jagok berbetarako, Amoroton historia hasieratik presentziatuz datorren artearen azpian.*
- *Hm...*
- *Ez deritzok?*
- *Nik bulegoan gurago dot, geu bakarrik.*
- *Hona ezin dok inor hurreratu, geuk erreparatu barik.*
- *Baina kanpoan...*
- *Ondo jagok. Goazen bulegora. Artearen gerizak haraino be jarraituko jeuskuko.*

Hamazazpi urteko mutila. Zutikeran, ibilkeran, begirakeran, eskuen mugikera deslaian, antsietatea sumatu diot, eta bihozberatu beharrean, beldurtu egin naiz, adin bereko neure burua bistaratu baitzait. Neure barruko gordetasunean, naizenaren edozein atzera-aurrera, aktualizazio, eliminazio, eraldatze jasan dezaket, atseginez, baina errepresentazio bisible horrek larritu egiten nau, neure irudi iruntzitua bailitzan. Trepetxu, paper eta liburu zaharrak hain nortasun independentean bizi diren bulegoan, biok aurrez aurre, harmonioa bitarte, esertzeko modua egin dugunean, akorralaturik sentitzen naiz, zerak amorrarazten nauen, suposatzen baita aurrean dudanak baduela aski zama, gainera nire hamazazpi urteko izatearen konparazio desleiala pairatzeko. Honi guztiari dena neure pentsaketan izatearen mingostasun groteskoa erantzen bazaio, oraindik ez baitakit fisik zer entzun behar dudana: –seguruenik, dirua eskatuko dit–, bidezko da sentitzea izaki baten une ridikulu batean aurkitzen naizela. Norbera ridikulua dela ateratzea baino zuzurrago da una ridikulizatzea. Hobe da, alegia, metamorfosiak ezkutatuz orientatu daitezen: –horrela zoragarri ere izan daitezke–, Kafkarena gertatzea baino, oraintxe arriskuan nengoela uste dudana bezala, baina ez. Bulego honetan badakit labezomorroak badirena, baina benignoak, metamorfosira tiratzen ez dutenak. Konfesioan bezala, dena belarri eta dena sekretuontzi naizela garantizatzen saiatu ondoren, mutila benetako labezomorroaren makurtasun zapuztetik hasi da kontatzen:

– Abade bategaz daukadan kasua da. Izenik ez dot esango, ezta? (ez, ez!, agindu diot buru-eragite drastiko bategaz). Seminarioko musika-prefektuak opor aurreko astean deitu eta esan eustan: *Hain herritako urlia abadea etorri zaidak bere elizako zaindaria Ama Birjinaren egunerako kantari bat nahi lukeela esanez, eta hitaz gogoratu nauk. Oporretan egongo haiz. Joango al hintzateke?* Baietz erantzun neutsan, konplimentu zerbitzari bat balitz lako hoztasunez, baina barrutik pozez zorutzen. Gure baserritik, opor guztietan, elizaldera eta elizkizunetara jaisteaz beste aukera handirik ez daukat, lantzean behin, gaur legez, anaia zaharrenez bizikleta harrapatu eta isileko eskapaldiren bat izan ezik. Horregatik, halako herri batean egunpasa bat, artista bateganako begirunez, sinestezina zen niretzat. Meza nagusia zen. Abadeak oso txeratsu hartu ninduen, eta solista gonbidatu gisan aurkeztu ninduen dozena bat neskak osatzen zuten koruari. Neska batzuk neure adineko, denak be gazteak ziren, ezkongeak, behintzat. Harmonioa be neuk jo behar neban. Euren artean mutil bakar, hain hur, hain miretsia, emozinozko urtze etenbakoan nengoen. Meza kantatuan zehar, hiru bider solista egin neban. Horixe izan zen mezako nobedade nagusia, hatarakoxe eroana izan bainintzen. Meza ondoren, herritarrek *'nor da mutil hori?'*, *'nongoa da?'* galdetzen eben, eta abadeak harro aurkezten ninduen denen aurrean, berak fitxatutako figura moduan.

.....

Gero, neska-koruarentzat, neu be tarteko, hamaiketako berezia prestatua zen jatetxe ospetsu batean, berba egiteko moduan. Neska nagusiek karinoz tratatzen nindueen, lagunartean lasai egoten lagunduz. Gazte-gazteek ez eban barbarik egiten, baina begiratzeko eusten. Ni, barriz, edonori lotsa barik begiratzeko konfiantza hartu nebanean, zazpigarren egoitzatik goragoko ikuspenean baino liluratuago nenbilen, hainbesteko poza pekatuzkoa izango ez ete zen kezkaraino. Eguerdiko gizartearen ondoren, bazkaria, sekulakoa, abadeagaz eta jatetxeko guztien ondo-esanean egin neban. Arratsaldea be, nire aldetik dena begi, jentearen aldetik dena berba gozo, denpora bizkorregi joatearen penak apur bat minduriko liluran igaro neban. Iluntzean, Markinaranzko autobusa hartu nebanean, labirinto zoragarri batetik igaro izanaren durdiduran nentorren, oraingoan, amaitu izanaren pena barik, abadeak nahi neban edozein domekatan joaten jarraitzeko gonbita eskaria, egin eustalako. Hurrengo joan nintzenean, ez zen, noski, festaburu, baina eliza bardintsu bete zen, eta batez be, ni gehien tirriatzen ninduen, neska-korua bardin kantatzen eban meza nagusian. Abadeak, barriz, bardin baino laztankorra hartzen ninduen. Jente aurrean, adei neurtuan eta Gabino legez izentzen baninduen —ez neban esan be egin neure herrian denek 'Txope' deitzen eustenik—, bakarrean 'Gabintxo' esaten eustan, ez amagandik haurtxotan, ez inorgandik inolaz entzuna ez neban modu laztanean. Izatekotan be, 'Gabinotxo'.

Abadeak Gabintxori, abadetxean, pastel gozo-gozoa ebagi eutsan, "zeuretzat apropos agindua", eta ferekak egin eutsazen, geroz luzeagoak. Ni salatu nintzen apur bat saihesten, baina ez nintzen ausartzen nabarmenegi itzurtzen be. Konfiantza hartu ebanean, hartu egin baiteban nik emon barik, autortza intimoak egiteraino ohoratu ninduen. *Zer politikak diren gure neskak, eh! Zelako zoramenak izan behar dauen emakume bati honelako ferekak egitea! Gure haragiak haragi baitirau botoekin be. Berezko sentimenduak onartzeko dira. Nahi bada, menperatu, baina ez deuseztu, ezta? Gure Jainkoak badaki hori guztia ulertzen, eta batez be, badaki parkatzen. Ez dozu horrela sentitzen, Gabintxo?* Ni halako gauzarik inorgandik entzuteke nengoen. Aurkikunde erabat ustebakoa izan zen, exzitateak be bai: herri ireki bateko abade batek —ez seminario isolatuko 'superiore' batek—, abade 'mundutar' batek, halako lagunkidetzaz tratatzeak izugarri hanpatzen ninduen, baita larri-puntu bat emon be, eliztarrak, neskak barne, halako goieratik, kasik seberitatez tratatzen zituena nire aurrean zelan biguntzen, kasik serbiltzen zen ikustean. Erruki be hartu izango neutsakeen, sentimendu hori, hain neu baino goragokoekin, sortu zeitekeenik be bururatu barik egon ez banintz. Azken domekan, meza, meza-oste, bazkari eta dena hain bikain egin ondoren, abadetxera igon ginin. Bero handia egiten eban. *Sotana erantz dezadan ez dizu ardura izango, ezta, Gabintxo?* Ezetz erantzun neutsan. Zer esango neutsan, ba, bere etxean bagongozela? Zer figura modu ikusiko ete neban irrikaz, txunditu nintzen, sotana kentzean, bainu-

jantzi urdin, distiratsu, ondo estu bat bakarrik agertu zenean. Berezko guritasunak iradoki zeikeen baino askoz gorputza baltzarana goa agertu zen, hondartzan edo nonbait esponenturik egonaren seinale. Bal-baltza be bai papar, sorbalda eta bizkarretenean beheara, hain bilotsu dena, nire begiak harritzeraino. *Zeuk ere erantz alkandora beldur gabe, Gabintxo, etxean gaude eta.* Obeditzera beharturik aurkitu nintzen, kontraste ridikulu begitantzen baijatan Jainkoaren ordezkaritza gurgarria bainujantzian, eta mutil zapoa estalitasun piadosoan.

Pastel gozoa mahairatu eban, zatiak ebagi zituen, *jan beldur gabe* agintzen eustan, eta atzera-aurreretan, bide batez edo bilatuta luzatzen zituen fereketan, tarteka, gorputz osoaren, guri mardularen biguntasuna sentitzen neban gainean, esku batak ilea sendoki eta besteak okotza leunki igurtzen eustala. Aulkiaren bizkarrean erditik alde bietara doblatutako sotana bere tokian eskegi behar ebalda-eta, logelara ezkutatu zen. Pastel zatia, hondo hori-gorriskaren gainean, nik ezagutzen ez nituen fruituzko begi irregularrak eta independenteak agiri zituena (Chagallen begiekin ikusia esango neukeena), fruituzko jateko baliatu neban tartea. *Gabintxo! Zatoz hona, non lo egiten dudan ikustera.* Lau ateko arropa-armairu gaztainazko baten bi ate irekirik, sotanapean erabiltzeko zela pentsatuko nukeen baino arropa ilara oparago eta eleganteagoari ikutuak egiten ziharduen. *Jesari hortxe, ohe gainean.* Zorurainoko ohazal zuri labainaren gainean toaila handi urdin bat zabalik zegoen. Zalantza une baten ondoren, beronen gainean jesarri nintzen.

Armairua itxi eta ondoan jesarri jatan. *Hementxe bizi naiz ni, Gabintxo. Hementxe sentitzen dut abadeen bakardade irrepairablea. Ez zaitu mintzen eskutik hiel diezazudan, ezta?— Ez, ez, nik, eta eskugaina ferekatuz, mun damost bertan, abadeari berari altaran egiten jakon moduan, baina luze, xurga kilikorrean, burua bertarantz makurtuz, ezkutatuz. Minutu eternal baten ondoren, etzan egin da. Esku bategaz nireari bere papar bilotsuaren kontra eutsiz, besteagaz besoa gorantz ferekatzen deust, kamisetaren tiranteetaraino. Etzan zaitetz neure ondoan, Gabintxo. Ez ezazu beldurrik izan. Pixka bat berak tiratzean, deseroso nengoelako, etzun egin naz. Badirudi egintza horregaz nire borondate osoa bere alde ulertu dauela, eta albob baina gorputz osoz besarkatu jat, aurpegia nire okozpean ezkutatuz. Egon bakarrik, honelaxe. Utzidazu erakusten zenbat maite zaitudan. Behin bakarrik. Arnasa hartzeko baino geldiago nago, seminarioko begi guztiak gainean dodazela. Harrotasun bat be badot, seminarioko 'adiskidetasun partikularretan', lortzeko gai ez nintzela uste neban arrakasta era aniztuan eta askoz espektakularragoan iritsi jatalako. Funtsean, ez dakit zer egin, geldi-geldi egon besterik, egoera bere kontura bilaka daiten utziz. Uzten deusat estutu naien, laztandu naien, eskua bere izter artean berotu deidan. Bainu-praken labaintasunak ez nau libratzen azpiko bultoaren, jotzen ari den sator bat lakoaren formatik, baina bai, behintzat, ikutze*

direktotik. Hori abantaila handia begitantzen jat. Izter bat gorputzaren gainetik pasatzen deust, hobeto estutzeko. Ni praka luzeekin nago. Hori beste abantaila bat begitantzen jat. *Parka, Gabintxo. Behin bakarrik. Behin bakarrik.* Nire eskua izter artetik bere sama azpira aldatu dau. Begiak itxi eta mugimenduei bakarrik jarraitzen ahalegintzen naz.

Logelan hain beroa ez den temperaturari legokeon baino izerdi handiagoa nabari dot. *Parka, Gabintxo, parka, Gabintxo! Ai! Behin bakarrik, Gabintxo, behin bakarrik. Ai! Ai!* Mogimendu guztiak bateratu egin direla damost. Bateratzeak kasik oldar biolentoa abiarazi dau. *Behin bakarrik, Gabintxo. Ai! Bai! Behin bakarrik, Bai! Bai! Bai!* Berbak urruma bihurtzen ari dira. Urrumak urruma bakar, nega tragiko jarraitu bat legez. Autobusa galdu behar ete dot? Arrapalada bat nabari dot. Ene ama! Honi zeozer gertatu jako. Edo gertatu behar jako. Aurpegia nire kolkotik erretiratu dau. Begiak disimuluan zabaldu dodaz, eta bereak gorantz itxita dagoz, aurpegia desfiguraturik, tripako min bizi-bizi batek emon baleutso legez. *Parka, Gabintxo. Hauxe bakarrik. Gehiago ez, ez, ez... Eskerrik asko!* Tripako mina joan jakola dirudi. Ez daukat autobusik galdu beharrik. Geldi-geldi gagoz biok, bere arnasa hasperendua izan ezik. Denpora batera, *jaiki naiteke?* itauntzen dot, eta berak darantzu, ahul-ahul, emeki-emeki: *Bai, Gabintxo. Jaiki eta jan pastela, merezi duzu eta.* Sukaldera joan naz, eta horretantxe dihardut. Bera zutundu da, eta toailan baturik, komunerantz pasatu da, Klaudio bainu-galdaratik tronurantz bezalatsu. Hankartetik zeozer jausi ez dakion arduraz bezalatsu. Denpora batera, jantzita itzuli da, sotana eta guzti, edo, beharbada, sotana hutsean. Nik, bitartean, neu konturatu barik, pastel guztia jan dot. Harritzen naz, gosea ez baitzen kontzientea. Lotsatu be bai apur bat, *dena jan duzu?* galdetu deustanean. *Ez dio ardura. Braboi!* gaineratu dau, burua indar karinosoz astintzen eustala. *Zatoz barrero logelara,* hots egin deust gerotxoago logelatik bertatik. Oraintxe bai ez dakidala zer egin. *Ez beldurtu, Gabintxo. Ez dizut ukiturik ere egingo.* Ez daukat fidatzeaz beste erremediorik.

Logelako atalasean taket gelditu naz. Abadea ohearen kontra balauniko dago, albo-hormara begira, Arsko Abade asetikoa sarritan irudikarazo euskuen moduan. *Aurrera, Gabintxo. Belaunikatu neure ondoan. Horma horren beste aldean sagrarioa dago. Hortxe dago Jesus gure makaltasuna ulertzen, barkatzen. Zuk ez daukazu errurik, Gabintxo. Obra on bat egitearen bekatua besterik ez duzu, Barka, Jauna! Barka, Jesus maite! Barka, Amatxo laztan! Ez Gabintxori konturik eska. Gabintxok ez dau ezer egin. Barka zeuk ere, Gabintxo. Dena eroangarri begitanduko litxakit, hainbeste bider Gabintxo-txo... txo-txo-txo entzuteak larrituko ez banindu. Diminutibo bikotx horrek (-o +txo) hozkia daragist urdailean. Hor be hortzak dagoz, antza, ahotik joanak*

edo, jausi ahala teilatura ez jaurtitzearren. Immobilitate isilean gagoz, bera otointzean, ni autobuseko atea itxi dadinetik harantz, gerta berria kardatu guran. Hobe dot neuk be otointzera pasatu. Parka, Amatxo laztan! Egizu zure semeak ezer ez daien jakin, eta zure senar erdiak, San Josek barik besteak, ez daien bere ahal guztia abade honen gainera deskarga. Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari, horma horren beste aldean zagozeena egia bada.

.....

Txoperen kontaketa amaitu denean, labezomorroa ez zait hain labezomorro begitandu, zapaldua izan gabe libratua baitirudi; seguruenik, *"hankartetik zeozer jausi ez dakion ardura"* horren arrazoi likinaz, epelaz, esanahi osoan jabetzeko esperientziarik oraindik ez duelako. Begietara zuzen begiratzen diot, berak ere berdin niri, adin horretan neu inorekin ausartu izango ez nintzatekeen bezala, baina ez diot hartzen antzik, masturbatzen ikasiarenik. Abadeagan gertatu dela suposatzen dudan konbultsioaren azalpenak on egingo liokeela baneki, baina ez da segurua, ez baita beti egia gezurra egiaeren forma bat ez denik. Batean zein bestean, gehienetan, hirugarren aukera da onena, saihestea, oraintxe egin beharko dudana bezala, ez baitakit nondik antolatutako mutilaren begirada finkoak itxaroten dela suposatu behar den jarraipena. Zer esan behar diot? Ofizio nazkagarri bat ikasten ari dela? Denak ez direla, ez garela, berdinak? Haragia makalean indartsua dela? Jainkoa mendekuan errukitsua dela? Lehenik, temperatura animikoa hartu beharko diot, ez baitakit gustatu zitzaion ere. Seguruena norbera ere ahalgabe, kasik biktima agertzea izango da, kasuari, beti ere, garrantzi singularra emanez, eta inoiz ere ez: *Ba, neuri ere...* Edo: *Hori sarritan...* Soluzio edo argibide berehalako bat emateak esan nahiko luke ez duzula kasua 'singulartzat' hartu, zeinarentzat ezingo zenukeen, definizioz, erantzun arabera izan. Gizakia izango da izaki bakarra, zeinari sarritan ez zaion hainbeste interesatzen soluzioa, nola berdinik ezaren aitorza. Jarrera ez beti hain efektibo baina bai guztiz inofentsibo hori ez zait batere zail gertatzen, anaia zaharrari bizikleta harrapatu eta, amagandiko ezkutuan, Markinaldeko ez dakit nongo baserritik ihesian etorri den mutil oraindik nahiko mutiko baten aurrean.

- Bidaia luzea egin dok, Gabintxo, parka, Txope, baina egia garbi esateko, ez jakiat zer esan.

- Gogo-zuzendariari jakinarazo beharko neuskio?

- Ez jakiat horixe be. Beharbada, kontatzen ibiltzea baino zuhurrago dok denporari apur bat joaten uztea, ez baita segurua kontakizuna esatariaren berotasunez jasoa izango den entzulearen aldetik. Beharbada, esperientzia berez-berez pausatuko

*jak, gogoaren hondo amaigabea.*

– *Datorren asteko eguenean, txango bat egitekotan gelditu ginen.*

– *Abade horregaz?*

– *Biok biotara.*

– *Hori beste kontu bat dok! Nik uste najoan gehiago ez heuela ikusiko.*

– *Zelan esango neutsan ezetz? Uda guztian ez daukat inora urteteko, ez ezer ikus- teko aukerarik. Bidaiarik luzeena, seminariora itzulera tristea.*

– *Zer txango izango litzatekek?*

– *Goiz erdian urten eta hondartzara, Bakiora edo, beragaz motorrean, eta iluntzean bere jaiotetxera, bere guraso zaharrak bisitatuz, eta lo be bertan eginez.*

– *Txango trope samarra dok hori. Heuri ilusinoa egiten deua?*

– *Bai deust, baina ez dakit zer gertatuko den.*

– *Hori neuk esango deuat, nahi badok. Gertatuari buruzko argitasunik ez jauka, baina gertatzekoa zehazteko beste banok.*

– *Bai? Ba, ni horrexek kezkatzen nau.*

– *Goazen tabernara. Gosari gozoa janez hobeto kontatuko deuat.*

– *Nik arte honexen azpian entzun nahi dot dena, ezeren ez inoren traba barik.*

.....

Goizeko hamarrak eta erdietan, jolasaldiaren zain nago eskolaren aurrealde urrunean, arte handiaren ostean, haurrek, beirate handietatik niri erreparaturik, aztoratzeko tentaziorik izan ez dezaten. Neuk ere eurak ikusterik izan ez arren, barbaro zorrotzetik sobera ohartuko naiz noiz hasi diren irteten. Maisuagaz bakarrean egoteko bistaratu naizenean, nire abadetzako eszenarik xarmagarriak netakoa errepikatzen da: haurrek korruan inguratu naute, batak heldu, besteak saka, batak soka eskaini, besteak ipuina eskatu, denak txilioka, Jainkoaren belarriak desorientatzeko moduko eskaririk kontrajarrienekin. *Gero, umetxoak, gero! Maisuagaz egon behar dot.* Aurpegi oso serioz, hots, irribarrea kenduz gero, erdibitutako zitroin lizuntzen hasiaren aurpegia geratzen zaion maisuak hiru malla goragoko atalburutik dominatzen gaitu. Susmaten dut bere amorruren zergatia, baina berehala jakingo dut. Oraintxe noalako keinuari txilibitada hirukoitz zorrotzenez erantzun dio hiru norabideetan, ezker, erdi, eskuin. Atzerik ez du aintzat hartu nahi, antza. Haur oraindik hurbil, bat-batean asaldatuei oihu egin die: *Mundu guztia barrura!* Deskontzertu itzela sortu da. *Zelan barrura, urten baino ez badago egin?* Hori, mezua jaso dutenen artean, zeren gehienek, atera duten kalapitatik, *mundu guztia apurtu!* edo horrelako zerbait ulertu bide dute, abadearen presentzia maisuari albo egiteko bermetzat hartu ez badute. Beste txilibitada hirukoitz, azkar, agresibo bat, eta: *Mundu guztia barrura esan dut!* Gillotina hotseko gaztelan

oihututako agindu horrek eragina izan du. Haurrak, izuturik sakabanatu beharrean, barrurantz doaz isiltasun burumakurrean, bi lerro militarretan bezala, neskak batean, mutilak bestean, aurrez hartzen dituen maisuaren albo bietatik.

Denak euren pupitreetan kokatu direnean, neskak ezker, mutilak eskuin, aurretik atzerantz adinen arabera, maisua erdiko pasilloa zeharkatu eta aurrez jarrri zaie, Gurutze-Franco-Primo de Rivera triangeluaren azpian, kixotea bezain zut, lantza bezain ihar. Bat-batean gogoratutako eskolakizun pendienteren bat burutu behar zutelakoan, berriz bistatik ostentzeko buelta erdi emanda, kanpoan gelditu naizenean, mutiko batek eskutik tiraka diost: *Maisuak zeu be sartzeko agindu dau – Agindu ala eskatu? – Sartzeko esan dau!* Sartu naiz eta atzean gelditu, hormaren kontrara, Espainiako mapa zentralari, kasik eskala errealekoari, erdiko zerranda bat altuera erdiraino estaliz. Madril garondoa dudala uste dut. Umeak, maisua aurrean, abadea atzean, isiltasun mortalean dautza, bi harri-blokeren erdian konpmituak izatear bezala. Isiltasunak urrungo txakur zaunkak euliak bezala irentsi dituenean, Don Sixtoren diskurtsoa hasi da, estilo kadaberikoen manualetan bakarrik existitzen dela uste nuen gaztelanian:

– *Zuen ezjakintza hornitzeko edo ezin-jakina duintzeko, estatu eskuzabal batek bereziki ordaindurik, kulturaren gailur ziurren igo zintezten saiatu naizenean, inkulturaren jenio atabikoak bere hortz ustelduak erakutsi nahi izan ditu, eta badirudi ikaratu egin zaretela. Gailur horietako bat izan behar zela suposatzen nuen Elizaren ordezkariak, zuen aurrerapena ezin jasanik, jatorrizko basatasun endemikoan atxiki nahi zaituzte, eta ez zaio besterik bururatu, bere katedra demonioz- kotik, Don Sixtoren izena, zuek guztiok hain errespetatzen zenutena, hain maite ere esaten ausartuko nintzatekeena, inkisizioan erretzea baino, ohartu gabe, ezja- kin ausart, Don Sixto ez dela borondate kultural bat bakarrik, gailur granitiko bat baizik, estatu eskuzabal batek ordaindua izan gabe ere, abade ziztrin baten putzei eusteko beldurrik ez duena. Desafio dagiot igandean nitaz predikatu zuena errepika dezan hemen, gurasoen presentzia estutzaitetik at, eta zeueri ere desafio dagizuet orduan burua makurtu zenutenok oraintxe hauta dezazuen abadearen aldeko men- pekeria ala maisuaren kontrako matxinada. Besterik ulertzeko gauza ez zarete- lako, zoraturik nagoela ulertu bazenuten, saiatuko naiz arrazoi izan dezazuen, eta orduantxe jakingo duzue nori jaramon egitea komeni zaizuen.*

Nire interbentzioaren zain bezala gelditu dela ikusirik, eta umeek ere horrelako zerbait desio luketela pentsaturik, aurreratu naiz, bostekoa damaiot, ez du ukatu, ezustean-edo, eta diot, tonu solemnetik kolokialera zalantzan:

– *Domekan predikatu nebana sobra be entzun baitzendueen, fidatzen naz zuen ar-*



*gitasunean, hemen ez errepikatzeke beste. Don Sixtok aldarrikatu dauena be ziur naz argiago ulertu dozuela berak esplikatatu dauen baino. Orain egin behar dogun da, berak nahi baleu, zuek jolasera bialdu, eta biok bakarrean solastu, ahal balitz elkar ulertzeko. Gitxienez, distantziak neurtzeko.*

– Bagoaz, beraz? – mutiko batek.

– ¿Pueden irse? – nik maisuari.

– ¡Para no volver! – berak. – Hasta la tarde.

Berrogeita hamar ume ate bakarretik irteten bizkorrago ez ditut ikusi Termopiletan ihesari eman genionetik. Batzuk beiratean muturrak itsatsiz doaz kanpotik, eskuak belarri eginik, baina apenas lortzen duten barruko ezer bereizterik, tximinoekiko ahaidetasuna oso irudi sinesgarrietan markatzea besterik. Maisua eta biok buruz buru gelditu garenean, ezin dut ekidin ikara-puntu medular baten "estatu eskuzabal batek bereziki ordainduriko" baten aurrean, eskuzabalagatik areago estatuagatik baino. Tintontzi beltz, zapal, funtzioanitzari zirika, autista baten Lourdesko kristal-bolatxoari begira bezala, hizketarako asmorik ageri ez zaionez gero, esatea erabaki dut, ahal dudan gaztelaniarik ulergarrienean:

– Zeuk azaldu beharko dozu zeure haserrearen tamainua, motiboa kalkulatzeko baina.

– Ez duzu motiboa kalkulatzeko!

– Orduan, areago azaldu beharra dozu.

– Nola ausartu zinen ni hala salatzen, herri guztiaren aurrean, Elizaren inpunitatean?

– Abertitu neutsun, sasoiz eta sarri, baina ez sinistea hobetsi zenduen.

– Sinetsi izan banu, desistituko al zenukeen?

– Ez zatekeen preminarik izango, atzera egingo baitzeunkeen.

– Atzera nora? Neu ere, zu bezala, nomina baten kobratzaile naiz gero!

– Diruak batu behar bagaitu, presta haustura.

– Zuk ere neure nagusiagandik jaten duzu.

– Ez zure nagusiarentzat, nahiz, halan be, lotsagarri izan.

– Lotsagarri, baina jan!

– Dena batera ezin da irauli.

– Eta dena kakaztu bai? Ia kulturadun bakarrak garen herri honetan, besteekin hitz ere egin ezin dugun gaietaz jardun gaitzke. Ondare komun baten adarrak gara, zu elizan, ni eskolan. Pareko ameskide bat aurkitu uste nuen zuegan, eta halaxe irakli nintzaizun, zeu ere gogaide izango zinelakoan, eta begira: neuk bertan bizipau beharreko herri guztia gainera jaurti nahi didazu.

– Herri hau zapalduegi dago, inoren gainera oldartzeko. Apur bat defendatu baino ez dot egin nahi izan, zu lako harrapari baten erpeetan luma gehiegi galdu ez dälan.

*Ondare 'komun' hori aldarrika eizu beste gose-lur batean, hemen, zorionez, gatx horretatik libratzen hasiak baikara, bildurretik, zoritxarrez, ez hainbeste baina.*

– Horrek zer esan nahi du? Zu ala ni?

– Bakarrik esan nahi dau herriari erasotzen badarraizu, herria defendatzen saiatuko naizela.

– Ziur al zaude irabaziko duzula?

– Nire ziurtasun bakarra kartzelan amaitzea da, zeinerako prestasunik ez dodan zuegan suposatzen. Pentsa daitezunez, itxaropen horregaz bizi denari gitxi ardu-ya daikio herri-maisu baten etsaigoak, nahiz penagarri litzatekeen, bere ondorio jaustea balitz, entitate handiagoko kontu bat ez izatea. Zorionez, baditut arerio bildurgarriagoak, zeintzuekin, jakina, zu be erraz alia zeintzekeen, baina ezin dot horrelakorik suposatu, egia bada horren aurrerakoia zarela, sarritan zin egin deustazunez.

– Eta dagizut, eta galde: zergatik salatu nauzu publikoki?

– Zure aurrerapena zapalkuntza publikoan oinarritzen delako.

– Zeu zapal zaitzakedanik ez duzu pentsatu?

– Ez, bereziki. Esan deustut nire destinoa, zuegan aparte be, iragarri dagoela, baina, bitartean, leitekeena da, probableena be bai, gure arteko duelo partikularra zeure aurka erabagitzea. Dilema kasuan, pentsa zeinke herriak, honezkero identifikatuak izango dozuen salbuespen leialak barne, nori bizkar emongo deutsan, ez nigaitik, iraindu dozun sentimendu sakonegiagaitik baino.

– Ondo dago! Iritsiko zaizu lantzean goraintzi insolidario bat kartzelaraino.

.....

Etxeko edo oso hurreko behar zuen, hura hileta elizkizunera etortzeko. Egun batez, hor erreparatzen diot Markanori, gizezkoen bankuetan aurre samar, horma aldeko ertzean. Mezako zati ohikoak burua albokera makurturik zerraitzan, horma barranean labezomorrorik ba ote zebilen bezala; edo labezomorro bihurtuz gero, iheserako zulorik izango ote zen. *Harri sendoak dozak horreek* – niotsan neurekiko – (aita gurea, zeruetan zarena), begien atzetik eskapatzeko (santu izan bedi zure izena). *Hilek bakarrik eskapatu leikiak hemendik (etor bedi zure erreinua), eta eurek be, eroaten ditueelako.* Sermoian jarrera berdintsuan zerraien, edo belanetara begira, logura balitz bezala, harik eta burua guztiz jasorik baina guztiz zuzendu gabe begiratu zidan arte, nioen zerbaitek atentzioa emanik edo. Horrek asko animatu ninduen, hizlari batek lehenen pentsatzen duena izaten baita albora begiratzen duena, batez ere entzule berria bada, beraganako muzina edo arbuioa erakustera etorri dela. Ez dut esango diskurtsoa berariaz zorroztu nuenik, baina bai bestela ere esango nituzkeen hitz batzuek Markanoren arreata zulatzeke asmo



berezia zutela, burua jasoarazi ziotenak zer eratakoak izan ziren ohartu nintzen. Saiakera, nire pozerako, emankor gertatu zen, sermoi ondorengo meza-zati jakinetan ere neuri begira baitzerraien, zerbait konfirmatu nahirik bezala, nahiz eta tarteka desanimatzen ninduen pentsatzeak, halako masa geldi eta isil batean, distrakzio praktikoa bat izan zitekeela aurrean ageri zen objektu hitzun eta mugitun bakarrari begiratzea, labezomorroekin ordubetez aspertu beharrean. Mezaren jarraipen, kasik osagai naturala zen taberna ez handi, bai betean sartu nintzenean, ez nuen Markanogana hurbildu nahia disimulatu beharrik izan, bere koadrilaren ondotik pasaeran, nire denentzako kaixo bat nahikoa izan baitzen, berak apur bat bazterrerantz aparta nindezan, mezu ezkutu antzera ohartarazteko:

- *Gaur lako gauzak sarri badinoz, laster da berori be barruan.*
- *Ez naz, ba, ezer nabarmenik esaten ahalegindu.*
- *Bistakoak bakarrik, baina, honezkerok berorrek ondo jakingo dauenez, hemen bistan dagoena mingarriago da uzki zoldua baino.*
- *Nonoiz hasi behar zen jentearen gogoari hitzak ipintzen.*
- *Gogoa? Nik burua jaso dodanean, askorenak ikusi dodaz makurtzen.*
- *Bildurrarena izan daiteke.*
- *Ala herri txikian be faltsu handiak egotearena?*
- *Nire susmoa da gehienek eskertzen dabela zerbait entzutea. Nire ardura ez da denak poztea, interes makur bako gogoek hasarre barik jasotzeko moduko mezuak zabaltzea baino.*
- *Kontuz! Berori gazteegia da, txarrira be heltzen ez den jente bat ezagutzeko.*
- *Aprobatu egin beharko da txarritik noraino jaisteko kapaz diren.*
- *Baneban gogoa bere burua molusko bihurtu bako bategaz berba egiteko, baina hau ez da tokirik egokiena, belarri guztiak antenan dagozela, horma-zuloak barne.*
- *Aurkituko dot modua, bakarrean eta lasai egon gaitzen.*

Pare bat pauso atzeraturik, dozena erdi bat gizoneko bere taldera berritu bildu ginenean, solasa hileta-elizkizun baten ondorako gai bereziki aiutuan zebilen, hots, ilargira iritsiak zirenez gero, bertan gelditzea lor zezatenean, ea hil-bizilegeak han ere berdinak izango ote ziren. Beharbada, jaiotzarik ez zen posible izango, baina jaiota zihoanak bazitekeen, hain baldintza ezberdinetan, hil beharrik ez izatea, zera ez zekiten abantaila ala kondenaziotzat jo, zeren bere tamaina, egunetik egunera, matematikoki txikitzen edo handitzen ari den zoru batean, ezin baitu baratzerik ere lasai antolatu, are gutxiago futbol-zelai errektangular bat. Kontuan hartu gabe, grabitatea ere, diotenez, hain arina bada, ea askatzen diren jeneroel nola eutsi behar zaien lurrera erori gabe, hemengo jan-txakurrak elika daitezela, horiek espezialistak baitira datorrenaz gu baino lehenago ohartzen, eurak harrapari irten behar direnerako, kontzientzia gizen edukitzeko. *Horretarako, nahiago joan*

*berton popatik hartzen jarraitu.* Pentsakizun horiek guztiak kimerikoak zirelakoari -*harría eta hautsa besterik ez badago, arnasarik be ez!*- argudioa jarkitzen zitzaion ezen hara nahian zebiltzanak ezin zirela hainbeste ahalegintzeko bezain ergelak izan, gero ezer ez den lekura iristeko, gutxienez badelakoan ez bada, hori ere joan gabe jakitea zaila izango baita. Markanok interbentzio guztiak irribarre standar bategaz zerraitzala zirudidan, haren gogoa kontu hurbilago eta beroagoetan ibilki, *honeek txarriok!* bezalako esamolde ahobete bat entzutean izan ezik, non orduan berari ere purrustada biszerala ateratzen zitzaion, *bai, bai, bai!*, nahiz eta, seguruenik, pentsakizun guztiz ezberdinei erantsia. Eztabaida behin lerratzen zen ilargia zergatik burusoila ote zen delakora, arlo seguruagoa berau, erreferentziak hurbil eta ugari izanik; behin altxatzen zen maila zientifikora ezen, Jainkoak adimena lurrera mugatu nahi izan bazuen, zertarako ipini zuen unibertso alferreko hori mar-txan, erogarriro espanitzen gainera, baldin ez bazen pentsatzaileok bazter batera konfinatu eta gainerako guztian bera inork molesta ez zezan.

- *Berba eta berba dihardugu, gehien dakienak ezer ez dakiela, eta zeozer jakin leikeena isilik. Gure abadeak ez dino ezer?*
- *Sinisten dozue, ba, iretargira ailegatu direnik?* -nik.
- *Ez da erraza, baina bardin deutso. Gauza gatxagorik esaten deuskue, sinisten dogulakoan.*
- *Sinisteko moduko gauzak be esan ditu honek antzina ez dela -Markanok-, jentek nahiago ez baleu iretargira begira bizi.*
- *Nik badakizue zer egin behar dodan? Beste herrirantz abiatu, hurrengo mezara. Bueltan hemen bazagoze, esango deustazue zer argibide atera dozuen.*

Ez neukan hainbesteko presarik, baina nahiago izan nuen euren artean lehia zitezen, susmatu bainuen Markanoren ahora odol beroa zetorrela, ezagutzen ez nuen historia latzen bategatik, edo bizi zituen ideia amorraturen batzuegatik. Bere elizako hutsuneak hasieratik intrigaturik inideukan gizon haren gogoa, ager zedin irrikatzen nengoena, baina neu zundatzen ausartzen ez nintzena, eta hartarako aukerarik ere nekez ematen zuena, nire ibilbidean ez baitzen inon gertatzen, laster aurkituko nuen nola bete "bakarrean eta lasai", bere etxetik eta auzotik eskolara zetozen umeen artean disimulaturik, zeintzuek, beste auzoetakoek bezala, tiraka disputatzen ninduten eurei lagun niezaien, bidea ipuinekin edo fantasiakin luzatzeko. Umeek argiro onartzerik eta, eurei galdetuz, inoiz adosterik lortu ezin nuen txanda-sisteman (*gaur goialdekoekin - ez, ez, geugaz! - bihar behekoekin - ez, ez, beti geugaz!*, eta hala), laugarren egunerako banekien Markano non aurkitu, aitaren ohituren berri alaba txikiagandik xeheki eta aise jaso ondoren.

- Aitak biagorik egiten dau?
- Batzuetan, goiz erdian be bai.
- Eta arratsalde erdian?
- Goizean eta eguerdi ostean egin ez badau, bai.
- Gaur egin dau?
- Goizean ez dakit, baina bazkalostean, guk eskolara urteeran, bera eskilaretan gora zihoan, ortozik.

Markano ibaiaz beste aldean aurkitu dut, aldamenak hain xuabeki, sibilinok inbaditzeko arteagaz batera, bere zoruari eusteko jenio agresiboa zeukan sasitza bat, bera baino altuagoa, segaz eta biraoz eraitsi guran, pentsatu gabe, seguruenik, ibaiaren hotsak inork entzuetik lasai babesten zizkion biraoen indarra sasira ere motelduta iritsiko zenik. Errepertorioa ez zen ugaria, baina bai zarratua, sasiren bat beti katigatzen baitzitzaion, bernan ez bazen kokotean. Doi-doi entzuten nituen gainera, *kaben sasiputis!*, *kaben sasidios!*, bitarteko ahoketa etengabean zer marmartzen zuen imaginatuz -*bizimodu txarri honetarako itzuli nintzoan Ameriketatik, han be senperrenak ikusi eta gero?*- zain geratu nintzen berak erreparatu arte, ez zedin kezka behar ez zenen bat entzun ote nuen, beharbada gordinkeria antikerikalen bat -*kaben txarrikuras y malfrailles, danak izorraztailes!*-, halaok fama baitzeukan. Neure irudia ere ez nekusen, egia esan, inguruagaz oso egoki, sasi-multzo ebaki baina ez errendituek sotana barrenei amorruz heltzen baitzieten. Sotana gerriraino jasorik, berriz, ibai gainean bistan zegoen errepidetik, sorgindegaldu bat bi erratz-kirtenen gainean eman nezan beldur nintzen. Noizbait ohartu zenean, segari jaregin eta *geldi hor!*, *geldi hor!* besagoraka abiatu zen niganantz, ez dakit gehiegi hurbildu nintzelako alarmaturik, ala hain inkontzienteki nindoan toki oso arriskutsutik ni atzeratu nahirik, minaz ereindako gunea zeharkatu bazu bezala.

- Behar endredosoan zabilz, Markano!
- Endredosoa eta antzua, baina mahairaino ailegatzen be ezingo jake utzi.
- Neu be ez naz behar horretan ibili bakoa, gurasoek sasia eta ota desplazatu eginiko jaiotetxean.
- Lehen ibilia beharko dau berorrek, ze sasia eta sotana apenas diren elkar gailu. Igon gaitezen motara, hemen arropaje horrentzat leku deabruzkoa dago eta.
- Etxalde galanta dirudi.
- Hobe koskorragoa balitz, handian ez baita etekina nekearen neurrian gehitzen Baserritarra da berori?
- Baserriko semea. Apur bat lotsabakoa, gainera, ze ni banator, baina, beharbada, lanpeturik harrapatu izango zaitut.
- Atsedean bat edonoiz dator ondo. Gainera, beharra oso leiala da: orain egin ez

- dozunak gero be hantxe itxarongo deutsu.
- Beharrak bai, baina denporak ez.
- Denpora oso inozentea da. Joan ahala etortzen da.
- Batzuetan amaituko ez balitz.
- Hori norbere kontua da, ez denporarena. Pazientziak hamalau bertsino daukaz. Inpazientziak, bera bakarrik.
- Ez dot sermoilari jarri nahi, baina denpora be amaituko da, ezta?
- Behin bakarrik, baina orduan ez da berori konturatuko.
- Astia hartzeko prest zagozela dirudienez gero, aurrera jo aurretik, kontutxo bat aitatu nahi neuskizu, ondo baderitzozu.
- Esan bildur barik berorrek nahi dauena, hemen presaren hotsak babesten gaitu eta.
- 'Berorrek' horixe, hain zuzen. Artean tratu handirik izan ez dogunez, ulertzen dot ikasitako errespetuz trata naizun, baina herritar gehienak, salbuespen bildurti edo piadoso batzuk izan ezik, ohituta dagoz nigaz zuka egiten, eta estimatuko neuke zeu be bat gehiago izatea, konfiantza apur bat hartzeko garen susmoa dodanez gero, eta gogoia be bai nire aldetik.
- Hori baino ez bada, ahaleginduko naz, kostako jat baina.
- Ez gerra galtzea beste, ibilia zarela entzunda bainago.
- Ibili bakarrik? Honeek txarriok gehiago egin euskuen, Eliza lagun hartuta. Gero kartzeletan zertzuk eragin euskuezen ez dago esaterik. Parka hau esatea, baina Franco ñarro horrek ez eban mortuko musker artetik urten behar, Elizagaitik izan ez balitz. Heriotz zigorragez hilak neroazela, goizero 'arrasteak' presentziatuz, mirariz salbatu nintzen fusilamendutik, baina ez osasuna betiko galtzetik. Noizbait, bizirik baino hilago itzuli ginenean, madarikatuak ginen, oraindino be bai, alde guztietan. Orduantxe zin egin neban, Franco bizi zeno, ez nebala elizarik zapalduko, konpromiso handiren batean izan ezik. Ez neuke nahi inork denporarik galdu daien nire arima kondentatuaz errukitzen. Jainkoagaz neu adituko naz. Orain badaki berorrek, parka, orain badakizu, domeketako nire hutsunean zer irakurri: "Hemen duintasun bat falta da".
- Aurrerantzean, hutsune horretantxe inspiratuko naz.
- Hori benetan sentitzen badozu, ez zara abade legal-legala.
- Baina abadea naz, eta beste edonorena lako marka ezabaezin horrek damostan autoritatez esan neike zure jarrera aldatzeko arrazoiak aurkitzea tamalgarria litzatekeela, giza mailan, behintzat. Kristautasunaren lehengaita gizatasuna delakoan gagozenontzat, zu elizan ikustea dezepzino handia litzateke.
- Hori ez dau abade askok usteko!
- Zuk uste baino gehiagok, beharbada. Gerraoste zantarra badoa urrunduz, eta olatu barria badator gorantz. Elizara joan beharrik ez dago elizaldean ibiltzeko, eta ikusteko argitasun bat hasia dela zulo baltzean agertzen.

- *Elizarik zapaldu ez, eta elizaldean agertu, jenteak burlatzen hartuko leuke.*
- *Neuk ez, behintzat, eta jente horren gogoan, banaz nonor.*
- *Herri honetan ez dago nogaz berba eginik. Arerio ahohandia ez dena bildurrak oilotuta dabil. Horrexegaitik ez naz joaten inora.*
- *Behin etorri zara, eta berean aurkitu dozu berbalagun bat.*
- *Asko estimatzen dodana! Horixe behar neban: baten bat, berba egiteko modukoa.*
- *Sasiak emongo ahal dau horrenbesterako! Niri, umeei lagunduz eta abar, ez jat bape kostatzen honantz inguratzea.*
- *Lar be ez da ona. Jentea laster hasiko litzateke maiseoan. Berbetarako bildurrak asmamena zorrozten dau hemen, batez be bihurritantzen denean.*
- *Orduan ez dakit zelan sortu geinkeen berbabidea, konfesinoaren bitartez-edo ez bada.*
- *Bururatuko jat zer edo zer, orain arte pentsatzen hasteko motiborik be ez nekusen eta.*
- *Trankil ibili, ze Franco zahar hori disekatzekotan ei dabilz.*

.....

Egia da pospolo eta metxero ugari dudala, oraindik baliodun, baina nork jakin noiz arte dirauketen hondatzeke? Beharbada, lelokeria bat esan dut, bai bailiteke, behar bezain lehor edukirik, fosforoak eta gasak iraunkor izatea. Nori galdetu ahal diot? Haietaz dudak sortuz doazen material guztiak gordetzeko ardurarik ezin dut hartu. Egia da lupa eta kristal ugari dudala, eguzkiak nahi duenero. Betaurrekoekin ere lortu izan dut. Nork daki, oster, ez zaizkidala apurtuko? Nork daki ezer neuk ez bestek, eta zer dakit neuk ziurrik? Egia da suharría ere manea nezakeela, baina nork libratuko nau porrotetik, dena delako akatsen gerta baledi? Egia da egia asko daudela, baina premiazko kontuetan, ez dut arrakasta dudazkoen larritasunik nahi. Eta kasu honen funtsean, egia bakarra da sua bera nahi dudala. Lagun bat nahi dut, nor zaindu, norengan pausatu izan dezadan. Garbi esanda, maitale inkontzional bat, elkar-ondorio guztiakin, premiarako zein jolaserako.

Sua. Hondamen apokaliptikoan ikara zaitzakeena, edo ahurrean lastan dezakezuna, krisalida bat bezala. Ikuskizun borazean txundituko zaituena, edo errauspean isil-isil ezkutatuko zaizuna, marigorringo beldurtu bat bezala. Ez hain erraldoi, ez hain xume, txondor bat egingo dut, iraunkorra, arazo jarraiturik emanago ez duena. Biziduna, edonondik begiraturik, 'hemen naz' adieraziko duena. Eta batez ere, amesgarria, umetan edo gaztetan, etxetik hurreko Oiz mendian, edo mendixangoetan, Anboto edo Gorbeia inguruetan, pagadien gainetik ezabatzen zen seinale nagia, kasik sumaezinari jarraituz, boto ezkutuan, berezko edo aitzurtuan

aurkitzen nuen meta ilun, trakets, borda antzeko hura bezalako; bakar-bakar oihan sakonean, epel-epel erreka-zuloan, gorputz guztitik zerion ke arin, kasik transparentea, zuhaitz artean laino gisan zabaltzen zuena, edo gorantz sakatzen, edo inoiz, miragarriro, tximinitik bezain bildurik bidaltzen. *Zelan? Egonean hementxe? Inor ez jatzu etorri? Hobe, alde batera, munduan geroz intentzino on gitxiago baitago.* Hitz egiten nion, ezin bainuen pentsatu zohizko mozorro haren azpian norbait ez zegoenik. Kaputxadun Olentzero bat ere iruditu izan zitzaidan inoiz. Bisitak egiten nizkion, penatzen bainintzen laguna hain bakar zegoela gogoratzean, nahiz eta orain uste dudana, funtsean, alderantziz zela. Ezarian-ezarian, dependentsia sortu zidan, maitemin bat nerrake, bere ondoko munan eserita, hostaila isolatzailearen azpian, denbora ordugabea nemanen berari begira, ke zirrenden barruan, su handi bat irudikatuz, bere aho, begi, okotz, adats eta guzti, Liszt bat, edo Munchen 'Oihu' bat. Edo esan dudana, Olentzero bera.

Suaren berezko liluramen irrisistibleari debekurik sutsuenaren misterioa erantsi behar zitzaion, haurtzaro guztian entzun nuen bezala. *Ez deskuidatu inon surik egiten gero!* Basoak erretzen ziren, etxeak ere bai inoiz. Hala ere, pospolo ale bat harrapatzen banuen, ezin nion eutsi bazter batera joan eta su txiki bat egiteko tentazioari, "txiki-txikia eta guztiz segurua", pentsatzen nuen neure kantuan, harik eta auzoren bat garrasika agertu arte, *zertan habil, barrabaskume madarikatu hori?* Laster konturatu nintzen suarentzat ez zegoela bazter ezkuturik, keak edo nora salatzen baitzuen haren jatorria, esanez bezala: *Begitu! Begitu hemen azpian baten bat zertan dabilen!* Metxeroak heldu zirenean, Hefesto txiki bat zebilen nigaz noranahi, ira punte, ziri iharrei, abar txikiei euren barruko gar zoragarria ateraz, eta bakoitzak zenbat iraungo zuen apustuak neure buruari eginez. Inoiz, belar edo abar pilo txikiak ere piztuko nituen, ke handirik ez sortzeko moduan. Txunditzen nintzen nola eskuan eramateko moduko zuzi txiki batek animalia guztiak, beldurgarriak barne, berehala ikaratzten zituen, eta beti su inguruan zebiltzan txakurrek eta katuek ere nolako hankajoko izutuari zemaioeten, euren muturrera hurbiltzeko plantarik txikienean. Txerria zen edozeri ukitzen ausartzen zena, sua barne, 'txerri-erretze' danteskoaz aurretik desizutu nahian bezala. Behin, nik hurreratutako txingarrari ukitu zion eta, atzera egin beharrean, pozik gelditu nintzen bertan jan ez ninduean. Gehiago ez zen deskuidatuko kedun ezere heldzen, ezta neu ere ezere txerrigaz aprobarik egiten, distantziak eta segurantza guztiak aurrekusi gabe.

Suagaz jolasean ibiliz gero, gauez ohean txiza egiten zela esaten zen, eta banekusen arrazoi puntu bat, ohartua bainintzen uraren eta suaren presentziak bertan txizalarritzen ninduela. Gaueko ohekoaz ere erdi-sinetsita nenbilen, harik eta sineste hura erarik tristeenean desegin zitzaidan arte, mutiko errukarri baten ahotik, hamaika urtegar komenturatu nintzenean. Koltxoi batzuk, beso eta hanka

moztuak gehituz gero, Renbrandten *'Idi larrutua'* iruditzeke moduan, leiho konbentualetatik patio handira dingiliz ikusten hasi nintzen, berrehun begi isekariren gainean. Lehenengotan ez nekien zergatik zen, eta galdetzen ez nintzen ausartzen, bestela ere zaila baitzen han konfiantzaz hitz egitea. Noizbait, koltxoi eskarniozko haien jabeetako bat, lotegi komunean neure alboko nuena, aita zuzendariak ia goi-zero bezala agindurik, langintza angustios hartan hasi zenean, ahapeka galdetzen ausartu nintzen, hitz egitea hain zorrozki debekatua zen gure gozpuzñoak atontze-ko ordu hartan:

- *Zergaitik eskegitzen dok koltxoa?*
- *Lehortzeko.*
- *Zertatik?*
- *Gauez txizak urten jeustak.*
- *Txizak urten... zelan?*
- *Neuk banekik!*

Negarrari eman zion. Suteak baino gehiago ikaratu ninduen egoera hark. Ez nion galdetu, bururatu zitzaidan bezala, *suagaz ibili haz ala?*, komentuan ez baitzen ikusten surik, Txit Santuaren kandelaz besterik. Eternitate mentalki erreal baten ondoren, hurrengo udako oporretan etxeratu nintzenean, suaganako grina biziagoa ekarri nuen, baina ez nintzen ausartzen zelairik garbienean ere; tamaina bat gainditzen zueneko, lilurutzen ninduen baino gehiago ikaritzen nintzen. Soroan edo basoan, gurasoen laguntzaile, erreturak egin behar zirenean, orduan zen nire zorarena librea eta neurrigabea, nahiz eta ez guztizkoa, ez baitzen 'sua eta ni', 'sua eta gu' baizik. Nik suarekiko harremana bakarrean eta totala nahi nuen, sekula ezin burutzeko desioak moldatzeko grinari jarraituz. Oraintxe nago, ba, mundu guztia isiotu eta San Nikolas irlatik ikuskizuna beldur gabe goatzeko moduan. Ondarroan ezingo nukeen edertasun hori probatu, sua itsasotik etorri zenekoaz gogoraturik. Gizadiaren aurrera ala ostera saltatu naizen ziur ez dakidanez gero, erdibidea hartuko dut. Ez tximista, ez sugintza ero. Txondor bat. Edo txondor bi, bata lehorrean, bestean irlan. Edo hiru, bata lehorrean, bestea irlan, hirugarrena ontzi batean. Bihoa itsasoetan zehar, ea bueltan pare bat sirena bat dakartzan, bata goi-beheen ohiko banaketaz, bestea alderantziz. Txondor baten ur gaineko ke langidoak, ez-baikoak, garun ikustezinen ebaporazioa lirudikeenak, egin lezake hainbeste mirari, inor itoa izateko baldintza gabe.

Has nadin lehorretik, tokia ere pentsatua dudanez gero, edo maitatua areago: Mendexako Santa Luzia baselizaren azpiko zelaia, itsasadarraren gainean. Lekeitiotik bistan, suaren espirituak etengabe zaintzen nauela sentitzeko moduan. Inguru guztia zuhaitz eta txaraka izanik, erregaia eskura duket. Eta, batez ere,

presentitzen dut baseliza gomutatsu horrek (Santa Luziaren sermoi amestuak, goriak, bazter erromantiko bila harantz barnatzen ziren bikoteen ezabatze idealak, mendexarren baseliza horreganako benerazio harroa) garai triunfalak berbiziara-ziko dizkidala. Naturaren aniztasun hain leherkor batean, egur-meta bat eraikitzea nire umetako lanik zoragarriena izango zatekeen. Hiru hagak, poliedro minimoaren forman, elkar tentetzea lorturik, txunditzen nintzen nola, kargatu ahala, neuk nahi gabe kono bihurtuz zihoan, halako eran non, ertzei eustea askoz gehiago kostatzen zitzaidan, biribiltasunera jo zezan baino. *Hau zelan dok, biribiltasuna errazago hegala baino?* Zoruaren kontrako erpinak ere, bigunduz-bigunduz, azkenean desageratu egiten ziren. Goiko erpinari eustea bakarrik lortzen nuen, bera ere berez areago, neure trebetasunez baino. Esperimentu horiek guztiak egur txikiakin egiten nituen, handiekikoa irudimenean garatzeko utzi behar izan bainuen. Hona orain desio hari ere iritsi zaiola konpliera, nahiz eta, horretarako, gizateria osoak joana izan behar. Ezin dut ekidin merezi izan duela sentitzerik. Hiru hagak, habeak ere izan daitezkeenak, oinak elkarrengandik pare bana metrora. Bai figura polita, horrelaxe uztera gonbidatzen duena! Eta zergatik ez? Bigarrena egingo dut, lehenengoa, marrazki gisan, abiakeraren lekukotzat utzirik.

Pentsatu bezala, figura nahi gabe biribilduz doa, naturari ertzek hozkia emango balie bezala. Egur-meta zabala eta altua eginik (bost metroko diametroa barreneko zirkunferentzian, bost metroko altuera goi erpinean), zohiz eta oroldioz forratzea txorien lana bezalakoa da, euren habia hain era jostari eta miragarrian osatzen dihardutenean. Zohiek, lur eta belarrezko lauki hain hauskor bezain primario horiek, oroldioz konbinaturik, gezurra dirudi, euren tokian itsatsita, nolako tapizadura samurra eta sendoa osatzen duten, uro baten larrua bezalakoa. Maite dut konparazioak espezie iraungi bategaz egitea, bai, horrela, eurak neure nahikara birsortzen ditudalako, bai neu ere espezie iraungi baten azken alea naizelako. Zohiak osorik atera eta osorik itsastea, batez ere altuera batetik gora, ez dela erraza izango dirudi inguruan nabari den hegaztien pilakuntza gehikorretik, eurek milioika urtetan hain ondo menperatua duten artean animatu nahi banindute bezala. 'Bezala' diot, susmoa baitut euren interesa areago dela, zoihak jasotzean, lur larrutuan bihurka agertzen diren harrena, batzuk erdibituak, gajoak. *Neugatik ez da izango, ezta?*, galdetzen diet, badaezpada, hegazti karrankariei. Ez dakit zergatik, ezin dut emea ez den harrik irudikatu. Orolodioak eta zohiek eskolako pasarte bihozberak berritzen dizkidate, non lorategiko partzela txikien mugak eta loreen oinak gai horiexekin finkatzen eta edertzen laguntzen nion bion arteko isilean bakarrik genekien 'nobiatoari'. Hamaika urte aurreko kontuak, politenak izatearen xarman hil arte irautea itxaroten dudanak.

Baliteke txondorgintzari honelako pasioz heldu izana, suaren lilurapean,

amodio intzipienteen lorratzak aurkitzen ditudalako, egintza bat hainbat trinko-ago baita zenbat eta iraganaren zama handiagoa daraman. Aurretiko zama gabe, oraina pisugabe gerta daiteke, alferreko alegia, burrundada masiboak gehienetan horrelaxe izanarazten zigun bezala. Denek joanak izan behar, konturatzeko! Zama negatiboak iragazirik, gelditzen den onezkoa, apurra bada ere, atxikitzean egon daiteke zoriona, zeina lortzeko aitzakiarik ez dudana oraintxe, inor traban aurkitu ezin dudanez gero. Kasu honetan, egintza eta pentsakizun, denek elkar indartzen dute, nire emozioak arabera bizituz, batez ere, txondorra amaitu dudaneke, herri primitiboekiko sinpatia genetikoak bera etxolatzat uztera bulkatu nauenean. Egur, lur, oroldio eta figura hunkigarriaz gainera, osagai gehiegi metatzen da hemen, hain berehala su ematera jotzeko. Gertatzen dena da berriro hutsetik hasteak ere nagia damaidala, ez hainbeste daroan astebeteko lanagatik beragatik –astiro, seguru, ohartuki–, baizik beldur naizelako bidean beti agertuko diren alternatiba tentagarriek, sentimenak bazterrezintzat aurkeztuko dizkidanek, ez didatela sekula utziko pentsatutako helburura iristen. Isio dezadan, eta ez nondik ez nora ezean eriongo den ke usaintsuak lagunduko ahal dit aurrerantz ala atzerantz jo behar dudana erabakitzen, berari begira erdi lokar nazanean. Ez berehala horixe ere, irudikatua nuen baino askoz era seduktoreagoan abiatzen ikusi dudanean, ezin bainatzaise, hemen uki, hor putz, han usna, biraketa lentoan, barnakorrean. Txondorrari-bat-batean, nik ezarri gabeko birika misterios bat egin zaio, keak ez baitu inoiz engainatzen, engainatua izan nahi duena ez bada, edo engainatzailearen beldur dena. Nire oraingo kasua ez da ez bata ez bestea. Kea badator. Beraz, sua hor dago. Horixe da sor zedin nahi nuen birika, jada bihotz izaten hasia dena, laster adimen bihurtuko dena, neurearen antz eta irudiko, nahi bada, baina beste bat, beragaz berbalagun, sentikide izan naitekeena, banaizena. *Nire jaiotza (agian, sorkuntza be) argitu, epeldu, lekukotu, balidatu zenduen su maitea! Hortxe zagoz niretzat ezkutuan, neu zuretzat nengoan moduan, harik eta amak zure aurrean hankak zabaldu eta zuri opatu ninduen arte. Goragoko adimenen batek egin behar izan zuen –zeureak, seguruenik– probidentzia argi bat izan zedin, gero denek, amak berak barne, kasualitate bitxitzat esplikatua nahi izango zidatena.*

Soroan haurminak emanik, oheraino iristeko asti barik, ama suaren aurreran erditu zen nitaz. Aise tematuko nuke nire txondorraren aldikada bero hau ere jaiotza harexen (agian, sorkuntza harexen ere) uhinkada bat izan dela, orain astia sobera eta eragozpenik inondik ez nuela ikusirik. Sentimenduak ez dira izango beharbada, gertaera berriak sortzeko gai, baina oroitzapen baten gauzatzeari horrenbestean pilatzen zaizkionean, egiazko ardatzen batek hortxe behar du nonbait hutsaren inguruan antolatzen diren oinaztuak izatearen absurdora iritsi nahi ez bada. Eta zer, halakoak balira ere, oinaztu plazerezkoak badira? Gutxienez pare bat hilabete irauraraziko diodan txondorraren ondoan, beste su bat piztu dut, txi-

kiagoa baina ikuskorra, batean sentimenduak bezala, bestean begiak goza daitezten. Su hau itzali arren, bere matrizea badakit txondor barruan dagoena, beste su berri batez erditzeko gertu, neuk nahi dudanean. Kontua da suaren iraupena segurua izatea, bizi naizena. Eta neuk egina, ez zeruak tximistan jaurtia, adibidez. Bigarren bat ere egingo dut San Nikolas irlan, hirugarrena Karraspioko hondartzaren bizkarrean, eta laugarrena, badaezpada, Gardatako behatoki egunsentiarrean, ez dadin gerta ezen hirukoitzean uzteko inprudentziak ekar dezan hor nonbait deslari gera zitezkeen indar ernegaturen batzuk sinboloaren aurka errebelatzea, neu barne harrapatutik. Bide batez, beste ondorio dohatsu bat ere gerta daiteke. Lau su, bost, sei, zazpi, hor-hemen maltzurki zabalduz, bihar-etzi, joan zirenei itzultzeko kasketaldiak balemaie, berriro alde egingo dute, lehorra okupaturik dagoelakoan. Hain buruarinki alde egitea erabaki zutenei ez dago zertan suposatua nire txondorren engainua deduzitzeko talenturik.

Haurtzarora igaro nuen osaba soinulariak bere tresnaren barruan, ijitoei ostuta, maiatzaren hiruan, Bizkargiko erromeriatik ekarri ninduelako xarman. Sinestea zortzi urtez luzatu bazen, gero legendaren eskulibaz harrotzen jarraitu nuen, orduan beste haur guztiak Paristik etorriak baitziren, zikoinaren mokoan. Hamazortzi urte nituela, jada filosofian, hots, komentu eta seminario, zazpi kurtsoko gizonkuntza neroala, ama eta biok sutondoan geunden, gabon oporretan, ni eskuak berotzen, bera artilezko galtzerdi zulatuei puntuak hartzen. Sutondoak tximinia-gaz batzen zen kaxa bat bezalakoa egiten zuen, sua gordeago aurki zedin. Hondo-hormaren kontra, berau beteko burdina-plantxa bat altxatzen zen, eta altxatuko da oraindik ere; laukizuzen tente bat, arkuan errematatua, printze-ohaburu dekoroso baten antzera. Hondoko horma suaren biolentzia direktotik babesteko balio zuen plantxak hiru figura zeuzkan: txakur bat bere eser-jarrera tipikoan, oilar bat, hego astinduak bildu berri bezala, eta erdian ardoa zerbitzatzeko ontzi bat, bien paretik goratzen zena, hiruren artean triangelu bat osatuz. Zentzuaz jabetu nintzenetik intrigatu ninduen erliebe hark. Sukaldeko animaliak ziren txakurra eta katua onartuko nituzkeen norainan ere, sutondoan maiz egon ohi ziren bezala, baina oilarraren presentziak noraezten ninduen. Baita esku-bonba itxurako ontzi lepo-luze eta aho-zabal hark ere. Oilarrarentzat nahiko argitasun izan zen aitak hizketan hasi aurretik eman zidana.

– *Suari itzungitzen ez uzteko. Moteltzen denean, hegoak astindu eta haizea emoten jeutsak.*

– *Eta txakurrak?*

– *Txakurrak oilarra zaintzen jok, eskapatu ez daien.*

– *Eta ontziak?*

– *Horrek sua animatzeko balio jok, egur-ekarleak huts egiten dauenean.*

Apur bat kazkondu nintzenez, ez nuen esplikazio sinesgarriagorik eskatu, gure etxean, bestela ere, dena baitzen erdi legendazko. Errealitateagaz zerikusirik hurbil samarra zeukana inkoherentzia bat izango zatekeen. Fantasien baino oliotanta baten ardurazago zebilen amak ere *'asmukeriak!'* hots egingo zuen, zera nik, deskalkifikazio bat baino gehiago, misterio erantsi bat bezala hartzen nuen. Sutondoko burdina-plantxako hirutasun hura beti asoziazio arraro iruditu zitzaidala esan nion gabon haietan, zurturik utzi ninduen, gaineratu zuenean:

– *Animalia horreexek ikusi hindueen jaiotzen.*

Gutxiago ez nintzen harritu amak jaiotza erreala hala aipatzeaz. Pentsatu izango zuen, apaizgorantz hurbiltzen zihoan batentzat, bazela egia gordinak jakiteko garaia. Ziur naiz deskuidatu egin zela, solasari jarraitzeko nabari zitzaion artegasunetik, galdetu nionean:

- *Ez al nintzen Bizkargitik etorri, osabaren soinu barruan?*
- *Honezkerok, jakin behar heuke hori guztia aitaren asmazinoa izan zela.*
- *Ez dakit zuk jaulki barri dozuna asmazino handiagoa ez den.*
- *Jaiotza kontuak amak hobeto jakiten jozak aitak baino.*
- *Ez deusatz antzik hartzen. Oilarrak eta txakurrak zer zerikusi daukie nire jaiotzan?*
- *Euron aurrean jaio hintzen.*
- *Hemen? Sutondoan?*
- *Oraintxe hagoen leku-lekuan.*
- *Zelan? Zergaitik?*

Bet-betan, begien dzistada batean, nire jaiotzaren Bizkargiko legenda guztia baino bertsio fantastikoagoa zen egia erreala jakin nuen, azaltzea bataila bat kostatu zitzaion amaren ahotik. Maiatzaren hiruan, Bizkargiko Santakurtzeran letaniak igotzen ziren Gorozika, Morga, Larrabetzu, Zornotza eta, nagusia, Etxanotik, hemengo parte batzen baseliza. Letaniak errezatze edo kantatzea azken kilometroko kontua zen. Aurreko guztia, herri bakoitzetik irteerako ordu jakina barne, erronomia alai eta geroz jendetsuago bat izango zen, bidean gehituz zihoaz, zen errones berriekin. Gure ama, etxe ondotik pasatzen ziren beste asko bezala, urtero joana izango zen Etxanoko letaniari Autzaganan irteera, baina egun hartan huts egin beharra zegoen, erditze-eguna betetzear baitzuen. Arratsaldean, behi-uztarriagaz narran edo lera ziharduen soron. 'Narra' edo lera hori gurpil gabeko plataforma karratua zen, sendoera berdintsuko urritz-makilak bilbatuz egina. Gainean harri batzuk kargatu eta abereek arrastaturik, sokilak hausteko balio zuen. Behiak heziak edo konfiantzakoak baziren, edo gidari joateko itaurlariren bat bazen (sarritan mutiko bat, nire haurtzaroko lanik gorrotatuenean), atzeko itzaina

ere (beti pertsona nagusia) lera joango zen, pisu gehiago egiteko eta, bide batez, deskantsua baliatzeko. Horrekek ematen zigun umeoi ernegurik handiena, norberak aurrean tente eta zuzen joan behar, sokil artean estropozuka, eta atzekoa lera gainean pintxo-pintxo, agindu guztiak ematen, *aida, o!, gora, behera, eurt*. Agindu guztiak, amaierakoa izan ezik. Hau ere iritsiko zen noizbait, baina noizko! Mutiko batentzat, hiru-lau ordu horrela, inoiz egun osoa, fraile joatea erabakitzeke moduko desesperazio amaigabea izaten zen, neuk ere egin nuen bezala, behin, atzean zebilen amari mehatxua jaurti nionean:

- *Noiz amaitu behar dogu atzera-aurrera hau?*
- *Arloa amaitzen denean.*
- *Ni fraile joango naz, eta gehiago ez nozue honetan harrapatuko!*

Ama ez bide zuen mehatxuak gaitzitu, azkenean horixe egin bainuen, bere begion osoz. Arestian aipatu egunean, ostera, ni sabelean nenbilen, amari pisu eginenez, amak lerari, lerak sokilei. Lau eta bost urteko bi neba-arreba zaharragoak oraindik txikiegiak baitziren langintza hartarako, eta aitak kanpoan lan egiten baitzuen, amak bakarrik ekin behar, ez itaurlari ez ezer, nahiz gure behiak, heziak izan arren, hain konfiantzakoak ez izan, eurak ere gerraosteko gabezietan ernegaturik. Iluntze aldera, fraile joatea aurreratu nahi nuelako, edo sokilak handitu zirelako, edo behiak armindu zirelako, ama larritu egin zen. Handik hamazortzi urtera esango zidan moduan:

– *Narraren tringi-tranguak umea mogitu egin jeustan, antza. Baina total larritu gero! Behiek geldi egon gura ez, neu, bihurtuta, mogitu ezin, bete-betean sinistu najoan narran bertan erdituko nintzela hitaz. Inguruan zebilden ume biei oihu egin neutsean: "Imanol! Jarri behien aurrean! Miren! Joan arin amamarenera, eta esan amamari etortzeko lehenbailehen!". Umeek, ikaraturik, txistik egin barik obeditu jeurean. Apur bat arnasa bueltatu nebanean, behiak narratik askatu eta kontuz-kontuz etxeratu nintzoan, larri be larri, bidean etzun beharko ete nintzen. "Imanol! Zaindu behiok apur baten!". Pentsa, lau urteko umea, deabruaren sardea baino abere okerragoak zaintzen. Kasu honetan, eurak be kargutu zoazen, antza, umearen larriaz, mantso-mantso egon baitziren euren buztarrian. Etxeratu nintzenerako, amama han jegoan atean.*

- *Zer don, ume?*
- *Behiak! Ikusi behiak zelan dagozen, umeari eta euren buruei okerren bat egin ez deien.*
- *Behiak ondo jagozen. Orain egin daigun egin beharrekoa.*
- *Emaginari deitu deusazue?*
- *Bialdu jonat Pedro Uxarrera.*



- *Ai, ama! Bata hara eta bestea hona heldu orduko!*
- *Goazen ohera lehenbailehen! Etzunda trankilduko haz.*
- *Ez dago astirik.*
- *Umea ezin leiteken bat-batean etorri.*

*Atetik barruko portalera sartzean, gorako eskilarari begiratu neutsaan, eta kalbarioko kurutzea begitandu jataan, tente-tente, estu-estu. Amamak atzetik sakaturik eta neuk eskudelari esku biekini heldurik, igoten hasi nintzenean, hots egin najoan, ahots hilkorrez: "Nik ezin dot hemendik igon". Amama ikaratu zoan, eta agindu jeustan: "Hator sukaldera!". Urak zeridazela, odola be bai, sukaldera ailegatu ginenean, agindu jeustan: "Heldu gogor esku biekini tximini ertzari, eta estutu hankak ahalik indartsuen, goitik eskuzapi eta izara-manta garbiak neuk ekarri arte". Odola eta ura parrastan nabari najoazen izterretan behera. Bertan hustu behar nintzela uste najoan, ume eta dena. Itzultzean, amamak hots egin joan: "Umetxoak! Itxi atea kanpotik! Kendu batak euliak behie, eta besteak ez utzi txakurrari eta katuei barrura sartzen". Ume gaixoket ketatik pasatako espirituuek legez konplitzen jeurean dena, ama hiltzen ari ete zen bildurrez.*

*- Emagina heldu arte eusteko gauza izango haz? -itaundu eustan amamari larritasun mortalean erantzun neutsaan:*

*- Ez! Ez!! Hau badator!*

*- Zabaldur hankak! Heldu tximiniari gogor, eta utzi neure besoetara jausten, lehenengo be ez don eta.*

*- Umeak zertan dira?*

*- Umeei utzi orain bakean, eta saka datorrenari. Bajatorren! Ondo jatorren! Saka bildur barik! Gatxena egin don. Burua kanpoan jaukan. Hemen jatorren gure 'Buruhanditxo'! Segi! Bultza! Aupa, Buruhanditxo, mutiko bedeinkatua berai! Egik negar gozatsu, Jainko errukiarrari eskerrak emoteko. Hik be egin negar, ulu arrantza, gura donana, sukaldearen erdian manta gainean etzunda.*

*Ha zoan lorrina atera genduena, baina hi sano hintzen mahai gaineo izara-manten gainean, negarti eta ostikalari, lohietatik libratu ezinik. Emagina, tsi zenerako, munduari antz bat hartua hintzen, sutondoko oilar, txakur eta ardairontziari esker.*

Geroztik badakit zer den egintza beraren bikoiztasun paraleloa. Bizkargioko legenda kontatzen hasten banintzen (*kontaik hori! zelan zoan Bizkargioko soinu barruan etorri hintzenekoa?*), nik beti, neurekiko, jaiotza erreala irudikatzen nuen. Hainbestean, ezen zorieko txondorren entusiasmo geldiezin honek ere ziru naiz nire jaiotzako sutondo enbrionario harexen garapena izan nahi duela.

.....

Ondo jagok. Artepean nahi badok, artepean entzungo dok. Autobusetik jaitserian, ez jak geltokian zain egongo. Ezustean legez heldu behar dok, herri-tarrek bera norbaiten zain dagoela ikusteko moduan barik. Ordainez, inoiz baino pastel luzeagoa eta gozoagoa izango dok mahaian, zain, bere begi miragarriekin. Aurrekoa Chagallena bazen, oraingoa Mirórena izango dok. Pastelgileak bai jakin izango jok norentzat ziharduen. *Pastelik zerutarrena egin behar dozu, Maria, gure aingeru kantariarentzat.* Gosari inguruan ez dok laztan erakutsi txikienik jasoko. Damututa eta onduta dagoela sinistu behar dok. *Egun ederra egin behar digu.* Adeikor baina urri mintzatuko jak. *Jan lasai, Gabino.* Izena be bataiokoa, gatzaren eta uraren aurrekoa. Ekipajea prest edukiko jok, toaila, zamau eta abar, bazkari-maleta eta guzti. *Haitzetan bazkalduko dugu. Badakit toki zoragarri bat.* Horixe ez heuen itxaroten. Jatetxe batean uste heuen, bazkari jaukala, neska gazte politiek zerbitzatua. *Joango gara, ba, Gabino?* Etxetik urteeran eta elizako ate aurretik pasieran, hemen erreberentzia eta guzti, berak aitaren bi eginik (hik bakarra nahikoa dela pentsatuko dok, ateak elkarren segidan baitagoz), elizpean vespa berde garbi-garbiaren gainean jarri, eta bazoaze airean, grin-grin-grinnnnnn, abade guri-guria aurrean, sotana barren airosoz, eta hi mutil bizartzen hasibarraia atzean, praka luze grizez eta arkondara zuri mahuka-jasoz, Bakiorantz.

Hi Bakion ez haz inoiz izan, eta zoragarria izango den ustean hoa. Derioko seminariotik ezingo haz pasatu behinolako urtean behingo itsas txangoaz gogoratu barik, beti Sopelara. Sarri pentsatu izan dok Bakiora ez zinderoezela, zoragarria zelako, hots, bertan tentazino lar deigarriak zegozelako. Heldu jak, ba, amesaren konpliera, usteko ez heuen moduan baina. Txorierritik Mungialderantz, Derioko seminarioaren albotik, Artebakarra gaina bestalderatzean, *ondo zatoz, Gabintxo?* itaunduko jok. Diminutibo ninfotiko hori barriro entzutean, gorputzak dardara bat egingo deua, hotzikararik sukarrera non kokatu jakingo ez doana. Abadearen arteko damu-eremutik kanpora, bildur haz irritsen langak barriro zabaldu ete diren, beroaren eta itsas usainaren eraginez. Motorrean, abadearen gerriari ohiko litzatekeen moduan heldu beharrean, eskuak haizeagaz jolasean edo heure belaunburuak tarrapatatzen eroango dozak, hegatzeko esperientziaren lilura inozentean legez. Bihurguneetan, apur bat heldu beharra daukak, bildur baithaz abadeak pentsa daien apropos ete habilen, eta bildur baithaz, batez be, arriskuaren, heure ustez bizkorregi zoazeelako, zerbaiterako antsiatz bezala. Ez dok pentsatuko galanteozko erakustaldia denik, hik ez baitakik motorraren atzean neska bat eroatea zer den. Bihurguneak baliatuz, bere ezkerregaz hire ezkerriari helduz, *estutu beldur gabe, Gabintxo* esango deua. Obeditu egingo deusak, ez haren intentzinoan suposatzen



doanagaitik, baizik bere gidatze eskubakarrak larritzen haelako. Hik haren gerriari berak gura dauen moduan helduz gero, esku bat manillarretik jaregiteko atxakiarik ez dauela izango pentsatuko dok, baina ez dok guztiz asmatuko. *Pozik zatoz, Gabintxo?* Baietza inozenteki enfatizatuko dok, barriro galdetu beharrik izan ez daiten legez.

Mungia atzean utzi eta Larraurain sartzean, errepide alboko moja-komentuaren parean, hasperen egingo jok, hire eskua bere sabelaren kontra estutuz: *Ai, Gabintxo! Ikusiko duzu zer egun polita igaroko dugun.* Larrauriko urigunea igaro eta, Bakio Bermeo bidekurutzean, Bakioranzko mendate suabea hartzean, entzungo dok: *Heldu, Gabintxo, beste eskuarekin ere, buelta guztian.* Bere eskuma be, hire eskumari heltzeko, manillarretik jaregingo ete den bildurrez, obeditu egingo dok. Hire esku biak justu samar bat egingo jabek haren sabelaren kontra, ez baitok heure gorputza bere bizkarrera lar akoplatu gura, baina, halan egin ezik, eskuak eskapatu egiten jazak. Eskuek elkarrri ondo helduko badeutsie, umea amaren bizkarrera legez atxiki behar haz. Eguzkiaren argitasun bibranteari jagokon tenperatura berez altuarena baino berotasun handiagoa begitanduko jak haren gorputzean. Bat eginda dauka zeren esku biak jada ez dauka askatzerik, bere esku ezkerak ixten baitau, estuki morapiloa. *Asko falta da Bakiorako?* galdetuko dok, ez hainbeste osatu duzuen bitasunagaitik, abiadura nabarmenki mantsotu delako baino. *Bai direla usaingarriak inguruok, bikote udatiarrez loratzen direnean!*, hots egingo jok, burua ezker eskuma jasoz, zezen usnariak legez. Bikote horreetan, zeuena be barru ete dagoen pentsatuko dok. Auzotxoak eta baserri solteak ederretsiz, eurekin hunkituz distrahitu gurako dok, baina ezin dok, geroz berba jarraituago eta labainagoak baitantzuzak. *Bakion inork ez daki zer garen. Jainkoaren edertasun paregabeak konfiantza osoan gozatu ahalko ditugu. Gozatu egin behar duzu, Gabintxo, eguna datorrenean, zer izaten dozun jakinik uko egin deiozun. Meritua ez da grinak hiltzea, grina biakiak hezteko baino. Horretarako, batzuetan, eman egin behar zaie. Gure Jainkoak maite gaitu, Gabintxo. Zergaitik ez ditugu geuk ere haren opariak maiteko, Jesukristok Maiteko maite izan eban moduan? Ez duzu uste, Gabintxo?*

Mendatea gaingitu eta beherantz hastean, Bakioko hondartza gorrien eta urertz zurien eta marra batek zeru urdinari itsatsitako zabaldi halaber urdinen ikuspenak hire sinpletasun rurala txunditu daienean, motorra astiro-astiro, zokua mihizkatzen legez doala, eguneko ezusterik brutalenak joko hau. Bere esku ezkerzagaz hire ezkerrean morapilotik askatu eta dinoa: *Sartu eskua barrutik, Gabintxo.* Sotanek sakelaren luzera guztian daukien irekiduratik, berak sartzen deua eskua barruraino, non hotzikara batek sentiarazten deuan gorputz biluz bat, bainupraka xume-xumeak salbu. Ezustea hasi baino ez dok egin, bainupraketako bizilaguna kanpoan aurkitu baitok, luze-luze, lodi-lodi. Ez dakik garbi heuk heldu deutsan

ala berak okupatu dauen hire ahurra. Azenario punta-motz bat begitandu jak, heuk zergaitik ez dakiala, ze azenario gordin hain epelari sekula ez deutsak heldu, eta egosia izateko, lar kondriko deritzok. *Heldu beldur gabe, Gabintxo. Zeurearen berdin-berdina da, beharbada apur bat handiagoan.* Bildurra ezin dok guztiz ekidin, ze bizirik dagoela emoten jok, inoiz sugeari heltzen ausartu hintzenean legez, ahurraren kontra glup, glup. *Sartu beste eskua ere, Gabintxo.* Ezkerre manillarrera eta eskuma libratutik, beronek bideratuko jok hire eskuma beste aldeko sakela kontratik. Bigarren eskua, lehenengoaren sentsazioak jakintzat emonik, gorputz biluziaren dimentsino totalen irudikapenean ikaratuko dok, papar bilotsuan behera, zil-hobia hatz-maminez ez barrentzen saiatu ondoren, izter artean harrapaturik aurkitu arte, multzoaren kontra, bero-bero, bainupraken labaintasuna freskuragaz asoziatu guran. *Orain heldu esku biekin batera, burutxo libre utzita. Zure mutiltxo ez al da handitu, Gabintxo?* Eskuma barriro manillarrera eta ezkerzagaz hire brageta edegi nahi izango jok. Ez dok lan erraza, hi bere ipurdiaren kontra estutzen bait haz, oraingoan apropos, operazinoa zaildu nahian. Motorra astiro eta suabe joak, baina hegalak erdiratuko diren bildur haz. *Aberiaeren bat ez dogu egingo?* abertitzen ausartuko haz. *Lasai, Gabintxo. Ni ohituta nago esku batez ibiltzen.* Brageta saioa utzi eta eskua barriro sotanapera jaroak, hire eskuak bere azenario erdi egosiaren kontra estutzer. *Ai, Gabintxo!* –hasperen urrumazkoa egingo jok–. *Imaginatzen al duzu zer litzatekeen emakume batekin honela?* Apur bat trankilduko hau jakiteak, higaz barik, emakume batez pentsatzen doala. Halan be, galdetzen dok: *Bakio urrun dago?* – *Ez, Gabintxo. Beste dozena bat bihurtu bakarrik.* Esku arteko bizidunagan glup-glup-glup intentsoa nabaritutoko dok, baina ez haz hainbeste alarमतुको, aurreko domekan, abadetxeko ohe gaineko azken arrapalada zerena izan zen jabetu ez bahintzen. (Neuk be ez deuat argituko. Zertarako, historia hau guztia amaitu arte? Abade horrek maiteko ahal jok bere burua halako ez tandari motorrean doala ez agintzeko beste!).

*Ai, Gabintxo! Guretzat ez dago emakumerik!* Auhon horrek izu inpentsatu bat eragingo deua, emakumeaganako grina guztia, ezintasunetik bueltan, heugan zentratuko ete den. Lantzean auto bat albotik begira-begira pasatuko jatzue, lo ete zoazeen. Bihurgune batzuetan, egoera estabilizatu egingo dok, abadea isilik eta hi ahalik inexistenteen. Motorraren abiada geldotik eta sotana barronei haizeak eragindako palpaetik aparte, mogimendu apur bakarra epizentroan izango dok, hire eskuen erretiratze saiakera disimulatuari bere eskuaren estutze zuzentzaila gaineratzen jakonean. Etxe solteak agertzen hasi dozak, errepidea ia lautu dok, eta jaitsiera amaitu delako pentsamenduak ekarritako pozaren tamainuak harritu egingo hau, seminariotik etxeranzko pozaren tamainuagaz bakarrik konparatzekoa bera. Eukaliptodiak atzean gelditu dozak, ibar zabalean baserri zuriak eta landa berdeak agertu dozak, eta abadea prekaizinoen batek jo jok, zorionez, akopla-

menduzko itxura orotatik jaregiteko. Bakioko herrigunean zehar, hondartzaraino, vespa biribilkoia luzatu egin dela begitanduko jak, abadearen eta hire artean falta zen emakumea sartzeko beste toki eginik.

Hire hondartzara iritsiera triunfala izango dok, motorretik saltatuz batera, txakur batzuei jarraitzeko bulkada esplosiboan, silbestrean, urruntzeko atxakia naturala aurkituko baitok. Zoramen plantak, zilipurdi exageratuak, lasterraldj amaibakoak egingo dozak, ekarri hauenaren ideia geniala zelan eskertu ezin asmaturik legez; itsasoaren aurkikundeak deskontrol primariora itzuli bahindu legez. Funtsean, edonora zabalduz, puntu jakin batera itzultzea saihestearren. Puntu hori artean ezabatua izango dok, eta zer gertatu den ikustera hurbil haitenean, vespa liraina bakarrik hautemango dok bere tokian. Abaderik ez dok inon sumatuko, haririk eta, hatxetatik hur, beste arima batzuen artetik, bulto laktiko baten agur-seinaleak jaso daiazen arte. Bera dok. Gehitxoago hurreratu eta, bainulari mordo baten partetik, *Don Eduardo! Don Eduardo!* deitzea otuko jak, baina horrenbesteko alukeria justifikatzeko motiborik ezingo dok asmatu. Hurreratzeko zeinuak egingo deuz, eta hik alderantzizkoak, oraindik esploratzeko arlo handiak falta bahitu legez. Goiz guztia saiheska egiteari nabarmenegi eritzirik, azkenean, hurreratzeko erabagiko dok.

– *Pozik zabiltza, Gabintxo?*

– *Zoratuta!* –erantzungo deutsak, atzera urruntzeko arrazoiak iradokiz–. *Hau bai badela gozamina!*

– *Zeu be derrigor bainatu behar zara, Gabintxo.*

– *Ez daukat bainujantzirik.*

Arazoi salbagarritzat jaulki doanak laster galduko hau, berak daukala esan deianean, horixe aurreikusita, hain zuzen. Ez dakiala igeri erantzungo deutsak eta berak hantxe dagoela leku ona ikasteko. *Oraindino ez dot igeri ikasi nahi.* Urdu-ritasunak lelokeria horixe esan eragingo deua. *Ikasi nahi ez?* Lelokeriaz konturatu haz, eta baho bere toailan batuta dagoela esan deuan bainujantziaren bila.

Ur mehean ez sartzeko atxakiarik ezin dok aurkitu; bere ingurutik urruntzeko be ez, jarraitu egiten baiteu. *Zergaitik ihes egiten didazu, Gabintxo?* *Ez dizut ezer egingo.* Hik disimulatzeke garatu doan estrategia guztia harek berba esplizitu bitan desmuntatu deua, denpora kontenplazinoetan galdu barik. Ez haz gauza alternatibarik gogora dakian, ez asmamen faltaz, asmagarri guztiak estrategia hartantxe sartu heuzzelako baino. Behin intentzinoa hain argi igarriz gero, ez jagok eskapurik. Hurrengo urratsa susmatzen dok zein izango den, eta heu hurreratzeko haz, uretan baldarkeriak eginez, izatekoari aurrea hartzeak, mentalki bada

be, posizino agintzailean jarriko haelakoan. *Sartu barruratxoago, Gabintxo. Ez beldurtu, neu ibiliko naiz ondoan eta.* Ez estaltzeko lekuan, uretan luze egoteko saiakerak egiten hasiko haz, horixe esan baiteutsak, ur gainean 'egoten' badakiala, gora begira. Bistakoa zen berehala hurreratzeko zela, *neuk lagunduko dizut esanez. Ahoz beheara, itoko naz,* esango dok, berak arrazoi gehiagoz proposa daien: *Neure eskuak eutsiko dizu suabe-suabe. Ikusiko duzu nola ikasiko duzun, igarri ere egin gabe.* Eskua tripapean nabari dok. Geldi-geldi egongo haz, hanka eta besoak zabalzabal, igel hila legez. *Ahalegindu aurrera egiten, Gabintxo.* Ahalegindu bai, baina ez dok, antza, aurrera handirik egiten. *Neuk bultz egingo dizut apur bat.* Bere bigarren eskua be azpian nabariko dok, bata paparrean, bestea izterren junturan. Igel hila, abian hasiz batera, biztu egin dela jirudik. Plastadak eta purrustadak egingo dozak, eta esango deua, ur handiagorantz eroanez: *Suabe, Gabintxo, beldur gabe. Nahita ere ez zara barruratuko.* Esku biak batera nabariko dozak azpian, bata geldi, bestea igurtzian, txandaka. *Kosta behar jatzu* –pentsatuko dok– *nire txoritxo topatzea, txepetxaren moduan, urteera bi daukaz eta.*

Konturatzeko haz apur bat ernegatzen hasia dela, berak gura leukeen moduan ezin haelako gobernatu. Izatekoari aurrea hartzeak merezi izan jok. Izan be, bildur plantak edo koldar espantuak, *glglgl, ai ama!, prrsst, ez, ez!*, errazago jazak ur gainean, igeri ikasteko sosegu arauak baino. Praktikoena, gozatsuna ariketa bardintsua tenterik litzatekek, baina suposatzen dok, jentea inguruan dela, ez dela ausartuko. Beharbada, bildur be badok, usterik gitxienean, 'Don Eduardo!' deitu deioan. Horrek ez jok esan gurako, ernegu puntu kostata gordean, hire mogimendu bruskoak ez dituenik baliatuko igurtzietatik oratzeetara pasatzeko, baina, oro har, behingoz, igeri ez jakiteak egoera akuatiko baten dominatzaile egingo hau. *Goazen hatxetara, Gabintxo.* Proposamenak ez hau askorik poztuko, baina bildurtu be ez hainbeste, ilargi lauren tiratuaren formako hondartza, hire mendi arteko dimentsioentzat erraldoia, geroz populatuago agiriko delako. Hatxik hatx ahuntzak imitatuz, kaioak uxatuz, ikuspegi on batetik itsasoa estasiaturik kontenplatzeko planta luzeak eginez –kontenplatu be bai, baina ez prioritate antiosean–, beste bainulariekin solaserako atxakiarik inozoenak bilatuz, lantzean bategaz erdi lagun ere eginez –sekula ausartuko ez hitzatekeena berori, zerbaiten kapotetzat behar izan ezik–, kontua dok goizeko hondartzaldia majo libratu doala jazarpen limuritik. Bakailao irekia zoruan lehortzen bezala, txolarte on bat hondarrean luze, beharbada lo daroan posizioan, *bazkalduko dogu, Gabintxo?* itaunduko deua, bere bisera gorriaren eta betaurreko beltzen azpitik. Nahitaez hurreratu beharra izango bada be, pozik erabagiko dok baietz, ondo baitakik Don Eduardo gobernatzen den tabernako andreak zelako piper, antxoa, legatz, txorizo, pastel eta mazedonia gozatsuak prestatzen dituen. Edariak be hire baserrira oraindino ailegatu ez direnetakoak izango dozak.

Hatxen kontra batean bazkalduko dozue, zamau zuri-gorriak eta zapi berde-horiak zabaldurik. Urertz zuriak, hi ia gehien liluratzen hauen hurbiltze-urruntze etenbakoan, metro gitxitara biz-biz egingo deue, *bazabilze?, bazabilze?* esanez, edo *holan bizi lei, holan bizi lei*. Ura mahairaino iritsiko ez ete jatzuen hire bildurrari. Don Eduardok laster moztuko jeutsak bidea, marea beherantz doala esanez, hik gorantz nahi heuen baina, ingurua bakar samar ikusten doalako. Kezkak burutik kentzen, edo baztertxo batean gordetzen, ahaleginduko haz, hain janari ikusgarriaren gozamenean zentratzeko. *Jan beldur gabe, Gabintxo! Hemen badago zazpi lagunentzat ere. Nolako etxeakoandrea daukadan! Ai, Kontze, gure Kontze! Zure modukoekin, Jainkoagan sinisten ez dago zail*. Une batean, oso etorkizun urrunean ia inexistenzian dakusaaen heure buru abadeagan, horrelakoxe motiboak irrikatzen dozak sinesmenerako: etxeakoandrea, alabak, neska kantariak. Eta Jainko gizajoan alde baterantz bakarrik luzitu zenik ez aurpegiatzearren, baita semeak, luista mutilak, eta Patxiko Belatxingo be. Edarien izenik ez dok azkenera arte galdetuko gozamenaz azalpen nominaletan diluitu ez daiten. Jan dozue, mahaia jaso dozue eta abade fedekorrak, toaila gorriango etzantasun asetik, bere bisera gorri eta be-taurreko baltzen azpitik, hasperen kasik orgasmikoa egingo jok: *Ahhh! Lo-kuluxka bat zer ondo etorriko zaidan oraintxe!* Hik, ezuste atseginean, animatu egingo dok baietz, kuluxka baino gehiagorako be badagoela astia; bitartean, hik hondartzari itzuli oso bat egiteko kapritxoa beteko doala, eta, arrazoiak galgo-ilaran legez ikusten hasi hazenean, entzungo dok: *Janosteak atsedena behar du. Etzan neure ondoan, Gabintxo*. Egoerari uharri-uretako gorputz baten antza hartuko deusak galdu jak bistatik, ustez betiko, eta hor agertu jak barriro hankapean. Halako bazkari ia gultatia jan eta gero, ez daukak ezetzerako kemenik, batez be, esker onaren bidetik ez zihozzen hire intentzinoen bistaratze posiblea imaginatzeak bildurtu hauenean. Bidaia debekatutik itzultzen den txakurra legez, atzerati jesarriko haz seinalatzen deuan lekuan, ahalik urrunen, baina bertan beti be, toailatik kanporatzen ausartzen ez eta.

*Zelan izan leitekeek –harrituko haz heure kautan– nahi ez den alderantz tiratzea, kontrakoa libre egonda?* Pentsakizun subtiletarako ahalmen barik, ez jak gogoratuko esatea baino: *Neu be laster lokartuko nazela uste dot*. Begiak itxi plantan daukazak, guztiz ixten ausartu barik, ikus eremuko kaioak kontatzen. Lan zaila ia ezinezkoa hartu dok, batzuek eremutik urten ahala, barriak sartzen baitira, eta ez kopuru bardinean. Behin edo behin, eremua txikituz, lortu dok kasualki oso gixt gertatu diren guztiak, hamaika, begi-kolpe kasik instantekoan kontatzea. Ariketak ez jaukak ezertarako baliorik, baina ederto distrahitzen hau, zenbaki aldiro aldakorrakin, gainera. Une bakotxari berehalako erremedioa aurkitzeko talentua doalako oharmanek asko poztuko hau, baina laburrerako, erdi lo behar leukeenagandik entzungo baitok: *Emon eskua, Gabintxo*. Ez daukak emon beharrik, eskaria amaitu

orduko hartua baitago. Gogoia desbidetzeko, besoari izainez beteriko uretan nork luzaroago eutsi (minu erdi, hiru lauren, osorik inoiz be ez) jolasten zinienekoan zentratzen saiatuko haz, eta ez jak hain jasanezin begitanduko. Konparazintotik, irabazten urten dok. Beste garaipen txiki bat. Eskua guri-guria dok, *forma santua bezain*, pentsatuko dok. Mardul-mardula, *Cnidoko Afroditarrena bezain*. Hori ez dok unean bertan pentsatuko, handik urteetara baino, deduzitu ondoren konparazino femenino-paganoak alboan heunkan kastitate profesionalaren eme-gura zuzenago adierazten ebala, batetik; eta bestetik, kristau imaginagazko erlazinoak (Tizianoren birjina-esku bat, esaterako) eragin izango eutsan erreparoa abantaila dohatsuz gaintitzen zela. Saiatuko haz konparazinoekin edo pentsakizun eruditoekin jabaltzen heldurik hauan eskua, baina ez dok lortuko lokar haiten –ez hintzateke ausartu be egingo–, eta gitxiago berak kaioak konta daizen, bat-batean alboz jarriko baijak ondoan, burua besoan zurkaizturik, dinola: *Gabintxo! Itzela izan behar du bikote bat honela egotea! Ez duzu uste?* Arestiko hire talentu ustez oro-erremediatzailak arrazoirik sinpleena baino ez deua iradokiko: *Zoritxarrez, ez naz neska*. Bere talentuari be ez jakok marmartzea baino gogoratuko: *Ez izan balbea, Gabintxo!* Errieta potxolo hori errealtate dezepzionantearen hegalkada izan dela pentsatuko dok, baina uste joat 'zoritxarrez' enigmatiko horrek ikaratu egin dauela, ez baitaki hire frustrazioari jagokun, bere desioari, egoerari, ala bizitzaren fatalitate esentzialari. Berbak dozak honek gero!

Kontua dok, atzeratu beharrean, odolak, zaldi itsutuari legez, aurrera eragin deusala, gaineratuz: *Ez zara neska, zorionez, ze bazina, ezingo nuke honela egon, baina bazina bezala, bai*. Bere hanka bat, izter eta guzti, jada hire hanka bien, izter bien gainean jagok, esku libreagaz antsioski ferekatzen hauela. *Utziko al didazu besarkatzen, Gabintxo, alboz bakarrik, zapaldu gabe?* Oraingoan be, galdera amaitu orduko, baietza hartua izango jok bere kontura, eta hiri ez tul tentel batek urtengo deua, 'parka!' esanez, mamin-multzo izerbera bat erdi gainean sentitzearren baino ez gitxiago sos-deian, oso alperrik berau, ez hainbeste, barriro be, itsasoaren hotsak iruntsi dauelako, baizik bera aurretik arduratu delako inguru hurbilean inork ez dabilela ikusteaz. Oraingoan, begiak benetan itxiko dozak, kaioei *alde paretik!* aginduz mentalki, eta joan direla pentsatuko dok, tartean garaipen bat be erregistratzeko. *Hau ez da txarra, Gabintxo. Izatekotan ere, neurea bakarrik da bekatua. Utzizuo abade errukarriro ahul honi une natural konpleto bat bizi izaten, gainerako denbora antzua haren gomutaz freskatzeko erreferentzia bat izan dezan, oh felix culpa!* Besoaren atzetik gorputz osoa izain-putzura bialtzekotan hengoela, bat-batean, zenbat luze izan den –laburra ez, behintzat– antzik emon ezingo heunskion denpora baten buruan, rast jaregingo jak, inpresinoa izanik ez hainbeste mogimenduaren bortxagaitik, urradura sentsazioagaitik baino, enkolaturik egon bazinie legez. Begiak zabaldu eta jesarri hazenean –ez dakik zein

egintza lehenago—, sekula hatarako gauza izango hintzenik imaginatu be ezingo heunkeen ausardia batera oldartuko haz, ez nondik ez zelan ez dakiala, une malgukizko ha hutsune total bat legez geldituko baijak gogoan, hain totala ezen, zulo baltzaren alderantziz, kolorerik be ez jaukak. Bikote heldu bat, berrogei bana urte ingurukoa, bainujantzian eta elkarren eskutik (*honeexek ikusiko joazen honek* — pentsatu dok), hurreratuz jatork, zuen eta ur marra aldakorren artetik pasatzeko; Hutsune total horretan, saltoan zutundu haz eta, aipatu ausardian, hots egingo dok:

- *Ene! Zuek be hemendik? Beno, neu hemendik, hobeto esanda, baina bardin da, denok hemendik.*
- *Bai, beno, hemendik edo...* —gizonak.
- *Zu ez al zara Etxebarriko Atximortuko Marikruz?*
- *Ni bilbotarra naz, Alde Zaharrekoa.*
- *Etxebarritik joana?*
- *Etxebarri non dagoen be ez dakit.*
- *Ahaiderik be ez daukazu han?*
- *Ez han ez inon, Bizkaian. Ni naparra naz, eta hau errioxarra.*
- *Ai, oh, ene, parka!* —Eskuak, burumakur, absolutuzinoa hartzeko moduan juntatuko dozak ezpainen kontra—. *Etxebarriko Marikruzen antz osoa hartu deutsut, baina aspalditxoan zelan ez dodan ikusi, parka!*
- *Zeu nongoa zara, ba?*
- *Ni Xemeingoa. Atximortukoa zarela egia balitz, gure jaiotetxea garbi-garbi ikusiko zeunke handik. Sentitzen dot. Pena handia izan da.*
- *Xemeindik Bakioraino ez dago bitarte laburra.*
- *Mungiaiko osaba honek ekarri nau txangoan, erdi derrigorrean, honelako lekuen barri be jakin behar dodala-eta, neu be pozik baina.*
- *Zer jaukiek honelako lekuok?*—gizonak.
- *Eurok ezer be ez, grazia eta edertasuna besterik, baina ni... abadegaia naz.*
- *Oh!* —Marikruz izan beharrekoak—. *Badaukaguz lagun batzuk, zeintzuen semea gurean sarri izaten den, abadegaia eta zeure adin ingurukoa bera be.*
- *Zelan deitzen den badakizue?*
- *Anton Baranbio. Bigarrena Lautanga dauela uste dot.*
- *Baranbio? Hori neure kurtsokoa da, lagun handia.*
- *Gabino!* —abadeak—. *Bainu bat hartzera noa!*
- *Osaba dotorea daukak* —gizonak—. *Guri-guria esan gura joat.*
- *Eskoladuna da hori be. Asko maite nau.*
- *Ba al hator geugaz tabernara, freskagarri bat edo hartzera?*
- *Gatx egiten jat horrelako borondatea ez estimatzea. Osaba! Oraintxe nator!*

Zorioneko heure barkiludun izozkiaz gainera, lortua dok beste garaipen

bat, uso-eszena eten eta auskalo zenbat denpora tartean jarriz, nahiz eta kezkatu-rik hagoen guzurra esan doalako, denpora horixe lortzearren, hain zuzen, pentsatzen baitheuen Baranbio delakoa hain laguna heuela esateak enkontruari luzapidea emon zeikiola. Asmatu egin dok, solasak tabernarako eta ia heuk nahi besteko tarterako aukera ekarri baiteua, baina ez zuzendu barik, helburua lortutakoan, eta izozkia janez ondo moldatutako argibidean, *Baranbio* barik *Erandio* dela hik eza-gutzen doana. Azkenean, *Baranbio* be frailegai karmeldarra dela agertuko baita, hik azalduko deutsek frailegairik ezin doala ezagutu, honeek komentuetan eta hi Derioko seminarioan habilelako. *Ah, ah!*, baina, bitartean, 'azkeneango azken' hori urrun joana izango dok; eta gainera, emakumeak, Atximortuko Marikruz izateko ia gitxi falta dauenak, hire guzur preminak iradokitako suposizinoen bategaitik erruki harturik-edo, bost hogereleko papera hartu eragingo deua. Hik diru larregi dela horrela emoteko tematuko deusak, baina, azkenean, amore emon beharko dok, kasik derrigorrean, inguruko jentea belarri-tente sumatu doanean, zer eztabaida ete darabilzuen. Hori ez dok, beraz, heure garaipentzat joko, abadegaitasunaren pribilegiotzat baino. Horrelako emakumeak —elizkoi, dirudun, eskuzabal— hire inguruan aurkitzea gatxa izan arren, hiru ezaugarrietako bat falta izatea, diruarena batez be, ohikoena baita, barrero harrituko haz Bilbon denerik dagoela entzuna doana konprobatzeaz, dohatsuki oraingoan. Halan be, egunen batez, abade egitera-ino helduko bahintz, Bilbora destinatua izatearen pentsakizunak bildurdu egin hau, 'denerik' horretan hik susmatzen ez doazen *beste alderdi badaezpadako asko be egon behar direlako*, pentsatuko dok, konfiantza handiegirik emon ez deuan gizona-ri lantzean begirada aztertzaile bat jaurtiz.

Heuk uste baino denpora luzeagoa, edo, behintzat, behar bestekoa, igarora izango dok, 'osaba' bainulariak, kafetegiko beirateaz handiko hondartza ertzetik, jantzeko eta joateko lako keinua egin deanean, eguneko nobedaderik pozgarri- netakoa berau hiretzat. *Eskerrrik asko, agur, ez dakizue zenbat gogoratuko nazen zuekin, azkenean izenik be ez deutsagu elkarri esan, eta abar, heure abade kutuna-gaz irribarretsu birbatu haitenean, haren aurpegikieran hibridotasun kezkarri bat hautemango dok, etendura hik aluki samar luzatuaren ernegutik aukera barri ahal balitz hobeak edegitzeko beharko den adeitasunera bitartean. Heu ez haz, kokolo hori, haren aldarteaz garbiegi jabetuko, baizik laketuko, kasik harrotuko, ezagun iragankorreki bere abadetasunik aitatu ete heuntsen hark kezkatu itaundurik, hik 'osabaren' inbentzioa jakinarazo deusaanean. Bai jabetuko haz lasaitasun horrek haren hibridotasuna barrero alde samurrerantz korriarazoko dauela, arriskugarriro, heu kasik damutzeraino besterantz gehiago eragin ez izanaz. Jada berandu dok, izan be, jantzi eta vespa lirainaren gainean grin-grin-grinnnn mendatean gora, Mungia aldeko jaitiera hastetik laster, hire eskuari heldu eta sotana-sakelaren irekiduratik barrero sartu eragin deanean. Ez deusak erresistentziarik jarkiko, bide*

ezaguna bailitzan, barruan, guztiz ezustean, bitxo zehatzezin bat jo doan arte. Es-  
kua baleztada bat legez kanporatuko jak, motorrak bazterreko bedarrean arrastada  
bat uzteraino. *Trankil, Gabintxo! Neu naiz!* Zapladatxoak emongo deuz izterrean,  
sustotik baretu guran, txakur exzituari egiten jakon moduan. Bainupraka bustiak  
ezin janztearen azalpen onargarriak ezin deua ulertarazo barne biluztasun totala-  
ren preminarik. Imaginatze hutsak eragindako gorputz osoaren astinaldi (eta zer-  
gaitik ez, higuinaldi) baten ondoren, esatera hoake: *Zer izango litzateke, edozein  
ezbehar ustebakok inoren eskuetan jarriarazota, sotana erantzi behar baleutsue?*  
Pentsatu eta dardaratu be bai, baina esateraino ez haz helduko, ez hainbeste ausar-  
dia faltaz, baizik hire pentsaketa konfusoak, konpresoak, ezingo dauelako saihestu  
mailukada bat legez jaulki jakon "*neu naz*" delako homologazio hori.

Hurrengo saiakeran, inebitablea izango dela jakinik, ia lehenbailehen  
gerta daiten desiatzen hagoen horretan, hark gidatutako esku batena heuk kon-  
pletatuko dok, harantzean legez *-bedi Jainkoak nahi dauena-*, beste eskuagaz. Eta  
Jainkoak nahi izan jok bitxo tinko, trinko bat aurkitu daiaan, pedestal bero-bero ba-  
ten gainean. *Jolastu beldur gabe, Gabintxo.* Une batean pentsatuko dok zelako ikus-  
pena agertuko litzatekeen, bera ohartu be egingo ez litzatekeena, sotanari hiru-lau  
botoi erraz-erraz askaturik, bitxoa kaliza legez esku biekin kanporantz esponituko  
baheu. Lan barrietarako kuraia gehiegi barik, asmoa baztertu egingo dok, baina ez  
halan be, derrigorra denez gero, bitxoaren, basearen eta inguruaren neurriak ahalik  
ondoan haztatu barik, gero heurrekin konparatzeko. Fidagarria izateko, medikun-  
tzan be insistentzia minimo bat behar izaten dauen haztapenak, hire ilunpeko es-  
kuetan, errepeka ugari eta igurtzi jarraituak beharko jozak, luze-lodien dimentsio  
zehatz samarrak lortuko baditu, aldakorrek izateak apur bat desorientatuko bai-  
thau. Errepidearen bihurtune itxi samarrek txikitzen dabena zuzen luzeek nabar-  
menki handitzen dabela konturaturik, bidezati bat batezbestek ateratzen gura izateko  
lardaskerian egingo dok, hiri interesatzen jaana dimentsio maximoak direla jabetu  
arte. Egia dok ez hoala gauza guztietaz, ebidenteak izanda be, jabetzeko moduko  
egoeran, eta horregaitik izango dok, lantzean behin, beragandik jatorkan lasaitasun  
mezua: *Ai, Gabintxo! Ez dakizu zer zoriontsu ni egiten ari zaren!* Gogoratu haz  
aurreko abadetzeko ohe haretan, antzeko berbak kateatzen hastetik laster, zelako  
arrapalada etorri zen, bere izaerarik oraindino argitua izango ez doana, baina mo-  
torrean arriskutsua izan leitekeela susmatzen doana. Horregaitik, apur bat atzeratzen  
egingo dok, badaezpada, heu be gai izanik, hori bai, heure pentsakizun propio bat  
garatzeko: *Azkenean, txarrikeria honek neuri be gustatzen hastea besterik ez jok  
behar.*

Arratsalde jada iluntzerantz jausten hasian, eguzkiaren aldetik gailurrerik  
selektino goranzkoak *-zu bai, zu ez, zu hor, zu neugaz-* hain suabeki eraldatu da

roan ikuspegiak jabetzeko tarterik be ez doala hartzen konturatu hazenerako, ibar  
barreneko bidekurutzean Mungiarantz hartuak izango zarie, non, etxeak eta al-  
boetan jentea agiri delarik, hire eskuen zeregin lorrina Don Eduardoren beraren  
eskuak etenarazoko dauen. Horixe izango litzatekek unea, gasolindegia parean, is-  
tripu txiki baten mareazinoz, baten batek sotana edegi leion. *Hau labarako moduan  
jagok!* Bitartean hi, solo barrenean, sustotik errekuuperatuz, denpora apropos luzatzen  
hatza, eta motorra artotzan tar-tar-tar, *utzi ni bakean!* erregutuz, *hemen ederto nago  
eta.* Motorraren pensamendu hori heurea be bardin izan leitekek.

Plana eginda zagozeen moduan, abadearen jaiotzeko atartean, moto-  
rretik jaitsi eta hankak luzatzean, hire bizkarretik Sisiforen harria langoa deskar-  
gatu dela sentituko dok. Adineko guraso biak (beste inor ez dok hor bizi, seme-alaba  
guztiak kalera sakabanaturik), *bazatoze? bazatoze?* esanez, egunetan gorderiko  
irribarreagaz atean ikusi doazenean, barriz, etxea beteko poza sentitu dok gai-  
nean: kontu zaharrak, barriak, maitagarriak, berba amultsuak, atentzinorik onko-  
rrena, afari bikaina (*etxe honek txorizo mundialak egoteko itxura guztia jaukak*),  
gozokiak, eta nork jakin zenbat ezuste zoragarri, modu oneko baserri eskuzabal  
batean. Gurasoen berbakera txit suabeak hunkituko hauen baino gitxiago ez hau  
harrituko ikusteak seme abadeak zelako errespetuz, berorika hertsia eta guzti, ze-  
lako laztantasunez tratatzen dituen eurak. Hain pozik hagoke sukaldian, solasean  
eta afari prestakuntzak hautemanez, usainduz, ezen, galdera delikatu baten atakan  
aurkitzera, arteko egun esturatsuak kasik merezi izan dauela erantzungo heunke.  
Afalostean, markako ardao eta edari gozo eta guzti, ez jagok dudarik merezi izan  
dauela.

*Denak merezi izan jok, denak merezi jok!* euforikoki pentsatuz, trago-  
txoak be aldean, bahoia eskilaretan gora, arrosario familiarra hunkituki errezatu  
ondoren, harik eta abadeak, koltza luzangako sei atetako bat edegi eta barrua  
erakusteko planta egin deian arte, esanez: *Hementxe lo egingo dugu.* Garunetan  
*dugu? dugu? dugu?* mailuka, zombie bat legez sartuko haz logelako mesanotxe-  
raino, non, eurt egin eta atea betean, sotana irrikor bat hautemango doan, Don  
Eduardo barik, munstro tragikoren bat begitanduko jaana, ekintzarako prest. *Zeuk  
gura duzun ohea hautatu.* Orduantxe konturatuko haz logela ohe bikoa dela. Hori  
salbazinoa begitanduko jak, edo salbazinoaren parte bat, egoeraren osotasunaz ja-  
betzeko durdituegi baitrago. *Komuna nahi baduzu, aurrez aurreko ate horixe da.*  
Komun preminak, tragotxoan lurrinak barne, ezabatuak dozak hire gorputzean, la-  
rritasun integral bat hazela utzirik, zeina ez dakian non aska leitekeen, heure buru  
osoa jaurti beharko baitheunke. Hire ardura bakarra ohean lehenbailehen sartzea  
izango dok, eta lehenbailehen lokartzea, hots, lo plantarik sakonenak egitea, loa  
bera dakarkeen Maria Bekaineko apenas ausartuko baita hire gainean pausatzen.

Eduardok horrelakorik ez jok inondik itxarongo, heuretzat be, bart gauean, bonbilla azkenengoz itzungi ondoko iluntasunak ekarritako argitasuna baita ideia hori, bere etxeraino pentsatutako moduan helduz gero, eguerdiko autobusa heldu bitartean gerta leitekeen, hots, ziur gertatuko dela jotzen doan beste abentura baten bildurrez. Bajirudik bildurra ez zela funsbakoa, hire planaren barri entzutean, bildur garriri hasarratuko baita, Derioko hilerri kontrari behera ia eternitatea jo arte. Beheko bidekurutzean, geltokiaz besterantz, geratzeko itxurarik ikusi ez doanean, oihu egingo deusak belarrira:

- Geratu egin behar dozu!
- Geratu egin behar diat? -galdetuko jok hikako tonurik zakarreanean.
- Ezinezkoa ez bada, bai.
- Lezaman treneratuko haz.
- Derion izan behar dau, seminariora be hortxe dago eta.
- Seminariora neu etorri ninduan hire bila.
- Esan deusut Deustuko osaba-izekoak bisitatu behar dodazela.
- Ongi duk! Joan behar baduk, hoa, baina hurrengoan, gauzak hasieratik argi utzita abiatuko gaituk.
- Eskerrik asko. Hurrengoan, gauza 'guztiak' argituko doguz.

.....

Meza-kanpairako bost minuturen faltan, aurre-kanpaiak jo ohi dira, daun daun, daun, hiru jarraian, Hirutasunagatik, eta bat hiru segundo atzerago, Ama Birjinagatik, eliza inguruan eta plazan (edo mugimenduak denbora luzeagoa behar izaten duen tabernetan) zabal diren kristauak elizan aurki daitezen, ordurako Lehenago sartzeko ohitura duten emakume adintsu samarrez, gizon ezohiki debotoren batez, eta konfesatzera hurbildu ohi diren arima bekatugabe batzuez beste eliza iluntasun ia hutsean egon ohi da, aipatu kanpaiak entzun arte. Neu ere kanpai horiexekin irteten naiz konfesalekutik sakristiara, ordu-ordurako mezako jantziak egon nadin, aitortzaile eskrupulosaren baten esanbeharrak edo lasaibeharrak buka daitezen ezin lortuz ez banabil. Gaur, konfesalekutik irten arte ez naiz konturatu, harriritik, eliza dagoeneko ia beterik zegoela. Eta biluzik banindoa bezala begiratzan didatela. Sarrera-atea, bi orriak armazoi eta guzti zabaldurik, jende uhola hartu ezinik ageri da, alderantzizko desalojoan, kanpoa suak hartu bailuen. Zarraparra trinko bat, purgatorioko despentsa garbitzen ari bailiren, atzean utzita sartu naiz sakristian. Mutiko akolitokak (neskek aldarea zerbitzatzerik bururatu ere ez da egon oraindik) antsios bezala dabilta, irribarrea baino gehiago behar, eta barreraino ezin ausartuz. Nire inguruan eta atzean elkarri zinutxoak eginez, *tirok, ba!, esak!*

*ba!* aginduz bezala, soineko sakratuak biltasun itxuran janzteka kostatzen zaie, armairu luzearen gaineko ispilu handitik begizatzen dudanez. Eurek ere badakite sobera ispiluaren berri. Behin baino maizago harrapatu izan ditut, armairu gainera igota, mihiagaz bertan zerrikeriak egiten eta estolarekin edo albaren mahukarekin garbitzen. *Zer, mutilxoak? Ispiluak azukrea jaukak ala?* Arreta osoz eta segurantzaz ondo kalkulatu hasi arren, haurrak erraz deskuidatzen dira, euren zerbaiteango intentsitateari atxikita bezala baitoa gainerako zirkunstantzien desoharmena. Gaur ohi baino jaramon gutxiago dagiet apropos, gehienez ere, errutina inozoak aipatuz. *Binajerak eroan dozuez? - Baaai! - Rokete hori atzeko aurrera ez jagok? - Eeeez!! - Orduan heu habil aurreko atzera? - Atze asko dabilz hemen aurrean.* Huskeria hauek badirudi gehiago axola zaien hizpiderako atrebentzia eman diela, nork hasi behar duen balekite. Azkenean, meza-kanpaiak erabaki du euren orde, bati esanaraziz:

- *Trankil, eh, Don Jabier!* -Bizkarrekoa ez dit eman, intzentsu-ontziari eragiten diharduelako.
- *Trankil najagok!*
- *Gu ez hainbeste!* -bigarrenak, ia bere doleko zutargiari esku biekien ezezkoa eraginez.
- *To! Kandela-negarra isurtzen habil!*
- *Zer gertatuko da?* -bigarren zutargidunak.
- *Zer gertatuko behar jok, ba?*
- *Hmm!* -gurutzadunak-. *Jente zantarra be badago gero!*
- *Non entzun dok hori?*
- *Denek dinoe.*
- *Goazen, bigarren kanpaia be jo jok eta.*

Aldare nagusira irten garenean (jada meza herriari begira da, ezkuturaz biziaturik zeuden meza-emaile asko oraindik eurenean tematzen badira ere), zarrada ala zirrara den ez dakidan bihozkadak jo nau, eliza gil-gil, kasik gal-gal hautematean, albatea ere zabalik, kanporaino gainez. Amorotoko eliza ia luze bezain zabalean, erdiko bi banku ilarez gainera, bi zutabe lerro potentek alboetarantz beste ilara bana separatzen dute. Zutabeen ezker-eskuin, buruak kukuka ageri dira, ostea mingarri bailitzan. Umeak, neskak ezker, mutilak eskuin, erdiko aurrenengo bankuetan pilaturik daude, saka-sakan, tokia behar zuten heldu berantiarrek aurrerantz bidali dituztelako, umeek estutzeko mugarik ez balute bezala. Adarrak luzatzen ari zaizkidala sentitzen dut euron begiradan. Hainbeste eliza-jantzizag eta nire gorputz erdia aldare ostean ezkututzen dela, isatsarenik ezin dute, antza, imaginatu. Errezuan eta kantuan, berez gizonezkoak ere nahiko parte-hartzaile diren herri honek gaur kivilago dirudi, iminentzien zain bezala, dena neure irudipena



ez bada. Normalean izan ohi den mugimendu txiki inkonexozko ikuspegiaren aldean, begirada bakarrean eta isiltasun adostuan bezala begiratzen didate. Moises menditik jaitsi zen uneaz oroitu naiz. Meza aurrera doala, ahalguztidun sentituko nintzateke, Jainkoaren barkamenez, ate nagusitik besaka sartzen ikusi ez banu, bibragailu bat kaktus-arte trinkotik bezala, argalagatik luzeago dirudien gizon berdotz bat. Azkenean, inguruko buru guztien desoseguz, koruko eskailera barranean kokatu da, bi gizoni hitz batzuk ahapekatu ondoren. Bera ezagun dut, beste biak ez. Hiru nabeen azpiko immobilitate espektantea, otoiitzei murmurio doi-doiaren darantzuiena, diru-biltzeak astindu du apur bat, bi akolito, elizaren erdi banatatik, euren azpil txilinkariekin abiatu direnean. (Ohitura hau, meza barruan merkatukeria sakrilegoa iritzirik, datorren hiletik aurrera kentzea onartua izan da. Zentzuaz beste interesik ez denean, gizakia hain da inteligentea!). Eliztarrei diru-aitzakia hori ondo etorri zaiela dirudi eskuak eta gorputzak laxatzeko, sakela guztiak premia gabe arakatzuz, zaila baita denetan edukitzea edo faltatzea, botatzetik libratzeko eszenak ez badira. Bi mutikoak, atzez ikusten ditudanak, ume-lagunen bankuetan zerbait ahapekatuz doazela dirudi, txilin hotsa apropos bizituz, neskatoen aurpegietan *isi! isiii!!* bezalako keinuak, eta mutilenetan *bai? baaa!/?* bezalako harridurak nabari baitituz. Nesken aldekoa esaten ari daiteke:

- *Gure abadearen belauak elkar joka jabilzan.*
- *Shh!*
- *Zelan dakik hori, gainean hainbeste habitu dituela?*
- *Zapatzen dardaratik.*
- *Isiii!!*
- *Igual, aste osoan ez jonagu eskolarik izango* –azpila txintxilin, txintxilin.
- *Hoa aurrera, txorrotxil hori!*
- *Han jagok bera!* –mutikoen aldekoak.
- *Nor?*
- *Piku merlatua!* –txintxilin, txintxilin.
- *Jatekoa?*
- *Bueltan esango deuat* –txintxilin, txintxilin.
- *Kromo bi zor deustazak.*
- *Hik niri hiru kanpai.*
- *Popatik!*

*Lectio Epistolae beati Pauli Apostoli ad Romanos.*

*Fratres: Debitorum sumus non carni, ut secundum carnem vivamus...*

Hau ere bada, ba! Urteen ahanzturatik, oraintsuagoko formulazio eus-

karazkoak baino hobeto berreskuratzen zaizkit seminarioko latinezkoak, zeintzuok baino, halaber, mugiezinago diren lehen umezaroko euskarazkoak, latinezko edo erdarazkoen koexistentzia gaineratu zaienean. Hiru urtegez ikasi nuen aitagurea (*Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena, betorkigu zure erreina, egin bedi zure borondatea, zelan zeruan halan lurrean. Emoiguzu geure eguneroko ogia...*) ez du desplazatzerik lortu ondorengo ezein hizkuntzak, euskarazko bertsio berri eta askoz luzarago errepikatuek barne, seminarioko euskararen debekuzko tunel amaigabe eta guzti.

*Fratres. "Anaiok: (San Pablok ez zuen, antza, arrebarik ikusi). Haragiari ez gatzakoz zor, haragiaren erara bizi gaitezten". Sandios gure behiak!, birao egin nezake berrogei urte barru, baina belauak elkar joka suposatzen zaizkidan onean, ederra animazinoa! baizik ez dit gogoak eman, "haragiaren erara bizi gaitezten" esanez burua jasotzean, guardia zibil bikote bati ate nagusian sartzen erreparatu diodanean, trikornioa eskuan eta arma bizkarrean, tximinia eginez. Erraz sartu ere, jende galkatua, likido bihurturik, pasabidean ireki baita, Moisesen ura bezala. Badirudi inork ez duela uniforme horren ukitura deskuidatu nahi, kutsapen aipaezinen baten beldurrez. Pasabidea, bi aldean paralelotasun lau-lauan (lerroan barik, parean sartzera, elizakadak presbiterioa inundatu beharko zukeen, hormen kontra aplastatu nahi ez bazuen), banku ilaretara hurbiltzean biratu eta koruko eskailera barreraino luzatu da, non arestian aipatu hirukoteari erantsi zaizkion biak, zelula konpletoa, konpaktoa, separatua osatuz. Epistola amaitu da. Ebangelioa entzuteko, denak olatuan zutitu dira, gol-ospatze bat kamera lentoan bezala. Amaitu da ebangelioa, *Jaunak esana – eskerrak zuri, Jauna*. Olatua eseri da, unada jarraitudun apar-irla ugari eta guzti: gizon helduen buruak eta emakume gazteen mantelina. Giza arrezife inguratzailea, iluna, berbistaratu da. Ohiko entzule maiteok! gehi luzapen guztien orde (neure entzule bihotzekoak, bihozdunak eta bihozbakoak, etorriak eta etortzekoak, bego zuekin Aita Jainkoa, aldatu ez bada, betikoa, ager bedi zuekan Semea, izan zeitekeena bardin emea, jaitsi bekizue Espiritu Santua, San Joseren aroztegian usoki sartua, lagun zaizela Maria Birjinak, berak igarri barik ama eginak, bihoatzuez nire berba apalak, altza buruok, ze ez dira balak!... eta abar), *kristau herritar eta erbestetarrok!* agur doi-doi eta ondo pentsatuari inprobisazio itxura eman ondoren, hasten naiz:*

Ez nozue sarri ikusi, eta ez neuke nahi sarri ikusi behar izan naizuen, esan beharrekoa paperetik irakurri behar izaten. Horixe egitea erabagi dot, esan nahi dodanik esan barik gelditu ez daiten, esan nahi dodana bakarrik esan daidan, esan nahi ez dodanik entzun ez daizuen, eta esan nahi dodanak esan nahi ez neukeen moduan urten ez deiden. Huskeria txiki, erraz konpontzeko bat izan zeitekeena zertaraino handitu den antzemoteko, zuen afluentsia espektantea ikusi besterik



ez dago. Badira pare bat hilabete, Amoroton, artisten bekaitz den herri honetan, historia mingarri, iraingarri, preminabako bat abiatu zena. Aurrenengo bankuotan dozuez subjektu pasiboak, nahiz eta eurok, gaixook, gaur harro eta begiluze dagozen, biktimak barik protagonistak direlakoan, izan be badira baina. Eguerdia batez, gelatik urten barri, ume-mordo batek, eskola aurrean, edonoiz eta edonon legezu, "konta ipuin bat! konta ipuin bat!" hoska inguratu ninduen.

- Zein nahi dozue? Txilinerrota? Polentiño perratzailea? Doistuko sakristaua?
- Edozein! Zeuri gehien gustatzen jatzuna.
- Goazen plazara! Hemen ez gagoz ondo-, ohartarazo eban neskatxo batek, urdurik puntu nabarian.
- Zergaitik ez gagoz hemen ondo? -itaundu neban harriturik, entzuteko, durditurik!
- Maisuak ez deusku uzten euskaraz berba egiten.
- Zer esan dozu?
- Entzun dozuna! -denek batera-. Maisuak ez deusku uzten euskaraz berba egiten.
- Egia da hori?
- Egi-egia, shhh, hor dago bera...
- Goazen elizara! -agindu neban oraingoan neuk, ozenki, bortizki.

Es dira beti elizarako prestegi egoten, baina egun haretan, lotsa barik aurrea hartu eusten, bildots askatuak biberoi-tokira lege, oraintxe dagozen bankuetaraino, bakotxa kokapenik egokiena hartu nahian, misterio barrien agerpenerako. Umeentzat misterio barriak existitzen baitira, eta barriak bakarrik existitzen. Heldu nintzenerako, elkarri sakaka, ipurdien lerraduraz, bankuen hautsak ondo kenduak ziren. Parke edegi bateko jarleketan be, nahiz ume bakarria izan, luzatzen samar egon bada, alderik alde uniformeki garbituta ikusiko dozue. Jubilatuak izan badira, ipurdien formak garbi-garbi bereiztuko dozuez hondo hautseztuaren gainean. Artelan bat. Euron aurrean plantatu nintzenez, paralizazio automatikoa gertatu zen, inertziak jarraitu eban ukondo distrahitu batzuez beste. Umeek; apur bat itxura fetalerantz okertuta, belaeuekin ahur juntatuak estutzen eta honeek, astiro baina biziro, hare-harri bat leuntzen lege, elkar igurzten dabenean, gauza handiak itxaroten ditue. Badaezpada, esaten hasi nintzen:

- Zuek uste izango dozue, abadearen lagunak izanez gero, ez daukazuela ezeren bildur izan beharrik. Ez da hainbesterako. Maisua ni baino askoz indartsuago da, nik baino askoz lagun ahaltsuagoak dituelako.
- Zu denek ezagutzen zaitue, eta maisua, geuk bakarrik.
- Mundua Amoroton hasten da, baina ez da berton amaitzen. Mundua handia da, Zuen mapamundia baino askoz handiagoa.
- Zulotuta dago! Leku bitan, gainera. Han bizi direnek edarra daukie mazia!

- Esan nahi dodana da, Jainkoaren ordezkari izan arren, Jainkoaren ahalmenik ez dodala. Pausoak ondo neurtu beharra daukat.

- Zu motorrean ibiltzen zara!
- Ez gitxi be, heltzen jatazen marmarren arabera. Baina orain beste kontu bat jakin nahi dot, argi eta zehatz. Zelan da maisuak euskaraz egiten ez uzte hori?
- Zigorru egiten gaitu!
- Zelan, zehazki?
- Halantxe! Hasten da esaten "¿no os tengo dicho que...?", eta izorrai! Biharko ehun bider kopiatu behar dot: "No hablaré más vascuence en clase ni fuera de clase en tarea escolar".
- Horren luze?
- Je! Berak "en la clase, ni fuera de la clase, durante la tarea escolar" nahi eban, koma eta guzti. Nik "la, la, la" hori berak nahi dauen komatik sartzeko utziko dot.
- Ikusiko dok koman nor sartuko den -apuntatzen dau atzamar batek beste aldeko bankutik-, errepikatzen agintzen deuanean!
- Ja, ja, ja! La, la, la... la-tinez, igual!
- Eta gero kanpai-sokekin...
- Isi, umetxoak! Entzun denok, hau ez da olgetakoa eta. Aizu, Alosne! Hemengo nagusia zeu zarenez, kontaidazu, arren, patxadaz eta ordenan, zelan den historia hori guztia.

- Don Sixtori -hasten da Alosne- diskurtsoak gustatzen jakoz. Egutero abrumatzen gaitu erdirik ulertzen ez deusagun argumentuekin. Erdia ulertu ezik, beste erdia zertarako da? Behin hasi jakun esaten ze guk berba egiten genduen hizkuntza lar primitiboa zela, eta geu be halakoxeak izango ginela, gaztelaniaren handitasunera zabaltzen ez baginen. Bere eginkizuna gu ahalik gehien kulturatzea zela, eta horretarako, gaztelania ondo menperatu behar genduela. Bestela, geure gurasoak bezain ezjakinak eta bazterkumeak izaten jarraituko genduela. "Así que, en adelante -hasi zen arbelean idazten- queda terminantemente prohibido hablar vascuence, en clase o fuera de clase, durante todo el horario escolar, bajo castigo severo, aunque variable, según el caso, y con recomendación casi imperativa de extender dicho comportamiento hasta el ámbito familiar". Testua maiuskula handi eta argietan kopiatarazo euskun, panfleto moduko orri berezi batean.

- Buruz ikasten ez zara gitxi ahalegindu!
- Beharko! Edonoiz esanarazo leikizu, eguneko lezino moduan. Ez badakizu, hainbeste bider kopiarazten deutsu. Buruz jakitea ez da nahikoa. Orria eten barik eroan behar dozu palasan. Bestela, horregaitik be zigorra.
- Begira! Begira! -hasten dira palasa aldean daben guztiak bera edegitzen.
- Ondo dago! Ondo dago! Bat ikusita, nahikoa da. -Ezin izan dot eragotzi denek ateratzerik, eta behin horraino, denen orriak banan-banan ikusterik.
- Oskua! Neure palasan be badago, baina ez dot ekarri.

- *Neurean be bai! Ekarriko dot?* – Palasa falta daben guztiak *neurean be bai!* hoska zutitu dira, bila joateko zeinu-antz baten zain.
- *Ondo dago! Zuenak guztiak arratsaldean ikusiko ditut.*
- *Nirea ikustea kostako jatzu, txakurrak jan eustan eta.*
- *Egongo nok txakurragaz.*
- *Ekarriko deusut txakurra? Oraindino, igual, barruan edukiko dau.*
- *Utziok. "Segi abadeagana!" aginduta, etorri nahi bajok, datorrela, baina, bestela, aurkituko joat bitartea, neu beragana joateko.*
- *Okerra ga gero!*
- *Badaezpada, ispuagaz joango nok. Ur bedeinkatua logarri ona dok, uragaz ez bada, beragaz. Bai, bai, ea, isilik, mesedez! Arazo nagusira itzuliz, euskaraz berbe-tan harrapatzen zaituenean, zer zigor mota ipintzen dau?*
- *Puf! Edozenbat! Bere mahai aurreko belaunikaldi luzetik, ehun bider ez dakit zer kopiatzerainoko guztiak.*
- *Sarri samar deskuidatzen zariela esan nahi dau horrek?*
- *Ikasten baino zigorrak betetzen denpora gehiago egiten dogu.*
- *Jolas-orduetan zelan kontrolatzen zaitue?*
- *Salatzaileak sarituz, berak 'kulturazainak' esaten dituenak. Metodoak askorik ez deitso emon, baina beti deskuidatzen baten bat, gelan belauniko jarri beharraren bildurrez, "éste tambien ha hablado en el recreo" salatzen.*
- *Etxean esan dozue ezer?*
- *Gurean ez dago eskola kontuetarako astirik –mutiko batek.*
- *Ni hasi nintzen zeozer esaten –neskato batek–, eta aitak hots egin eban: "Gure sasoiari, hoberik ikusi gendunan!"*
- *Ederto! Egin aitaren zintzo bat eta segi kanpora, honezkero, bazkaria luzerizten hasita egongo da eta.*
- *Zer egingo dozu? –batek.*
- *Maisuari gatza emon! –beste batek.*
- *Guardia zibilari deitu? –tirantedun txilibrin batek.*
- *Igual horixe be, baina badakizue nire sorosleak prakagorriak direna.*
- *Eta maisuak ez badaki horreek zer diren?*
- *Hale! Aire denok, berton belauniko ipini zaizedan nahi ez badozue.*

Odola apur bat baretzeko eta burua apur bat baino gehiago ordenatzeko, Susanaren bazkari oparo eta autu beti animosoan, eguerdiari pasatzen utzi neutsan, Don Sixtogazkoa arratsalderako atzeratuz. Beti bezain kontulari eta kolega gisan hartu ninduen, bere maila intelektuala nogaz konpartitu zeikeen ia bakarra ei bainintzen herrian eta inguruan. Literaturaz, poesiaz, arteez, eta, oro har, kulturako edozein arloz jardutea gustatzen jakon, hilerrietako epigrafia barne. Zelula estoikoa lako bat sortu behar ei genduen, nora, astiro-astiro, kide barriak eta ondo

probatuak erakarriko genduzen, modernitatea iragaziko eban eskola sendo bat osatu arte. Ez neutsan kontrarik egiten, haren begia errazago saihestu baineikeen, berak harrapa nindeikeen baino. Ni herriko edozein atetan desager neintekeen bitartean, haren zirkuitoan eskola-ostatu-tabernaz beste noralekurik apenas zegoen, Lekeitiora ostera ilun batzuk salbu, elizara be ez baitzen zaleegia, Espainia kato-likoaren harrotasuna konpartitu arren. Esan beharrekoak esaten eta proposatzen utzi eta gero be, kostatu jatan, haren ekinagaitik baino ez gitxiago neure larri puntuagaitik (bildurragaitik, garbi esanda), bitarte egoki bat harrapatzen, esateko:

- *Burutapen bikain horreek guztiak baino aurreragoko auzi bat bada hemen, nire belarri harrituetara nahi baino beranduago heldu den kontu bat... egia balitz.*
- *Egia beti nagusi azkenean, baina azkena ez dute denek ikusten.*
- *Gustatuko litxakit, kasu honetan, sententzia horixe egiaztatzea, bigarren partea inori desio barik.*
- *Zer da egiaztatu nahi zenukeena?*
- *Orritxo demonino honetan dinona. Ezagutzen dozu?*
- *Ah, oh! Ariketa interesgarria. Ikaslea adi ibiltzeko aurkitu dudana metodorik efekti-boena.*
- *Metodoak ez nau hain bildurtzen, zelan edukiak. Amorotoko umeek, euren herrian, euren eskolan, euren artean, euskaraz egiteak zigorra merezi dau?*
- *Beno, zigor sinbolikoak izaten dira areago. Pedagogikoak, nolabait.*
- *Sinbolikoa ehun bider kopiatzea: "No hablaré más vascuence en la clase ni fuera de la clase en la tarea escolar?"*
- *Hori idazketa praktika dezaten agintzen diet, batez ere. Ume hauek aitzurra bailitzan maneatzen dute idazluma.*
- *Ez dakust zergatik izan behar leukeen lotsagarri, zuen herrian atxurrak hagin-dunak ez badira, baina gure umeek zergaitik ez dabe euren artean euskaraz egin behar, beti egin daben moduan?*
- *Eskola jakintzaren lantegia eta kulturaren mintegia da. Hori hizkuntza jakintsuan bakarrik garantiza daiteke, ez larre-hizkuntza batean.*
- *Nondik atera dozu larre-hizkuntza horrek ez daroala berba egitea merezi izateko beste kultura, ama-hizkuntza, etxe-hizkuntza eta herri-hizkuntza bat delako baino ez bada be?*
- *Sentitzen dut zurekin eginiko hainbeste solas ustez mardul, kulturaren balio handietan gogaide ginelakoan, ustelak izan direla aurkitzea.*
- *Nik ba al dakizu zer aurkitzen dodan? Kulturaren sasi-jantzian, frankismoaren lantza berantiar bat besterik ez zarela. Gerraosteko metodo genozidak, maisu-maistrak eurak be, lotsaren lotsaz, baztertzen joan direnak, hogeita hamargarren urtera berrezarri guran al zatoz, errespetuz eta mahai onez hartu zaituen herri batera?*

- *Ondo kostatako soldatetik ordaintzen dut mahaia.*
- *Ez dot ukatzen, baina autortu beharko dozu ordaintzen dozuna baino asko gehiago jaten dozula.*
- *Baita lanean ere, obligazioa daukadan baino asko gehiago saiutzen naizela.*
- *Esaterako, frankismoaren espirituan.*
- *Jakin behar zenuke Franco oraindik osasuntsu bizi dela, eta indarrean dagoena bere erregimena dela, zeinaren soldatetik bizi garen biok, nik gogotik lan eginez, eta zuk, ez dakit hainbeste.*
- *Egia da niretzat lotsagarrri dela aska horretatik jatea, eta badihardugu bidea egiten, ez askak handitzeko, baizik, sarritan eta arrazoiz kexatzen entzun zaitudan moduan, eliminatzeko. Estimatuko geunke zure lanean horrenbesteko 'gogorik' ez bagenkus, inork eskatu ez deusuna eta, gagozen aldiaren bildurragaitik, inor hartaz kexatzen ausartuko ez dena aportatzen ekin beharrean.*
- *Eta nik estimatuko nizuke erretorika esplizituagoa, zertan arrazoi izan dezakezun uler dezadan.*
- *Esango deusut, ba, gaztelar zezen baltzak be ulertu barik ezin uzteko bezain argi. Gure umeei ez eiezu gehiago euskaraz egiterik galazo, eta are gitxiago, hain zigor indignanterik ezar, 'Elizagaz topo egin' nahi ez badozu.*
- *Sentitzen dut, baina gaztelar zezen beltzak, hain kultura miragarrian bazkatzen ohituta dagoenak, ezin die bere printzipio handiei uko egin, Elizaren adar oker bategatik.*

Holantxe banandu ginen egun haretan, ni, pentsa zeinkienez, odola hortzetan nebala, eta bera, begitandu jatanez, artelatzen azala bezain elkor. Ez zen izan berbaldi bakarra. Erabagi zorrotzagoak hartu aurretik, ondorengo egunetan, behin eta barrero eraso neutsan, onez, limuriz, mehatxuz, oratoriatik gogoratzen neban baliabide oroz, hari eta ekinaren ezinak ohartarazo ninduen arte arantzadun alanbre multzo batena zegoela han: eraginago eta katiguago. Nire ekintza-planaren lehenengo urratsa umeen gurasoekin batzea izan zen, ondo gogoratuko zarienez, hementxe baitzagoze denak. Zuen sentiera ezagutu nahi neban; batez be, zuen sentieraren intentsitatea. Beharbada, neure inpresino alarmista bat besterik ez zen izango, zuek intzidente arruntagotzat jotzen zenuena. Umeak zeuenak izanik, ez nintzen inork eskatu bako justiziagintzan menturatuko. Ez nintzen erra-tuegi ibili, batek baino gehiagok argudiatu baitzenuen: "*Hori zer da, ba, guri eragiten euskuezenen aldean?*". Beste batzuek zinozuen urteak zirela, Amoro-ton eta inguruetan, horrenbestekorik entzuten ez zena. Bandera frankista jasotzean eta jaistean, 'caralsolak' eta inon diren urrumak bai, gaztelania derrigorrean sartu be bai, baina euskaraz egitearen zigorrik eta halako barbaritaterik ez zenuela ezagutu, azken urteotan behintzat. Poztu nintzen gertaeren barriaz ondo jabeturik zengozela ikustean, umeak trebeak baitira erdi-esan bat egiten, oker-esana ez de-

nean, nahiz eta gero tirakada handirik behar ez, behar ez diren guztiak agertzeko. "*Zer egin geinke?*". Batzuk ez zinien lotsatu bildurra autortzen, "*horreek zertaraino kapaz diren inork ez daki gero!*" esklamatu. Beste batzuek umerik eskolara ez bialtzea be aitatu zenuen, nahiz eta berehala konturatu ekimen hori ondorio inprebisiblezko berotasun bat izan zeitekeela. Noiz arte, noren aurrean eutsi planteari? Garbi zegoen bakarra denen apalkuntza merezibakoa zen. Umeakan familiarik, eta familiarik herri oso baten izatea zigortzen zen, zigorraren mingarriena erantzuteko inpotenziaren sentipena bera zela.

- *Zer egin geinke?* – itauntzen zenuen erdi etsian.
- *Utzidazue neuri zerbait proposatzen* – erregutu neutsuen–. *Zuek lehen be nahiko zama eta menperakuntza jasanak zarie, Elizaren beraren kolaborazio positibo edo, gitxienez, mentasun koldar eta guzti. Bada sasoia autoritate garrantzitsu batez inbestituak izan ginenok geure instituzioaren degradapena saneatzen hasi gaitzen.*
- *Horreek ikasita dagoz gero abadeak be kartzelatzen!*
- *Kartzelatik libratzea bestela be gatx izango da, baina maisu horrek jakin behar dau hau ez dela Espainiaren edozelako zokondo bat gehiago.*
- *Berorrek jakingo dau zer egiten dauen. Azken batez, gure umeekin gehien dabilzenak maisua eta berori dira. Eta estimatuago, ez dago dudarik nor.*
- *Eskerrik asko. Gogoratuko jat zeozer, laster jakingo dozuena.*

Sermoi hau promes haxe betetzera dator, hain zuzen, eta asistentziatik di-rudienez, bazen zerbaiten irrika, banaka batzuekan alderantziz izan daiteke baina. Pentsa daigun apur bat. Ez naz hasiko eskolakuntza guztia gaztelania hutsaren gainean eraikitzea kolpera kuestionatzen, nahiz eta balebakeen zeresana, han-hemen sortzen hasiak diren euskarazko eskolakuntzen (ikastolen, garbi esanda) mogimendu pozgarriaz. Indarrean dagoen eredu ezarriaren barruan be, zer arrazoi eta, batez be, zer eskubide moral edo kultural dago, gaztelaniaren eta Europar hizkuntza guztien aurrekoa den hizkuntza baten erabilera zigortzeko, batik bat, praktika hori, eskolarik gehienetan, jada absurdotzat baztertua zenean? Hizkuntza baten antzinatasun, izaera eta balioetik aparte, nor da nor umeei euren ama-hizkuntza, eurek aukeratu barik bertan jaio zirena, bat-batean, tumore bat legez erauzi nahi izateko? Ume indefentsoakan, herri oso baten gunerik sensibleenetako bat hain gratuitoki, hain irrazionalki bortxatzeko?

Baina, kristau maiteok! Alde etnikoak, kulturalak, justiziazkoak, eskubi-dezkoak alboratu utzita, gagozen estatu konfesional katoliko honek bere balore oinarrizkotzat aldarrikatzen dauen kristautasunera. Ez dogu tematuko gure euskara paradisuko lehen hizkuntza izan zenetz, legenda maitagarriak kontatzen deuskun

moduan, ohore bardintsua bindikatzen daben munduko beste hizkuntza guztiekin alperrik ez leihatzearren. Kultura bakotzak segi deiola bere egia kontsolagarriari, besteenik zapaltzen ez dauen bitartean. Zertarako hasarratuko gara inogaz, paradisukoa besteko mirariak edo handiagoak hementxe bertan gertatzen badira, gure misterio santuotan? Kristau baten arimak goza leikeen interbentzinorik dohatsue- na, transformazinarik sublimatea, sakramentuak ez al dira? Hona, ba, mendeetan agindu dauen latinaren lekuan, orain, zuen umeak euskaraz bataiatuak direla. Euskaraz konfirmatuak dira. Euskaraz ezkontzen zarie. Euskaraz hartzen dozue peka- tuen parkamena. Euskaraz, azken oliadura. Eta handiena, euskaraz ospatzen dogu Barri Onaren eta Eukaristiaren miraria, ogi-ardaoak Jesukristoren gorputz-odol bihurtzen dituen. Jainkoak misteriorik handien horreek guztiak euskaraz onartzen eta saritzen baditu, eta Eliza Ama Doneak berak be euskarari, orain, latinaren duin- tasun bardina autortzen badeutso, zelan izan daiteke estatu konfesional katoliko baten funtzionarioa den maisu batek, guri arbuizatzerik sekula bururatuko ez litxaki- gun kultura baten izenean, gure umei euren ama-hizkuntza, euren etxe-hizkuntza, euren herri-hizkuntza galazotzea, eta inkunplimendua hain basaki zigortzea? Hori ezin daiteke izan guk berari *Aita gurea* kantatzea hain atseginez hartzen dauen Jainkoaren borondatea.

Kristauok! Lehen be ez zarie gitxi ikusiak, eta beste gerrarik ez deusagu inori ezergaitik opa. Baina gure umeen aurkako biolentzia prepotente hori, behar- bada berari aurre egiteko modurik oraindino ez daukagun hori, gatzetsi eta salatu barik ezingo dogu utzi, ezta? Euskaldunok euskaldun legez bere mahaian hain mai- takor eta eskuzabal hartzen gaituen Jainko ahalguztidunak emon deigula argita- suna, eta araberako kemena eta elkartasuna, gure izate mendetsua ahalik duinei defendatzeko gauza izan gaitezen, ez hainbeste mendetsua delako, geurea delako baino.

*¡Estimados cristianos! Permitidme, ante el asombro seguramente unáni- me, aunque contrapuesto en motivos, de toda la concurrencia que hoy abarrotta esta iglesia de San Martín de Amoroto, que por una vez, como dolorosa excepción que confirme una noble regla, me decida a cumplir el desvariante decreto pastoral de nuestro Obispo monseñor Pablo Gurrupide Beope, hijo de Otxagabia y euskaldun de cuna tan vascoarlarante como cualquiera de nosotros, según el cual en toda misa de cualquier rincón de Vizcaya, a la que asista algún fiel, sea turista, cazador o monta- ñero casual, que no entienda el vascuence, el oficiante o predicador deberá ofrecer un resumen en castellano del sermón pronunciado. En una ocasión tan singular como ésta, no será exactamente un resumen, sino más bien el anuncio y la promesa de que éste sermón, íntegro y literalmente traducido, será entregado con reverencia al grupo de personas interesadas o aludidas en él, que han tenido la gentileza cris-*

*tiana de honrarme con su atenta presencia, a fin de que no tengan que molestarte en verificar informaciones lejanamente indirectas o directamente confidenciales, cuya veracidad, al final, corre el peligro de basarse en jirones perdidos o lastres acumulados en el camino, a pesar del innegable celo, profesional o voluntario, de los hilos que componen la extensa y sufrida red de nuestro atento régimen.*

Eta, honenbestez, kristau maiteok, ez beti hain maitagarriok barne, jarrai daigun ospakizun salbagarri hau, geure fedearen autortza lasaigarria barrituz: Si- nisten dot Jainko bakar, Aita ahalguztidun, zeru-lurren egile, eta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna... betiko bizia. Amen.

– *Jauna zuekin (posible bada).*

– *Eta zure espirituarekin (beharko dugu eta).*

Kasuz ahazturik nengoela esatea alferrik da, zeren, handik hilabetera, Txope apaizgai gaztea berriro agertu denean, ikaratu nau bere itxura abailduak, halako txakurrarena bezalakoak, zeina galdutzat emana zuten etxekoen nahigabe- rako itzuli den, ate guztietan makilatua, bitan izan ezik. Batean, aitiba zoriez za- harregiaren aitzur zulo-asmokoak huts egin zuen, eta bestean, saiei jausitako hezur baten engainura, mutiko zapo batek egin asmo zion esperimenterik mingarrienetik hezurragaz ihes egitea lortu zuen. Txope, bigarren aldi honetan, goizeko mezara etorri da, zortzietarako. Horrek esan nahi du Artibai ibarreko goren muturreko ba- serriren batean, edo Markinako kalean (oraintxe konturatzen naiz artean ez naize- la arduratu menditarra ala kaletarra den garbi jakiten), eguna argitu aurretik abia- tu beharko zuela, bidean aberiatu zaion bizikleta inon utzi nahi ezta, oinez etorri baita, bera eta guzti. Mendatea katea lepoan zekarrela jaitsi du, Milloi barrenetik Amorotoraino basoko lasterbideetatik igotzeko. Astegunetako meza desertikoan, ikusten ez baina atzean bizirik sumatzen dudan akolito bakarrak eta aurre ilunean ezuletatik gehiago lekutzen ditudan lau emakume beltzezkok eta mehatzek askoz neurrigabeago egiten dute hutsunea. Emakumeetako batek, serora-lanak egiteko inork agindu beharrik izaten ez duenak (hasieran, abade lokatzat eta inespertotzat akosatzen ninduen, baina gauzak nola egin berari galdetzen eta "*hauxe da nire aho- llulari printzipala*" aldarrikatzen hasi nintzenetik, esamesa guztietatik defendatu ohi nau), argitasun gehiago jartzen ez dit uzten, "*elizari gastuak aurreztearren*", bere esanez, baina uste dut, funtsean, ilunetan askoz eroago sentitzen delako dela. Eliza guztian sei lagun gaude, beraz, elkar negatiboan bezala ikusten dugunak. Eliza hutsari zentzu betea hartzen zaion bitartean, hustasun atzimurkatu honek ahalguztia adinako desolazioa sentiarazten dizu.

Txoperen presentzia atze-hegalean deduzitzen dut. Bera dela ez baneki,

ganga urruneko argiarma ikterikoak iluntasunari eskaneaturiko organo handitu bat dela pentsatuko nuke. Burua makur ala tente duen ezin igartzeko distantzia ilunera, bere kanpo irudia barrukora translatu dut, eta gupida beldurgarria hartu diot, zer historia triste entzun beharko ote dudan berriz. Horregatik, edo beretzat larria izan behar duela suposatu dudan unea atzeratzearen, meza kasik kamera lentoan daramat, aldizka burutxoa luzatu eta albotik begiratzen didala konturatzen naitzen mutiko gerakaitzaren desesperaziorako, neuk uste, nahiz eta aipatu emakume beltzezkoaren (eta, seguruenik, beste hiruren) zorterako, horrela hamabost misterioako arrosarioa errezatzeako astia izango baitu, bi debozio edo gehiago batera eramateko bere dohainari esker, gehi, aldi berean, gogoari joaten uzteko su hilean beratzen utzi dituen arto-zopak katuetatik zaintzera. Meza amaieran, harritu naiz nola sakristiara jarraitzen ausartu zaidan Txope, abadetxeko bulegoko ate inguruan, horma kontrara erdi maker itxaroten irudikatua nuena.

- *Kaixo, Txope! Goiz habil gaur* –diotsat, pentsatuz: –*Hau konfesino eske jatorik, hainbaten.*
- *Txori kantariekin batera. Bizikletak hamarretarako etxean egon behar eban, baina oraintxe ez dakit zelan egingo dodan.*
- *Txoriekin kantuan jarraituz, ez deuat horretarako gogo-itxura handirik hartzen baina.*
- *Inoiz baino animosoago nengoen, ba, bizikleta txotxolo horrexena izan ez balitz.*
- *Topatuko joagu kate zaharren bat elizalde guztian, mutil!*
- *Eskertuko neuke.*
- *Elizan ez hatxat horren animoso begitandu, urruntasun ilunean erdi ezabatua.*
- *Aurreneko bankuan, elizako hutsune guztia gainean dela, altarako misterio osoa neuretzat bakarrik delako sentipenak bertigoa damost. Atzeragotik, erantzukizun hori nori eskegi ikusteak, atsotxo bat baino ez bada be, lasaitu egiten nau, nahiz eta gaurkoa, garbi esanda, gehiago izan den distrakzino menperaezin batzuei ibilbide diskreto bat emotearren. Aurreneko bankua lar exigentea da askatasun batzuetarako.*
- *Pentsamendua bardin dok ikustezina, argitan zein ilunetan.*
- *Bai, pentsamena aske ibiltzeko bardin gai balitz.*
- *Gaur historia tristerik ez dagoela suposatu behar al joat?*
- *Ez dakit zelan kalifikatu. Oraingo, liberaturik sentitzen naz, baina luzera zer izango den, apur bat bildurtuta nago, neure sentimenduak be gitxi-asko inplikatura dagoz eta.*
- *Azken indikazino horrek asko bihurritzen jok dena. Goazen abadetxeko bulegora, sakristietako umeltasunak ez dozak berbalagun bizkorgarriak eta.*

Mutila lasaiago aurki dadin, bizikletaren kate konponketa, edo aldaketa, abiarazi dut lehenik, abadearen eskariak agindu atsegintzat hartzen direla baliatuz,

eta ez gutxiago, berriz ere, fenomeno horretaz harriturik, oraindik ezin banaiz ohitu neure sen menditar, munduarekiko iheskor, gehienik ere defentsibo hartan, honen autoritate betea eta onartua sentitzera. Edozein etxetan atea jo dut, eta berehala ireki da.

- *Egun on, Floren. Zu pixka bat mekanikari be bazara eta, beharbada, bizikleta-kate zaharren bat izango dozu hortik. Mutiko hau ezingo dogu Markinaraino oinez bialdu.*
- *Etxean ez daukat katerik, ez erreminta ganorazkorik, baina aurkituko dogu zeozer auzoan.*
- *Oh, ez! Neu joango naz, Benantziorenera edo. Segi zeure zereginei.*
- *Nire zereginak gerotxoago be hortxe egongo dira. Atenditu berorrek mutiko hori, beharbada Amoroto gaur zapalduko eban lehenengoz eta.*
- *Bigarrenez. Orain hilabete izan zen lehenengoa.*
- *Segi eurok eurenean, nik laster aurkituko dot behar dena-eta, katea ez bada, bizikleta bat.*
- *Eskerrik asko! Batzuetan, onegiak zarie.*
- *Pasa barrura biok, jauna! –agintzen digu etxeoandreak sukaldeko leihotik–. Bien bitartean, lukainkatxo bana erreko deusuet.*
- *Lana ekarri eta jana eroan? Eskerrik asko zuri be, Sole, baina zeregintxo batzuk daukaguz egiteko.*
- *Gero etorri orduan!*
- *Ikusi dok? –diotsat Txoperi bidean–. Honenbesteko ongurarrik ez joagu merezi.*

Atzean eliz liburu zaharren apalategi agian eurok zaharragoak ditudala, bulegoan eseri naizenean, *jesarri, jesarri!* nire gonbitari uko eginez, zutik jarraitzea nahiago izan duen mutilak kaiolan artefaktu dardarkor bat sartu dioten babuinoa dirudi, muturra leihora hurbilduz, bazterrak ukituz, artefaktua neu banintz bezala begiratzuz, ondo ixten ez den atearen bitartea haztatuz, baina iheserako inolako ahalegin gabe. Bere urduritasuna luzatzeko esperimentu apur bat sadikoan, galdera suntsunak edo iruzkin gezak dagizkiot: *Horreek prakok nasaitxo ez daukazak? Markinaldean be, errekek beherantz egingo jabe, alboei jaramonik egin barik!*, eta horrela. Ezin izan diot luzaroan eutsi, berari nabari zaion esan-gogoz baino ez gutxiago, nire iragarpenak zelan bete ziren neure entzun-minez.

- *Ez, ba! Zure iragarpenak hasieran bakarrik bete ziren, zuk iragarrita baino osokiago.*
- *Joño! –atera zait diafragmaren opresiotik, biraoari adierazpen bigunean eusteko ahaleginean disolbatuz neure ezuste ernegatua–. Inflexinoa non eta zelan gertatu zen jakiteko irrikaz najagok, esangarria bada.*
- *Esanago eta esangarriago.*

- *Neu hasiko nok kontatzen, ondo gogoan baitaukat dena, heuk esanetik.*
- *Ez da izango nire narruan sartzeko irritsean zagozelako, ezta?*
- *Ezetz esango baneu, sinistuko heunskit?*
- *Fedea istorio honetatik urruntxo dago, baina aproba daigun.*

Hurrengo domeka horretarako be, meza nagusirako joan hintzen. Abadeak, behin honezkero, Don Eduardo dela badakigunak, oso txeratsu hartu hinduen barrero, baina ez hinduen solista gonbidatu gisan aurkeztu beharrik izan, dozena bat neskak osatzen eben korua jakitun eta heure zain baitzegoen, nahiz eta ez, behar-bada, heuk neskaz inguratutik aurkitzeko heunkan besteko grinaz. Estu samar bai, hik jo behar heuen harmonioa oso karratu txikian hesiturik baitago koruko eskailleraren beste hegaleko horma kontratan. Txikian eta kasik itxitura intimoan, altarako misterioa bere klimaxean zela, txarrikeriatxoak inork ikusi barik egiteko moduan.

- *Zeure esperientzia kontatzen ari zarela dirudi.*
- *Neure-neurea ez, baina bai neure begiz ikusia, neure jaioterrian.*

Korukide nintzela, inoiz, neska-mutilen 'zertxoak' ikusiz, lotsagaitik bainogo inbidiaz urtzetik ihesi, urten egin behar izaten najoan itxituratik koru edegira, hemengo gizon pasiboen intrigarako, honeek be, debozinoan baino malezian aurreratuago egon arren, ez baiteben abadegai zintzo baten barru aztoratuari igartzeko ezagutzarik, ezta aztora zeitekeen aierurik be. Hire kasuan, ez heunkan ihes egin beharrik, neska hutseko korua zenez gero, baina urtzetik ez hurbilen urrun, hain toki txikian ikutuak nahitaezko baitziren, heure gogo, nahitaezaren barruan edo nahitaezaz baliauturik, nahitako ikutuak izan zeitekezela pentsatzetik ezin libratuz, gorputz-ikara nabarmenegien bildur izateraino. Neska batzuk heure adineko, denak be gazteak edo ezkongeak behintzat, Ama Birjina tartean imajinatzen heuen, uler zeien, partaide izan zeiten, hik ez heuela harmonioa jotzeko eginkizun sublimeaz beste maleziarik garatu, bere eta bera lako nesken artean zirraratzeko. Meza kantatuan zehar, elizkizuna, aurreko aldian legez, herriko jaien solemnitatera jaso heuen, barrero hiru bat bider solista eginez, San Pedrori gaua fataldu eutsan oilarra bezain nor. Meza ondoren, herritarrek ez jeurean itauntzen *nor da mutil hori? nongoa da?*, baizik denak hurreraturik, emakumeak gehienbat, koruko nesken amek batez be, txeratsen hindueen, esanez: *Barrero be hemen? Domekaro etorri behar zeunke*. Abadeak, barriz, Don Eduardok, bere harrotasuntzat exhibitzen hinduen barrero, denen aurrean. Gero, neska-koruarentzat, heu be tarteko, hamaiketakoa, mostradore handi bateko jatetxe ospetsu batean. Ez aurreko jaietakoa bezain aberatsa, baina hiretzat, mendiko bakartasun urritik jaitsita, dena jaukala, batez be lagunartea bera, dena begi hintzela. Abadea, batari berba, bestea atentitu, hanhemen zebilela, denek nesken mahaira begiratzen jeurean, non hi ikusten hindueen

mutil bakar, ninfo tirriagarri, nahiz eta, hire aldetik tamal puntu langido batez, errespetagarri; lar aukeran, higan, mutila barik, abadegai zekuseelako.

Neska nagusiek, jada ezagutzaren konfiantzatik, karinoz tratatzen hindueen, denak hire zerbitzari: *Jan hau, vermuta nahiago?, zuk konfiteak jan, honelakorik edonoiz ez da izaten eta – Eskerrik asko, eskerrik asko!* –ari hintzen denei, zertan obeditu ez henkiela. Lehenengoz joan hintzanean, barbarik apenas egin eben gazte-gazteek be, hi baino gazteagoak zeintzuk izan zeitekezen obserbatzen egon hintzenek, begiratze hutsera baino gehiago ausartzen zoazen oraingoan, *noiz arte zagoz oporretan?, hainbeste urtetan zer egiten dozue seminarioan?* Heu be, egia esan, adinez baino piztia-senez zoliago, itaunak egiten ahalegintzen hintzen: *Ondoko herriak zeintzuk dozuez? Bilbo zenbatera dago hemendik? elizatik kanpora ez dozue kantatzen, eske-egunetan edo? horren kantari onak izanik, koru mistorik ez dozue pentsatu? Mendelssonhek baditu, ba, gabon-kanta xarmagarriak.* Geroz kota jasoagoetara hindoan, ez guztiz oharkabea, tontotxo bat ez emoteko kezka azpian, denek heuri berba egitea desio heuelako, eurak hiri begira edukiz, hik eurei derrigor begiratu behar izateko. Eta eurek prestasun eta gozotasun osoz erantzuten heueen, gizalegez gehiago behar-bada, hik gura heuen sentimenduz baino, baina hori argi jakiterik ez zegoenez gero, eta itxurek egiaren forma osoa zeukienez gero, zazpigarren egoitza baino goragoko liluran hurbilen, tarteka, hainbesteko poza pekatuzkoa izango ez ote zen kezka jaitsiarazten hinduela.

- *Ondo najabilk?*
- *Oro har eta kronika moduan bai, baina intentsitate handiagoa ipintzen ez badozu, neu hasi beharko naz kontari.*
- *Utzidak apur bat jarraitzen, ze uste joat berogarriak oraintxe datozela.*

Meza osteko lagunartetik, hire aldetik dena begi, koruko nesken eta jente guztiaren aldetik dena berba gozo, denpora bizkorregi joan izanaren penak apur bat minduriko lainoan itzuli haz abadetxera Don Eduardoren alboan, pentsakor bainoago ameskor, berbaturik zeunkien txangorako hornigaiak jasotzera. Bazkal aurretik bainu didaktiko bat hartu ondoren (Don Eduardo tematuta zegoan hiri igeri irakasteko), hatxetan bazkalduko ei dozue, Don Eduardok prestatzeko bereziki agindutako maleta gozotik. Abadetxeko atea barrutik itxiz batera, jente aurrean adeitasun neurtuz eta Gabino legez izentatzen hinduen Don Eduardo barrero 'Gabintxo' esaten hasi jak bakarrean, ez amagandik haurtxotan, ez inorgandik inoiz entzuna heuen moduan. Izatekotan be, 'Gabinotxo'. Sukaldean sartuz batera, *eseri, Gabintxo, eseri!* esanez, berak lagundu deua gozo-gozo jesartzen. Tente, mugimendu libreagoan jarraitzea nahiago heunkeena, ohartu hazenerako, mahaiaren eta hormaren kontrako angeluan preso haz, pelutxe handi bat bezala. *Arrapaladan ibili*

*beharrik ez daukagu* –erantsi jok–. *Ordubetea*n *sobra gaude hondartzan, hirurak arte bainu eder bat harturik, haizetan lasai-lasai bazkaltzeko*. Astiro ibiltze horrek ez hau lar poztu, bildur baithaz hik emon bako konfiantzak hartuko ete dituen, halantxe gertatu den moduan, autortza intimoen tonuan hasi denean: *Zer politik diren gure neskak! Ezta, Gabintxo? Bai zoramena izan behar dela emakume bati honelako ferekak egitea!* – hire matrailak katalamixon eginez bezala igurtziz–. *Gure haragiak haragi baitirau, botoekin ere. Gure Jainkoak badaki hori guztia ulertzen, eta, batez ere, barkatzen. Ez duzu horrela sentitzen, Gabintxo?* Nahiz eta halako gauzak aurreko aldian beragandik entzuna hazen, ezin dok larri-puntu bat ekidin, eliztarrak, neskak barne, halako goieratik, kasik seberitatez tratatzen zituena hire aurrean zelan biguntzen, kasik serbiltzen den ikustean. *Jantzi-zorroa prestatu behar dut* esanez, logelara ezkutatu denean, zokotik zutundu eta sukalde txikian atzera-aurrera, askatasun handia eritzi deutsak.

– *Ni ez nintzen askatasuna sentitzearren zutitu, berari logelara jarraitzearren baino.*  
– *Bai? Oker najabilk, orduan! Eta?*  
– *Armairutik ohe gainera ateratzen ziharduen arropen ondoan jesarri nintzen, eta berehala etzun, garondoan gurutzaturiko eskuekin burko eginez, zeru urrunari hasperenka, berak entzuteko moduan: "Neskak politik dira, bai. Politegiak! Zorionez, nik oraindino ez daukat botorik".*

Eta orduan, bero handiaren atxakia sobrazkoan, konfiantzara itaundu deua: *Sotana erantz dezadan ez dizu ardura izango, ezta, Gabintxo?* Ezetz erantzun deutsak (zer erantzungo heuntsan, ba, bere etxean egonik?), aurreko aldian txunditu hinduen figurak bardin ete darraien ikusteko irrikaz. Oraingoan, sotanapean erabili ohi diren praka narrasak baino txukunagoak agertu dozak, modernoak eta detailera plantxatuak, pentsarazo deuenak: *Honek prakadun be ibilia jirudik toki elegantzeren batean*. Prakak be erantzi jozak, armairuan kurioso eskegita uzteko, eta ohiko bainu-jantzi urdin, distiratsu, ondo estua bakarrik agertu dok. Bereko guritasunak iradoki zeikeen baino askoz gorputz baltzaranagoa agertu jak, aurreko aldian baino areago; bal-baltza be bai papar, sorbalda eta bizkar-erretenean behera, hain bilotsu dena. *Zeuk ere erantzi alkandora beldur gabe, Gabintxo, etxean gaude eta*. Obeditzera beharturik aurkitu haz, Jainkoaren ordezkaritza gurgarria bainujantzian eta mutil zapoa estalitasun piadosoan kontraste ridikulua begintzen baijak.

– *Ez hain beharturik, eta ez hain piadoso be. Esan deusut neure kabuz jarraitu neutsala logelara.*  
– *Heu bila, beraz?*  
– *Saiheska ez behintzat.*

– *Arin perbertitu hintzen!*  
– *Gustua kutsatu, areago.*

Orduan bajakiat zelan jarraitu. Don Eduardo (komeni dok, lantzean behin, izena gogoratzea) ondoan jesarri eta esaten hasi jak: *Hementxe lo egiten dut nik, Gabintxo. Hementxe sentitzen dut abadeen bakardade irrepairablea. Ez zaitu mintzen eskutik hel diezazudan, ezta?* – *Ez, ez!*, eta eskugaina ferekatuz, mun damoa bertan, abadeari berari altaran egiten jakon moduan, baina luze, xurga kilikorrean, burua bertara makurtuz, ezkutatu. Minutu eternal baten ondoren, etzun egin dok, hi etzunaren ondoan, baina albokera, esku bategaz burua zurkaiztuz, eta besteagaz hire papar guria, errukarria bere papar bilotsuaren aldean, gorantz eta beheerantz ferekatuz, kamisetaren gainetik lehenik, azpitik ondoren. Esku bata garondopetik atera eta berearen gainean darraiok mogimenduari. Bajirudik, egintza horregaz, hire borondate osoa bere alde ulertu dauela, eta gorputz osoz besarkatu jat, aurpegia hire okozpean ezkutatu. *Egon bakarrik, honelaxe, Gabintxo. Behin bakarrik*. Arnasa hartzeko baino geldiago hago, seminarioko begi guztiak gainean doazela, baina bai harrotasun plazertsuz be, seminarioko 'adiskidetasun partikularretan' lortzeko gai ez hintzela uste izan heuen arrakasta era aniztuan eta askoz sentsazionalagoan iritsi jaalako. Uzten deutsak estutu haien, laztandu haien, hire eskua bere izter artean berotu daien. Bainu-praken labaintasunak ez hau libratzen azpiko bultoaren formatik, jotzen ari den sator bat lakotik, baina bai, behintzat, ikutze direktotik. *Barka, Gabintxo. Behin bakarrik*. Logelan hain beroa ez den temperaturari legokeon baino izerdi handiagoo nabari dot. *Barka, Gabintxo! Ai! Behin bakarrik, Gabintxo, behin bakarrik. Ai! Ai! Ai!* Erabat harrapatua izatearen sentsazio itogarria besterik ez dok sumatzen.

– *Ez hain itogarria. Aurreko aldian konturatu ez nintzenaren azkena osorik eta argi ikusi nahi dot. Berak ai, ai!, nik bai, bai!*

Horrela errazago ulertzen dok dena. Mogimendu guztiak bateratu egin direla damoa. Bateratzeak kasik oldar biolentoo abiarazi jok. *Behin bakarrik, Gabintxo. Ai! Bai! Behin bakarrik, baina osorik!* Berbak urruma bihurtzen ari dozak. Urrumak urruma bakar, negar tragiko jarraitu bat legez. *Autobusak etxearen kontra jo ete dot?* Arrapalada bat nabari dok. *Ai, ama! Honi zeozer gertatu jakok*. Edo gertatu behar jakok. Aurpegia hire kolkotik erretiratu jok. Begiak disimuluan zabaldu dozak, eta bereak gorantz itxita jagozak, aurpegia desfiguraturik, tripako min bizi-bizi batek emon baleutso legez. *Barka, Gabintxo. Hauxe bakarrik.*

– *Trankil, trankil!* –dinotsak–. *Neu be gustura nago.*  
– *Bai, Gabintxo? Eskerrik asko! Igual, zikindu egingo zinen apur bat, baina ez dio*



*ardura.*

- *Garbituko gara. Jaregin lasai gorputzari.*
- *Oh, Gabintxo! Hoc est enim corpus meum.*
- *Quod laetificat juventutem meam.*
- *Gabintxo... Gabintxo... Gabintxo!! Hmrrmm!!*

Kaiman alertatu baten tentsinotik pelutxearen aroltasunera jausi jak gizona. Tripako mina joan jakola jirudik. Autobusa kendu jabe etxe kontratik. Aldi batera, zutundu dok eta, toailan baturik, komunerantz joak, Klaudio turkiar bainutik tronurantz bezalatsu; kankartetik zeozer jausi ez dakion arduraz bezalatsu. Hi sukaldera itzuli haz. Beste aldi batera, jantzita itzuli dok, sotana eta guzti, edo beharbada sotana hutsean. Hik, bitartean, heu konturatu barik, mahai gainean zegoen pastel guztia amaitu dot. Harritzen haz, gosea ez baitzen kontzientea. Lotsatu be bai apur bat, *dena jan duzu?* galdetu deuanean. *Ez dio ardura. Ona!*, gaineratu jok, burua indar txeratsuz astintzen deuala. *Zatoz barrero logelara*, hots egin deua gerotxoago logelatik bertatik. Oraintxe bai ez dakiala zer egin. *Ez beldurtu, Gabintxo. Ez dizut ukiturik ere egingo.* Ez daukak fidatzeaz beste erremediarik. Logelako atalasean taket gelditu haz.

– *Ez hainbeste be, banekien zer etorriko zen eta. Abadea ohearen kontra balauniko dago, albo-hormara begira, Arsko Abade aszetikoa sarritan irudikarazo euskuen moduan.*

Oh, bai! Orain bajakiat. Utzidak neuri, kontakizuna baino gehiago, sakramentua baitirudi. Horretarakoxe jantzi jok Don Eduardok sotanarik barriena. *Aurrera, Gabintxo!* –dei egin deua, sakrifiziorako moduan–. *Belaunika zaitz neu-re ondoan. Horma horren beste aldean sagrarioa dago. Hortxe dago Jesus, gure makaltasuna ulertzen, barkatzen. Zuk ez daukazu errurik, Gabintxo. Obra on bat egitearen pekatua besterik ez daukazu. Barka, Jauna! Barka, Jesus maite! Barka, Amatxo laztan! Ez Gabintxori konturik eska. Gabintxok ez du ezer egin. Barka zeuk ere, Gabintxo!* Dena eroangarri begitanduko litxakik, 'Gabintxo' engaposo hori hainbeste bider entzuteak larritu ez bahindu. Immobilitate isilean zagoze, bera otoitzean eta hi...

- *Neu be otzoitzean. Parka, Jauna, kide bainaz denean. Parka, Jesus maite! Parka, Amatxo laztan! Ez Don Eduardori konturik eska, neu izan bainaz tentalaria. Don Eduardok ez dau ezer egin, sagarrari jarraitu besterik.*
- *Benetan ari al zara, Gabintxo?* –ateratzen jako Don Eduardori emozinoaren osinetik.
- *Egia autortzen bakarrik* –darantzut apaltasun minduan.
- *Orduan, gaurko hondartzaldia supinoa izan daiteke!*

- *Izan behar leuke!* –hots egin dot, desio-tonu intentsoan.
- *Baina ez eidak ukatu* –dinoat nik orain– *heure kautan pentsatzen ari hazenik: "Parka, Amatxo laztan! Egizu zure semeak ezer ez daien jakin, baina zure bene-tako senar Espiritu Santuak hustu bei bere ahalguztia abade honen gainera. Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari, egia bada horma horren beste aldean zagozeena".*
- *Horrelako zerbaiz, Espiritu Santuarena apur bat bigunduta.*
- *Otoitzaren tonua ez jakiat aurreko egintza baino pekatuago ez den bera, baina heuk jakingo dok gogo-zirrituen barri. Behintzat, hartu maletak, salta motorrera, eta bazoaze Eden barrirantz.*
- *Bagoaz Bakiorantz, haize exzituaren gainean, baina hortik aurrerakoa neuk bakarrik kontatuko dot, antzik be ezingo zeunskio emon eta.*
- *Kostako jak nik antzik ez emotekorik kontatzea, baina nahiago neukek.*
- *Egingo da zure nahia. Ekin neio?*
- *Eta jarrai! Konfesore naukak, edozer entzuteko gertu, parkaezinak barne.*

Bagoaz Txorierrin zehar, eta Derioko seminarioaren albotik Mungialderantz, Artekakarra gaina bestalderatzean, *ondo zatoz, Gabintxo?* itaundu eustan. Diminutibo ninfotiko hori barrero entzutean, gorputzak dardara bat egin eustan, hotzikaririk sukarrera bitartekoa. Arteko damu-eremutik kanpora aurkitzean, irritsen langak barrero zabaldu zirela zirudien, beroaren eta itsas usainaren eragina ez bazen. Abadearen gerriari arauzko litzatekeen moduan heldu beharrean, eskuak haizeagaz jolasean edo neure belaunburuak tarrapatatzen neroazen, hegatzeko esperientziaren lilura inozentean legez. Bihurguneetan, apur bat heldu beharra neukan, bildur bainintzen abadeak pentsa zeien apropos ete nenbilen, baina arriskuaren bildur nintzen, neure ustez bizkorregi baikindoazen, zerbaiterako antsiatz bezala. Galanteozko erakustaldian ete ziharduen be otu jatan, motorraren atzean neska bat eroatea zer zen ez nekien arren. Bihurguneak baliatuz, bere ezkeragaz nire ezkerari helduz, *estutu beldur gabe, Gabintxo* esaten eustan. Obeditzen neutsan, ez haren intentzinoan suposatzen nebanagaitek, bere gidatze eskubakarrak bildurra zemostalako baino. Nik haren gerriari berak gura eban moduan helduz gero, esku bat manillarretik jaregiteko atxakiarik ez ebal izango pentsatu neban, baina ez neban guztiz asmatu. *Pozik zatoz, Gabintxo?* galderari *oso pozik!* erantzun neutsan, oraingoan enfasi guztiz egiazkoan. Horrek eta konplexu barik heltzen eta estutzen nebala sentitzeak berbizitu egin eban, antza, Mungia atzean utzi eta Larraurain sartzean, errepide alboko moja-komentuaren parean, hasperen egin baiteban, nire eskua bere sabelaren kontra estutuz: *Ai, Gabintxo! Ikusiko duzu zer egun zoragarria igaroko dugun.*

Larrauriko urigunea igaro eta, Bakio-Bermeo bideturtean, Bakioran-

zko mendate suabea hartzean, entzun neban: *Heldu, Gabintxo, beste eskuagaz be, buelta guztian*. Nik heldu eta estutu. Nire beso biek bete-beteen itsatsi ziren haren gerri bueltan, eta esku biek bat egin eben haren sabelaren kontra, hatz txiki bien puntekin zil-hobitxoak kilikatuz. Narruaren dardarizo kasik jarraitutik, gustuz urtzen ari zela atera neban. Horretarako, neure gorputza be haren bizkarrera ondo akoplatu behar neban. Eguzkiaren argitasun bibranteari zegokion temperatura berez altuarena baino berotasun handiagoa begitandu jatan haren gorputzean. Bat eginda neukazen esku biak jada ez neukan askatzerik (asmorik be ez, egia esan), haren esku ezkerak ixten baiteban, estuki, morapiloa. *Bai direla usaingarriak inguruok, bikote udatiarrez loratzen direnean!*, errepikatzen eban, burua ezker-eskuma jasoz, zezen usnakariak legez. Bikote horreetan, ez neukan dudarik geurea be barru zegoela. Auzotxoak eta baserri solteak ederretsiz, eurekin hunkituz distrahitzerik ez neukan, geroz berba jarraituago eta labanagoak bainentzuzen. *Bakion inork ez daki zer garen. Jainkoaren edertasun paregabeak konfiantza osoan gozatu ahalko ditugu. Gozatu egin behar duzu, Gabintxo, eguna datorrenean, zer uzten duzun jakinik uko egin deiozun. Meritua ez da grinak hiltzea, grina biziak heztea baino. Horretarako, batzuetan, eman egin behar zaie. Jainkoak maite gaitu, Gabintxo. Zergatik ez ditugu geuk ere haren opariak maiteko, Jesukristok Malentxo maitatu zuen moduan? Ez dozu uste, Gabintxo?*

Mendatea gainditu eta beherantz hastean, Bakioko hondartza gorrien eta urertz zurien eta marra batek zeru urdinari itsatsitako zabaldi halaber urdinen ikuspenez, nire sinpletasun rurala txunditzen hasi zenean, motorra astiro-astiro, zoria mihizkatzen legez zihoala, banekien zer etorriko zen: lehenengo aldian, eguneko ezusterik brutalen gertatu jatana. Bere esku ezkeragaz, nire ezkerre esku bien morapilotik askatu, eta eskatu eban: *Sartu eskua barrutik, Gabintxo*. Sotanek sakelaren luzera guztian daukien irekiduratik, berak sartu eustan eskua barruraino, non, lehenengo aldian, hotzikara batek sentiarazo eustan gorputz biluz bat, bainupraka xume-xumeak salbu. Ezustea hasi baino ez zen egin, bainupraketako bizilaguna kanpoan aurkitu baineban, luze-luze, lodi-lodi. Ez nekien garbi neuk heldu neutsan ala berak okupatu eban nire ahurra. Hori lehenengo aldian. Oraingoan banekien orduan azenario punta-motz bat begitandu jatana ez zela azenario gordina epela; eta egosia izateko, lar kondrikoa zela. *Heldu beldur gabe, Gabintxo. Zeurearen berdin-berdina da, apur bat handiagoan*. Nahiz eta lehen aldikoa ezin argiagogo goratu, bildurra ezin neban guztiz ekidin, ze bizirik zegoela zirudien, inoiz sugeari heltzen ausartu nintzenean legez, ahurraren kontra glup, glup. *Sartu beste eskua be, Gabintxo*. Bere ezkerre manillarrera eta eskuma libratutik, beronek bideratuko eban nire eskuma, beste aldeko sakela kontratik. Bigarren eskua, lehenengoaren sentsazioen barri jakin arren, ikaratu zen gorputz biluziaren dimentsino totalen irudikapenean, harik eta, papar bilotsuan behera, zil-hobia hatz-maminez ez ba-

rrentzen saiatu ondoren, izter artean harrapaturik aurkitu zen arte, multzoaren kontra, bero-bero, bainupraken labantasuna freskuragaz asoziatu guran. *Orain heldu esku biek batera, burutxo libre utzita. Zure mutiltxo ez al da handitu, Gabintxo?* Eskuma barrero manillarrera eta ezkeragaz nire brageta edegi nahi eban. Ez zen lan erraza, ni bere ipurdiaren kontra estutzen bainintzen. Motorra astiro eta suabe zihoan. *Lasai, Gabintxo! Ni ohituta nago esku bategaz ibiltzen*. Brageta saioa utzi eta eskua barrero sotanapera eroan eban, nire esku biak bere azenario erdi egosiaren kontra estuaraztera. *Ai, Gabintxo!* –hasperen urrumazkoa egin eban–. *Imaginatzen al duzu zer litzatekeen emakume bategaz honela?* Apur bat zapuztu ninduen jakiteak, nigaz barik, emakume bategaz pentsatzen zihoala. *Bai, Gabintxo! Baina gureztat ez dago emakumerik!*

Bere exzitazio obnubilatua baliatuz, zakilaren luzera guztia igurzten neban, leun-leun, gozatsu, gozatzuz, prepuzioaren eta zakil-mokoaren izur guztiak atezatzuz, aterki punta bat koipeztatzen ari banintz legez. Bat-batean, emakumeordeari higuin harturik-edo, haurdunaldi alderantzituaren goragaleak jorik-edo, zakil prepotentea, ezin-kabitua, ziztuan hertzen hasi zen, bare ziztatua legez. *Nerbio zentralen bat eten jakok honi!*, pentsatu neban. Hurrengo bihurgunean, gelditu baino areago, motorra bera sartu zen, edo sartu nahi izan zuen, eukalipto arteko pista abartsuan trabes. *Barka, Gabin!* –desenkusatu zen, izenaren beste aldaera bat asmatutik–. *Kakalari eutsiezinak jo nau. Bart gaueko muxilek zirindu izango ninduten*. Azken berbok amaitzerako, ostendua zen eukaliptodian barrura, motorra tar-tar utzita. Horrela, egoerak babestuago zirudien. Pasatzen ziren auto banakei atzea nemotsen, goitik ala behetik, gorputza arabera biratuz. Bietatik batera bazen, hankak zabaldu eta gorputz guztia burumakur gaketurik, txiza egiteko plantan, eta suposaturik ezein ez zela izango bigarrenez pasatzen zena, *amaituko ete dok, ba?* oihi egiten neban, ia berak entzuteko moduan. Bildur handiagoa neukan, baten batek gelditu eta *zer egiten dok hor?* itaundurik, *Txit Santua oihanera sartu da* erantzun behar izateko. Denpora luzatzean, larritzen hasi nintzen, pentsatuz: *Tripa okatuak atzera jaten ete jiharduk?*

Noizbait agertu zenean, krimen batetik bueltan legez, sotana gerriraino eta, bera zen kuriosorako, hain zabarki multzoturik, bere matrailen gorritasuna nabarmendu jatan, begietako zaineria odoltsua eukaliptoaren argi-gerizetan galtzen baitzen. *Goazen, Gabin!* aginduz igo zen motorrera. Barrero be 'Gabin'. *Oihanera inkurtsinoak* –pentsatu neban– *ez jeutsak on handirik egin, antza*. Atzean doana, sarritan, motibo barik bildurtzea normala zela pentsatzen ahalegindu arren, ezin neban ekidin bizkorregi gindoazela sentitzerik, nondibait heldu beharra izateraino, baina ez nintzen ausartzen, ze berak ez eustan heltzen, aurrerago legez, ez be-launetan kolpetxorik emoten. Txarrena, ez ebala barbarik egiten. Bihurgune batzuk

beherago, zuzengune batek apur baterako lasaitu ninduenean, itauntzeko inkon-  
zientzia izan neban:

- *Asko falta da mendatea amaitzeko?*
- *Ez dakit. Laster jakingo dugu.*
- *Lasterregi be ez da komeni.*

Hortxe amaitu zen elkarrizketa. Mendatea be laster amaitu zen, onik,  
zorionez. Handik Bakioranzko ibar lau samarrak animaturik-edo, begitandu jatan  
edukazinoak neuri agintzen eustala solasa hornitzea, bai baitzirudien neu nintzela  
isiltasunak larritzen eban bakarra.

- *Muxil ustelak be saltzen direla, beraz.*
- *Nireek pozoituta behar ziaten. Ai ene ama, Begoñako eta beste!*
- *Itsasoa purgatzaile ona ei da.*
- *Itsasoa itsaso duk, besterik ezer ere ez.*
- *Ez da gitxi.*
- *Mendikume bat hasi behar al zaidak itsasoa zer den irakasten?*

Isiltzea hobetsi neban, bat-batean hiketara aldatze horrek bildurturik,  
Bakioko urigunean sartzen ari ginela, ez nengoen ziur nogaz berbetan nindoan,  
ez baineutsan bururik ikusten, hain kakoturik bera, noria txiki baltz bat irudi. Jada  
kaleetan zehar hondartzarantz, turisten begirakune ezustetuetan atzean mutiko  
bat zeroian abade makurra baino gehiago irudikatzen neban mutil pintoresko bat,  
gaztainak erretzeko makina txiki mekanizatu bat gidatzen, nahiz eta bazitekeen  
turisten begietatik ezer atera ezin izatea, suposatzen baita jende hori edozeri be-  
giratzeko programaturik irteten dela etxetik, benetako deskalabru kasuan ez bada.  
Orduan, alde paretik tximistan. Hondartza inguruko aparkalekuan, motorretik jai-  
tsiz batera dino:

- *Botikara nihoak.*
- *Ni non egongo naz? Berton?*
- *Nahi baduk, berton, nahi baduk, segi hondartzara.*
- *Elkar ez dogu galduko?*
- *Horixe onena, beharbada!*
- *Nik ez baitakit hemengo barri.*
- *Hik ez dakik ahuntzen berri besterik. Hago Cafetería Oxford jartzen duen horre-  
tan.*

Azken helbide hori joanean jaurti eban, beso bat mehatxu eran astinduz,

neuk ez nekusen baina sinistu beharra zegoen kafetegi hartarantz. Ikaratzen hasia  
nintzen, Don Eduardoren arteko kolore guri eta gorriska hari, motorretik jaitsieran,  
zurbilegi eritzi baineutsan, suge iruntsia bueltan baletorkio lege. Inori ez itaun-  
tzearren, buelta batzuk egin ondoren (bildur nintzen *non dago Oxford?* itaundurik,  
*hori Ingalaterran jakok!* entzuteko), noizbait aurkitu neban kartel hori-gorri bat,  
hizki berdeetan Oxford keinukaria eskaintzen ebana. Beirateriak be berde-ilunak  
zituenez, tentuz sartu nintzen, egunezkoa izango ez zen bildurrez, baina xarmatu  
nintzen begi guztiek jan beharrean hartu nidueenean, abade bat botikara bialdu  
nebala igarri balebe lege. Gero konturatu nintzen, ez lotsa txikiagaz, begirada  
insistente hareen atrakzinoa nire janzkera baltza izan zeitekeela. *Beharbada, egia  
izango dok hau ez dela abadegaien kluba.* Andereño polit batek zer nahi neban  
erdaraz itaundurik, *limonada txiki bat* esaten ausartu nintzen, merkeena bera izan-  
go zelakoan, eta poztu nintzen ulertutzakoa egin ebanean. Bazeitekeen 'limonada'  
berbatik orientatzea, baina 'txiki bat'? Zain nengoen txikia ala handia zekarren,  
nahiz eta jakin zentzuzkoena, lagun bakarrarentzat, txikia zela, baina zerbait behar  
neban, hain toki arrotzean, neure burua erosoago kokatzeko. Limonada txikia eka-  
rri eban, zorionez, eta hain irribarre mazala begitandu jatan ze, itauntzen ausartu  
nintzen:

- *Euskaraz badakizu?*
- *Jakingo ez dot, ba?*
- *Oh! Nasaitu handia emon deustazu.*
- *Zeuk ez dakizu erdaraz ala?*
- *Hori hobeto, nabilen lekuan ibilita!*
- *Orduan...*
- *Ezin naz trankil egon, euskarazko berbaren bat entzun arte. Zenbat da?*
- *Hiru erreal.*
- *Oraintxe nahiago neuke* —esatera joan nintzen, baina pentsatzea be ez zen gitxi—  
*abade botikaria zati batean etorririko ez balitz.*

Etorri be ez zetorren behingoan. Ni pozik ikusmiran, sartu-urtenak ob-  
serbatuz, autu arraroak espiatuz (ostua beti gozo), zerbitzari xarmantaren lantzean  
irribarre bat jasoz. Beste zerbitzari bat be agertu zen, politago begitandu jatana, ja-  
ramonik ez zegidalako seguruenik. Begiratzen uzten ebano, nire denpora dohatsua  
zen. Ikus-entzuten nebanari neuk eransten neutsan dekoratu nahikara aldakorra-  
gaz, filmik zoragarriena gozatzen ari nintzen, neure bazter isil eta ospelaren babe-  
setik. Trenaren pasatze eta guztiko sekuentzien filma aurrera zihoala (Bakion ez  
dago trenik, baina ni ohituta nengoen jaiotetxetik urrun-urrunean nekusen tren ñi-  
miñoa, kasik ke hutsetik bakarririk nerraiona, edononon agerrarazten, egoerari ondo  
bazetorkion), bigarren neskek *¿usted está servido?* itaundu eustan, hartua nintze-

nik ez zeki-elako baino areago –pentsatu neban–, kontsumizino bakarragaz denpora lartxo neroala ohartarazteko. Zorionez, laster jakingo neban lehenengoaren ahizta eta, beraz, euskalduna zela, baina jaramon egin eustanetik, ez jatan bestea baino politago begitantzen, seguruenik lehenengoaganako leialtasun eskertsua ez bigarrrentzeko basa senagaitik. Txanpon ondo neurtuak disimuluan birkontaturik, beste limonada bat lasai hartzeko beste baneukala ikusi neban, bigarren zerbitzariari eskatzekotan. Halantxe egin neban, *aizu*, beste limonada bat aterako deustazu, *mesedez?*, 'beste' hori garbi entzunarazten saiatuz. Saiakerak neu be ezustetu ninduen efektua izan bide eban, ateratzean esan baiteustan: *Hemen daukazu, fresko-freskoa!*, euskaraz eta irribarre onberaz. Orain gogohauste sentimental zailean katigatu nintzen, pensatu baineban bigarren ahiztak be merezi ebala lehenengoa bezain polit begitantzea. Neure sentsazioak, gratuitoak nahi badozu, baina egiazkoak (ustezkoak baziren be, txit plazergarriak, hor konpon!), ordenatzen beste atsegin intimo bat gozatzen niharduela, Don Eduardo agertu zen atean, sokamuturretik ihes egindako zezenko bat beiraterian sartzean lako oldar ofuskatuaz. Neu apur bat ez bistaratzera, nekez ikusiko ninduenari erreparatu zionez batera, ez bezeroei egun onik, ez ezagutzen zituela uste neban zerbitzariari agurrik, besotik heldu eta *goazen, Gabino!* hots egin eustan, kanporantz tiratuz, kasik arrastatu. Bezeroak atzetik abiatu jakuzen, eztanda imminenteren baten seinalea zelakoan, eta orain neu nintzen, sinisturik, Don Eduardori aurea hartu eta tiratzen neutsana, hari eta kanpoan, ustez salborik, *nora goaz?* itaundu neban arte, neure ihesaren zentzunagazko suspentsinoan.

– *Herrira itzuli behar nauk atoan* –argitu eban Don Eduardok–. *Eliztar bat hiltzorian jarri zaidak. Balitekek hainbesterako ez den alarma bat izatea, baina joan beharra diat, alkatearen ama duk eta.*

– *Neu be berorregaz itzuli beharko naz, orduan.*

– *Hi gelditu bertan! Honaino iritsi garenez gero, gozaik eguna itsasoagaz, eta arratsaldean zehar, badauzkak autobusak nahi adina.*

– *Nik kasik nahiago* –ikaratzen hasia nintzen– *berorregaz joatea. Hemen zer egin behar dot neuk bakarrik, ezer ez inor ezagutzen ez dodan herri urrun batean?*

– *Ez haiz galduko, muti! Azukrontziko eulia haiz ala?* –Bere tonuaren ezohiko zakartasunak gehiago bildurtu ninduen berben mingarritasunak baino–. *Itsasoak ez zaukak ezaguna izan beharrik laguntzat har hazan, distantziak errespetatzen badizkiot.*

– *Orduan, bazkaldu be bertan egin beharko dot?* –itaundu neban, nahiz eta susmatu bazkaldu barik etxeratzea erabagiko nebala, inork igarri barik.

– *Otarteke bat edonon emango diate.*

– *Gertatzen dena, gero autobusa hartzeko...*

– *Itauntzen badok, edonork esango dik. Bilbon ibiltzen jakin eta Bakion galduko*

*ote haiz?*

– *Galdu ez, baina ez dakit denerako izango dodan aa... dirurik!* –jaurti neban noiz-bait, gorgoiletik eskorpioia askatu baneu legez.

– *Eutsoz hoge hogerleko, eta aire!*

– *Hau lartxo ez al da?*

– *Gonbida itzak herriko herrenak eta herbalak* –agintzen dau jada abian–, *ebangelioiko pasartearen arabera.*

– *Eskerrik asko, Don Eduardo! Ahaleginduko naz* –agintzen dot, silabak, bera urrundu ahala, bakanduz eta ozenduz– *berorren eskuzabala ez iruzurtzen.*

Gure Txopek edo Don Eduardoren Gabintxok historia amaitutzat eman duenean, zerbait galdetu beharraren, baina zer garbi ez jakitearen suspentsio ergelean gelditu naiz, apur bat durditurik, dezente harriturik, erabat desorientaturik. Jakinik, edo beldur izanik, horrelako gogo-egoerek aurpegia kasik literalki, hots, ergeltasun gardenez markatzen dutela, ez zait gogoratu tabernara joatea proposatzea besterik, diru hartatik beste egintza ebangeliko bat burutzeko beste sobratuko zitziola eta. Izan ere, 20 hogerleko 100 pezeta dira, hots, 400 erreal, hots, 1.000 txakur handi (edo 'txori handi'; hau maitagarriago iruditzen zait), hots, 2.000 txakur txiki (edo 'txori txiki'; hauxe politena), hots, 10.000 zentimo. Txoperi bikain iruditu zaio berak ordaintzea Susanak prestatu digun gosaria, baina Susanak badaki abadeagaz datorrenari ez zaiola kobratu behar, batez ere "halako mutiltxo politari", eta nik badakit abadeari kobratzeko gelditu denari Susanak, hiltaren azkenean, 'kobratu antzeko bat' egingo diona. *Honelakoxe estimazino irabazi bakoan bizi gozak, Txope!*, diotsat mutilari, bere kondaira txokantearen eta Susanaren ontasun oparoaren baturak sortu didan hunkipen bortitz baina nebulosoan. Saiatzen naiz aurreko horma horiskan islaturik dakusdan neure aurpegiaren ergeltasun nabaria ezabatzen. Azkenean, galdekizun zehatzen faltan, auziaren gakora inguratzeke moduko enuntziazio negatibo bat bururatu zait.

– *Ez joat ulertzen Don Eduardoren jokaera. Gitxiago hire hasierako jarrera konplizea.*

– *Bigarren hori neuk be ez dot ondoegi ulertzen, baina Don Eduardorena, ziur.*

– *Behinena kontatzeko jagok, beraz?*

– *Behinena edo...gordianoa, beharbada.*

– *Ezin dela kontatu suposatuta beharrekoa?*

– *Zergaitik ez?*

– *Zeren zain hago, orduan, edo zeren zain naukak, katamalo hutsa baino marroago?*

– *Kontua da zuk eginiko iragarpenak amodio propioan sastatu ninduela, pentsatzen hasi bainintzen: "Zergaitik izan behar dau izatekoak Don Xabierrek iragarritako moduan? Zergaitik ez daiteke egin izatekoa beste era batera izan daiten?"*

- Iragarlea masokizatu guran ez bahabil, erantzunen zain najagok, ez galderen.
- Gertatzekoa iragartzeko hain argitasun zehatza zeukanak gertatua esplikatzeko gauza izan behar leuke.
- Jo naik inultizat, mesedez.
- Antz bat emoteko ahalegintxo bat ez al dozu egingo, zeu be abadea zarenez gero?
- Alkatearen ama hilzoritu zelakoa, telefono dei baten suposizio eta guzti, arrazoi askitza jo leitekek, Bakiotik hain supituan alde egiteko, baldin argumentua mendatean behera hasi ez balitz kraskatzen.
- Bero!
- Arteko oldar lizunaren berotasun gehiegiari eutsi ezinak behartu izango joan, motorra martxan eta hi taket utzirik, basabidean arrapaladan barruratzera.
- Oso bero!
- Kanpai urgenteren bat –hau dok zerrikeria!– jotzera?
- Hotz! Kanpaia jada mihin barik abiatu zen bihurtunetik.
- Orduan, txil!
- Txitxilina txil-txil-txil eginda joan zen.
- Hitz-joko infantila ulertzen joat, esanahaia ez.
- Pentsa zelan iltzuliko zen herrira, alkatearen ama hilzorian ipini behar izateko!
- Emoidak behingoz klabe bat, beroak, kanpaiak, hilak eta zoriak konbinatzen hasteko.
- Asuna!
- Gatx misteriosoak flagelazinoz osatzen dituen?
- Eta orain tortilan jateko nobedadea atera dabena.
- Propietate horreekin guztiak, oraindino ez joagu kasua esplikatzeko.
- Asmatzeko argitasunik edo maleziarik izan ez dozenez gero, entzutea dagokizu, baina ez dot uste parkamenik beharko denik.

Pentsa eizu sakelan asun-sorta bat daroadala, etxepeko saneamendu postuaren inguruan erauzitako landarerik ernegatuenekin. Halako tokian hazteko, espiritu gaiztoa behar da benetan. Begira, oraindino be, nire eskuma eskua zelan dagoen, baztanga gorria pasatzen legez, disimulatzen ahalegindu nintzen baina. Goizean, meza ostean, abadetxeko lorrinaldi haretan, bere paluari jarraitzen saiatu nintzen, repulstinoz lehenengotan, kezka berehala, gustua hartzen ari ete nintzen. Gero bidean, bere desio guztiak atsegintzea gitxiago kostatu jatan, ze, motorrean eta martxan, mirari handiak osatzea zaila izanez gainera, bera ez nekusen aurrez, hots, neu nintzen atzeko. Posizino horretatik badakizu egoerak beti be hobeto dominatzen direla. Eta, batez be, exzitazio ibiltari haren guztiaren amaiera modua neure esku sentitzeak egoeragazko nagusitasun osoa zemoztan. Mungiatik Larraurin zehar, Bakioko mendatea igoten hasi ginenean, artean esku ezker bakarririk neroala aktibo, eskuma be sotanaren sakela ertzeko ebaturatik sartu eragin eustan:

Antzar enbasatua lako paketeari nire esku biek heltzen eutsiela, eta eskuok bere ezkerrek galkatzen zituela (besteak motorra gidatu behar eban), bainujantzi estu eta labana ez dakit libratzea ala zulatzea lortua eban antzar-lepoa bandera bako masta gailen bat legez nabari neban pedestal bikotxean bermatua, bere burua, kuleto-hanka inbertitua, goranzko eta beheranzko igurtziekin, azal guztiaren tiran eta luze. Nik, arestian ninotsunez, gogotsu nerraien behin lepo, behin masta, behin riflearen kainoi iruditzen jatana koipetzen. Berehala, mendate gainea, txarkuteria haren guztiaren jabea, Don Eduardoren subjektua, paroxismo gailurbakarrerantz obnubilatzen sumatu neban. Jada aldasbeheran, amiltzeko arrisku nabariaz bildurturik, nire esku eskumak atzerantz egin eban (inor ez zen konturatu), ez luzarorako. Nire sakelako poltsatxo bat apurtu eta bertan zain zegoen asun-sorta amorratuagaz ahurra ondo-ondo igurtzirik (bai erretasuna nire izterrean!), eskua gogotsu itzuli zen igurzketara, bere lana bizi-bizi, gozo-gozo, oso-oso, txerarik morbosoenean jarraitzeko. Bat-batean, arteko masta gailen, dzunbakari, inflexiblea uzurtzen hasi zen fulminanteki, suak ikuturiko probeta plastikoa legez, harik eta, hurrengo bihurtunean, kolpeko zirin-larriaren atxakian, martxango motor gainea ni esku hutsik utzita, eukalipto usaintsuen arteko estarta traketsen gora oldartu zen arte, sotana arrastari eta nonahi katigakorra batzeko akordu bako arrapaladan, inork ez ikusteko zokondo probidentzialen batean, bere garbikuntza espezifikoa edo birkonpontze orokorra ezkututasun inbiolablez burutzera, alazo etorri jatan operazinoa berau, neure asun bero baina leialak sasitzara jaurtitzeko, eta ahurra, eukalipto baten gerrian igurtziz, bilo demoninoetatik garbitzeko, nahiz eta aldean geldituko jatan (begira esku hau oraintxe be zelan dagoen) erretasun sumin bezain zoriontsu bat, egundo ez baitot bizi izan, ezta biziko be seguruenik, hain atsegin biszeralik eta agortezinik, per omnia saecula saeculorum.

.....

Hor al zaudete? Zeuek jakingo duzue zergatik joan zineten. Niri ez dit lar ardura, baina badut jakin-min ziztrin bat nola landu zenuten horren adostasun unibertala ni bakarrik uzteko, neuk zuengandik alde egiteko aukerarik eman gabe, errazago izanez gainera, maiz desiatua nuen moduan. Azkenean, desio nuen egoeran nagoela esango duzue, baina horrek ez du kentzen zuen metodoa faltsua izan zenik. Zintzo hitz egingo dizuet, baita, zuek agian iraingarri iritzi arren, alaitasun ontologiko batez ere. Alai puntu altuan, alegia, ez bainaiz alferrik jan berri askari exzitantea, San Nikolas uharteko harkaitz gorenean, itsaso berjabea atzean, zuen lehorra aurrean, neure zahato maitea alboan. Eta, badaezpada, belar-likore more bat motxilan, egoerak konbustio biziagorik eska baleza. Apur batean ez dut uste, zeren mintzo natzaizue haitzaren leungune beroaren gaineko masturbazio sakon

baten hustasun estetikutik. Ez nago inorekin haserretzeko aldarlean. Uhartera etorri naiz, ea, ni lehorretik apartaturik, bisible egiten ausartzen zineten. Ez zintuztedan ikusten, eta aipatu askariaren efektu exzitantea alferrrik ez galtzea pentsatu dut, badakidalako, zueri astia eta kinada emanez gainera, ondorengo une, hutsune horretan, gauzarik ustegaitzenak ikusteko ahalmenak jotzen nauela. Susto handia hartuko nuke, agertuko bazinete, baina, behingoz, osoki segurtatu nahi dut zuen ezabapena ez dela izan ni traban egotearena. Erabakia hartzen duzuen bitartean, hartzeko moduan bazaudete, eskuzabal hitz egingo dizuet, lukuru asmo gabe. Zer-gatik ez zuekin hitz egin, Jainkoagaz egiten badut? Haregaz bezalatsu aurkitzen bainaiz zuekin, itxaronez itzulera, desiatuz atzerapena.

Pentsamena ariaraztea ere komeni zait, bakartasunak basa ez nazan. Ez da egoera guztiz berria, zeuekin ere maiz aritu izan bainintzen inor entzule ez zela, hots, unibertso entzule potentzial guztien aurrean, kantari furioso nintzenean. Aurrean zineten, eta ez nekusen inor, oraintxe bezala. Masa inpersonal bat; inexistentea, alegia; alferrekoa, funtsean. Sentsazio soil bat. Nahitaezko ere ez zen zuek bertan egotea, irratiz nerraien Helsinkiko kontzertuan bezala. Autoan nindoan Urbasan zehar, Helsinkiko orkestraren sintonian. Isilunean, ezul bat entzun zen, eta ezagutu egin nuen. Hurrengo akordearen espresiotik, ezula ez zitziola zuzendariari gustatu iruditu zitzaidan, baina izan zitekeen zeloengatik ere. Berdin dio. Zuek segi hortxe. Giza izateari buruzko nire filosofia oso latza da, baina majo bizi naiz, gaixotzeko desiatzen egoteraino, zertaz arduratu izatearren, drama baita dohakabe izateko motiborik ez aurkitzea. Zorionez, motiboak noiznahi sor litezke, kaka egitea gustatzen zaidalako jaten dudanean bezala. Gehiago kezkatzen ninduen gauerdiko oskarbi beltzean hegazkin batek, horizonte urrunetik hurbiltzen; begi handi bat, neugana zuzen. *Zer dok hau? Nora jatork hori?* Izadiak lasaitasuna zemaian, kontenplazioa. Gizadiak, exzitazioa, ofuskazioa.

Giza espeziearekiko nire sentiera halakoaren baikortasunera hurbiltzen zen, zeina eskela-orrietan lasaitzen baitzen, hainbeste etsai eliminatuak zirela ikusiz (hegazkin hori bertan jausiko balitz!). Jaiotza ugariekin, osterara, ez zen hainbeste kezkatzen, itxaroten baitzuen, hauek etsai efektibo bihurtzerako, bera eskela izango zela, beste guztiak aurretik hiltzeko zorte handiren bat gertatu ez bazen. Nire kasua ez da berdin-berdina, baina joan zineten, eta ez naiz argitasun bila txitxinduko. Lehenengoz zapaltzen duzuen hirian, batek barreka gurutzatu zaituzte, eta pentsatzen duzue: *Jente alai bizi dok hementxe!* Hala beste bat, eta bi, eta denak, eta erabakitzen duzue: *Ño! Hiri hauxe apenas dabilen bere senean.* Hiri horretan bertan, osterara, denek serio-serio gurutzatu zaituztete, eta normalena iruditu zaizue. Hor konpon zeuen inpresioekin. Iragan oro hobeia izan dadin, denborak amaitua behar duela dirudi. Pozten naiz nire urguilua neure gauzak kontatzeko bai-

no handiagoa izateaz, horrela solaskideen ezaxolak umilia nazan saihesten baitut.

Tragotik tragora ari naiz, onenean ez mozkortzeko, zuek ez bainauzue salbatuko, marea bertoraino igo dadinean. Ez dit ardura maitasuna hilezkor izateak; maitaleak hiltzeak izorratzen nau. Bai dela zirraragarri oroimenaren gainean ibiltzea, etorkizun apur bategaz. (Eta tragotxoagaz). Parentesia neuretzat zen. Zer esanik ez zenutenek amodioaz mintzo zineten. Baniotsuen ez zenutela justifikatzen ibili beharrik; baldin bazenuten, aterako zela. Alferrrik. *Maitia, nun zira, nik ez zaitut ikusten.* Ai aurpegi hori! Ez egin irribarrerik, ene maite, azkartu egiten nauzu eta. Hil zaitetz, neuk hauxe amaitu arte. Nire oraingoxe kasua zirudien. Hilak bazarete, ez dago zer esanik. Heriotza gogoan ez banu, bizitzeaz ahaztuko nintzateke. Nik ez dut denboragaz joan nahi. Doala bera, trenetik jaisten nintzenean bezala: *Joan, joan! Hor lehertuko zarie!* Denak jaisten baziren, ez nuen ezer aurreratzen. Horretarako, nahiago nuen neuk bakarrik jarraitzea trenean. Izar xarmagarri horiek elkarrengana gehiago ez hurbiltzea baliteke zulo beltzaren beldurreratik izatea. Badaezpada, unibertsoak nahiago du espantsio noragabeari ekin.

Nik Jainkoa aurkitzen baino errazago luke berak agertzen. Beharbada, ez du nahi aurki dezagun. Hura baden ez den ez naiz arduratzen, zeren, balitz, zertan aldatuko litzateke kontua? Nire umetako abadeek existitzen darraite, eta neu izan nintzen abadea aurkitzeko, esploratu egin behar dut. Eta aipatu dizuedan beste bizioa zer, bakarrik utzi nauzuenez gero? Egunean bi kanpaialdi eta mokordo bat, hau hil arte, seguruenik. Belauniko bizi baino nahiago dut kakaginan hil. Masturbazioa infidelitasuna ote? Lasaiago masturbatzearen ezkondu zirenen kasuan ere bai? Nire paroxismo sexualik gorena zen neure zakila xurgatzea, maitaleen sabeletik gora, ahoan glandeak mihiagaz bat egin ondoren. Horretan, maitaleekiko abantailan nintzen, baina alderantziz, eurek zuten abantaila. Beraz, parra. Hori bera, zakilaren luzapenak suge forma hartuz gero, glandea suge-buru dela, kreaioaren erreplikapena litzateke, baina errealityateari ezin diot eskatu irudimenak damaidan guztia. Eskertuko nuke orain dena bakarrean egin ahal izatea, eta saiatu ere egin izan naiz, uharteko akerraren aurrean, baina zakilaren uzkiarekiko posizioak ez du direkzioan laguntzen. Eta andreagaz? Elegante! Lantzean kanpaitxo bat joz, eskertzen dit bakean uztea.

Agurea makur-makur zihoan kalean trabes. *Zeren bila zabilz zoruan, gizontxo? – Hurbildu nahian bertara, azken kolpea handiegia izan ez daiten.* Okertzen ari zara, Mattin, hain txikia eta! Bo, oraindik behea urrun dago. Ez, ez! Ez da galduko. Hilzori luzea izango du. Orduan, euskaraz nola esaten da 'electron'? Ez da esaten, baina galdetu dizunez gero, hasi egingo gara esaten. Hasi gara, eta ezin dugu burutu. Euskara salbatzeko, euskaldunak akabatu behar dira. Zurezko hankadunari *hanka hoztu behar zaizu* esatea

bezala. Adintsu batek, lasterka, gehiago dirudi praktetara kaka eginda. Nondik zatoz? Nahiago dut ez gogoratu. Nora zoaz? Baneki! Udazken berankor horietako izadi magistrala. Zer egin dezaket mirakuluaren aurka? Horixe izan nahi nuke. Gero, zoriona. Horixe naiz. *Ai Bilbo, Bilbo! Ez dago Bilbo langorik.* Indautxun aparkatu, eta kafetxoa. Gobernu militarera, eta krianza bat eta lehen pintxoa, hotza. Gobernu zibilera, eta beste txikito bat eta pintxoa, oraingoan beroa. Corte Ingelesera, eta erreserba bat eta bi pintxo, hotza eta beroa. Guggenheimera, eta txakurrari txiza egin. Bai amorrua ematen diela horrek! Etxerantz, Bilbo konkistaturik, Requiem bat entzunez: Ockeghem, Lasso, Mozart, List, Berlioz, Schuman, Verdi, Dvorak, Britten, Stravinski, Penderecki, Benguerel, Azilu... aukera mortala. Hiri eder bat izan zen.

Ilargi erdiak nola egin dezake itzal osoa? Maitasunak daukanik onena bere posibilitatea da. Eskertzen dut maita nazaten, ez gutxiago, behar nazaten. Maitatzeko ez dakit zenbat era dauden, baina izorratzeko, badira batzuk. Auto stop egiten ari denaren aurretik, pasa zaitetz astiro-astiro, agur eginez, ezagutu duzula pentsarazteko moduan. Era efektiboagoa nahi baduzu, motel ezazu autoa footinglari azkar baten parean, eta galde ea eraman dezazun nahi duen, norabait heltzeko presa larrian doala ulertu bazenu bezala. Iraultza ez dakit posible den, baina beharrezko da. Botere bila dabilena baino izaki arriskutsuago bakarra bera daukana da. Zer berri Bizkai aldean? *Hortxe izorratu nok. Munduan galdetu baheu, baina Bizkaia handia dok!* Euskaldun gutxitxo, aukeran. *Oh! Euskaldungoa dok tribu bat, tribuago izanez gozatzen dauena.* Hori dok egoerari zukuia ateratzea! Euli harrapatua (kostata, gainera) leihotik bizirik jaurti badut, ez da izan bihozkorra naizelako, hura ahurrean txikitzearen higuina ekiditearren baizik. Higuin dut biolentzia bisualdu gabe egin ezin den artea. Higuinago, bere arreta obra baten alderdi biolentoezin hobeto irabazten den publikoa.

Zuek segi zeuen atsedean inkontzientean. Heriotzari buruz, onena da, metodologikoki, amaiera totala dela suposatzea. Bestela, zalantza, angustia, fede atormentatua... zenbat denbora jan behar zaion bizitzari! Gailur hartantxe nor egon litekeen! Handik, beste bat gorago. Hurrengoan ere ezin egon. Azkenean, Everestera iritsi zara, eta berehala zatoz beherantz, erratu bazina bezala. Neu ere noizean behin deskuidatzen naiz, humanoa naizela frogatzeko. Telefono horiek bezala, zenbakiz erratu zarenean bakarrik erantzuten dizutenak. Mundu guztiaren jabetzak neure territoriora gehiago mugarazi banau, horrek esan nahi du grina ez zela hainbeste mundua konkistatzea, zueri kentzea baizik. Orain ez dut behar, baina bai hartzen dut falta hainbeste istripu larri ezin ospatzearena, neureak ez zirelako. Unibertsoa kontzientzia barik ezin imajinatzearen arrazoï nagusia ez ote zen kontzientzia hori norbera ez izateko posibilitate alua? Ezin nuen jasan ezer handirik izan zedin kontzientzia gabe, eta are gutxiago, kontzientzia hori neu ez

izatea. Hots, izorratzen ninduen pentsatzeak ilargia prest zegoela nire kontzientzia gabe jarraitzeko. Suposatzen nuen izango zituela beste batzuen kontzientziak, baina horrek gehiago izorratzen ninduen. Eskertzen dizuet joan izana. Poetak ezin du errealtaterik ezagutu, beti haragoko erlazioen bila. Osoaren jabe gelditu naitzenean, ez daukat argi errealtateak 'haragorik' baduenik. Beharbada, dena izango zen errealtateari ez zitzaiolako ikusten beragandiko ebasioaz beste zentzurik. Errealismoa? Ahate bat alboz marraztu duzunean, haurtxoak galdetu du: *Eta beste begia?* Artea. Neuk egiten ez dakidan edozer geniala iruditzen zait.

Ba, bai! Heriotzak azkenean beti du arrazoia, eta zer? Onena joanda badago, txarrena ahalik ondoen pasatzea bakarrik geratzen da. Heriotza hilezkortasunera iragaitza bada, oraintxe bakarrik bizi dezaket hilkortasunaren sentipen intentsoa. *Ez daukazu bihotzik!* Ez dio ardura. Nik gibelagaz sentitzen dut. Zuhaitz adarrak neguan biluz, eder, elurrez xuri. Bai edertasunaren diseinu konbintzen-tea! Gogoa ilun denean, adar horiek beso desesperatuak dira, gorputzetik eskapatu nahian. Ikusten gibela nola den sentitzeko gauza? Tokiek sentiberatzen naute, eurretan utziak ditudan sentimenduen arabera. Bazterrak miatzea ere maiten nuen, mugikorra belarrian nuela, disimulatzen. Aurikularrak ere bai. Brun, brun, brun! Musika batzuk pabilioi metalezkoak desmuntatzen bezalakoak ziren. Edo eraisten! Takoi altuekin edo oinetako estrabaganteekin zorua zigortzen. Zenbat ahalegintzen ginen munduko ibilera zailtzen, berez errazegia balitz bezala! Ez naiz arduratzen zoriontsu izateko zer behar den, ez baitut behar zorionik. Heriotza dohatsu bakarra bizitzaren dezeptiotik bada, nirea dohakabea dateke. Edo ez, zeren hurrengo une dohatsuaren garantiarik onena aurreko une dohatsua bada, azken uneak ere dohatsua izan behar du.

Ba, ez! Ez nago guztiz bakarrik. Heriotza. Inguruan hur-hur dabilen, baina non zehazki ez dakidan organismo hori. Desio nuke gerta ledin halako une minberan, 'triste' edo 'melankoliko' baino zabalagoan, non beragaz topo egin guran aurki nendin. Bi zuhaitz-lerroren sarrera-arkuak *Herio Etorbidea* dioen nabe itzaltsuan barnatu naiz, milaka musika egokietako bat entzunez, esaterako, *Bozkarioaren Oda* edo *Maitia nun zira*. Nabe luze-luzea, eten-unea barik, une jarraikorra. Sartzetik laster, tuneletako oharretan bezala, dio: *Herio Etorbidea zeharkatzen ari zara*. Harago beste bat: *Zeharkatzen ari zara*. Harago: *Ari zara*. Azkenik: *Zara*. Halako eran guztia, non neuk nahita sartu eta zeharkatzen dudana, eta bere ardura ez-itzulera bakarrik den. Hor al zaudete?